
BOOKTEGI
Pamanoren ahotsak
JAUME CABRÉ
itzulpena:
Jexuxmari Zalakain Garaikoetxea

BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

JAUME CABRÉ

Pamanoren ahotsak

Margaritari

Aita, ez barkatu, badakite zer egiten duten-eta

VLADIMIR JANKÉLÉVITCH

Itzulpena:
Jexuxmari Zalakain Garaikoetxea

Oso eskasa izan zen zarata. Norbaitek atea laztandu izan balu bezala. Isilka ireki eta esku guantedun batek barrutik oratu zion eskutokiari, zaratarik atera ez zezan. Entzun ezinezko hatsankaz itxi zen atea. Norbait, ilun, pisuaren iluntasunean ari zen mugitzen. Juriren begiek, gauera ohituak berauk, isilik jarraitu zioten. Etorri-berria estudioan sartu zen. Pertsiana altxatuta utzia zuten eta madarikatzen hasi zen. Kristalaren beste aldera, paisaia hozten zuen aire polarraren ezusteko erauntsiak probokatutako elur-malutek isilago bihurtzen zuten gaueko panorama. Ibaiaren marmarra ere ez zen entzuten. Pertsiana ez jaistea hobetsi zuen, inork, inolako zirkunstantziatan, ez baitzuen jakin behar bera pisu hartara sartua zela gau hartan.

Ordenagailuaren aurrean amorruzko hasperenarekin eseri, kartera lurrean, aulkiaren ondoan, utzi eta aparailua abiatu zuen etorri-berriak. Mahaia ordena txukunean zegoela konturatu zen eta bazekien hark zereginean lagunduko ziola. Jurik estudioraino jarraitu zion intrusoari, eta hari beha zegoen, are isilago, ate ondotik. Pantailaren argi urdinskak gela bete zuen eta etorri-berriak desiratu zuen ez kale bakartitik, ez pisuko beste aldetik inor ez jabetzea argitasun ahul eta hotz hartaz. “Egun on. Jatekoa hozkailuaren gaineko armairuan dago. Eskerrik asko denagatik”, zioen pantailaren alde batean itsatsitako post-it batek. Karpetak berrikusten hasi zen. Jakaren poltsikotik diskete-kutxa bat atera eta artxiboak kopiatzen hasi zen pazientziaz. Eraikineko tokiren batean norbaitek eztul egin zuen, eta kalkulatu zuen beheko auzoak izango zirela, saraoren batetik bueltan, lainotuta, aspertuta, nekatuta, hortzen artean marmarka, ez zeudela adinean segun eta zertarako. Seguru aski elurraren erruz martxa mantsotutako auto batek gauaren isiltasuna urratu zuen. Zergatik dabiltza hain mantso ordenagailuak, presa dagoenean. Zergatik egiten dute hainbeste buila, isilak direla diotenean. Orduan telefono baten hotsa entzun zen eta geldi geratu zen harkaitz bat bezala; lanaren erdian egon arren, ordenagailua itzali eta izerdi-tanta bat irristatu zitzaion sudurrean behera. Ez zuen xukatu, bera ez baitzen existitzen. Mugimendurik batere ez pisuaren beste aldean.

—Orain ezin dut hartu. Utzi mezua, seinalea entzun eta gero.

—Aizu, ezin izango naizela goizean etorri, harlauza-karga bat atera baitzait Trempen, eta alaba tente jarri zait. Ez sufritu, eguerdian pasatuko naiz, bazkaldu aurretik. Agur. Zorte on eta musu bat. Bisitan etorriko natzaizu. A, eta arrazoia daukazu: entzuten da, bai, Pamanoren xuxurla.

Bip, bip. Agur. Gizon baten ahotsa, mendialde hartako kutsukoa, tabakoak eta kafe ttanttodunak lakartuta, biharamunari buruz konfiantzaz mintzo zena. Ezezagunak segundo batzuk itxaron zituen ateren bat irekiko ote zen. Ezer ez. Inor ez. Zortez berarentzat, Jurik erabakia zuen ez delatatzea eta bere higiezintasunean ezkutatuta jarraitzen zuen. Telefono-hotsaren oroimena lausotu zenean, gai izan zenean gauza guztien formen gainean elur-malutak nola gelditzen ziren ostera sentitzeko, orduan ezezagunak arnasa aske hartzen hasi eta ostera piztu zuen ordenagailua.

Zer egin ondo jakin gabe aldendu zen Juri estudioko atetik eta momentuz egongelan ezkutatu zen, estudiotik iritsi ziezaiokeen edozein zurrumurruren atezuan.

Intrusoa berriro lotu zitzaion lanari. Bost karpeta bete zituen O.F. inizialak zeramatzaten karpetetako artxiboekin, eta beste batzuekin badaezpada ere. Bukatutakoan, ordenagailuaren paper-ontzira hustu zituen artxibo haiek guztiak. Ez haien, ez beste ezein karpetaren trazarik

gera ez zedin ziurtatu zuen. Orduan birusa zeraman beste diskete bat sartu, atera eta ordenagailua amatutu zuen.

Linterna piztu eta ahoan ipini zuen eskuak libre edukitzeko. Mahaiko artxibadorean ez zitzaion batere zail egin interesatzen zitzaizkion hiru karpetak hustea. Paperak, argazkiak, dosier-karpetak ziren. Dena bere karpetan sartu eta artxibadorea itxi zuen. Lurrean, hormaren alde batean, maletatxo gorri bat. Ireki egin zuen. Norbait bidaian balihoa bezala. Arduraz arakatu zuen: ezer interesgarririk ez. Itxi eta aurkitu zuen bezala utzi zuen. Irten aurretik tiraderak berriro arakatzea otu zitzaion, badaezpada ere. Eta kaxa bat. Irten eta izerdi-kolpea kontzentratu zitzaion kopetan. Etxebizitzaren beste aldean hasperen penatua entzun zela otu zitzaion.

Eskailerako atea ixtean bazekien ez zuela utzi bere presentziaren aztarnarik, bazekien lana egiteko hamabost bat minutu behar izan zituela, eta egunsentiak gero eta urrutiago harrapatu, hainbat hobeto.

Bakarrik sentitu orduko, estudio ilunean sartu zen Juri. Dena beti bezala zegoela ematen zuen, baina angustia sentitzen zuen bere baitan. Zirkunstantzien mailan egon ez izanaren sentsazio arrotza bailitzan.

Lehen zatia

TXORRUAREN HEGALDIA

Izen etzanak lorez estaliak.

Joan Vinyoli

Gure Jaun Jesukristoren 2002. urteko martxoaren 30eko ostiral goizeko bederatzietan, egun hain seinalatuan, hain desiratuan, munduko txoko guztietatik Vatikanoko Plazara etorritako jendearen begiak antsiaz iltzatuta daude leiho zintzilikarioz apainduan, nondik aitasantuak urbi et orbi bedeinkapena emango duen. Udaberria estreinatua izan den arren, deabruzko hotza egiten du pontifize gorenaren agerkunderako prest dauden bihotzen debozioa mozteko asmoz Via della Conciliazzioneren barrena Tiberretik igo eta plazan bixi-bixi garaile sartzen den aire izoztu eta doilorraren erruz. Zapiak dantzan, mafrundituengatik edo emozioengatik. Leihoa mugitu egiten da, barrurantz irekitzen diren balkoitzarreko leiharren bat-bateko islarekin. Mikro bat, apaiz arduratsu bat dagokion altueran ezarriz eta Joan Paulo II.a aita santuaren figura uzkurtua, txuri aratzez jantzia, hitz erabat ulergaitzak esaten dituena jendeak zintz egiteari utzi dion arren. Eta orduan bedeinkapena. Alaitasunez negarretan daude lau monja gineatar, plazako harlauza bustietan belauniko. Mosen Rellak buru duen taldeak, oso ondo kokatuta aita santuaren leihoaren lerroan, isiltasun pixka bat deserosoa gordetzen du fidel batzuen efusio gutxi-asko supertitziotsuengatik, zeinek eskuetan gurutzatutako errosario bat astintzen duten edota aitasantuaren bi euroko erretratuari muin ematen dioten edo unea hilezkortuko duen argazkia egiten duten. Mosen Rellak keinu bat egiten du, aterako diogu etekina edo tankerako zerbait, eta erlojuari begiratzen dio. Agudo ibili beharra dago ordu erdi barru Sant'Uffizio plazan egon nahi badute. Aita santuaren figura, bedeinkapenaren ondoren, medikuek arrastatuta desagertu orduko, mosen Rellak besoa altxatu eta, jendearen artean, norabidea markatzen du, Vaticanoko sasitza lodian aterki gorriaren eraginez bidea zabaltzeko prest. Berrogeita hamar emakumek eta hamahiru gizonek gizaki bakarra balira bezala jarraitzen diote aterkiaren norabideari. Gainerako jendea gutxika zirkulatzen hasten da, hainbeste aldiz amestutako lekua uzteak desatsegina ekarriko balio bezala.

Leiho belzturiko berlina bat felinoen antzera doa Porta Angelica kaletik, eskubira hartu eta Belvedere kaleko kontrolean geratzen da. Bi gizonezko, gorreriako aparailuak belarrietan, betaurreko ilun eta garondo garbikoak berauk, alde banatan bat, betazal-mugimendu kalkulatuekin bezala dotore jaisten diren leihoetara oldartzen dira. Aldi berean zutitu eta pasatzen uzteko seinalea egiten dute. Haietako batek, ordea, urrats bizkorrez laguntzen dio berlinari aparkatuko duen lekuraino, Posta kalean. Hormatik ateratako atezain vatikanoar batek berlinaren eskuineko atea irekitzen du. Palazzo Apastolikoaren atarian genizaroz mozorrotutako goardia suitzar batek adiera ematen du bere inguruko munduak ez duela garrantziarik eta aurrerantz begiratzen du, kontroleko eraikinerantz, aitorrezinezko sekretuak aurkitu nahi balitu bezala. Oin txukun batzuk, zilarrezko hebilladun zapata erabat beltzetan sartuak, berlinatik atera eta lurrean bermatzen dira, bigunki.

Protokoloak eskatu bezala, datari dagokionez, Vaticanoko San Pedro elizan ospatuko da meza, Erritoen Kongregazio osoaren presentziaz. Zuhurtziak hala eskaturik, gonbidatu berezi guztiak zeremonia baino hiru ordu lehenago deituak izan dira zirrikitu ñimiñoena ekiditeko, zeren Eliza Santu, Katoliko, Apostoliko eta Erromatarrak mendeetan zehar ongi ikasi duen gazua bat izan baita edozein zeremonia-mota ospakizunaren garrantziari dagokion oparotasunarekin imaginatu, antolatu eta bideratzea.

Dena beltzez jantzita, silueta mehar eta zuzena, laurogeita zazpi urteak gorabehera, kapelu diskretu bezain dotore asko batek estalia, semea eta errain ohia alde banatan ipintzeko zain dago. Halako hoztasun nekatuarekin, plazatik datorkien builatik aldentzen da, non jendeak jakin gabe oldea osatzen duen. Atezainaren atzetik atera den kaporalarekin izapideak konpontzen ari da Gasull.

—Non sartu da Sergi –begirada lehorrez aurrerantz so eginez esaten du, galdera flexionatzeko molestatu gabe.

—Hemen dago, amatxo –Marcelen erantzun idorra. Non nahi duzu egotea?

Sergi urrats batzuk atzeratu eta zigarro bat piztu zuen, aurreikusiz han barruan ez ziotela sekula pipada bat egiten utziko.

—Ez dut entzuten.

Galdetzen molestatuko bazina, pentsatzen du Mertxek, ezin baitu disimulatu goizeko lehen orduetatik ipini duen sagar gazi-aurpegia. Baina zuk ez diozu sekula galdetuko edozer gauza edozeini eta ez duzu burua itzuliko inor bilatuz, ez baituzu lepoa zimurtzerik nahi. Besteak baitira aurrean ipintzen bukatzen dutenak.

—Zer? –damak, Gasulli.

—Hemen da. Dena konponduta.

Bost laguneko paketeak, 35Z kontroleko zenbakiarekin, Palazzoko atetzarra gainditzen du ospakizuna baino hiru ordu lehenago.

Santa Clara gela espaziotsua da, barruko patio zabal batera ematen duen hiru balkoitzarretatik sartutako argi nagiak lehunki argiztatua, nondik bularrean diagonalean ipinitako banda horiak ezohiki apaindutako gizon batek zirkulatzen duen, presaturik, festa-tankerarik gabe jantzitako hiritar bat aurretik duela eta beso erdi luzatuz ate bat seinalatzen diona. Balkoitzarraren beste txokoan, hemisferio itzel eta ilun batek gizateriak XVII. mendean Lurrari buruz zekiena erakusten du. Eta haren aldamenean, isats-pianoa, gela hartan ezohikoa, musika-tresnek mutu daudenean erakusten duten aire elukubratiboarekin.

Protokoloaren arduradunak, dama-tankeran beltzez jantzitako gizon zimel batek, seguru aski apaiz bat, ulertuko ez diotela dakien jendearentzat ahopeko italieraz, eser daitezela esaten die, beren etxean daudela, orain itxarotea besterik ez dagoela-eta, pianotik hurbil dagoen atea irekiz gero bainugela aurkituko dutela euren zerbitzura. Oraindik lekuaz jabetzen ari direlarik, adin ertaineko emakume batek, probableki monja batek, lehen platerez eta edari zehazki antialkoholikoz betetako gurditxoa sarrarazi du, eta gizon iharrak Gassulli esaten dio ekitaldia baino ordu bat lehenago gurditxoa erretiratuko dutela, eta ulertuko didazue zergatik.

Damak, butaka zabal batean eseri, hankak elkartuta, eta begiak gelaren sakonera bideratzen ditu, zerbait ikusiko balu bezala, gainerako guztiek imita dezaten itxaroten. Barrutik oso tentso dago, bere bihotz ahulak jasan dezakeen beste. Baina ez du uzten ez bere semea, ez bere errain ohia, ez balkoein artean dabilen biloba indiferentea, ez Gasull abokatua, konturatu daitezen urduri dagoela, ia-ia angustiatuta sofa erosoan eserita Santa Clarako gela zabalean, Vatikanoko Palazzo Apostolikoan. Damak badaki gaurkoa pasa eta gero bakean hil daitekeela. Eskua bularrean ipintzen du lepotik zintzilik daraman gurutzetxoaren ukitua

sentitzeko. Badaki gaur bukatzen direla hirurogei urteko angustiak, eta ez da gai aitortzeko beharbada berarentzat hobe zatekeela beste bizimodu bat bizi izana.

1

Haren izena ahanzturan lur eman zuten egunean jende gutxi zegoen kalean. Euria ez eginda ere gutxi egongo zen, gehienek erabaki baitzuten zerikusirik ez zutela, eta ezkutuko leiho batetik edota ortuaren itxituratik bertatik jarraitzen zuten ekitaldia hainbeste malko gogora ekarriz. Alkateak erabakita zeukan, euria euri, zeremonia egin egingo zela; ez zuen aitortu borondate politikoko kolpe haren sakoneko arrazoia zela Sorten geratuta zegoela bezero batekin, eta arroz saldatsua zeukatela zain Rendé Enean, zeinarekin jada ametsetan zegoen. Baina bera Bringuetar bat zen eta argi utzi nahi zion herri osoari, Gravat etxeari ere bai, ekitaldi hura dilubiopean ere egin egingo zela. Aldaketa egin zuten, beraz, alkatearen, zinegotzien eta idazkariaren aurrean, eta bi boluntario turista galduen aurrean zeinek, inpermeablea soinean, ez zekiten zer zen hura dena baina goi-mendietako biztanleen ohitura apartei buruzko argazkiak egiten aritu ziren etengabe, eta Serrallac derrigorrezkoaren aurrean, eta Bascones andrearen aurrean, zeinak inork ez zekien, Jainko maitea, zer egiten zuen han holako ekitaldi batean. Frenokolopexia. Jaume Serrallacek egin zituen marmor gris argiko eta letra beltzeko lau plaka ederrak, zeinen dotoreziak kale bikainagoak, horma osoagoak eta herri beteagoa eskatzen zuen. “Carrer President Francesc Macia” jarri zuten “Calle Generalísimo Franco” ordezkatuz. “Carrer Major”, “Calle Jose Antonio” estaliz, “Plaça Major”, “Plaza de España” ordezkatuz, eta “Carrer del Mig”, “Calle Falangista Fontelles” ordez. Dena prest zegoelarik, zuloak prest eta Serrallac, ipurdia zurituta eta negozioa puri-purian diktaduraren amaieran gertaturiko hainbeste aldaketa zirela medio, dena joan zen erraz baino errazago. Plaka hura, Fontelles falangistarena, bere tokitik ateratzea zaila bilakatu zelarik, mazo baten kolpez birrindu zuen hormaren beraren kontra. Gero, Batalla etxe aurrean zegoen edukiontzira bota zituen historia tristearen zatiak. Fontelles falangistaren zatiak oihu mutu eta inpotentea egin eta Gravat etxeko atartetik zetorren intziri ia entzun ezinezkoarekin batu ziren, eskudelari heltzen zion eta inork, katuek izan ezik, haztatu ez zuten figura tentso eta mugigaitzarekin. Bi atso zaharrek, bat oso zaharra, Rasaren gainetik jarraitu zuten zeremonia, oso ondo abrigatuta. Ziurtatu zutenean Serrallacek txiki-txiki egin zuela plaka zaharra, gutxika-gutxika jaitsi ziren Erdiko kalera, besoa besoan, fatxada, leiho, ate guztiei begiratuz, eta aldian behin iruzkin labur, intimo bat eginez, etxe-barnetatik begira zeuzkaten begi askok eragiten zien asaldura disimulatzeko, behar bada beren kaleetatik kendutako plaken zeremonia espiatu zuten inpunitate berberarekin.

Edukiontzira iritsita, barnera begiratu zuten, zerbait konstatatu behar balute bezala. Autoritateen taldea bazihoan Francesc Macia kaletik Major plazaraino, azken aldaketa programatua egitera, eta non alkate jaunak aurrreikusita zeukan lau hitz esatea betiko izenak berrezartzeak adierazten zuen adiskidetze-espirituari buruz. Une hartatik, kale-zati hartako ohiko isiltasuna berreskuratuta, aurrerantzean Torenan inork ez zuen Oriolengan pentsatu, eta etxe guztietatik alibiozko hasperen isila atera zen, denek pentsatzen zutelako, behingoz desagertu da hainbeste tirabiren sinboloa. Gravat etxeko portxean betaurrekoak garbitzen eta pentsatzen ari zen itzal hark izan ezik, ikusiko duzue zuek zein den barre egiten azkena, herrian inork ez zuen ostera Oriol Fontellesengan pentsatu, harik eta hogeita lau urte geroago, eskola zaharreko eraikin bakarti eta alferrikakoa eraisteaz mintzatzen hasi zen arte, hogei eta batgarren mendeari herri txukunago batekin aurre egiteko.

Espero zitekeenez, Sorteko eskolako zuzendari andereak Tina Brosi eskatu zion Torenara igo eta eskola zaharreko eraikinaren gauzen artean mutur ofiziala sartzeko, eskolako materialen

garapenari buruzko erakusketa bat irudikatzen ari baitziren, eta seguru aurkikuntzak egin zitezkeela eraikin txiki hartan. Material zaharkitua eta holako gauzak. Liburua prestatzen ari zenez, eskolako ikertzaile ofizialtzat hartu zuten. Beraz Tinak, burua beste toki batean zeukalarik, gogoz kontra igo behar izan zuen Torenara, hiru egunetan bigarren aldiz, bere ezohiko Doscaballos gorrian. Ez zeukan jakiterik hogeita lau urte lehenago Carrer del Migen jatorrizko izena berrezarri zuen plazapean aparkatezen ari zenik, eskolako giltzak eskatu zituen udaletxean, han esan zioten ez zeuzkatela, igeltseroak lanean ari zirela jadanik, eta eraikinaren aurrera iritsi zenean, Triador bizkarreko bidearen aldetik azken etxera, harlauzaz harlauza, zorua desmuntatzen ari zirela topatu zuen. Gehiegi pentsatu gabe, makina txikia, film sentikorrekoa, hartu, eta, ilunabarreko argitasun zalantzazkoa probestuz, eraikinaren hiru bat-bateko argazki hartu zituen. Ezeinetan ez zituen igeltseroak lauzatuan igota enkoadratu. Agian argazki haietakoren bat balioko zukeen libururako. Agian bai. Zorionez, igeltseroak komunen aldetik hasi ziren. Astia izan zuen gelako bi armairuak mugitzeko, astia urte askotako hautsaren belztura oretsuarekin eskuak zikintzeko, baliorik gabeko paper-pila kitatu zuen, pedagogia prehistorikoan sortu baina erakusketarako bere xarma zeukaten dozena bat liburu indultatu zituen eta eraikin hura hutsera kondenatzen hasiak ziren igeltseroen mazoaren zarata entzun zuen. Bildutako material guztia nasai asko kabitzen zitzaion Sortetik igotako kartoizko kutxan. Luze egon zen, begiak irekita, leihotik urruti begiratuz, eskolatik irtetean egin nahi zuena duintasun propioaren kontrako erasoa ez ote zen pentsatuz. Ziur aski, bazen; baina Jordik ez zion beste irtenbiderik utzi. Beste bi minutu ahoa zabalik; ihesbiderik ez. Zergatik Jordi zen bezalakoa zen; zergatik Arnau zen bezalakoa zen, jainkoarren. Zergatik etxean ez zuten sekula ezertaz hitz egiten, zergatik ziren hain itxiak, zergatik Arnau gero eta urrutiago zegoen, hainbeste ezen egunak ematen baitzituen etxetik kanpo eta huskeriak baino ez zituen esaten konpainiei buruz. Pentsamendu mikatz haien ondotik, hasperen egin zuen, begiak jaitsi eta Torenako eskola hutsean zegoen. Ahalegin handia egin zuen bietaz, batik bat Jordiz, ez pentsatzeko. Maistraren tiraderetan begiratzea otu zitzaion orduan. Lehenengoan, hura irekitzean iheska atera ziren ikusezinezko gogorapen-andanaz gain, arkatz bati muturra zorroztu zion haietako norbaiten lau txirbil geratzen ziren oraindik. Beste bietan ez zen ezer geratzen, gogorapenak ere ez. Beira zikinetan zehar eguna nagikeriaz itzalten ari zen eta bat-batean jabetu zen bazela aspaldi mazo-kolpeak bukatuak zirela.

Arbelean klarion erdi marruskatua zegoen. Hartu eta ezin izan zion erabiltzeko gogoari eutsi; maistra bati zegokion kaligrafia onez idatzi zuen data: asteazkena, 2001eko martxoaren 13a. Eta itzuli zen pipiak jotako pupitreetan umeak baleude bezala negu hartan egin behar zutena azaltzeko. Baina aho zabalik geratu zen zeren, sakonean, gelako ateari eutsiz, bizarra gaizki egindako igeltsero bat ere ahoa bete hortz geratu baitzen, ahoan zigarrotxoa, puru-kaxa bat esku batean, eta bestean kanpin-gas bat zeuzkala. Baina, erreakzionatzen lehena izan zen:

—Andereño... Gu bagoaz hemendik, ez dugu elkar ikusi ere egiten-eta. Emango al diozu buelta giltzari?

Hurbildu zen lanpararekin, argiarekin eta hautes zuritutako tejanoari lotutako giltza-sortarekin, eta Tinari iruditu zitzaion libreta ekartzera zetorkion haur bat zela, eta bera bizitza osoko eskola hartako maistra. Igeltseroak mahai gainean utzi zuen puru-kaxa.

—Hau arbelaren atzean aurkitu dugu.

—Arbel honen atzean?

Igeltseroa arbelari hurbildu eta albo batera korriarazi zuen horman finkatuta zegoela zirudien arren; intziri mindu batekin alde batera bi arra bete irristatu, eta hutsune ilun bat utzi zuen agerian. Lanpara hurbildu zuen.

—Hemen barruan.

Igeltseroak bere tokian utzi zuen ostera arbela.

—Umeen koadernoak dira –esan zuen. Eta bi kolpetxo eman zizkion kaxari. Ondo kontserbatutako puru-kaxa bat zen, listari beltz batekin lotuta.

—Gorde dezaket?

—Botatzeko nengoen.

—Utziko al didazu kanpin-gasa?

—Hemen geratu nahi baduzu hotzez uzkurtuko zara, adierazi zuen besteak argia eskainiz.

—Aski abrigatuta nator –lanparagatik…. Eskerrik asko.

—Bazoazenean, giltzez itxi eta utzi lanpara sarreran. Aurkituko dugu bihar.

—Zenbat behar duzue hau eraisteko?

—Bihar dena eginda egongo da. Gaur lana prestatu besterik ez dugu egin. Huskeria bat da eraiste hau.

Eta marinel batek bezala agurtu zuen, hatzamar nagi bat lokian jarriz. Bat-batean itxi eta bere eta bi lagunen arteko berriketaldia lausotzen joan zen leiho zikinean zehar, harik eta hain isilik geratu zen dena, gutxigatik ez baitziren Elvira Lluís, lehen lerroan egon eta duela laurogeita hamar urte tisiko hil zen neskatoaren eztulak entzun. Ingurura begiratu zuen Tinak. Kanpin-gasaren lanparak beste itzal ezezagun batzuk isurtzen zituen. Huskeria bat da eraiste hau, pentsatu zuen. Zenbat ume-belaunaldik ikasi ote du hemen irakurtzen eta idazten, pentsatu zuen. Egun bakar batean dena lurrera, egin zuen hasperen.

Mahaira itzuli eta jabetu zen igeltseroak san Kirinok baino arrazoi handiagoa zuela: gela hura izozgela bat zen. Eta egunaren argia gero eta azkarrago huts egiten ari zen. Maixuaren mahai gainean lanpara utzi eta pirataren altxorrean pentsatu zuen. Imajina ezazu eskola diamanteak barruan zeuzkala eraitsi dugula, pentsatu zuen... Listari beltza desegin eta tapa ireki zuen: kolore urdin argi edo berde argiko kuadernoak ziren diamanteak, ez zen garbi bereizten, *Kuaderno* hitza diagonalean idatzita zeukaten, inprentako kaligrafia beltzez. Umeen koadernoak. Bi, hiru, lau koaderno. Lastima diamanteak ez izatea, egin zuen hasperen. Eta ziztadatxoa, berriro han, puntual.

Bat ireki zuen: berehala erakarri zion atentzioa letra ordenatuak, harmoniotsuak, irakurterrazak, orri guztiak goitik behera betetzen zituenak. Eta aldian behin, ilustrazioren bat. Lau koadernoak berdinak ziren. Lehen koadernoan, aurpegi bat. Berak ez zekien, baina Oriolen autoerretratua zen, mutikoen komunetako ispilu aurrean egina. Begirada tristeko gizon bat. Bigarrenean etxe bat, azpian idazki hau zeukana: “Gravat etxea”. Hirugarrenean, ea ikusi…, eliza bat. Torenako San Pedroko eliza. Eta springer spaniel tipoko zakur bat, Tinak sekula ikusi gabeko begi tristeekin, eta seguru asko Akiles zeritzana. Eta azken koadernoan, emakume baten erretratuaren zirriborroa, hasita, aldatuta, hamaika aldiz zuzendu eta erdi eginik utzita, ezpainik gabea eta begi hustuekin; Serrallacek bere tailerrean komertzializatzen zituen estatua mortuorioak bezala. Eseri eta ez zen konturatu ezen hatsa, hotzaren eraginez, lainoaren antzera ateratzen zitzaiola, lau koaderno haien aurkikuntza estali nahiko balu

bezala. Non entzun zuen izen hura? Duela gutxi, bai. Duela oso gutxi hari buruz norbait mintzatu bazitzaion lez.

Tina Bros irakurtzen hasi zen, kuriosiatez, konturatu gabe, gainera zetorkiona susmatu ere gabe. Lehen koadernoko lehen orritik hasi zen irakurtzen, lerroburutik, non zioen, alaba maitea, izena nolakoa duzun ez dakidan arren badakit bazarela, zure eskutxoa ikusi baitut, txikia eta gozoa. Gustatuko litzaidake, zu handitzean, norbaitek lerro hauek zuri pasatzea, irakur ditzazun nahi baitut... Beldurra ematen dit nitaz esan ahal dizutena, batik bat zure amak.

Arratsaldeko bederatziak aldera, bonbonaren argia itzaltzen hasten zelarik, burua altxatu zuen bat-batean, beste mundu batetik itzuliko bailitzan. Axolagabetasuna izan zen gela hartan izozten lagatzea. Hotzikara sentitu zuen. Azken kokadernoaren tapa biguna itxi eta airea botatzen hasi zen astiro, irakurketaldian arnasari eusten egon izan bailitz bezala. Erabaki zuen koaderno haiek ez zirela interesgarriak Maitek egin nahi zuen erakusketarako. Ostera lehengo habano-kaxan utzi zituen, listari beltzez, anorakaren sakel handian gorde eta eskola hura abandonatzen hasi zen non, orain hala irizten zion, berrogeita hamar urte baino gehiago bizitzen egon baitzen.

Igeltsero marinelak esandako tokian utzi zuen lanpara, giltza Udaletxera itzuli eta Carrer del Migen zeudela zioen marmorezko plakaperaino igo zen. Zain zeukan Doscaballosa, fidela, bere jabearen malenkoniaz babesten zuen elur zapaldugabeko azal finez estalia.

Sorteko errepidea, jaistean, bakarregi eta hotzegi zegoen. Kateak ipintzen entretenitu nahi ez zuelarik, jaitsiera lasaia egin zuen, bere pentsamenduaren erritmoan, hotzak eta irakurritako orriek bezainbeste arratsaldeari geratzen zitzaionaren perspektibak harrapatuta. Lurrei eusteko horma zahar batean, Pendiseko biurgunean, Torenako mugaren bukaeran, estetika erradikaleko pintada batek pistetako bat luzatzeko Tuka Negrako zuhaitzen ebaketa salatzen zuen. Eskolan ez zuen inor aurkitu: kartoizko kaxa, azalpen-ohar batekin, Maiteren bulegoan utzi, eta ziztu bizian alde egin zuen, beti ematen baitzion beldurra korridore haietatik, ilun eta bakarti zeudenean, bakarrik mugitzeak. Hotz haiekin mamuak suspertuko bailiran. Doscaballosak ostatu urrunera hurbildu zuen arazorik gabe. Iparrerago egon arren, han oraindik ez zegoen elurrik. Kopilotoaren esertokian puru-kaxa zegoen lau koadernoekin. Zuhurtziagatik ez zuen ostatuaren aparkalekuan geratu nahi izan; beraz, autoa ondo txokoan utzi zuen errepide bakartian, argiak eta motorra itzali eta geldi geratu zen, establezimenduko ate argiturantz zuzen begira. Une haren zain egon izan balitz bezala, elurra jausten hasi zen, zuhur, isilik, eta berak puru-kaxa ukitu zuen alboko eserlekuan, han zegoenetz. Tina ez zen gai gauzen gainean maluten zurrumurru gozoa antzemateko.

Hotz egiten zuen, pare bat aldiz atera zen haizetakoa garbitzera, ostatuaren atea ez zuen bistatik galdu, eta autoaren kalefakzioa ez piztea erabaki zuen, zeren isiltasun magiko hartan, bonboi-kaxa belusez bilduantzekoan, ibaia bera zaratarik gabe jaisten zen, motorraren uzkertzeak bere presentziaz ohartaraziko zukeen Jordi.

Oinak lurrean jartzeko autotik atera zen azken aldian haizetakoaren izotza harraskagailuarekin garbitu, eta bideko elur zapaldugabearekin estali zuen matrikula. Gauza bat zen bere duintasuna kolokan zegoela, eta beste bat besteek jakitea. Sudurra izoztuta zeukan.

Berriro barruan, ostatuaren ate argiturantz begiratzeari utzi gabe, nondik denbora guztian soilik bi pertsona ezezagun atera ziren, arretaz ukitu zuen puru-kaxa bere esku guantedunarekin.

—Zer esan duzu?

—Ondo asko entzun duzu.

Rosa, ahoa sorpresaz irekia, agian izuturik, bihotza kontrolpetik kanpo jauzika zeukala ohartu zen. Zorabio sakonak hartu eta kulunkaulkira itzuli zen. Xuxurlatu zuen.

—Zergatik?

—Mundu guztia arriskuan dago hemen.

—Ez, arriskuan ume hau dago.

—Ahal dudana egiten dut.

—Kaka. Joan zaitez Elisenda anderea ikustera.

—Zergatik?

—Ez al zaizu ba hainbeste atsegin hura ikusten joatea? –Min egiteko gogoz–: Ez al daukazu lerdea dario hura aurrean daukazunean? Oso plastikozko aurpegia daukala, hain begi zailak...

—Zer diozu baina?

Ezer intsinuatu ez balu bezala, Rosak leihotik begiratu eta ahots nekatuz esan zuen, zu baitzara herri osoan berak kasu egingo dizun pertsona bakarra.

—Elisenda andereak ezin du deus egin.

—Herri honetan berak esandakoa baizik ez da egiten.

—Hori nahi genuke.

Rosak Orioli begiratu zion, elkarrekin zeuden guztietan berak eta Elisenda andereak trukatzen zituzten begiraden sekretuak asmatu nahiko balitu bezala arakatu zizkion begiak. Oriolek erantzutera zihoanean, Angelusen ordua zela adierazten zizkien kanpaiak jotzen hasi ziren. Inoiz, gutxienez hain negu gordinean, otoitz egin balute bezala isildu ziren. Eta kanpaiak isildu baino lehen, eztanda egin zuen Rosak.

—Konpotzen ez baduzu, Bartzelonara itzuliko naiz.

—Ezin nauzu abandonatu.

—Koldar hutsa zara.

—Bai, koldarra naiz.

Instintiboki eskua sabelean ipini zuen Rosak, eta ahots nekatuz esan zuen, ez baitut nahi gure alabak jakin dezan bere aita koldarra eta faxista bat dela.

—Ez naiz faxista.

—Ze alde dago zure eta alkate putasemearen artean?

—Ez egin builarik, dena entzuten da-eta.

—Berak egin eta zuk onartu.

—Entzun, herriko maisua besterik ez naiz.

—Alkatea zuk nahiko zenukeen bidetik eraman zenezake.

—Ezinezkoa. Gainera, beldur naiz. Beldurra ematen dit gizon horrek.

—Venturetaren kontu hori geldiarazi behar duzu.

—Ezin dut. Zin dagizut, ez dit kasurik egiten.

Rosak azken aldiz so egin zion begietara. Etzan, kulunkaulkiari eragin eta leihotik begira jarri zen. Agur esateko modu bat zen, pentsatzen zuen bitartean nola gertatu da hau, hain herri polit bateko plaza onartzea otu zitzaigun eguna madarikatzen zuen bitartean, herri bat non entziklopediaren arabera idi- eta ardi-hazienda ugari samarra zegoen eta non gu biok ongi asko biziko garen, irakurtzeko eta maitatzeko denbora izango dugu, horren premian gaude-eta. Eta itzuliak eta itzuliak eman ondoren, baietz, tira, esan zuen: goazen Torenara, Oriol. Eta orain, Sant Esteveko kaneloietarako orea hozten ari zen mahai gainean. Sekula ez zukeen kaneloietarako orea egin behar izan egun hartan, sekula ez zuen izan behar Eguberria lau egun geroago, ezer irenstea ezinezkoa baitzen mutiko gaixo hartan pentsatuz gero.

Oriolek Rosaren garondora begiratu zuen. Matrailezurra amorruz estutu eta etxetik irten zen ateari danbateko handia emanez. Berehala, ostera ireki zuen, zerbait utzi izan balu bezala. Zutik geratu zen, atearen eskutokia askatu gabe, amorrua menderatzeko ahalegina eginez. Rosak kaleari begira jarraitzen zuen; izatez, ez zuen ezer ikusten, malkoek estaltzen baitzioten leihotik ikus zitekeen Assua ibarreko paisaia itzela. Oriolek txamarra eta kapela hartu eta ostera irten zen.

Torenan maisu bezala zortzi hilabete-edo eginda, galtzerdi bat bezala biratu zioten Oriol. Iritsi ziren ilusioarekin, bera haurdun berri, oraindik harrituta gizonari, soldaduska egin gabe eta urdailaren erruz frontera joan gabe, konbatiente ohia izan gabe plaza eman ziotelako, oraindik harrituta, plaza guztiak, Falangeko karneta ahoan edo Errepublikaren kontra borrokatu zirenen pedigria bibote finari erantsita, kanpotik etorritako maisuentzat izango zirela pentsatzen zutelako; oraindik txundituta hain inozoak izanik Torenako eskolako plaza Jainkoak ere ez zuela nahi konturatzen ez zirelako, Jainko hura estalpe batean jaio zela, ados, baina Nazareteko eskolara joan zen, non gutxienez mutikoak eta neskatoak bananduta zeuden, denak ez ziren nekazarien seme-alabak baizik batzuk arotzenak, patio egokia eta hormak Jainkoak agintzen duen bezala pintatuak zeuzkaten.

Leihotik begiratu bai baina ez zuen plaza ikusten. Valentí Targak gizona aldatu zion. Lehen egunetik bereganatu eta losintxaz betetzen hasi zenetik. Plazan erronkari begiratu zienetik, eskuak aldaketan, ilusioa begietan eta baxera maspildua kapazu handian, taxitik jaitsi zirenetik. Eta Oriolek egindako erretratua ongi paketatuta. Berak ez zuen arriskua aurreikusten jakin eta baziren hiru hilabete egunero isilik zeudela Torenan, jakinik egunero jaitsiaratzen zituztela gizonak malkotan auto beltzetatik Sebastianen alorrera eta gero desagerrarazi egiten zituztela, mutu, malkoak betiko lehorturik, aberetarako kamionetetan. Valentí Targak bera ere isilkari bat bihurtu zuen. Gehiegi isildu zen. Gaur arte non Oriolek, Udaletik itzultzean, nora Targa madarikatuak deitu zuen, begietara begiratu gabe esan zion, komenigarria zela Falangen izena ematea eta bera, labearen aurrean, aho zabalik geratu zen, hitzik gabe, agian gaizki ulertu ote zuen pentsatuz, edo gizona bromatan ote zebilen. Baina ez: begietara begiratu gabe jarraitzen zuen, isilik, bere erreakzioa itxaroten-edo. Kaneloien orearen azpila babesgailuan utzi, kulunkaulkira astun joan, sabela aurretik, bere alabaren eta bere gizonaren artean distantzia ipiniz-edo, eta esan zuen, zer diozu?

—Ederki asko entzun duzu.

Jose Oriol Fontelles Grau, caído por Dios y por España. Tinak orain bazekien zer dela-eta ezagutzen zuen. Duela astebete, oraindik zoriontsua zelarik, Assua ibarreko kanposantuak aztertzera igo zen, liburuko atal bat hildakoen etxeei eskaini nahi zielako. Torenako kanposantua bost izarretakoa zirudien beste herrietakoen aldean. Objektibo hedatzaileekin irudia distortsionatu ordez, ondo enkuadratzeko urrutiratzea hobetsi zuen. Argazkiaren erdian monumentu oso hondatu bat geratuko zen. Albo banatan, hilobi-ilarak lurrean, gehienak gurutze herdoilduekin, bakarren bat marmolezkoa. Hondoan, monumentuak erdi estalita, beste hilobi-ilara bat iparrera daraman horman, etsaia eta haize hotza etorri ohi den alderantz. Eta familia aberatsaren mausoleoa ezkerretara, garbi eta ondo apaindua.

Klik. Hegaldiari ekiten zion txorrua harrapatuta geratu zen bat-bateko argazkian, bide erdian, monumentu andeatuaren eskubialdera. Bera ez zen konturatu. Edo agian bai, argazkilari askori gertatzen zaien lez, enkoadrearen barruan gertatu den guztiaren pertzepzio orokorra daukatela baina hala eta guzti ere emaitza errebelatzen dutenean sorpresak aurkitzeko antsia izan ohi dute.

Paper zuria, atmosfera gorriko munduan itota, forma arrotzak atera eta finkatzen joan zen gutxika-gutxika, lehenengoz modu lausoan eta, poliki-poliki, modu osatuagoan. Papera likido barruan pintza batzuekin astindu eta formak irudi bihurtu ziren, gero eta zehatzagoak. Oso ondo enkoadratuta, lehenengoz pentsatu zuena da. Papera pintzekin errebelatzeko ontzitik atera eta esekitokian utzi zuen, hiru zenbakidun gurpiltxoko hogei bat-bateko argazkien ondoan, bi mila bateko abenduaren bosta, Torenako kanposantua. Oso ondo enkoadratua, benetan.

Ekitaldi haren emaitza aztertu zuenean dena aurreikusi bezala atera zela frogatu zuen, sorpresarik gabe. Orduan fijatu zen hegaldiari ekiten zion txorruan, azken bat-batekoan inmobilizatuta, monumentu andeatuan. Ez zuen gogoratzen. Arraioa. Halako zera; poesia. Lupaz behatu zuen txoriñoa. Bai, txorru bat, hegatsak beherantz, aireratzearen ahalegin betean. Zizare bat zeukan mokoan. Ez. Errebelatuaren zikin bat zen. Ez: bat-bateko argazkiaren hondoan geratzen zen hilobiaren erliebeko marrazki bat; txoriñoa aurretik pasatzen ari zen, besterik ez, eta perspektibaren ilusio hura egiten zuen. Lapidaren erliebeko marrazki bat. Orduan fijatu zen lapidan. Lurrean geratzen zen arren, irudiaren hondoan, objektiboa gehiegi itxi zuelarik, hondoa bikain enfokatuta zegoen. Txorrua eta lapida, zeharka, aratza. Agian pixka bat akademikoegia, lauegia. Otu zitzaion ezen txorrua hilarrian grabatutako hitzak mokoarekin idazten zituen luma zela. Txorruak idatzi zuen Jose Oriol Fontelles Grau (1915-1944), caído por Dios y por España. Eta uztarri eta gezi faxistak ere idatzi zituen. Gezi haietako baten muturra zen txorruak habira zeraman zizarea zirudiena.

Tinak lupa mahai gainean utzi eta begiak igurtzi zituen. Ziurrenik, argazki hura, karretearen azkena, liburuko lehen argazki bezala joan zitekeen, zuri-beltzean, denboraren joana eta halako gauzak adierazteko.

Oriol Fontellesen koadernoak barne hartzen zituen puru-kaxaren gainean zeukan oraindik esku guanteduna eta une batez, haren edukiaz pentsatuz, Ainet ostatuko ate argituaren gainean zergatik ari zen goardia egiten ahaztea lortu zuen. Jausten ari ziren izarrak iruditu zitzaizkion elur-malutak, zeruan alferrik mantentzeagatik nekatuta, bere argiak pertsona maitatuen begi-ninietara iristeko mendeak behar zituela pentsatzen etsita. Ba ote dira

pertsona maitatuak munduan? Ongi, nik Arnau maite dut, baina berak ez du bere burua maitatzen uzten, beti hain isila, beti bere gauzatan, ematen du ez diela izarrei begiratu nahi, Jordik bezala. Etxeko gizonek ez diete izarrei begiratu nahi. Jordi. Jordi. Bere Jordi hau Ainet ostatuik irteten ari zen, etxetik kilometro askotara, eta alde banatara begiratzen zuen kapela jazten zuen bitartean. Ez zuen ikusi ere egin Doscaballos gorria, eremu ilunean, errepidean. Itzuli eta barnerantz luzatu zuen besoa. Keinu hark jeloskortu egin zuen. Keinuaren atzetik Jordi bezain emakume altua, irteteak baino askoz gehiago, errekonozitzea ezintzen zuen anorak batean bilduta. Ez emakume hura baizik emakume haren bizitza osoa aterpetzen zuen keinua. Aterpetze-keinu bat, beretzat zaplaztekoa ere bazena, beldurtzen zuena konstatatze hutsagatik, auto barruan hozten ari baitzen.

Orduan erreakzionatu egin zuen. Kamera hartu zuen, bertan finkatzeko giderrean bermatu zen, irekiera handia, abiadura txikia eta kliskatu egin zuen. Bi, hiru bat-bateko argazki. Lau, bost. Eta orain teleobjektiboarekin: bat, bi, hiru, lau, bost, sei... Argazkiak egiteari utzi zuen eta bere buruaz pentsatu eta paparazzi aurrunt bat bezala sentitu zen. Gau hartara arte ez zitzaion malkorik izoztu masailean.

Nazario Prats Jaun Txit Gorena, burusoila, bibotetxo fin-fina, izerdi-tantak kopetan eta elastiko azpian, eta gainera, Gobernadore Zibila eta Mugimenduko Buruzagi Probintziala, kezkatuta zegoen. Elisenda anderearen aurrean edo kezkatuta zaude edo ez zara gizaki bat. Andereak ipintzen zuen hain lurrin pertsonala arrisku-seinale bihurtua zen beretzat; belusezko ahots hura zekarkion gogora ehorzketa-egunean belarri ondora aginduak ematen, enoratuz bera zela Gobernadore Zibila, estortsionatuz, jakingo ez balu bezala bera zela Mugimenduko Buruzagi Probintziala eta bazituela bere onurabideak; baina andereak, ez onurabiderik ez arraiorik; bere zilegizko onurak lapurtzeko prest zegoen, Stalinena ematen zuen hoztasunarekin. Hitzez hitz. Argazkiak ote zeuden, aurpegi adeitsua ipini zuen, Santiago Vilabrú kamarada gogoratuaren kimua pistan behera, itxuraz estilo onean, bera, hiru ordezkariordeak, sei alkateak eta puta alargun anderea zeuden eremuraino nola irristatzen zen behatzeko, non Assua ibar bereko, Caregueko eta Batlliuko txalotzaileen hiru busekin batera berrikuntza abiatu, ekimen kementsuak bataiatu eta etorkizuneko flandesen pika bat sartzen duen Tucako eski-pistaren inaugurazioan parte hartzen zuten. Eta hiru autobusek kartsutasun profesionalez txalotu zuten, ezer ulertu ez zutelako, eta beraz, oso gauza garrantzitsua izan beharko zelako. Marcel Vilabrú Vilabrú eskiatzaile singularra, bi mila eta hirurehungo kotatik jaitsia zen, ikusaraziz bandera espainiar bat zeramala bizkarrean estuki lotuta, eta zapi oro-flama haren flap-flap-flapa sentituz, eskiek intimitatez eta isiltasunez osatutako marmar eder hura hedatzen zuten bitartean, pistan behera irristatuz, Quiquerekin lehenagotik itundu eta hirurogeika aldiz saiatutako bihurguneak marraztuz, dena perfekzioz atera eta keinu txar batek bera, bandera eta ikuskizuna jaitsialdi epiko harekin Marcel Vilabrúk ofizialki estreinatzen zuen elur jausi-berriaren kontra muturrekoz aurrera bota ez zitzan. Oso ondo, Jazinto, oso ondo egiten ari zara.

Nazario Prats Jaun Txit Gorenak irribarrea ezpainetan begiratzen zuen nola jaisten zen mutila, eta aldian behin betertzez jagoten zuen bere etsaiak ez zezan asperdura-, kezka-muturra jarri, edo, soilik ostikoa emateagatik, ministro bati beste edozer gauza kontatzea otu ez zekion. Ministro bati edo Falangeko beste edozein kamaradei. Ez, andere alarguna bere seme maitearen alde zegoen, eta harro kontenplatzen zuen No-Doko kamerek, koloreak zurian eta beltzean laburbilduz, jaitsiera haren taupada Umearen aita bera izango balitz bezala. Gobernadoreak ez zekien baina berak eskubide osoa zeukan gutxienez bere burua umearen amaren aita kontsideratzeko, izan ere Elisendak bost urte bete zituenean, haren gurasoei ohartarazi zien, Anselm, Pilar, neskato hau berezi-berezia da. Eta Josep? Josep (gaixo Josep, zeruan egon dadila) normala da, baina Elisendak arrunta baino goragoko inteligentzia dauka, eta gauzak bere orokortasunean ulertzeko gaitasuna, eta... Beraz, badakizu zer diotsudan?, lastima, neskato bat izatea. Zu beti hain galai. Orain ez borrokatu zuen artean nire erruz, baina zuen neskatoa diamantea da, Anselm, Pilar, arranopola: diamante bat den alaba daukazue; niretzat ohorea izango litzateke fintzea, distira aterarazteko. Baina Anselm Vilabrúk eguna edozein frontetan gerra egiten ematen zuen, eta Pilarrek, nahiz eta artean ezaguna ez zen, mutiletan ematen zuen eguna, eta ez zioten Augusten oharrei kasu handirik egin. Izan ere ez zioten batere kasurik egin: biek, anaiak eta koinatak, uste zuten matematikariak galdu egiten zirela pertsonekin. Eta are gehiago apaizak izanda. Orduan, mosen August zuzenetik jo eta Bartzelonako teresiarretan matrikulatu zuen neskatoa barruko ikasle bezala, egunen batean santu egin beharko zuten dohatsu aita Enric d'Ossoren epiritualtasunetik beti gertu

egona baitzen. Ama Benantziarekin hitz egin eta derrigorrezko hezkuntza haren konplize bihurtu zuen zeren, nahiz eta oso familia onetik datorren, ez daude gehiegi haren gainean. Ama Benantziak ulertu egin zuen. Bazekien zergatik joan zen August Vilabrú bere bila; bera baitzen exigentziaren ahotsa teresiarretan. Dorotea abadesaren garaian Rapitako monastegian eginiko egonaldi azkar baina probetxuzkoak betebeharraren zentzua zorroztu eta muinetan iltzatu zion bere goiburua, ideia honen inguruan zebilena, hots, egia daukazunean behartuta zaude egin behar duzuna egitera, egin behar duzula uste baduzu. Hamar aritmetikan, hamar gramatikan, hamar latinean, hamar natur zientzietan, hamar erlijioan, diamante bat baino gehiago, mosen August, neskato hau diamantea baino gehiago da.

Oso ondo, Jazinto. Oso ondo egiten ari zara.

Menturazale heroikoa behera iritsi zenean, bandera kendu zuen, makilatik hartu eta elurretan josi zuen, Ipar Polo geografikora iritsi balira bezala; Quiquerekin eta Matanzas delako batekin, gobernazioko protokoloko inurri ofiziala azken hau, erabaki zuten tokian. Orduan, agintariek eta autobusek zapalgabeko elurretan gauzak josteko hain keinu maskulinoa txalotu zuten. Eta hogeita hamar bat eskiatzaile euren artean eslalona egiten jaitsi ziren, jaitsieran trentza bat osatuz, aintzindariaren arrastoari jarraituz, eta agintariek eta autobusek txalo egin zuten ostera. Nazario Prats Jauna berrogeita bost gradu etzan zen eta bere sudur azpian zilarrezko azpila agertu zen, kuxin gorri batekin, zeinaren gainean inauguratzeko artaziak zeuden. Hartu eta instintiboki astindu zituen, gehiegikeriaren bat egiteko asmoa balu bezala. Onesimo Redondok berak aitortua zion arratsalde batean, alegia jenio-kolpeak inprobisazio intuitibotik datozela ala ez direla ezer. Berak orduan jenio-kolpe bat izan zuen eta, gogoeta egin gabe, Vilabrúren alargunari pasatu zion lanabesa.

Hartu, puta, eta ea zulatu ahal duzun zure lepoa artazi hauekin. Puta, puta, puta, puta.

—Zein zu baino hobea, Elisenda anderea, Tuka Negrako eski-estazioa inauguratuta deklaratzen laguntzeko.

Elisenda anderea ez zen erregutua izaten saiatu, baibaitzekien zeintzuk ziren bere onurabideak, eta ez zuen ebakitzen lagundu baizik bi koloreko zinta ebaki zuen, agintariek teleaulkiko instalaziorantz eta txozna suitzar moñoñorantz pauso egin zezaten galarazten zuena, non kafe bero-beroa agindu zieten, zegokiokeenaren ttantta batzuekin. barruan. Agintariek eta autobusek txalotu egin zuten ebakiera, ikusi zuten nola Gravat etxeko Elisenda anderea artaziak kuxinan utzi eta, autoritatearen laguntzaz, Tuka Negrako gizarte-egoitza izango zen txaleterantz mugitzen hasi zen. Soilik agintariek gainditu zuten inaugurazioaren lerro orain ikusezina, izan era autobusetako jendeak, bizitza osoan elur artean bizi izandakoak, sekula ez zuten eski bat jantzi; aski lan bazuten neguan lanabesak atontzen eta txukuntzen, segak pikatzen, gurdien ardatzak eta gurpilak konpontzen, makineria olioztatzen, arrakalak estaltzen, zoruko harlauza hautsiak aldatzen elur askorik ez bazegoen, abereak gobernatzen, urruti begiratzen eta beste ezinezko bizimoduan amets egiten. Soilik agintariek eta Jazinto Masek, zeina inori baimena eskatu ez arren ez zen anderearengandik urruntzen, ez hainbeste atentaturen baten beldurrez, baizik eta bere bizitzak, aurpegiko orbanak eta bere etorkizunak soilik andereak begiratzen bazion, eta begiekin ongi, Jazinto, oso ondo egiten ari zara, esaten bazion zeukatelako zentzua.

Mosen August Vilabrúk egoitza soziala bedeinkatu (egur bernizatutako hormak, trofeo asmatuak hormetan erakutsita, leiho handiak pistetara begira), espiritu gaiztoak ur bedeinkatuarekin uxatu, *asperges me* marmartu eta inork ulertzen ez zituen hitzekin desiratu

zuen toki hura beti ongiaren irradiazioa izan zedila. Handik urte batzuetara Quiqueren eta Marcelen arteko hura dutxetan gertatu izan zen arren. Quiquek metatu zuen gorrotoa, horma bedeinkatu haiek egonarriz jasan behar izan zuten madarikazio eta blasfemia bihurtu ziren arren. Tuka Negrako egoitza sozialean denboraldiko hogeita hamar bat adulterio pilatu, eta klimatikoki berezia izatekotan laurogeitara iritsi ahal ziren arren; ohikoak izango ziren bezeroetako asko oso jende edukatua baina eskrupulu-zentzurik gabeak izan arren. Zer jakingo zuen mosen August Vilabrúk. Dena handika eta gauzen eta jendearen etorkizuna ez ezagutzeak, Bibianak ezagutzen zuen bezala, ematen duen lasaitasunarekin bedeinkatu zuen hark.

Bedeinkatutako egoitzara sartzen ziren agintariek leihoetatik ikusi ahal izan zituzten, aztikeria batean parte hartzen baleude bezala, elurretik sortu ziren hogeita hamar bat eskiatzaile irribarretsu, hortzeria perfektua, azal osasuntsua, ondo elikatua, euren artean bikain ikasitako axolagabekerian mintzatuz, betertzez No-Doko kamerari begiratuz, hara begiratzea debakatu zitzaien arren, eta teleaulkian txanda-eske, inauguratu berri ziren instalazio haiek ele hirurehun eta hamazazpi eskualdeko bidetik eraiki zen ele ehun eta hogeita bederatzi sarrera-pista berri asfaltatutik trumilka iritsiko zen bezeria ohoretsuaren joan-etorrira ohituta baleude bezala. Eta dena, erreportajearen bukaeran esatariaren ahots sudurkariak zioenez, bertako enpresario batzuen ekimen ekintzaileari eta agintari probientzialen bultzada erabakigarriari esker, zeinek, paisaia idiliko haiek elur-kirol hasi berriaren maitale selektoentzat atrakzio-puntutako bat bihurtu nahi zuten. Esatariak ez zuen kontuan hartu esatea ezen tokiko enpresarioena eufemismo bat baino ez zela, kapitalaren ehuneko hirurogeita hamarra suediarra baitzen, eskandinabiarrek diktadurari zieten nazka eta guzti. Gainerako ehueno 30a Elisenda Vilabrú anderearena zen, Vilabrúren alarguna, Gravat etxeko Vilabrú familiaren hiru mendeko fortunaren ondorengo bakarra, eta Santiago Vilabrú zenaren fortuna pertsonal ez batere gutxiestekoaren oinordeko unibertsala bera. Lekuko enpresarioak bera besterik ez zen, zeren inbertsore posible guztiek sudurra zimurtu eta esan baitzuten Molina irekita nahikoa eta sobera zela, eta Tuka Negrak ez zeukala inolako etorkizunik. Eta hurrengo erreportajean, Francok beste urtegi bat inaugu-ratzen zuen, mila bederetziehun eta berrogeita hamazazpiko hirugarrena, garaipenaren hemeretzigarren urtean.

Gobernadorea koñakez bustitako kafea hartzen ari zen eta usain txarreko puru bat piztua zuen bibotearen azpitik irribarre egiten zuen bitartean, leihoen artetik elurrari so zegoela adierazi nahirik, baina hobeto esanda, leiharrak islatzen zuen alargun anderearen silueta aseezintasun masokista eta arriskutsuarekin errepasatuz. Vilabrúren alargun anderea, begirada lirdingatsu hartaz eta kopetako eta eskuetako izerdia kezkaz nola xukatzen zuen jabetuta, ez zen inmutatu, Jainkoaren bideak askotarikoak eta bihurriak baitira. Begiekin oharrak eman zizkion Txatori gobernadorearen katilutxoan koñakik falta ez zedila, ez eta uniforme falangista edo militarreko beste edozein pertsonaiarenean ere. Gizon argal batek, itxuraz timidoak, edalontzi bat ardo altxa zuen, topa egin nahi balu bezala; baziren bi urte baino gehiago Gasull abokatuak, Elisenda andereari arazo legaletan laguntza eman ez ezik, soilik harenegan pentsatzen zuela, haren begietan, haren kontu korrontean, haren arrisku handiko maniobra ekonomiko eta politikoetan, haren azalean eta bere bihotzaren dardarekiko haren indiferentzia zorrotzean. Gasullek irribarre egin nahi izan zion distantzian, ardo-edalontzia altxatuta, baina Elisenda anderea ez zen jabetu abokatuaren keinu hustuaz, izan ere Quiqueri, zeina orduantxe hotz-boladak, Marcelek eta eskiatzaile-pare aukeratu batek jarraituta sartzen ari zen, gobernadorearen zorionak ematen ari baitzitzaizkion

eskiatzaile-taldearen jatsiera zela-eta, eta gaur ez noa Bartzelonara, gaur Torenan geratuko naiz, informazioa baino areago agindu bat baitzen, Quique. Joan zaitez agurtzera Marcelekin. Tuka Negrako monitore-buruak satisfakziozko iribarrea ezkutatu zuen bere hainbeste eguzkigatiko aurpegi belztuan, eta gobernadoreari agur esatera joan zen, Marcel Vilabrú lagun zuela. Nazario Prats Jaun Txit Gorenak nahita enoratu zuen monitore eder-ustea eta Vilabrú familiako kimuaren sorbalda gainean ipini zituen eskuak, bere aita idiota baino mutil mozkoteago eta trinkoagoa bera, eta esan zuen Marcelo, Marcelo, zure aita, hemen balego, zein harro egongo zen zurekin. Hainbeste, ezin zara imajinatu. Santiago gajoa, une hau bizi berharko zukeen. Eta pentsa badakidala zertaz ari naizen zeren zure aitaren eta nire artean adiskidetasun-harreman sakona, sintzeroa eta restrikzio mentalik gabeko zirkinik gabea baitzegoen. Hainbeste, nire besoen artean hil zela esan daiteke, Santiago gajoa. Marcel Vilabrúk zirkunstantziazko irribarrea egin zuen, pentsatzen zuen bitartean ezen bere aita, berarentzat, aurpegi hotz bat baino ez zela Gravat etxeko gelan familiako beste askoren artean kokatutako argazki batean. Pena aitatxo hemen ez egotea, jauna, erantzun zion badaezpada ere gobernadoreari. Oso ondo, Jazinto, oso ondo egiten ari zara.

Ez zuen entzun umeak, artega, mahukatik tiraka, galdetutakoa zeren, eskuetan kontinente asiarra zeukan arren, bere pentsamendu izoztua Ainet ostatuko atarian baitzeukan. Obsesioa zen emakume hura zein zen jakitea, zein zen, zein izan zitekeen, nor.

—Ez dut Hong Kong inon aurkitzen.

Etxera itzulita, poltsa eta giltzak edozein tokitara bota eta aldemeneko besaulkian eseri zen, isilik, aurrerantz begira, Zhivago doktoreak bezala, eta gogoetatzen hasi zen, obsesionaturik, eta nik uste nuela jeloskortasunaren kontu hori ez zela niretzat egina. Eta nik pentsatzen nuela beti ondradu izango ginela. Eta nik pentsatzen nuela. Ez; umiliagarria da: batik bat umiliagarria ni horrela gutxiestea, engainatzea, gezurretan aritzea, ezkutuan egitea.

—Zer nahi zenuen, egun argitan egitea? –esan zuen Zhivago doktoreak aharrausiari ekinez–. Hori bai litzatekeela umiliagarria.

—Inork ez dizu zure iritzia eskatu, Juri Andreievitx.

Zhivago doktoreak aharrausia amaitu, altxatu eta, bere agilitate felinoarekin baina jarrera duina galdu gabe, besaulkitik Tinaren belaunetara salto egin, eta hantxe uzkurtu zen. Tinak burua laztandu zion, belarrien aldean, hain gustuko zuena, eta kontzentratu egin zen, erabakita baitzeukan Jordi iritsi orduko eserrarazi eta azalpenak eskatuko zizkiola, zein da, zenbat denbora da hola zabiltzatela, zer zaukak berak nik ez daukadana, zergatik egiten didak, ez nauk maite hala, zergatik engainatzen nauk, eta gure semea, pentsatu al duk hortaz, dibortziatu egin nahi diat, hil egin nahi haut putaseme hori fideltasun-zina egin hidaana, ba al dakik zer den fideltasuna? Esan nahi dik sinistea, bestea ez abandonatzea eta hik abandonatu egiten nauk ez dualako nigan sinisten, zergatik ez diak azaltzen gertatzen zaiana, eta aski ausarta ez bahaiz, bidal iezadak gutun bat, gutunak izarren argia bezalakoak dituk, Jordi, ba al hekien? Uste diat ez haizela duin gutunak izarren argia bezalakoak direla jakiteko. Zer aldatu da gure artean, noiz aldatu da, zein momentu zehatzetan, zeinena da errua, zer da gaizki egin dudana, e Jordi, zer egin diat gaizki hi Maitekin ezkutuan alde egiteko, Maite baldin bada, edo Bego, edo Joana, edo auskalo ezagutzen ez dudan zein. Zein da nire lekua hartzen ari zaidan emakumea, Jordi? Eskolako kideren bat? Eta Jordik ahoa zabalik begiratuko zion, hark dena zekielako dardarka eta hura ez zelako bere kalkuku gaiztoetan sartzen. Eta orduan negarrez hasiko zen, barkamena eskatuko zuen, eta berak atal garratz hau ahazten saiatuko zen, atal bat izateko bertutea izango zuena baina ahaztea kostatuko zitzaiona, positiboa zelako egingo zuena, eta beti aurrerantz begiratu nahi zuelako. Eta zigorra? Nolatan zigortu ahalko zuen?

Tinak ez zekien hobe ote zen afaria prestatzen hastea edo Jordi itzul zedin itxarotea, batzordeko bilera batean baitzegoen. Jordi eta Maite, intelektuala eta zuzendaria, bikote adultero gezurti ona, batzarra bukatu ondoren bakarrik geratzeko saiatuko zirenak, eraikina ilunpetan zegoelarik. Jordi iritsitakoan afaria egiten aurkitzen bazuen, ez zuen adorerik izango bota behar zion guztia botatzeko, hori ez baita sukaldean aipatzen, hori egongelan hitz egiten da, biak eserita, eta berak, Jordi dena zakiat, gezurretan nabilkik, emakume batekin engainatzen nauk, Ainet ostatuan elkar ikusten duzue astero, etsita naukak, triste nagok eta negar egiteko gogoa zaukaat; ni oraindik ondo nagoen emakumea nauk-eta, hiru kilo gehiegizko baina oso ondo kontserbatu nauk, Jordi, ez al haiz konturatzen, hiri ari zaik zilborra ateratzen, baina nire gustokoa haiz zilborrarekin eta gabe, Jordi; zergatik haiz hain gizatxarra ni engainatzeko, ez al genian adostu biok hain ondraduak ginela, Jordi? Bai, hobeto

egongelan sukaldean baino, eta Zhivago doktorearen burua laztantzen jarraitu zuen, eta nahi gabe pentsatzen zuen, orain bakarrik egongo dira eskolako eraikinean; mundu guztiak azkar egiten du ospa… Osterantzean nolatan ez da itzultzen. Maite baldin bada. Norekin engainatzen nauk, Jordi? Ezagutzen al diat?. Presta dadila Maite, bera baldin bada...

Ordu laurdena itxaroten egon ondoren, gose zen; baina ez zuen mugitu nahi, Jordik bertan harrapatzea nahi zuen-eta, zain, bizitzaren puntu ilunak argitzeko prest. Mahai azpian utzi zituen puru-kaxara joan zitzaizkion begiak. Ireki egin zuen: Oriol Fontellasen lau koadernoak. Atsekabea sentitzen zuen arren, presente zeuzkan Oriolen hitzak, ene alaba, nire eskutitza izar baten argia bezalakoa da, zure begietara iristen denean behar bada urteak daramatzana hilik. Hain da beharrezkoa heriotzaren kontra idaztea; hain da krudela idatzi eta heriotzak itxaropen-zeinuak oro ezkutatzea. Seguru asko orduan, Jordiren itzuleraren zain zegoela ulertu zuen Oriol Fontellasek desesperatuki idatzi zuela, heriotzak azken hitza sekula izan ez dezan.

Zhivago doktorea atezuan jarri zen: beti eskailera-burura iritsi baino lehenago sentziten zuen Jordi. Tinaren belaunetatik jauzi egin eta aterantz abiatu zen. Egiten ari zena gaizki zegoela sentitu izan balu bezala, betertzez begiratu zuen Tinarantz, buztana tente, eta atearen aurrean jesarri zen, eta Tinak pentsatzen zuen, gu biok Juri Andreievitxek maite gaituen bezala elkar maiteko bagenu.

—Kaixo Juri –esan zuen Jordik sartzerakoan, Zhivago doktorea hanketan igurzten zitzaiolarik. Laster ikusi zuen Tina besaulkian eta aurpegi arraroa somatu zion–. Zer dago afaltzeko?

—Ez diat ezer egin. Nola joan da?

—Ongi –hasperenka–. Zelako nekea.

Kazadora esekitokian utzi eta bere andrearengana hurbildu zen. Adatsetan laztan egin zion, kaixo Tina esateko bezala, eta Zhivago doktorearen besaulkian eseri zen, nekatuta, Tinak Jordiren laztanaren hotzikara sentitzen zuelarik, eta Zhivago doktorea Jordiren belaunetara igo zen, hura defenditzeko prest.

Jordi, aurkitu diat engainatu egiten nauala; asteartero ez haiz ezein irakasle-elkartean batzen baizik emakume batekin Ainet ostatuan, dena zakiat, ez da beharrezkoa aurrerantzean disimulatzea, gezurti halakoa, zein da emakume hori? Zergatik haiz hain ustela?

—Afaria egitera noak –esan zuen emakumeak–. Eguerdiko zopa geratzen da.

—Bikain –erantzun zuen Jordik Zhivago doktorearen bizkar leuna laztanduz eta begiak itxiz, erlaxatuta. Ireki zituen konturatu zenean Tina ez zela jaiki eta bere kontraeskaintza egin zuen.

—Nahi izanez gero arrautza frijituak egingo ditiat.

—Bikain.

Beti bikain joan zitzaien Tinari eta Jordiri. Jordi sukaldean okupatuta egon arte itxaron zuen andreak, eta artean besaulkitik hormara begira, esatea lotsa ematen ziolako, bilera nola joan zen galdetu zion, e?

—Ba. Rodenas gaixorik zegoen.

—Errepikatu egin beharko duzue?

—Ziur aski bai.

Amaren seme malapartatua, zure emazteari gezurretan habilena, gezurrik okaztagarrienarekin, betiko gezurra baita, emazteari salto egiten dioten gizon guztien engainu ez oso imajinatiboa, ze nazka, zelako kaka zaharra, nik uste nuenean guri ez zitzaigula holakorik gertatuko, gure maitasuna garbia zelako eta gu ondradu.

—Zerbait hartu al duk?

—Bai, zerbait hartu dugu.

Tina altxatu eta sukalderantz abiatu zen. Sarrerako atean bermatu zen, inolako laguntzarik eskaini gabe. Begiratu ere ez zion egin.

—Jende asko al zineten?

—Sei edo zazpi. Eta dezente.

Bai haizela faltsua. Sei edo zazpi! Bi: hi eta hura, hura eta hi ohean batuta, batzarraren akta egiten, mendialdeko hezkuntza-erreformaz mintzatzen, hura hanka-zabalik bularrak laztantzen hizkiolarik, niri laztantzen dizkian samurtasun berberarekin. Laztantzen hizkidala. Hura. Nor da? Zein emakumerekin engainatzen ari nauk, nola otu zaik niri hau egitea? Ez ginen ba hain ondradu?

Isilik afaldu zuten. Ezinezkoa zen Jordik isiltasun hura ez interpretatzea. Erabat ezinezkoa zen, argiago ezin baitiot aditzera eman. Beno, bai, bada esateko modu argiago bat, esatea alegia.

—Lotara noak –esan zuen, aditzera eman ordez.

Zu zara gutxiesgarria ez baitzara ausartzen zergatik engainatzen nauzu bezalako hain gauza erraza esatera, Jordi, putaseme hori, eta kuriositate gaixoti hura: norekin. Seguru aski aldeak erakutsi ahal izatearren: zer dauka hark nik ez daukadana, zer daukat nik berak sekula eduki ezin duena, gazteagoa da, zaharragoa, seguru ni baino argalagoa dela, ezagutzen dut, ez dut sekula ikusi. Zergatik gertatzen ari zait niri? Zergatik, elkar maite bagenuen. Zergatik, jainkoarren, hain ondraduak ginelarik.

—Ni ere banoan –esan zuen Jordik.

Gutxienez dutxa hadi, zerri hori! Orain da ordua esateko, hik ohe honetan ez daukak egiteko ezer.

Baina Tinak ez zion esan hik ohe honetan ez daukak egiteko ezer. Ez zion deus esan. Ikusi zuen nola Jordi ohean sartzen zen eta hamar minuturen buruan arnaskera patxadatsua zeukala, lasaia, pertsona ondraduarena, berak ordea begiak parez pare ezin zuen sinistu hura eurei pasatzen ari zitzaiela, eta ez zen lokartu ia laurak arte eta gauza ikaragarriak amestu zituen. Zer esaten zenidan, Sergi?

—Ez dudala Hong Kong aurkitzen.

Hong Kong. Sergi Rovira Ros etxekoak ez du Hong Kong Asiako mapan aurkitzen. Hori importantea da: Hong Kong non dagoen jakitea. Txina azaldu berri dienean ez da onargarria Sergi Rovira Ros etxekoak Hong Kong Japonian bilatzea. Zertan egongo zen pentsatzen ume hau? Zertan pentsatzen egongo zen Sergi Rovira berak azaltzen zien bitartean lurralde hori britaniarra izan dela duela oso gutxira arte eta orain Txinaren zati dela ondoko goiburu honen pean, herrialde bat, bi sistema, eta ezinekoa da zoriontsu izatea engainuak ametsa hausten dizunean, ez al dakizu ametsak ezin direla konpondu betiko hausten baitira beti.

—Zergatik egiten duzu negar, andereño?

Zapiarekin xukatu zen pixka bat asaldatuta, eta esan zuen ez da ezer, ez al zaizue sekula gertatu begiak negarretan hasten zaizkizuela azkure bategatik edo antzeko zerbaitegatik?

—Tipulak mozten badituzu. Niri gertatu zait.

—Eta niri.

—Niri ere bai.

—Horixe bera. Oso ondo, Alba. Ba ni gau osoan tipula asko mozten aritu banintz bezala da.

Patio orduan, Maitek bibliotekara pasarazi eta erakusketarako material-pila erakutsi zion. Txoko batean, Joana erakusketako liburuak eta bertako parte izango ziren eskola-objektu guztiak sailkatzen ari zen, Ebro borragoma batetik hasi eta arrosa koloreko Alpino arkatz bakarti bateraino. Maitek liburu zaharkitu bat hartu zuen erdiko mahaiko metatik.

—Torenatik jaitsi dituzun liburu hauek –esan zion Joanak burua zereginetik altxatu gabe– jenialak dira. Berrogeita bigarren eta berrogeita bosgarren urteak.

—Tinak jaitsi zituen.

Orduan Tina jabetu zen orduak zirela ez zela gogoratu ez Oriol Fontellasekin ez eta haren koadernoekin.

—Jordi konbentzitu beharko zenuke –esan zuen Maitek– hitz batzuk esan ditzan erakusketa inauguratzen dugunean.

—Zu zara zuzendaria-eta.

—Nik ez dakit jendaurrean hitz egiten.

Eta bera bada? Engainatzen duen emakumea Maite bada? Lagun fidela, oso langilea baina larrua jotzeko garaian bereizketarik egiten ez duena? Izan al liteke? Izan liteke. Hots, eta gainera Jordi konbentzitu beharko zuen... Ze hipokrita den jendea.

Begietara begiratu zion, eta Maitek irribarre zabalarekin erantzun zion. Izan al liteke hain hotza, hain zinikoa? Maitek liburua mahai gainean utzi eta atzamarretako hautsa astindu zuen.

—Zer? Konbentzituko al duzu?

Eta Maite ez bazen? Eta berak batere ezagutzen ez zuen emakumezko bat bazen?

—Ezin dizut bermatu, Maite.

—Zuk diozuna egiten du hark beti –zuzendariaren konfidentzia-tonua.

Tina hirurak aldera altxatu zen, begiak irekita, senar infidel, ezleial, gezurtero baten ondoan lo egitea nola lortzen den jain barik, konbentziturik tristurak, oinaze bihurtuko zenak, sekula ez ziola jadanik atsedena hartzen utziko, eta laboratoriorantz abiatu zen hanka-puntatan. Jordiren txalo sintzeroekin eta Arnauren isiltasunarekin komun txikian instalatu zuenetik lehen aldiz, barrutik itxi zen. Etxean atzerritar sentitzen hasia zen. Urduri, eskuetan dardaren dardara, eta buruan ideia hau finkatuta, alegia lo ez egiteagatik lorik ez egitea, hobe zela hartan aritzea, lanean hasi zen.

Lehor ez zitezen plakak hartzen ari zenean, konturatu zen teleobjektiboarekin ere ez zuela asmatu. Argazki guztietan agertzen zen Jordi, kopeta zabal, noble ohia, maitatu ohia, ostatutik irteten, aurrerantz begiratzen, emakumea gerritik edo sorbaldatik hartuz, zerbait esanez. Eta emakumea bere anorakaren txanoaren barruan itzal deszifraezina baino ez zen, iluna, pista

bat eman ahalko zion trazarik gabea, bat bera ere ez. Ilunpean ezkutatzen den emakumea. Flaxa erabili beharko zukeen, baina orduan bere presentziaz, Doscaballosaz eta bere espioi txikia balitz bezalako umiliazioaz jabetuko ziren, eta Jordik beregana joko zuen jarraian, esanaz ez da pentsatzen dunana, Tina, benetan, batzarra lehenago bukatu da eta..., begira, kopa batzuk hartzen ari ginen, ezagutzen al dun?, nahi al dun presentatzea?

—Hark beti egiten du zuk esandakoa –errepikatu zuen Maite alprojak.

Beraz, horixe zen jendeak zeukan pertzepzioa. Zergatik erratzen dira hainbeste? Zergatik zen Zhivago doktorea beti arrazoia zeukana?

Liburu bat jausi zitzaion Joanari. Jaso, eskua zabalik garbitzeko itxuran-edo igurtzi eta Tinari begiratu zion:

—Torenako eskola zaharraren argazki bat atera omen duzu.

—Bai. Oraindik ez dut errebelatzeko denborarik izan eta eskola desagertu egin da.

—Ze gogorra.

—Bai. Tenpus fugit ziztu bizian.

—Eman ahalko al diguzu horren kopia bat? Erakusketarako...

—Bai, noski. Aurrekoa eta atzekoa egin dezakegu.

Eta argazkiaren ilunpean ezkutatzen zen emakumea Joana balitz? Idazkari diskretoa, serioa, baina txortan egiteko beti prest. Jakina bera izan zitekeela. Jainkoarren erotuko naiz, ez bainaiz duintasunarekin jokatzen ari, jeloskorra naizelako, suminduta nagoelako eta umiliatuta sentitzen naizelako, zatar bat bezala, eta ezin naiz lokartu, ez diot pentsatzeari uzten zer egin ote dudan gaizki Jordik, noble eta leiala zenak, era horretara traizionatzeko. Ez, Joana, ez; Dora edo Karmen. Agian Pilar. Edo Agnes, halakoxea baita bera... Ongi, ez dakit. Karmen, beti bromatan sexuaren kontura, gizon bat balitz bezala: Ez, Dora, hain gaztetxoa... Baina iruditzen zait Dora baxuegia dela. Zer dakit nik...

—E, Tina? Esango didazu non dagoen Hong Kong edo nitaz paso egiten duzu?

—Il faut tenter de vivre –erantzun zuen. Haurrek elkarri begiratu zioten, galdezka, irribarretsu, bat-batean beldurti. Berak oso urrutitik begiratu zien. Le vent se lève, bai –erantsi zuen.

—Tinak nitaz paso egiten du.

Xangaiko espresoa arrandiro atera zen tren-geltokitik. Lokomotoraren gurpilen ardatzak ahalegin titanikoz mugitzen eta lokomotoraren tramankulu astuna eta arrastatzen zituen luxuzko bi bagoiak higitzen hasi ziren.

Ordu berean, Elisenda andereak katetxo gurutzeduna kendu, bolizko kutxatxoan gorde eta atzeko atea irekitzen zuen, eta Quique, furtibo bat bezala, egurraren biltegian sartzen zen Bibianak, etxearen intziri guztiak ezagutzen zituelarik, begiak triste, kamamila bat prestatzen zuen bitartean, eta pentsatzen zuen, neskatxa gaixoa.

Quiquek korapiloa sentitu zuen eztarrian, izan ere Elisenda hain gustokoa zuen soineko beltz hura jantizita baitzebilen. Korapiloa sentitu zuen eztarrian, zeren pixka bat erromantiko jartzen zen bakoitzean, andereak agindu lehorrekin mozten baitzion, eta esaten zion, ez kezkatu eta ez pentsatu gauza arrarorik: txortan egitera etori zara nigana eta kitto. Beraz, jo larrua, horretarako ordaintzen dizut-eta. Hitz haiek min egiten zioten arantz batean amaitzen baitziren. Baina kontua da oso ondo ordaintzen zuela. Oso ondo. Orduan, Elisendak soineko beltza erantzi, hankak zabaldu eta sekretu batzuk eskaintzen zizkion bere maitale atletiko eta aurpegiz beltzaranari, presa balu bezala, bi biek, elkarrekin, erritual astun bat bete beharko balute bezala auskalo zein arrazoi ezkutuk behartuta. Bekatuzko gau haietan, Quiquek ez zion sekula irribarre bat ateratzea lortu. Sekula ez. Aldiz, hainbeste pasioz garrasi eginarazten zion, konbentzituta zegoen maitalerik abilena zela. Quiquek ez zekien garrasi haietan zegoen amorrua bereizten; horretarako eguzkitako betaurrekoak kendu beharko zituzkeen. Deus ere ez zekien pasatu zen guztiaz eta nola pasatu zen. Ez eta Elisenda andereak, bizitza ehun aldiz segidan ostera errepikatzea nahi izango zukeela, Bibiana lagun zuela eta mendekuz betetako maleta batekin, bakarrik ez baitzion bidaiatzen utzi nahi, Burgoserantz ihes egin zuen egunaz geroztik.

—Listo?

—Ez, gaur ez...

—Hara.

Lehen aldia zen Quiqueri ilusioa trabatzen zitzaiola. Ohiz, konfiatzen zitzaizkzion espektatibei bete-betean erantzuten zien makina bat zen.

Xangaiko trena alaiki zihoan, alor landuak zeharkatuz, zubi bat igoz, ingeniaritza britaniarraren arte-lan bat bera, ibai emaritsu baten gainean eta misterioz ernaldutako tunel batean sartzen den bere txistu garailea oso modu lausoan, itzalian, sentiarazten zuen bitartean.

—Ez dakit ba zer gertatzen den... –esan zuen lotsaturik Quiquek.

Andreak zakila ezohiko samurtasun-sentsazio batekin hartu eta trebetasunez berbiztu zion, mutikoteak ejakulazio onargarria lortu arte. Eta esker onez bezala, Quiquek beste orgasmo bat oparitu zion, andereak berriro garrasi egin eta bere ezinezko maitalearengan pentsatu zuen, eta indarrez egin zuen oihu, ez ordea atseginez, amorruz baizik eta Bibiana, bere logelatik, kamamila-kikara altzoan, aitaren egin eta pentsatu zuen, alaba gajoa, hain polita, hain aberatsa eta hain tristea, oraindik gabesten du, izan ere berak bai, oinaze propioak baztertu zituena neskatoarenak sarrarazteko, berak bai ulertzen zituela Elisenda Vilabrúren arimaren kezkak.

Elisenda anderearen ulu felino batekin kointzidituz, Xangaiko espresoak neurriz kanpoko abiaduran hartu zuen bihurgunea. Leihoko bihurgunea zen. Makina deskarrilatu eta albo batera erori zen elurtutako izei batzuen kontra, zeinetatik bat hegan joan zen hortzetako zotz bat balitz bezala. Luxuzko bi bagoiak trenbidean zeharka geratu ziren modu penagarrian, gurpilen bat biraka oraindik, baina mugitzeke. Marcelek ez zuen deus egin egoera zuzentzeko. Argi dago konturatzen zela lokomotora kuttunena bere bidetik atera zela; baina bera masturbatzen ari zen, malkoak begietan, ez baitzuen ulertzea lortzen teilatuko katuarenak gogoratzen zizkioten oihu haiek zer ziren. Elisenda andereak jakin izan balu arkitekturaren mirariek logelan egiten zituen intziriak ganbararaino garbi asko iritsarazten zituela, pentsatzen jarriko zen ganbara hura mutikoaren lurralde bihurtu aitzin, tren elektrikoarekin etab., dena ongi instalatuta, gramola elektriko aleman bat, eski eta botentzako lekua eta litera bat laguntxoren bat iristen zenerako.

—Internatutik ez da inor etorriko, eta herritik inork ez du etorri beharrik.

—Ez duzu literarik nahi?

—Zuk uste duzu Xavi Burés lotara geratuko litzatekeela hemen aurrean bizita?

Marcel semea aitaren heriotzak ekarritako tristuragatik konpentsatzeko egin zituen ganbarako obrak.

—Amatxo, nik ez dut eskolara joan nahi.

—Horretaz soberan hitz egin dugu.

—Kaka bat da. Nik hemen bizi nahi dut.

—Ahoa garbitu beharko duzu. Ikastetxean inon baino hezkuntza hobea ematen dizute.

—Torenako eskolara joan ninteke.

—Ez-eta-aitatu-ere. Kitto. Eta etxean zaudenean, etxeko goiko parte osoa zuretzat izango da.

Azkar jantzi zen Quique, bukaera zaputz haien deserosotasunarekin beti. Ohiz atzeko ateraino laguntzen zion andereak eta gero, behin bakarrik, gelan esertzen zen oherako jantziz, bolizko kutxatxoa eskuetan, eta negarrez hasten zen, eta umiliagarria zen. Gogorapen ironiko bat bezala, urruna, ama Benantziaren ohar zaharrak zeuzkan presente, zeinak beti esaten baitzien kastitatea dela emakume baten dohainik preziatuena, Elisenda Vilabrú andereñoa, hamar gramatikan, hamar geografian, hamar latinean eta zero kastitatean, ama Benantzia, eta dena ezbeharraren erruz.

—Orokorrean, ene alaba, emakumeek ez daukate hain konkupiszentzia sendoa.

—Uste dut biziko nintzela sexurik gabe, aita.

—Orain bai ez zaitudala ulertzen, alaba. –Aitortzailea isildu egin zen, piska bat desorientatuta. Tranbia bat zetorren Lluria kaletik gora buila eskandalagarria egiten eta aitorleku ilunean biak isildu egin ziren pixka batean.

—Ez dakit. Premia bat da... Demostratu nahi dut... Berdin dio.

—Ez, esan, alaba.

—Ez, ezer ez, ezer ez.

—Zergatik ez zara berriro ezkontzen, alaba?

—Ez, sekula ez. Maitasun handia bizi izan nuen eta zin egin dut ez naizela aurrerantzean ezkonduko.

—Eta beraz, zergatik zoaz gizonekin?

—Amorruagatik.

Beste tranbia bat. Aitortzaileak matrailetatik pasatu zuen eskua, ordu haietan jada latzak. Ez zekien zer esan. Luze egon eta gero:

—Ez dut ulertzen, ene alaba.

—Gauzak gertatu ziren bezala gertatu ez izana nahiko nuke.

—Ja... –Tarte handi bat gogoetarako–: Meditatu al duzu sekula eroapen kristau bertuteari buruz?

—Absolbatu al nazakezu, aita?

Gelara erretiratu aurretik, erabat iratzarrita, tiradera-altzari gaineko argazkietatik pasatu zuen eskua, hainbeste gorroto eta maitasunen errepaso azkarra egin nahiko balu bezala. Aretoko argia amatatu zuen. Pertsianaren zirrikituetatik ilargi izoztuaren zati ahula iristen zen.

Bibianak, anderearen anima barruan bizi zenetik pentsamenduak asmatzen dituen begirada zeukanak, azken kamamila-urrupa egin eta berak ere argia amatatu zuen.

JOSE ORIOL FONTELLES GRAU

(1915-1944)

CAÍDO POR DIOS Y POR ESPAÑA

G.B

Badakizu, seme? Herri txikietako kanposantuek beti ekarri dizkidate gogora familiako argazkiak: mundu guztia ezagutzen da eta denak lasai daude, bat bestearen ondoan betiko, bakoitza bere ametsari begira. Eta gorrotoak hainbeste geldotasunarekin desorientatuta. Eta ez pentsa, nigatik balitz, lapida hau ez nuke grabatuko zure maisua izan zen arren. Ez dut gustuko hiltzaile baten memoria grabatzea. Batzuetan gustukoak ez ditugun gauzak egin behar izaten ditugu eta hau da horietako bat: caído por Dios y por España eta beti buruan izango dugun krimenaren konplize. Ondo zentratuta dago, e?

—Bai.

—Ikusten? Hemen sartuko dut iltzeburu bat.

—Ertz bakoitzean bana.

Oso ondo, mutiko. Laster irakatsiko dizut nik. Maisuak ez du hainbeste begiramen merezi baina ez dakit lana gaizki egiten. Horrela, e?

—Bai, utz iezadazu niri fintzen, aita.

—Larrua gaizki jotako maisua, Valentik berak baino gaitz gehiago egin duzuna, hark, badaezpada ere, ez baitu disimulatzen. Ez gorde inolako oroitzapenik, ez baitu merezi, Jaumet. Eta badaezpada ere ez azaldu inori esan dizudana. Amen.

Bigarren zatia

IZENAK LURREAN

Talità qumi

Markos 5, 41

Ez balitz egunak merezi zuelako, antzarrak ferratzera bidaliko zuen mosen Rellak bere jarraitzaileen dozena-erdia, zeinek bidaia osoa, Erroman emandako bi turismo-egun, eta orain jai-egunean antolakundea kritikatuz pasa zuten, hots antolatzaileak kritikatuz, hau da gotzain jauna kritikatuz, beti aho ttikiarekin eta pentsatuz hark ez zituela marrakaz entzungo. Batik bat, Jainkoak barka nazala, Cecilia Báscones, gero eta zaharrago orduan eta energia gehiago baitauka. Ene Jainkoa, zein zaila den artaldeko buru bakoitzarekiko karitatea edukitzea, batik bat Basconesekiko, zeinak Erroman gaudenetik hirugarren aldiz, bere baldintzagabekoen aurrean, pasadan-edo jaurtitzen zuen, alegia, Hiri Santura joan baziren berari esker joan zirela. Mosen Rellak ahalegina egin behar zuen antzeman ez zekion ze grazia gutxi egiten zioten batik bat orain irribarre egiten zioten emakume haiek, zeinak harro asko sentitzen baitziren, itzuli ahala, Vaticanoko espazio pribatura gonbidatuentzako erreserbatuta zegoen atetik sartu zirela esplikatu ahalko zuten pentsamendu hutsarekin. Eta oso guardia suitzar guapo bat, dena esan behar da, zeinak auskalo zer-nolako guardia-mota egiten ahal duen han bere letoizko lantzarekin. Baina nolako begiak; nire bilobarenak bezalakoak. Eta orain sarrarazten dituen atezaina, mosen Rella txotxoloak ardiak baikinen edo monjekin txangoan joan izan baikinen, kontatzen gaituen bitartean.

—Quarantanove e cinquanta –dio artzainak ahots alatuagoz. Atezainak ez du inolako irribarre gozoz eskertzen hark egiten duen ahalegina italianoz mintzatzeko. Dena berdin zaie berendia hauei. Taldea, hamabi falangista ohi ondo jubilatuz eta bakoitzaren adiskidez, kolore ezberdineko hamabi alkatez eta gotzain-barrutiko parrokia-kontseiluetako ordezkaritza koloredunaz osatuta, azalpenik gabe uzten dute korridore zabal batean, dantza-toki bezala ederki balia zitekeena bera, zeinaren goiko aldean, fresko batzuk dauden, lehiotxo borobilez tartekatuta, korridorearen luzera guztia inguratzen duen friso bat osatuz. Eta koadro erraldoi bat, San Jose, makila loratzen zaion unean aurkezten duena. Korridorearen beste muturrean, euren taldearen antzeko talde bat, baina Guardans jaunaren arabera errusieraz edo antzeko beste zerbaitez mintzatzen dena.

—San Jose honek oso irtena dauka behazuna.

—Egia esatera beraz, hala dirudi, bai. Barrutik doakion bilirrubina hazi zaio. Eta behartzen banaute, santu honen ikterizia eritropoesi inefikazak eta, ondorioz, eritokritoen medularteko hemolisiak eragiten du.

—Joño.

—Bai.

—San Jose dela esan nahi duzue?

—Jaun-andreak, ez egin oihurik –mosen jaunak, pixka bat akituta.

—Galde ezazu hemendik komunik ba ote dagoen.

—Jakina egongo dela.

—Zu isilik. –Mosen jaunari–: Zergatik ez duzu galdetzen?

Mosen jauna deseroso itzultzen da, ezinegona ohartu ez dakion. Pixa zeukan emakumea nire bekatuetako Báscones bera da prezeski. Mosen jaunak ingurura begiratu eta errusiarrengandik urrutien dagoen hormari eusten dion armadura aspertu bat besterik ez du aurkitzen.

—Ez gaituzte hemen ahaztuta utziko, ez da?

—Espero dut ezetz, zeren etxetik honaino etortzea korridore batean errusiarrez inguraturik botata geratzeko...

—Ez al dira beste erlijio batekoak?

—Jaun-andreak, faborez.

Hasiera batean ahula da, baina urrutiko magiaren aura, modu ukaezinean auroritatez jantzita daukan takoi-soinu batek afektatuen protesta suabe baina parrastasuei gutxika gaina hartzen doa. Polliki-polliki isiltzen doaz marmartiak. Antza denez mundu guztiak entzun nahi ditu nondik datozen ez dakiten urrats haiek, erresonantzia handia baitago eraikin erraldoi hartan. Bat-batean, taldearen atzean dagoen korridorearen aldetik, gizon gazte bat irteten da, esanaz-edo, hara, hemen al zeundeten, eta aurkitzen duen lehenengoari zuzentzen zaio, irribarre batekin, adieraziz, den-denek jarraitu behar diotela. Mosen Rellak, taldean daukan nagusitasuna ez galtzearren, aurreratu, gizonarengana joan eta eskua ematen dio. Besteak keinua ulertu eta onartu egiten du. Baina mosen jaunak gauza bat dauka buruan eta dio, komuna?

Gizonak harrituta begiratzen dio.

—Toilette, gabinetto –probatzen du mosen jaunak.

Orain bai ulertu diola gazteak eta gelditu egiten da, izan ere gabinetto baten aurrean baitaude, ordu erdiko geldialdia, ez utzi motxila, ez edan ur askorik, eseri baina ez etzan, mirestu paisaia. Beste egun batean ekar ditzala beste batek, pentsatzen du mosen jaunak.

Orain errusiarrak-edo dira jarraitu dietenak, taldearen mugimenduarekin imantatuta. Ia-ia modu arriskutsuan hurbildu dira eta errusiarretako batek frantsesez erantzuten du, zer zabiltza, errusiarrak gu, Guardansek, taldeko irakurrienak, ingelesez galdetzen dionean errusiarrak ote diren. Ezin die albistea besteei eman, izan ere bi taldeetako kide gehienak beren puxika zigortuak atsegin-hasperenez ustutzen ari baitira.

Gravat Etxea, orain Jose Antonio deritzan Major zenaren kale amaieran, mila zazpiehun eta hogeita hamaikan eraikia izan zen, terrenoaren inskripzioak ziurtatzen zuenez. Joan Vilabrú i Tor jaunak eraikiarazi zuen familiaren jabegoa zen Gravat etxe zahar baten gainean, erabaki zuenean gauza bat zela lana eta beste bat norbera bizi den etxea. Maizterra, administratzailea, mutilak azken morroia barne, makineria, tresnak, albitza, alea, euli beltzak, hatsa, gorotzak, mandoak, zaldiak, eta abere guztiak utzi zituen Padrós enean, hantxe bizi izan baitziren ordura arte, eta etxe berria mantsio bihurtu zuen, behea jotako baroi bati Malavellako jauretxearen jurisdikzioa erostera Bartzelonan egondakoan ikusitakoak bezalakoa, eta horrek esan nahi zuen familiaren jabego guztiz zabala ildo batzuk gehiago areagotu eta noblezia ttikian norbait izateko arte zailean estreinatzea. Haren seme bat, asko sinistuta zeukana baroi-izate hura, Bartzelonan eta Menorkan saiatu zen probatzen, baina bailarako ziurtasunera itzuli zen, familiak dirua soilik betiko eran egiten zekiela konbentzituta: abelburuak salerosten, bere lur zabaletako albitzen soberakinak saltzen, artilea saltzen, lurrak erosi eta ostera saltzen, Historiak bere eskura jartzen zituen amortizazioen abantailak buruz profitatzen, informazio berria inor baino lehen erabiltzeko belarria beti erne edukitzen, eta lurren gobernantza erabateko konfiantzazko beste pertsonei soilik konfiatuz, ezein Vilabrúk pertsonaliki egiterik ez zeukanean. Orduz geroztik, Gravat etxea barrutik zein kanpotik haziz joan zen. Mila zazpiehun eta laurogeitik irudi femenino sendo berberaren grabatu eder eta famatuak nabarmentzen ziren fatxada nagusian, zeinek, balkoiek banandutako hormako hiru ataletan, belarraren igitaitea, abere artiledunen motzaldia eta artaldeak larre idilikoen barrena barneratzea errepresentatzen zuten. Espazio gehiago izatekotan, Jon Vilabrúren laurtekoek beste eszena batzuk gehitu ahalko izango zituzketen, haiek ere idilikoak, kontrabandisten taldeak fardoa korrikaldi luzean harrapatuz Salauko porturako bidean, izan ere XIX. mendean, Vilabrú familiaren txanponetako asko taldeak kontratatuz, Ariejako edo Andorrako merkatariekin kontaktatuz, karabineroak erosiz, merkantziak sakabanatuz eta autoritateak harrapatzen sekula utzi gabe bildu baitziren. Marcel Vilabrúren ordua iritsi zen arte (1855-1920 Torenako ongilea, G.B.), zeinak, Lehen Errepublikaren abentura eroa amaitu zenean, monarkia berreskuratuaren zerbitzura jarri baitzen, Vilabrútarrak ostera familia errespetagarria ez ezik errespetatua izaten jarraitzen zuela erabaki zuen, bere bigarren seme August apaiz egingo zela erabaki zuen eta txikia, Anselm, Akademia militarrera bidali zuen. Bi semeek bizitza bideratua zeukatenean oinordekoa hil zitzaion, Josep (Josep Vilabrú 1876-1905 gure seme kuttuna G.B.), Torenako kanposantuan familiako panteoia eraiki eta dirutza sartu zuen ingurune sakratu guztia konpontzeko. Inbidiaren ahotsak ziurtatzen du ezen Marcel jaunaren konbertsioa behartu samarra izan zela, mendearen aldaketa-garaian taldeburu kementsu eta basatiak agertu zirenean, bide, erruta, ezkutaleku, borda, artzain eta txokoen ezagutzaile benetakoak, bitartekariak kendu eta euren arriskua eurek zuzenean negoziatu nahi izan zutenak.

Beraz, Gravat etxeko atea zeharkatu orduko, beste mundu batean sartzen zen, beste atmosfera batean, usainak eta soinu apalak eta hiru neskame, Bibiana zaharra buru zutelarik, hamaika zuloetatik sartzen zen hauts eta usain txarrak tai gabe kentzen jarduten zutenak. Atariaren eskubi aldera, bisita-gela nagusira ematen zuen atea zegoen, espazio ikaragarri handia bera, bi besaulki zabal, sofa bat eta Chippendale konfidentea zeukana, neguan etengabe erretzen zuen su baxua, bibelotez betetako balda bat, irudi eta sekretuz kargatutako bi ispilu, eta Marcel aitonaren oleozko erretratua. Atetik gertu, altzairuen

tonuarekin bat zetorren kutxa batekin, hormako erlojua, zeinak, orduro, doinu sakon eta nobleaz, bertan zeudenei gogoratzen zien denbora aurpegia itzuli gabe doala. Erlojuaren eskubi aldera, balkoitzarra ukituz, langela, tiraderak dokumentuz lepo, adierazten zutenak etxe hartan Vilabrútarren hamaika belaunaldi bizi izan zirela dirua egiten eta terrenoak metatzen. Bufetaren gainean hamazortzi argazki zeuden, saminaren misterio, etxeak eta bertan bizi zirenek arnasa hartzen zuten bi pertsonaiei dedikatuak. Anselm Vilabrú jauna, kanpainako uniformean eta hiru kapitain-izarrak soinean, eta bi haurrak, Josep eta Elisenda, argazkilariaren etxean, Anselm Vilabrú bibote iluna eta erasokorrarekin, Josep lanbroari begira eta Elisenda, pentsakor, munduaren etorkizuna umetatik arakatu nahian-edo. Bi senideak, adin ezberdinetan. Elisenda, nerabe eta bakar. Oriolek atzamar bat pasatu zuen argazki hartatik: jadanik bazeukan aurpegi obalatu berbera, perfektua, sudur zehatza eta begi biziak. Begi zailak izango dira, ziur. Argazki handienean, lehentasunezko txokoan kokatuta, Anselm Vilabrú kapitain ohia bizitza zibilera itzulia eta haren seme zaharrena, Josep, orain gazte burgoia, citius et fortius, Gravat etxeko lorategian, te-jokoaren aurrean mahaira eserita, bi-biak objektiboari so, argazkia egiteko orduan geratzen zitzaien etorkizun eskasa bilatuko balute bezala. Lau egun ziren Boscosako landak eskuratu zituztela, Anselm jauna prest zegoen dirua zakuka irabazteko Malavellako baroigoari zegozkion eskubideak galtzeak zekarren errege-zigorra konpentsatzeko, baina gutxi falta zen Trempeko FAIko inkontrolatuen taldeak, Cid maisuak kontrolatuak alegia, biak harrapatu eta belarritik arrastaka Sebastiàren alorrera eramateko, kanposantuaren azpian, egun argitan, eta hori, Bibiana, Bringuéren eta beste bien, nola dute izena, nola dute, afera besterik ezin da izan, eurek salatu gaituzte, Bibiana, Trenpen zer jakingo dute, eurek etorrarazi dituzte, Bibiana, zin egiten dizut irentsarazi egingo dizkiedala hildako hauek. Zu isilik, haurra baino ez zara-eta. Ez dut isiltzeko asmorik, Bibiana.

Gai militarreko beste pare bat argazki ere bazeuden. Argienean, Anselm Vilabrú kapitaina, hiru izarreko ofizial-kapelarekin garaitu-aurpegiko bi errifetarren aldamenean, ehiztariak orein ehizatuaren gainean hanka bat ipintzen duen satisfakzio berberarekin. (Ondo ohartuz gero, bi marokoarrek atzeko aldean ezkutatzen zituzten eskuak eta horrek hobeto ulertarazten zuen Vilabrú kapitainaren begirada). Ahopeka azaldua zion Josepek Elisendari bi moroei ez zitzaizkiela eskuak ikusten bi eskumuturrak lotuta zeuzkatelako; atxilotuak ziren eta, argazkiak egin ondoren, aitatxok fusilau egin zituen. Berak eman zien azken tiroa, eta ez inori esan, eta aitari ez esan nik azaldu dizudala ala hilko zaitut. Eta Elisenda betiko isildu zen eta orain Oriolek mahai gainean uzten zuen argazkia, sekretua deshobiratu gabe. Zergatik ez dago amaren argazkirik?, galdetu zuen. Amarik ez al du Elisenda andereak? Eta haren senarrak ere ez al du argazkirik merezi?

Erlojuak indiferentziaz erantzun zuen arratsaldeko seiak zirela eta kanpoan iluntzen hasia zela.

—Herri honetan putaseme asko dago eta zuk jakin beharra daukazu –esana zion Valentí Targak Torenako maisu-plazaren jabetza sinatu zionean.

—Ni maisua naiz eta nire lana zaindu beharra daukat zeren...

—Zu maisua zara eta nik esango dizudan guztia izango zara.

Alkatetzako bere aulkian eserita, burua altxatu zuen haren begietara so egiteko. Oriolek, zutik, Valentí jaunaren aurrean lehen aldiz hankek huts egiten ziotela sentitu zuen. Ez zuen ezer erantzun eta alkateak esertzeko agindu zion buruarekin. Orduan azaldu zion ezen, patria mugimendu loriatsua beharrezkoa egin zuen marasmo iraultzaile komunista separatistan hondoratuta zegoenean, hemen Torenan oso gauza larriak gertatu zirela.

—Ze gauzak?

Oriolek alkatearen atzeko hormarantz begiratu zuen. Franco kanpainako abrigo sendoarekin eskubian eta Jose Antonio buruan brillantina eta alkondara iluna ezkerrean eta erdi-erdian gurutziltzatua zirkunstantzia-aurpegiarekin, eskolan bezala. Valentí jaunak zigarro bat bildu zuen.

—Hark ez du asko hitz egin nahi: haren aita eta haren neba.

—Nor da hura?

Valentí Targak harriduraz begiratu zion une batez. Orduan erreakzionatu eta argitu zuen:

—Elisenda Vilabrú anderea.

Ahots sorrarekin, oraindik kontrolatzeko ahalegina egin beharko balu bezala azaldu zuen uztailaren hogeian etorri zirela haien bila; Trenpeko gorri eta faitarren talde bat izan zen. Ba al duzu Maximo Ciden entzutea? Ez? Maisu bat, zu bezala. Baina hiltzailea. Hain hiltzailea, gero bereek garbitu zuten, eta nik egiteko aukera kendu zidaten.

—Elisenda andereak ez zidan ezer esan.

—Maiz ikusten al duzu?

—Ez. Bisitan joan naiz, Rosarekin. Zergatik?

—Ezer ez, ezergatik ez.

—Beraz ez du hitz egiten baina argazkiak dauzka, hori bai. Nebaren eta aitaren argazkiak dauzka.

—Ez du hitz egin nahi, kitto egin nahi omen duelako.

Zigarrroa piztu eta isilik erre zuen une batez. Keak gomutak ekarri bailizkio bezala esan zuen, lepotik lotu eta Sebastiaren alorreraino arrastatu zituzten. Vilabrú jauna zerraldo iritsi zen. Baina Josep, mutiko gajooa, oraindik bizirik zegoenez, gasolinaz busti zuten. Eta are gehitu zuen hilketa haren konplizeak herritar batzuk direla.

—Alegia?

—Hiru hiltzaile eta atzamar bat mugitu ez zuten dozena batzuk. Bringuétarrak, Gassiatarrak, Nasiren Mariaenekoak...

Orain Oriolek, Gravat etxeko leihoaren aurrean zutik, argia gauerako bidean ahultzen zihoala kontenplatu zuen, eta azal ezinezko malenkoniak harrapatu zuen. Baina orduan eguzkiaren argia egin zen, Elisenda anderea azaldu baitzen inoiz baino ederrago. Beldur pixka batekin egiten zuen irribarre, baina Oriol jabetu zen margotzeko tresnak eraman ote zituen izan zela, begirada azkarrarekin, konprobatu zuen lehen gauza.

—Non jarriko naiz? –esan zuen inpazientzia pixka batekin.

Zerua eskuekin ukitu-zorian zegoen Oriol. Elisenda anderearen eskuaren zerua. Nola izan daiteke hain emakume gaztea den hau nire begietara jainkosa bat izatea eta niri hitzak toteltzea eta nik esaten ere ez jakitea, eseri zaitez hemen, aulki honetan, pixka bat horrela, niregana begira, bai.

Brillantezko belarritakoak ipinita zeuzkan Elisendak, eta buruaren mugimendu, are txikienarekin, izarniatzen ziren, eta Oriol itsututa sentitu eta zezelka hasi zen, bera margolaria baino gehiago marrazkilaria zela esanez.

—Rosari egin diozun erretratua berebizikoa da.

—Eskerrik asko.

Oriol, erabat txundituta, gainera orain emakume hark isurtzen zuen lamia-usaina, lurrin fresko eta gozoaren eta haragi garbiaren nahasketa bat, hautematen hasia zelako. Nardo-usaina, esana zion Rosak, susmatu gabe gizonak bi gautan amestu zuela usain harekin.

Barrak, paleta eta pintzelak ordenatzen hasi zen Oriol, aurrera ez begiratzen saiatuz, urduri, lehen aldia baitzen biak bakarrik zeudela. Beti bisitan joana zen Gravat etxera, Rosarekin, eta beti zegoen norbait, bat edo beste. Eta orain ez. Elisenda, bikain, distiratsu, nardoz betetako espazio bat eta oihal bat zuriz. Eta bere atzamar urduriko eskuak, margoen tuboak irekitzen. Bere Elisendarantz begiratu zuen orduan. Haren bezeroarengana.

—Ordainduko dizula?

—Hori esan dit.

—Zenbat ordainduko dizu?

—Ez diot preziorik ipini. Ez baitakit zer eska ahal diodan. Baina insistitu du ordainduta izango zela.

Rosak orratza sartuta utzi zuen alkandora josturako saski gainean, esku bat sabelean jarri, haurraren mugimenduak kontrolatzeko-edo, Orioli bere begi tristeekin begiratu eta esan zion, eska iezazkiozu bostehun pezeta.

—Alegia?

—Bai. Gutxiago eskatuz gero iduriko du ez zarela garrantzitsua.

—Ez naiz garrantzitsua-eta.

—Seiehun.

Oriolek aurpegia igurtzi zuen eskuekin. Seiehun pezeta emakume eder-eder bati eskatzea.

—Seiehun –berretsi zuen Rosak. Eta eska iezaizkiozu, ezer ez esateko gauza zara-eta.

—Bada...

—Seiehun, Oriol.

Seiehun pezeta eskatu behar zizkion. Orain? Saioa bukatuta? Biharamunean? Sekula ez?

—Ondo nago horrela?

Ondo zaude nahi duzun bezala jarrita.

—Begira, iruditen bazazizu...

Oriol hurbildu egin zitzaion, nardo-usainarekin ito zen, eta beso bat hartu eta modu delikatuan aulkiaren besoan utzi zuen, eta atzamar dardarti eta errukiorrekin okotsa hartu eta aurpegia pixka bat biratu zion, posizio erabat frontala hausteko. Agian engainatzen ari zen, baina gorputz hark berotu egiten zuen. Beharbada imajinatu egiten zuen, baina anderearen begirada besoa hartu zionean, antsia erreprimituz beteta zegoen. Ez dakit. Bai. Baietz iruditzen zait.

—Nire bizitzan egiten didaten lehen erretratua da –Ahotsaren dardarizo ttiki batekin esan zuen.

Biluzi bat egin nahi nizuke. Onartuko al zenuke?

—Ba dakizu zer? Gaur soilik egingo dugu... Gaur soilik konposizioa egingo dut. Eta lau pintzelkada argia aztertzeko...

Ez naiz eskatzen ausartzen ezinezkoa delako, baina sakonean nahi dudana zuretzat biluzik posatzea da, esku nobleak, begirada sublimea. Ez nazazu ostera ukitu zeren...

—Nire senarra tematu egin da eta ezezagun bat etorrarazi baino lehen, nik...

Zergatik ez dut sekula zure senarra ikusi? Zergatik ez daukazu haren argazkirik? Zergatik erretratuarazi nahi zaitu?

Oriolek modeloaren beso elektrizatua utzi zuen, bi urrats atzeragotik kontenplatu zuen, erabat aztoratuta, eta zurezko astoaren ondora itzuli zen, bihotza zoro. Ikatz-ziriarekin trazoak egiten hasi zen, eta lasaitzen.

—Ba al dakizu zenbat kostatuo zaidan?

—Ongi... Nik... Ez da beharrezkoa...

—Berriro diot. Zuk ez baduzu kobratzen nik ez dut posatuko.

—Seiehun –marmartu zen, lotsaturik.

—Zer?

Orain popatik hartzera bidali eta lapurtzat hartuko nau, kontrabandistatzat, aprobetxategitzat, zikoiztzat.

—Bostehun –zuzendu zuen pixka bat aztoratuta.

—A, oso ongi. Garestiagoa izango zelakoan nengoen, egia esan.

Ergela. Idiota. Astakirtena.

Isildu egin ziren. Minutuek pintzelkada ilunak ipintzen zihoazen kanpoko paisaian, Oriolek ikatz-ziriarekin, oihal gainean, emakume soslaia egiten zuen bitartean.

—Ba al daukazu libururen bat, hemen? –Animatuta, ikusten baitzuen nolakoa izan zitekeen koadroa–. Berdin dio: har ezazu argazki bat. Horrela eskuetan, liburu bat bezala. Bai.

Belarritakoen brillanteak milaka ilusiotan zapartatu ziren emakumeak egin zuen mugimendu ttikiarekin. Lepo fin askoa dauka. Nolako margolari-eskuak, zein bekoki zabala. Eta ahotsa.

Oriolek Elisenda anderearengana hurbildu eta argazkia hartu zion. Apaiz bat, sotana eta artile oneko manteoarekin, hirugarren botoi-zulotik irteten zen kate sendoa, aurpegi eztia eta irribarre maltzurra disimulatzen zuena, beste argazkietako lorategiko mahai berberaren aurrean eserita. Haren ondoan, zutik, Anselm Vilabrú kapitaina zibilez jantzita, begirada zorrotzarekin objektiboa zulatuz baina apaizaren itxurazko eztitasuna konpartituz. Biak une zoriontsua bizitzen ari balira bezala.

—Heldu horrela, liburu bat balitz bezala eta irakurtzen ariko bazina lez.

—Zera ematen baitit.

—Orduan hitz egin iezadazu edozertaz. Esaidazu zeintzuk diren argazkikoak.

Oriol egurrezko astorantz itzultzen zen bitartean Elisenda anderea errezitatzen hasi zen, esaneko, eta esan zuen hauek biak nire aita eta August osaba, haren anaia, dira. Nire aita, txikia da. Tira, zen. Gero hiruzpalau aldiz jo zuen atzamarrekin apaizaren irudiaren gainean.

—Duela gutxi itzuli da Erromatik. Alde egin behar izan zuen... Ongi, aitaren heriotzaren egun berean. –Arretaz begiratu zion argazkiari, lehen aldiz ikusi balu bezala–: Eta asko maite omen zuten elkar.

Mosen August Vilabrúk liburua mahai gainean uzti, argazkilariari lorategia uzteko keinu lehor bat egin eta esertzeko esan zion anaiari. Bi anaien aurpegien eztitasuna gelatina beroaren aurrean bezala desegiten joan zen.

—Zure alabaren aurrerakuntzei buruz informatu nahi zaitut.

—Berdin dit, zin egiten dizut. Elisenda neskato bat baino ez da. Nik nahiko nukeena da Josep argiagoa izatea.

—Jainkoarren, Anselm –esan zuen pixka bat itxuraz–. Nolatan daukazu hainbeste gorroto metatuta?

—Zu ez zara inor niri aurpegiratzeko.

—Uste dut baietz, zu baino zazpi urte zaharragoa naiz, apaiza eta teologoa naiz.

—Zu, soilik deribatuez eta integralez interesatzen den matematikari sotanaduna zara. Ez dakizu zer den guda-landatik pasatzea.

—Jainkoaren Ama guztiz santua... –Eskandalizatuta, ahots eztiz–: Guda-landa...

—Ez zaitez hipokrita izan, Biblia odolez, behazunez eta guda-landaz beteta dago-eta.

—Elkarrizketa desbideratzen ari zara.

—Ez dut deus desbideratzen. –Anselm Vilabrú, duela bost hilabetez geroztik erretiro behartuan, sutan altxatu eta, bere anaiarengana makurtuz, hitz bakoitza proiektil hilgarria balitz bezala mintzatu zen–. Zuri inork ez dizkizu hirurogei gizon hilko Iguereben ordenak gaizki emateagatik.

Mosen August isilik geratu zen. Bere anaia baliatu zen esateko, ez atera hemendik baina argi gera dadila nire sakoneko etsaia ez dela Iguerebe, ez indar marokoarren armada, ez Alhuzema eta ez Muhamad ibn Abd al-Karim traidorea. Nire etsaia errege du izena, Alfontso hamahirugarrena, putaseme alaen ergela, zeinak ondo moztutako azazkaleko atzamar bat gelako mapa baten gainean jarri –bertara joan ohi baitzen gerran jolastera– eta esan zuen, hemen, hemen nahi dut Alhuzemako armada, eta besteek, baina majestate, hori agintaritza nagusiak jakin beharko luke. Eta erregea putatan...

—Kontrola ezazu hizkera, mesedez. Ni iraintzen ari zara.

—Oso ondo: beraz, erregeak entzun zuenean esaten ziotela, baina majestate, hori agintaritza nagusiak jakin beharko luke, ostera markatu zuen atzamararekin Alhuzema aldean, eta esan zuen, hemen esan dut, eta besteek aztoratuta begiratzen zioten elkarri, zer egin jakin gabe, eta horregatik erregea, zeinak gainera baroitza kendu didan zigor modura, nire etsaia da, eta oso ondo iruditzen zait Primo de Rivera bezalako soldadu adoreko, kementsu eta prestigiodun batek bizitzea egokitu zaigun herri desolatu honetan ordena jartzea. Aski ondo azaldu al dut?

Anselm Vilabrú kapitainak akademia militarrean ikasi zuen bere buruari entzuten, eta urteak egin ahala bizkortasun erretoriko gehiago irabazten zihoan. Orain pozik zegoen bere

diskurtsoaren emaitzarekin. Batik bat jabetuta zegoelako ezen suhartasun patriotikoak eragina izan zuela bere anaiaren animoan. Igerle-airez azpimarratu nahi izan zuen:

—Balio duen militar batek kaos honetan ordena jarri nahi duen bakoitzean, bere alde edukiko nau.

Mosen Augustek desenkusak bota zituen bere sotanaren gonatik. Aspaldi zen ez zela arratsalde hartan bezainbeste desoroso sentitzen bere anaia gazteenarekin. Gainditua ez izateko, disimilitudo teknika hartzea erabaki zuen, eta tonu intimo eta lasaian azaltzeari ekin zion:

—Ez ditut militarrak gustuko.

—Aitak ni militarra izatea nahi izan zuen. Eta zu apaiza.

Mosen Augustek begietara so egin zion anaiari:

—Ez ditut gustuko erregea umiliatzen dutenak.

—Ba al dakizu zer den okerrena? Annualen gertatu zen guztia, eta bide batez nire karrera kostatu zaidana, ekidingarria zela.

—Ez gaude politika handia ulertzeko eginak.

—Badakizu zer den are okerragoa?

—Bihotza gorrotoz beteta daukazu. Zure gorrotoaren errua ez da erregearena, Pilarrena baizik.

—Iguereben, hirugarren konpainia aurreratzeko agindua eman zidatenean, nik banekiela erdia baino gehiago hilko zirela. Baina aurrera egin genuen soldaduak beti men egiten duelako.

—Jainkoak barka zaitzala, Anselm. –Hotz begiratu zion–: Barkatu tematzea baina Pilarrek...

—Zein urtetakoa da argazki hau? –esan zuen Oriolek, esatearren.

—Mila bederatziehun eta hogeita laukoa –irakurri zuen andereak argazki-oinean–. Nire aitak armada utzi eta hona itzuli ginenekoa.

—Eta zure ama? Nolatan ez...

—Pasa den udaberri honetan Erromatik itzuli zen August osaba. Kalongea delarik, Seu d'Urgellen kokatu da... –Irribarre egin zuen–: Baina oso maiz daukat hemen. Nire tutore espirituala dela esatea du gustuko.

—Eta ba al da?

—Bai. Jakina.

—Jarrai ezazu hitz egiten.

—Jakintsu bat da.

—Zergatik diozu hori?

—Algebrako liburu bat eta holako gauzak argitaratu ditu, eta oso errespetatua da kanpoan. –Irribarre deseroso bat egin zuen–: Zergatik jarraitu behar dut hitz egiten?

—Bestela zurrundu egiten zarelako.

—Aspaldi bukatu al dituzu magisteriko ikasketak? –andereak, kontraerasoan.

—Gerra aurretik, gaztetxotan.

—Badakizu zer gustatu zitzaidan? Etxean hainbeste liburu edukitzea. Edukitzea...

—Noski, normala da... –Oriolek, apal–: Eta ez dira ba hainbeste.

—Zenbat urte dituzu?

—Hogeita bederatzi.

—Hara, adin berekoak gara.

Ospa. Hogeita bederatzi urte dituela esan berri dit. Hogei zeuzkalakoan. Hogeita bederatzi. Non dago bere senarra?

—Eta nola hasi zinen margoketan?

Santiago jauna existitzen da ala eulitzarren aurka asmatu duzun barrera bat da?

—Ezpala banuenez, Llotjara joan nintzen eskolara, gerra-garaian.

—Bartzelonara?

—Bai, Poble-seceko semea naiz. Ezagutzen al duzu Bartzelona?

—Bai, noski. Han ikasi nuen.

—Non?

—Bonanovako teresatarretan.

Harengana so egin zuen ezkutuan. Teresatarrak. Bonanova. Beste mundu bat hiri beraren barruan. Mingaina aho-sabai idortuarekin topo egiten sentitu zuen. Andereak, ostera:

—Intelektualki eta espiritualki formatu naute. August osabaren gidaritzapean, aita beti kanpoan baitzegoen, zerbitzuan.

Eta ama?

—Gomuta txarra daukat eskolari buruz. Margarit kaleko pisu ilun batean..

—Bada nik ez. Alderantziz. Eta Bartzelonara jaisten naizenean...

—Etxe bat al daukazue?

—Bai, jakina, izatez, han eman behar du astea Santiagok. Eta hilabetea, eta urtea.

—Noski.

—Hitz egin noka. –Zer zioen jakitun eta leize batetik irristatzen ari zela sentituz esan zuen, Forcalletseko leizea bezain amaiezina baina plazerra bezain atsegina.

—Zer?

—Atsedena hartu behar duanean, tea ekartzeko abisatuko diat.

Jainkoarren, bihotzekoa emango dit koadro honek. Beste era batera hartu beharko dut.... Ez dakit.

—Hi ez al hintzen frontera joan?

—Ez. Urdaila.

—Hori dena aurreztu duk. Gustukoa al duk eskolako lana?

—Bai, baina ez hitz eginarazi niri. Hitz egin hik.

—Zertaz hitz egitea nahi duk, Oriol?

Brillanteek distirak egin zituzten, jirabiraka, nahiz eta andereak ile bat bera ez zuen higitu. Edo haren begiak ote ziren?

Ireki zuen anderea, nor da, zer nahi duzu esan ordez, hari begira geratu zen, atearen eskutokiari oratuta, inguruka zebilkion pentsamendua mardulegia zelako egiten ari zenetik distraitu izan balitz bezala. Aurpegian, zimur toles-forman, amore eman gabe hirurogeita hamarrera hurbiltzen ari zen bizitza oso baten historia korapilatsua. Eta begiek Tinaren begirada ahula trepanatzen zuten, zeinak deseroso sentitu eta esan zuen, zu Ventura al zara?

—Bai.

—Ventura atsoa?

—Beste kazetari bat?

—Ba, ez, ni... –Kamera ezkutatu nahi izan zuen baina beranduegi. Ondo ohartu zen ateari eusten zion eskua inpazientziaz gogortzen zela; baina Venturaren aurpegiak ez zuen hura adierazten utzi.

—Badira hiru hilabete laurogei eta hamabost urte bete zituela. –Oraindik pazienteki–: Saio eta omenaldi guztiak amaitu zirela esan ziguten.

—Izan ere beste zerbait dela-eta nator.

—Zer?

—Gerra.

Ekiditera iritsi aurretik, emakume hark atea itxi eta kale erdian utzi zuen Tina Bros, ergel aurpegiarekin eta erro batean estropezu eginda pieza izutzen duen ehiztariaren frustrazio-sentsazio berberarekin. Kalean gora eta behera begiratu eta soilik bere arnasaren bafada zuen lagun. Isiltasun hotzezko hamaika maluta zuri eztiki jausten hasi ziren ostera, baina berak pentsatu zuen, ze pena, trebezia baneuka jendea konbentzitzeko, eta gora joan ala behera edo kafean itxaroten sartzea erabakitzeko zorian zegoelarik, berriro ireki zen Ventura etxeko atea, eta ospa egitera bidali zuen emakume lehorrak sartzeko agindu zion erantzunik onartzen ez duen aginte-keinu lakonikoz.

Urteek eta agian saminak abaildutako andre bat topatzea espero zuen, ohean etzanda, eta bere atsekabeen kontura intziri egiteko prest. Baina Venturaren etxeko jantoki-sukalde ttikian sartu ahala, ilun jantzitako emakume bat aurkitu zuen, ile zuri eta eskasekoa, zutik bere zain, makulu batek lagunduta eta bere alabak bezain begirada sarkorra zeukana. Torenan mundu guztiak zeukan begirada zorroztua hainbeste gorrotatzeagatik, hainbeste denboran hainbeste isiltzegatik.

—Zer azaldu nahi didazu gerrari buruz?

Gela ttikia zen. Oraindik zeukaten sua lurrean eta sukaldea berotzeko. Leihoaren azpian, harraska, txukun eta garbi. Eta hondoko horman arasa, zoparen zopaz maspildutako platerez beteta. Erdian, hule horizta batek estalitako mahaia eta, txokoan, butanozko sukalde bat. Jantokiaren beste horman telebista ttiki bat, eskiatzaile nordikoen ezinezko tranpolin batetiko hegaldi exajeratuak erakusten zituena, bolumena jaitsita, eta haren gainean tapete puntaduna, Tinak nongoak ote ziren asmatzerik ezin zituen postal batzuekin.

—Nik ez... Zuk niri azaltzea nahi nuen... Zure adierazpenak irakurri nituen Llar-eko aldizkarian, eta...

—Eta jakin nahi duzu zergatik ez nuen Erdiko kalea hogeitahamar urtetan zapaldu.

—Hori da.

Alabaren keinu berberetsuarekin, esertzeko agindu zion.

—Andereak agian kafe bat nahiho du, Celia.

—Ez, niri...

—Egiozu kafe bat. –Azalpen modura–: Ez dut hartzen baina gustukoa dut haren usaina.

Handik hiru minutura berak eta Ventura etxeko Céliak kafe sendo eta beltza hurrupatzen zuten, eta atsoa begira zeukaten, hark interes handia balu bezala. Gauzak ez bortxatzeko erabakia hartua zuen Tinak, eta zain zegoen bestea hasi arte. Asko behar izan zuen, asko-asko; baina azkenean Ventura atsoak esan zuen, kaleari izena aldatu eta Falangista Fontelles jarri zioten.

—Zein zen Fontelles falangista?

—Gerra bukatutakoan herrian izan genuen maisu bat. –Zalantzarik gera ez zedin–: Oriol Fontelles.

—Nik maisu izan nuen –sartu zen Céliak–. Jadanik ez dut deus gogoratzen, oso ttikia bainintzen. –Eta kafe-katiluaren isiltasunaren atzean gorde zen ostera.

—Makur traidore bat, gure familiari ezbeharra ekarri ziona. Eta herri osoari. Eta beste tonu batean–: Itzali telebista, umea.

—Zer gertatu zen maisuaren emaztearekin?

Célia altxatu eta txintik ere egin gabe bete zuen agindua. Tinaren atzean, errekor berria lortzeko zorian zegoen jauzilari finlandiar bat jauziaren erdian halabeharrez harrapatuta geratu zen deskonexioaren erruz. Ventura atsoa hausnarrean ari zen:

—Ez dakit. Alde egin zuen.

—Hura bai ez dudala gogoratzen –esan zuen alabak berriro jesarriz.

—Denbora honetan guztian, ogiaren bila joateko, Rasatik buelta osoa eman behar izan dugu.

—Etxeko inork ez zuen kale hori zapaldu. –Ahots apalagoz–: Nire nebaren gomutan.

Jauzi egin zion bihotzak Tinari. Moldatu eta arriskurik gabeko galdera bat hautatu zuen:

—Eta jendeak zer zioen?

—Baziren inoiz zapaldu ez zutenak ere. –Bere alabaren katilua hartu, esku dardartiz hurbildu zuen hurrupa bat ematera joango balitz bezala, baina soilik usaina hartu zuen. Céliak eutsi egin zion erori ez zekion, eta bere tokira itzuli zuen. Ventura atsoa jabetu gabe zegoen–: Feliçó etxeko Ramona izen-aldaketa ikusi gabe hil zen, gaixoa.

—Eta gainerako jendea?

—Buréstarrrak, Majals etxekoak, Narcis, Batalla... –Letania eten zuen memoria egiteko. Kafe-katiluari begiratu eta jarraitu zuen–: ...Savina etxea, Birulés etxea... Eta Gravat etxea, noski.

—Zer?

—Horiek denak, pozik. Nazionalak sartu zirenean poztu ziren faxistak. Eta Cecilia Báscones estankokoa, malapartatua, etxe aurrean caralsol kantatzera etorri zena.

Arnasa errekuperatu arte itxaron zuen, korrikaldia egin izan balu bezala, eta esan zuen, hauei denei ondo zetorkien Falangista Fontellles deritzan kale bat.

Isildu egin zen eta beste emakumeek errespetatu egin zuten isiltasuna. Tinak imajinatu zuen izen haiek denak suz irarrita zeudela Ventura atsoaren gogoan.

—Eta gainerako jendea? –ausartu zen Tina mende baten buruan.

—Isilik. –Orain Tinari begietara so egiten zion–: Herri honetan asko isildu da beti. Makur asko bizi izan da.

—Ama...

—Gauzak diren bezala. Eskolan hitz egiten entzun zielako nire alabak salatu zituen sasikumeari kale bat ipintzea... –Infiniturantz begiratu zuen, jarraitu ala ez zalantzan balego bezala–. Argi dago okerrago izango litzatekeela kale bat Targari dedikatu izan baliote.

Leuntasunez alabak Tinari, desenkusatu nahirik-edo:

—Hirurogei urte joan dira baina oraindik buruan iltzatuta daukagu. –Irribarre izutia egin zuen–: Gezurra dirudi, ez da?

—Zer da salaketaren kontu hori?

—Nire ahizpa eta biok beldurtuta geunden bolo-bolo zebilekako nire aitaren bila zebiltzala, hiltzeko, eta mintzatzen ari ginen eta...

—Eta maisu pizti doilorrak entzun zituelarik –moztu zuen atsoak– korrika joan zen alkatearengana, esatera, alkate jauna, Ventura bere etxean dago ezkutatuta, zer esaten ez dakiten bost eta hamar urteko bi neskatoei entzun diet eta izututa daude. Eta hori egin eta gero pentsatuko zuen herriko jende txukunak gizontzat hartuko zutela, eta ez munstrotzat. –Lehenaldira itzuli zen, begiak horman iltzatuz–: Gero, gertatu zen guztia gertatu zen.

Atsoak arnasa hartu zuen, bastoiarekin lurra jo eta berriro:

—Esandakoa, bada, makur asko egon dela herri honetan.

—Ama, andre honek pentsatu ahal du...

—Zertara zetorren? Berak aurkitu du:

Ama-alabak Tina bertan egongo ez balitz bezala mintzo ziren, arrangurarik gabe. Orduan, eztabaida ixteko, Céliak, lehor:

—Nik nire gizona ez nuen aurrerantzean ikusi. –Tinari, akusatzaile–: Diotena diotela. Bananduta geunden. Mendira joatea erabaki zuenean, esan nion neskatoekin eta Joanetekin geratzen nintzela, niri ezin baitzidaten ezer egin. Hark gehiago nahi zuen zalaparta. Beti izan zen...

Isildu egin zen, Tinak samurra edo makurra ote zen ez zekien gogorapen batek eraginda.

—…ipurterre bat, Jaumet. Gaztetan, fardoak pasatzen zituen Salauko bortutik. Eta beti geratu zitzaion halako... Etxe baten barruan ito egiten zen Joan.

Célia berregin egin zen. Jarrera amatiarrarekin, atsoari:

—Begira, ikusten? Hori hobe ez ukitzea.

—Nik nioen ezin zuela inolako gaitzik espero faxistengandik baina hark nahiago izan zuen mendia zapaldu.

—Aita aipatzen duenean... gero sukarra izan ohi du.

—Eta arrazoia zeukan Joanek.

Jakina haren bila zebiltzala... Roia etxeko Valentí Targa putre sasikumea..

—Ama...

Ventura atsoak ahots-tonua jaso zuen bere alabak frenatzea ekiditearren:

—Biziki poztu nintzen jakin nuenean burua errepideko horma baten kontra lehertu zuela.

—Orain urte askotako kontuak dira –Célia Venturak, interpretearena egiten–. Agian berrogeita hamar.

Ventura atsoa bere pentsamenduetan urtu zen. Céliak kafea hurrupatu eta egiten utzi zion. Bazekien zer pentsatzen ari zen, nola afaldu aurretik, lau uniformedunek eta angustia- edo nazka-aurpegiarekin urrutitik begira zegoen bosgarrenak, Ventura etxean aurkeztu eta gabon esan gabe sartu eta Venturatarren nagusia, Joanet, orduan hamalau urte zituena, eraman zuten, nola haren ahizpa ttikien begi zurtuen aurrean hormaren kontra txokoratu eta modu onean galdetu zioten, non dago zure aita putasemea.

—Utz ezazue bakean. Berak ez daki ezer.

Glòria Carmaniu, Ventura anderea, gelan sartu berria zen. Lasai, kargatzen zituen egurrak sutondoan uztera joan zen. Eskuak amantalean garbitzen zituela, mahai gaineko haragi beroa seinalatu zuen.

—Nahi baduzue... –esateko adorea izan zuen. Valentí Targa umearen lepoa estutzeari utzi eta andrearengana abiatu zen.

—Zuk bai dakizula.

—Ez. Frantzian, imajinatzen dut. –Eta erronkari eta destainez begiratu zion talde osoari–. Ba al dakizue non dagoen Frantzia? –Bosgarren gizona seinalatu zuen, uniformerik ez zeukana eta nazka-aurpegiarekin sarreran gelditu zena–: Azal diezaizuela maisuak.

Eskola-garai gogor osoan Venturatar gazteek ez zuten sekula pertsona bat belarrondoko baten eraginez aidean erortzen ikusi. Urteak pasata eskiatzaileen telebista egongo zen arasaren kontrara jo eta lurrera jausi zen ama. Odol-hari batek zeharkatzen zion aurpegia. Valentík, artean eskua bero, atzamarrarekin seinalatu eta ahopeka hitz egin zuen, oso apal, mehatxugarri hain apala izanik.

—Badakidanez ikusten duzula, esan ahal diozu etor dadila Udaletxera amore ematera.

Andrea altxatzen hasi zen, malkoek itsututa…

—Nik ez dut ikusten. Ez dakit non dagoen. Zin dagizut.

—Hogeita lau ordu. Biharko ilunabarreko bederatzietarako ez badator, honek beteko du haren lekua.

Mutikoa seinalatu eta keinu egin zien bere gizonei. Ile ilun eta kizkurrekoak eskuburdinez lotu zuen, eskuak atzean zituela, eta umeak eutsi egin zuen ai, min ematen didazu esan gabe, beldur handiegia baitzeukan. Eraman egin zuten. Ilunabar hartan inork ez zuen adorerik izan haragia jateko.

Burdina herdoildutako atea irekita zegoen eta barruan kolpeak entzuten ziren. Tinak zeru gris elur-kolorekoari so egin zion; bazirudien edozein unetan ostera jaurtiko zuela egundoko izotz-bolada euren buruen gainean. Kontua da lehen orduetan, Ventura etxeko atea jo zuenean baino hotz handiagoa egiten zuela, eta pentsatu zuen inoiz ez zela bihotzeraino iristen zen hain hotz iraingarri hartara ohituko.

Lur zapaldutako bide nagusia, duela egun gutxi argazkia atera zion monumentura zeramana. Ez zen oso momumentu handia. Norbaitek kendua zizkion leienda bat osatzen zituen hitzak; ezkerretara eta hondoan, monumentutik harago, lurreko hilobi-ilara eta belar txar batzuk, ez asko. Pallarseko kanposantu garbiena. Tirviakoa baino are gehiago. Eskuin aldera, beste hilobi-ilara bat eta Jaume Serrallac, zizel, mailu eta aurpegi ez oso atseginarekin, antza zenez norbaitek lodiegi moztu eta orain ezkerretik handiegi zegoen nitxo baten lapidan kolpeak ematen. Zerrarik ez zuen eraman eta nagi zen haren bila jaisteko. Cesc madarikatu zuen, bigarren aldia baitzen neurriak hartzeko orduan zentimetro batzuk desegoki zeuzkala, eta ondorioak beretzat. Desdoituko lapidaren inskripzioa irakurtzen zuen bitartean, emakume gazte bat ikusi zuen, bufandaren eta kapusaiaren artean soilik sudurra ateratzen zitzaiola estalita, eta jainkoaren eta patriaren alde erori ziren antigualeko monumentu aurrean zutik paratu eta eskubi aldera, hondora, begiratzen zuena, txorrua hegan abiatu ote zen ikusteko.

Oriol Fontelles Grauren (1915-1944) hilobiko lapidan, haren bizitza heroikoaz ohartarazten zuen leiendaz eta falangeko uztarria gehi geziez gain, besteetan baino zabor gutxiago zegoen. Harlauza batzuen inguruan nagusi ziren belarrek aditzera ematen zuten denbora memoriaren etsairik handiena zela. Fontelles, ordea, norbaitek zeukan gogoan. Pikatzeari utzi eta lapidako gizonak bere aldamenera iritsi arte oinak arrastatzen zituela konturatu zen Tina. Erdi itzuli eta jabetu zen gizonak ez zeramala guanterik, tren-sarraski batetik onik ateratako bat zirudien pakete batean zigarro bat bilatzen ari baitzen.

—Haren... senidea al zara? –Oriolen hilobirantz seinalatu zuen, zigarro pizteko keinuan kuriositatea eta deserosotasuna ezkutatuz.

—Ez.

—Hobeto.

—Zergatik?

Begi urdineko gizonak alderik alde begiratu zuen, laguntza eske-edo. Kea jaurti eta, nahastuta, Oriolen hilobirantz seinalatu zuen.

—Haren memoria ez da oso maitatua alde hauetan. –Erreberentzia laburra egin zuen–: Barkamenez esana izan bedi, nire maisua izan baitzen.

Makurtu eta zigarroaren eskua, urtetako lanak zartatua, lapidan igurtzi zuen maitekiro, bernizatutako altzairu distiratsuari hauts fina kentzen dionaren antzera:

—Nire aitak egin zuen lauza hau. –Atzerantz seinalatu zuen biratu gabe–: Eta monumentua ere bai.

—Zure aitak ondo ezagutuko zuen.

—Hil zen. –Ingurua seinalatu zuen–: Lauza gris urdinska guztiak nireak dira. –Keinu profesional trebearekin–: Aire berriak.

—Asko egingo zenituen bizitzan zehar.

—Aitak beti zioen eskualdeko jende guztiak gure eskuetatik pasatzen amaitzen duela... –Ordura arte ez zituen ostera guanteak jantzi.

—Eta arrazoia zeukan?

—Nik uste dut lapidetan irartzen ditugun hitzak pertsona baten bizitzako historia konprimitua dela.

Tinak pentsatu zuen gizon hark arrazoia zeukala: hilobi baten inskripzioa bizitza baten kontakizun lakonikoa dela. Jose Oriol Fontelles Grau, mila bederatziehun eta hamabost, mila bederatziehun eta berrogeita lau. Hasiera eta amaierako kontakizuna eta erdian korapiloa: bi zifren arteko marratxoa, bizitza osoa ordezkatzen duena. Eta epitafiorik baldin badago, kasu honetan bezala, hauxe da haren bizitzaren laburpena: martiria eta heroi faxista, caído por dios y por españa. Eta hautsak eta ahanzturaren belar txarrak hilobiaren inguruan ebakita.

—Nolatan dago hain garbi?

—Begira... gauzak... Herriko gauzak.

Begi urdineko gizonak kea berriro sakon irentsi eta besoa luzatu zuen plastizkoko lore hori eta urdina herdoildutako burdinazko gurutzera kordeltxo erdi usteldu batekin lotuta zeukan lapida hurbilerantz atzeratzen zen bitartean. Eta uso hegalari baten soslai aukeran pittin bat eztitsua.

—Joan Esplandiu Carmaniu –irakurri zuen Tinak.

—Venturatarrak. Benetan deitzen dira Venturatarrak. Ventura etxekoak.

—Ezagutzen ditut.

—Hemen seme-alaba Venturatarrak daude. Joan eta Rosa. Ikusten? Aldiz, aita, sekula ez zen deus jakin hari buruz.

—Agian Fratzian hilgo zen.

—Agian. Ziurtatzen dizudana da hemen ez dagoela lurperatuta.

—Rosa Esplandiu Carmaniu. Montsentek bezain bihotz garbi eta handia zeukan –irakurri zuen Tinak–. Eta pixka batean isildu zen, hitz haiek pentsatu zituenaren inbidia baitzeukan.

—Rosa Ventureta...–esan zuen gizonak, esku guanteduna aurpegi lakartutik igurzten zuen bitartean.

—Zerez hil zen?

—Tifusez. –Tristea iruditu zitzaion pausaldi labur baten ondoren, gizonak gehitu zuen–: Tifusa hogei bat urtetxorekin. –Memoria uxatzeko–: Eta gero Joan Ventureta dago.

—Eta hura, zerez hil zen?

—Balaz.

Ordura arte Tina ez zen jabetu izen azpiko hitzez: faxismoak doilorki eraila.

Jaume Serrallacek bekainak jaso zituen, filosfo-keinuz.

—Gerra asko eta haserre handia, baina denek bukatzen dute hona etorriz, bata bestearen alboan. Berrogei urte elkarrekin egin dituzte, eta pasako dituztenak. Aitak zioen argazki berberean ateratzea bezalakoa zela, behin bertan izanda ezin baituzu zure burua ezabatu.

Venturatarren hilobira hurbildu zen Tina. Plastikozkoa izan arren, lorea jada zimeldurik zegoen hainbeste zeruperen ondoren, eta pena eman zion Venturetarren bakardadeak. Gizonak luze zupatu zuen zigarroa, esaldi borobil baten berri ematen zuelarik.

—Historia txar bat. Hirurogei urte joan dira eta zauria itxi gabe dago.

Burua astindu zuen, oroitzapenek zama balute bezala. Bat-batean, animatu egin zen:

—Eta historia gehiago daude: Feliçó etxekoek hildako bat zeukaten, Misseret etxekoek pare bat eta Tor etxekoei bi mutilak akabatu zizkieten frontean. Eta Nasiren Mariaren etxeko Mauri gajoa. Eta Gravat etxeko hildakoak, noski.

Zeuden tokitik pixka bat erretiratuta zegoen mausoleorantz begiratu zuen. Bat-batean ahotsa apaldu zuen, espioiez inguratuta egotea beldur balego bezala.

—Oraindik badaude hainbat atsekaberen kontura barre egiten dutenak –aitortu zuen. Zupada sakona egin zuen–. Jende gutxi baina gaizki moldatua Torenan. Kazetaria al zara?

—Pallarseko herriari buruzko liburu bat egiten ari naiz: Etxeak, kaleak...

—Eta kanposantuak.

—Beno... uste dut baietz.

—Kanposantuetan herrietako historia aurkituko duzu, izoztuta. –Lapidak eta ondoko mausoleoa seinalatu zituen–. Gravat etxeko jendeak ere hilobi berezia dauka. Herri guztietan dago etxe aberats bat. Kanposnatu bakoitzean mausoleo bat. Asko ikasten da lapidak grabatuz.

Tinak lausoki gogoratu zuen Shakespeare, baina ez zuen zehazten jakin. Mausoleorantz hurbildu zen. Familia Vilabrú zioen eta Rebullek sinatutako talde eskultoriko bat zegoen: eskritorio batean liburu ireki batekin eseritako aingeru batek segur asko Vilabrú familiako arima justuen izenak sarrerako erregistro zerutiarrean apuntatzen zituen. Eta geroko lapiden aurreikuspen makabroa. Hiru espazio: hiru hildako aurreikusita. Argazki bat atera zuen.

Mausoleoaren alboan, hilobi xume bat, Valentí Targa Jaun Txit Argia, Torenako Alkate eta Mungimenduko Tokiko Buruzagia zeneko batena, Altron, 1902-Torena, 1953. Patriak, esker onez. Hilobi garbia baina lorerik gabe. Gizonaren presentzia sentitu zuen bere atzean. Eta haren ahotsa, bereziki urrun:

—Torenako borreroa. Gizon honek herriaren erdia erail zuen.

Tina itzuli egin zen. Gizonak begirada eusten zion.

—Hemengo alkatea izan al zen?

—Bai. Hemen behekoa zen –Altron Tinaren zapataren zolan balego bezala adierazi zuen. Halako baten... maitalea zela diote. Ongi, gauzak...

—Herriaren memoria izoztua.

Tinak esan zuen hura, begirada urdineko gizon hark azal ziezazion gogo biziz, Valentí Targa noren maitalea izan zela esaten zen. Horregatik, haren hitzekin animatu zuen:

—Argazkia, esango zukeen zure aitak.

Baina Serrallacek, kontakizunarekin jarraitu ordez, zigarrokina lurrera bota eta arduraz zapaldu zuen. Valentí Targa zenaren lapidako testua seinalatu zuen, burua gogorapenez beteta mugituz:

—Bai, eta nik argazki-oinak idazten ditut.

Lantzen ari zen lauzarantz urrutiratzen zen bitartean esan zuen hura. Tina, Fontelles falangistaren hilobiaren aurrera itzuli eta instantanea-pare bat egin zituen. Gero enkoadrea zabaldu eta Venturatarrena sarrarazi zuen. Klik. Argazki hark ez zuen liburuan azaldu behar. Faxismoak doilorki eraildako Ventura etxeko Joanet Esplandiu Carmaniu, 1929-1943, izeneko baten aldeko bere omenaldia zen. Zeharka, enkoadrearen hondoan, pixka bat desenfokatuta, Vilabrútarren mausoleoa, txorru bat bezala oharkabetua.

7

Nahiz eta Oriolek ordu erdi itxaron behar izan zuen, Elisenda anderea etxaldeko administratzailearekin ebatzi eta uste baino denbora gehiago behar izan zutelako abelburuak eta ustiatu zitezkeen zuhaiztiak metatzen, margoketako bigarren saioa bareagoa izan zen. Elisenda anderea Elisenda zen ordurako, pastak hasieratik zeuden gelan eta Oriol gorputz perfektua itzultzen, erreproduzizten, oihalean estanpatzen entretinu zen andereak esaten zion bitartean, baietz, gerra hasi zenean Donostiara joan behar izan nuela. Hantxe ezagutu nuen nire senarra, hain zuzen. Bai, urruneko senitartekoak. Ni bezala Vilabrú da, bai. Ez, Bartzelonan. Oso lanpetuta dabil eta ezin da sekula igo. O!, jakina gabesten dudala: Baina berdin dio, hori tranpa da.

—Barkatu? –Oriolek Elisenda anderearen ezkerreko bular gainean inmobilizatu zuen pintzela.

—Hitanoz aritzekotan geratu ginela.

—Izan ere...

—Agindu bat da.

Hori bai ulertzen zuela. Bularraren koskorreko pauso arina berrartu zuen hain ondo zegokion soineko liso haren gainean.

—Noiz hasiko haiz aurpegia egiten?

—Nahi diat... Hobeto ezagutu nahi haut. Hobeto familiartu...

—Jakina.

—Ez zurrundu. Mugitu lepoa, higitu bizkarra. Nahi dunanaz hitz egin.

Hiri esaterik baneuka sentizten hasten ari naizena. Esaterik baneuka nahastua nagoela eta zure eskuak magikoak direla.

—Ez baitakit zer esan.

Eskuetan te-ontzia bero-bero sartu zen Bibiana. Elisendari begietara so egin zion, hark bere begirada desbideratu zuen, neskameak susmatzen zuena baietsi zuen, eta gero diskrezioz atera zen gelatik. Bi emakumeen arteko nolabaiteko konplizitatez jabetu zen Oriol, baina mahukako toles harekin okupatuta zegoela eman zuen aditzera.

—Zertan lan egiten du hire senarrak?

—Oso interesatuta hago nire senarrarekin.

—Ez, ez. Hiri hitz eginarazteko da.

Beraz, oinarrian, estraperloan Bartzelonako kapitaintzako bi koronelekin eta beste agintariekin konekxioan. Eta putetara joaten, azaldu behar didatenek azaltzen didatenez. Dirua erruz irabazten dik eta gorroto ziok aldian behin hona igotzeari, ezin baizidak begietara so egin.

—Beraaaz... bere negoziotan zabilek. Merkataritza. Egun osoa eskatzen dion ez dakit zer-nolako bulego bat zaukak. Eta beti gora eta behera zabilek.

Ez zuen hitz egin nahi. Aldaketa. Zertaz mintza gaitezke?

—Hik ez al huke atseginago hemen bizi ordez Bartzelonan bizitzea?

—Ez. Hau da nire etxea. Gainera, lurrak pertsonalki eramatea diat gustuko. Eta hemen hil zituan nire aita eta nire neba.

Eta hire ama, Elisenda? Zergatik ez dun sekula hitz egiten hire amari buruz?

Ukitu batzuk lepoan, kolore-aldaketarekin. Jadanik Elisenda den Elisenda anderearen lepo fin askoa.

—Gustatzen al zaizkiok bonboiak Rosari?

Bonboien kutxatxoa arte-lan bat zen bere hartan, egur landuz eta bernizatuz osatua. Esmeralda-koloreko bat hartu zuen Rosak.

—Zergatik esan diozu bostehun?

—Ez nintzen ausartu...

—Mila esan eta ordaindu egingo zizukeen. Oso txatxua zara.

Papera desestali, eztulari eutsi eta hortzekin zatitu zuen gozokia.

—Onnnna –esan zuen–. Tori, dastatu.

Bai ona, bai. Oso-oso ona.

—Asko gustatu zitzaizkionan. Mila esker, alegia.

—Pozten nauk.

Osaba Augustez mintzatu zen oraindik, zer den ez dakidan deribadei buruz argitaratu zuen liburu batez, zeukan onespenari buruz, saldo komunistek probokaturiko eta matematikari intuitiboaren ospea ekarri zion exilio bitartean Erroman eman zituen eskolez, Torenako parrokiako erretore Aureli Bagà mosen jaunari gotzaindegitik ziurtatu ziotenez, osaba ezgaia baitzen bere buruari loreak botatzeko. Baina ez zion maisuari azaldu nahi izan Agust osabaren insistentzia tematia, zeina, zeharka-edo, maiz esaten baitzion emaztearen tokia senarraren ondoan dagoela, harik eta egun batean, duela gutxi, insistentzia hartatik kokoteraino, erantzun zion arte, badakizu zer gertatzen den, bada Bartzelonara banoa Santiagoren albora, putez inguratuta aurkituko dudala. Beraz, utzi horretaz hitz egiteari.

—Barkatu, alaba. Nik ez...

—Gainera, beti biziko naiz Torenan. Gravat etxeko ugazaba naiz, Gravat etxeko ondarea kontrolatu eta joritzen ari naiz. Eta aberatsago izan nahi dut juxtu herri honetako aurpegi batzuen aurrean.

Elkarrizketa harrezkeroztik, Bibianak bazekien, Elisenda Vilabrúk, Torenako jendearengandik gehiago urruntzeko, kafea tearekin ordezkatu eta hango kale lohiztatuetan paseatzeari uko egin zion.

—Gorrotoz mintzo zara. Gogoratzen didazu... Ez, utzi bakean.

—Zein gogoratzen dizut, osaba?

—Zure aita.

—Hil zutelako daukat hainbeste amorru nire barruan.

Jainkoarren: osaba Augustek giza naturaren ilunpe eta zoko-mokoek gaindituta ikusten zuen bere burua. Hain aratza, arrazoigabeko eta zalantabakoa zelarik e zenbakia. Baina neskaren garai bateko tutore modura, behartua sentitu zen esatera, ez dakit ona den holako sentimenduak edukitzea.

—Ariman gogortasunak sorrarazi zizkidak gerrak.

—Barkatzen ikasi beharra daukan.

Anderea isildu egin zen, eta Justiziaren eta Zigor Jainkotiarraren Benetako Zentzuaz osabak erakutsitako irakasbidez pentsatu zuen; Eliza Katolikoko etsaiez, zeinak etsai pertsonaltzat hartu behar zituen, eta Egian bizitzeko ziurtasunaz. Eta, ama Benantziarekin adostuta, honako liburu hauetan jasotako bizitzaren sekretuak irakastsi zizkion: *El espíritu de Teresa de Jesús, Páginas del cielo, La familia modelo* eta *Remedios preservativos y curativos de las enfermedades del alma*, den-denak Enric d'Ossó teresatarren aita fundatzaile eta debozio-sortzaile benetakoaren lumatik ateratakoak. Egunen batean Erromak dohatsu izendatuko duena. Eta luzera, santu, alaba.

—Gauza bakoitza bere garaian –erantzun zion osabari askoz geroago.

—Kontuz besoarekin. Ez, sorbaldarekin.

—Azkura zaukaat hemen.

—Ongi, bost minutu atsedenerako.

Te-garaian, atsedena hartzeko berriketan aritzea ezinbestekoa izan ez arren, andereak azaldu zion, ahal izan zuen orduko administratzailea bidali zuela ondareaz arduratu eta kendu zieten guztia errekuperatzeko, eta Donostiatik Torenara itzuli zirela. Ez zion kontatu Burgosera egin behar izan zuen bidaia, Burgosko hiru egun grisak, ilunak, baina premiazkoak. Soilik esan zion, Donostiatik Bartzelonara ezkonduta itzuli ginen. Hilabete batzuk atsedenean eman genituen eta orduan hemen goian finkatu ginen, etxaldea piska bat ordenatzen, baina Santiago soilik hamabost egun egon zen Gravat etxean bizitzen. Denak egiten zion kalte, ezin zuen herriko abereen hatsa jasan eta lana zeukan Bartzelonan.

—Hain patxadatsua da hemen bizitza...

Oriol Fontelles Grau eskola-maisuak, Elisenda erregina majestatearen margolariak, hiru hilabate zeramatzan Torenan bizitzen. Artean ez zuen galdua gauza berriek dakarten ilusio-puntu hura. Oraindik ez zuen udazken bat eta negu bat pasa Torenan, ez udaberri baten ernaldia. Beraz, ilusioak eduki zitzakeen, eta esan, hain patxadatsua da hemen bizitza.

Anderea, ordea. Andereak, etxea ondo zegoela eta gaizkileek ez zutela hankaz gora jarri ziurtatu ondoren, asko pentsatu zuen itzuli aurretik. Behin erabakita, lehenik Bibiana etorrarazi zuen, garbiketa egiteko. Santiagorekin iritsi zenean, Bibianak azaldu zion kontatu ziotela ezen alkate berriak, Roia d'Altrongo seme nagusiak, Torenako herri guztia batu zuela España plazan, Caudillo kalearen ondoan, eta falangistaz jantzita azaldu zela beste bost falangistekin batera, denak kanpotarrak eta eskuak aldaketan, eta Valentí Targak, orduz geroztik on Valentí Targa izango zenak, gaztelania hanpatu eta irudimenez betean, arenga didaktiko-tonuan azaldu ziela bera legea betetzera eta betearaztera etorri zela Torenara, garbiketa egitera, zuek purifikatzera. Eta jesukristorik ez nau geldituko Jainkoak eta Caudilloak gomendatu didaten misio sakratuan. Errudun bat bera ez da zigorrik gabe geratuko, jadanik ez bada zigortua izan. Jende askok ez zizkion hitzak ulertzen baina tonua harrapatzen zuten. Eta ondoan zetorrena oso garrantzitsua zenez, katalanez esan zuen, ezen salaketaren bat

egiteko daukanak etorri eta entzungo diet. Eta errepublikazale amorraturen batek proetstatu nahi badu nirekin aurrez-aurre egin eta bere bizitza osorako erretratatuta geratuko da, ergela izateagatik. Jeneralisimoaz zin egiten dut. Eta ostera gaztelaniaz, bat-batean viva Franco, arriba España oihukatu zuen. Soilik uniformatuek eta Cecilia Básconesek, artean oso gaztea bera, erantzun zioten, viva eta arriba oihukatuz. Diafragmodinia edo diafragmalgia. Jendeak, aldiz, nahikoa lan bazeukan Bonyenterantz begiratzen. Salbu Narcis etxekoek, sudurpetik irribarretsu, Birulés etxekoek bezala, eta pentsatzen zuten, azkenean itzuli da ordena eta amaitu da kaosa eta oneko jendeak kalera irten ahalko dugu ostera, eraso txar bat izateko beldurrik gabe. Diafragmatozelea.

—Ordena pixka bat ez zaio gaizki etorriko Torenari, Bibiana. –Eta hark dena ulertu zuen.

—Margotzera sarri ateratzea pentsatzen dinat –esan zuen Oriolek egurrezko astorantz, baitaraturik, itzultzean.

—Paisaiak ere egiten al dituk?

—Ahal dudana egiten dinat. Zale bat naun.

Soinekoaren tolesak aztertzen hasi eta akats bat aurkitu zuen ukalondoan. Orduan izutu egin zen, atzeko aldetik nardo-usaina nabaritu baitzuen, sudurra garondoan baleuka bezala. Itzultzea lortu baino lehen, hain ahots ezti hura entzun zuen esanaz, hik hala badiok zale bat haiz; baina benetan bikain egiten duk.

Oriol itzuli egin zen. Oihalari arretaz so egiten zegoen anderea.

—Gogaitu egiten al hau bukatu gabe egonda begiratzen jarduteak?

—Ez –gezurretan–. Hirea da.

Arra betera, bata bestearengandik. Bizitza, ezinezkoa bihurtzen ari zen.

8

Mila bederatziehun eta hirurogeita biko ekainaren hogeitabatean, Marcel Vilabrú i Vilabrúk bere bizitzan azken aldian jaitsi zituen IPAIC San Gabrieleko sarrera nagusiko sei mailadiak, non Sarrerako, Lehenengo, Bigarreneko, Hirugarreneko (bigarreneko birekin), Laugarreneko (hirugarreneko batekin eta bigarreneko beste batekin), Laugarreneko Errebalidako ikasurteak pasa zituen internatua (zuen seme-alabentzako hezkuntza –fisikoa, mentala eta espirituala– integralerako tokirik ezin hobea), zer egingo ote du mutikoak, zientziak ala letrak, zuk zer egin nahi duzu, zuri zer komeni zaizu, nik esango dizut zuri zer komeni zaizun. Zientziak egin nahi nituzke. Ez: letrak. Zuk letrak egingo dituzu. Ordea nik nahi nuke. Zer nahiko duzu zuk. Beraz, bai: nik nahiko nuke... ez dakit, mendiekin, oihanekin, elurrarekin zerikusirik daukan zerbait. Ukitu lurra oinekin, Marcel: letrak, eta gero abokatu bihurtu eta familiako negozioen ardura har zenezake, ez dakit gogoan daukazun, baina zerikusia daukate elurrarekin. Ez da gauza bera, nik nahi nuke... Ez al nauzu ikusten: abokatua naiz eta aski ongi dihoazkit gauzak. Eta amatxok zer dio. Hark zu abokatu izatea nahi du, gutxi bat atera duzun bakoitzean mateak edo fisika izan baita. Beraz ez dadila niregana etorri esatera. Oso okupatuta dago; beraz, letrak egingo dituzu. Bosgarrena (latina eta grekoa ekainean eta irailean suspendituta), Seigarrena (bosgarreneko latina eta grekoarekin), Seigarrena (latinean eta grekoan, gutxi), Seigarreneko errebalida ekainean eta irailean, lehen erasoa PREUri, PREUrako bigarren saioa, eta Unibertsitaterako azterketa. Sei mailak jaitsi eta itzuli eta une onak gabesten hasi ordez (gogoan al daukazu gau hura non afaltzeko orduan armairuak ireki genituen, edo gimnasiako eskola haiek Viceko lautadako laino lodiaren pean, ez, hala ere pasa genuen…, ez da?), Gassul abokatua Pol anderearekin atera zedila itxaron zuen, zeinak esaten baitzion, azken finean bizitzara jauzi egingo duen gizontto baten hezkuntza osatu dugu, eta bi-biak eskura izan zituenean, Romà Gasull jauna Pol anderea adeitasunez agurtzen ari zenean, Marcel Vilabrú i Vilabrúk lurrera nabarmenki tu egin eta auto beltzerantz abiatu zen, non Jazinto zain zeukan, hozteko moduan zeudela ziruditen emakume batzuk erakusten zituen aldizkari daniar edo suediar bat kontenplatuz. Marcelek ez zuen eskolako eraikinari atzera begiratu, non trigonometria ikasi zuen, non gezurrak esaten ikasi zuen, masturbatzen ikasi zuen, latinaren bost deklinazioak ondo samar errezitatzen, zigorra saihestearren norberaren onerako salatzaile izaten, azentu higuingarriarekin Ô rage, ô despoir! esaten, eta jakiten bere ama, inguruan zituen gizon guztien gainetik, bere gainetik ere bai, agintzen zuen oso okupatutako emakume bat zela, eta aitatxo hil zenez geroztik, hitz egin ordez, gero eta agindu lehorragoak, gero eta zehatzagoak eman eta denek hitzez hitz bete zitzaten itxarotera mugatzen zela.

Itzuleran, hiru gizonak isilik (izan ere bera ere gizon bat baitzen Pol anderearen irizpideen arabera), pentsatu zuen ezen etxera itzultzen zen bakoitzean Jazinto eta Gasull jaunek inguratuta egon ohi zela. Gasullek aitatxok baino gehiagotan ikusi zuen. Izatez, aitari buruz gogoratzen zuena zen mintzatzen ari zela pentsatzen zuenean botatzen zion begirada galdetzaile hura, eta hark maite ez zuen sentsazioa, aitatxoren bizitzan soberan zegoela. Hori dena, ikusten zuen aldi eskasetan.

—Zergatik da hain arraroa aitatxo?

—Ez da arraroa.

—Arraro begiratzen nau.

—Zure irudimenak dira, seme.

—Zergatik ez dago sekula etxean?

—Oso okupatuta dago.

—Aitatxo oso okupatuta dago, zu oso okupatuta zaude. Hau kaka zaharra da.

Lehen aldia izan zen non Elisendak pentsatu zuen behar bada berbideratu egin behar zuela semearen hezkuntza. Agian IPAIC Sant Gabriel ez zela tokirik egokiena eta Mamen Vélezek Basileako ikastetxe hartaz azaldu ziona ideia ona izan zitekeela. Baina hara non, gauzak okertu zirenean, ez zuen berriro pentsatu. Izan ere hara non, mila bederatzieheun eta berrogeita hamahiruan, Marcelek bederatzi urte zituenean, Santiago Vilabrú jauna bihotzeko aski bortitza izatea erabaki eta bertan geratu zen. Ez Niditon ez beste ezein prostibulotan ez ezein emazte infidelaren besoetan, baizik Sindicato Verticaleko bulegoetan hiltzeko gustu ona izan zuen. Egun hotza zen Agustin Rojas Pernerak, Nazario Prats, gobenadore zibil eta Lleidako Mugimenduko Buruzagi probintzialarekin batera, Sindicato Verticalera joatea erabaki zuenean. Hirugarren solairuan hitzordua hartuta zeukaten biek, Rojas Pernera kabroiari lepoa bihurritzeko, izan ere hark hauts-esne amerikarrarekin zerikusia zeukan erdi kontrabando, erdi estraperlo, erdi estafako operazioko etekinak bereganatu baitzituen. Operazio distiratsu hura Vilabrúk asmatua eta Pratsen kontaktuei esker aurrera ateratakoa zen. Eta etekin guzti-guztiak Pernera potroetakoak sakeleratu zituen. Eta orain haren aurrean zeuden eta hark irribarre zinikoa zeukan, Franco eta Jose Antonioren erretratuak bere atzean, babesa ematen. Orduan, so egiten zien, korridoretik banatzen zuen leihar opakoari begi-kolpe presatua egin eta esaten zuen ahopeka, ze etekin, ze operazio, nire adiskideak, kamaradak, hemen ez dago jasota inongo operaziorik. Ez hemen ez inon. Gezurretan aritzea, kakatsuarena egitea, tira. Baina Vilabrúk (bizitzan jasan behar izan zuen guztiaren ostera, batik bat bere emaztearen erruz) ezin izan zuen beste irribarre maliziotsu bat jasan eta hiltzea erabaki zuen. Plof, lurrera erori zen, Pernera kakatsuaren mahai aurrean, eta Nazario Prats gobernadorea azkar atera zen bulegotik, ez frogatu ez jakin nahi gabe hura lipotimia bat ote zen, zorabioa, indigestioa, infartoa edo heriotza. Ez zuen nahi izan inork ikus zezan Perneraren bulegoa zapaltzen, tartean hildakoak egonda, eta etzanda utzi zuen Vilabrú jauna, eta ataka gainditzen denean, berrikusiko dugu elkar, baina benetan hilda badago, Vilabrúren partea ere erreklamatuko diot Pernerari. Nolabait eskubide orala daukat. Eta Elisenda eta haren semea ehorzketaren buruan joan ziren Bartzelonan, emaztea mantelinaren atzean bere indiferentzia ezkutatuz, eta pentsatuz, ondo egiten duzu hiltzen, Santiago, hain gutxi markatu duzu nire bizitza, gorroto ere ez baitizut. Eta ezkontzako hamahiru urtetan aurkitu dizudan gauza on bakarra ni bezala Vilabrú deitzea izan da.

Vilabrú-Comellestarren adar handiko Vilabrútarra, hiru belaunaldiz Bartzelonan betidanik bizi zirenak, familiko adar kontserbadoreenak, frankistak eta lehen monarkikoak eta lehenago monarkiko karlinoak izandakoak, batik bat Comelles txertoagatik Nafarroako Aranzoren senide baitziren, karlismoa existitu baino lehen karlistak zirela esaten zen familia hartakoa, haiek denak asko tristetu ziren Santiagoren heriotzagatik, eta gradu handiagoan edo txikiagoan, hola eman zuten aditzera: izan ere atzo hitz egin bainuen telefonoz eta ez zitzaidan iruditu; edo beti onenak joan ohi dira; edo bestela bizitzaren legea da, zeinek esan zezakeen. Eta pentsatzea harekin egoteko hitzordua jarrita neukala hurrengo asterako; edo nolako heriotza ergela. Bederatzi urtetxo, haurrak? Hara, bederatzi urtetxo, ume gajoa, aitarik gabe bederatzi urterekin. Eta baroitza-titulurik gabe antza. Bai. Elisenda pixka bat zurrun, ez

duzue uste? Emakumea, senarra hil berri zaiola. Ez, nik badakit zer diodan. Elisenda pertsonetan zehar begiratzen duen horietakoa da, ez baitituzte ikusten.

—Doluminean lagun nauzu, Vilabrú anderea –errezitatu zuen Nazario Pratsek, azkenean presentatu ziren agintarien arteko nagusienak, Nekazaritzako ministroaz, Bartzelonako eta Lleidako diputazioetako presidenteez gain.

—Eskerrak, bizi zen bitartean.

Eta, bertan zegoen ministro bakarrari tristeki iribarre egin ondoren, gobernadorearen belarri ondora gerturatu eta esan zion, Santiagoren partea Santiagorena zen, eta orain nirea. Salatua izatea ez baduzu nahi.

Nazario jauna, eskuetako izerdia xukatu eta gero, Vilabrú andereraren eskuan muin ematera mugatu zen, eta senide ez zen jendeak komentatzen zuen, nolako anderea den, ze arraio zarratu behar du mendi basatietan.

Beraz, Marcelek ez zuen bere urrutiko aitagatik negarrik egin eta ez zen Basilean matriulatua izan; beraz, IPAIC Sant Gabrielen oinak eta espedientea arrastatzen jarraitu zuen; oporretan etxera itzultzen zen eta, Tuca Negra inauguratu zenez geroztik, Gabonetan ez zen etxean geratzen, Quiqueren atzetik korrika, zeinak eski librea egiteko tokirik onenak erakutsi baitzizkion eta, bilatu gabe, mendia maitatzen irakatsi zion. Zein aspergarriak bilakatzen ari ziren udak, elurrik gabe eta Quiquerik gabe.

Berdura-pixka bat zeukan prestatuta. Etxetik hedatzen ari zen azalore-usaina zuen gustuko, ttikia zenean bezala. Konfort-sentsazioa ematen zion, batik bat leihotik ikusten bazuen elurra bere negarraldi isilean jarrraitzen zuela errepide lokartuetan. Plazer konpentsagarriak. Kaleko atea entzun zuenean, bihotzak jauzi egin zion, erabakita baitzeukan nola abiatuko zen berriketaldia. Orain, bai. Gaur zen eguna. Esango zion, Jordi, etsita nago zurekin, gezurtero hutsa zarelako: engainatu nauzu eta horrek iraundu egiten nau. Eta gero, Jordiren erreakzioaren arabera joango zen dena. Zein zaila den egia esatea. Prest zegoen esateko, Jordi, etsita nago zurekin gezurtero hutsa zarelako, baina hitza ahoan zuela geratu zen, ez baitzen Jordi, Arnau baizik, zeinak sekretuz beteriko poltsa gela erdian utzi eta musu eman baitzion:

—Nondik ateratzen zara zu? Ez al zeunden...

—Oso gauza garrantzitsua esan behar baitizuet. –Barrurantz begiratu zuen–. Non dago aita?

Semearen oihua entzun balu bezala, Jordik kaleko atea ireki zuen zerbait idenfikagaitza txistukatuz. Anoraka kendu eta Arnauren presentziaz jabetu zen. Zhivago Doktorea arretaz paratu zen, orduko hiruren presentziak harrituta.

—Zer egiten duzu zuk hemen? –Erresumin-pixka batekin–: Ez al zinen kokainomano-talde harekin egotekoa?

—Montserrateko beneditarren komunitatean sartzea eskatu berria naiz. –Hirurak zutik–: Zuek jakitea nahi nuen.

Jaiotza bateko figurak bezala, hirurak geldi eta hondoan elurra estalpeko leihotik, andrea Arnauri begira, eta Jordi ahoa zabalik so eginez, orain idiari, orain mandoari.

—Datorren astean onartuko naute postulantadoa hasteko.

Tina, animorik gabe, aurkitu zuen lehen besaulkian eseri zen. Jordi, etsita nago zurekin gezurtero hutsa zarelako hura burutik desagertu zen, eta lehen aldiz kontenplatu zuen bere semea zen bezalakoa, bere ondoan baina beti oso urrrun hazi zen ezezagun handi bat.

—Txorakeriak –esan zuen san Josepek, anoraka besalukiaren gainean uzten zuen bitartean.

—Ez. Badut adina nire bizitzarekin zer egin nahi dudan erabakitzeko.

—Baina, seme, zu... –Tina, desesperaturik, jabetuta bere semeari hezkuntza perfekuta emateko bere ilusioa entelekia bat zela–. Ez zaude bataiatuta-eta! Guk herritar libre gisara hezi zaitugu-eta!

—Bataiatuta nago... Duela hiru urte eskatu nuen bataioa.

—Zergatik ez diguzu deus esan?

—Ez nuen nahi zuek kezkatzerik. –Onartuz–: Agian esan behar nizuen.

–Et, et, et. –Jordi erreakzionatzen hasia zen lehen zaplaztekoaren ondoren: Guri adarra jotzen ari zara, ez da? –Aita sinpatikoaren konplizitatez, semearentzat aita baino adiskideak direla dioten horietakoarenaz–: Kamera ezkutua? Apustu bat lagunekin? Potro-jorra hutsa? Ez al zara konturatzen hogeita batgarren mendean bizi garela? Burutik joan al zaizu kulturarte irekian hezi zaitugula, zeharkakotasunean eta askatasunean?

—Ez, ez, jakina ezetz. Baina sinestuna naiz; fedea daukat eta bokazio monakala daukat. –Astiro esan zuen, begiak jaitsiz, apal baina argi.

—Zuk ez daukazu bokazio zipitzik –egin zuen jauzi Jordik, semeak errebelatu ziotenagatik baino gehiago haren tonu apalagatik irainduta.

—Zergatik ez diguzu sekula esan zer nahi zenuen… bazeneuzkala... Zergatik ez... Zergatik...

Tina hasten zenean zergatiekin, "bolada pasata" bazekien bataila galduta zegoela, zeren galdetzea nola joan izan zitezkeen gauzak baldin-eta, ariketa erabat hutsala zen, gauzak baldin hori gabe gertatu baitziren eta zetozen bezala borrokatu behar ziren eta ez baldintzarekin. Zergatik Jordi infidela da eta engainatzen nau, zergatik Arnauk ez dit konfiantza-ñimiñorik, zergatik egin ditut gauzak hain gaizki, hainbeste non etxeko bi gizonak bi ezezagunak diren niretzat, zergatik dena, zurekin sinistuta ez naukazun Jainko hori?

—Begira, Arnau. –Orain Jordik ostera hartzen zuen jarrera dialogantea eta Tinaren isiltasun zalantzazkoa probesten zuen, eskua sartzeko–: Guk askatasun-giroan hezi zaitugu, zure alboan egon gara uneoro, babesa eman dizugu behar izan duzunean, gizakiarengan, kultur-mestizajean eta... dugun fedea eman dizugu.

—Zer diozu?

—Superstizioetan ez jausten irakatsi dizugula, giza handitasuna onestasunean datzala. Giza handitasuna ondradutasunean datzala erakutsi dizugu eta ongia egitea norbere buruarekin eta gainerakoekin ondradu izatean datzala eta gehiago gero eta mundu globalizatuagoan, eta Elizak mendetan buruan iltzatu digun guztia engainu bat baino gehiago pertsonen gainean boterea mantentzeko modu bat dela. Ez al dizugu aski argi utzi?

—Inork ez nau sinistera behartu.

—Egin zaitez ekologista. Baina monjea ez, mesedez.

—Aita...

—Ez duzu eragin erlijiosorik eduki etxean, ostia.

—Baina kanpoan bai.

Nork usteldu zaitu?, pentsatu zuen Tinak. Nor ibili da zure atzetik eta arima urratu dizu bere borondate santua egiteko? Eta Tinak sentitu zuen nola bere gizonak, ahots larri baina pixka bat teatralarekin, zioen, Arnau, nire semea, justizia eta askatasun, nobletasun eta ondradutasunaren baloreetan hezi zintudan ilusioa neukan, eta uste nuen eredu izan ginela zuretzat, eta emakumea jauzi egiteko zorioan egon zen, amorraturik, eta esateko puntuan, isildu zaitez, Jordi, zu ez baitzara inor justiziaz eta askatasunaz, ez ondradutasunaz eta nobleziaz hitz egiteko, joko bikoitza egiten ari baitzara, eta gezurretan, eta hain koldarra zara, zure ametsak ezkutatzen baitizkidazu, jada haietan sartzen ez naizelako.

Hiru arrotz, bat bestearen aldamenean, pentsatu zuen emakumeak: hogei urtez elkarrekin bizi ziren hiru arrotz eta orain publikoki aitortzen dutenak konbibentzia aurreztu ahal izan zutela hain emaitza kaskarretara iristekotan.

—Kexarik ba al daukazu gure hezkuntzaz? –Esan zuen Tinak ahots-hari batekin.

—Nik ez dut hori esan.

—Aditzera eman duzu –esan zuen aitak.

—Ez. Baina badirudi soilik aldean preserbatiboak eramatea eta ez zulatzea izan duzuela interes bakar.

Zuladura Tinaren bihotzean gertatu zen. Nik pentsatzen nuen ezen, nire seme hori. Gainerakoen haurrak hezten saiatu arren, inork ez digu gureak hezten irakatsi, eta hori ikasten hasten denean, berandu izan ohi da, haurrek ospa egin eta ez baitizute bigarren aukerarik ematen.

Emaztea harri eta zur zegoela ikusirik, Zhivago doktorea besaulkitik modu zakarrean bota eta bertan jesarri zen Jordi, semeari errukia sortzeko moduko hasperen eginez. Bat-batean, belaunetan jo zuen esku-ahurrarekin:

—Jasanezina da! –egin zuen jauzi, beste erregistro baten bila–: Zu monjea? Nik seme bat monje? –Haserre altxatu eta Tinari begiratu zion, babes seguruaren bila-edo–: Ez dut nire semea esklabua izan dadin.

—Ez naiz ezeren esklabu. –Halako ahots ezti eta apalean–: Zentzu sakona eman nahi diet nire ekintzei.

—Eta kazetaritza-ikasketak?

—Bost axola.

—Eta pisuko kideak?

—Beren bizitza egiten dute eta nik nirea. –Erabakimenez, zalantzari tarterik uzten ez zion tonuan–: Hemendik aste betera sartuko nahiz monastegian, zuek nahi ala nahi ez. –Begietara so egin zien–: Ahal bada, soilik zuen bedeinkapena eskatzen dizuet. –Burua astindu zuen: Barkatu: zuen kontsentimendua.

—Sinestezina.

—Zoriontsua izan zaitezen nahi dut nik, Arnau.

Gutxienez izan zaitez zu, hirurok ezin dugunez, zeren Jordik bere bizitza ezkutatzen badit, zoriontsua ez delako da, eta nik, Renomek esan zidanean, Lleidan ikusi dut zure gizona, ze ondo kontserbatzen den, nik uste nuelarik bi egungo iraupena izango zuen batzar batean zegoela La Seun eta gero muturra izan zuenean La Seuko batzarraz hitz egiteko, egun hartan zoriontsu izateari utzi nion betiko, zoriona batik bat nor bere buruarekin bakean egotea baita eta Jordi ez da jadanik ni-neu.

—Sentitzen dut zu beste era batera hezterik ez izana –amaitu zuen hasperen batekin. Eta Zhivago doktorearengana so egin zuen, zeinak indiferentziaz beteriko aharrausi batekin erantzun zion. Orduan sentitu zuen ziztada, ohiz baino mingarriagoa. Joan-etorriengatik, ziur.

—Ez naiz etsitzen semea modu hain lotsagarrian galtzera –probatu zuen ostera Jordik.

Ez al zara konturatzen aspaldi galdu genuela Jordi, pentsatu zuen andreak lur jota.

—Ba al dut zuen kontsentimendua?

—Bai.

—Neurea ez.

—Benetan sentitzen dut baina berdin joango naiz zure kontsentimendurik gabe ere, aita.

—Jende askok al daki?

—Jendeak zer zer esango duen arduratzen al zaitu? –erantzun zuen andreak.

—Jakina arduratzen nauela! –Haserre, Arnau seinalatu zuen–: Ba dakizu? Ez dut nahi halakoen aurrean lotsaraz nazazun. –Etsita–: Berdin dio, utz dezagun joaten: gizon librea zara. Urteak borrokatzen gizartea zerbait justuago bihurtzen eta nire semea...

Ze demontre borrokatuko zinen zu, potrohandi hori!, pentsatu zuen Tinak. Oriol Fontellesen koadernoetan irteten den jendeak bai egin zuela borroka, baina zuk eta biok...

Jordik eskuak igurtzi zituen, urduri, garaituta:

—Eta monje zorri horiek ez zuten gu ohartarazteko sentikortasunik...

—Albo batera geratzeko eskatu nien. Ni naiz zuen semea, ez haiek.

—Noiz zoazela diozu?

Amorraturik ere, monastegi batean sartzen den seme batek zer eraman behar ote duen pentsatzen zebilen Tina, zenbat barruko arropa, zenbat alkondara eta galtzontzilo, sotana edo dena delakoa jarriko al dizute lehen egunetik, eta hain eraikin deserosoan seguru harrapatuko duzula mafrundi bat baino gehiago hainbat aire-korronteren erruz; kamiseta lodiak, eta liburu bat sartu behar badizut ezkutaturik, asper ez zaitezen, edo fuet bat monastegiko otordua ez bada zure gustukoa, eta mosen deitu behar ote dizugun, edo on, edo aita, edo soilik Arnau. Ez diezazutela zure izena aldatu, seme, bizitza osorako jarri genizun-eta. Eta noiz bisitatu ahalko zaitugu, Arnau, seme.

Ezpain egokiro mardulak, arrosa-kolorez pixka bat ilunduak. Masailezurrak, irteteko joera iradokiz baina oso modu diskretuan. Aurpegiaren soslaia, obalatua, historiaz jositako begi haiek lehen lerroan, non sartzea ezinezkoa zen. Oraingoz, bere hartan utziko zituen. Adatsak...

—Beti orrazkera berbera eraman beharko huke.

—Noski. Ez ninduan jabetu. Horrela ondo nagok?

Sekula ez nuen hain premiarik gabeko galdera entzun.

—Bai, ondo hago... Baina hurrengo saioan orraztu berdin.

—Zertaz mintzatuko gaituk gaur?

—Nik, ez. Nik kontzentratu beharra zaukanat. Azal iezazkidan gauzak. Haur hintzenekoak.

Haurra nintzenean dohakabe-edo nintzen, amatxo etxetik joana baitzen eta nik ez nekien zergatik, harik eta nire nebak ezkutuan azaldu zidan arte, eta zin egidazu ez duzula kontatuko bestela hilko baitzaitut, ama jaun batekin alde egin du-eta. Eta horrek zer esan nahi du, e, Josep? Aurrerantzean ez dugula ikusiko, eta horregatik dago aita hain malaostian. Zer esan nahi du malaostiak? Ez dakit oso ondo baina kontatzen baduzu hilko zaitut; edo aitatxok hilko zaitu. Tori, egin muin gurutzean eta zin egidazu ez diozula inori kontatuko. Eta Elisendak gurutzeari muin eman eta esan zuen, zin egiten dut ez dudala sekula malaostia esango. Ez, beste sekretua, amatxorena. Elisendak ostera gurutzeari muin eman eta esan zuen, zin egiten dut ez diodala inori kontatuko amatxok jaun batekin alde egin duela. Eta bost egun eta bost gautan egin zuen negar, zeren, antza, ez zuen sekula ama ikusiko. Hori dena margolari ia ezezagun bati kontatzerik ez zeukanez, isilik geratu zen, oso urrun begiratuz, ea amatxoren aurpegia gogoratzen zuen, urte asko atzerago, gomuta-hodeien artean, kopeta ilun eta begiak orratzen modukoak, eta eskuetan inpazientzia-aire bat. Hilda dagoenetz ere ez dakit eta ez dut jakin nahi. Dena zen hain zehazgabea eta gazi-gozoa, amatxo esatearen kutsua bezala, eta inor ez sentitzea erantzunez, zer nahi duzu, alaba.

Ordu erdi batez ez margolariak ez modeloak ez zuten txintik atera. Eta jabetu ziren, ondo egoten zela isilik, bata bestearen alboan. Ez zela beharrezkoa hutsuneak hitz beldurtiekin betetzea. Erlaxatuagoa zela isilik egon ahal izatea, bakoitza bere gauzekin, anderea agian ama zehazgabean pentsatzen eta gizona iritsi ziren egunak bergogoratzen, Rosa maletak eta artean asko nabarmentzen ez zen sabelarekin taxi asmatiko baten barruan, eta bera atzean, motor baten gainean, bidaia oso luze baten ondoren Bartzelonatik, ilunean lehen orduetan, eguzkiz eta beroz soberan bigarrenean, eta neka-neka eginda Balaguer utzi eta denetatik hain urrun zegoen tokirantz abiatuz geroztik, non ez atsekabeek ez alaitasunek ez zeukaten etorkizunik.

Torenako Major plazara iritsiak ziren, orduan jadanik España plaza zeritzanera, eguerdian, nekatuta, eta taxitik atera zituzten gauzak, lau platera, lau liburu, lau arropa-pieza, Rosaren erretratua, nora joan ez zekitela plaza hutsik baitzegoen, eta garondoak erreta zeuzkatelarik leihoen atzetik iristen zitzaizkien eztenean amaitutako begiradez.

—Hondoko hura eskola izango da –esan zuen Oriolek, begietan ilusio-punttu bat inprobisatuz. Bakarrik zeuden, zeren taxia, halamoduz, Sorterako beherabidea hartzen ari baitzen arroz saldatsu baten bila. Bazter haietan arroza ezagutzen bazuten.

—Maisuaren etxea alboan egongo da.

—Suposatzen dut.

Ziurgabe, zamatuta, plazatik urruntzen abiatu ziren eskola-eraikin txikirantz, nondik harago herriak paisaiari uzten zion lekua bera. Une haietan, Valentí Targak, Udaletxetik, bazekien hura zela maisu berria eta etxe bila zebilela. Zupada bat egin, kea irentsi eta esan zuen, une batean edo bestean hemendik igaroko da.

Maisuaren etxea pisu minuskulua zen, eskolatik urrun, plazaren beste aldean, barrua ilun eta umel mantentzeko pentsatuta egongo ziren leiho zeken batzuekin, ohea, armairu ispiluduna, Rosak otarrean zekartzan buztinezko platerak garbitzeko harraska bat eta hogeita biko bi bonbila. Eta miseria goibela.

—Esan nizun ez zela beharrezkoa zu etortzea –esan zuen–. Harik eta nik...

—Zergatik utzi behar zintudan bakar-bakarrik?

Rosak etxeari so egin zion. Gizonarengana hurbildu eta, haurdunen keinu nekatuarekin, musu eman zion masailean.

—Kontua da lana daukagula.

Kontua da lana zeukatela munduko bukaerara joatea egokitu zitzaien arren: hasieran esan baitzieten soldadu-ohiek zeukatela lehentasuna. Baina soldadu-ohi irabazleek ez zeukaten joera munduko bukaerarantz joateko, non ez atsekabeek ez alaitasunek ez duten etorkizunik ahal izan, eta borrokan jarraitzen zuten, orain ordea hiri handietara joateko, denek erregimenarekiko fideltasun iraungigabea harro erakutsiz. Torenako maisu-plaza hutsik geratua zen inork ez zekielako non geratzen zen Torena hura. Eurek ere ez. Poble-seceko santa Madrona parrokian dagoen hogei liburukitako entziklopedia, entziklopedia bikaina omen da, non dena dagoela dirudien. Horregatik kontsultatu zuten Oriol Fontellesek eta bere emazteak egokitu zitzaien herriari buruz zerbait jakitearren, justu konturatu zirenean maisu gazte bat, urdaileko zorioneko ultzera bati esker ezein aldetan gerra egin ez zuena eta soldaduska ere egin ez zuena urdaileko ultzera berberari esker, ez zela sekula inon maisua izango. Eta hogei liburukitako entziklopediak zioen Torena herri idilikoa dela, Sorten alboan, Pallars Sobiràko eskualdean kokatua, hirurehun eta berrogeita hemeretzi biztanle erroldatu dituena (gehi hogei bat exiliatu eta gerraren erruz gerran hildako hogeitahamar zendu: bi, errebolta faxista hasterakoan eta besteak, gerran zehar. Eta hil behar ez zituzten arren haren berri ez zeukaten beste lau biztanle gehiago, gerragatik haiek ere, eta inongo estatistikatan sartzen ez zirenak, biharko eguna soilik Jainkoarena delako). Hango labore nagusiak: patata (batik bat), garia gasturako, zekalea, garagarra, sagarrondo batzuk Sebastiàren alorrean (non hilketa batzuk gertatuko ziren) eta, ildotxo eguzkitsuren batean lau aza eta espinaka-lerro batzuk. Larre naturalak ugariak direnez, behi- et ardi-aziendaren zentso polita dago. Alacanteko itsas-lerroan mila eta laurehun eta zortzi metrora dago herrixka (eta hotz gorria egiten du. Udan ere jertsea jantzi behar da). Gainera san Pedrori dedikatutako eliz parrokia bat ez ezik, herriko eta hurbileko tokietako laurogei ume pilatzen dituen eskola bat (salbu Farinós etxeko Tudonet, alde guztietatik atzeratutako haur bat baita eta haren etxean ez dute erakutsi nahi).

—Bakezko txoko bat –laburbildu zuen Oriolek ahotsean batere ironia-tonurik gabe entziklopedia itxiz, berak, Bibianak ez bezala, ezin baitzuen etorkizuna asmatu–. Biriketarako ondo etorriko zaizu.

Erabaki eta egun gutxira, andrea Bartzelonan geratzea hobe zelako mania harrapatu zuen, han goian hotz handia egiten zuela eta erditu arte oraingoz hobe ezetz. Harik eta Rosak planto egin eta esan zion arte bera gizona zihoan tokira joango zela eta mendian erditu behar bazen bada mendian erdituko zela Torenako andre guztiak bezala. Eta amaitu da. Eta amaitu egin zen.

Eta orain bakezko eta hotzezko txokoan zeuden, gizona liburu-pila bat eskuan, lastaira gisara erabili beharko zuten patsezko ohantzeari begira eta urtetan egurrarekin zebilen estufaren erruz ilundutako kafesne-koloreko hormei begira.

—Zein isiltasun polita, ez da? –Rosak, painelua sudurrean.

—Bai –egin zuen hasperen gizonak–. Zein isiltasun polita.

Liburuak ohe gainean utzi eta egur bidezko estufaren funtzionamendua zein izan zitekeen aztertzen saiatu ziren. Motor baten zarata entzun zen. Leiho ttikian zehar plaza bakartiaren erdi-erdian auto beltz bat geratzen zela ikusi zuten eta sortzen hasi zirela, arraioa, falangistak dirudite-eta.

—Ai, Jainkoaren ama.

Hiru. Ez, lau, bost falangista gazte, denak era berean orraztuta, ateak zarata eginez itxi eta leihotik ikusi ezin zuten plazaren alde batera abiatzen ziren. Isildu egin ziren. Oriol eta Rosa isildu egin ziren, bazekitelako falangista-saldo erabakidun bat ez dela ona osasunerako.

Ordu laurdenera ezagutu zuen Oriolek Valentí Targa, plazaren jabetza sinatzera udaletxera aurkeztu zenean, norbaitek, tokiren batean, damutu baino lehen. Bulegoarena egiten zuen gelatxoan, berde hutsaleko hormak, zurezko armairu zedenduak eta lauza gorriak, Valentí Targak eta Oriol Fontellesek, Torenako borreroak eta haren kontseilariak, elkarri hitz egin zioten lehen aldia izan zen. Alkate jauna ere falangistaz uniformatuta zihoan eta alkandoraren mahukak jasota zeramatzan, ezpain gainean bibote fina zeukan eta begirada hezea eta urdina adatsen belztasunarekin kontrastean. Aurpegian zimurrak ageri zitzaizkion baina bere osotasunari arrazoiz Torenako borrero izendatua izateko behar beste energia zerion. Auto beltzeko gizon uniformatu-pare bat bulegora baimenik gabe sartu-irten eta begiak Oriolengan paratu gabe ari ziren, hura inurri bat bailitzan. Gaztelaniaz mintzo ziren. Errua Poble-seceko Santa Madrona parrokiako hogei liburukitako entziklopediarena zen, ez Rosari ez berari ohartarazi ez zielako Torenak, hainbat osasun-kualitate ez ezik, akats bat ere bazuela, eta da gehiago itxaron ezin zuten hildako batzuk zeudela zain.

—Bazkal ostean kafetegian elkar ikusiko dugun konfiantza daukat –esan zuen alkateak elkarraizketa labur-laburraren bukaera gisa–. Gaur eta egunero, eskola izan ala ez izan.

Agindu bat zen, baina Oriolek ez zuen horrela interpretatu, erantzun baitzuen, lanaldia zeukatela, etxea garbitu eta arropa armairutan uzten, ongi, armairuan, eta behar bada aurrerago.

—Hiruretan kafetegian –izan zen Valentí jaunaren erantzuna burua biratu eta bulegoan beste inor ez zela ikusaraziz. Orduan ulertu zuen Oriolek agindu bat zela, eta esan zuen, bai, alkate jauna. Franco eta Jose Antonioren erretratuak begiratu zituen alkatearen atzeko horman eta soilik otu zitzaion pentsatzea horma haiek margo-esku baten beharrean zeudela. Eta broma gutxi, izan ere Marésen tabernan lanik gabeko bik ahopeka ziurtatzen baitzuten Valentí jaunak Tuca Negrako isurialde erdia erosi berri zuela, Cascant etxekoa zena. Eta hori salgai ez zegoelarik. Beraz, gertatu zen ezen Tomas errepublikanotzat salatu zuten egunetik, Tucako

zati hura, mirakuloski, salgai zegoela, jo hitzak potroak. Bai. Beraz niri komentatu didate ez zela bera izan eroslea. Eta gaia aldatu zuten alkatea sartzen zegoelako, arratsaldero bezala, tarte bat isilik erretzen egotera, taula batean, non, Valentí Targa ez ezik, Torenako alkate eta mugimenduko buruzagia bera, bere lankide uniformedunetako bat zegoen, adats kizkur eta iluneko gizon bat, hura bezain isila, artega eta isilak bi-biak, norbaiten zain baleude bezala. Hiruraz geroztik, Oriolek ikusi zuen lokalean zeuden gizon gutxi haiek isiltasun berbera mantentzen zutela, lasai asko ari zirela butifarra-jokoan eta maisu berria zein aldetan zegoen ikaskaia ikasten.

Gauean, maisuaren etxean, mundu guztiak zekielarik maisua zein aldetan zegoen, Oriolek eta Rosak, andrea eztulari eutsiz, patsezko ohantzean jotzen zuten larrua, arreta handiz haurduntzagatik baina batik bat zaratarik egin gabe, munduko txoko idiliko hartako isiltasuna ez haustearren. Orduz geroztik dardarka zeuzkan eskuak gertatuko zen guztia jakingo bazuten bezala. Eskuak. Erretratu batean margozteko hiru gauzarik zailenak eskuak, begiak eta batik bat arima dira.

Elisendaren eskuak bi usapal zuri ziren hegaldi betean, dotoreak, ziurrak, ongi eginak. Laster ekingo zien. Begiak, azken aldera, ondoriorik gabe so egin ahalko zienean. Eta arima, ongi, hori ez zegoen bere esku. Edo borondatez sartzen zen oihalera edo bazterrean geratzen zen mespretxuzko imintzioz.

—Geratuko al gaituk pixka bat, Oriol?

—Oso ongi.

—Zergatik ez diok Rosari esaten tea hartzera etorteko? –esan zuen Elisendak alxatuz eta Oriol aztoratu zuen familiartasunarekin giharrak askatzeko besoak luzatuz –. Nahi al duk nik abisua emanaraztea?

Niregandik defenditu nahi ote du? Beldurra ote dit?

Oriolen zalantzaren aurrean, kanpaitxoa jo eta esan zuen, Bibiana, esaiozu Jazintori, Fontelles anderearen bila joan dadila, etortzeko gogorik balu. Oso ongi, Jazinto, oso ongi egiten ari zara.

Montse Bayo? Babalore bat.

—Harekin zaudenean, lerdea darizu.

Arnaskerarik gabe utzi zuen musu oldarkor batekin isilarazi zuen Marcelek inpertinentzia hura. Orain berak agintzen zuen, bere lurraldean zegoen eta arratseko zazpiak jotzear zeuden. Baina jokoa egin beharra zeukan, arauak jarraitu eta horrexegatik begi berriekin begiratu zituen su baxuko apaleko bibelotak, neskak hura dena nondik atera zuten galdetu zionean.

—Ez dakait, beti ikusi ditut hemen.

—Eta erloju hau...

Esferaren alde banatan aingerutxo zizelatuak zeuzkan erloju bat seinalatzen zuen, orduak modu apalean jotzen zituena, kanpai zorrotz eta nerabearekin, jakitun balitz bezala hormako erloju beneragarria zela han agintzen zuena.

—Zer gertatzen zaio?

—Moñoñoa da. Nola dakizu ez dela inor etorriko?

—Astuna zara gero. Zergatik jakin nahi duzu?

—Gora joan gintezke.

—Nora?

—Zure logelara.

—Zergatik? –Begiratzera itzuli zen–. Tren elektrikoarekin jolastu nahi al zara?

—Hara... –Besaulki atzean bere burua bota eta muturtuta geratu zen Lisa. Mutur kalkulatuak–: Nola dakizu ez dela zure ama etorriko eta...

—Ez da etorriko –moztu zuen Marcelek–. Eta zergatik jakin nahi duzu?

Lisa altxatu eta alkandora erantzi zuen. Azpian artilezko Stadler kamiseta bat zeraman, gurasoek Zurichen erosten zuten haietakoa.

—Suaren hain alboan egon behar baldin badugu, bero naizelako.

—Beraz nik ere bai. –Marcelek jertsea eta alkandora erantzi zituen. Haren kamiseta, artilezkoa hura ere, La Pastora markakoa zen, Matarokoa.

—Eta orain zure ama etorri eta hain beroturik ikusiko bagintu... –egin zuen barre oso urduri, oso.

—Madrilen dago.

—Polita da.

—Zein?

Su baxuko goialdean buru zegoen erretratua seinalatu zuen Lisak.

Elisenda dotorea, oso gaztea baina gaurko dotorezia berberarekin, eskuetan liburu bat, aurrerantz begira, neskari bizitzaz beteriko begi argitsuekin so eginez, mintzatzen baleude bezala, eta esaten, Lisa, potxua, nire semea ligatu nahi duzu baina ez duzu merezi.

—Hain mezakoa bera, ez dakit zer harrapatuko zuen ikusiko bagintu.

Zu harrapatuko zintudan, pentsatu zuen Marcelek. Norbait etortzea nahi duzula ematen du- eta, puta gaiztoa, pentsatu zuen. Eta eskuan muin eman zion galanki. Neskak hankak sutarantz luzatu eta unea iraunarazi zuen, gustukoa baitzuen eskuan muin eman ziezaioten. Baina ez dago musu eternorik.

—Nolatan dakizu hain ondo eskiatzen?

—Neuzkanetik... ez dakit, ahal den guztian etortzen bainaiz.

—Bai, baina ni ere aspaldi... –Begietara so egin zion–. Baina zu...

—Niretzat elurra bizitzeko modu bat da. Mendia, elurrez estalitako zuhaitzak, isiltasuna, eskia irristatzen, sudurra mozten didan haizea... Eta jendea urrun, ez hitz egin, ez oihukatu, ez bultza egiten ez duten puntutxoak... Bizitza ulertzeko modu bat da. –Besaulkian utzi zuen alkondara–. Bi mila ehungarren kotan jainkoa naiz.

Lisak aho zabalik begiratzen zuen, printzipio-deklarazio harekin pittin bat harrituta. Marcel pozik zegoen Lisa Monells bereganatzen ari zen moduagatik. Bat-batean, neskak mugitu egin zen eta, mutila konturatu baino lehen, eskiko prakak jaitsi zituen. Hanka zuriak, borobilduak, lisoak, perfektuak, belaunean zulotxoarekin, zorionaren premonizioa.

—O, zelako beroa, su hau.

—Wiski bat bai?

—Ez, orain ez.

Agian geroago esan nahi zuena, behingoz gerora iristen bagara, zeren, Montsek nahi duena esango duen arren, Zuzenbide fakultate osoko urlia mantsoena baitzara.

Lisak, jostari, Marcelen gerrikoa askatu zuen eta, barrez-barrezka, galtzak jaitsi zizkion astindu batez.

—Tira –barrezka–, helgorria harrapatuko duzu hainbesteko beroarekin.

Marcel Vilabrúren atleta-hanka iletsuak, belztuak, indartsuak, gihartsuak. Montse Bayok azaldu zizkion bezalakoxeak.

Hanka hankaren kontra batu zituzten, eta neskak azal-kolorearen diferentziaz ohartarazi zuen, beltza dirudizu, Marcel. Eta mutilak izter guria laztandu zion, eta Lisak pentsatu zuen, arraioa, Marcel Vilabrú, ostia, bazen ordua. Eta harrotzeko, herrian lagunik ba ote zuen galdetu zion, eta mutilak, imintzioka, jo, hemen, erotuta zaude, hala?

—Beti esaten duzunez astebururo igotzen zarela...

—Hemengo jendeari behi-usaina dario.

—Hara nork hitz egiten duen. –Torenako jendearen defenditzaile bihurtu zen Lisa. Salatuko balu bezala–: Zu hemengoa zara.

—Bartzelonan jaio nintzen. –Ezkerreko belauna oratu zion zulotxotik. Ze gauza–. Ni soilik eskiatzera eta ama ikustera etortzen naiz –zuritzen. Eta mendietan galtzera.

Ez zen erabat zehatza Marcel Vilabrúren baieztapena. Egia da ez zela herriko jendearekin konpontzen, salbu Xavi Burésekin, Eskola Industrialean agronomia ikasten zebilena bera. Egia zen ahal zen guztietan Torenara itzuli eta Tuca Negrara joan ohi zela. Eta han lasterka ibili ohi zen orduak eta orduak bakarrik, soberan zeuzkan energiak xahutzen edo Quiquerekin,

ikastarotatik libre bazegoen. Baina Quiquerekin moldatu egiten zen. Hainbeste ezen, bi urte atzerago, fakultatean sartu berri, Montorroitik jaitsiera libre eta klandestinoa eginez ospatu baitzuten, desnibel ezezagunak hartuz eta pentsatuz kriston zaplaztekoa hartu ahal dugu, eta Quique baino ausartagoa izaten saiatuz, hark proban jartzen zuela ematen baitzuen. Eta gero, ilundurik, klubera abenturagatik irrikan iritsita, hoztuta baina izerditsu, ur beroko dutxa azpian sartu ziren eta hainbeste denbora egon ziren bertan, Quique bromatan hasi zen zure pirula garbantzua bezain ttikia dela eta hola, eta ur azpian jokoaren jokuz pirulak ez ziren jadanik garbantzuen gisakoak eta Quiquek Marcelek bere bizitzan jasoko zituen hirurehun eta hogeita bi xurgadetatik lehena egin zion, eta izan zen hain arraroa, bi asteburu eman zituen igo gabe eta bere buruari galde eginez, ea orain marika naizen, gustua hartu bainion, eta negarrari emanez berak ez zuelako marika izan nahi, eta orduan behartu zen eskura zeuzkan andre guztiak jazartzera, bere buruari erakusteko ni marikatik deus ez, eta horrela hasi zen bere ospea fakuko neska guztien artean. Arraroena da niri ere gustatu egin zitzaidala hari hura egitea, eta Quique arnasestuka nik... Tira. Inoiz ez zuten aurrerantzean hitz egin baina Marcelek, orduz geroztik, monitoreen aldageletan dutxatzeari utzi zion, badaezpada ere.

Lisa Monellsen eskubiko belauna laztantzen jarraitu zuen eta, Quiqueren irudia, dutxan arnasestuka, uxatzeko, neskaren laguntza azkarrarekin burutik atera zion Stadlerra, eta neskak kamiseta, eta mutilak bularretakoen kisketa askatzea probatu zuen urduri, oso aztoratuta. Lisak pentsatu zuen, to, eskiatzaile handia, hirugarreneko ikaslerik kuttunena lehenengo Zibila eta bigarreneko Penala zintzilik eduki arren, ikasleen sindikatua antolatzen hasita zeuden politizatuengandik hain urrun egon arren, halako ironiaz begiratzen baitzien, esanaz-edo eup, ez duela merezi, eta esanaz ni ez, zu, ez dut gorotz horretan nahastu nahi eskia eta politika etsaituta baitaude; arrakastako ikaslea eskuzabala zelako eta kafesne bat edo wiski batera gonbidatu ahal zaituelako, eta zioten sosez beteta zegoela, eta maitasunean oso trebea, segaila, oso-oso ederren eta enamoratzen duten begien jabea, eta esku eder asko hauekin tipoak ez daki kisket bat askatzen eta hemen egongo gara auskalo noiz arte, eta Lisak eskua geldiarazi behar izan zion eta keinu lehor huts eta zehatz batekin kisketa askatu, bularretakoak kendu eta Marcel Vilabrúri aspalditik erakutsi nahi zizkion bi bitxiak azaldu zituen, haren begiek espresioa aldatuko ote zuten ikusteko, edo ahatik, begi haiek kontenplatua izateak oso ziztada bereziak eragiten zizkiolako. Gainera, Montse Bayori apustua irabazteko puntuan zegoen. Orduan, telefonoak jo zuen.

—Bai, amatxo.

Marcelek Gravat etxean telefono bakarra, neolitikoan bezala, izatea madarikatu zuen. Mutila gantzontzilotan, sexua tente, eta Lisa soilik blondazko kuleroekin babestuta, entzunez nola mutilak esaten zuen, bai, amatxo, bai amatxo. Eta Lisa entzuten nola mutilak esaten zuen, jakina bakarrik nagoela, ohera joatekotan nengoen, ez duzu ikusten bihar Tuca Negra osoa egin nahi dudala? Bai, Pere Sans eta Quiquerekin, bai. Eta Lisa altxatu eta erakustaldi bat egiten hasi zen, kuleroak gutxika jaisten eta barreari eutsiz, eta mutila, begiratzeko gogoarekin baina hormaren kontra ipiniz ez zuelako kale egin nahi, eta esanaz astelehenean jaitsiko zela, esateko Jazintori astelehen goizean etortzeko, bai, astelehen honetan ez baitago eskolarik, greba dagoela, bai. Jakina kontuz ibiliko zela, ez al duzu ikusten Tuca Negra nire etxea balitz bezala ezagutzen dudala? A, eta Quiquek esana ziola bi mila eta hirurehungarren kota, Batlliarantzkoa, pista beltz eder askoa bilakatu ahal zela teleaulki bat eraiki eta lauzpabost harri zapartatuko bagenitu. Bai, amatxo. Eta aparailua eseki zuen, aurpegia hormarantz, amaren hezurrak madarikatuz Madriletik soilik kontrolatu eta edozeinen aurrean lotsa pasaratzeko deitu baitzion, Marcelek baibaitzekien amak ez zuela sinistu astelehengo

grebarena, eta seguru haserre bizian itxarongo ziola astelehen gauean Gravat etxera igo aurretik Bartzelonara iristen bazen, eta Marcelek bazekien amak bazekiela ez zuela gezurrik esan ohera joateko unean zegoela azpimarratu zuenean.

—Bai, amatxo.

Marcel etzan egin zen, Lisaren burlaizezko bai amatxo haren tonuagatik minduta. Neskak kenduak zituen kuleroak eta atzamar batean biraraziz astintzen zituen. Zer politta, Lisa. Eta mutila oldartu egin zitzaion, lurrean iraulkatu ziren, eta aitzakia jarri zuen zoru hain gogorrean zaila zela erlaxatzea, eta hainbat ordu lehenagotik destinoak determinatuta zeukalarik, ohera joan ziren. Baina ez zoruaren azalera gogorra zelako baizik su baxu gaineko erretratuko Elisenda gazte eta lerdenaren begirada magikoak desbabestuta uzten zuelako. Amatxoren ohe majestuosoa aukeratu zuten, kalefakzio zentralak epeldutako eta Vilabrútarren hamar belaunaldiko fantasma guztiez papereztatutako ganbera batean, baina batik bat, amatxo bolada beatoan dagoela eta ostera gotzain eta apaizen artean gora eta behera ari dela, bere santu-santen obsesioarekin gelditu gabe dabileako deseroso sentiarazi eta gogorarazten dizkizuten erretraturik gabe, eta ikusiko banindu Lisa Monellsekin txortan, bekatuaz, damuaz eta medeapen-xedez mintzatuko zitzaidakeen. Eta mosen Augustek ikusiko banindu, gaixoa, zuzenean hilko litzateke.

Hirugarren gizonak seinale bat egin zuen esku ezkerrarekin. Bazekien besteek soilik bere soslaia elurraren kontra ebakitzen bazuen ikusi ahalko zutela, eta horregatik ipini zen belaze elurtuaren erdian. Baina bazekien baita ere bere kideek ikusten bazuten, etsaiek ere bai, baldin bazeuden. Balak aurpegiaren erdia txikitu zionean konturatu zen. Ez zuen astirik izan esku ezkerra jaisteko. Mila bederatziehun eta berrogeita hiruko abenduaren seiko arratsaldeko bostetako elur zuriaren eguberri-paisaiaren gainean, Isilgo haranean faxixmoaren kontrako borrokan eroritako lehen makiaren odol-orban iluna osatu zen. Eta haren bi kideek ez zuten amen erantzun, baizik madarikazio bat murtxikatu zuten, Nerval koronelak ziurtatu zielako Isavarre hegoalderaino ez zeukatela aginte-posturik ezarrita. Bigarren gizona, tenienteari seinale egin eta ilunpean desagertu zen. Marcó tenienteak ulertu zuen progresioa zeinek oztopatzen zien ikustera joana zela. Bere gizonei so egin zien, bizarra gaizki egindako hogeitahamar bat boluntario, determinazioa begietan eta batere gogorik gabe autoerrukirako. Sail haren buru izateagatik harro sentitu zen une batez eta sentimendu hura beldurrarekin nahasi eta Pacorekiko gogorapen mingarria izan zuen, errepidearen bestaldeko belazearen elurra ilunez marraztu zuen gizona baitzen, eta bigarren gizona bidea libre xuxurlatzen ari zitzaion, garbitu ditiat, bi soldadu baino ez.

Eta hiru patruilek erreka gurutzatu zuten, zaintza-postuaren aurretik igaro ziren, zeina Nerval malapartatuaren iritziz ez zen existitzen eta bi soldadu hilez, bi mauserrez, munizio-kaixa batez eta izoztutako garbantzuz betetako jaki-ontzi batez osatuta zegoen. Bi makik eskopetak konfiskatu zituzten eta hirugarrenak munizio-kaixa, dena zalapartarik egin gabe, ia-ia berez, eta inork ez zuen hain gazte lepo egindako bi soldaduekiko erruki-begiradarik izan, beren helburua hainbeste itxarotegatik oinak izoztuta edukiko zituen lehen gizonarengana iristea baitzen.

—Zer izan da, tiroa? –egin zuen hark, ez izozteko oinak lurrean joz.

—Ehun metrotik honuntzago zeneuzkan soldaduak.

—Alde guztietatik entzun da. Laster izango dugu kamioi bat hemen. Borénen egongo dira. Edo hurbilago.

—Beraz probestu beharra dago.

—Eta zubia?

—Joan daitezela hiru artifizieroak. Lasai lan egin ahalko dute, ziur egon. –Beste gainerako gizonei–: Heda zaitezte eta prestatu granadak. –Eta umeari eskolara bidean, lepoa eta sudurra bufandarekin estalita, motxila bat liburu eta ilusioak bizkarrean, agur egiten dion amak bezala, gomendatzen diolarik kontuz ibiltzeko espaloitik jaistean, Marcó tenienteak xuxurla egin zion talde osoari–: Eta kontuz su gurutzatuarekin.

Ez bat, hiru baizik. Soldaduz kargatutako hiru kamioi. Beraz, tropak zeuzkaten Esterri baino gorago. Eurek, bordetan ilunaren zain itxaroten egonik, ez zuten ez eta usainik ere detektatu. Astiro baina tai gabe, kamioiak bidean aurrera zihoazen, bat bestearen atzetik, prozesionarien antzera, errepide estuko zinta ahulki argituz, lehen ibilgailuaren kabina gainean metrailadore batekin, beti iparrerantz begira etsai ikusezinerantz, eta komandantea makiaren ama kakaztuz, niri egiten utziko balidate, egun batean amaituko nuke.

Marcó tenienteak lehen kamioia pasatzen utzi zuen eta bere gizonak frenetiko eta alteratuta zeuden, horrek hil arteko gerra esan nahi baitzuen eta ez segada huts bat eta korrika alde egitea, eta batek baino gehiagok pentsatu zuen, zer egiten dut nik hemen, beldurrez, hotzez eta heriotzaz hiltzen, eta betertzez behatzen zuten tenientea, bigarren kamioia pasatzean begiak beltz eta distiratsu errepidean iltzaturik mantentzen zituena eta, ia hari itsatsita, hirugarrena, eta orduan seinalea eman zuen eta bost granada jausi ziren hirugarren kamioiaren kaixa barruan eta pare bat gehiago kabinatik sartu ziren. Hiruzpalau segundora, eztanda-, oihu-, su- eta birao-segida batek oinazez margotu zuen gaua eta kamioia bidean trabes geratu zen beste biei atzera egitea oztopatuz, haren txoferra, granadak besoak moztuta, makitik etorritako estratega balitz bezala.

Metrailadorearen bi arduradunak, errepidearen ertzean, Marcó tenientearen oihura, beste bi kamioien kontra jaurtitzen hasi ziren, nondik soldaduak jaisten ziren, zeinak, elurraren zurian salbatzeko lasterka egiten zuten arren, heriotzarantz zihoazen zuzenean, ez baitzuten kontuan hartzen segadaren oinarrizko printzipioetako bat dela zure mugimenduak kalkulatzea etsaiarena aurreikusi eta behartzeko, hainbeste non hunkitu egiten duen frogatzea nola jarraitzen dituzten, zehatz-mehatz, guk jarraitzea nahi ditugun urratsak eta horrela partida irabazita diegu gu garelako taulako fitxak mugitzen ditugunak eta guk pixka bat jainko ematen dugu eta eurak, bada horixe, prozesionariak. Aureli Camós berak ere, Agramunteko mutilak, Ebron armada errepublikarrarekin borroka egin eta etxera itzulitakoan frankistek berbidalia izan zenak, bi anaia exilioan eta soilik hogeita hiru urte memorian, kamioitik jaitsi eta bere destino tragikoaren kontra egin zuen tupust. Eta lehen kamioiko komandantea, haserre, beranduegi ohartu zen han, konboiaren aurreko muturrean, metrailadoreak ez zuela ezertarako balio, atzerantz jaurtitzen bazuen bere soldaduak garbituko zituelako, eta makiaren ama kakaztu zuen, eta hura ere elur zurian heriotzaren bila atera zen, segadaren oinarrizo eskuliburuetan idatzita zegoen bezala.

Hogeita hiru gizon hil, berrogeita hamabi ihesean elurretan, erroitzetan, Noguerako ur izoztuetan barrena, laidoan zehar, laurogei fusil, bi metrailadore, hiru munizio-kutxa handi, irrati-transmisore bat, ehun granada, armada suitzarraren labana bat, armada frankistaren odolez eta harrotasunez zikinduta makiaren komandoak lapurturik eta faxismoaren kontrako askatasun-armadan gehituta. Hiru laurdeneko tiro, oihu eta nahasmendua, ikatza bezain begi beltzeko tenientearen begirada izoztuaren pean, hamar minutu harrapakina jasotzeko eta bizitza oso bat desagertzeko Riseko bordetatik eta are gorago igoz Pic de Pilasen bila eta, goizean goiz, mendilerroz mendilerro, oinetan raketak jantzita, argitasun salatzailearekin, Frantziako mugara leher eginda iristeko, Mont-roigen barrena. Baina denak ez ziren mendirantz igo betebehar osatuaren sentsaziorekin. Kideetako bat, tenientearekin kobazuloan geratu zen zelatatuz, etsaiaren erreakzioa behatzen.

Sagardia generala. Antonio Sagardia Ramos Nafarroako Armadako 62. Dibisioko buruzagi ohi berberak, zeinak merituzko ahaleginez Pallarsko harakin goitizena lortu zuen, ospetsu bihurtu zen zonaldean bisita estraofizialean zegoelarik, hilotz mutilatuen pila ikusiz, ahoa klaskatu zuen izorratuta, eta ohoreak eskaintzen zizkion teniente koronelari esan zion, begi bat galduta eta bizitzarik gabe, baina izarra kapelan, aurrean zerraldo zeukan konpetentzia bako komandantearen errua izan zela, segada gerrilari elementalean erortzen utzia izan baitzen. To, eta ni erreserbara pasatzen naute.

Emaitza makiak aurreikusitakoa izan zen: haran hartan jendea bikoiztu eta beste tokietan urritu. Begiraletza-indarretako gehienak hildakoekin eta beldurrak sakabanatutako soldadu batzuekin itzultzen ari zirelarik, jendea zeraman kamioia Arreuko zubi gainean zegoela,

ikatzezko begietako tenienteak orain! oihukatu zuen. Bere gizonetako batek kezko bengala bat jaurti zuen eta handik hogei segundora, zubiak, bi jeep eta kamioi batekin, hegan egin zuen berebiziko pozarekin. Marcó tenienteak bazekien orduz geroztik bizitza oso gogorra izango zela Isiletik Collegatseraino ari ziren makien partidentzat, besteak beste irteera-bidea mozten zitzaielako Salauko bortutik barrena eta itzuli luzeak baina ziurrak egin beharko zituztelako Espot, Estanyets eta Montsentetik.

—Margo bat marikoikeria bat da.

—Denbora-pasa aritzeko modu bat da niretzat. Eskolako gaia errutinarioa da.

—Eta zer? Nahastu nahi izan al zaitu?

—Barkatu?

—Elisenda andereak sexua iradoki al dizun.

Elisenda andereak sexua iradoki al zion... Azken saioa gaizki egiten duen guztia bizitzara iristen den bezala iritsi zen, eta Oriolek, soinekoaren zimurren tonuak aldatu ondoren, oihal barruan hazi ziren begi bizi haiek kontenplatu ondoren eta han surik ez bazegoen gutxi falta zela ohartu ondoren, hasperen bat egin zuen pintzela zatar batekin garbitu eta oihaleko begiei begiratuz esaten zuen bitartean, uste dut ezin dudala gehiago egin. Amaitu dut, Elisenda. Eta Elisendak azkar altxatu, oihalerantz abiatu eta minutu luze batean isilik kontenplatu zuen, halako moduan non Oriolek bere aurrean arimak zulatzea lortu zituen begi haiek zeuzkan, eta bere atzean nora ez zekien eramaten zuen lurrin hura. Nardo-usaina zuten esku fin eta leunekin koadroaren aurrean egin zuen txalo.

—Arte-lana da –esan zuen andereak, hunkituta.

—Ez zakinat –erantzun zuen Oriolek, zuhurtziaz–: Baina nire barrutik atera da.

Oriol mozkorturik hil aurretik segundu batzuk lehenago, oso korronte elektriko handiak zeharkatu zion bizkarrezurra, andereak eskua sorbaldan ezarri eta ez baitzuen erretiratu. Eta aurreabisurik gabe makurtu egin zen, bularren hasiera erakutsiz, eta musu isila eman zion kopetan.

—Oso eskerturik natzaik –esan zuen–. Erretratu bikaina da. Horretara dedikatu beharko huke.

Elisenda andereak sexua iradoki ote zion. Jainkoarren. Elisenda andereak ez dit sexua iradoki, nik aterrunerik gabe pentsatzen dut haren begietan eta Rosa gero eta ozpinduago dago zerbait susmatzen duelako, emakumeek hori ez dakit zein antenen bidez antzematen duten. Jainkoarren. Agian ez nuen lan hura hartu behar izan eta eskolara mugatu beharko nuen eta Elvira Lluís, Célia Ventureta eta Jaumet Serrallaci esan behar nien, gelako handienak baitziren, gurasoek oraindik ez zituztela eskolatik atera belarra mozteko, ezetz, subjektua España dela, subjektu batek ezin duela inoz preposizio batekin joan, ulertzen duzu, Jaume, ulertzen duzue? España crece con amor al Caudillo esaten badugu, con amor ez da subjektua.

—Baina hitzik garrantzitsuena da –Elvira Lluísek eztulka–.

—Zer esan nahi du España crece con amor al Caudillo, Oriol jauna?

—Ongi, hori liburuko adibidea da. Beste bat ipiniko dugu. El trigo crece con amor al agua.

—Zer da trigo?

—Garia. Ogia, hemen esaten duzuen bezala.

—Ongi, hori hobeto ulertzen da. Eta subjektua garia izango da. E?

—Elisenda andereak ez dit sexua ez ezer iradoki. Andere bat da.

—Ezagutzen joango zara. A propos, ordaindu al dizu?

—Puntuan. Baina zer esan nahi du, ezagutzen joango naizela?

Kafe-katilu hutsa jaso eta koilaratxoa platerean utzi zuen. Etxera itzultzeko gogoa zeukan eta beldur ematen zion itzuli eta Rosaren gaitzespen mutuez beteriko begiradari aurre egin beharrak, zeinak ez baitzuen irribarrerik egin ez eta koadroaren ordainketa-dirua ekarri zionean ere.

—Gogoratzen dizut Elisenda andere ezkondua dela.

—Egunak auskalo non ematen dituen bala galdu batekin ezkondutako andere bat... Tira.

Oriol altxatu egin zen eta Valentí Targa harritu egin zen besteak aurrea hartu izanaz. Horrek haserretu egin zuen. Keinu lehorrez ostera eserrarazi zuen. Mahaitxoaren gainetik makurtu zen, aurpegia Oriolenaren aurrean jartzeraino, halako moldez non Oriolek arnasa garraztua arazorik gabe sentiarazi ahal zion, eta alkateak esan zuen, nik bai jo dudala hire andere Elisendarekin. Eta ziurtatzen diat ez dela beste munduko ezer.

Oriol, haserre, zuk zer uste duzu erantzutera zihoanean, Valentí jaunaren gizonetako bat, adats kizkurretakoa, Marés etxera sartu, alkatearen mahaiara zuzenean joan eta, suhartsu, zerbait xuxurlatu zion, Oriolek ulertu ez zuena. Supituki, Valentí Targak altxatu eta lehen bezalako keinu lehorra egin zuen, baina orain jarraitu esan nahi zuen, eta Oriolek erantzun zuen, etxera itzuli behar baitut, izan ere Rosa.

—Utzi dena bakean eta jarrai nazak –esan zuen, Jesukristok bezala–. Eta abrigatu.

Bekain iletsukoak Sorteko kanposantu ondoan gelditu zuen autoa, hogei bat hilkutxa ilaran zeuden estalpe baten aurrean. Autotik hiru falangista uniformatu eta Oriol jaitsi ziren, zeinak konturatu gabe, bereganatuak zeuzkan taldearen keinuak. Guardiako soldaduek agurtu eta sartzen utzi zieten. Txoko batean, gorputz bat lurrean etzanda, uniforme militar batekin-edo, begi bat irekita, ezinezko garaipenen bat erregutuz, eta aurpegiaren beste erdia masa odoleztatua bihurturik. Oin-puntarekin, Valentík hilotza aurpegiz gora jarrarazi zuen. Oriol, haren aldamenean, dardarka, herioaren aurpegi hari xehetasunez begiratu nahi gabe, gehiago ezin eta txoko batera joan zen oka egitera. Valentík une batez behatu zuen, iruzkina gorde eta makiaren aurpegiaren alboan makurtu zen.

—Begiratu hau –esan zuen itzuli gabe.

Oriol hurbildu egin zen, painelu bat ahoan, zurbil, eta hankak huts egiteko zorian. Besteek inguratu egin zituzten. Valentí hildakoaren jakaren solapatik tiraka zegoen. Hilotzak botoi-zuloan insignia metaliko bat zekarren. Solapatik kendu eta esku-ahurrean gorde zuen. Kolore gorriko kanpaia zen. Oriolek isilik behatu zuen, hark denak zer esan nahi zuen jakin gabe.

Maki hau Marcó tenientearen partidakoa zen –esan zion taldeari. Guri trufa egitearren daramate kanpaitxoa. Eliot da haien burua.

—Zein da Eliot –esan zuen bibote finenekoak.

—Lurraldea harriz harri ezaguzten duen ingeles bat eta antza denez gurekin jolastea gustukoa duena. Armadarekin. –Inbidiaz-edo–: Oso ona da.

Oriol hildako soldaduen multzoa ikusi eta desolaturik sentitu zen. Valentí Targa jaunak, irakasten ari balitzaie bezala, jarraitu zuen esaten Eliot eta Marcó delako haiek azkarrak zirela, baina berak ezagutzen zuela haiek mugitzeko modua. Armadak kasu egin nahiko balit...

Kanpaitxoaren ikurra poltsikoan sartu, hildako soldaduengana seinalatu eta esan zuen, orain jakingo dute barrabilak bere tokian ote ditudan. Orain arte joko bat baino ez da izan.

Gainerakoek isilik begiratu zioten elkarri, erabat ulertu ezinik-edo. Oriolek pentsatu zuen ezen, alkateak eta bere falangistek herriko bi auzo akabatzea, Vilabrútarren heriotzean parte hartu zutela esaten zelako, eta pare bat gehiago anarkista eta errepublikazaleak izateagatik, joko bat besterik ez bazen, zein eratako aurpegia izango zuen horroreak handik aurrera.

Tinak irribarre adigabeaz eskertu zuen Joanak aurkezturiko kafea. Leihotik begiratu zuen. Kanpoan, umeak joan berriak ziren arren, iluntzen hasia zegoen.

Maite, aulki batean igota, sarreran ipinitako eta erreklamuz eta erakustetaren hormairudi kronologikoz funtzionatuko zien kortxo erraldoian txintxetez paperak ezartzen ari zen. Tinak kafean putz egin zuen Maitek paperak kortxoan nola ipintzen zituen behatuz. Egia da hura izan zitekeela. Noski izan zitekeela. Baina zer aurkitzen zion Jordik? Jarri zelako... Azkarragoa, kultuagoa. Maite ni baino kultuagoa da. Hori da erakarri duena? Eta ez da ni bezala gizentzen.

—Pasa iezadazu orri hura. Argazkiarena, bai.

Maite gaixoa, pentsatu zuen Tinak argazkiaren orria luzatzen zion bitartean. Lanean kontzentratu nahi izan zuen zeren bestela, ez zuten sekula bukatuko, eta esan zuen, uste dut gerra zibilari buruzko sail bat ireki beharko genuke. Maitek goitik begiratu zion. Ricard Termesek eta Joanak, gauza batzuk ebakitzen ari zirelarik, lana utzi eta so egin zioten. Mundu guztiaren arretagunea zela ohartu zen, hainbat kezkatzen zuena.

—Ez daukagu ezer gerra zibilari buruz –bota zuen Ricard Termesek zuhurki.

—Ba al dakizu nolako lanaldia izan daitekeen hori? –Maitek, prudentziaz.

—Nagia, ez da? –Ricardek, azpimarratuz.

—Arduratuko naiz ni. Antza denez alde honetan mugimendu handia egon zen gerratean eta gero makiekin.

—Zu arduratzen bazara... –Azalpen modura–: Izan ere asko irauten badu, emaztea dibortziatu egingo zait...

Joana, ezer esan gabe, idazkaritzarantz abiatu zen, gainerakoek kalkulatzen zuten bitartean gerra-garaiko eskolei buruz beste sail bat irekitzea merezi ote zuen, eta Ricardek zioen, ulertuta daukat gerra-garaian eskola guztiak irekita egon zirela, hau ez baitzen kakaputz handiko zonaldea eta Maitek, bai, eta Joana idazkaritzatik itzultzen zen karpeta batekin nondik paper-pila bat irteten zen, lehertu nahiko balute bezala. Karpeta ireki zuen. Barruan parrokiko boletinaren zenbaki batzuk zeuden. Lehenengoetariko batzuk pasa zizkion Tinari.

—Honek badu zerikusia –esan zion, Jainkoaren eta Patriaren aldeko martiri berri bati buruzko artikulua eta argazki eskas samarra seinalatzen zizkiolarik, non bi figura ttiki nabarmentzen ziren, falangeko uniformearekin jantzita, kamerari begira. Batek beste baten sorbaldan ezartzen zuen besoa eta bizitza aldekoa zuten. Tinak ezin izan zuen asmatu haietako bat Oriol Fontelles ote zen, azpegiak ez baitziren argiak eta Orioli buruz zeukan irudi bakarra haren autoerretratua zen, eskolako komuneko ispilu aurrean egina.

Hondoan, artikulua irakurtzen hasi zelarik, Tinak entzun zuen Maitek galdetzen zuela, zer da, eta Joanak erantzuten zuela, Torenako munstro bati buruz mintzatzen da. Eta Ricardek, a, makiak garbitu zituen hura, bai, entzuna neukan. Eta Joanak Maiteri, diote eskualdeko faxista handietakoa dela, eta eskolako maisua zen, zu. Orduan Ricardek sudurra zimurtu eta zioen, baina horrek bizitza nahastuko liguke, beste fronte bat irekitzen badugu ez gara inauguraziora garaiz iritsiko, eta Maitek erantzuten zuen, ongi, ongi, behar baldin bada mintzatuko gara, orain ez aztoratu. Bitartean Tinak irakurtzen zuen, estilo loratu, hanpatu, ofizialkeriazko eta artifiziotsuan, ezen orain aste bete, mila bederatziehun eta berrogeita hamalauko urriaren

hamazortzian, san Lukas ebanjelariaren egunean, gaitzik handiena egin zezaketen eguna zela jakitun, makien partida ugari eta indartsuak eskualdeko hiru herri erasotu zituela (Torena, Sorre eta Altron) kota hartako jabe egiteko asmoz eta, handik arazorik gabe, Noguerako harana eta hiriburua artileria astunarekin bonbardatzeko xedez indar nazionalak desegiteko helburuz, etab, etab. Arineketan pasatu zituen lerroak. Hemen, hemen... Oriol Fontelles Grau eskolako maisuaren ekintza kementsuak, zeinak, bera bakarrik, kalibre ttikiko pistola batekin, aurre egin baitzion profanazio bat egitera elizan sartu nahi zuen aldra gorriari. Oriol Fontelles martiri berriak barrutik egin zien aurre, bertan mantendu zituen munizioa bukatu zitzaionetik bi ordu gehiagoz. Dakigunagatik, jadanik hilzorian, Valentí Targa kamarada Torenako alkate bere lagunari, zeinak bere besoetan hartu zuen bakean hil zedin, aditzera eman zion, ordenako indarrak Torenara arazorik gabe irits zitezen arte eta gorriek pribilegiozko posiziorik lortu gabe, eutsi ziela. Bazekien, esan zion, beste bizitza batzuk salbatzeko ematen zuela berea eta pozik egiten zuela. Eta gerlari santuak, maisu langileak Zeruko eta Lurreko Armadetako Jaunaren esku utzi zuen bere arima, oraindik gaztetasunaren loretan. Atsedenez har dezala bakea heroi eta martiri honek, Oriol Fontelles Grau falangistak (1915-1944). Arraioa.

—Gorde dezaket hau? –Tinak Joanari, parrokiko buletinez betetako karpetari buruz.

—Nigatik... –Joanak Maiteri so egin zion, zeinak ez zeukan ezer esateko ere.

—Izan ere liburuari dagokionez... Ez dakit... Gaiak interesatzen nau, hara. Naiz eta gero agian ez den aterako.

—Baina erakusketarako –Ricardek, egoera baliatuz– utz dezagun gerra, gehiegi konplikatuko gintuen-eta. Ez da?

Baietz kontsideratu zuten, gerra albo batera utz zezaketela arazorik gabe.

Tinak karpetak ixten ari zelarik gomak klaskaraziz, Joanari hurbildu eta esan zion, eskerrik asko, baliozkoa izango zait, eta hark begietara so egin eta galdetu zion, zergatik zaude triste, Tina?

Eta Tina aho zabalik geratu zen eta segundo batzuk behar izan zituen erreakzionatzeko. Orduan, listua irentsi eta esan zuen, bada... bada Arnauk monje egitea erabaki duelako.

Berdura sutan jartzen ari zen Rosa. Leiho ttikerretik, orain koadrotxo berde eta zurizko errezel berriz ornitua bera, hiruzpalau gizon ilun pasatzen ikusi zituen plazako argi eskasean erdi gordeta. Eta haien atzetik, Oriol, astiroago ibiltzen, zalantzati baina haiei jarraituz. Iruditu zitzaion begirada bat botatzen zuela leihotxorantz eta baita ere iruditu zitzaion gogoz kontra jarraitzen ziola Erdiko kalea mehatxuren baten bila hartzen zuen falangista-taldeari. Rosak hasperen egin eta pataten otarrea aurrean zeukala eseri zen, eta orduan sentitu zuen bere semearen lehen ostikoa eta alaba izatea desiratu zuen bihotz-bihotzez.

Oriolek aurrea hartzen utzi zien beren nagusiaren alde berehala jarri ziren hiru uniformatuei. Kale estuan gora zihoazen eta, hotza egin arren, atean zegoen Narcis etxeko Quim taldea behatzen, begiak pozez diz-diz eta Birulés etxeko atea jotzeko gogoei eutsiz esateko, azkenean norbaitek jartzen ditu gauzak bere tokian, Feliu. Maisu berriari oso heziketa oneko keinu batekin agur esatera mugatu zen, baina besteak ez zuen erantzun, oso harrituta baitzegoen. Valentík Ventura etxera iritsi eta inpazientziaz jo zuen lehioko kristalean. Gero pasatu zena pasatu zen, Oriolek sarrerako ate aurretik ikusi zuena: non dago zure aita putakumea, utzi bakean, berak ez daki ezer, eta batik bat Ventura anderearen begirada gogorra bere begietan josita esan zuenean, ba al dakizue non dagoen Frantzia?, azal diezazuela maisuak, Valentíren belarrondokoaren eraginez hegan joan aurretik. Eta gero ez zuen gehiago ikusi, kalera irtena baitzen. Eta etxera itzuli zenean, zurbil, begi-zuloekin, Rosak, zurbil, begi-zuloekin, eztulka, ez zion galdetu zer gertatu zen eta berak ez zuen deus esan, hutsuneari begira eseri zen eta andreari bere gizonak nazka ematen hasi zitzaion. Afaldu gabe eta txintik esan gabe joan zen ohera Rosa, Venturatarren etxekoak egiten ari ziren bezalaxe. Oriolek lapikoa sutik erretiratu behar izan zuen. Orduan atean jo zuten eta une batez Elisenda Vilabrú zela imajinatu zuen, bere belusezko ahotsarekin hari azaltzera zetorrena, dena akats bat zela. Baina ez. Bibote fineko falangista zen.

Joan Esplandiu Carmaniu zeritzan Ventureta, hamalau urte zeuzkan eta begiak izuagatik parez pare. Aulki batean eserrarazi zuten, lotu gabe, eta Valentí, irribarre onberaz, edalontzi bat ur ematen ari zitzaion, besteak gogotsu edan zuena, eta gero tabakoa eskaini zion eta haurrak esan zuen ezetz eta Valentík, tira, mutiko, seguru gordeka erretzen duzula-eta, eta Venturetak esan zuen baietz, jauna, batzuetan, baina zorabiatzen nau pixka bat eta Valentík, nahi duzun bezala, eta eskaintza erretiratzen zuen. Eta adiskidetu garenez gero esan ahal didazu zure aitari buruz dakizun guztia eta mutikoak, nik ez baitakit ezer, amak arrazoia dauka.

—Ez. Ea, berriro: zure aita Frantzian al dago?

—Uste dut baietz.

—Non egon ohi da?

—Ez dakit. Nire aita eta ama bananduta daude eta amak ez daki ezer eta ez du ezer jakin nahi.

—Eta nolatan ikusi dute goizaldean patio barrura jauzi egiten?

—Ez dakigu-eta bizirik dagoenetz, jauna!

—Nik badakit. Bizirik dago eta hiltzaile bihurtu da. Eta jakin nahi dut noiz datorren etxera ezkutuan zuek ikusteko.

—Baina esaten ari natzaizu...! –Mutikoa ez zen ausartzen Valentíri begiratzera–: Gurasoak banandu zirenean, bera armada errepublikarrarekin joan zen eta ez dugu beste ezer jakin, jauna.

—Ez esan jauna: esaidazu kamarada.

—Bai, kamarada.

—Zenbatero etorri ohi da etxera?

—Ez dakit, kamarada. Zin dagizut.

—Ez eman lekukotasun faltsurik.

—Ez dut lekukotasun faltsurik ematen: egia esaten ari naiz.

—Hemen kanpoan dago maisua –burua atera zuen uniformatuetako batek, bibote fin eta lehorrekoak.

—Pasa dadila.

Oriol alkatearen bulegora pasarazi eta Venturetari begietara so egin ahal izan zion. Mutikoak begirada mespretxuz baztertu eta horman iltzatu zuen, Franco kanpainako garaile-jantziaren argazkiaren azpian.

—Zer egin diozue?

—Ez diogu ilerik ere ukitu. –Oriol besotik oratu eta bulegotik atera zen, Venturetak entzuteko moduan esaten zuelarik, mutikoaren aita entregatzen ez bazen asko sentitzen zuela baina orduan bai ukituko ziola ile bat mutikoteari. Korridorean erdi ilunpean, bulegoaren ate aurrean, Valentík ez zion Oriol besotik indarrez oratzeari utzi, eta ia-ia belarri ondoan, ahots sakon, iradokitzailearekin eta amorru guztiarekin begietan, esan zion, azken aldia izan dadila jendaurrean trabak jartzen dizkiozula nire edozein erabakiri.

—Soilik galdetu dizut ea...

—Hemen nik agintzen dut.

—Ume bat da. Soilik ume bat.

—Galdeketaren akta jaso behar duzu.

—Nik?

—Balansók eta besteek egun oso bat beharko lukete.

—Baina zer da, epaiketa bat? Zergatik ez dugu Sortera deitzen?

—Beste holako txantxaren bat bururatzen bazaizu –esan zuen kontrolik gabe– makila sartuko dizut ipurtzulotik.

Ordurarte ez zionn haren besoa presionatzeari utzi, oso alteratuta. Pixka bat lasaiago, bularra seinalatu zion hatz erakuslearekin:

—Ni naiz udalerriko ordena publikoaren arduraduna. Eta akta jasotzea nahi badut, gauzak ondo egiteko da.

—Ume batek ezin izan du ezer egin.

—Inoiz esan al dizut nik nola jokatu behar duzun biderketako taulak irakasteko? Oraindik irakasten badira.

Valentík galdeketari berrekin zionean, Oriol Fontelles, maisu nazionala auzitegiko idazkari bihurtua, txoko batean zegoen papera eta arkatzarekin, eta ez zuen mutikoarengana begiratzen. Venturetaren aurrean jesarri zen Valentí eta kolpetxo adiskidetsuak jo zizkion sorbaldan esanaz ea, non geunden, a bai, zure aita non ezkutatzen den esan nahi zenidala. Ez da?

—Ez dakidala esan dut, kamarada.

—Zuk niri ez esan kamarada: ez duzu merezi.

—Ez dakit non ezkutatzen den, jauna.

—Oso ongi. Itxarongo dugu. –Haren alboan jesarri zen, begiz begi so eginez–: Zure aita koldar bat denez, ez da nire aurrean aurkeztuko eta hilarazi egingo zaitugu. Lastima bat da.

Oriolek burua altxatu zuen, blausta. Valentíren begirada izoztuarekin egin zuen topo, hark erreakzioa izateko espresuki hitz egin balu bezala.

—Nire aitak ez du jakingo, ni... –jarraitu zuen Venturetak.

—Noski, baietz. Ez dakit nola egiten duten, baina albisteek hegan egiten dute. –Tabako-toxa hartu eta zigarro bat egiten hasi zen–.

—Koldar bat delako ez dator.

Keinua gelditu eta, zigarroa erdi eginda, haurrarengana seinalatu zuen:

—Zerbait esaten al dizu Eliot izenak?

—Ez.

Oriolek burua makurtu eta kopiatzen jarraitu zuen. Haurraren ahots dardartia entzun zuen:

—Erre al dezaket, jauna?

—Ez. Lehen baietz esatea zeneukan. –Zuzenean begiratu zion, keinua inmobilizatuz–: Jadanik ez gara adiskideak. Min eman beharko dizut dakizuna esan diezadazun.

Ventura etxeko Joan Esplandiuk, Venturetak, intziri egin zuen lehen aldiz, jadanik ezin baitzuen barruan gorde gau hartako beldur guztia.

—Niri ez esan ezer –Valentík, zigarroa piztuz, eta hari-izpi bat botatzen zuelarik–: zure aita malapartatuarena da errua.

Venturetak beste intziri bat egin eta Valentík mespretxuz begiratu zion:

—Zu baino gazteagoak ikusi ditut hiltzen, fusila eskuetan eta poza bihotzean. –Ahopeka, umearen arra betera–: Eta zu negarrez, emakume bat bezala... –Aurpegira bota zion kea. Ia murmurikatuz–: Non dago zure aita?

—Maisu jauna... –esan zuen haurrak–. Esaiozu ni...

—Maisu jauna hemen idazkari jauna da. Ez duzu inongo eskubiderik hari hitz egiteko.

Altxatu, Oriol makinaz idazten ari zen tokirantz joan eta galdeketaren bitartean idatzitako paperak pasatzeko keinua egin zion. Diagonalean irakurri zituen, Venturetaren begirada ernearen pean, zeinak ukitu zakar eta kolore iluneko paper haietako letretan bere indultua ager zedin itxaroten zuela ematen baitzuen, akats bat izan da, geure desenkusak Caudilloaren beraren izenean. Bat-batean, desatseginezko imintzioa egin zuen alkateak. Gustukua ez zuen zatia ukitu zuen pentsakor. Iraurketa bukatu zuenean, Oriolen idazmakina aurrera itzuli zituen paperak.

—Ez da hori. Kopiatu.

Paseiatzen hasi zen, eskuak atzeko aldean, errezitatuz ezen behean idatzitako Ventura etxeko Esplandiu gonbidatua izan delarik Udaletxean aurkeztera, honek erabat bere kabuz bere aldetik eta bere familiaren aldetik onartu duela. Ezen galdeketa-gelaren ezean, behin nire bulegoan, edalontzi bat ur jarri zitzaiola bere aurrean. Eta, nola ez den argitu zer dela-eta erregutu zitzaion etor zedila, gaua Udaletxean igarotzera gonbidatua izan zen, zeina suhartsu onartu zuen berak. Valentík paperak eta makina seinalatu zituen.

—Pasa ezazu garbira –esan zuen txamarra eta bufanda jantzi bitartean.

Marcel Vilabrúk, kokapenagatik, historialagatik, patrimonioagatik eta izaeragatik, gainerakoak sufriarazten, bihotzak apurtzen, borondateak xurgatzen, fideltasunak eskuratzen, dena atzamar bat ukitu gabe, eta esateko moduan proposatu gabe espezializatzen den pertsona izan arren, pertsona desegokiarekin maitemintzeko akatsa egin zuen. Ramona zuen izena, Sants auzoko eskulangile batzuen alaba zen, pozik zoratzen zegoen Nanterreko ikasleek botereari aurre egiteko abiatu zuten erasoekin, barnean onetsi zuen iraultzak zer esan nahi zuen, eta Marceli proposatu zion bertara joatea, ikusteko. Urte hartan bukatzen zuen mutilak Zuzenbide karrera, eta Zibila eta Merkantila normal baino gehiago kosta zitzaizkion. Neska Filosofiatik zetorren, eta bigarrenaren eta bosgarrenaren artean lausoki kalifika zitekeen zerbait egiten ari zen. Ez batak ez besteak ez zuten batere intentziorik prestatu zuten karrera egikaritzeko, Ramonak idazle izatea erabaki zuelako eta Marcelek ezer ez zuelako erabaki.

—Kilometrikoa, motxila, fruitu lehorrak eta txokolatea.

Marcel ez zen ausartu esatera berak ez zuela sekula horrela bidaiatu, zeren begi haiek, aho hura, ez dakit nolatan dudan hain gustukoa esateko manera, eta esan zuen, ze ondo, kilometrikoa, motxila, fruitu lehorra eta txokolatea. Amatxo ohartarazi zuen Saint-Moritzeko pistak ikustera zihoala Quiquerekin jende-andanarik ez zegoen aro honetan, Quiqueren isiltasuna erosi zuen, eta Quique berahala joan zen Elisendari berri ematera, eta hark ere saria eman zion, bi kilometrikoak erosi zituen, goi-mendietarako motxila bat, bi kilo koka-opil eta hogeitahamar txokolate-ontza eta Frantziako geltokira joan zen bere maitalearekin.

Semearen absentzian, bi gau pasa zituen Quiquek Elisenda anderearen etxean, Bartzelonan, Torenako topaketa furtiboak ez bezalako oasi moduko batean ezkutatuta. Sekretuaren baldintza zehatza zen bere harreman nahasi eta ezustekoaren hasieratik aldatu ez zen bakarra, duela hamaika urtez geroztik irauten zuena, bera mutikote segaila eta ideia argikoa eta hemeretzi urte gainean zituela, eta emakumeak bi aldiz urte gehiago eta koxka kentzen zizkionetik. Oraindik Quiquek gizon segaila izaten jarraitzen zuen, hogeita hamar urtekoa eta ideia argikoa, eta emakumeak berrogeita hamar paseak zeuzkan. Eta inork ez zuen harreman hura ezagutzen. Edo hobeto, Elisenda andereak uste zuen inork ez zuela harreman hura ezagutzen eta horreagtik zen hain garrantzizkoa sekretuan mantentzeko edozein ahalegin. Erabateko klandestinitate hartan jolastea zuten gustuko, emakumeak ezin baitzuen pentsatu behar ez zena pentsa zezaten arriskatu. Behin Bibiana hilik, zerbitzuak ere ez zuen jakin behar Elisenda andereak bere sexu-bizitza irregularreko orgasmo bakarrak bi maitaleek beren gezurretik ere ezkutatu behar ohi zuten une haietan izan ohi zituela.

Bitartean, Paris jai bat zen. Marcel eta Ramona ez ziren Guisard kaleko ostatuko logelatik atera, zerbait jateko, airea hartu eta ostera bertan murgiltzeko izan ezik. Ez zuten oso argi non geratzen zen cartier latin delakoa, baina Sena, zubi batzuk eta Eiffel dorrearen soslaia ikustera iritsi ziren. Une harrezkeroztik han egonak zirela agertzen zen beren historialean. Lehen su-lerroan.

Itzulerako trenean, mutilak, zalantzakor, pixka bat edo asko lotsatuta, aitortzen joan zitzaion harritu eta arian-arian haserretuagoko Ramonari, bera ez zela ematen zuena, ez aztoratzeko, baina bera ez, kia, nora zoaz, baina bere familia, diogun, erregimenari atxikia zela, bere azaleko belztasuna ez zela naturala, eskiari zegokiona baizik; trena hartzen zuen bigarren aldia

zela, eta lehenengoa joanekoan izan zela; udatan Argentinara joan ohi zela eskiatzera, modu eskandalagarrian aberatsa zela eta bai, hori dena, oraindik maite zuela.

Trena Perpinyàko geltokitik irtetean abiadura hartzen hasten zelarik, martxan jaisteko baliatu zuen Ramonak, begiak negarti, ametsa txiki-txiki eginda, ilusioa apurtuta, eta Marcel, desolaturik, ezin izan zen jaitsi trena bizi-bizi zihoalako, eta oihu egin zuen hainbat aldiz, Ramona, Ramona, desesperatuki, eta ikuskizun atsegin askoa bihurtu zen bagoiko bere kide ezezagunentzat.

Elisenda Vilabrú andereak, Vilabrúren alargunak, berrogeita hamar urte, bi hilabete eta bost egun egin zituenean, bere bizitzari ukitu bat eman behar ziola erabaki eta txartel bat erosarazi zuen Fiumicinorantz. Errespetatua izatea garrantzizkoa zen toki guztietan errespetatua zen ordurako. Hain gaztetxo hasi zen eta hainbeste baliatu zuen denbora, oso zaila zen asmatzea zerk egiten zuen hain erakargarria boterea zeukatenentzat, bere izaerazko erraztasunak edo, familiako oinordekotzaz, fortuna handietako bat izatea lurretan eta kontu korronteetan. Edo behar bada hezkuntza eskrupulosoa teresatarretan, zeinek erakutsi zioten ez zela aztoratu behar moralik gabe eta printzipiorik gabeko jendea topatzen bazuen bizitzaren legez sartu behar zuen munduan eta argi eduki behar zuela hezkuntza-gabezia zela han barkatzen ez zen bakarra. Donostian hasitako kontaktu onek, bere trebezia naturalak, bere lilurak, bere behar zeneko zurruntasunak egin zuten gainerakoa eta negozioen eta negozioak errazten zituzten kontaktu politiko egokien munduan ezinbesteko bihurtu zuten. Behar bada ikusgarriena izan zen lehen katebegia jarri zuela –edo behar bada bigarrena– elurraren negozioan, ausartenei aurrea hartu ziela kirol-materialaren industriaren alde apustu eginez, genero ona baino garrantzitsua marka on bat edukitzea zela ulertu eta diru asko sartu zuela (bere aholkularien, euren artean Gasulen, eszeptizismoaren kontra) markaren diseinu ona izatean, hori ohikoa izateko hamarkadak falta zirenean. Eta Vilabrú kirol-produktuek ematen duten prestigioa eskuratu zuen, zeinek Bru izena hartu zuten diseinu-arrazoiengatik: eskiak, makilak, botak, raketak, palak, eskunarruak, betaurrekoak, kakao-krema eta galtzak, Karl Schranzek iragarriak; tenis-raketak, tenis-bolak, tenis-sareak, teniseko arbitroentzako aulkiak, tenislarientzako eskumuturrekoak, alkandorak, Gimeno, Rod Lawer eta Newcomberen irribarrearekin salduak, belar-hokeyko eta patin-hokeyko estikak, boleiboleko pilotak, boleiboleko sareak, handboleko eta saskibaloiko pilotak, futboleko pilota balbuladunak eta Brusport markako zapatilak, arinenak. Eta Txinara, Suediara eta Estatu Batuetara esportatzen ziren mahai-teniseko pala bikainak, arintasuna, prezisioa eta inpaktuaren fidagarritasun bikaina eskaintzen zutelako. Berak bakarrik lortu zuen, bere inguruko beste inork ez baitzuen estrategia hartan sinisten. Izan ere korrontearen kontra nabigatzea gustuko baitzuen, soilik intuizio sinple baten segurtasun-ezari atxikita. Izatez, bere bizitza osoa hura izan zen eta izaten jarraituko zuen. Gainera, zirkinik egin gabe, konpainiak sortu, burutu eta mozkinez bete zituen soilik bere usaimenarekin eta, beti posizio kontserbadoreago eta herabeagotik, Gasull abokatuaren aholkuarekin, izan ere gizon ez oso distiratsua baina ezaugarri handi bat zeukana baitzen, ia beti ondo informatuta egotea, hain zuzen.

Mihi gaiztoek zioten Elisenda Vilabrúk enbaxadore pertsonal bat zeukala beti Ministroen Kontseiluan. Mihi gaiztoak batzuetan Gasull abokatua bezain ongi infomatuta zeuden. Egia zen maiz Franco generalak eskertutakoen artean bazegoela abokaturen bat, funtzionarioren bat, terratenienteren bat, Elisenda anderearen partetik une egokietan akzio-erosketa moduan

jasotako suspertze ekonomikoak hartu zituena. Gainera, andereak, inurri baten antzera, ez zion lursail-zabalera handiak erosteari utzi, zatiz zati, batik bat Pallarsen, non bere garaipena erakutsi nahi zuen, baina baita egokiera zegokeenean ere. Doñanaren erdia harena omen zen. Hala eta guztiz ere, bere semearen hezkuntzari denbora gehiago ez emateagatik errudun sentitzen zen. Orain, andereak berrogeita hamahiru, bi hilabete eta bost egun bazituelarik, Marcel Zuzenbide karrera amaitzear zegoen eta ahalegin titanikoz alferrontzi bat bilakatu zen. Elisenda anderea erantzule sentitzen zen baina ezin zuen gauza handirik egin salbu semearen plater hautsiak jasotzea ekaitza zegoenean, eta agintezko distantzia batetik erretolikaz jostea, Marcelek, jarrera umilarekin, ahal izatera hankartetik pasatzen zituenak eurak.

Pallars osoa saltzeko gogoa zeukala zirudien arrazoi berberaz, Elisenda andereak sekula ez zuen pentsatu Gravat etxea uztea. Nahiz eta herriak pobrea ez baina ikusteak lastima ematen zuen, ez zelako aurkezgarria, Gravat etxean bizitzen jarraitzen zuen nondik mintzaldi luzeak izan ohi zituen Bartzelonarekin edo Madrilekin, zehaztapen hotzarekin erosi eta saltzen zuen, eta eskubidez gora egiten zuten zaldien gorabeherez, helbarritutako behiez, motzaldiaren ondoren fakturatutako tonez arduratzen zen, eta administratzaileak jantokiko mahai gainean zabaltzen zituen paperez ere bai, non astean behin mintzatzen ziren eta, zeina, urtean behin edo bitan, Padrós etxeko builatik pasatzen zen, painelu lurrindua sudurrean, han sortzen baitzen hainbeste aberastasun. Gravat etxean bizitzea, antigualeko ukuiluak kotxerak bihurtzea, fatxada grabatuak garbitzea, telebista bat ipinarazi eta plazara ematen zuen balkoitzarrera nardo-lurrina hedatzera ateratzea, bere Goelen aurrean erori ez eta oraindik bizirik zeuden errudunak fusilatzeko bere modua zen; bere egundoko aberastasuna haiei zalapartarik gabe erakustea eta ortzimugarantz begiratzea Feliçó etxea existituko ez balitz bezala, Ventura etxea lur jota balego bezala, Misseret etxeko Gassiatarrak, untxiak bezainbeste ugaritzen zirenak, plazako hartxintxarrak bezalakoak balira bezala; gerra ez bukatu ez sekula bukatuko ez zela esateko bere modua zen, berak bazekielako familiako hildakoen memoria gordetzen. Hala ere, erosotasunagatik, Pedralbeseko pisu ikaragarri handia konponarazi zuen, non ahalik eta denborarik gutxien pasatzen zuen baina oso praktikoa zitzaion. Modu metodiko zehatzean arduratzen zen bere nogozioez, hala Torenan nola Bartzelonan edo bidean, auto barruan, eta era horretara Jazinto Mas, beti giderrean, andereari buruzko pertsonarik informatuenetarikoa zen. Baina fidelenetakoa ere bazen, izan ere, hark, oso ondo, Jazinto, esaten ari zaizkidan begi haiekin begiratzen bainau, oso ondo egiten ari zara; zugan dut konfiantza, zure eskuetan ezartzen ditut nire sekretuak, zu, Jazinto, nire segurtasunaren aitzindaria baitzara. Jakingo bazenu zenbat maite zaitudan, Jazinto, diote beti haren begiek; baina gizartearen eta haren klaseen langa gure maitasun hilezkorren artean ipintzen da.

Elisenda anderearen bizitza erlijioso intentsoak hutsarteak zeuzkan. Etxeko gizonak garbitu zituztenean eta Donostiara alde egin zuenean, Bibianak, esku batean eta bestea atzean, mezatara modu nabarmenean ez joateraino hoztu zuen debozioa. Zirkunstantzien mailan ez egotearren Jainkoa zigortzeko bere modua zen. Baina Torenara itzuli eta gertatu zena gertatu zenean, garbi asko esan zezakenean iritsi zitzaiola atsedena hartzeko ordua, parrokiara itzuli zen erregularki Aureli Bagà mosen jaunaren poz handiarekin, zeina bestalde anderearen ekidinezinezko bekatuen aitorle bihurtu zen. Ezarritako debozio-formetara itzuli zenetik, ezein igandetan ez zuen premiazko hitzordura huts egin. Beti eseri zen aurreko banku berberean; beti, elizaren sarrera ondoko azken aulkietan, Jazinto Mas, besoak tolestuta, denen portaera txukuna izan zedin zelatatzen zegoen. Sekula, ezein igandetan, inori ez zitzaion bururatu, ez eta Cecilia Básconesi ere, haren tokia hartzea. Torenako San Pedro elizan egin zuen bere

lehen jaunartzea Marcelek, Seu d'Urgelleko katedralean egiteko eskaintza izan arren eta Sarriàko jesuitenean ere bai harrera hobe ezinak baitzeuzkaten ICAIC Sant Gabrielekin. Eta igandero, mezatatik irtetean, bilete tolestu bat jartzen zuen mosen Aureliren eskuetan, berari agur egitera eta beste eliztarrei ere agur esaten ziela ikusarazteko presaturik irteten zenean. Hiruhilean behin edo beste, Prozesuaren egoera zein zen galdetzen zion eta Aureli Bagà abade jaunak, beti galderaren beldur zelarik, bidaia bat egin behar izan ohi zuen Seura Prozesuaren egoera zehatzaz interesatzeko, Prozesuaren egoeraz interesatzen zen eta gero Elisenda andereak beti isilik hartzen zuen erantzuna eztitzen zuen. Estuasun-une haietan, Aureli Bagà abade jaunak ondorioztatzen zuen soberan irabazten zituela Vilabrú anderearen dohaintza eskuzabalak.

Hilean behin, August Vilabrú kalonge zaharra izan ohi zen Torenako parrokiara meza ematera etortzen zena, eta haren iloba Elisendak jaiera berberarekin entzuten zuen meza. Mosen August, zeina bere laurogeita hamar urteek hain gogor zigortzen zuten, espazio metriko konpaktoetan baloraturiko prozesu aleatorioen ezaugarri ergotikoen arazoa lehen pentsamentu-kolpez antzematea eragotziz, eta begiak paperen aurrean gorritzen eta formulek pindarrak sortzen zizkioten eta hogeita hamar bat urte gutxiago edukitzea gustatuko litzaiokeen matematiakaren bide berriaren lekuko izateko, isilik mantentzen zen, ehize-txakurraren moduko begi triste haiek arrastatuz.

Nahiz eta Elisenda andereak hilean bizpahiru aldiz egiten zuen bekatu, uste zuen Aureli Bagàk ez zuela deus egin behar eta berak ez zuen gaia aitortza-uneetan ateratzen. Gainera, gero eta sarriago egiten zuen bekatu Pedralbeseko etxean herrian baino, ez baitzuen nahi Torenan inork entzun zitzan bere antsiazko garrasiak. Ez Francoren aldeko familia onek, adibidez Birulés etxeko, Savina etxeko, Majals edo Narcis etxekoek, ez zuten haren intimitateaz gozatzeko ohorerik. Eta Cecilia Básconesek inork baino gutxiago, aurkeztezina zelako. Elisenda andereak erabaki zuen ez zuela adiskiderik nahi Torenan. Torenan, berak irabazi zituen norbanako batzuk gogoratzeko bizi zen. Eta hilean bein kanposantura joan ahal izateko, euri zein elur. Eta Jainkoaren begiradari hurbilagotik eustearren.

Determinazioz begiratu zuen hegazkineko txartela, han bailegoen bere problemen konponketa. Pentsatu zuen gutxienez jokaldian bere txanda zela.

Goizalban atera zen Torenatik. Bartzelonako aireporturainoko bidaia amaiezinean Gasull abokatuarekin mintzatu zen eta behin aparkalekuan Jazintorekin bakarrik uztea eskatu zion. Jazintok bereizketa-lehiarra ireki, sudurra nardo-usainarekin mozkortzeko zabaldu eta andereak garondoan eman zizkion instrukzioak. Jazintok hari atzeranzko ispilutik begiratuz asimilatu zituen eta, beti bezala, bikain ulertu zuen hark zer nahi zuen berak egitea Marcelek puta hippy hura zela-eta ematen ari zen ikuskizun gaitzesgarria konpontzeko.

—Itzuleran ez dut foku pizturik nahi.

—Denak itzalita egongo dira.

—Eskerrik asko, Jazinto.

Espasmo moduko bat bihotzean, hark, oso ondo egiten ari zara, Jazinto, esaten zuen bakoitzean bezala. Baina, bidaia ona izan dezazula, anderea, esatera mugatu zen.

Gaueko tren batean itzuli zen, nekatuta, triste eta batik bat duintasuna pitzatuta zeren, nahiz eta, bere haserrea gorabehera, bost minuturo pentsatzen zuen, orain Marcel sartuko da eta esango diot putakume bat zarela, hori abisatu egiten delako, baina nahi izanez gero mintzatu ahal gara, e? Baina Marcel ez zen agertzen bagoiko atean, zeren une haietan berberetan amatxori errezitatzen ari zitzaion, katalogo bidez, Saintz Moritzeko pistek egin zioten zirrara, eta Elisenda andereak Fuimicinorako txartela eskuetan zuelarik pazienteki entzuten zuen, pentsatuz norekin egon ote zara, zeinek hurrupatu ote dizu adimena ikuskizun hau dena antolatzeraino, zu ez baitzara gai mugitzeko abian ez jartzeagatik.

Ramona prest zegoenean bere erreakzioa azkarregia izan zela kontuan hartzeko, eta irizteko zer gaitz dagoen milionario izatean, Jainkoaren maitasunarren, eta, Marceli deitzeko zorian, Jazinto Masek ikasleen etxebizitza lokalizatu eta elkarrizketa oso interesgarria izan zuen Ramonarekin, neska bere ohean eserita, gizona zutik, begiak itxiarazten zizkion zigarro bat ahoan, bere aurpegiko orbana atzamar batekin errepasatuz, eta Xarmetatik erreskatatutako mahai baten gainean, bakarti, kea zerion intzentsu-barratxo bati so eginez.

—Zuk zerorrek.

Ramonak begiratu egin zion. Nahastuta zegoen. Haren ezinegona asmatuko balu bezala, Jazintok kartazal lodi bat poltsikotik atera eta ohe gainean utzi zuen, Ramonaren alboan. Neskak ez zuen eskua karta-azalerantz mugitu, nahiz eta, Jazintok kalkulatzen zuenez, irrikitan zegoen.

—Hau eta etxebizitza berriaren alokairua bi urtetan.

Orduan Ramonak kartazala hartu eta ireki egin zuen. Jazintok bazekien irabazita zeukala partida. Neskak atzamarrak igurtzi zituen billete-sortan, mirestuta.

—Dena dago –lasaitu zuen Jazinto Masek–. Agindu dizkizudan guztiak. –Esku bat luzatu zuen–: Zenbatu itzazu, tira...

Neskak sorta hartu eta zenbatu egin zituen, lotsagabe. Bukatu arte itxaron zuen gizonak. Orduan, begiratu gabe, esku batekin babes eginez bistan hautsontzirik ez zegoelako, esan zuen, kasualitatez enterazen banaiz Marcel eta zu elkar ikustera bideratutako ezein mugimendu egin duzula, ez fakultatean ez inon, zure bila etorriko naiz, dirua kendu, estafa egiteagatik salatu eta balkoitik behera botako zaitut etxetik. Argiago nahi al duzu?

Ramonak ez zion so egin. Adatsak solte zeramatzan aurpegia estaliz, eta Jazintok kontsideratu zuen neska hura gustagarri zela eta potroetaraino zegoela Marcelek bizitza konplikatzen zuen tokietatik baieta igurzten ibili beharraz. Ulertu al dit neskamotz honek?

—Marcelen aita al zara zu?

Nahi bai. Imajina ezazu zenbat gau, zenbat garrasi, zenbat zeru ikutzeko.

—Bai.

Tratua itxi eta Jazintok berak lagundu zion maleta egiten eta etxebizitza berrira lagundu zion, Ravaleko pisu zahar batera alegia, argi eskasez eta usain arraroz beteta baina aski munduko intsentsu-barratxo guztiak ipintzeko. Polita izango zen ba milionarioa izaten bukatzea.

Marcelek ezin izan zuen aurkitu haren ikasle-etxebizitzan, hilabetetan egin zuen negar harengatik kontsolamendu gabe, ez zuen aurreantzean ikusi ikasgela, klaustro edo ezein fakultateko tabernatan, eta santa bihurtu zuen bizimodu errazaren tentazio aurretik ideologia hobetsi zuelako. Orduz geroztik, inork hirurogeita zortziko bizikizunei buruz galde egiten

zionean, oso sakonak izan zirela erantzuten zuen goibel, eta xehetasun gehiago ematera ukatzen zen. Aurrerantzean ez zuen sekula trenik hartu. Aurreratzean sekula ez zuen Ramona ikusi eta ez zuen jakin idazle izatera iritsi ote zen.

Gela osoak itxura aratza zeukan, garbitasun fisikoa espirituaren garbitasunaren sinbolo eta sarbidea baita. Gurutziltzatuak, zurbil, indarge, horman josiak, oso goian, oztoporik sor ez zezan, gela isil hartan egiten ziren tratu guztiak sinaten zituen. Mahaiak, behin eta berriro bernizatuak, ispilu bat zirudien. Alde batean, anderea, eserita, agiriak bere aurrean zituela, bere sinadurak oraindik tinta, samur.

—Institutuak Prozesuaren kausa funtsezko moduan azkartu edo azkartzen laguntzen badu –esan zuen paper-multzoa bekainekin seinalatuz– Jaun txit prestuak ezin izango du inoiz nire esker onaren tamaina imajinatu.

Josemaria Escrivá de Balaguer y Albas monsiñoreak, Zuzenbidean doktorea, Teologia Sakratuan doktorea, Zuzenbideko irakaslea Erroman, Filosfia eta Deontologiako irakaslea, Santa Isabel Patronatuaren presidentea, Paulo VI. Berorren Santitatearen Prelatu Domestikoa, Pontificia Accademia Teologica Romanako Ohorezko Akademikoa, Sacra Congregazione di Seminarii ed Università-ko Aholkularia, Opus Deiko Fundatzaile eta Presidente Orokorra, Aragoiko Kolegioko Kidea, Zaragozako Unibertsitateko Doctor honoris causa, Nafarroako Unibertsitateko Kantzeilari Nagusia, Barbastroko Seme kuttuna, Bartzelonako Unibertsitateko Seme Adoptatua, Iruñeako Seme Adoptatua, San Raimon de Penyaforteko Guruzte Handia, Alfontso X. Jakitunaren Gurutze Handia, Isabel Katolikoaren Gurutze Handia, Karlos III.aren Gurutze Handia bereizgarri zuriarekin, Ongintzako Gurutze Handia eta Peraltako Markesa bera, burua umilki jaitsi eta bere ahots hain maitakorrarekin esan zien, zein ni baino interesatuagorik Prozesu hori modu asegarrian ebaz dadin. Eskuak banandu zituen mahaiari, Elisenda Vilabrú andereari, opari eskuzabalari eta ekarritako eta sinatutako dokumentaziori besarkada anaikorra emateko moduan-edo, eta aditzera eman zuen, nik-neuk enkargatuko diot Alvaro del Portillo monsiñoreari.

—Eta Institutuan ingresatzeko nire eskari pertsonalari buruzko isiltasunaz?

Monsiñoreak eskuak bildu eta eseri egin zen mahaiaren beste aldean. Isiltsunarekin, Erromako zirkulazioaren kaosa oso lauso eta urruti entzun ahal izan zuen andereak. Bere mintzakideari begietara begiratu zion, esanaz-edo, erantzun ezazu ez daukat-eta egun osoa. Ulertu bazuen bezala erantzun zuen besteak:

—Nahiz eta zure bizitza soziala kristautasun aldetik eredugarria den, zuk, andere estimatua, eskandalua eragin dezakeen bizitza pribatuaren aspektu bat daukazu. Eta ai eskandalua eragiten dutenekin, hobe bailukete...

—Ezin dut eskandalurik eragin –moztu zion suminari eutsiz– inork ezin baitu ezagutu nire bizitza pribatuaren aspektu hori. –Halako mespretxu-punttu batekin–: Nola jakin ahal izan duzu, Jaun txit prestua?

Josemaria Escrivá de Balaguer y Albas monsiñoreak, Zuzenbidean doktorea, Teologia Santuan doktorea, Zuzenbideko irakaslea Erroman, Filosfia eta Deontologiako irakaslea, Santa Isabel Patronatuaren presidentea, Paulo VI. Berorren Santitatearen Prelatu Domestikoa, Pontificia Accademia Teologica Romanako Ohorezko Akademikoa, Sacra Congregazione di Seminarii ed

Universitàko Aholkularia, Opus Deiko Fundatzaile eta Presidente Orokorra, Aragoiko Kolegioko Kidea, Zaragozako unibertsitateko Doctor honoris causa, Nafarroako Unibertsitateko Kantzeilari Nagusia, Barbastroko Seme kuttuna, Bartzelonako Unibertsitateko Seme Adoptatua, Iruñeako Seme Adoptatua, San Raimon de Penyaforteko Guruzte Handia, Alfontso X. Jakitunaren Gurutze Handia, Isabel Katolikoaren Gurutze Handia, Karlos III.aren Gurutze Handia bereizgarri zuriarekin, Ongintzako Gurutze Handia eta Peraltako Markesa bera, irribarrea egin eta hondoko gortinei so egitea hobetsi zuen.

Bibianak begietara so egin zion eta kolpean asmatu zuen gizon hark neskatxari ekarriko zion kalte guztia. Atzeratu egin zen pasatzen uzteko. Gelan sarrarazi eta bakarrik utzi zuen. Hark ingurua arakatu zuen begiz. Su baxuaren gainean bere Elisendaren erretratu bukatua. Margoaren usainak oraindik betetzen zituen gortinak eta oihala bera. Bai, eder askoa zegoen.

—Kaixo.

Oriol itzuli egin zen, urduri. Erretratuaren eta bere originalaren artean aldeak ateratzen arituko balitz bezala begiratu zion. Bat zetozen. Erlojuak bere tik-tak solemnea entzunarazi zuen, kanpoan, plazan, atetzar batek hormaren kontra jotzen zuelarik. Oriol Elisendarengana hurbildu zen. Usapal basatiak ziren esku haiek hartzeko zorian egon zen. Zer gertatzen da, galdetu zioten kuprezko begi haiek, isilik.

—Targako alkateak haur bat hil nahi du.

—Baina zer diok? –izututa.

Zera azaldu zion. Andereak isilik entzun zion. Oriolek errepikatu zuen ezin izan zuela konbentzitu. Rosa haserre zegoela. Edo haserre baino gehiago. Rosa gero eta hotzago zegoela, urrunago. Rosak, arratsalde hartan, bera eskolatik itzultzean, etxean sartu orduko esan ziola, badakizu zer esan didaten?

Oriolek Rosari begiratu zion, jaka kenduz.

—Zuk salatu duzula Joan Ventureta.

—Nik?

—Venturaren neskatoak beren aitari buruz mintzaten entzun zenituela. Antza denez etxera joan ohi dela ezkutuan, gau batzuetan.

—Nork dio hori?

—Mundu guztiak.

—Rosa...

—Benetan zerbait egiten ez baduzu, nik ere sinistuko dut.

Oriol jesarri egin zen, lur jota. Nola pentsa zezakeen norbaitek bera...

—Eta zer egin dezaket nik? Belauniko erregutu dut ez zezala egin. Gainera, ez du egingo. Rosa, badakit.

—Hemen herrian diote oso kapaza dela, horretarako eta gehiagorako. Eta ongi ezagutzen duten Altrongoek diote malapartatu bat dela.

—Eta nik diot ez duela egingo. Ezinezkoa da.

—Goazen Sortera salatzera. Goazen dena delakoa ikustera.

—Barre egingo lukete. Ez bagaituzte gero gu garbitzen.

—Koldar bat zara.

—Bai. Baina Targak ez du hilko. Eta nik ez dut haurrik salatu!

Izugarria da zure emazteak hori pentsatzea, esan zuen Oriolek. Eta konfiantza pixka bat bazuenez, besaulki batean eseri zen baimena eskatu gabe. Aldameneko besaulkian eseri eta Oriolen esku bat hartu zuen Elisendak. Oso serio zegoen baina ez zuen deus esaten.

—Hik eragina daukan gizon horrengan –erregutu zuen Oriolek.

Elisendak eskua hartzen zion eta Oriolek, bizi zituen nahasmenduak nahasmendu, hotzikara atsegina sentitu zuen.

—Nik ez diat eraginik inorengan...

—Bai, esan ohi da...

Oriolek mihiari kosk egin nahiko zion. Beranduegi:

—Bai, esaten da…

—Ez, ezer ez.

Elisendak paper zimurtua paperontzian uzten den bezala utzi zuen Oriolen eskua. Anderea larritu egin zela antzeman zuen Oriolek. Tonua aldatu gabe, ordea:

—Zer esan ohi da?

Oriolek begiratu egin zion. Lehen aldikotz serio zegoen anderea. Lehen aldikotz ez zion berak margotzen jakin zituen begi haiekin begiratzen. Erreakzionatzera behartuta sentitu zen.

—Ez, zera... diote ezen hemen Torenan, Targa jendeari kontuak eskatzen ari dela...

Elisenda altxatu eta Oriolek sabaiko lanparan esekita utzi zuen esaldia bukatu zuen:

—Nire aita eta neba hil zuen herriko jendeari, bai.

—Beraz, horixe.

—Hiri ere gogoratu behar diat nik ez dudala zerikusirik troglodita horrekin.

—Ez, emakumea, ez...

—Orain urtebete itzuli nintzenean dena eginda zegoen, zoritxarrez... Gainera, toki askotan hartu dituzte kontuak. –Sorbaldaz itzuli zen, bere erretratua kontenplatzeko-edo. Eta ez diat hiri azalpenik eman behar.

Aurpegia eskuekin igurtzi zuen Oriolek. Berriro:

—Soilik jakin nahi dinat Venturetaren bizitzaren alde egin ahal dezakenan.

Margolariarentzat posatzeko zorian balego bezala erdi itzuli zen Elisenda, bularraldea diskrezioz erakutsiz, aurpegia ia aurrez-aurre aurkeztuz. Ondo nago esan ordez, buruarekin keinu lehor bat egin eta esan zuen, hoa.

Oriol negar egiteko gogoarekin altxatu zen, herri hartako maisua ez izateko gogoarekin eta oso emakume eder, gorrotogarri eta miragarri baten gorputza margotu ez izanaren gogoarekin. Gelako atera iritsirik, Elisendari entzun zion esaten, haurrari ez zaiok ezer gertatuko, ez kezkatu.

Tinak sekula gogoratzen zuen afaririk zailena izan zen. Bere bi gizonak, bista behean, zopa jaten saiatzen ari ziren, eta berak haiei so elkarrizketa bati hasiera ematen, eta zioen, ba al dakizu noiz etorri ahalko garen zu ikustera, eta Jordik gogor, apurtuta zegoelako, inoiz ez zela ikustera joango egiten zuen aldarri, eta Arnauk amarengana itzuliz erantzuten zion, ez dakit oso ondo baina jakin bezain pronto esango dizuet: ilusio handia egingo dit zuek etortzeak. Ala zu etortzeak. Eta ordu laurdeneko beste isiltasun bat, ala zu etortzea delako hura liserituz, zeinak esan zezakeen adibidez Jordi elkarrizketatik baztertzea, etorkizunetik apartatzea. Amaitutakoan, amak isiltasuna moztu zuen esanaz, ez dakit, ez baitzaitut imajinatzen beltzez jantzita, meza-liburu bat eskuan, paseatzen, edo koruan abesten. Hain da arraroa, ematen du amona bihurtzen nauzula, eta Arnauk barre egin zuen Azken Afariko une bakarra izan zen. Izan ere barre-algara egin zuen eta Tinak bazekien Jordik eutsi egin ziola, hain egoskorra izanik ezin baitzion betetzen ari zen papera egiteari utzi eta, sentitu arren, ezin zuen bromarik egin. Aski tentu gutxi izan zuen, tortilla bukatzen ari zenean esateko, neskak gabetsiko dituzu.

—Bai. Badakit.

—Beraz, zergatik egiten duzu?

—Beste arrazoi batzuengatik. –Ur-tragoska bat hartuz–: Ez dakit zure intereskoak ote diren–.

—Nireak bai –Tina ahots-hariz–.

Orduan Arnau, Jesus bere hamabi ikasleei bezala, santuen komunioari buruz, otoitzaren balioaz, ora eta laboraz, monastegiko bizitzari berak ematen zion zentuaz mintzatu zitzaien; berak erabaki monastikoa esaten zion. Ordu kanonikoen balioaz, liturgiaren esanahiaz, monastegian bizitzeko Montserrateko Abadetxean sartzea eskatzen zuela, orduz geroztik, bizitza osorako. Ez zekiela apaiz egiteko aukeratuko ote zuten: garrantzitsua monjea egitea zela, ordea. Eta bizitza osorako zela zioenean, Tinak irizten zion heriotza osorako esaten zuela, eta Serrallacenak bezalako hilobi-harlauza baten kantua entzun zuen, nabe ilun bat soinuz betez bum eginez ixten zena. Arnau lasaitasunez mintzatzen zen, beti erabili ohi zuen tonu mantsoaz, inori irakatsi nahi gabe eta bizitza-egoera berri hura abiatzeko bere barneko poza erakusten zien, eta ezetz, nahiago zuela bera bakarrik joatea, askoz hobea zela. Eztetz, benetan, ezetz. Ez zuela hara joateko laguntzarik nahi. Haren gurasoek, isilik, aho-zapietan galdutako ogi-papurren bat zapalduz, elkarri begiratzeko ausardiarik gabe, beren semeari entzun eta biek pentsatzen zuten, atsekabe handiz, nola zoratu ahal izan dute holako ipuinekin. Ene Jainkoa, santuen komunioa, gizon lasaia, adimentsua, kultu eta langilea ematen zuena. Zeren izenean, ene Jainkoa, eta zein barrabil santuen izenean nahastu diote burua era horretan arimen lausengatzaileek.

Isilik garbitu zituzten platerak. Telebistan ezer ikustea alboratu zuten, egoki ez zelakoan, besaulkietan eseri eta Jordik pipa piztu zuen. Isildu egin ziren hirurak, baina ez zen isiltasun deserosoa. Asko jota agur esateko beren modu zakarra zen, antza denez ez baitzara inoiz etxera itzuliko, zure amak eta biok etxea elkarrekin edukitzen jarraitzen badugu. Jordi pipa amaitzen ari zelarik, Tinak ziztada sentitu zuen, hiru egun minik gabe eta gaur prezeski. Hodei beltza bere gogotik uxatu, altxatu eta gelatik irten zen. Langelatik lauso entzun zuen Jordik

komentatzen zuela, monastegi batean sartuz, gero eta gehiago inguratzen gaituen mestizaje kulturalaren aberastasuna galduko duzu. Eta Arnauren erantzuna hain ahots apalean izan zen, ez zuen harrapatzerik izan. Potrozorri halakoa, Jordi; ez daki zer esan. Nik bezala. Nik esango nioke, Montserraten sartzen bazara, biziki maiteko zaituen andre bat galduko duzu. Eta atsekabez hilaraziko nauzu. Baina hori ezin diot esan. Eskuan pakete bat zuela itzuli zen Tina gelara.

—Zuretzat.

Arnauri eman zion, eta ezustean harrapatu zuen. Mutilak Jordik beste jakin-minez askatu zuen, Jordik ere ezer ez baizekien. Semeari hogei urtez ateratako argazki onenez osaturiko albuma zen, klinikan egindako lehen aharrausitik (o, nolako harrotasuna ama iztea eta gizaki baten bizitzaren erantzule izatea) joan den udara arte, Bosnian lan egiten zuen gke frantsesaren lan-eremutik azala eguzkiak erreta etorri zenean. Argazki hartan Jordi irribarretsu baten alboan zegoen, zeina ordurako kakaztuta baitzebilen oraindik ondo ez dakidan norekin, Renomek Lleidan ikusita baitzeukan, han ez zegoela ziurtatua zegoenean.

Arnauk arduraz begiratu zituen argazkiak. Tinak bazekien hunkitzea lortu zuela; baina mutilak ez zuen erakutsi nahi izan. Konturatu zen oso azkar pasatu zuela hamazortzi urteko argazkia, hondoan izeiak eta elur-zuloa zeukan enkoadre hura, eta Arnauren begiak ametsetara begira, oso-oso goapoa nire semea, nik munduratu dut. Harro egoteko moduko argazkia. Desorientaturik egoteko semea.

Oso berandu joan ziren lotara, hiruon arteko hain une isila inoiz bukatzerik nahiko ez balute bezala. Tinak onartu zuen ezen, hartan txukun samar jokatu zuela Jordik, eszenarik egin ez zuelako eta bakarrik zeundenerako utzi zituelako gogoak. Tinak ez zuen Jordirekin aldi berean ohera joan nahi izan.

—Deituko zaituztet –esan zuen Arnauk iratzargailua doituz.

—Ez dut ulertzen zergatik joan behar duzun hain goiz.

—Gabon, Arnau.

—Gabon, aita –eta oso musu eztia eman zion amari bere gelako atea itxi baino lehen–. Eskerrik asko argazkiengatik –esan zion–. Ilusio handia egin didate.

Behin barruan, ohe-ertzean eseri zen Arnau. Inkonszienteki Juri laztatzen hasi zen, ohe erdi-erdian kokatuta baitzegoen. Animaliak miau tristetua egin eta Arnaurengana hurbildu zen eta hark errebelazio moduko bat izan eta esan zuen, nik badakit ez zaitudala aurrerantzean ikusiko, Juri Andreievitx. Gurasoak bai, ikusiko ditut. Baina zu, ez. Azken Afarian, Azken Bazkalostean, Azken Plater-Garbiketan, Bizitzako Argazkien Azken Oparian, amaren tristura desorientatua, aitaren amorru desarmatua... gogorrarena egiten ibili ondoren, orain, Juri laztantzeak kalkulatu gabeko malko bat atera zion eta ostera pentsatu zuen, ez zaitut beste behin ikusiko, Juri Andreievitx, oso zaharra baitzara. Zhivago doktoreak, hunkiduraren hunkiduraz, aharrausi sendoz erantzun eta azkar egin zuen salto ohetik zarata ezezagun baten atzetik, etxeko gaztearekin ez baitzuen berbarik egiten.

Zer egingo dut orain?, pentsatzen zuen Tinak, ordenagailuaren aurrean eserita, Jordiren zurrungak entzun bitartean. Semerik gabe, gizonik gabe. Joanak pasatutako karpeta ireki eta Oriol Fontellesen heriotzaren kontakizunarekin egin zuen topo. Berrirakurri egin zuen. Sepia koloreko argazkiko bi falangisten aurpegia lupaz arakatzen entretenitu zen. Bi-biak ongi uniformatuta. Ustez Oriol zena, gazteago ageri baitzen, oso altua zen eta adats orraztu gabeak

zeuzkan. Bestea, gizon heldua, belztua, atzerantz zapaldutako ileak, bibote estua eta ongi moztua. Artikulua berrirakurri zuen, gizon ondradua, maisu langilea, heroia eta martiria. Heriotz hura imajinatu nahi izan zuen Arnauz ez pentsatzearren. Eskolan aurkitutako koadernoak berrirakurtzea otu zitzaion, hain letra ordenatuz eta ttikiz idatziak. Jordik ez zuen oraindik zurrungarik egiten. Nola duzun izena ez dakidan alaba maitea. Horrela abiatzen zen. Nola duzun izena ez dakidan baina existitzen zarela badakidan nire alaba maitea, zure eskutxo bat ikusi baitut, ttiki eta samurra: handitzean norbaitek lerro hauek zuri ematea nahiko nuke, zuk irakurtzea nahi baitut. Beldurra ematen dit nitaz esan ahal dizutena, batik bat zure amak. Horregatik idazten dizut eskutitz hau, luzea izango dena eta ziur, ziur, ni hilda nagoenean iritsiko zaizuna. Ez duzu atsekaberik izango, ez bainauzu inoiz ezagutu. Badakizu? Eskutitz hau izarren argia bezalakoa dela irizten diot: iristen zaizunean aspaldi-aspaldi hilda egongo naiz. Nola duzun izena ez dakidan alaba maitea. Nola duzun izena bai baina nola zaren ez dakidan Arnau nire seme maitea.

Orduan erabaki zuen lau koadernoak ordenagailuan transkribatzea. Ezagutzera ematea. Galtzaile baten memoria gordetzeko. Eta erabaki zuen, biharamunean, Azken Musua ematerakoan, pasioz maite zuela esango ziola Arnauri, eta barkatzeko hobeto egiten ez jakiteagatik. Eta beldur ematen ziola medikuarengana joatea, zer esango zion. Hori dena botako zion Azken Besarkadan. Koadernoak arduraz utzi eta Jordiren zurrungen ohean murgiltzera joan zen.

Arnauk nahita gezur esan zien lehen aldia izan zen, Tinak gogoratzen zuelarik. Goizeko zortziak baino lehentxoago iratzargailuak jo zuenean, eskolara joateko, desolaturik frogatu zuten semea, isilik, beren bizitzetatik joana zela.

Zutik zeukan itxaroten, makuluan bermatuta. Neskameak bakarrik utzi eta astiro itxi zuen atea. Elisenda andereak begirada erdi goibela erdi nahasia bota zuen hormarantz. Haren presentziaz ahaztuz-edo eseri eta aurrerantz begiratu zuen. Agian eser zedila esan zezakeen keinua egin zuen makuluarekin. Orduan ulertu zuen Tinak hain begirada biziko atso hura itsua zela. Besaulkian jesarri zen, haren aurrean, deseroso. Ohartarazi ahal ziezadaketen Gravat etxeko anderea itsua zela! Begi-kolpe inpunea hedatu zuen gela osoan. Altzairuz hornituta zegoen, gustu erosoz. Hondoko koadroek urgell, vayrada eta vancell ziruditen eta aukera handiak zeuden originalak izan zitezen. Beheko suaren ondoan, altzari bat, erdi idazmahaia erdi komoda, argazkiz betea, beren markoetan. Beheko suaren gainean, emakume gazte baten erretratua, oso ederra, usapalen antzeko eskuekin, zeinek hegan egiteko gogoari eutsi eta amoroski liburu bat hartzen zuten. Begiradagatik, begiengatik, aurrean zeukan anderearen erretratua zela ulertu zuen.

Neskame isila te-joko batekin sartu eta zerbitzatzen hasi zen. Hura irten arte, Elisenda Vilabrú ez zen ostera Tinarengana zuzendu. Elkarrizketa aspaldidanik hasita bailegoen planteatu zuen.

—Zer kontu da zertaz ez dakidan liburu horrena?

Tinak Oriolen koadernoetako bat karteratik atera eta ausaz ireki zuen.

—Liburua baino gehiago koadernoa da. Koaderno batzuk. Zuk begirada bat botatzea gurako nuke. –Luzatu egin zion, baina berehala erretiratu zuen, lotsatuta–: Barkatu.

—Zertaz da?

—Zuk ezagutu zenuen Oriol Fontelles, ez da?

Isiltasun gordina, astuna eta garratza egin zen. Tinak desesoro begiratu zuen alde banatara, inor sartzea itxarongo balu bezala, eta koadernoa itxi zuen.

—Jakina ezagutzen dudala –esan zuen andereak. Tina ohartu zen, oso argala egon arren, aurpegia suntsituta zeukalarik laurogeita bost urteko segidagatik, nabarmen zeudela desagertu nahi ez zuten aurreko edertasunaren hazpegiak–. Zer jakin nahi duzu?

—Haren alabaren bila nabil. Eta haren emaztearen bila, oraindik bizirik badago.

Elisenda andereak eten laburra egin zuen, oso laburra, baina Tinak antzeman zuen.

—Zergatik? –amaitu zuen esaten.

Ahotsaren tinbrea ere aldatu zitzaion. Tinak ostera bere karterara sartu zuen koadernoa, isilean.

—Ez, zera... Pallars eskualdeari buruzko argazki-liburu bat egiten ari naiz eta... –Andereak haren ahotsera zuzendu zituen bere begiak eta begirada itzali hark trepanatuta sentitu zen neska, Arnaurena bezain gogorra begirada hura.

Tinak jarraitu beharra izan zuen.

—Beraz, ez, zera.. Gravat etxearen argazki batzuk egin nahi nituela.

—Zergatik hitz egin nahi duzu Fontelles jaunaren alabarekin?

—Bada... Zera... eskutitz batzuk aurkitu ditut-eta...

—Oriolenak? –Autokontroleko segundo batzuen ostean–: Fontelles jaunarenak?

Isiltasuna. Bi-biak atezuan zeuden. Urteak ziren Elisenda anderea ez zela hain nahastuta sentitzen.

—Non aurkitu dituzu?

—Esan nahi didazu non aurkitu ahal dudan Fontellesen alaba, ala ez?

Elisenda anderea altxatu egin zen, makuluak lagunduta. Zazpi urte izan eta amak bat-batean etxetik alde egin zuenetik, agintzen ohitu zen. Hamazazpi urte bete eta bere aitak, luzez jantzitakoan Torenara zapatak kakazten direlako mendi hartara sekula igo gabeko politiko-saldoa eta finantzario-andana ekarri zituen festa egin zionetik, bazekien bere adimenak eta edertasunak sarraskiak egin zitzaketela gizonen artean, eta haien laguntza izan. Harrezkeroztik ulertu zuen, egiten jakinez gero, beti berea egingo zuela. Inguruka zebilzkion gizon guztiei argi uzteko, hitza kendu eta aginduak ematera mugatu zen.

Arrakastatsua izan zen: bere alboan zeuden oro zuzen ibiltzen hasi ziren: baita bere aita eta Josep ere. Eta Bibianak, haren ohe ondoan jesarrita, infusioa tragoxkaz edanez, pentsatzen zuen, nik banekien neskatxa denetan azkarrena dela. Baina Elisendak uste zuen mundua eta bizitza mendera zitzakeela eta inork ez zion azaltzen uneak badirela, eta oraindik ez zekien, non bizitza astunagoa den eta malgutzen ikasi beharra daukazula, inguratzen zaituen airea bera desegitea ez baduzu nahi. Elisendari hirurogeita hamaseiko uztailaren hogeian zapartatu zitzaion arima Trempeko faitarren komandoak, herriko hiltzaile inbidiotsuek informatu, gidatu eta xaxatuta, aita eta neba fusilatu eta posible zen bide bakarrera bideratu zuenean, inoiz ez ahanztekora. Inoiz ez, Bibiana, zin dagizut.

—Erakutsi beharko zenizkidake eskutitz horiek.

—Ez. Pertsonalak dira eta ez dute zerikusirik zurekin.

—Ez dago nirekin zerikusirik ez duen Oriol Fontellesen ezer.

—Barkatu?

—Bultzatu, finantzatu eta oso hurbiletik jarraitu dut beatifikazio-kausa eta...

—Barkatu?

Elisenda anderea berriro jesarri zen. Egoera errekuperatuta, ez zuen berriro kontroletik ihes egiterik nahi.

—Udaberri honetan aita santuak beato aldarrikatuko du Oriol Fontelles agurgarria.

—Broma bat da.

—Ez al duzu ezer entzun horretaz?

—Fontellesen beatifikazioaz?

—Hori da.

—Ez. Gai horiek... –Arnau etorri zitzaion gogora poxi bat– urrun daude neure interesetatik.

—Anderea. –Ahotsaren tonua, aurpegia, keinuak, dena aldatua zen emakume harengan–. Oriol Fontelles gure etxeko lagun handia izan zen. Une zailetan lagun handia eta Elizako martiria. –Esku itsua aurreratu zuen–. Horregatik diot gustura hartuko nituela zera horiek egun batzuetan.

—Pertsona berberaz mintzazten ari al gara? Zeren koadernoetan ikusten denez... santutik ez zeukan ezer.

Elisenda andereak beheko sua seinalatu zuen makilarekin. Apaleko argazki baterantz apuntatzen zuen zehazki.

—Huraxe da. Ez da besterik egon.

Tina altxatu eta hurbildu egin zen. Oriol Fontellesen lehen planoa zeharka hartua, eduki ez zuen etorkizunerantz begira. Eskolako komuneko ispilu aurrean egindako autoerretratuko espresio berbera zen, ahoaren keinu berbera. Baina falangeko uniformeaz. Valentí Targaren alboan zegoen argazki haren anpliazioa zen. Argazki haren alboan, jende ezezagunaren beste argazki batzuk. Etxekoak, seguru asko. Eta kalonje moduko bat jesarrita eta gizon bat zutik haren ondoan Gravat etxeko lorategian. Eta, ezkutatzeko batere gogorik gabe, zilarrez enmarkatuta, ziur Elisenda askoz gazteagoa zenaren eta Franco general irribarretsuaren arteko bostekoa, biak uniforme algaratsuz inguratuta, aukera-aukeran gehiegi. Argazkian serio mantentzen zen bakarra Elisenda zen. Eta lausoki etxekoa ematen zuen mutiko baten argazkia, bere bizitzako hainbat urtetan. Eta beste pertsona ezezagunak ere bai.

—Bai, pertsona berbera da –onartu zuen Tinak–. Ez nekien...

—Behartuta zaude eskutitz horiek niri ematera. Zergatik diozu santutik ezer ez?

—Haren alabari zuzenduta daude. Nik ezin dut...

—Oriol Fontelles jaunak ez zuen alabarik izan.

—Ba, bai.

—Argi asko esaten dizut ezetz.

—Eta haren emaztea?

—Hura hil zen egun berberetsuetan hil zen emaztea.

—Hara.

—Gu familia izan ginen Oriolentzat.

—Bai, baina...

—Ni naiz haren heriotzaren lekuko bakarra.

—Zu?

Elisenda andereak besaulkia seinalatu zuen makuluarekin eta Tinak argazkiak begiratzeari utzi eta besteak agintzen zion lekura itzuli zen. Eta orduan Elisenda anderea hasi zen esaten, tragedia dena da denboraren joanak ekintza heroikoak ere ezabatu egiten dituela, baina niri heriotzak baino ez dizkit ezabatuaraziko, izan ere, gau hartan, bor-bor zegoen mendi osoa. Targa alkatea, bere gizonekin, gerrilero-partidaren bat Torenara gaiztakeriak egitera etor zedin ekiditeko erronda egiten ari zen, hasi berria baitzen makien inbasioa Vall d'Aranen, nahi eta seguru ez dakizula zertaz mintzatzen ari natazaizun. Eta kontua da Agurgarri izateko hautagaia, behean sinatuta agertzen dena, Oriol Fontelles Grau Jainkoaren zerbitzari martiria, eskolan zerbait egiten ari zela. Aski berandu zen, baina hark ez zuen sekula gela abandonatzeko ordua aurkitzen, harentzat bizitzeko modua bihurtua baitzen. Torena herriko haur guztiek, Torena herriko haur guztien guraso guztiek, aitor dezakete haren jasankortasuna Torenako haur guztiei bizitzaren eta erlijio katolikoaren egia irakasteko. Bertara iritsi orduko

aldatuz joan zen giroa, gerraren erruz elkarren artean haserre zeuden familen artean konkordia eragiteko gauza izan baitzen. Modu berberean aitortzen eta berresten dute Agurgarria izateko hautagaia, Oriol Fontelles Jainkoaren Zerbitzaria, martiriora eraman zuten egitateen ordena eta segida. Ondokoek, alegia: Mila bederatziehun eta berrogeita lauko Urriaren hemeretziaren iluntzeko zortziak ziren, maisu bezala egun nekosoa bizi ondoren, hautagaiak argia bistaratu zuenean Sant Pere elizan. Hautagaia biziki harritu zen, bi egun baino ez baitziren igaro, Aureli Bagà Riba mosen jauna, kausa honen Postuatzaile leihakorra dena, gotzain jaunarengana, Seu d'Urgellera, bisita kanonikoan ikustera joana zela. Bere ardurak eraginda, Agurgarria izendatua izateko hautagaia zer gertatzen zen ikustera abiatu zen. Elizako atea ireki orduko errealitate gordin ikaragarria ikusi zuen: maki-, gerrilari bandolero-, komunista-, separatista- eta anarkista-partida bat Sagrarioa askatzen ari zen, Sakramentu Santua barruan zuela, ziur asko zeuzkan urrezko zati eskasak galdatzeko asmoz. Hautagaiak, ekintzagatik haserre eta izututa, garrasi ozena bota zuen, zeinak dokumentu honi bermea ematen dioten lekukoak alertatu zituen, hots, Valentí Targa Sau, une hartan Torena herriko alkatea eta Elisenda Vilabrú Ramis anderea, zeinek denbora izan zuten elizan sartu eta txoko batetik inpotentziaz, ez baitzeramaten armarik, aipatutako hautagaiaren martirioa ikusteko. Targaren eta Vilabrúren testigantzen arabera, beraz, bi-biek, ezinean eta ikaratuta kontenplatu behar izan zuten, nola Oriol Fontelles Jaikoaren zerbitzaria erasotzaile sakrilegoengana esku-hutsik hurbiltzen zen, ekintza deitoragarri hura bertan behera utz zezaten agiraka eskatuz. Gerillariek, hari kasu egin ordez, barre eta heriotza-mehatxua egin zioten. Hautagaiak, halako mehatxu zuzen eta serioak kontuan hartu gabe, kasurik ez zien egin eta Sagrarioaren aurrean jartzeraino aurreratu zen.

Era berean, lekukoek aitortzen dute ezen ikusi eta frogatu zutena egia bezain argia dela eta baiesten dute ezen Oriol Fontelles Jainkoaren zerbitzaria, gaizkile-talde haren irreberentziagatik haserre bizian, haietako pare bat bultzaka baztertu eta aldarera igo zela. Jokaera hark harrituta epe bat behar izan zuten erreakzionatu aurretik eta Sagrarioa besarkatzeko aukera eman zioten. Gaizkileen buruak aldaretik alde egiteko agindu zion. Hark esan zien, handik ez zela joango hil ezean. Sagrarioaren alde, Sakramentu Santuaren alde eta Eliza Ama Santuaren alde (hitzez hitz) bizitza emateko prest zegoela. Zalantza batzuen ondoren, gaizkileen buruak (oroitzapen tristeko kontrabandista ohia eta izenez Esplandiu), martiriaren aurka odol hotz guztiaz destatu eta tiro egin zion, zeinak Jainkoaren zerbitzariaren bekoki noblearen aurka jo eta ia bat-bateko heriotza ekarri zion, hilotza aztertu zuen Samuel Saez Zamora forentse doktorearen iritziaren arabera. Egitate ezohikoarena eta auzitegi honen aurrean ezagutarazi nahi duguna da, behin bizitza Eliza Katolikoaren alde, Sagrarioaren alde eta Sakramentu Santuaren alde emanda, gaizkileak beren indar osoz saiatu ziren arren, ez ziren gai izan besarkatuta zeukan Sagrariotik martiriaren gorputza aldentzeko. Ez zen modurik izan Sagrariotik apartatzeko. Blasfemia eta biraoen artean, tartetxo bat eman zuten oraindik saiatuz, baina ordenako indarrak etorri aurretik ihes egiteko agindua eman zien haien buruak. Herritik pasa izanaren oroigarri nefastotzat, granada pare bat bota zuten eta eztanda egin eta Udaletxearen iparreko alde guztia desegin eta sute ttiki bat sorrarazi zuten.

Elisenda Vilabrú Ramisek ziurtatzen du bera, bere indar eskasarekin, eta ikusi berri zuenarekin hunkituta, eliza blasfemiaz eta hiltzailez huaturik geratu zenean, Oriol martiriaren ondora joan eta batere ahaleginik gabe desegin ahal izan zuela Sagrarioaren besarkada. Eta hala berresten du aipatutako Valentí Targak, zeinaren lekukotza ere gehitzen dugun. Gehigarri modura, August Vilabrú Bragulaten lekukotza baliotsua ere sartzen dugu, zeinak, berehala ohartarazita, egitateen lekura iritsi eta egiaztatu duen.

—Ez neukan ideiarik. Zur eta lur uzten nauzu.

Elisenda anderea burumakur hitz egiten aritu zen, horrela oroitzapenek gogotik errazago jariatu balira bezala. Zerbitzatutako tea seinalatu eta Tina konturatu zen ez zuela dastatu ere egin. Hurrupada bat kendu zion. Orduan esan zuen garaiko aldizkari batean oso ez bestelako bertsio bat ematen zuela.

—Badakit. Baina ez diozu kasurik egin behar. Eurek ez zuten ikusi.

Eta era honetara, Prozesu hau ixten dugu, elizbarruti honetako Gotzain bezala deklaratuz, kausa honetako Postulatzaileak Oriol Fontellesen ospe publikoa, bertuteak eta mirariak egiaztatu dituela. Item Urbano VIII.aren orduz kanpoko kultuari buruzko dekretua obeditu den ziurtasuna daukagu eta iritzia osatzen dut hainbeste aldiz errepikatutako egitateei buruz. Processiculi diligentiarun izeneko inkisizioei dagokienez jakinarazi behar dugu ezen, baliorik gabeko ohar pertsonalak gorabehera, korrespondentzia pertsonal arrunt eta kalterik gabea gorabehera, ez dugula ezein paper, aitorpen, dietario, idatzizko gogoeta, estudio teologiko edo filosofikorik aurkitu kausaren probekin batzeko, nola alde hala Agurgarri izendatua izateko hautagaiaren kalterako. Beraz, gaurko egunez, mila bederatziehun eta berrogeita hamalauko Urriaren hamazortzian, hautagaiaren heriotza heroikotik bi urte betera doi, Eliza Ama Santuak ematen digun ahalmenarekin aldarrikatzen dugu ezen, Oriol Fontelles Grau jaunak bere heriotzaren unean maila heroikoan bete zituela kristau bertuteak, eta beraz benetako martiritzat jo eta Agurgarri aitortzen dugula.

Ziurtatzen dugu Aureli Bagà Riba mosen jaun Postulatzaile eta egitateak gertatu ziren parrokiako erretorearen aurrean, eta gotzaitegi honetako Notario Nagusi Norbert Puga Closa monsiñorearen aurrean, aurretiazko prozesu guztia itxita eta zigilatuta dagoela, Oriol Fontelles Grau Agurgarriaren alde beatifikazio-prozesuari buruz etorkizunean gerta daitekeen eliz disposizioak agintzen duten bezala. Tenore praesentium indulgemus ut idem servus dei venerabilis nomine nuncupetur. Joan, Seuko gotzaina.

—Elisenda anderea, zurea da poz honen erantzukizun osoa –esan zuen mosen jaunak, begiak distiratsu. Gero bertan zeuden guztiengana zuzendu zen–: Ez dakizue zer emango nukeen eliza honetan bertan, baimena ematen badidazue, egin den santu baten irudia beneratzeko garaiz iritsi ahal izateko.

—Urte asko biziko zara zu, mosen jauna –egin zuen aldarri Elisenda andereak.

Majals etxeko Pere Casesek irribarre gozoa egin zuen. Edozeini egiten zion irribare, ekintza hartan alkate bezala estreinatzen baitzen eta bere aurrekoak utzitako oroitzapenarekiko urruntasun handia gorde nahi zuen, ahal zezakeen guztia. Bera, Vilabrúren andere alarguna eta udalbatza, mosen jauna Udaletxeko Batzargela kaltetuan hartuz, etorkizuneko herriko beato eta santuari buruz mintzatzeko. Ez erabat herrikoa baina bertan jaio izan balitz bezala, ze demontre.

—Beatifikazio-kausa ezin da ireki Agurgarriaren heriotzatik berrogeita hamar urte igaro arte.

—Mila bederatziehun eta laurogeita lau –esan zuen alkate berriak, zalantzakor. Behar bada burutik pasatuko zitzaion oraindik bera izango zela batzarburu.

—Gaur egun handia da parrokiarako, eskolarako eta herrirako –aldarrikatu zuen mosen jaunak, oraindik irrikaz suhartsu.

—Eta Espainiarako. –Alkateak gainerakoei begiratu zien, isilik, mesfidati.

—Bai, noski –esan zuen bateon batek.

Bertaratutakoak oliba beteak jaten hasi ziren Agurgarriaren omenez eta hitz egiten, alde eta aurka, Boscaroko zubiak etorkizunean harrizko edo burdinazko eskudela beharko ote zuen, eta Elisenda Vilabrúk, taldetik baztertu eta, gelako leihotik, herriaren zatia kontenplatzen zuen, eskola ttikia eta Sant Pere eliza, eta dena egun hartan bezain itzalia zirudien jadanik urte batzuk aitortza egitera joan zenean, hamabostean behin egiten zuen bezala, eta Aureli mosen jaunak sakristiara pasarazi zuen eta azaldu zion, elkarrizketa luzeak izan ditudala zure osaba August mosen jaunarekin, eta ondorioz nirea egin dut haren borondate irmoa, zurea ere badena ulertu dudanez, maisu martiriaren kausarekin aurrera egiteko; gizon haren bizitza eredugarriaren xehetasun deigarriak azaldu dizkit eta erabaki dut nire burua Postulatzaile modura aurkeztea August mosen jaunaren laguntza esplizituarekin. Zure kolaborazioarekin kontatzen dut, anderea, eta beste lekuko zuzenarenarekin. Eta insistitu zuen ezen, ez zekiela egiaz, baina defendatzen zuen Sagrariotik martiriaren gorputza ezin apartatzearen mirakulua gotzaindegiak onartua izatekotan, beatifikazio-kausa batean sar zitekeela aurrerago, eta dena zen irrika Aureli mosen jaunarengan, eta Elisenda andereak ahots sakonaz esan zuen baietz, behar den kolaborazio guztia, baita ekonomikoa ere, mosen jauna. Eta hala erakusteko, muin eman zion eskuan, eta erabili ohi zuen trebetasunarekin, billete bat tolesturik utzi zuen. Azkenean. Haria jostorratzean.

Ilunabarrean, Elisenda Vilabrú andereak Valentí Targari aditzera eman zion Udaletxean, eta behar zen guztian kolaboratzeko agindu; denetan; ulertzen didazu denetan esaten dudanean? Eta gero, bi-biek minutu batzuk isilean egin zituzten, liturgikotik ez dakit zer zeukatenak, harik eta andereak suspertu eta esan zuen arte, ongi, beraz, entzun duzu. Eta Oriol Agurgarri bihurturik, Udaletxeko Batzargelan, Elisendak paisaiari begiratzeari uzti zion eta, buelta emanda, iruditu zitzaion batzargela alboko erretratuko Valentík begirada kentzen ziola.

—Ulertzen al duzu, orain, eskutitz horiek izan dezaketen garrantzia geroko beatoari buruz informatzerakoan.

—Eta kontrakorako balio badute?

—Egiari argia emateko balio dezakete. Utz iezazkidazu eta bihar pasa zaitezke haien bila.

—Ez. –Gaia aldatzeagatik–: Beraz Fontellesen heriotzaren beste lekukoa Valentí Targa izan zen nonbait.

—Bai. Baina hilda dago. Badira berrogei urte baino gehiago hil zela.

Altxatu eta argazkien kontsolarantz abiatu zen. Ikusiko balu bezala, horma ondoan diskretuki baztertutako argazki bat seinalatu zuen. Zuri-beltzean, ia gehienak bezala. Mahai dotore baten atzean, gizon heldu bat, eserita eta objektiboari galdekatuz begira, argazkilariarekin hitz egiten balego bezala. Energia zerion, agian poseagatik, agian begiradagatik. Adats beltzak atzerantz orraztuta zeuzkan, eta bibote fin eta zuzena. Ez zeukan uniformerik: traje ilun eta dotorea. Hautsontzian, erdi iraungitako zigarro bat eta Targa alkatearen alboan Espainiako bandera bat, eta gorago, ia eremutik ateratzeko zorian, Franco generalaren erretratua. Beste aldeko hormaren erlojuak bederatziak markatzen zituen. Goizekoak ala gauekoak. Emultsio on bat, pentsatu zuen Tinak, xehetasunak garbi baitaude, argazkia zaharra den arren, alafede. Valentí Targak, besoaren posizioagatik, telefono modura zeukan oskol hura eseki berria zuela zirudien. Haren begi argiek, zulakariek, ez zioten erabat objektiboari begiratzen baizik pixka bat eskubirago, hildakoengana.

—Valentí Targa al da?

—Bai.

Aurpegia argi ikusten zion lehen aldia.

—Ikusten denez herriko jendeak ez du sinpatiaz gogoratzen.

—Jendeak zer daki. –Txistua bota izan balu bezala esan zuen, destainez.

—Gazteago neritzon.

—Argazki hau hil baino lehenagokoxea da, bai.

Gravat etxeko anderea bere besaulkirantz abiatu zen, makulu beharrik gabe. Tinak ostera begiratu zuen argazkia hazpegi haiek behatzeko.

—Berrogeita hamar berrogeita hamaika urte izango zituen.

—Ze urte zen?

—Mila bederaziheun eta berrogeita hamahirua. –Zalantzarik gabe esan zuen.

Valentí Targak ez zuen Tinarengana begiratzen; eskubirantz baizik, hildakoengana, Elisenda zegoen tokirantz, telefonoa kezka-aurpegiz eseki eta argazkilariari keinu indartsua egin ondoren. Elisenda Vilabrú, zeinari aste bat doi senarra hil zitzaion, alkatearen mahai aurrean itxaroten zegoen hormaturik, zuzen, doluz jantzita. Besteak hitz egin zezan itxaroten. Betertzez, ordua kontsultatu zuen hormako erlojuan: bederatziak. Argazkilariak bulegoko atea itxi eta haiek bakarrik utzi zituenean, sumindurik begiratu zion alkateari.

—Ea, zer gertatzen da –esan zuen azkenean.

—Dei arraro bat.

—Eta horretarako etorrarazi nauzu?

—Zure etxea zapaltzen uzten ez didazunez...

—Zer dela-eta da arraroa? –Esan zuen Elisenda andereak telefonoa kokotsarekin seinalatuz.

—Ezagutzen ez nauen norbaitek Tucari buruz hitz egin nahi dit.

—Zuri? –Eten dentsoa–: Nork?

—Dauder izeneko batek. Idazkariak deitu dit.

—Ezagutzen al duzu?

—Ez. Dio bera dela Vall Negraren benetako nagusia.

—Eta zergatik ez du nirekin hitz egin nahi?

—Dio baduela informazio bat...

—Inork ez luke jakin behar erosi nahi dudala... –Begietara begiratuz–: –Norekin ibili zara harroxkokerietan?

—Nik ez dut inorekin hitz egin! –erantzun zuen haserre.

—Zuk niri oihurik ez –esan zuen andereak ahopeka–. Gogoan izan.

Valentí Targak eskua aurpegitik pasa eta bere aulkian eseri zen, lur-jota.

—Norekin ibili zara harroxkokerietan?

Isiltasuna. Elisenda anderea, hari so egin ordez, leihorantz itzuli zen. Azaroko zeru griskara. Beste egun bat hotzez eta izotzez errepideetan. Valentí Targa jaunak, Torenako borreroak, ahoa ireki eta itxi egin zuen. Ezer ez zioenez, andereak, berunezko zeruari begiratzeari utzi gabe esan zuen, nork eman dizu baimena nire aferetan sartzeko.

—Bada, nik...

—Ez, ez... –esan zuen andereak xuabe-xuabe–: Galdetzen dizut nork eman dizun baimena?

—Inork ez. –Valentík burua jaitsi zuen, garaituta.

—Ados. Orain nik azalduko dizut zerbait.

Begiratu egin zion. Alkatea, aulkian uzkurtuta, ume bat eskolan bezala Rufat andereñoarekin. Elisenda gutxika-gutxika mintzatu zen, umeari ari bazitzaion lez:

—Eski-estazioa urte luzerako inbertsio bat da eta gaizki ateratzen bada, zorte txarra. Interesatzen zaidana da Tucako mendia suediarrei saltzea. Ondo ateratzen bada, hain aberatsa izango naiz ezen...

—Hori dena badakit.

—Zuk begiratu nire ezpainetara mintzatzen natzaizunean –esan zuen zakar–. Mendi bat saltzeko lehenago zatika erosi behar dut eta prezio onean. Zuk laguntzen didazu eta nik eskuzabal ordaintzen dizut. Ados?

—Bai, Rufat andereñoa.

—Baina zurrumurruak hasten badira, akabo prezio ona. –Tonu eztian–: Orain esango didazu norekin egon zaren mintzaten gauza hauetaz edo bestela jolas-ordurik gabe geratuko zara.

—Agian komentarioren bat... ez dakit, probintziako ordezkariari...

—Ergel bat zara, zu eta zure lagun falangista harroputzak.

—Ez iraindu.

—Nahi dudana egingo dut. –Mahai gaineko aparailu handia seinalatu zuen: Gainera, telefonoz ezin dira gauza hauek esan.

—Zergatik?

—Operadorea entzuten ahal izan daitekelako.

—Cinteta oso neska...

—Denak bezalakoa da, kuxkuxeroa.

Elisendak leihotik begira jarraitzen zuen, hausnarkor. Harik eta erabaki eta Targarantz begiratu zuen arte.

—Oso ondo. Joan zaitez Dauder hori ikustera eta ukatu iezaiozu nik saltzeko asmoa daukadala. Eta batik bat, utz iezaiozu argi zuk ez daukazula erabakitzeko ahalmenik. Eta zure probintziako ordezkariari gogoratu iezaiozu birbalorazio bat daukagula zain, ez badu nahi dena gobernadore zibilari azaltzea...

Valentík, zaurituta, altxatau, berokia eta kapela jantzi eta gelako atea ireki zuen.

—Zuri min ematen dizu nik bizitza irabaztea.

—Jainkoaren maitasunagatik, Valentí! –Orain bai zegoela suminduta, gizon hura laburra baitzen–. Irabazi nahi beste diru –esan zion tonu didaktiko nabarmenarekin–, baina ez hitz egin nire gauzez eta nitaz zure lagunekin. Inoiz ez. –Valentí atetik desagertu baino lehen, oraindik esan zuen, leihotik begira eta ahots apalean:

—Adi, agian Dauder hori bitartekari bat baino ez delako.

Valentík ostera sartu eta bere atzean itxi zuen atea. Amorruz:

—Egoki deritzodana egingo dut.

—Hori sekula ez. Nire dirua tarteko, sekula ez. Esango diozu ez daukadala interesik ezer erosteko. Hitz hauekin. Eta sar dezala mendia sartzen zaion tokian.

—Horrek dena atzeratuko du!

—Bai. Zure erruz. Harroxko izatea gustuko duzulako. Komisiorik gabe geratuko zara.

Bere bulego propioaren atea danbaka itxiz atera zen Valentí.

—Valentí –esan zuen andereak ahotsa jaso gabe.

Ostera ireki zen atea.

—Badakizu ez zaizkidala ate-danbadak gustatzen.

Valentí Targa jaunak, amorruz gorrituta, leunkiro itxi zuen ostera atea. Andereak ez zuen begiratu nola ateratzen zen; ezin zuen jakin Torenako alkatea bizirik ikusiko zuen azken aldia izango zela. Kontua da Sortera jaisten den bidean hiru bihurgune erabat ospel daudela. Azaroan, eta goizeko ordu ttikitan, arreta handia ez bada jartzen, ziurtatuta dago laprastada izotzaren erruz. Bigarrenean izan zen, Pendísekoan. Ustez hamarretan Sorten geratuak zirenez, Valentík ez zuen berandu iritsi nahi hitzordu misteriotsu hartara eta, perituen arabera, berrogeita hamarreko abiadura baino handiagoa zeraman eta ez zuen erreakzionatzeko denborarik izan. Aldatz behera joan zen, biraka doan harri baten antzera, eta mugaren azkenean berak lurrei eusteko eta une egokian hil ahal izateko eraikitako hormaren kontra kolpatu zuen.

—Bai, bai. Berrogeita hamaika urte besterik ez zeuzkan.

—Oso gizon... eztabaidatua izan zen –Esan zuen Tinak, serio, gaileta bat hartzen zuen bitartean.

—Bai. Baina kaosean ordena ipintzen ausartu zen –erantzun zuen andereak.

Elisenda andereak artean ez zeukan tea dastatua. Berrogeita hamahiruko azaroko egun hartan pentsatzen ari zen; Ernest Tremoleda Sancho Sorteko alkateak dei bat egin eta esan zionean, Elisenda anderea, ezbehar bat gertatu dela, eta Trenpeko ospitaleraino jaitsiarazi zuten, Valentí txikituta ikusi eta gobernadore zibil astuntzarraren partez esan zioten, eta orain zer egingo dugu, izan ere inork ez baitu alkate izan nahiko haren ondoren. Edo Sorteko bailara guztia anexionatzea pentsatu beharko dugu jada?

—Esaiozu Nazario jaunari bihar boluntario bat izango duela.

—Eskerrik asko, anderea.

Elisenda andereak Valentí Targaren gorputz zanpatua seinalatu zuen:

—Zer gertatu da?

Izotzarena eta zementuzko hormarena azaldu zioten eta andereak pentsatu zuen, ordu desegokian hil behar zenuen, Valentí, niri Tucaren aurretiazko erosketaz hain informaturiko Dauder hori nor den azaldu gabe.

—Hildakoaren identifikazioa zuk ziurtatzea nahi nuke, anderea.

—Zer?

—Ez, forentseak eskatzen duela ea zuk ziurtatzen duzun identifikazioa. Gauza legalak.

—Ja. Eta zer nahi duzu esatea?

—Bada hori. Valentí Targa da, ez?

Bai, Valentí da, bai, nire akatsa, erredimitu behar ninduen gizona, nire Goela, nire familiako Goela. Bere egitekoa bete eta gero akatsa egin zuen. Akats handia egin zuen. Zenbateraino gorrotatu zaitudan, Valentí, badakidalako nahita egin zenuela.

—Eskerrik asko, anderea.

Vilabrú andere alargunak, hogeita hamazortzi urterekin, atsekabezko aurpegiarekin eta jantzi beltza soinean, Jazintok etxera itzultzen laguntzen ziolarik, eskerrak eman zizkion hormigoizko hormari, nolabait aste betean bigarren aldiz alargundu zuelako eta askatuta sentitu zen: etapa bat itxita, liburu bat itxita. Agur, Santiago. Eskerrik asko hasierako bultzadagatik. Agur, Valentí. Eskerrik asko zerbitzuengatik. Orain nire txanda da. Eta abesbatzak in saecula saeculorum erantzun zuen.

—Zergatik diozu santutik ez zeukala ezer?

—Emakumea… Hasteko, ez zuen Jainkoagan sinisten.

—Hori kalumnia bat da.

—Eta maitale bat zeukan.

—Hori erabat faltsua da. Eta jakin ezazu martiri baten santutasuna bere heriotzaren maila heroikoaren arabera neurtzen dela.

—Barkatu, baina ni ez naiz zurekin teologiaz eztabaidatzera etorri baizik haren etxekoen arrastoari jarraitzera.

—Ez dauzka.

—Beatifikazioarena fartsa bat da. Oriol Fontellesek beste era bateko oroitzapena merezi du.

Elisenda andereak eskua bularrean ipini zuen, zerbait haztatuko balu bezala. Altxatu egin zen. Oso argal zegoen arren, itsu izanda ere, eta azala urtez kargatuta eduki, Tinari bere alegatuarekin jarraitzea galarazi zion ez dakit zer bat zeukan haren figurak.

Elvira Lluísen eztultxoa tisiko batena zen. Oriolek ez zekien hori beste haurrentzat kutsagarria ote zen; baina argi zeukan ankerragoa zela gurasoei esatea, aurreantzean ez ekarri, hil dadila etxean. Horregatik utzi zion eskolan eztulka segi zezan, estufaren ondoan. Elvira Lluísen eztultxoa baino ez zen entzuten. Haur guztiak behatu zituen. Hiru falta ziren, Birulés etxeko Miquel anginak zeuzkalako eta Ventura etxeko Célia eta Rosa Esplandiu ere ez zirelako etorri. Aitagurea errezatu eta haurrak eserita, denak, Venturetaren arreben pupitre hutsak ikusten ez zituzten plantak eginda, adi-adi begira zeuzkan. Eta orain soilik Elvira Lluísen eztultxo hura entzuten zuen, eta min ematen zioten haur guztien begirada isilak beregan iltzatuta. Berak, handiekin, Espainiako ibaiak (Miño, Duero, Tajo, Guadiana, Guadalquivir, Ebro, Júcar eta Segura) eta haien adar nagusiak (Sil, Pisuerga, Esla, Tormes, Alagón, Alberche, Genil, Gállego eta Segre) landu behar zituen. Eta ttikiekin, kaligrafia egin behar zuten, baina begirada isil-pila bat topatu zuen, haur guztiak Ventureten pupitre hutsak zituztelako gogoan, han ez zeudenak beren neba ez zegoelako, bere aita ez zegoelako, eta maisu jauna bazegoelako Juan Ventureta etxetik eraman zutenean; herri guztiak zekien hori; aizu, ez zeramala falangeko uniformea; baina han zegoela; damututa zegoela; baina ez zuela deus egin; atsekabea zeukala aurpegian; aterako diogu etekina maisu jaunaren atsekabeari; besteak bezainbeste faxista. Ez altxatu ahotsa. Amorrua ematen baitit ezin salatzeak. Zu ez nahastu. Eta Jainkoaren maitasunagatik, ez joan berriketarekin kafetegira.

Egun osoz isiltasun handia izan zen herri osoan jendeak galde egiten zuelako zer egingo zuen Targak Ventura aita ez bazen aurkezten, seguruena zena. Jakina ez zela posible haur hura akabatzea; baina orduan, zer? Betikoek etxe barruan sudur azpitik barre egin zezaten utziko zuen Ventura agertu ez zelako? E? Faitarren desordenara itzultzea nahi al duzue, e? Eta auskalo Ventura etortzen den. Inork ez zekien baina denek zekiten modu hartara, zurrumurruak hedarazi ziren borondate oneko gizon guztiei aldarrikatutako albiste ona Venturarengana irits zedin, alegia, Gabonak baino lau egun lehenago, haren semea atxilotuta egon zela Herodesen aginduz, eta mundu guztia konbentzituta zegoen ezen, Ventura aita deiarekin sentikor, bidean jarriko zela, Palestinako xendretatik, izarrari segika, eta Belenera gauerdian iritsirik, Valentí Targaren eskuetan errendituko zela, hura bezala Altrongo semea, baina Torenako alkatea. Bere seme Joan Venturetaren bizitza salbatzearren, zeinari orain gaztigatzen zioten albistea, alegia eguerdia da eta zure aita ez dager, eta badakizu zer esan nahi duen horrek?, has zaitezela otoitz egiten, esan nahi du, eta Venturetak tabakoa eskatu zuen, mesedez, tabakoa, ez zuelako gainean kaka egin nahi eta edozer gauzak balio zuen beldurra uxatzeko. Goserik ez, Ventureta? Eta arratsaldean haurrak etxera abiatu zirelarik, gaur inoiz baino isilago, gaur, azken eskola-eguna, Gabonetako jaiak hasten ziren tristurarekin, atsekabea eztarriko zintzurrean, mundu guztia beldur zelako Venturetaren biziagatik, haurren arteko atzeratuenek oraindik ikusi ahal izan zuten nola Venturetaren ama laugarren aldiz Udaletxera sartzen zen, semearen biziaren alde erregutzera, eta alkatearen aurrean buru makur zioen, har nazazu ni baina utzi bakean haurra, eta Valentí Targak, mespretxuz, zioen, zaldun bat naiz eta ez dakit andreak atxilotzen; zure gizonari buruzko albisterik ez badakarzkidazu, ez daukazu zertan etorri. Eta jakin ezazu iturri onetik dakidala zure gizona ezkutuan datorrela etxera, aldian behin.

—A, bai? –esan zuen Ventura andereak destainez–. Eta nork eman dizu gezur horren berri? Maite ez nauen malapartaturen batek.

—Maisua ez da malapartatua, eta ez dizu inongo gaitzik opa –inprobisatu zuen, zioenak zeuzkan ondorioak kontuan hartu gabe. Edo agian bai, gerran denak balio duelako eta une garrantzitsuetan, bizitza Historia bihurtzen denean, gehiago delako lagundurik ibiltzea bakarrik baino. Gainera lagunak une horietarako dira–. Maisua patriota bat besterik ez da.

—Maisua gezurretan dabil.

Pauso batzuk atzera eman eta begietara begiratu zion Valentí Targari.

—Madarikatua izan dadila betiko –erregutu zuen, debozioz, Targa alkatearen bistatik desagertzen zelarik.

Hala eta guztiz ere bi, hiru, lau aldiz gehiago itzuli zen Udaletxera, eta Valentík ez zuen jadanik hartzen eta bibote fin eta lehorrekoaren bitartez esanarazi zion ezen, molestatzen jarraitzekotan, senarra belarritik oratuta ekarri gabe Udaletetxean oinak jartzen bazituen, ostera istilu bila bazetorren, orduan zure aurrean akabatuko dugu, ulertzen al duzu? Ventura zotinka iritsi zen etxera, eta pentsatuz ezinezkoa zela niri hori gertatzea, niri, ez bainaiz pertsona gaiztoa, eta jendeak atsekabe handiz pasatzen ikusten zuen. Ala ez, bere gizonagatik ordaintzen ari da, zer demontre. Eta baziren esaten zutenak, salatzera joan beharko genuke; baina nora nahi duzu joan, neska, salatzen baduzu, traidorea eta makia izateagatik atxilotuko zaituzte? Nora joan nahi duzu? Ez-dakit-Zer jeneralarengana, neska? Torenan orain falangeak agintzen du eta kitto. Eta makiek mendi hauetan zoroarena egiten jarraitzen duten bitartean, falangeak aginduko du Torenan. Baina nire gizonak ordea ez zuen deus egin gerra garaian. Ba bai. Zin dagizut; zergatik uste duzu ez genuela Frantziara alde egin? Baina zer nahi duzu ba gertatzea? Ezinezkoa da. Ez al duzue ikusten umemoko bat dela?

Iluntzean, Rosak, sabela aurretik, Valentíren aurrean aurkeztu eta esan zion, barrabilak badauzkazu hil nazazu ni baina utzi bakean haur hori, eta Valentík isilik entzun zion, eta ez zuen deus erantzun, kanpaitxo bat jo eta gizon uniformatuetako bat sartu zen, adats kizkurrekoa, eta zerbait esan zion belarrira, eta adats kizkurrekoa irten egin zen, eta Valentík goitik behera begiratu zion Rosari, begiak sabelean tinkatu eta ostera goitik behera begiratuz esan zion, zer gertatzen da, Ventura iritsi dela eta ni jakin gabe? Eta andreak argudioak bota zituen hamalau urteko haur bat ez hiltzearen alde, oinarrizko argudioak, adibidez adin honetan denak dira errugabeak; ziur gaude ez duela ezer txarrik egin; eta zeharkako argudioak, adibidez, haur bat hiltzeagatiko kontzientzia txarra. Eta Valentík andreari ustutzen uzten zion, eta Oriol iritsi zenean, izututa, adats kizkurrekoak ohartarazita, Valentík energia errekuperatu eta esan zuen, maisu jauna, zure andreak ordu erdi bat darama zentzugabekeriak esaten; mesedez etxera eramango bazenu, niri potroak berotzen ari da-eta, eta Oriolek besotik oratu eta ahopeka esan zion, goazen, Rosa, eta hark besoa astindu zuen bere gizonaren eskutik askatzeko eta bakar-bakarrik abiatu zen etxerantz, eta Oriol, minduta, ausardiarik ez zeukan Valentíri begiratzeko, eta hark egin zion, ei, burua altxa eta begira ziezaion; Oriolek egin eta Valentík begia kliskatu zion: badakizu, emakumeak, berehala galtzen dute burua, lasaitasuna mantendu behar duzu, gaur eskolan egin duzun bezala.

—Zuk zer dakizu nik eskolan egin dudanaz.

—Nik dena dakit. Oso informatzaile onak dauzkat. Pisuerga Tajoren ibaiadarra dela ere esan didate.

—Duerorena.

—Han bainatu nintzen, komunismoaren aurkako gerra garaian bertan nintzelarik, eta orain zure emazteak berpiztea nahi du errukizko keinu horrekin.

—Nire emazteak ez...

—Nik esan dizut andreekin jakina dela. –Tiradera bat indarrez itxiz–: Baina ez dut beste interferentziarik onartuko ordena jartzeko nire zereginean… –Builaka–: Ez al duzu gogoan armada espainiarreko zenbat soldadu hil ziren segadan? E?

Oriol Fontelles isildu egin zen eta ez zuen ezein oilarrik kantatu, ilun zegoelako. Oraindik animoa eduki zuen esateko, Elisenda andereak ez dizu esan hau gelditzeko?

—Elisenda anderea Bartzelonan dago, negozioak baitauzka bere senar kanpolarrosarekin kitatzeko. Vilabrútarrek eta Vilabrútarrek hemen inguruan dauzkaten lurrekin zerikusia duten gauzak dira. Xehetesun gehiago nahi?

—Nik galdetzen dut hark ez al dizun hau gelditzeko esan.

—Elisenda andereak ez dauka aginterik Torenan.

Argiztapen publikoko bi bonbila baino ez zeuden herri osoan. Bat plazan, nondik Rosak, bere gizona ikusteko burua itzuli behar ez izateko, obsesiboki begiratzen zuen leiho txikia zegoen alboan. Hark bazekien emakumeak ez ziola plaza begiratzeari uzten bere begiekin topo ez egiteko.

Iluntzean, mundu guztiak uste zuen Ventura etortzekoa zela; mundu guztiak sinistu nahi zuen albisteak urrun harrapatu eta horregatik zebilela hain berandu. Badaezpada ere, armadak beste aldera begiratzen zuen bitartean bere hildakoak zenbatuz eta harrotasunaren zauriak miazkatuz, falangista-talde bik Torena okupatu eta ezarrita zeukan kontaktu-sistema beheko goardia zibilarekin, zeinak ofizialki deus ez zekien, Ventura lagunduta eta armatuta etortzeko aski eroa izatea otuko ote zitzaion. Valentí urduri zegoen, urdaila hutsik eta bere bulegoko mahaiaren kontra supizgailu metalikoa kolpatuz, Ventura, semearen bizitza erregutu, belaunikatzera etortzea itxaron beste ezer egiten ez zekiela, eta berak esango zion, ordua iritsita, berak, zerri hiltzaile gogaikarriak, ukatu arren, Vilabrú jaunaren bizitzarekin amaitu zenuen eta ez zenion zure buruari galdetu inork erregutu nahi ote zizun agure baten alde, eta orain zure semearengan ordaindu behar duzu, eta zure semearengan ordainduko duzu eta zuk ordainduko duzu eta ez dut atsedenik hartuko Vilabrú jaunaren eta garbitu zutenean hogeita sei urte baino ez zeuzkan haren semearen heriotzaren erantzuleekin bukatu arte. Hura bai haurra, hogeita sei urterekin, eta ez hau, zahar bat baitirudi, gerra pasatzeak denak zahartzen baikaitu, beraz begira zer ordu den.

—Bederatziak jota.

—Ventureta ziplo geratuko da eta ez da nire errua izango. Presta ezazue.

Sebastiàren alorretik banantzen zituzten hirurehun metroak ibiltzeko auto beltz eta distiratsua erabili zuten. Atzeko eserlekuan, Ventureta, negar-malkoz, bere aita bezala koldar, o zein urrun, kontatzen dutenagatik, Josep Vilabrú, espainiar eredugarri, patriota ondradu, hil zeneko kemenetik, faitarrek gasolinaz blaitu zutenean. Mukiak eta guzti zerizkion Venturetari. Venturetaren alboan, Gomez Pié, adats kizkurrekoa eta aurpegi iluneko andaluziarra. Aurrean, Balansó bibote finekoa eta txofer ezezagun bat. Eta autoaren estribuen gainean, esku batekin leihoari oratuta eta bestean pistola zeramala, Valentí, Gabonetako hotzak kulunkarazten uzten, agindu biologikoengatik eta mendeku estriktoagatik apostoluen zerrendatik erori behar

zirenetatik beste izen bat ezabatzeko erabakia dela-eta adoretuta. Eta herriaren inguruan, falagisten taldeak zelatan, makiak etorriko ote.

Autoa estropezuka alorrerako bidean, ez da posible ni horrela hiltzea, eta ahots gora esan zuen, ni ez dut hil nahi, eta Valentík, makurtu eta burua auto barruan sartuz, esan zuen, zer dio honek? Kantatu nahi al du?

—Dio ez duela hil nahi –esan zuen Balansók, eta Valentík ostera erretiratu zuen burua, ez baitzituen galdu nahi airearen labankadak bere etorkizun- eta aurrerakuntza-antsiaren aurka joz.

Alorraren alboan goardia egiten zuten bost gizonak ikusi zituen Venturetak, eta bere aitak azken unean gaiztoen gainean salto egingo zuen itxaropen desesperatu hura desagertzen hasi zen, ahanztura bezain iluna eta hotza baitzen dena. Jaitsiarazi egin zuten, ezpondako hormarantz eraman, kanposantuko lehen atearen ondoan, soilik autoaren argiek argiztaturik, eta negarretan hasi zen esaten, ez dut hil nahi, nik ez dakit non dagoen aita. Eta motzondoan lotu zutenean negar egiten zuen oraindik, ikasten ari baitzen destinoak ez daukala atzerabueltarik, eta sendo egin zuen oihu, beldur naiz, beldur naiz, beldur naiz! Eta Valentík ondo emandako belarrondo batekin histerismoa moztu eta koldar bat zela bota zion aurpegira, koldar bat zela eta behingoz ikasi beharra zeukala balienteak bezala hiltzen, heroeak hiltzen diren lez, kagoendios. Urrundu, une oro eskuan eraman zuen pistolarekin destatu eta orduan esan zuen, ez zaitut hilko, koldar hori, soilik jakin nahi nuen ea gai zinen kaka egin gabe agoantatzeko, eta Ventureta zotinka hasi zen, desesperaturik, pozik, triste, zoriontsu, izututa, eta begiak jaitsi eta burua makurtu egin zuen eta, orduan, burua ostera altxatzen ari zenean hain ondo eskaintzen zitzaion garondora destatu eta bi tiro jarraian jaurti zizkion Valentík, eta Joan Venturetak zotin egiteari, negar egiteari eta beldur izateari utzi zion eta, behingoz eta niri esker, baliente ezkel eta hil bat bilakatu zen.

Gauean farol triste bat dago plaza nagusian pizturik. Eta beste bat auzoan, herriaren irteeran, Sorre eta Altronerako bidean. Bi kasuetan, metalezko pantaila lau batek gaizki babestutako bonbila bat, haizearekin mugitu eta ezer argiztatzera iristen ez dena. Maisuaren etxeko leiho ttikitik, Rosa kalera begira zegoen, geldi, isilik, kanposantu aldetik entzun ziren klaska haiek heriotzaren tiroak izan ez zitezen itxaroten eta, buelta eman nahi gabe, zeren, mahaira eserita, eskuekin ogi-papurrezko bolatxoak egiten, bere senar koldarra egoerari buelta ematen ziola imajinatuz baitzegoen. Orduan auto ezezagun bat, hondatua, bonbilaren azpian geratu zen. Inork sekula ikusi ez zuen gizon batek jaitsi, ate bat ireki eta fardo bat utzi zuen lurrera erortzen. Autoak alde egin zuen, eztulka, errepidean behera. Fardoa bonbila azpian zegoen arren, kosta egiten zen zer zen bereiztea, harik eta Rosak ahopeka esan zuen arte, hil egin dute, haur bat hil dute, eta eskua sabelean paratu zuen, eta Oriol hurbildu eta esku bat ezarri zuen haren sorbalda gainean kontsolatzeko, baina berak inarrosi eta ahopeka baino indarrez esan zuen, ez nazazu ukitu! Behean, plazan, farol anemikoaren pean, Ventura andereak, belauniko, bere semearen kraneoko eta eskuin begiko zuloak esku desesperatuarekin ixten zituen eta ziurtatzen zuen desgrazia bere etxean sartu eta ez zela inoiz irtengo. Talitá qumi, pentsatu zuen Oriolek. Talità qumi, mesedez, talità qumi, eta bere barruan amorru desesperatuak tokia kentzen zion beldurrari.

Elisenda anderearen autoa ezezagunenarekin gurutzatu zen, zeina azkar zihoan beste lan bateranzko bidean edo ondo merezitako koñak kopa bateranzko bidean. Jazintok Gravat etxearen aurrean autoa utzi zuenean, bost minutu baziren Ventura familiak gorpua plaza ilun eta hotzetik erretirarazi zuela. Ez zegoen ezer arrarorik baina isiltasunaren doinua bestelakoa

zen, mehatxuz betea, herri osoa Pamanoren ur hotzen murmurio isila entzuten balego bezala, eta horregatik Udaletxetik igarotea erabaki zuen, geldotasun moduko hark zer esan nahi zuen argitze aldera.

Valentí Targa jauna, uniformea aratz, edaten ari zen, isiltasun berberak inguratuta, hiruzpalau ezezagunekin batera, haiek ere uniformatuta, eta anderea ikustean esan zuen, kamaradak, pasa zaitezte batzargelara berehala nauzue-eta zuekin. Kamaradak hautsa eta baliaezinezko trasteak gordetzen zituzten gelara pasatu ziren kopa eskuan, eta Elisendak begietatik txinpartak jaurtiz esan zuen, zer gertatu da edo zer dago gertatzeko zorian. Eta Valentík, ez dakit zertaz ari zaren. Eta andereak, harrapatu al duzue Ventura?

—Ez.

—Zer egin duzu?

—Justizia.

Elisendak, zutik, lasai, esan zuen, ez dakit zer daukazun Venturaren aurka, baina badiotsut ez dela zure egitekoaren partea.

—Zuk zer dakizu. –Venturaren begirada defentsa moduan zerabilen koñakak erdi lausotuta zegoen.

—Haurra hil al duzu?

Erantzun modura Valentík kopa-trago batean amaitu eta mihia klaskatu zuen. Orduan Elisenda Vilabrú andereak esan zion, hemendik aurrera gauzak aldatu egingo dira pixka bat gu bion artean, ez baitut gustuko holako estiloa, eta gainera esan zion, ez dakit gogoan daukazun hitz eman dudala ezer ez zela gertatuko, eta zuk ziurtatu zenuen ez zela deus gertatuko, soilik ikaskizuna eman nahi zeniola herriari, eta dirudienez ikaskizuna haurrak akabatzea da.

—Et, et, et: haur bat. Soilik bat.



—Orain arte inoiz prestatu izan dudan lapidarik tristeena da hau. Mila bederatziehun eta hogeita bederatzi gidoia mila bederatziehun eta berrogetia hiru, horrek esan nahi du hamalau urte. Hamabost egiteko zegoen. Hiltzaileak ez dauka Jainkoaren barkamenik. Eta zu, semetxo, gogora ezazu beti eta zerua urdinago dagoenean, ni hilda banago, grabatu harlauza berria Venturetari. Gauzak oso gaizki badoazkizu ere, Ventura etxeko inork ez dezala hogerlekorik ordaindu egingo diezun harriagatik. Egunen batean urdinago izango da zerua, Gizateriak irribarre egingo du eta jadanik ez da bekatu izango pertsonen benetako izenak harrietan grabatzea, Jaumet. Orduan atera txokotik orain egingo dizudan marrazkia.

—Eta orain ezin diogu ezer jarri?

—Soilik Esplandiu Familia eta azenturik gabe. Ez dute gehiago nahi. Ez diete besterik ipintzen uzten. Ikusi ordena idatziz. Ez eta Joanet izena ere, ez eta gaztelaniaz ere. Familia, besterik ez. Eta gurutzea.

—Eta benetako harlauzerako?

—Begira zer prestatu dudan.

—Arraioa, gama altuko gurutzea.

—Noski. Merezi du.

—Badakizu zer egin ahal duzun, aita? Estra bat ipini. Alkatea, ordurako ez bada hil, ez da konturatu ere egingo estra bat dela.

—Oso ongi, Jaumet: buruarekin pentsatzen duzu. Ondo gogoratu: marrazkia prest utziko dut, baina ezkutuan. Ez hutsik egin, Jaumet, eta ordua iristen denean Venturetaren benetako lapida egingo dugu. Badakizu zer? Manel Lluísen kalkoen marrazki bat grabatuko diet.

—Zein?

—Ez dakit, adibidez... Begira, hauxe.

—Pagauso bat da.

—Ez, uso bat da. Sinbolo bat. Jainkoarren.

—Ez negarrik egin, aita, niri eginaraziko didazu-eta.

Bigarren zatia

EZTENAK BEZALAKO IZARRAK

...Igeltso-hautsa,

Jainkoak ezabagailua pasatzen duenean hegan doana.

JORDI PÀMIAS

Atearen bi orriak irmoki irekitzen dira. Modu barregarrian mozorrotutako bi gizon oso misteriotsu sartzen dira Santa Clarako gelan. Taldearen erdikoa, besteek baino enbaxadore-xingola zabalagoa daramana, dama beltzarengana doa. Gasull abokatua makurtu eta damaren belarrira xuxurlatzen du. Andereak esku hezurtsua ziurtasunez jaso, eta enbaxadoreak muin egiten dio. Gasull abokatua urduri dago, zutik, eta ez daki oso ondo zer egin. Enbaxadorea harengana zuzentzen da pentsatuz, ez dakit andereraren senide zuzen bat den edo zer. Agur generikoak trukatzen dituzte. Dama beltzak deseroso hautematen ditu unea betikotzen duten bi argazkilariren flaxak. Laguntzaileetako batek esaten du gotzain jauna iritsia dela eta agian ostera topatuko dutela geroko harrera ofizialean. Enbaxadoreak denak bizi duten alaitasunaz eta harrotasunaz filosatzen du, laguntzaile batek fruta-zukua daukan edalontzi bat eskuan jartzen dion bitartean. Dama beltzak baietz esaten du buruarekin eta ez du bere barnetik irribarre bat ateratzea lortzen, dena gerta dadin presa baino ez baitauka, dena hil aurretik gerta dadila. Biloba arretaz begiratzen ari da balkoitzarraren ingurutik. Enbaxadoreak laguntzaileetako bati tabakoa eskatzen diola ikusten duenez zigarro bat ateratzen du, behingoz lasaiturik.

Bitartean, Marcel Vilabrú elurretako kirolei dagokionez Vaticanoren aukera komertzial hutsalei buruz mintzatzen ari da enbaxadako agregatuarekin. Oso sinpatiko dago, oso txeratsu, izan ere auskalo gizon hau gerora, enbaxadore bezala, hotza ez ezik elurra eta mendiak dauden herriren batera bidaltzen duten.

Enbaxadoreak damari zenduaren ahaidetasun-graduari buruz galdetzen dio, eta andereak dio, zehazki, eurak ez direla senide zuzenak. Baina, betidanik, eurak direla pertsona hurbil bakarrak, zeukan familia ezagun bakarra. Eta argi dago, esaten du enbaxadoreak. Jakina da gerran gauza asko gertatzen direla, eta familia asko desegiten direla, esaten du Gasullek, damari esku bat luzatzearren. Eta jakina, errepikatzen du enbaxadoreak senide zuzenari-edo begiratuz, begietara zuzenean begira ahal dion bakarra baita, halako angustia.

Adats motz, harro eta zuriskak dituen gizon batek etorri diren bidetik eraman berri ditu poloniarrak diren errusiar taldea, gidarekin hitz lehor batzuk trukatu ondoren. Poloniarretako batzuek itzuli eta Rella mosen jaunaren taldekoei Treblinkako ateetan egon eta beren maitatuei azken agurra emango balie bezala so egiten diete.

Gizon gazteak, behin talde osatuta, esterminiotik salbatu direnak korridoretik bideratzen ditu. Ezin dute aski azkar ibili barize ugari dauzkatelako eta korridorea ez da sekula bukatzen. Aldian behin, koadro ilun eta gaizki argiztatutako bat, seguru aski balore gutxikoa, inork begiratzen ez duena.

—Barize anastomotikoak mota aneurismalekoak dira.

—Izenak izen, ondo izorratuta naukate.

Korridore berriaren azkenean, zigi-zaga bitxi baten ondoren, gidak labe krematorioan sarrarazten ditu, nahiz eta orain gela ondo argiztatua den, ikusten denez bide sekreturen batetik jadanik iritsita dauden poloniarrek okupatuta dauzkaten aulki eskasekin. Erdi-erdian, neurri mediebaleko zur errustikoko mahai batzuetan, aperitiboak gonbidatuentzat.

Zein arin igarotzen den denbora batek egun lorios hura betiko iraun dadila nahiko lukeenean. Bazen puska bat jateko gauzak eta berriketako papurrak eramanak zituztela eta, bat-batean, aspaldian dena esanda daukatenean, askaturik sentitzen dira atezain batek kanpotik atea ireki eta (Vaticanon bi orriko ateak solemnitate bereziarekin irekitzen dira) ohartarazten duenean, jarraitzeko adina atsegin badira, bidea erakusteko ohorea daukala. Une horretantxe esaten du enbaxadoreak zein arin igarotzen den denbora, batek nahiko lukeenean egun lorios hura betiko irautea.

Eta damak ez dio erantzuten antsia biriketan atxikita daukalako. Hain atezain zeremoniotsua eta edukatua sartzean blaitu duen asaldura disimulatzeko altxatu eta familiako beste guztiek eskoltatu dezaten eta semeak besotik har dezan itxaroten du. Hain arranditsu, enbaxadoreak azkenean ulertzen du gela hartan agintaririk egotekotan huraxe dela.

Rella mosen jaunaren taldea basilikan sartzen da. Mosen Rellak Guardans jaunari azaltzen dio ezen, bere ustez, santu bat kanonizatzean pontifize gorenaren infalibilitateaz sinistea eztabaidatuta dagoela. Santomasek dio modu piadosoan sinistu behar dugula dekretu pontifizioan infalibilitatea dagoela eta teologo gehienek jarraitzen diotela doktrina horri. Baina orokorrean irizten da infalibilitate haren egitatearen egiatasuna fede teologikoaren arlokoa dela; ez dago Idazki Santuetan, eta ondorioz ez da fede dibinoaren arlokoa; eta Elizak ez du definitu eta, beraz, ez da fede eklesiastikoaren arlokoa.

Bakardadea hainbeste ez sentitzearren, bere lau gauzak eskolara eramatea erabaki zuen. Materialeko gela gela soil bihurtu zuen, ia monje batena, berarentzat penitentzia-unea iritsi baitzen bere koldarkeriagatik. Ohantzea txoko batean, pipiz betetako armairu bat eta laneko mahai bezala pupitre hondatu bat, besterik ez zeukan. Aulkia, gelako berea ekarri behar zuen, eta hotza, nahi beste. Eta dena ordenan zeukalarik ez zen ase sentitu, egunero Rosa modu obsesiboan zeukalako pentsamenduan eta Marés etxera joan ohi zen jatera eta, kafearekin, isilean, anis-kopatxoa hartzen zuen Valentírekin, eta jendeak bakarrik uzten zituzten agintarien mahaian, eta biak bertan ziren bitartean, ez zen hizketarik egoten lokal hartan; soilik zeharkako begiradak eta alde egiteko presa. Eta egun batean Valentík esan zion asko sentitzen zuela emaztearena, eta Oriolek, erantzunez, kopako anis-tanta kolpez amaitu eta mihia klaskatu zuen. Haren atsekabea distraitzeko Valentík azaldu zion, entzun dut armada zonaldetik erretiratu eta Aragoirantz doala.

—Atentatuak egon arren?

—Orduz geroztik hau olio-putzu bat da. Nahiz eta Frantzian gauzak gaizki joan Reich loriosoarentzat.

Oriolek ez zuen deus esan. Gehiegi kostaten zitzaion pentsatzea.

Arratsalde hartan bertan Nasiren Mariaren etxeko Casiàk, zirkulatu zezakeen familiako bakarrak (Josep Mauri alde eginda zegoen eta Felisa, ozpinduta eta atsekabeak mutututa, bakarrik bizi zen gurasobitxiekin, haien adinean errepublikazale salbaezinak eurak), gelako leihoak jo eta adierazi zion eskutitza zeukala. Zaharrenak ibaiadarren zerrenda errepasatzen ari ziren oraindik, penintsularen mapa arbelaren erdi-erdian ezarrita, eta ttikiak kopiatzen. Oriol gelatik irten eta postari inprobisatuaren eskutik hartu zuen, bihotza zintzurrean, eta gelara itzuli zen kartazal hura berehala irekitzeko asmoz. Ez zeukan igorlerik baina Rosaren kaligrafia antzeman zuen. Bartzelonako zigilua. Poltsikoan sartu eta ahanzten zuen plantak egiten zituen Llates etxeko Ricardi galdetzen ziolarik Alagón zein ibairen adarra ote zen.

Ezin izan zuen ireki ume guztiak kanpoan egon arte, eta orduan, estufaren ondoan hautsi zuen kartzala, urduri. Koadernoan, kartazal gaizki apurtu hura ere gordetzen zuen Oriolek, Tinak hamaika aldiz irrakurri zuen eskutitzaren ondoan:

“Oriol, behartuta nago zuri esatera alaba bat izan duzula, eta osasunez ondo dagoela. Ez naiz inoiz zuri ekartzera etorriko, ez baitut nahi jakin dezan bere aita faxista eta koldar bat dela. Ez saiatu ni bilatzen edo bilarazten: zure izebaren etxetik joan naiz eta moldatuko gara nire alaba eta biok bakar-bakarrik. Jadanik ez daukat eztulik. Zuk probokatuko zenidan. Agur betiko.”

Ze krudela, pentsatzen zuen Tinak. Eta oharkabean Zhivago doktorearengana begiratu zuen zeina, ordenagailuaren gainean igota, baitaratuta zegoen leihotik antzematen zen paisaia ia udaberritarra, argiz eta ilusioz betea, kontenplatzen. Zer egiten ari ote da Arnau, orain. Eskuak batzen eta begiak zuriz jartzen eta guk sekula irkatsi ez diogun bezala otoitz egiten. Edo kantatzen. Edo agian madarikatzen sekula utziko ez duen infernu batean sartu delako. Edo holakorik ez. Nola gabesten dudan. Orduan Jordi ekarri zuen gogora, eta aitortu behar izan zuen berak Rosak egin zuena egingo zukeela Rosaren kuraia izan balu.

Oriol, eskuak dardarti, gaizki hautsitako kartazalera itzuli zuen eskutitza eta, lehen bulkadaz, estufako atexka ireki eta erretzeko zorian egon zen. Baina birpentsatu eta poltsikoan gorde

zuen min gehiegi egiten ziolako. Eskolako komunean, beti hotz eta sudurra zulatzen zion usain kirastu eta garratzez, bost minutu egin zituen ispilu maspilduan begira, inora ez zeraman egoera bat ulertzen saiatzeko. Hamabost egun ziren Rosa joana zela. Ezin izan zuen jasan Venturetaren heriotza. Ezin izan zuen jasan bere senarra mundu guztiak Valentí Targaren eskuin eskutzat kontsideratzea, haren eminentzia grisa bezala. Ezin izan zuen jasan jendeak esatea, gurasoak salatzeko umeak erabiltzearen krimen gorria egiten zuela maisuak. Jolasorduan hartzen zituela eta, zerabilen hain eztitasun faltsu harekin nahi zuenaz mintzarazten ziela. Are, Llovis etxean nor zegoen ezkutatuta jakitera iritsi zela. Eta horretaz ezin dira haurrak salatu, aingerutxo gajoak, aski egiten baitute beldurrez ez hiltzearekin. Ezin izan zuen jasan ere, bi egun jarraian, Marçanaren labeari ogia amaitu izana bera iritsi orduko. Ogia eta hizketa. Eta han zeuden emakumeek isildu edo zeukaten presa gogoratu eta bakarrik uzten zuten, erridikuluan, Torenako herri pintoreskoan, Assuako bailaran, Sorten alboan, Pallars Sobiràko eskualdean, erroldatutako hirurehun-laurehun pertsona zituela (gehi hogeita bat traidore gorri separatista exilioa aukeratu zutenak eta hogeita hiru hildako marxismoaren kontrako gurutzadan, zeinetatik bi, heroi bezala: Josep Vilabrú gaztea eta haren aita Anselm Vilabrú, udalerri erdiaren jabea, altxamendu faxistatik hamabost egunera faitarren talde batek armez erahilak). Eta zekale, garagar eta gari ugari egon arren, Rosa ogiaren bila joaten zen orduan, jada ez zegoen. Eta ez zen sekula egongo. Horregatik ere joan zen herritik. Eta behar bada Gravat etxeko Elisenda andereak bere senarrari egiten zizkion begirada samurrengatik ere bai.

—Mila ordainduko dit.

—Ez eta miloi bat ordainduta ere. Zuk ezin diozu erretratu bat egin!

—Zergatik ez?

—Hiltzaile bat da.

—Orain burua jaisteko unea da. Altxatuko dugu.

—Gauza bat da burua jaistea eta beste bat... Baina ez al dizu nazka ematen?

Sant Peretik zetozen heriotz-kanpaikadak entzun ziren. Rosa zurrundu bai baina ez zen zegoen tokitik mugitu. Oriolek mahai gainean utzi zuen esne-basoa, Rosaren sabela seinalatu eta ahopeka errepikatu zuen, ez baitut nahi mutiko hura bezala hil gaitzaten.

—Koldarra.

—Bai. Beldurra ematen dit hiltzeak.

—Ondo pentsatzen baduzu ikusiko duzu heriotzak ez duela pentsatzen duzun beste minik ematen.

Oriolek ez zuen erantzun eta Rosak altxatu eta sukaldea utzi zuen. Une baten buruan, logelatik zetorren zotin erreprimitu bat entzun zuen Oriolek. Esne-edalontzia urrutiratu, oka egiteko gogoa baletorkio bezala, eta pentsatzen jarri zen, irmoki inora begiratu gabe eta beste era bat izateko gogo handiz. Burua altxatu zuen: Rosa gelatik apainduta ateratzen ari zen, jantzi ilunarekin.

—Nora zoaz orain?

—Ehorzketara.

—Zuhurragoa litzateke...

—Balia ezazu zure nagusia erretratatzera joateko.

—Sortera jaitsi beharra daukat maisuen batzarrera –erantzun zuen gizonak, zaurituta. Baina emakumea erantzuna entzuteko itxaron gabe atera zen. Une hartan, Oriolek ez zekien aurrerantzean ez zuela harekin hitz egingo.

Gabon aurreko egunean alde egin zuen Rosak Torenatik, Ventureta ehorzten zuten egunean, mundu guztia lanean zegoelarik, Oriol bailarako maisuen bilera batean zegoela Sorten, Falange Españolako delegatuak deituta, zeinak denak batera Falangen izena ematera animatu nahi baitzituen, kamaradak. Rosa iheslariak bezala joan zen, abisatu gabe, jakinik ezen otarrea eta maletak beterik, ilusio guztiak eta polita izan zitekeen guztia zeramala. Eta egin zuen semea faxista batekin bizitzerik nahi ez zuen emakumezko indartsua zelako. Sabel barruan zeukan esperantza guztia.

Ez zekien oso ondo zergatik, baina Tinak altxor bat bezala gordetzen zuen eskutitz hura koadernoen barruan, nabarmen uzten baitzuen zoriontasun ezak noraino trepanatu eta deusezta dezakeen pertsonen kloska eta deuseztatu. Eta hori Rosak esperantza zeukala sabelean, ez nik bezala aire-korrontez beteriko monastegi batean galdua dudalarik.

Koruko Amabirjinaren irudiaren aurrean, agintarien ordezkari eskas baina oso selektoen eta ongiko jendearen aurrean (Egun haietan Donostian zegoen Lehen Erregioko Kapitain Generala, Anselm Vilabrú zorigabeko kapitainaren garai bateko hiru koronel arma-kide eta kontatzen duen jendearengandiko hogei bat lagun eta batik bat Bartzelonan eta Madrilen kontatuko dutenak), Santa Maria parrokia historiatu eta errekargatu samarrean, Santiago Vilabrú Cabestany (Vilabrú-Comelles eta Cabestany Rouretarra) nahi al duzu emazte gisara Elisenda Vilabrú hartu ondasunean eta pobretasunean, osasunean eta gaixotasunean?

—Bai, aita.

—Eta zu, Elisenda Vilabrú Ramis (Torenako Vilabrútarren eta Tirviako Pilar Ramis, Ramistarren leinukoa, erdi puta erdi hobeto hari buruz ez mintzatzea Anselm gaixoaren errespetuagatik), neska eder askoa, ni apaiz kastrensea ez izatera hemen eta orain galbahetik pasaraziko nizuna, zure hogeita bi urtetan Donostiako errefuxiatuen artean hariak mugitzen jakin duzuna, zeinak antsiaz zain dauden Catalunya tropa frankisten eskuetan eror dadin gorrien ahuleziak biolentziaz kendu dietena berreskuratzeko, eta denborarik galdu ez duzuna gizon obszenoki aberatsa bilatuz eta diote zu ere konpondu samarra zeundela zure aldetik. A propos, zure ama Pilar Ramisen kontu hori ez dakit oso ondo zertan datzan baina mundu guztia mintzo da. Onartzen al duzu Santiago Vilabrú Cabestany jauna (Vilabrú-Comelles eta Cabestany Rouretarra) senar gisara eta betiko sinekuraz, ondasunean eta pobretasunean, osasunean eta gaixotasunean, adarretan eta ezkontzako indiferentzian? Nik marikoitik alerik ez, baina ez litzaidake inportako Santiago honekin ezkontzea hilean behin atzetik emango balit ere, soilik bere fortunagatik. Esan, alaba.

Hogeigarren lerroko banku batean, Bibiana, istorioen amaiera ezagutzeko dohaina zeukana, Santiago jaunaren eta Elisendaren garondoei aprentsioz begira zegoen, eta zioen, ez neskatxa, esan ezetz eta atera agudo.

—Bai, aita.

—Jainkoaren izenean, senar eta emazte deklaratzen zaituztet. Jainkoak batu duenak ez dezala ezein gizonek hautsi, heriotzak baizik. Viva Franco. Arriba España. San Sebastián 28 de Febrero de 1938, Tercer Año de la Victoria. Hemen behean sinatu behar duzue. Biek, bai. Eta lekukoek ere bai. Lasai, denentzat lekua dago-eta. Txalo batzuk eskatzen ditut senar-emazteentzat. Bai, horrela, oso sendo. Viva Franco. Eta viva el ejército español.

Asko hausnartutako erabakia izan zen. August osaba maiteak aditzera eman zion fortuna europarrak ezagutzeko destinatuta zegoela, baina hark onartuta zeukan gerrak dena desegiten duela, baita amets guztiak ere, eta Santiago hautatu zuen; soilik bi urte zaharragoa zen, mutil atsegina zen, oso ondo hezia, kaskarin-ospe pixka bat bazeukan, baina neskarekin erabat maiteminduta zegoen. Gainera Vilabrú abizena izateko gustu ona zeukan. Eta, batik bat, Josep neba ekartzen zion gogora, hari buruz zeukan oroitzapena gogoratzen zion, Gravat etxean gau hartan esaten zuenean, gauzak gaizki badoazkigu denok beste aldera joango gara, Donostiara, Frantziatik igaroz, arazorik gabe gidatuko gintuen kontrabandista bat ezagutzen baitut, eta aitak pentsakor entzuten zuen, eta zioen, beraz agian hitz egin beharko genuke, bai. Nor da? Ventura, Ventura anderearen senarra, bailara eta xendra guztiak inork baino hobeto ezagutzen baititu. Baina ez zuten astirik izan, Trempeko komandoak herriko hiru kabroien salaketaren ondoren egin zuena egin baitzuen, bala bat aitaren garondoan eta

gasolinaz blaitu zuten nire Josep gajoa. Eta Santiagok Josep ekartzen zion gogora, asko gainera. Ia bazirudien Josepen oroitzapenarekin eta ez Santiago Vilabrú eta Cabestanyrekin (Vilabrú-Comelles eta Cabestany Rouretarrarekin) ezkontzen zela.

Neskak bere sentimenduak eta Torenara itzulita egin nahi zuena azaldu zion eta mutilak sudur-uzkurtze bat ezkutatu zuen, eta esan zuen, oso ondo, maitea, baina orain gutaz pentsatu beharko genuke, esan nahi zuena, goazen ohera ezkontzaren erabilpen santua egitera, nire indar guztiekin erabilpen santua egiteko irrikitan bainago, eta ezkontzaren erabilpen santua egin ondoren idazki santuek agintzen duten bezala, Elisendak errepikatu zuen, herriko hiru lagunek egin zutenagatik ordain dezatela nahi dut nik. Santiago Vilabrúk kokotea igurtzi eta esan zuen, nik, gauza hauek... Badakizu zer? Hobe dugu Bartzelonan kokatzea, ez baitzara era honetara obsesionatuko, eta neskak besoak gurutzatu eta esan zuen, hemen ez dago erabilpen santu gehiago Torenan kokatuko garela zin egiten ez didazun bitartean, eta mutilak esan zuen, nahi duzuna, maitea.

—Prest al zaude nire aita eta nebaren heriotza mendekatzeko?

—Jakina. Erakutsi iezazkidazu titi horiek berriro. Etorri, polit hori.

—Ez. Zin egidazu.

Adostasunera iritsi ziren: mutilak pertsona egokia erakutsiko ziola, ezagutzen zuela horretarako pertsona ideala: eskualdekoa zen, jendea ezagutzen zuen eta, batek nahi duenean… eduki behar dena zeukan. Askatu atorra, tira.

—Nor da?

—Ezagun bat. Roia etxekoa da, Altrongoa. Zerbitzu batzuk egin dizkit... Ongi, zirt-zart egiten duena da.

—Non aurki dezaket?

—Burgosen. Zatoz honantza, ene lore-puska.

Ezkondu eta bigarren egunera, lau erabilpen santu eta gero, Elisenda Vilabrú Ramis (Torenako Vilabrútarren eta Tirviako Pilar Ramis, Ramistarren leinukoa, erdi puta erdi hobeto hari buruz ez mintzatzea Anselm gaixoaren errespetuagatik), Elisendak, bost minutuko berbaldiaren eta kartazal bete baten ondoren, baimen oso berezia eta taxi bat lortu zituen, bera eta Bibiana Burgosera eramango zituena. Baziren egun batzuk ama Benantziaren irakaspen indartsuak birkokazten zebilela, konturatzen hasia baitzen ezen, ez bazara presatzen, mundua gaiztoentzat dela, gaizkileentzat, hiltzaileentzat, komunistentzat, gorrientzat, anarkistentzat, ateoentzat, masoientzat, juduentzat eta katalanistentzat. Beraz, agindu moralekin kalkulu bat egin eta momentuz zeintzuk jarri ahal ziren erreserban negoziatu behar zen. Fernando de la Hoz Fernández y Roda kapitain kastrensearekin (minduta zegoen zeremoniarako Macias apaiz koronela hobetsi zutelako) ezkontza aurretik egindako aitortzak ederki asko ilustratu zuen horretaz, zeren baroi santu hark Azken Garaitzara eramango zituen Caudillo Santuaren figuran fede-aktoa egin ondoren, ziurtatu baitzion ezen samalda gaizto, gaizkile, hiltzaile, komunista, gorri, ateo, masoi, judu eta katalanoseparatistak suntsitzeko eta desegiteko edozein jardunaldi, edozein, alabatxo, Jainko Gure Jaunaren gustukoa dela, Justiziaren Nagusi

eta Zigor Jainkotiarraren Banatzaile, Espainiako Batasun Sakratuaren Bermea bera. Eta bestela, so egiozu Goel figura biblikoari, ezein teologok, aitagoitik edo aitasantuk inoiz erdeinatu ez dutena. Eta horrek niretzat soilik esan nahi du, egurra gorriei. Une honetan, alabatxo... (hemen Fernando de la Hoz Fernández y Roda kapitain jaunak gelditu, bekokia painelu batekin xukatu eta airea hartu behar izan zuen, zeren leihatilak sareta eduki arren, belusezko ahots hark, Santisimoaren garra islatu eta pasio bihurtzen zuen begi haien distirak, arrakada bitxidunen mugimenduak eta nire senetik ateratzen nauen usain gozo hain sentsualak erabat mozkortuta baitzegoen). Zintz egin zuen lasaitzeko eta esaten jarraitu zuen, une honetan, alabatxo, diot, Justiziazko Ekintzak oro Kristo Errege Jaunak ondo ikusita daude. Eta orain errezatu nirekin agurmaria bat. Ez, joan zaitez zu-zeu Santisimoaren aurreran otoitz egitera, alabatxo, eta gomendatu zure burua Sortzez Garbiari, lurreko armadaren zaindaria baita. Ego te absolvo a peccatis tuis eta hic et nunc, domina, te moechissare cupio.

—Halabiz –erantzun zuen Elisendak debozioz.

Burgosko Espolón Viejo deritzan pasealekuan, bukatu zuten pentsioan, negu aurreratuaren hotz gutzia kontzentratuta zegoen, Bibianak abrigoa janzten lagundu eta esatera ausartzen zenean, adi, haurra, behar bada gogorregia da-eta, oro har. Baina Elisenda ez zegoen aholkuak jasotzeko. Mila esker, Bibiana, esan zuen, baina nire bizitza da, eta gelatik atera eta ataurre ziztrin hartan agertu zen, non zain zeukan gizon baxu samar bat, begi urdin izoztu, adats ilun eta adin ertainekoa, zeinak eskua eman zion kuriositatez eta miresmenez. Bibianak, baztertutako abrigoak atontzen zituen bitartean pentsatzen zuen, nire bizitza zure bizitza da-eta, neskatxa, oraindik ez al zara jabetu?

—Ez, ez ditut horma belarridunak nahi, oinez paseiatuko gara –esan zuen andereak begi argiduneko gizonak iradoki zionean, ezagutzen dudan kafe batera joan gaitezke.

Prim plaza ondoan zeuden eta Arlanzonetik igotzen zen lainoa auzo guztia estaltzen hasia zen. Isilik gurutzatu zuten plaza. Saihetsezinezko suntsipenerako bidean artilleria ertainez kargatutako armada nazionaleko kamioi-karabana oso luzeari bide eman behar izan zioten. Bikoteak, goanteak kendu gabe, txalo jo zuen, plaza erdian karabanak harrapatu zuen beste jendeak bezala. Txaloaldiak hiru minutu eta hogeita hamabi segundo iraun zuen. Fanal gorriko kamioiak plaza utzi zuenean euren garaipenetarako bidean, andereak ikusarazi zion Libertad plazarantz jo nahi zuela, ez ezergatik baizik bidean zeukatelako. Behin bertan, Pueblatik barrena, San Lesmes plazatxoraino iritsi ziren eta orduan andereak begi urdin izoztuko gizonarengana itzuli eta esan zion, hi izango haiz nire Goel.

—Zer?

Orduan arnasa-hodeitxoak begi urdin izoztuko ahotik irteten ziren, desorientaturik.

Hasteko, nahiz eta gizona zaharragoa zen, andereak hika egin zion, lehen unetik argi gera zedin nork agintzen zuen. Eta gero irribarre ederra oparitu zion. Arnasa-hodeitxo desorientatuak egiten jarraitzen zuen gizonak. Asmo didaktikoz, Elisendak aita eta nebarekin gertatutakoa azaldu zion eta harritu zen gizonak ezer ez zekielako, eta hark esan zuen urteak zirela ez zela Altronen bizi. Ez, egitateak ez zeuzkan entzunda, ez. Ikaragarriak, e? Eta zer nahi duzu nik egitea?

—Aitaren eta nebaren heriotza mendekatzeko ardura hartzea.

—Ostia. –Murtxikatu egin zuen baina aingeru haren aurrean esan izana sentitu zuen.

—Justizia egin beharra zagok. Estriktoki, justizia. Benetako errudunen gainean jausiko den Jainkoaren justizia.

Begirada urdin izoztuak emakume erakargarri hura errepasatu eta esateko zorian egon zen, ordena zugandik baldin badator, pultsuak ez dit dar-dar egingo. Baina garaiz isildu zen. Ostera errepasatu zuen harrituta, zeren pentsamendua izozten duen hotza egiten duen arren, anderea lasai asko, hemen erailtzeaz mintzatzen.

—Zein da hire gogoa? –esan zuen berak, didaktikoki.

—Nire zer?

—Ametsa.

—A. Mundua komunistez eta separatistez garbitzea. Falangen eman dut izena.

—Ados. Nik esango diat nortzuk diren Torenako komunistak eta separatistak.

—Agian ezagutuko dut norbait.

—Feliçó etxeko Joan Bringué, Misseret etxeko Rafael Gassia eta Nasiren Maria etxeko Josep Mauri. Eta egin ez baina barre egin zuen besteren bat nire neba gasolinaz blaitu zutenean.

Isilik egin zituzten pauso batzuk. Euren zapaten azpian krak-krak egiten zuen hotza zapaltzen zuten. Bat-batean, gizona gelditu eta so egin zion. Oso eder aurkitu zuen:

—Eta zergatik egin beharko nuke?

—Kontratu bat sinatuko diagu. Betiko konponduta geratuko haiz.

—Mariaren etxeko Josep ezagutzen dut.

—Lehenengoz aztertu sinatuko diadan kontratua eta gero esaidak besterik ezagutzen duan.

Xehetasunez azaldu zizkion, baina tonu mekaniko samarrean, exekuzio bakoitzaren truke jasoko zuen dirua eta bizitzan zehar izango zuen egoera abantailatsua. Eta orduz geroztik bien artean eduki beharko zuten harremana. Baietza ematen badidak, zin egiten diat nire heriotzeraino beteko dudala nire zatia.

—Armada iritsiko denean, untxiek bezala alde egingo dute.

—Ala ez. Eurek ez dakite edozertarako prest nagoela. –Aire izoztua irentsi eta esan zuen–: Edozein moduz, haiek alde egin baino lehen harrapatzea espero diat.

Gizonak bi segundo pentsatu zuen. Irabaziak kalkulatu eta xehetasunak kalibratzen zituen:

—Eta soldaduek garbitzen badituzte ni iritsi baino lehen?

—Inolaz ere ez. Neronek zigortu nahi ditiat. Zigorra pertsonala izan dadila. Nirea. Nire Goelena. Hik zigortzen badituk, nik egingo banu bezala da. Beste norbaitek egiten badik, ez duk kobratuko.

—Ulertzen dut. Baina nola...

—Ni arduratuko nauk nolaz. Ahal duan azkarren joango haiz Torenara eta informa nazak. Erabakitzen dudanean itzuliko nauk ni. Zehaztasunez prestatu behar da dena.

—Adibidez?

—Frontean merituak egin behar dituk. Orduan Torenako alkate egingo haut.

—Hik? –Eten hotza–: Zuk?

—Noka egin ahal didak. Onartzen al duk nire Goela izatea?

—Zer esan nahi du Goel horrek?

—Onartzen duk? Adorez al hago?

—Azaldu didazun tratua betetzen baduzu... –Oraindik zalantzakor, gainetik kezka bat kenduz-edo–: Zer esan nahi du Goel horrek?

—Odol-mendekatzailearen figura biblikoa. Onartzen duk?

—Sinatzen dudan ituna azaldu didazuna baldin bada, ongi iruditzen zait. Baina...

Begietara so egin zion. Andereak eutsi egin zion begirada hari.

—Baina zer.

—Baldintza batekin onartzen dut.

—Zein.

—Txortan egiten badugu.

—Zer esan nahi du, txortan?

Hark azaldu zion txortan egitea ezkontzaren erabilpena egitea esan nahi duela, baina kasu honetan ezkontzarik gabe. Erabilpena egin. Larrua jo. Moechissare. Orain. Nahi dugun beste egon gaitezkeen toki bat ezagutzen dut. Zerua ikusaraziko dizut.

Andereak geratu eta burutik zangoetaraino behatu zuen. Zerua. Gizonak une batez beldur izan zuen, dena batera, Torenako kalonjetza, dirua eta txorta popatik hartzera joango zela soka gehiegi eta azkarregi tenkatzeagatik. Baina zuhurtzia guztien kontra, andereak esan zuen justua zela, berak halako eta halako gauzak egitera behartzen bazuen, gizonak, ordainetan… Eta isildu egin zen adin ertaineko bikote bat haien aurretik igaro zelako eta ez zuen disgusturik eduki nahi, izan ere Pitarchtarrek esaten baitzuten Calellako batzuk gogor ohartarazi zituela, antza denez Burgosen ezin zelako ez kalean ez toki publikoetan katalanez mintzatu. San Lesmesen sarreran ostera bakarrik geratu zirenean, andereak irribarre egin zuen, esku guantedun bat masailean paratu eta esan zion, ados, baina orain bertan izan behar dik presa pixka bat badiat-eta.

Gizonak ezagutzen zuen tokirako bidean, andereak azaldu zion Antonio Sagardia Ramos generalaren laguntzaileetako baten aurrean gestio bat egingo zuela Catalunyara Pallars barrena sartzeko zorian zegoen Nafarroako Armadaren hirurogeita hamabigarren Dibisioko Estatu Nagusian biharamunean bertan partaide gisara onar dezan, sargentu... nola duk izena?

—Valentí.

Valentí Targa Altrongo semea, garai bateko kontrabandista, etorkizunean hiltzaile madarikatua eta zonaldeko eta bertoko biztanleen ezagutzaile iaioa, informatzaile perfektua aukeran, patriota ustelezina, falangista, Catalunya desbertebratura argia, ordena, legea eta erlijioa, kosta ahala kosta, sarrarazteko desioz betea. Hark liluratuta erantzun zion mirestuta zegoela hogei ta zenbait urteko neskatxa batek?

—Hogei eta bi.

Beraz hogei ta bi urteko emakume batek gauzak era hartara antolatzeko gai izatea, zehaztasun harekin. Ez, mesedez, ez kendu belarritakoak, ez.

Besoetan zeukan lilura hartatik irteteko gauza ez zen gizon haren arnasotsez beteriko txortaldia izan zen, behar bada egoera hark betiko maitale bihurtuko zituen esperantza eroarekin. Baina haren azkurak emakumearen gorputzean kitatu orduko, Elisendak, altxatu eta, biluzik eta lirain, gizona oraindik hatsanka zegoelarik, aurrean ipini eta esan zion, oso ongi, hauxe huan hire baldintza. Baina inoiz ez nauk aurrerantzean ukituko. Nire prezioa da.

Carmencita. Itzulera-bidaia isilaren buruan, non Bibianak irentsita zeukan neskatxa gauza larriak harilkatzen ari zela eta berak ezin izango zituela gelditu, Elisenda Vilabrú Ramisek (Torenako Vilabrútarra eta Tirviako Pilar Ramisen Ramistarren leinukoa, erdi puta erdi hobeto hari buruz ez mintzatzea Anselm gaixoaren errespetuagatik) ohartarazi behar izan zuen hari Carmencita zeritzala, ausentzia garaian efizientziaz ordezkatu zuela eta lurrin iguingarria zerabilela.

—Ez ezkutatu –esan zion senarrari, zorabiatuta.

—Zergatik? Aurkitzen amaituko zenuke. Ni ezin naiz egun bat baino gehiago txortan egin gabe egon, hau jakin beharra daukazu, erregina.

Elisendak maleta lurrean utzi zuen, Carmencita, nahastuta, gona jantzi eta, oraindik oinutsik, eskaileraburuan erabat jantzera irten zedin itxaroten zuen bitartean.

—Bihar dokumentu batzuk sinatu beharko dizkidazu.

—Ez dago dibortziorik. Ulertzen?

—Ez. Testamenduak dira. Atzo hitz egin genuen hura.

—A. Oso ongi. –Alboko besaulkian jesarri zen Santiago–: Beraz ez zaude haserre?

Andereak ez zuen erantzun. Ez eta begiratu ere. Behar bada indiferentziazko hamahiru urteko hasiera zen. Gizonak insistitu egin zuen.

—Beraz… haserre ez baldin bazaude... proba genezake...

Andreak betertzez begiratu zion, oso urrutitik etorriz, sinatutako paperetatik eta Goeletik eta haren gorputz gogor eta beltzaranetik, eta ez zuen deus esan. Ostera hark.

—Beraz… biok.. hark eta hik eta nik proba genezakeela... Ondo pasatuko genuke.. –Ilusioa begietan–: Zuk egin al duzu sekula?

Soilik Ventura etxeko emakumeak, Manel Carmaniu, Ventura anderearen lehengusu-anaia, eta Altrongo Esplandiu zahar muker batzuk, aurpegiko zimurrak gorroto isilez kargaturik, Misseret etxeko emakumeak, Rafaelen heriotzaz geroztik galtzeko ezer ez zutelako burgoi, Nasiren Mariaren etxeko Felisa, gizona ez dakit non zeukana, ihesean, Cassià Mauri, pentsamendu kamustuko koinatua, Feliçó etxeko Bringuétarren iloba bat eta Aureli Bagà mosen jauna, nora begiratu ez zekiela eta pentsatzen zuena, ai Jainkoa, noiz bukatuko da hau dena, eta Pere Serrallac, zeinak mendebaldeko isurialdeko herri guztietako kanposantu ttikietako ehorzle izateaz gain lapida, harri, eskultura industrial, teila, teilatu eta zoladuretarako harlauzak egiteko negozio bat ireki baitzuen aspaldi, baina oraingoz ongi ez zihoana paper-lan handia ematen zuelako eta mozkin-marjen gutxi uzten zuelako. Nork esango zidan niri negozio bat irekiko nuela, ni predikatzen ibili naizena la bona nobajo de la frateco universala. Soilik hamabi pertsonak izan zituen Venturetak lagun, begi batean bala batek jota eraila izan zenak. Herrian jende askok xuxurlatzen zuen joan joango zirela baina ez zuten Targaren lau gizonen aurrean igaro nahi, bihurgune ttikian zutik eurak, falangistaz uniformatuta, inori pasabidea eragotzi gabe baina kanposantura hurbiltzen zen orori begiradarekin arima arakatuz eta izena zein aurpegia gogoan gordez, Valentí Sorten, Trempen edo Lleidan egongo zen bitartean, benetan gertatutakoa azaldu eta zurrumurruen bazka bihurtu ez zitezen. Jainkoak, baldin badago, kontuan eduki diezaietela, cagoendios. Eta batzuek etxean zeuden, airea entzunez eta pentsatuz, sakonean ondo merezita daukate, nahiz eta Ventura ez zen ez FAIkoa ez beste ezeinekoa. Zerbait egingo zuen; bere lehenaldiarekin, adi. Zein lehenaldi? Hara, kontrabandoa. Zuk bezala. Bai, baina bera askoz lehenago hasi zen; zakur zaharra, bai. Jakina. Eta pena da, mutiko bat zelako, baina ikusiko duzu orain nola jendea zuzen dabilen. Horretan arrazoi duzu. Burua makurrarazi zaie. Eta Gravat etxeko Bibianak dio Elisenda anderea ohean zegoela, eutsi ezinezko migrañak jota. Andere gajoa. Gajoa? Egingo nuke nik negar haren begiekin. Bada, niri esan zidaten ez zegoela bertan, atzo Bartzelonara joan zela. Plazako beste txoko horretan daukagu eta sekula ez dakigu non dagoen.

—Ez dakit zer arraio lur ematen dioten elizatik.

—Bada...

—Ez, ez. Mosen jaunak ezetz esan beharko luke. Ventura sinesgabeko bat da.

—Begira, agian hobe da...

—Ez, ez. Nire ustez... Bolada aldatzen bazait hura salatzera joango naiz, entzun zer diozudan.

Mosen jaunak dena latinez ebatzi zuen eta bertaratutako inori ez zitzaion otu zeremonia luzeago bat eskatzea, soilik atsekabeagatik baikeunden han; hainbeste, bihotza ez baitzait iristen. Emakume adoretsu eta gizon animotsu eskasak kanposantutik beren bizitza desanimatuetarantz alde egin baino lehen, Pere Serrallac Venturarengana hurbildu zen, zeinak diamantea bezain begi gogorrak baitzeuzkan, eta belarrira esan zion, harrizko gurutze bat egiten ari naizela zure semearentzat; nire poltsikotik. Eta hemen arnasa hartzerik dagoenean bere lapida edukiko du, etxearen opari. Eta emakumeak begiratu gabe erantzun zion, Jainkoak ordain diezaizula, Serrallac, eta bere bizitza garratzerantz abiatu zen hura ere, goardia zibilaren salaketarantz, Valentí Targarekiko akusaziorantz, kasernan zurezko banku batean egondako itxaronaldi luzeerantz, poliziak egindako ikerketa xeheetarantz, non

ondorioztatzen zen haurra oihanean ezkutatzen ziren gaizkileren baten biktima izan zela, eta kontuz arazoren bat duzun pertsonak desegoki salatzearekin. Edo zergatik uste duzu zuk eta zure familiak baimenik gabe zure herritik alde egiteko debekua duzuela?

—Valentí jauna da, nire senarra gorrotatzen baitu. Malavellagatik.

—Barrura joan nahi al duzu kalumniengatik? E?

Eta Venturak jadanik ez zekien norengana joan erregutzera, Jainkoarengana ez bazen: horregatik San Anbrosen kaperatxoa hartu, bere txanda baitzen, eta elizara joan eta sarreran abadonatu zuen, oskarbian. Behar bada santuak ez zuen errurik edukiko, baina Jainko Ahalguztidunak bai. Gurutzearen seinalea egin eta orduz geroztik hor konpon.

Serrallacek, zuloa estali eta pala zapalarekin lurra atera ondoren, bakarrik zegoela jakitun, hormaren alboan zeukan tiradera zahar batean arakatu eta pentsamendu fresko batzuk atera zituen, kolore hori bizitzarenak eta urdin sakon zeruarenak, eta harrotu berria zen lurrean landatu zituen, jakinik Valentí jaunari, lore-adierazpen desegoki hura zela-eta atentzioa deitzen bazion, berak esango ziola, entzun, ni egun osoan bainago tallerrean, ez dakit ulertzen didazun. Baina ez zuen izu-ikara alboratu ahal izan ate herdoildua ireki eta haizea ez zela sentitu zuenean. Altxatu eta maisuaren emaztea topatu zuen, zeinak pentsamendu hori eta urdinekin terrore-apologiaz salatu ordez, basalorez egindako sortatxo bat zeraman, koloretsuak, goiztiarrak eurak, baina fintasunez bilduak. Haren aurpegiagatik, bera ere bakarrik egongo zela usteko zuen. Hilobiaren aurrean makurtu eta barrutik pentsatzen zuen, Ventureta, ez naiz lehenago etorri gaur hona ekarri zaituzten emakume adoretsuek gaizki ikusiko luketelako. Baina lore hauek uzten dizkizut eta barka iezadazu, barka iezadazu, barka iezadazu.

—Hamalau urte –esan zuen Serrallacek, akusatzaile.

—Erailketa bat da.

—Zuk diozu hori?

—Banoa herritik –esan zuen emakumeak.

—Eta zure senarra?

Baina hura altxatua zen joateko. Pere Serrallaci so egin eta esan zion, eskerrak hain pentsamendu polit haiek ipintzeagatik.

Orduan birpentsatu, bere poltsan arakatu eta billete bat atera zuen.

—Faborez –esan zuen–, ez dezala lore faltarik izan... zentimo hauek irauten duten bitartean.

Baina Serrallacek ukatu egin zuen diru hura keinu erabakior batekin eta haurrari lorerik ez zitzaiola faltako ziurtatu zuen. Urrutitik irribarre bat zirudien zerbait egin eta emakumeak esan zuen, zu gizon on bat zara. Eta eskua ezarri zuen sabel puztuan, kalonje beneragarria bailitzan.

—Nora zoaz?

—Inork ez du jakin behar. Hemen ez naute maite.

—Zure aurka ez daukate ezer, uste dut.

—Sinets ezazu. –Seinalatu zuen bat-batean–: Zurekin kontaktuan jarri al naiteke, behar izanez gero?

—Tallerrera idatzi ahal didazu. Hobeto. Eskutiz komertziala.

Poltsiko baten hondotik papertxo zimurtu eta zikinak aterarazi zituen. Bakuninen erretratua, atzean *Dieu et l'État* liburuko lehenengo esaldiak zituela, otoitz zintzo baten gisara, esperantora itzuliak eurak, iraungitako egutegi bat, semearen eta emaztearen argazki bat eta dozena bat albaran zimurtu. Hainbeste harriz handitutako eskuekin albaran guztiak leunkiro pasatu eta azkenean txartel bat agertu zen. Rosari eman zion, hitzik egin gabe.

Esker oneko keinu bat egin eta aterantz abiatu zen emakumea. Pere Serrallac jaunak begiz jarraitu zion. Orduan konturatu zen leku hartako atean Rialbeko Evaristen taxia zegoela, sabaian maleta astun batekin eta, bere baitan, zorte ona opa izan zion Pamanon oinak bustitzeko betarik gabe zihoan maisuaren emazteari.

Infalibilitate pontifizioa kanonizazioei dagokienez, fede teologiko arlokoa da eta ez dibinoa, ez eklesiastikoa.

—Eta horrek zer esan nahi du?

—Esan nahi du, andere estimatua, Idazki Santuetan ez dela aipatzen, ez Zuzenbide Kanonikoko Kodean esentzia estipulatzen. Aldiz, izapideetan finkatzen da. –Aste bat lehenago Tina Brosek utzitako toki berberean utzi zuen te-katilua eta broma bat egin zuen–: Denok ezagutzen dugu Elizaren Kodeko espiritu batik bat arauzalea.

Aurrean zeukan damaren begi-nini mortuetan bilatu zuen konplizitatea. Baina ez damak, eta are gutxiago haren begi-niniek, ez zuten erreakzionatu. Alderantziz, Elisenda andereak pixka bat itzuli eta, formak alboratuta, esan zuen, azal iezadazu, Romà, eta Gasull abokatuak esan zio ezen, nik ulertzen dudanez, aita santuak irizten badio postulatzaileak ekarritako frogak nahikoak direla, aktuatu dezakeela. Elizgizon txit argiari:

—Hori da, ez da?

—Zehatz-mehatz, eskerrik asko. Edo hobeto esanda, gutxi gorabehera.

—Bigarren mirakulu bat dago.

—Egia da, anderea. Kontua da Kongregazio Santutik diotela hobe dela bizpahiru urte itxarotea.

—Inolaz ere ez.

Elizgizonak zigarro-pakete bat atera zuen agiri-zorrotik eta, galdekor, so egin zion Gasulli. Honek ezetz esan zuen buruarekin, izututa, eta gizonak ostera gorde zuen paketea. Hori egiten zuen bitartean, ingurura begiratu zuen, etsita. Margo garestiak, altzairu nobleak, aire garbia, isiltasun dotorea.

—Esan nahi da lehen postulatzailea, Bagà mosen jauna...

—Herriko erretore zaharra –esan zuen andereak Gasullengana makurtuz.

—...eta baita August Vilabrú zure osabak ere... oso lan zehatz eta ardurtasua egin dutela. Batik bat, zure osabak...

—Xehetasunetara erabat emandako gizona zen. –onartu zuen andereak. Eta aurrera begira jarraitzen zuen.

—Zu sinestuna al zara?

Mila bederatziehun eta hirurogeita hamabost. Tina Bros eta Jordi Bofill, Europara arnasa hartzera zeramatzan trenean, bien artean zeukaten diru guztia batu eta ondorio hau ateratzen zuten, alegia, Parisen, horrekin, ostatu bat ordaintzeko ere ez zeukatela. Eta elkarri musu eman zioten, baiesteko. Bost urte lehenago tren berbera hartu zuten baina erdi bidean gelditu ziren, euren helmuga Teizé zelako, kandela bat eskuan eta komunio ekumenikoko fedea buruan eta ezpainetan. Mundu osoaren bazter guztietako adiskide bikainak ezagutu

zituzten bizitza osorako baina sekula ez zituzten ostera ikusi, zeren betiko adiskidetasunaren aldeko zina egin arren, Kairon, Helsinkin edo Ljubljanan bizitzeak eta zu aldiz Bartzelonan, horrek kontaktuak ezintzen ditu eta beti inposatzen da egunerokotasun aspergarria. Mila bederatziehun eta hirurogeita hamabost. Lion parean Taizéri buruz mintzatzen hasi ziren, gazteen kontzilioaz eta hura dena hain urrun gelditu izanaz, eta gogoan al duzu neskatila arabiar hura, zertan ote dabil. A, bai, nola zuen izena. Eta mutil ia albino hura. Suediakoa. Ez, uste dut Finlandiakoa zela. Bai, uste dut baietz. Arraioa, izen oso arraroa zeukan hura, bai. Oso gazteak baikinen eta denetan sinesten genuen. Bai. Gazteen kontzilioa, imajinatzen duzu? Lion gaindituta, eskutik oratuta, Roine inguruko paisaiari so, esan zuten, ni Tina, ni Jordi, pertsona askeak, askatasun osoz eta ezagutza osoz erabakitzen dugu, gure bizitzako une batean edo bestean bizi izan ahal dugun edozein fede erlijiosoa ukatzea. Gizon-emakume libreak garelako. Nolako atsedena, Jordi. O, niri bai... Oso modu naturalean baztertu banu bezala. Dokumentu bat egin beharko dugu. Ez dago horren beharrik, zu, benetan. Baina hemendik aurrera nolako atsedena. Eta Jordik halako zera polit hura esan zuen, alegia, pertsona onak izateak ez du esan nahi mezatara joatea baizik leial eta ondradu izatea. Hitz ematen dizut, Tina, leial jokatuko dudala zurekin bizitza osoan, eta Tina harro egon zen bere gizonarekin, Liongo aldirietan, trenean, Parisera bidean.

—Ez, aita. Ez naiz sinestuna.

Baina nire seme bat monje beneditarra da.

—Eta zergatik egin nahi duzu aitortza?

—Ez da zehazki hori. Kontsulta bat egin nahi dizut eta aitortzako sekretupean izatea nahi dut.

—Ea, alaba: aitortzako sekretua... Begira, berdin dio: hitz egin eta lagundu ahal badizut, egingo dut. Eta esaten duzun ezer ez da hemendik aterako.

—Zinez?

—Nola nahi duzu holako gauza batez zin egitea, Jainkoaren maitasunarren?

—Bai, eragozpen bat ikusten dut eta horregatik gomendatu dut Fontelles Agurgarriaren kausa atzeratzea.

—Zein eragozpen? –Elisenda andereak apurtu zuen isiltasuna-. Aurrera. Zintzotasunez.

—Beraz, zu zarela haren heriotzaren lekuko bizi bakarra.

—Zenbat eta zenbat martirik –arrapostu zuen Gasull abokatuak– ordainduko zukeen, beno, esateko modu bat da, emakume hau lekuko bezala izateagatik. Zenbatek! Zenbatek!

—Egia. Baina ordea...

Elisenda anderea Gasullengana itzuli zen, eta hark hurbiltzeko keinu berbera egin eta hunkitu egin zen, aspaldi baitzen hark holako konfidentziarik onartzen ez zuela. Gasullek jadanik ez zuen nardo-usainik somatzen. Musu emateko zorian egon zen. Begi-nini mortuetan, musu.

—Eskaini dirua –xuxurlatu zuen andereak, musuaren ordez.

—Kontrako eragina izan dezake.

—Hemen daukagun pertsona honentzat ez. Eskaini iezaiozu ogerleko-multzo eder bat.

—Zenbat?

—Zer dakit ba nik! Hori zure lana da.

Irribarrez hasi ziren bi-biak eta orduan Gasull abokatuak azaldu zuen ezin zutela gehiago itxaron eta Fontelles hautagaiak martxoko prozesuan sartu behar zuela, Vatikanon agindu zioten bezala. Orduan eman zuen aditzera kopurua, gehiegizkoa, ozenki.

—Norbait beatifikatua izateko, maila heroikoan bete behar izan ditu bertuteak. Horrela esaten da, ez da?

—Nora joan nahi duzu?

—Imajina ezazu Elizak fedegabeko pertsona bat beatifikatzeko zorian dagoela.

—Suposamendu absurdoa da.

—Ez. Errealitate bat da.

Mosen jaunak ipurdia mugitu zuen aitorlekuaren ilunpean, deseroso. Hitzak bere oihartzun laburrean Seuko nabe erraldoiaren zokoren baten bidean desegin zitezen itxaron zuen. Orduan, hitzen arrastorik geratzen ez zenean, jarraitu zuen:

—Eta hik nola dakin... Zuk nola dakizu hori horrela dela?

—Irizten diot ezin dizudala aitortu. Zer egitea aholkatzen didazu? —Festa abortatzen dut edo hor konpon santuak eta beatoak?

—Alaba… Esaten didazun hori hain irreala da...

—Beraz aita santua erratu daiteke?

—Begira, alaba: aita santuaren infalibilitatea kanonizazioei dagokienez ez dago idazkietako ezein textuk berretsita.

—Eta horrek zer esan nahi du?

—Ez dela fede dibinoaren arlokoa. Ez eta fede eklesiastikoaren arlokoa ere. Elizak ez baitu doktrinarik igorri gauza horretaz.

—Beraz aita santua erratu eta ez dela ezer gertatzen.

—Nik ez nuke horrela adieraziko.

—Egunotan dokumentatu egin naiz: santu batzuk benetako barrabanak ziren.

—Alaba, kontrola ezazu zure esateko modua, mesedez.

—Alexandriako San Zirilo, Hungriako San Esteban, Castillako San Fernando, Josemaria Escrivà, san Vicente Ferrer, san Paulo... Denak ziren edo jende biolentoa edo botere-, ohore- eta aberastasun-goseak.

—Ezin dut tonu horretan hitz egiten jarraitu.

—Oso ongi. Ez zara asko aldatu. Hurrengo beatifikazioetako bat salatzen dut.

—Eta zergatik salatuko zenuke?

—Ez Jainkoagan ez Elizan sinesten ez zuen jaun bat beatifikatu nahi dutelako. Ustez martiri hil omen zena.

—Heriotza ederra..

—Ulertzen didazu, mosen jauna. Ez Jainkoagan, ez zeruan ez erredentzioan, ez santuen komunioan, ez Eliza Ama Santuaren autoritatean sinesten ez zuena. Ez santuengan ez infernuetan.

Biak isildu ziren. Bakoitzaren indarrak neurtzen baleude bezala. Esandakoa berretsi zuen Tinak:

—Heroi bat izan zen baina Elizako martiria batere ez.

—Baina zuk zergatik eskatzen didazu iritzia, alaba?

—Eragotzi nahi dudalako.

—Zergatik, holako ezertan sinesten ez baduzu?

—Aipatutako pertsona horrek ez duelako bere memoria hainbeste aldatzea merezi?

Isiltasuna. Ilunpea aitorlekuan. Hainbeste denbora ezen une batez Tinak pentsatu zuen mosen jauna alde egina zela, zalantzak bizkarrean. Arazo hartan tematuta zegoela onartzeko denbora ere izan zuen, Elizarekin minduta nagoelako, semea nire iritzia eskatu gabe lapurtu didalako, ezkutuan, gauez, ni, ez Jainkoagan, ez santuen komunioan ez transubstanziazioan sinesten ez dudana, Oriol bezala, dohatsuz mozorrotu nahi duten makia.

—Nire aholkua da kaka ez mugitzea, alaba –esan zuen urteren buruan, ahots lehorrez.

—Eskerrik asko, aita.

—Utzi sinestunen gauzak sinestunek konpon ditzaten.

—Izan ere, hain zuzen, nire lagunak ez baitzuen sinesten.

—Esan dut ez mugitzeko gehiago. Aholku bat nahi zenuen, ez da?

Mosen F. Rella, irakurri zuen Tinak aitorlekuaren aurrealdeko txarteltxoan. Mosen Rellak gomendatzen dit kaka ez mugitzea, pentsatu zuen Tinak Seutik irtetean, eta arratsaldeko argitasun hotz eta zalantzakorrak txundituta geratzen zen. Buruko mina zeukan. Sorterako itzulera-bidea kateekin egin behar izan zuen Cantóko Mendatea irinez beteta zegoelako. Ondo ilunduta zegoen etxe aurrean aparkatzen ari zenean eta soilik arratsalde erdia zen. Gora begiratu zuen, leihoetarantz, eta pentsatu zuen, Jordi ez da oraindik itzuli. Autoa ixten ari zela gizon altu eta argal batek, zamarra lodia eraman arren hotz-aurpegiarekin, hurbildu eta, lurrin-hodeitxoa askatuz, galdetu zion Tina Bros ote zen, maistra.

—Bai. Zer nahi duzu?

—Hitz egin al dezakegu zure etxean?

—Zertaz?

—Garrantzitsua da.

—Baina zertaz?

Jordik istripu bat izan du. Arnau barranko batean erori da tertzia orduan; Juri Andreievitx zuhaitz batera igo da eta ez daki jaisten. Ez, ama...

—Oriol Fontellesi buruz.

—Zer?

—Oriol Fontelles. Igo gaitezke?

—Ez. Zer nahi duzu?

—Ulertuta daukat zuri ez dagokizun dokumentazioa daukazula eta...

—Nik? Eta jakin al dezaket zuk nola dakizun?

—...eta nire burua eskaintzen dut haren hartzailearenganaino iristarazteko.

—Ezagutzen al duzu hartzailea?

—Bai. Haren alaba.

—Esan didate ez zuela alabarik izan.

—Ikusi al ditzaket paperak?

Tina eraikinaren aterantz abiatu zen. Behin han, segika izan zuen hotz-aurpegiko gizonarengana itzuli zen:

—Ez. Eta esaiozu Elisenda andereari ez kezkatzeko, sekula ez dizkiodala paperak emango.

—Zein Elisenda anderea?

—Ondo ibili.

Sartu eta giltzez itxi zuen atea ezezagunaren aurrean. Orduan angustia bizkarrean igo zituen eskailerak. Etxera orduko, atea sarrailaz itxi eta Jurirengana begiratu zuen, zeina Jordiren eserlekuan jesarrita erlaxatuki hausnartzen zegoen. Gose handia zeukan arren bazkaltzerik izan ez zuelako, ordenagailuaren aurrean eseri zen Oriol Fontellesen koadernoen transkripzioa bukatzeko prest, nola eta zergatik ez zekielako, baina bazirudien orduz geroztik kontu handiz ibili beharko zuela. Zhivago doktorea antzeman zuen bere atzean, zeinak atseden landuan eragotzita, bere aharrausietako bat egiten zuen, eta haren inbida sentitu zuen.

Bigarren margoketa-saioan erabaki zuen. Targa alkatea bere mahaira eserita, margolariarengana begira, haren sekretu guztiak arakatu nahi balitu bezala, aurpegia gogor, begiak zuri izoztutakoak, angustia eragiten dutenak.

—Gizon handiak erretratatuak baino gehiagotan margotuak izan dira. –finkatu zuen.

—Bai.

—Vilabrú andereari egin zeniona baino hobeto atera beharko zaizu. –Bigarren sekretua.

—Erretratu bakoitza ezberdina da. Ez mugitu.

—Zu ez zara inor niri esateko zer egin behar dudan.

Oriolek turmentin-potera bota zuen pintzela, eskuak zikinerako zatarrarekin garbitu eta hasperen egin zuen. Berak ere ezagutzen ez zuen suminarekin esan zuen, hemen nik agintzen dut. Eta ez baduzu gustuko, bila ezazu beste bat. Urrats beharrezkoa zen. Hura esan gabe imajina ezina zen beste guztia.

Isiltasuna. Duda-muda moduko bat Valentí Targaren begietan. Barre-algara jotzea erabaki zuen arte, posizioa desegin, tentsioa uxatuz, eta esan zuen, arrazoia daukazu kamarada, arrazoia daukazu. Medikuarengana zoazenean bezalakoa da. Eta eskumuturrak batu zituen, adieraziz-edo artistaren esku zegoela, atxilo. Bera gizon handia besterik ez zen.

Orduan bururatu zitzaion, hasierako matxinadaren ondorio logikoa balitz bezala. Argi zegoen Venturetarengan pentsatzen zuela. Baina baita Rosaz eta inoiz ezagutuko ez zuen alabaz ere. Eta Ventura amarengan, zeinarekin Ravalen topo egin zuen eguerdi hartan. Izatez, haren duda-muda eta mespretxuzko begiradarekin egin zuen topo, zergatiez beteta, zein doilorra zaren, maisu. Eta maisua esatera zihoanean, ez da esaten dabiltzana, nik ez daukat zerikusirik harekin, zeraman pertza kale erdian utzi eta etxerantz abiatu zen andrea minez dar-darka, eta Oriol erabat miserable sentitu zen, beldurra sentimendu larriagoen atzean zokoratuta gelditzen hasteraino. Eta orain, gizon handiaren aurrean, jabetu zen batek zartagina kirtenetik oratuta bazeukan, kirtenetik oratuta zeukala. Zartagina kirtenetik oratuta edukitzeko gai izanez gero, ez zuela inongo beldurrik izan behar. Edo ia batere ez. Alkatearen algararen aurrean onarkor irribarre egin eta berriro heldu zion pintzelari. Baina bera ez zen betiko Oriol hura. Berehala nabarmendu zuen, Targaren alkandora urdinaren poltsikoan bost fletxa falangistak markatu zituen trazo ziurretan. Ekimenaren jabe izatean zetzan dena. Uste dut. Tira, imajinatzen dut. Eta heriotzaz ez pentsatzean.

Torenan, asko jota, behi baten marrua entzuten zen, haur baten bat-bateko negarra, iluntzean alorretik datorren gurdiaren zur nekatuaren pindarra eta Elvira Lluísen arnasa asmatikoa, aurreko pupitrean eserita bizitzeko gutxi falta zaiela ez dakitenen lasaitasun harekin bederatziko eskalaren biderketak egiten, bizitzan denetarako denbora ez dagoela badakitenen begi handi desesperatuekin begira. Bartzelonako Fontanella kalean, ordea, bizikleta baten tinbre errepikakorra iristen zitzaion, ke inposiblea jaurtitzen zuen izotz-kamioiaren tarrapata, bere aurrean alaiki ireki-itxi zebilen trolearen ateak eta udaltzainaren txistu premiazkoa, zeinak Catalunyako plazarantzago motore afonikoko taxi-saldo bat

aurrerarazten zuen. Baina berak ez zuen bistatik kentzen uzten lokalaren sarrera, trolebus baten zain zegoen plantak egiten, gora eta behera begira norbaitek jarraitu ote zion, eta jabetu eta ohartu, bera bai zebilela norbait zelatatzen. Valentí Targa dendatik atera zenean, poltsikoan pakete bat bilduta ipiniz, ezker-eskuin begira segada baten esperoan edo haren bila balebil edo soilik ezker-eskuin so eginez, Oriol beste espaloitik ibiltzen hasi zen, Targaren urrats batzuk atzerago. Baina berehala, bistatik galtzeko beldurrez, kalea gurutzatu zuen taxi astun batzuen aurrean eslalona eginez. Kapelaren hegala jaitsi eta bere geroko biktimaren atzean ipini zen. Torenatik ibilbide gautiar, izoztu eta amaiezin batean zehar eraman zuen motor tuberkulosoaren aurretik igaro eta begirada apartatu zuen, era horretara espiatzen ibil zitekeenari ziurtatzeko-edo berak ez zeukala zerikusirik motor akusatzaile harekin ez eta marrazketa-saioan atsedena hartu eta astelehenean jaia zelarik erretratuarekin aurreratu zezaketela esan zion unean erabakitako plan txoroarekin, Valentí jaunak bizi-bizi erantzun zionean ezetz, astelehenean Bartzelonara jaisteko baliatuko zuela (eta ahotsa apaldu zuen, norbaiti interesatuko balitzaio bezala haiek zelatatzea) arrazoia galarazten didan lore eder batekin elkartzeko. Valentí Targak burua astindu zuen oihalaren aurrean, oharkabeki begirada galdua, erretratuaren emaitzak berarentzat interesik ez balu bezala edo behar bada lore ederrarengan pentsatuz.

—Eta zuk gauza bera egin beharko zenuke –erabaki zuen pixka batera, bihotz erdian seinalauz–. Izorratu zaitu? Bada olga zaitez, bila ezazu burua galaraziko dizun eme bat.

—Agian arrazoia daukazu –esan zuen hobeto pentsatzeko pintzelari oratuz–. Zergatik ez zara jesartzen eta aurreratzen dugu pixka bat?

Alkandora urdin loriotsua margotzen ari zelarik, pentsatu zuen astelehenean Targa bakarrik joango zela Bartzelonara, ez zuelako lekukorik nahi, eta inork ez zuen jakingo eguna errepidean emango zuela Bartzelonako lore eder batekin txortan egiteko. Orduan hasi zen benetan hausnartzen eta halako pentsamenduak zirela-eta beldurrez eta miresmenez izerditzen.

Gauera arte ez zitzaion otu nola, Valentíren begirada dirdaitsua gogoratuz. Behar bada goardia jaitsita harrapa zezakeen. Besterik ez bada adats kizkurreko eta bigote fin eta lapa bezala itsatsitako paio hura gabe. Argi mintza ahal badizut, eta esan dizut orri hauetan argia izan nahi dudala, ene alaba, ez nuen ulertzen nola gizon hark zortzi ordu egingo zituen errepide batean emakume batekin elkartzeko. Eta ez hartu gaizki. Baina asko ziren lorik gabeko gauak, Venturetarengan pentsatuz, Ventura amaren begirada isilean, herri erdiaren erdeinu mutuan, bakar batzuen txalo ez bilatuetan, denen beldurrean, eta batik bat zure amaren mespretxuan, eta zurean, koldar bat naizelako ezagutzen ez dudan alabaren mespretxuan pentsatzen... Orduan erabaki nuen, falangistaren alkandora urdinaren itzalak pintatu orduko, aurkikuntzak irekitako begiekin, ezen koldar ez izateko modu bakarra heriotzean tramite bat bezala baizik ez pentsatzean zegoela. Ez da horrek ausart egiten zaituela, baina lagundu egiten du. Orduan plan perfektua harilkatu nuen. Ongi, perfektua zela uste nuena.

Goizeko hiruretan, Valentík hirugarren tiraderan gordetzen zuen Browninga hartzeko Udaletxetik igaro ondoren, tresna hark nola funtziona zezakeen gutxi gorabehera jabetu ondoren eta kargadorean sei bala zeudela konprobatu ondoren, Torenatik atera zen Guzzia isilean arrastatuz eta koldarra izateagatik eta ekintza burugabe batekin errukia eskatzen saiatzeagatik oraindik salatzen zuen herri osoaren begirada konfidakaitzak bere gainean sentituz. Errepidearen lehen kilometroa motorra itzalita eta argirik gabe egin zuen, erregutuz

goardia zibilaren ezein bikoteri bururatu ez zekion toki haietatik erronda egitea. Sortera iritsi baino lehen jada eskuak izoztuta zeuzkan goanteak zeramatzan arren, eta oraindik lauzpabost orduko bidaia geratzen zitzaion.

Luma estilografikoa erosiko zion, pentsatu zuen, Valentí jaunagandik bost urrats atzerago. Painelua aurpegira eraman behar izan zuen, durduzatuta, zintz egiten zuen plantak eginez, izan ere Valentí Targa bat-batean itzuli egin baitzen bestearen begiradak garondoan ziztatu balio bezala. Oriolek madarikatu egin zuen bere burua hainbeste fidatzeagatik. Taxi bati seinale egin zion, hura geratu egin zen, barkatzeko esan zion, soilik galdetu nahi ziola zer egin behar zuen Colonera iristeko, eta taxistak Colonen ama gogoratu eta enigma argitu gabe jarraitu zuen, eta orduan betertzez begiratu eta juxtu Valentí jauna Lluria kale-hasierako atari batean nola sartzen zen ikusteko doi moztu zuen.

Valentí Targa astelehen hartako jai-goiza zalantzak zekarzkion emakume baten besoetan pasatzen ari bazen, ametsetan, samurtasunaren kotoi barruan biziz, jende asko eguzkia hotzaren gainetik mantentzen ote zegoen arakatzera altxatu eta Escullerara edo Tibidabora joateko planak egiten zebilen ume ondo abrigatuak asaskatzera. Eta Oriolek atariari begira eman zuen egun dirdaitsua, poltsikoan zeraman pistola laztanduz, pentsatuz, gogorregia izan zara nirekin, Rosa, lehenago hitz egin behar genuen, Rosa, ni ez naiz faxista bat, Rosa, soilik beldurti bat naiz, Rosa, baina orain nola konpondu begiratzen nabil, Rosa; badakit beranduegi dela, baina beranduegi izateagatik sentitzen dudan amorruak narama beldurra erdi kontrolatzera. Nola du izena gure alabak? gose naiz, Rosa, baina ez nuen begirada ataritik erretiratu nahi. Eta ez banaiz bizirik ateratzen, Rosa, eta Ventura, nahi dut jakitera irits zaitezten Valentí Targak ondo mereitza zeukala begi batetik sartzea saiatuko naizen tiroa, berak Venturetarekin egin zuen bezala. Jainkoaren justiziaren izenean, existizten bada, ezetz uste dudan arren. Tira, ez dela existitzen. Azaldu iezaiozu gure alabari, Rosa. Horixe pentsatzen nuen, alabatxo.

Tinak idazteari utzi eta argira hurbildu zuen Oriolen koadernoa. Azpimarra moduko bat bi lerroen gainean. Ezinezkoa zen bereiztea zer idatzi eta gero zer ezabatu zuen Oriol Fontellesek erabakiak hartzeko eta bakardadea hain gogorra izan ez zedin koadernoei esateko ordu hartan. Orduan beste ziztada bat sentitu eta minarekiko, heriotzarekiko, Jainkoarekiko, existitzen bada uste baitut ezetz, beldurra izan zuen, Oriolek bezala; Jordirenganako desmaitasunarekiko eta, batik bat, bularreko ziztadarekiko, zeina, mehatxu bat zen, medikuak esan baitzion mozten ez bazuten, gorputzari itsatsitako erloju-bonba bat bezalakoa izango zela. Baina beldurrik ez izateko, azpimarratutako bi lerrootan kontzentratu zen. Zer gertatuko zen Bartzelonan urtarrileko astelehen hotz hartaan, galdetu zion bere buruari ziztadan ez pentsatzearren.

Gertatu zena zen, eguerdian, Valentí Targa jauna kalera atera zela Lore Ederra eskutik. Lorea, emakume erdi gazte erdi heldu bat zen, bai, ikusteak poza ematen zuena. Gertatu zen Arc de Triomferaino jarraitu ziela Trafalgar kaletik. Gertatu zen biktimak Ciutadellako Parketik oso gertuko jatetxe batean sartu zirela, eta Oriolek pistolaren asegurua kendu eta arnasari eutsiz sartu zela.

Oso erraza da hiltzea. Hain da erraza norbait hiltzea. Eta are gehiago homizida bultzatzen duen indarra gorroto hutsa denean eta, oso garrantzizkoa, zartagina kirtenetik oratuta

daukazunean. Horregatik, Oriol jatetxera sartu zenean (Estació de Vilanova jatetxea, eguerdiko ordu bi eta erdiak, bost mahai beterik, txokoko erreserbatua, okupatu berria. Itzal batek sarrerako kristala ilundu eta atea ireki zuen), kaleko argi lausoagora begiak egokitu ondoren, Valentí Targa bistaratu eta haren mahairantz abiatu zen erabakia bihotzean eta Venturetaren eta bere alaba ezezagunaren aurpegia aurrean edukitzen saiatuz. Lore Ederra bizkarra hormari emanda eserita zegoen, eta zioen, hemen ondo dago, ez da, maitea? eta Valentí jauna, bai, bai zioelarik, bizkarra heriotzari emanda esertzen ari zen. Oriol Valentíren garondoraino iritsi eta pistola poltsikotik aterata zeukan. Orduan, aurrean zeukan emakumeak zer gertatzen zen erabat ulertu ezinik ahoa zabaltzen zuen bitartean, Oriolek Altrongo Roia etxeko Valentí Targa, Torenako alkatea, ekarri zuen gogora, innoblea, hiltzailea, desleiala, kementsua, burgoia, metro hirurogei ta hamasei, bere lagunen eta soilik bere lagunen laguna, bere etsaien etsaia, eta eskua dardarka hasi zitzaion bere kasa, hiltzea ez baita uste zuen bezain erraza, batik bat biktimaren izena dakizunean; batik bat hilko duzuna gorrotatu bai baina mespretxatzen ikasi ez duzunean. Eta eskua hain modu erridukuluan zebilkion dardarka, hurbileneko mahietako bezero batek harantz begiratu zuen oharkabean, Oriolek bi eskuekin hartu behar izan zuen pistola Valentí taula gainetik makurtzen zelarik garondoa hobeto eskaintzeko, eta esateko puntuan zegoen, hain fantastikoa zara ezen bazkaria amaitu eta itzultzen garenean, baina esaldia bere hasieran moztu zuen, ohartu baitzen ezen Lore Ederrak ahoa zabaldu eta bere bizkarretik begiratzen zuela atzerantz, eta harritu egin zuen emakumeak ez erreakzionatzeak, Lore Ederra oso sentikorra baitzen losintxekin, eta orduan konturatu zen, izan ere nola nahi duzu erreakzionatzea oraindik ez... Orduan gertatu zen eztanda ikaragarria belarri ondoan.

Oriolek behin, bitan eta kitto egin zuen tiro, hirugarrenean ez baitzen balarik atera, eta Venturetarengan eta haren begi nerabe, berunezko zulo bihurtuan pentsatzeari utzi gabe egin zuen. Orduan arma poltsikoan sartu eta korrika egin gabe, eta jatetxeko sarreran bi gizon petrifikatuak ikusi gabe atera zen. Hala eta guzitz ere jabetu zen bietako batek esan zuela, ama urdearen seme halakoa, baina ez zen azalpenak eskatzeko gelditu, hiltzaileen presa baitzeraman. Kristalezko atea bere atzean itxi zelarik Lore Ederraren txilioa eta aulki erretiratuen zarata entzun zuen, baina bera ez zen itzuli, Triomf metroko eskailerak launaka jaisten ari baitzen jada, eta pentsatu zuen bizitzan behin gauzak ondo ateratzen ari zitzaizkiola, konboia bazetorrelako. Agian ez zuen horrela pentsatuko jakin izan balu gizontxo baxutxo eta aurpegi anonimoko bat jatetxetik jarraitu eta metro berberean sartu zela. Geldialdi baten ostean, Oriol Fontanella kalean zegoen eta itzal baxutxoa bere atzean. Ordu erdi beranduago errepidetik zihoan, Molins del Reirantz, arnasa oraindik basatiki artega, eta pentsatuz, hil dut, gizon bat hil dut mendekuagatik, hil dut, Valentí Targa hil dut, eta ez da harro sentitzen naizela, alaba maitea. Baina zure amarengan pentsatzen nuen egin nuenean; eta Venturetaren amarengan. Motorraren gainean, estaltzen ninduen koldar-azala kentzen hasia nintzela sentitu nuen eta berdin zitzaidan jakitea, harrapatzen baninduten inork ez ninduela garrotetik libratuko. Ilunabarrean eta ilunpean Torenara irtsi eta egin nuen lehen gauza pistola bere lekuan uztea izan zen, deskargatuta, ez bainekien zenduak non gordetzen zituen balak, eta Marés etxera sartu nintzen kafe bat hartu eta Lleidatik etorri berri nintzela jakinaraztera, eta Modestek, zatarra marmol aratzean pasata, esan zion, bada Valentík deitu zaitu orain minutu batzuk.

—Zer? –izua eztarriko sagarrean itsatsita.

—Bada, hori. Kafea eta ttanttak?

—Alkate jaunak?

—Bai. Orain ordubete-edo. Zutaz galdetu du.

Izututa, Oriolek, arima beldurrez izerdituta, jakinarazi zuen gaiak aspertu egiten zuela.

—Seguru hura zela? –esan zuen.

—Eta zergatik ez zen izango? –esan zuen, ttantta aurrean utzita–: Galde iezaiozu telefonoetako Cintetari.

Tuca Negrarantz korrika irten eta izei bihurtu ordez, sasitzan sartu eta bertan murgildu ordez, kafea hartzeari ekin zion. Soilik pistola bere tokian utzi izana damutu zitzaion. Soilik hain gaizki egin izana damutu zitzaion, zeren bezeroetako norbaiti edo Lore Ederrari berari galdetu hutsarekin, izango baitzuten bere deskripzioa, eta Valentí Targa eta bere gizonak ipurdia usaintzen izango zituen. Bizitzeko hain ordu gutxi edukitzea damutu zitzaion. Eta hain iluna izan zen bere damua Elisendaren etxera joateko ausardiarik eduki ez izanagatik, aurpegiratzeko, ziurtatu zenidan Venturetari ez zitzaiola ezer gertatuko, eta esateko, hainbeste egun ez zaitudala ikusi, eta haren baitan sartzeko, xehe-xehe margotu zituen beso haiek besarkatua izaten uzteko. Apeta ezinezkoa ezinezko emakume batekin. Kafea trago batez amaitu eta, Modesti begia kliskatuz, mihia klaskatu zuen, aseta bailegoen.

Marés etxetik irten zenean, Gaueko Izarra zen nagusi mendebalde hotzean, eta heriotzaren izulaborria sentitu zuen.

Ordu berean, Gravat etxeko sukaldean, Bibiana goizean iritsi eta oztopatu ahal izan zuen eskutitza pusketa minuskuluz desegiten zegoen, non Joaquin Ortega delako batek Anselm Vilabrú Bragulat jaunari aditzera ematen zion, nire emazte estimatua hil berria dela eta haren azken borondatea betetzearren, lerro hauek bideratzen dizkizudala, esateko, jakin dezazun Pilar ez dela damu garaiz zure albotik erretiratu izanagatik, indiferentzia, destaina eta borondate txarra baizik ez baitzuen jaso, eta jakinarazten dizut sentitu zuen bakarra izan zela, ezen behin Mendozan zoriontsu finkatuta (non, egia esan ez zait lanik falta izan eszenatokian), Elisenda ttikiarekin eta Josepekin kontaktua galdu izana, koskortuta egongo baitira. Erregutzen dizut igorri ditzazun sentimendu hauek, zeren, azken finean, bere seme-alabak baitziren. Nola ahal du, nola ahal du emakume honek, pentsatzen zuen Bibianak, hau esateko kapaz izan, goiz haizetsu hartako igande hartan berak geldiarazi baitzuen, maleta eskuan, bere betiko ezgaitasunarekin kale bazterreko atea arakatzen zegoela, eta berak, zaratak iratzarrita, gertatzen zenaz jabeturik esan baitzion, anderea, kontu egin zure seme-alabak oraindik umetxoak direla, eta hark gogor begiratu eta esan baitzion, ez sartu eskatzen ez dizuten tokian, kokoterino nago umetxo negartiekin, leporaino nire senarraren desinteres eta mespretxuekin, beraz baztertu eta utz iezadazu maitasunaren deiari jarraitzea behingoz nire bizitzan, eta Bibianak baztertu behar izan zuen jaunari abisatu ezinez, egunak baitziren moroak oldartzen ari zela. Ezin diozu hori egin neskatxari, anderea, esan zuen azken errekurtso modura. Eta nere bizitza, Bibiana? Erdi negarrez esan zuen, ireki ezazu atea edo bertan hilko zaitut, eta Bibianak kaleko atea ireki eta esan zuen, madarikatua izan zaitez betiko, anderea. Tirviako Ramistarren Pilar Ramis Gravat etxetik, Bibianaren bizitzatik eta neskatxaren eta Josepen bizitzatik desagertu zen, zeinak lo zeuden goian, eta jaunaren bizitzatik, hura moroak hiltzen baitzebilen Afrikan. Bibiana ez zen oihu egin eta aingeru guardakoa alertatzeko gauza izan. Atea ixten zuen bitartean, neskatxari eta Josepi nola azalduko zien besterik ez zitzaion bururatu.

Bibianak eskutitz-zatitxoak jaso, sukaldeko sutara bota eta emakume haren oroitzapena betiko ezabatuta gera zedila ziurtatu zuen, ez neskatxari ez Josep gajoaren memoriari zein Anselm jaun zorigaitzezkoari kalte gehiago egin gabe.

—Zertan ari zara?

—Ez, tila bat prestatzen ari naiz –erantzun zuen neskameak–. Zuk ere nahi al duzu?

Elisenda andereak ez zuen sekula jakin gau hartan edan zuen infusioa bere ama lausotuaren azken berriekin berotuta egon zela.

25

Gaua esna igaro zuen, eskolan, Valentí jauna eta haren falangista-komandoa etorri zain. Gogor joko al zuten atea? Eskolako kristalak apurtuko al zituzten? Ez: bat-batean sartuko ziren, tiroka. Oso mantso joan ziren gau hartako orduak. Eguzki izoztua Cantóko mendatetik ageri zelarik, inork ez zuen urratu Oriol Fontelles, garai bateko koldarra eta berrikitan kausa galduen heroi ezgaitua, proskritoaren eskola-aterpearen bakea.

Valentí jauna eguerdian azaldu zen, umeak etxera joanak zirenean bazkaltzeko. Bizirik. Inongo zulorik gabe garondoan. Bere zigarro piporra ezpainetan eta topatzen zituen gazuak zulatzen zituen begirada likidoa, sekula baino urdinago eta hotzagoa, eta Oriolek bere buruari galdetu zion, hementxe garbituko nau edo lasai hartuko du. Kapaz da plazan egiteko. Edo ez, jakina: Sebastiàren alorrean. Hamazortzigarrena izango da.

Valentí jauna gelara sartu eta segundo batzuk egon zen Orioli so egiten, pentsatzen-edo, tu quoque. Orduan eskua poltsikotik atera eta seinalatu egin zuen:

—Gaur saioa daukagu, koadroa bukatuta ikusi nahi dut-eta.

—Bada...

—Seietan.

Eta besterik ez. Erreferentziarik ez. Margoketa-saioa. Ez eta ere, ba al dakizu zer gertatu zitzaidan atzo. Ezer ez. Eta harrezkeroztik Oriol ez zen hari begietara begiratzen ausartu. Zin egiten dut garondora destatu nuela, desenkusatu zen.

Arratsaldean, afaldu aurreko kopatxoaren orduan, Oriol alkatearen mahaira eseri zenean, meneko, egunero bezala, zu non egon zinen atzo, galdetu zion hark boteprontoan.

—Lleidan. Zergatik?

—Putatan?

—Tira... –Modestek zerbitzatzea itxaron zuen, eta ostera bakarrik geratu zirenean, esan zuen, bai putatan.

Orduan Valentí Targa, erantzun haren zain egon izan balitz bezala, bere kopa trago batean amaitu eta altxatu egin zen. Ezer esan gabe alde egin zuen, bere pentsatmenduek indar handiegiz arrastatuko balute bezala. Eta Oriolek desbabestuta aurkitu zuen bere burua.

Tinak ostera aharrausi egiten somatu zuen Zhivago doktorea eta berriro sentitu zuen harekiko inbidia, aharrausi egiten zuenean soilik aharrausian pentsatzen baitzuen eta gero bigotea hazkatzean, aldiz, bera, Oriol Fontellesen gurutzebidearen goi-une bat ordenagailura pasatzen ari zelarik, gurutziltzatzera eraman zuen unea, Zhivago doktorean pentsatzen zuen, Juri ezin izatearen inbidian, Jordi ilusio guztien traidorearengan, ez al duzu gogoan Taizéko sarreran eraman zenidan musua, e, eta fideltasun-zina, e, ez al daukazu gogoan, Jordi; eta zure leialtasun-aldarria trenean Parisera bidean?, eta pentsatu zuen baita ere une honetan zer egiten arituko ote da Jordi. Ene Jainkoa, ez dadila begiak zuritan ipintzen egon eta ez dezala ahots inpostatu, liturgiko, faltsu eta erritual hura atera eta jarrai dezala mutiko jatorra izaten, halabiz. Azken ikaslea nola desagertzen zen ikusi ondoren, arbela arduraz ezabatuta, estufako errautsak harrotuta, Oriol komunera joan zen eskuetan egun osoan batutako igeltsoa garbitzera. Urak, kasik bere arima bezain hotzak, jasanezinezko mina ematen zion, baina hala eta guztiz ere mantendu egin zituen pixka bat igeltsoaren marka bigundu eta zartatzea ekiditeko. Eta lehortzen zebilelarik, astiro, energiaz, toalla zikinarekin, orbanez beteriko ispiluan finkatu zuen begirada, ez baitzekien zer egin behar zuen, exekuzio-taldeari itxaron edo, auskalo non, Rosaren bila korrika joan, haren aurrean belauniko jarri eta esan, zugatik eta Venturetaren memoriagatik hiltzen saiatu naiz, jakin dezazun nahi dut koldarkeriaren azala erauzi dudala; baina kakapraketan nago, maitea, eta ikusi behar zaitut. Eta aldi berean nire alabatxoa ezagutu, behin koldarra zena baina jadanik ez den baten alaba. Eskuak lehortu eta gero gelara itzuli zen eta, ilunpetan zegoen arren, presentzia arraroa nabaritu zuen. Gela erdian josita geratu zen fantasmak itzaletatik bereizi nahirik. Kanpoan, kalean, ilundurik zegoen eta barrutik oraindik ez zen haur-usaina joan. Baina beste aire bat sartu zen, oihan-usainekoa eta ikatza bezain begirada beltzekoa.

—Nor dago hor? –esan zuen.

Itzal bat askatu zen hormatik. Kaleko bonbilaren argitasun anemikoa leihar zikinetan zehar soslaia argiztatuta, Oriolek hauteman zuen norbanako hark zerbait zeukala eskuan, segur aski pistola bat, eta pentsatu zuen, kitto, amaitu da dena eta nik ezin esan izan diot Rosari jadanik ez naizela koldar bat. Itzala mugitzen ez zelarik, Oriolek etengailuari eragin eta gizona hormaren kontra itsatsi zen eta berak hobeto ikusi ahal izan zuen: zikin, eguratsak belztuta, abrigoko arropa oso maiztua soinean. Eta bai: Browning bat eskuan, begi beltzarekin berari begira.

—Itzali argia –agindu zuen etorri berriak.

—Nor zara?

Gizona hormaren kontra itsatsia jarraitzen zuen, kanpoko begiredatik urrun, destatzeari utzi gabe.

—Zer egiten duzu egunero ordu honetan?

—Zuzendu egiten dut hemen. Zergatik?

—Beraz jardun horixe egiten bazeunde bezala eta mintza gaitezen. Etortzekoa al da norbait?

—Zertaz mintzatu behar gara?

—Norbait itxaroten al duzu?

—Ez.

—Ekin zureari.

Gizonak ez zuen oraindik arma jaitsi. Oriol bere taula prestatzen hasi zen, ikasle zaharren libretaz beteta, geografia fisikoaren ariketak egin zituztenenak: hamahiru koaderno; hamaika, Venturetatarrenak hutsik zeudela kontuan hartuz gero.

—Nor zara? –esan zuen, pixka bat desorientaturik. Falangisten uniforme urdin ilunak itxaroten zituen berak.

Bestea isildu egin zen eta Oriolek, zerbait egitearren, goiko tiradera ireki eta egurrezko erregela ipini zuen. Arbelera joan eta idatzi zuen, asteazkena mila bederatziheun eta berrogeita lauko urtarrilaren hamazazpia, exaktoki toki berean non, berrogeita hamar urte geroago, maistra-letra garbi berberarekin, Tinak ostirala bi mila eta bateko abenduraren hamahirua idatziko zuen, arbela desegin, eskola eraitsi eta hainbat urtez harrapatuta geratu ziren hainbat sekretu aireratu baino ordu gutxi batzuk lehenago.

—Zergatik hil nahi izan duzu Targa?

—Nik? –Isiltasuna eta pentsatu, zer egin behar dut, zer esan behar dut, ene Jainkoa–. Nik?

—Zuk –salatu zuen ezezagunak destatzeari utzi gabe.

—Ez da egia. Noiz?

—Atzo.

—Atzo Lleidan nintzen ni. Putatara joan nintzen.

—Ez al zara Targaren laguna?

—Zu nor zara?

—Zure gauzak idatzi behar badituzu, erakutsi horretan ari zarela.

Oriolek mahaira eseri eta koaderno bat ireki zuen. Estufa hozten hasia zegoen eta laster gela izotz-blokea izango zen. Bat-batean, burua altxatu eta itzalerantz begiratu zuen.

—Zu makikoa zara.

—Zergatik hil nahi izan zenuen?

—Herrriko haur bat erail zuelako. Nire ikasle bat izan zitekeen.

—Baina antza denez ez duzu ongi egin.

Isildu egin zen Oriol. Ez, ez zuen ongi egin, hiltzea zaila delako kontzientzia atzamarretan kiribilduta dukazuenan.

—Zer nahi duzu nigandik?

—Ondo joango zen atentatu bat desegin zenuen.

—Nik?

—Zergatik uste duzu inork ez zintuela oztopatu?

—Norbait bidali genuen jarraitzen zizun planta egitera.

—Zer egiten zenuten?

—Haren esperoan geunden. Hilean behin Targa Bartzelonara jaisten da larrua jotzera eta Vilanovan bazkaltzen du. Beti gauza berbera egiten du. Haren esperoan geunden, zu sartu eta dena zakurraren putzera bidali zenuen.

—Bada...

—Zu falangista bat zara.

—Ongi, ni...

—Zu Targaren lagun handia zara. Mundu guztiak dio hori. –Orduan arma jaitsi eta gorde egin zuen–: Eta diote zure emaztea beste batekin joan dela.

—Ez. –Amorruz–: Ez da hori. Utzi egin nau... baina ez da beste batekin joan.

—Zergatik utzi zaitu?

—Ez dagokizu zuri.

—Bai, badagokit.

—Koldar bat naizelako utzi nau.

—Ventureta mendekatzeko bizitza jokatzen duen koldar bat.

—Ezaguten al zenuen haurra?

Gizonak ez zuen erantzun. Oriolek kalerantz eta hondoko plazarantz begiratu zuen. Ez zuen ezer bereizten gelako argia kanpokoa baino indartsuagoa zelako. Agian Valentí jaunaren auto beltza egongo zen leihoaren atzean eta lau uniformatu eskuak aldaketan, bera irten eta tiroz josteko, haiek bai, mespretxuzko keinu batekin.

—Zer nahi duzu nitaz?

—Zein aldetan zauden jakitea.

—Zergatik?

—Zuk lagundu behar diguzulako.

—Nik? Zein zarete zuek?

—Targak emango dizun informazio guztia guri helaraztea nahi dugu.

—Ni ez nago... Nire egoera... –Irekita zeukan libreta itxi zuen, izorratuta–: Valentí etorri baino lehen alde egin beharko nuke..

—Ez. Zuk hemen geratuko zara, Targaren laguna izaten jarraituko duzu mundu guztiaren aurrean, baina guretzat arituko zara.

—Zeintzuk zarete?

—Gainera, komandantziak erabaki du Torenako eskola toki egokia dela estafeta eta lotura-gune bihurtzeko. Etxeko buruak lagunduko digu.

Torenako eskola, agian zuk sekula ikusiko ez duzuna, alde batetik, plazatik erlatiboki gertu dagoen eraikin bat da, eta bestetik, jolastera ateratzen diren patioaren aldetik mendira ematen du; bailarako paisaiara begira dagoen herri baten azken eraikina da.

—Nola dakizue hemen gainean ganbara dagoela?

—Eskolan lo egiten duzu, ez da?

—Bai.

—Asteburuan iheslari batzuk gordeko dituzu. Holandatik datoz eta Portugalera doaz.

—Eta ukatzen banaiz?

Itzalak kazadora pixka bat apartatu eta Oriolek pistolaren kulata ikusi zuen.

—Gainera, Valentí Targa kontrolatu behar duzu. Azaltzen dizun guztia azalduko diguzu eta haren mugimendu guztien berri emango diguzu.

—Ni ez naiz ekintza-gizona –esan zuen negar egiteko zorian.

—Izan ere kanpora begira zu ez zara ekintza-gizona izango. Zu Torenako borreroaren lagun handi putakume falangista maisua izaten jarraituko duzu. Baina guretzat lan egingo duzu.

—Valentí jaunak badaki nik hil nahi izan nuela.

—Gure ustez ez daki.

—Ez naiz ekintza-gizona.

—Ni ere ez nintzen. Inor ez zen gerra aurretik.

Segundo batzuk pasatzen utzi zuen gizonak eta orduan, solemnitate pixka batekin esan zuen, une honez geroztik makiko soldadua zara. Armada aliatuaren alde ere ari zara nazismoaren eta faxismoaren kontrako borrokan.

—Baina ni...

—Ez daukazu aukerarik.

Horren sinplea izan zen, alabatxo, makiaren alde lanean hastea. Gogoz kontra, ez bainaiz adoretsua, baina Venturetak barka nazan antsiak bultzatuta, hamalau urtez hil zena agian behar beste aski indartsu izan ez nintzelako Valentí Targaren aurrean. Eta komandantziak betiko bizimodu berbera egiten jarraitzea agindu zidan, exaktoki berbera, eskolak ematen, Valentírekin kopatxoa hartzera kafetegira joanez, bere inkurtsioetan lagunduz, Falangerekin kolaboratuz eta herrian inork zalantzarik izan ez zezan benetako faxista bat nintzela lortuz.

Lehen ekintza Europa nazitik juduak zirelako ihesean zebiltzan holandar batzuk izan ziren. Eta gero, erregimen frankistatik, beste horrore baterantz, iparrerantz ihesean zebiltzan hiru gizon, eta igande oso bat ganbaran pasa zuten ilundu arte. Aurrerago, ordu batzuk lehenako muga zeharkatu eta beherantz zihoazen sei gizeneko partida bat. Haietatik bi abiadore britaniarrak ziren. Denak jende zaildua, lakonikoa, esku artean zeramatenaz jakitunak, denbora gehiegi baitzen beren bizitzak arriskuan zeudela. Eta konturatu nintzen euren segurtasuna Frantzian ere zaharkituta zegoela, Vichyko gobernuak nazien esku ezarriko baitzituen, aurkituz gero. Eta atseden-toki benetako bakarra irlak dira –irlak deitzen dituzte–, nire eskola adibidez, existitzen direla inork ez dakienez, inork aurkitu ahal ez dituenak.

—Nola dakizue hemen gainean ganbara dagoela?

—Ez egin galderarik.

—Eta nola dakit egia esaten ari zarela? Eta Valentí Targaren agente bat bazara?

—Gau honetan mugimendua gertatuko da Sorten. Gezurretan ez nabilkizun nire seinalea da.

—Zein mugimendu?

—Gogoan al daukazu udazkenaren bueltan Isil aldean zartatu genuen zubia?

—Bai. Zu izan al zinen?

—Gogoan al daukazu Rialb bideko zubia?

—Sorten, bai.

—Bum.

—A.

—Bihar, desastrea ikusten duzunean, sumindu. Targa fidatu dadila zurekin. Maita zaitzala, marikonatu zaitzala komeni bada. Baina azal ditzazkizula gauzak. Guk garbitu arte. Esango diguzu.

—Berriro saia naiteke.

—Zu, geldi, kontrolatzen –Errepikatu zuen, instant baten ostean–: Eta atera iezaiozu ahal duzun informazio guztia bizirik dagoen bitartean.

Zailena, alabatxo, ez da bizitza arriskatzea: gertatu ahal zaizun gehiena hura galtzea dela dakizunean, beldurra, sekula desagertzen ez dena, bigarren mailan geratzen da. Horrelako gauzaren bat esan zidan zure amak nigandik ihes egin baino lehen. Egun batzutan harrotasunez bizi izan nuen nire barne-errealitate berria: koldar bat izateari uzten hasia nintzen. Zailena ez da bizitza arriskatzea: min handiagoa ematen du minaren beldurrak, torturarenak. Baina bada oraindik min handiagoa ematen zidan gauza bat: mundu guztiaren aurrean faxista deklaratua izatea. Zeren bisita hura jaso eta bi egunera, munduko maki guztiak garbituko nituela zin egin bainion Valentí Targari eta ea zer gertatzen zen oraindik falangeko uniformea ez neukalarik. Valentí durduzatuta zegoen makiaren efektu-kolpea zela-eta: armadaren muturren aurrean Hostal Nouko zubia lehertu zuen, Rialbeko bide zaharrean. Makia ez zen sekula aritu hain hegoan eta horrek sutan jartzen zituen militarrak eta, zeharka, falangistak. Egun hartaz geroztik Valentí bere aldeko zalantzagabekotzat nindukan zeren, gainera, biharamunean argazki ofiziala atera baitzidan, uniformearekin. Orain ulertzen dut badagoela herri oso baten begietara faxistatzat pasatzea baino gauza ankerragorik: zure begien aurrean pasatzea da, alabatxo. Eta zureen aurrean, Rosa.

—Segurtasun-arrazoiengatik. Dena igarota, azalpenen ordua izango da.

—Baina nire emaztea da.

—Ez. Ezinezkoa da. Gainera, ez zarete elkarrekin bizi.

—Beraz uko egiten diot zuekin kolaboratzeari.

Orduan, gizonak pistola atera eta ahots neutroz esan zion, orduan hementxe garbitzeko agindua dakar.

—Nire bizitza infernu bihurtzen ari zara.

—Pentsa ezazu Venturak bizi duen infernuan, adibidez. Edo Missereten etxeko Tòniak. Edo makietan dauden milaka soldaduen familiak. Pentsa ezazu horretan.

Nik argudiatu nion bazirela urteak gerra amaitua zela eta hark erantzun zidan Europa su-garretan zegoela, naziak ez zeudela garaituta eta oraindik jende asko zegoela gerran. Zer erabakitzen duzu. Hamabost minutu egon zen isilik Oriol, etxekolanak zuzentzen zituen plantak egiten, eta gizon iluna, izukaitz, kuxkuxero posibleengandik ezkutatzen zuen txokotik behatuz. Oriolen buruaren barruan Nekaldia moduko bat sortu zen, Gurutzebide eta Gurutziltzatzearekin, eta Oriolek erregutzen zuen, aita, aparta ezazu kaliz hau nire paretik, eta oihukatuz, Eli, Eli, lemà sabactaní, eta ezezaguna han, kiribilduta, bere kapa dadotan jokatuz, bere agonia behatuz eta bere erabakiaren zain.

Onartzen nuela esan nienean, beste erremediorik ez neukalako esan nien eta azken finean, hondo-hondoan, beranduago salatzera joatea pentsatzen nuen. Baina lotsa-moduko batek, nire duintasunaren arrastoa gordetzeko gogoak, garbi jokatzera bultzatu ninduen ados esan nienean, onartzen dut, baina ezin izango naiz horrela bizi, emazteari esan gabe.

—Zerbait egitea aztertuko dugu –esan zuen lausoki. Eta indar handiagoz–: Eskerrik asko, kamarada.

—Ez iezadazu kamarada esan. Mundu guztiak deitzen nau kamarada. Falangistek kamarada esaten didate ofizialki militantea izan ez arren; egunkarian Fontelles kamaradaren argazkia dago. Ez dut zuk niri kamarada deitzerik nahi. Oriol Fontelles da nire izena.

—Ados, ados. Niri Marcó tenientea esaten didate.

Eta ongi, alaba: direla aste batzuk, barnearen eta kanpoaren arteko informazio asko nire eskuetatik pasatzen da. Falangean izena emanda nago eta Valentík berdintzat tratatzen nau, eta dio nitaz harro dagoela, ni bere exekuzioaren data berria zuhurki prestatzen ari naizelarik. Ni bai nagoela nitaz harro, barruan beldurrez bizi naizen arren. Badakit zuri eskutiz hau idaztean, eman dizkidaten agindu eta arau guztiak urratzen ditudala. Baina ez nuke nahi, akabatzen banaute, zu koldar bat naizen ideiarekin gelditzea. Soilik hiltzen banaiz irakurriko duzu hau, eta zure ama gure ezkutaleku sekretua gogoratzeko gai bada, non egun batean altxorra topatuko zenuela esan nion. Gauzak ondo amaitzen badira, alabatxo, ni-neu izango naiz, uzten badidazu, zuri eta Rosari entzun nahi banau, hiltzen ari garen istoriaren egia kontatuko dizuedana.

Onartzen nuela esan nuenean, erantsi nuen, ezen, konpromisoari jarraitzen laguntzeko, Ventura nire ikaslea izan balitz bezala pentsatuko nuela, edo hobeto, nire semea. Ikatza bezalako bizar eta begirada latzeko gizonak, plaza hutsik zegoela egiaztaturik, nigana hurbildu eta esku bat ipini zidan bizkarrean. Ordura arte ez nintzen konturatu esku deformatu haiek nekazari baten eskuak zirela eta ez militar batenak.

—Ideia ona –esan zidan. Eta erantsi–: Niri, borrokan jarraitzeko indarra, nire eta nire emaztearen zoritxarrerako, Ventureta nire seme zaharrena dela jakiteak ematen dit.

Isilik desagertu zen, etorri zen bezala, iluntasunean murgildu izan balitz bezala. Eta une hartan nire barruan jakin nuen nik ez nuela sekula borroka hura traizionatuko eta maki legal bihurtu nintzen, ikusezin, anis-kopatxoa Valentírekin edaten jarraitu nuen eta ulertu nuen zein arraroa den gorrotatzen nauen emakume batekiko maitasuna sentitzea, Rosa... Eta behar bada inoiz ulertuko ez dituzun, baina uste dut azalduko dizkizudan gauza gehiago, alabatxo. Edo agian ez.

Biharamunean konturatu nintzen gau hartan maki-saldo handi batek Hostal Nouko zubia zartatu zuela. Venturak agindu zidan froga zen eta Yuste generala, amorruz, infarto baten ateetan egon zen. Egun hartan inork ez zuen margoketa-saioa buruan eduki.

Ez harritu eskola-koaderno hauek direla-eta. Eskura aurkitu dudan paper bakarra zen. Ventura etxeko Venturetaren arreba Célia Esplandiuk estreinatu gabeko koadernoak dira, Gabonetako oporrak eta gero eskolara itzuli ez eta heriotzaraino gorrotatzen nauen Joan Venturetaren arrebetako bat bera.

Oriolek gelako lanpara itzali zuen, eta ilunpean arbela erretiratu eta Venturetaren koadernoak puru-kutxan gorde zituen. Bere bizitzaren egia puru-kutxa batean.

Mertxe Centelles-Anglesola i Erill.

—Zer?

—Mertxe Centelles-Anglesola i Erill alegia.

Marcel besaulkian eseri zen wiski-basoa eskuan zuela. Hausnartu egin zuen, izen hark beste une batzuk gogoraraziko balizkio bezala. Pedralbesko pisu handian non izatez instalatu zen, Torenan ez zegoenean, Zuzenbideko lehenean matrikulatu zenetik, hormako erlojuaren tik-taka baino ez zen entzun bat-batean, soinu nobleagoko erlojuan, zur exotikoagokoan, Torenako Gravat etxeko hormako erlojuarena baino makineria sendoagokoan. Oso tik-tak mantsoa, izan ere denbora gutxiagoka zihoan hain erloju garrantzitsuago batean.

—Nor da?

—Centelles-Anglesolatarren gazteena. Viladraun, Dilmèstarren ondoan, etxe hura daukaten haietakoa.

—A, bai. Eta noiz diozu etorriko dela?

—Gaur arratsaldean.

—Eman goraintziak. Ezin izango naiz bertan egon.

—Ez. Zu hemen egongo zara.

—Esaten dizut ezin dudala, ama!

Elisenda Vilabrú altxatu eta balkoitzarrarantz hurbildu zen. Ahots apalagoz, kanporantz, Bartzelonarantz, urrrutiko etxeen pilaketarantz begiratuz, non jendea, infinituki nekatuta, puntutxo bat bihurturik, bizkarrean euren bizitzak kargatuz zebilen, errepikatu zuen, zu hemen egongo zarela, eta harengatik egongo zarela.

Marcelek tragoa kendu zion wiskiari. Inoiz bere bizitzan ez zitzaion bururatu posible zela amatxoren desioak ezeztatzea. Gutxienez, zuzenean. Gerrilaren amarruak behar ziren norberarena egiten saiatzeko. Eta batzuetan ezin zen ezer egin. Ordukoan, aurrerantz ihes egitea hautatu zuen.

—Ni ezkontzekotan al zabiltza? –Munduko sarkasmo guztia jotako wisky-tragoan.

Elisenda bere semearengana itzuli zen. Tik-tak mantsoa. Morroi baten txistu bitxia gelditasunezko kale dotore hartan. Hondoan, urrutian, bizitza erdi hautsia garraiatzen zuen anbulantzia baten intziri urruna. Distantzian, errezel-dekoratu baten antzera, hiria taupaka.

—Elkar ezagutu zaitezen nahi dut.

—Badut neska-laguna.

—A, bai? –ironia-pixka bat tonuan–: Lehen albistea.

Bazkaldu baino lehen, Marcelek amaren aurrean aitortu zuen ezetz, neska-lagunik ez daukadala izatez, lagun bat da.

—Holako lagunetatik asko dauzkazu zuk.

—Zer du txarretik?

—Ezer ez. Baina une bat iristen da non puntu eta kitto. Hogeita sei urte badauzkazu-eta.

—Oraindik ez ditut egin.

—Badira bi urte ikasketak bukatu zenituela. Ordua da probetxuzko gauzatan pentsatzeko.

Iristekoa zen. Bizitzan denak dauka muga bat eta Marcelek bazekien alferkerietan bizitzeko bere muga amatxok, bada garaia probetxuzko gauzetan pentsatzeko esan eta puntu eta kittoei buruz, eta aski da olgetan ibiltzeko, aipatzen hasiko zitzaion eguna izango zela. Une gogorra zen eta Marcelek beste wiski batekin lagundu zuen: bigarrena?, hirugarrena? Eta burua halako etsipen-sentimenduz makurtu zuen. Ikus dezagun amatxoren proposamena. Laugarrena.

Elisenda andereak bere semearentzat prestaturiko puntu eta kittoa Mertxe Centelles-Anglesola i Erill ezagutzea zen, harekin ezkondu, ondasunak batu, bilobak eman, eta oso zoriontsuak izatea, eta Marcel erregeak bezala, edo erregeen oinordekoak bezala baina kororaren abaintailarik gabe, sentitu zen.

—Beraz ez naizela nik nahi dudanarekin ezkontzen, baizik estatu-arrazoiak tarteko.

—Norekin ezkondu nahiko zenuke, beraz? –Elisendak galderaren garraztasunaren tonua saihestu zuen.

—Ez dut ezkondu nahi. Nagusitxoa naiz hori erabakitzeko.

—Nola?

—Baditut hogeita bi urte.

Amatxo eta semea isilik. Anderea, balkoitzarraren atarian; mutila, edalontzi hutsa eskuan.

Hogeita sei urterekin denbora izan zuen olgatzeko, bizitza ezagutu eta abarrak dastatzeko. Amatxok esan zion, egin ez baduzu ergela zarelako da. Eta egin baduzu, aski da, orain burua zentratzera, ezkondu eta egunero nire albora edo Gasullen albora lan egitera etortzera, amaitu da eguna instalazio berriak eta pista beltzen ibilbide berriak planifikatuz ibiltzeko garaia. Abokatua zara eta hemen lan egin behar duzu, Bartzelonan, bulegoetan.

Eta egunero.

Bikain. Bikain. Erlojuaren tik-taka entzuteak pixka bat lasaitu eta purrustada kaltegarria jaurtitzea ekidin zion. Aro baten bukaera. Une batez, pentsatzen zuen bitartean aski wiski bazirela apenas eguerdia ez zelarik, matxinadan pentsatzea bururatu zitzaion: ez, kanpora, aski da, ça suffit, amaitu da, dat i beneït, finitto, finish, amatxo, planto, gizon librea naiz eta gogoak agintzen didanean ezkonduko naiz bururatzen zaidan neskarekin eta kitto. Eta lanera, egiteko aldartea daukadanean agertuko naiz. Hori ezin da behartu. Zein politta den matxinada, Che etab. Baina lehen ezetza jaulkitzeko ahoa zabaldu baino lehen, sen onaren aingerua era horretako ekintza baten berehalako ondorioen pankarta aurretik igaro zitzaion, eta hain nagi egin zitzaion bizitza, arratsaldera arte itxarotea hobetsi zuen, imajina ezazu Mertxe hori emakume… Ez?

Ikusi ahala gustukoa egin zitzaion. Politta, azkarra, ondo egina, distiratsua, jatorra, diskretoa, ossso politta, bizi-bizia, aingeru bat, Mertxe, harengatik agian erokeriak egingo nituzkeen haietakoa da, ossso polittta baino gehiago, zein ahots politta eta zein dotorea, nahiz eta erdara sudurkaria izan, pijoa, etab. Eskiak belztua, Beatriz. Laura. Teresa.

Marcel ez zen sekula jakitera iritsi zein aitzakiarekin heldu zen Mertxe bakar-bakarrik beren etxera. Ez zuen behar izan, berahala piztu baitzitzaion gogoa eta ez zituen aitzakiak behar izan. Zinera gonbidatu zuen, eskiak hartu eta asteburua Torenan igarotzera gonbidatu zuen, ez iezadazu esan ez duzula eskiatzea gustuko!!!!! Une batean mila zatitan pitzatzen zen plana, amaren aurrean generoaz keixu balitz bezala: pentsatzen nuen ezen hain beltz zaudelarik... Ez? Amatxok ez zuen deus esaten eta Mertxe Centelles-Anglesola i Erillek argi utzi behar izan zuen ezetz, hondartzakoa dela, izan ere abendu hau Kanarietan egon naiz eta ni berehala hartzen nau. Zorionekoa, esan zuen amatxok, egoera birkonposatzea hausnartuz. Bat-bateko krisia konpondu zen mutilak esan ziolako pista beltzaren eta pista beltzaren artean familagunetik pasatu eta eskiekin ohitura hartzen lagunduko ziola, etab.

—Irakats diezaiola Quiquek, bere lana baita.

—Ez, ezta pentsatu ere.

Marcelen ez, ezta pentsatu ere lehor hark, bi gauza argitu zizkion Elisenda andereari. Lehena, Marcel ez bazen Quiquez fido, hori zen Quiquek ez fidatzeko motiboak eman zizkiolako –imajinatzen ditut egunak eskiatzen eta emakumeaz mintzatzen pasatzen–. Quique ez bazen fidatzekoa Marcel bezalako kanpolarrosa batentzat, esan nahi zuen hori ahalik eta azkarren argitu nahi dudan gauza bat dela. Eta bigarrena, Marcelek atsegin zuela Mertxe eta, beraz, beti bezala, berak asmatu egin zuen Mertxe Centelles-Anglesola i Erill aukeratuz, Anglesolaren aldetik Cardona-Anglesolatarrekin ahaidetutako Centelles-Anglesolatarra, eta Erill de Sentmenatarra, Mertxeren ama Eduardo Erill de Sentmenaten alaba baita, Maderas Africanasekoa, Banca de Ponenteko administrazio-kontseiluko presidente den harena.

—Zergatik Quique ez? –xaxatu zuen amatxok.

—Ez al dago bajan bada?

—Bai, baina ez da betikoa izango.

Elisenda andereak, lau begirada eta lau keninuren bidez, semea adarretaraino maiteminduta zegoela hauteman zuen. Aldiz, Marcelek neskarekiko sugarra ezkutatu zuen amatxoren aurrean eta Elisenda andereak ulertu eta ez zuen ankerra izan nahi mutilarekin. Oharkabearena egin zuen, bizpahiru aldiz aldendu zen, informatu zuen Mertxek hogeita bi urte eta, praktikan, etxe bat zabalik zeukala Parisen, eta proposatu zuen, Marcelek proposatzen zuen itxura emanez, elkarrekin paseiatzera ateratzea, ez dakit, zentrora, Rambla ikustera eta hola, ez? Eta orduan Marcelek adierazi zuen hamaika urte bazirela Ramblara paseatzera ateratzen ez zela, eta pentsatu zuen, zer pentsatuko du Mertxek nitaz, eta atsekabeturik sentitu zen, zeren bizitzan lehen aldiz amatxo ez zen beste emakume baten aurrean ttiki sentitzen baitzen, babesgabe sentitzen zen eta gauzak demostratzeko gogoz, amatxo balitz bezala. Elisendak, kanonen aurka, erdi nahi gabe proposatu zien joan zitezela egun batzuk Parisera, eta itzuleran, mutila lanean hasi zitekeela. Paris. Liluramendua hain zen indartsua ezen orduan ere ez zitzaion otu idazle izan behar zuen Ramonaz pentsatzea. Marcelek, amaren inposizoagatik protesta egin ordez, pentsatu zuen, imajinatzen duzu egun batzuk Parisen Mertxerekin. Jaitsia zeukan goardia, babesgabe zegoen. Marcel Vilabrú i Vilabrú (Vilabrú-Comelles eta Cabestany Rouretarra Vilabrútarren aldetik, eta Torenako Vilabrútarra, eta Ramistarra Tirviako Pilar Ramisen aldetik, erdi puta erdi hobeto ez mintzatzea Anselm gaixoaren errespetuagatik), zegokionarekin maitemindu zen oraingoan.

Bikotea pisua utzita Ramblarantz abiatu zenean, edo sukarraren haizeak eramango zutenerantz, Elisenda andereak Industria Ministeriora deitu zuen, pilotak egiteko makineria madarikatuaren inportazioa zela-eta soilik ministro jaunak zuzenean konpon zezakeen arazo bat konpontzearren, ez baitit gogoak ematen haren prezioaren halako bitan eginda erostea. Izatekotan, beste fabrikatzaile batzuei erosiko dizkiet. Pilotak egin nahi ditut, Enrique. Albisteak espero ditut, e? A, gauean Madrilen afalduko dut. Norekin? Fontanarekin. Eta eseki egin zuen ministroa oraindik telefonoari irribarre egiten ari zitzaiolarik, Vilabrú anderearekin emandako arratsalde liluragarria eta ez dakit zerezko baina sorgitzen duen lurrina gogoratuz, eta barrabil santuetako Fontanarekiko inbidia sentitu zuen. Elisendak bere gestioaren berri eman zion Gasulli, eta ordu batzuk soberan zeuzkanez, Jazinto deituarazi zuen autoa prest eduki zezan. Lepotik katetxoa kendu, muin eman eta bolizko kutxatxoan gorde zuen. Une batez Bibiana gabetsi baina burutik kendu zuen, bizidunak ezin baitira beti beren hildakoen peskisan egon. Oso ongi, Jazinto, horrela atsegin dut.

Baina zentrorako bidea bitartean, ez zion inolako komentariorik egin garondoan. Batere ez. Ez zuen txintik atera. Aginduak ematen ez zegoenean pentsatzen ari zen seinale. Pentsatzen bazegoen, pentsatu beharra zelakoa zen. Pentsatu beharra bazeukan problema bat zeukalako zen. Nik problema guztiak konpondu nahiko nizkioke baina ez dit uzten. Soilik bere seme ergelaren okak garbitzeko uzten dit aktuatzen. Besterik ez. Ni, bizitza emango nuena haren alde. Ni, bizitza eman dudana haren alde. Ni...

—Gelditu hemen, Jazinto.

Catalunya plazaren erdian. Horrek esan nahi du ez duela nahi nik jakin dezadan nora doan.

—Etorri hemendik ordu batera. Ez, bi ordura.

Orain taxi bat hartu eta Quique Esteve putakumearen pisura joango da.

—Bai, anderea.

Quique gizonetan dabil. Eta neskatan. Mugitzen den edozerekin. Ba al dakizu, anderea?

Elisenda andereak autotik irten eta leunki itxi zuen atea. Jazinto bistatik desagertu arte itxaron zuen eta orduan taxi bat deitu eta esan zion, Quique Esteve putakumearen pisura, azkar.

—Nolako sorpresa. –Pasarazi egin zuen. Ez zintudan espero, benetan.

—Bartzelonan gauzak egiten nenbilen eta begira.

—Oso ondo. Eta auarkitu ez baninduzu?

—Eta beste batekin bazeunden?

Quiquek atea leunkiro itxi eta harrera-gelatik irtenarazi zuen.

—Zergatik begiratzen nauzu horrela?

Hainbat arrazoi tarteko. Lehenengoa, hamahiru urtez maitale zirelako eta hasieran anderearen tresna baino ez bazen mundu guztiaren aurka zeukan amorrua ustutzeko, gutxika-gutxika zaletzen joan zen, soilik aitortza kartsuegi batek eragindako aste batzuen urruntzeak etenda, beti eliza ezberdinean, beti apaiz ezezagunekin eta ez bekatuen aurka borroka egiten zuelako, baizik bere ahultasunari urka-bilurra jartzen saiatzen zelako; ezin da Quique bezalako mutiko moñoño batek. Ezin da. Baina hala zen. Bigarrena, hogei urte baino gehiagoko aldea zeukatelako, eta hori, hasieran dibertigarria eta dena zena gero eta eraman

zailagoa zen, ni zahartzen ari naizelako eta hura oraindik hile zuririk gabeko irribarrea duen gizona delako. Hirugarrena, duela gutxira arte, Mertxe bere etxean sartu zen arte, holako kotoi-bola batean bizi zelako, pentsatuz ezen eskaintzen zion konpentsazio ekonomikoak edozein infidelitate-mota eragozten zuela; gainera, mutila beti zegoen prest berak eskatzen zionean. Laugarrena, kontuan harturik orain semea ezkontzeko ordua zela, bat-batean amona sentitu zen, eta oso erridikulua, eta ulertu zuen arrazonagarria izango zela Quiquerekiko jeloskortasuna sentitzea. Bosgarrena, oro har oso konplikatua zelako: zergatik sentitu behar zuen Quiqueriko jeloskor maite ez bazuen eta gainera mutilak maitatu baino lehen obeditu egiten zuela baldin bazekien. Zera guztia hamahiru urte haietan trukatu zituzten afektu-adierazpen eskas-eskasek frogatuta. Seigarrena, elkar maite ez zuten arren, tratua dedikazio esklusibokoa zelako. Eta zazpigarrena, konbentziturik zegoelako ezen, pisua hankaz gora jarriz gero, maitale-pare bat topatuko zuela eta ez zegoen prest umiliazio hartatik pasatzeko.

—Pisua arakatu nahi duzu? E? Ikusi nahi duzu zenbat emakume dauzkadan ezkutatuta? E?

—Bai.

—Bada, aurrera.

Emakumeak egiazkoa zen edo ez ezagutzen ez zuen disgustu-tonuarekin, Quiquek esan zuen, sekula ez nuen imajinatuko hain konfiantza gutxi izango zenuenik nirekiko. Besoak zabaldu zituen pisua seinalatuz, eta esan zuen, dena zurea.

Elisenda Vilabrú i Ramis andereak, zeinak Prozesuari buruz Escrivá de Balaguer monsiñorearen berehalako erantzun bat nahi zuela gogoratzeko iluntzean Fontana ministroarekin afalduko zuen; zeinak ministroaren losintxa-adierazpen edukatuak indiferentziaz hartzen zituen, zeinari gogoratu behar zion gogora ziezaiola Escrivá monsiñoreari ezen bere osaba August Vilabrú, gajoa, aski kraskatuta zegoen arren, oraindik bizirik zegoela eta, egun gutxi atzerago, Escrivá monsiñorearen prelatura domestikoari buruzko anekdota gogoratu ziola, zeinaren alde hainbeste eman zuen August Vilabrú mosen jaunak, Paulo aita santuak lehenago batik bat mesfidatia baitzen monsiñoreari zegokienez; zeinak are gaitasuna izango zuen Fontana ministroari aditzera emateko Lleidako gobernadore zibila aldatu beharrra zegoela, kulturarik gabeko gizona baita, edukazio-joerarik gabea, eta ahal beste alukeria egin baitit azaldu diodanean pista gehiago zabaldu nahi ditudala, eta hori eskubide osoa daukadanean (eta Fontana ministroak konpromisoen koadernotxoa irekiko zuen eta, inurri-letra txikerrarekin, bere oroitzapena idatziko zuen, ez baitzuen dama handi hari huts egin nahi. Eta haren alde zegoela argi uzteko mihia klaskatzen zuen, esanaz, badakigu nolakoa den Garcia Ponce. Hitz ematen dizut saiatuko naizela); zeinak Fontana ministroarekin afaldu ostean Garrigues anaiak hoteleko suitera deituko zituen, berak Mexikon, Colombian, Costa Rican eta Txilen kokatu nahi zuen kirol-materialeko hiru tonak muga-zergetatik libratzea irmoki aktibatzen saiatzeko; zeinak seguru aski biharamunean, ostera Gravat etxean zarratu baino lehen, enbaxadore argentinarrarekin hitz egingo zuen, birpentsatzen laguntzeko eta Latinoamerikako Brusport Champion gama altuko erraketa Guillermo Vilas izendatu ahal izatea posible egiteko, ogasun argentinarrari pesorik ordaindu gabe baizik, konpentsazio justuz, gaur bertan zuk txit gorenak eta nik-neuk, bi aldeen onurarako, ezarrita utzi dezakegun kopuru bat jasoz (eta enbaxadoreak ez bazuen aski argi ikusten, esango zion erraketak Falkland izena hartuko zuela eta agur komisio potoloa), urrats bat aurrera egin zuen berak finantzazen zuen Quiqueren pisuko jantokirantz, bihotza bum-bum eginez, eta pentsatuz norbait aurkitzen badut negar egingo dut baina prest nago armairuetan ezkutaturik dauzkan maitale guztiak desestaltzeko.

—Zuk zerorrek –jarraitu zuen Quiquek tonu zauritu berberarekin, sukalderantz ziholarik–. Oheen azpian begiratzen duzun bitartean, kafe bat prestatuko dizut.

Elisendak, ezkutuko maitaleak, ingurura begiratu zuen. Indiziorik ez. Ikuskizunak atsekabetuta zegoen baina egin beharra zeukan. Sei kopak, bi eslalomean, bat Sestrièreseko superdigantean eta beste bat Tuca Negrako Nazioarteko jaitsieran, non Quiquek Magnus Enqvisten aurka burua jokatu zuen esku hutsik eta soilik zilarrezko zortzi hamarren atera zizkion, soilik terrenoa, elurra eta airea ezagutzen zituela kontuan hartuz, Bartzelonan larrua jotzen ez zegoenan deabrutu baten antzo, pista zapaltzen egoten baitzen. Ohearen azpira begiratu eta Mamen puta hura harrapatzeko Quiqueren gelarantz abiatu ordez, besaulkian eseri zen kopen aurrean. Sukaldetik atera zen Quique. Zatar zalantzakorrean garbitzen zituen eskuak:

—Egin al duzu erronda? Oheak? Armairuak? Kitto?

Andereak begirada desbideratu zuen. Haztamuka, zigarrotxo bat hartu zuen mahaitxotik, bost orgasmo jarraiko gauaren biharamunean andereak oparitu zizkion larruzko kutxatik. Oraindik hamar urte luze falta ziren erretzaile-ohi militante bihurtzeko. Quique aldamenean jesarri eta bizkar gainean pausatu zion eskua, Gasull abokatuak, Jazinto Masek eta ministro-pare batek aspalditik desiratzen zuten erara. Aurreko hormatik harago begiratzen jarraitzen zuen Elisendak.

—Zer daukazu? –esan zuen mutilak ahots are kitzikagarriagorekin–. Zergatik ziztatzen nauzu horrela?

—Ezinezkoa zait fidela zatzaidan jakitea. Orain bai eranzten ari zela Elisenda anderea, munduko lotsa osoarekin, monitore moñoño bati fideltasuna erregutuz.

—Nire hitzak ez al du balio?

—Ez. Egia esan, ez.

—Orduan jakin ezazu zure maitale leiala naizela burutik oinetaraino. Zer zentzu zeujakeen infidel izateak?

Isildu egin ziren. Sukaldean, protestaka hasi zen kafetera, Quique maitale leialaren deklarazioarekin ados egongo ez bailitz bezala. Orduan Quiquek ulertu zuen erreakzionatu beharra zeukala, esan zuen, jakin dezazun gizon fidela naizela, zure maitale leiala naizela, anderea hartu eta jaikiarazi egin zuen zakartasun kalkulatuarekin, jaka kendu eta brusa atera zion, emakumeak gonako gakoa askatzen zuen bitartean.

Mamen Vélez de Tenak (Export-Inport SLko Ricardo Tenaren emazteak), zeinarekin Elisenda Vilabrúk, hiru urte gazteagoak, elkarren arteko konfidentziatan oinarritutako adiskidetasuna mantentzen zuen, gelako atearen zirrikitutik aztoratuta zelatatuz, ikusi zuen nola Quiquek, behar den bezalako gizonak, kafetera zarata ateratzen utzi, Vilabrú putaren gonatik tira eta Mameni hotzikara sortu eta bat-batean erantzarazi eta besaulkian biguntasunez etzanarazi ohi zuen basakeria harekin desagerrarazten zuen. Konturatu zen, urde zikina, maitale leiala, berak atearen zirrikitutik kontenplatu ahal zuen modura kokatzen zela, eta Miguel Angelen Dabidek berrogeita hamabost urte oso oneko alargun bero hura estali zuen, sekula ez zukeen esango Vilabrú andereak Quique mandotzarrarekin egin ahal izango zuenik, inoiz ez. Gero eta santuagoa, orduan eta puta handiagoa. Beti pentsatu izan zuen Elisenda anderea gauza hauen gainetik zegoela eta jo ta Quiquerekin larrutan egiten zuen, eta jakizu beste zenbaitekin halako... Mamen Vélez de Tena kitzikatuta sentitu zen, ikuskizun hark erabat berotuta, eta

batik bat destinoari ebatsitako sekretu hark kitzikatuta, alegia, Vilabrú putakumea, hau jakiten denean, halako eskandalua. Eta nolako gogoarekin saiatzen den. Hara inozoa, nola dabilen hatsanka. Oso hanka politak dauzka nire adina edukitzeko, gauzak diren bezala. Halako ipurdia Quiquek, Jainkoarren, Jauna. Dabidek. Apolok. Narzisok.

Quique maitale leialak oso urrun eraman zuen Elisenda anderea, hain urrun, ezen amaitu zutenean, anderea erabat biluzik egon zen puska batean, besaulkian eserita, leihotik begira, baina are urrunago pentsatuz, zigarrotxo lasai bat errez Quiquek bere gelan sartu eta ez dakit zer egiten zuen bitartean, eta emakumeak mutxikina hautsontzian zapaldutakoan, gelarantz begiratu eta ahots erlatsarekin deiadar egin zuen, brusa berria erostera joan beharko duzu. Quique? Entzuten al duzu? Hegazkina hartu behar dudala.

Birritan irakin eta erretako kafearen usain itsaskorra iristen zen sukaldetik.

Marc. Bota ahal duzu botila.

Bigarreneko hamazazpi haurrak, erreka-harriak jasotzen ibili ziren haiek, bere inguruan kokatzen joan ziren, botila botatzeko zeremonia-aurretiko argazkirako prest, mezu batekin, zeina, zorte pixka bat tarteko, Ribera de Montarditeko bigarreneko haurrei iritsi behar zitzaien uretean behera hiru kilometro, errekari eta inguruari dedikatutako interes-zentroari buruzko beste jarduera bat bezala. Negu beteko egun disturatsuak, laboratoriora lana errebelatzeko ez joateko, ez eta nahita nahi ez, ikasgelara, pentsatzera, pentsatzera, pentsatzera, eta itzul-inguruka ibiltzera, eta detektibe bat alokatu behar zuenetz hautemateko lasaitasuna ebasten ari zitzaion emakumearen nortasuna iker zezan, noizean behin ziztadak ematen zituen koskorra ikertzeko Cuadrat doktorea kontratatu berri zuelarik. Bi ikerketa, bidean. Ostera zoriontsu izan ahal da?

—Bota ahal duzu botila. Kontuz.

Marc Bringué́k, aukeratuak, ez onenetan onena zelako baizik hamabigarren zenbakia zeukalako, Torenako Feliçó etxeko Joan Bringuéren birbilobak, hura Valentí Targaren zerrenda beltzean hiru zenbakiduna zelarik, Elisenda anderearen zerrenda beltz sekretuan zegoelarik, plastikozko botilan musu eman (Pep Pujolek egiteko esan zion moduan) eta Nogueraren korrontearen erdi-erdira jaurti zuen. Denek kontenplatu zuten, arinduta, nola botilak ur-bazterreko zurrunbiloak saihesten zituen, korrontearen erdira joan eta jaisten hasten zen, txintxo-txintxo, animatuta, itsasora iristeko presa baleuka bezala, Morroten gorpu zurrunaren ibilbide berbera eginez, dokumentazioak patrikan, bularrean ezkutatutako metalezko kutxa batean gordeta, zeinak iritsiko zitzaien agintariei errebelatzen zien makiaren partidak Sorteko bailaratik, Assua, Ferrera, Cardós eta Aneuko bailaretatik, erretiratzen zirela, Figueres aldera elkartzeko, indizio militarra inondik ere, zeinak nabarmentzen zuen Operazio Nagusia deituko zena mamitzen ari zela, eta zalaparta beste tokiren batean izango zela.

—Tina Bros naiz, bai. Botila atera berria da. Zenbatu ondo ordu erdia.

—Nola jasoko dute, e? Nola jasoko dute?

—Tximeletak ehizatzekoarekin –erantzun zuen dena zekien Pep Pujolek.

Izotza ebakitzeko mako batekin jaso zuten, kirten luzekoarekin, aski hurbildu baitzen erriberara, erabat ulertu izan ez balu bezala zein zen bere xedea. Ezagutzen ote zuten ahoz gora itzuli eta elkarri begiratu zioten.

—Ez dakit zein den. Ez da alde honetakoa.

—Erabat hilda dago.

—Goardia zibilari deitu beharko diogu.

—Arazoak ekarriko dizkigu. Jakin nahiko dute...

—Ezin dugu horrela utzi.

—Eta zer? Bizitza itzuli ahal diozu? –ukondokada, eta gurdirantz jarraitzeko seinalea–: Tira, goazen, inork ikusi gaitzan baino lehen.

Zalantzaz eta beldurrez, fidakaitzenak, gazteak, izotzaren pertiga erabili zuen Morroten gorputz hila korrontearen erdira erakarri eta bere ibilbidea eginez Riberako goardia zibilak aurkitua izan zedin, bere benetako destinoa baitzen. Gaztea gurdira igo eta bi gizonek aurkikuntza makabro hartaz inorekin mintzatzea saihestu zuten, ez eta emazteari ere, garaiak ez baitziren konfidentziak egitekoak. Goardia zibilaren patrullak aurkitu zuen Morroten gorpua, uretatik atera, arakatu eta han bertan ireki zuten aurkitutako kutxa metalikoa beren nagusien aurrean merituren bat egiteko gogoz, eta papera zabaldu zuten eta baxuenak, urduri, ozen irakurri zuen, denek, harriek, barboek eta amuarrainek, Morrotek eta patrullako kideek entzuteko moduan.

—Kaixo, Ribera de Montarditeko eskolako bigarreneko lagunak. Mezu honek adierazten du ezen errekaz behera igeri joanez, itsasoraino iritsiko ginatekeela. Mapa batean ikusi dugu zuena bezalako herri asko zeharkatu beharko genituela, presa batzuk, eta Camarasatik Segre ibaian sartu eta ondoren Mequinensatik Ebron. Eta orduan, zuzenean itsasora. Aste Santua eta gero hiru eguneko txangoa egingo dugu Ebroren deltaraino. Eta zuek?

Azal ilunena zeukan goardia zibilak kutxa metalikoan sartu zuen ostera papera, tabardoaren poltsikoan gorde eta murmurikatu zuen, hau sargentoak jakin behar du.

—Zer egingo dugu? –Itoa aipatuz.

—Haren bila etor daitezen abisatuko dugu. –Eta kolpetxo batzuk jo zituen kutxa metalikoan–. Nire aurkikuntza oso garrantzitsua delako.

—Hildakoa nik ikusi dut.

—Txostenean adierazita utziko dut –esan zuen, eskuzabal. Eta une batez amestu zuen uniformean josita zeramatzala merezitako komandante-galoiak.

—Miño, Duero, Tajo, Guadiana, Guadalquivir, Ebro, Júcar eta Segura.

—Oso ondo. Orain zuk, Helena. Zein da hau?

—Guadiana.

—Oso ondo. Eta hau, Jaume?

—Tajo.

—Eta zergatik ez dugu Noguera aipatzen? –ahots batek hondotik.

—Edo Pamano ibaia –Jaumet Serrallac mintzo.

—Ibai txiki bat da.

—Nire aitak dio Noguera Miño, Xúquer eta Segura baino handiagoak direla.

—Zure aitak arrazoia dauka.

—Ez, ez dauka. Pamano garrantzitsuagoa da. Arrantza egin daiteke.

—Non dago Noguera?

—Hemen. Ikusi, hau Segre da. Eta hau Noguera izango litzateke. Eta hemen Torena.

—Erakutsi, erakutsi?

Horrorea horrore, eskola-orduak arriskuetatik urrundutako irla bat dira. Francoren eta Jose Antonioren argazkiak, Espainiako mapa nonahikoa, Valentí jaunaren begirada iluna, zeina, nire iritziz, inoiz baino gehiagotan pasatzen den eskola aurretik, hurbiletik jagongo banindu bezala, besotik Lore Eder bat zeraman eguenean egin nuena ongi asko jakingo balu bezala. Esan ere badiote beste maisu bat bidali lezaketela eta hobeto lan egin genezakeela. Arima urratzen dit Ventureta ahizpak eskolara itzuli ez izanak. Nik ezin dut Venturarengana joan eta esan, koldar bat izan nintzen zure semea hil zutenean baina nire burua erredimitzeko saiatzen ari naiz, eta bestela, galde iezaiozu gordeta dagoelako sekula ikusten ez duzun zure gizonari. Eskerrak haurrek gorrotorik gabe begiratzen nautela. Agian bateon batek beldurra dauka, Jaumetek adibidez, ikasketetan urruti iritsi daitekeen ume bat bera, modu ulergaitzenean Valentí jaunaren planetan sartzen ez den anarkista ameslari bakartia den harrietako Serrallacen semea. Badakizu zer, alabatxo? Zer den ez dakidan baina jakitea komeni denean ezagutuko dudan zerbaiti buruz terrenoa prestatzen hasi naiz gaur. Bart ez dut lorik egin, zeren, talde batekin errekara jaitsi baikara, Rialb azpian, informazio faltsua daraman hildako bat uztera. Kosta egiten zait ezagutzen ari naizen gizon batzuek daukaten sentimenduen kontrolera ohitzea. Taldeburua, garraiatzen genuen hildakoaren anaia zen. Galiziarrak diren arren, hildakoari Morrot deitzen diote. Gaizki sendatutako zauri baten erruz hil zen gangrenaturik, eta ez dut malko bat igarri, zalantzarik ez anaiaren aurpegian, ez eta erreka hotz-hotzean abandonatu eta erregutu dugunean, bakoitza bere erara, Sorten edo beherago aurki zezaten, soldaduaren ehorzketa krudel hura alferrikakoa izan ez zedin. Taldeak, baserako itzuleran, eskolan pasa du eguna, ganbaran, bideari berrekiteko ilunpearen zain. Beldur sakona, telurikoa, ematen dit bi, hiru edo baita hogei gizon ere edukitzea ganbaran haurrei adjektibo kalifikatiboak zer esan nahi duen azaltzen diedan bitartean. Are handiagoa ematen dit Valentí Targa edo haren gizonak herritik paseatzen edo, urrutitik, gelako leihorantz begira ikusteak, nire joko bikoitza susmatzen baleude bezala. Badakizu? Beldurra gainditzeko idazten dut. Eta angustiaz ez lehertzeko: bizitza salbatu baino lehen, egiten ari naizen guztia azaldu ahal izatea nahiko nuke. Eta handiago egiten zarenean ulertu ahal izango duzuna. Ez dut nahi gerrarik ezagut dezazun, alabatxo maitea. Tira. Beste bizitza bat baldin badaukat, idazle eta margolari izan nahi dut. Marraztu eta idazteak bizirik sentiarazten nau.

Duela gutxi, hamar gautan eduki nuen Liondik alde egiten ari zen familia judu bat, Achille izeneko txakur oso hezi batekin, zeina nik Akiles birbataiatu nuen. Lasaiak, ondo heziak, isilak. Leher eginda zeuden laurak. Mendietan zehar ibiltzea lehergarria da ahalegin fisikoa sekula egin ez duen berrogei urteko abokatu batentzat, edo hogeita hamar bat urteko etxekoandre batentzat eta, batik bat, bi umeentzat. Zortea eduki zuten erreleboko gida atzeratu izanagatik; hura probidentziala izan zen indarrak berreskura zitzaten. Gure gidak mendia beren logela baino xehetasun handiagoarekin ezagutzen duten herriko kontrabandistak dira. Gehienak Salauko mendatea eginez hezi dira profesionalki. Hemengoak ala gabatxoak dira. Baina denak ezpal berekoak: zakarrak, isilak, begirada bizikoak, adin ertainekoak, ezinezko erresistentzia fisikodunak, begiak abiadore bat edo bi haur judu txirikordadun pasatzen eta, behar izanez gero, larrua jokatuz irabaziko duten diruan ipinita dauzkatenak. Egia da bizita jokoan jartzen dutela, baina segun eta nola ez naiz haiekin fido, kontrabandotik baitatoz. Hemen, beren herriko mendietatik harago mugitzen dakiten guztiak kontrabandotik datozen seinale.

Bi haurrak. Harritu ninduen sei eta zazpi urteko bi haurren diziplinak, Yves eta Fabrice, txakurrarena ez ezik ikasi nituen bi izen bakarrak, begiak etengabe zabalik, erabat izutu eta harritutakoen kondizioa markatzeko, kosta egingo baitzitzaien ulertzea ogro batek hil eta jan egin nahi zituela, ipuinetan bezala. Eta Akiles, ipuinetako bizitzaren hondorik gabeko

misterioak ulertuko balitu bezala, eguna zaratak hautematen eta isilik ematen zituen, ganbarara otorduarekin igo eta gorotzekin jaisten nintzenean niri begira. Etengabe zelatan zegoen efektua egin arren, sekula ez zuen zaunk edo marraka egin. Eurenetakoa nintzela ulertzen zuen. Ulertu al dezake zakur batek badirela piztiak baino gizon basatiagoak eta berak beretarrak zaindu behar zituela? Akilesek bazekiena zen bere isiltasunaren mende zegoela haurren bizitza. Bigarren gauean Akiles eta biok oso lagunak egin ginen: familia osoa lotan zegoen eta hark eta biok eskolako txokoak arakatu genituen, sudurra leihotik atera eta konfidentziak egin genizkion elkarri. Zutaz mintzatu nintzaion eta berak isatsa mugitu zuen. Esan nion oraindik ez daukazula izenik, eta are sutsuago mugitu zuen, berak bai bazekielakoan... Kontua da eskuak eta aurpegia miazkatu zizkidala ulertu izan balit bezala. Tentsio eta itxaronaldiko egun batzuen buruan beste gida bat, zakar eta isila hura ere, Bartzelonarantz eraman zituen, Poblatik barrena, Portugalerako bidean, fisikoki ez hain gogorra baina berdin arriskutsua izango zen bidean. Taldea gau ilunean murgiltzen zelarik, oraindik gogoan daukadan soa egin zidan Akilesek. Eta Fabricek eta Yvesek musu isila eman zidaten. Aita, tristea izateari utzi ezin zion begiradarekin, ordainetan bere erlojua ematen saiatu zen gizajoa. Nire ordaina, alaba maitea, familia oso bat salbatzen laguntzean sentitzen dudan harrotasuna da. Zakurraren erretratua egiten saiatuko naiz, hau irakurtzen duzunean imajina dezazun. Maite zaitut, nire alabatxoa. Esaiozu zure amari bera ere maite dudala. Nola desiatzen nagoen dena bukatu eta zu ikustera etor ahal dezadan, zure aurrean belauniko ipini eta gauzak nola joan diren azaldu. Eta ezin badut egin, koaderno hauek gelditzen dira, sekula idatzi dizuten eskutitzik luz

Harrituta behatu zuen Tinak eten hura. Ikerlari amorratua balitz bezala, sekula idatzi dizuten eskutitzik luz izango dela eta nekatuta sentitu zen. Egindako lana inprimatzen zuen bitartean ahalegin handia egin zuen Rosa imajinatzeko, eskutitzean apenas ateratzen zen hura, errebelatzeko ausardia eduki zuen hura. Ez zeukan argazkirik; koadernoen bukaerako aurpegia, begirik gabe eta ezpainik gabekoa baino ez zuen ezagutzen. Eta ohar laburretik isurtzen zen destain sakona, non bere gizonari aditzera ematen zion jadanik ez zela bere gizona eta ez zuela alaba sekula ikusiko. Destain haren forma eta tonua imajinatzen saiatzen zen eta berak orain Jordirekiko sentitzen zuenarekin alderatzen zuen.

—Juri Andreievitx, irten hemendik eta ez zaitez astuna izan.

Azken orriak, laserraren araztsunarekin inprimituak, zioen, eta ezin badut, koaderno hauek gelditzen dira, sekula idatzi dizuten eskutitzik luz

Tinak ezin zuen jakin Oriol Fontelles martir agurgarriak lerro haiek idazten ari zelarik, iluntzean, bakarrik, tarimako bere mahaira eserita, bat-batean atea ireki eta adats kizkurrekoa gelan sartu zela, baimenik eskatu gabe, Falangeko buruzagiek egiten irakatsi zieten bezala, eskubide jainkotiarrez zegokien espazioa konkistatuz, eta esan zuen, Valentí jauna, joan zaitezela oraintxe bertan Udaletxera. Ikasleen artean ezkutatu zuen Oriolek koaderno etena, eta pentsatu zuen zuhurgabe bat zela bere bizitza eta makiarena etsaiaren hain eskura uztean.

Agindu bat agindu bat da eta Oriolek eskola itxi, zamarra jantzi eta Udaletxerantz joan behar izan zuen, koadernoa arbelaren atzean ezkutatu ahal izan gabe, adats kizkurreko falangistaren begirada ironikoak kontenplatuta. Orain hartu eta esango dit, badira egunak ikertzen ari garela eta ondoriora iritsi gara zu zarela punteria txarreko putakumea.

—Hamar egun dira kasu bat ikertzen ari garela –esan zion bulegora iritsi orduko. Oriol isilik geratu zen, arima beldurrez uzkur. Valentí jaunak egurrezko astoa seinalatu zuen, margo-orbanez betetako izara batek zokoratua eta estalia.

Lehen aldia zen huts egindako atentatuaren ondoren saioa egiten zutela. Lehen aldia zen Valentírekin bakarrik zegoela, Torenako alkatearen garondora destatu, edo bere ustez destatzen zuenean, Lore Ederrak begietara so egin zionez geroztik. Valentí, diziplina kasik militarrarekin, posizio zuzenean ipini zen, eta Oriol, hasieran, kezkatuta zegoen eta ez zegoen modurik mahaikoarena bezalako kaoba bat aurkitzeko.

—Zein kasu? –Oriolek, bere ahotsa entzunez–. Zer ikertzen ari zarete?

—Gauzak –esan zuen Valentík. Baimenik eskatu gabe, zigarro bat kiribildu zuen–. Ezagutzen al duzu Eliot izeneko bat?

—Ez. –Zigarroa aipatuz–: Ez utzi ahoan.

Valentík zupada bat eman eta, esaneko, hautsontzian utzi zuen zigarroa. Kezko zutabe hipnotikoa goraka kiribilkatuz zihoan bulegoko sabai iluneko misteriorantz.

—Kuxkuxeroa zara, ez da?

—Ni?

Arnasa sakon hartu beharra izan zuen bihotza oihalaren kontra jauzi egin eta modu dolugarrian zikintzeko zorian baitzegoen.

Ez dakite ezer. Ezinezkoa dirudi baina ez dakite ni izan nintzela. Hamar egun bihotza aieneka bizitzen; gainera, makiaren lotura bezala estreinatzen zen, ihes ez egiteko agindu zehatzekin, makiaren iritziz Valentík eta bere gizonek ez baitzekiten ezer. Antza denez, egia zen: ez zekiten ezertxo ere. Marcó tenienteak arrazoia zeukan.

Mahai-zatitxo bat margotu zuen, aurrez aurreko aldea, eskua lasaitu eta pintzelkaden mugimendura ohitzeko. Pixka bat lasiago zegoelarik, pintzela aldatu eta bekainekin hasi zen. Sarriak, grisak hasieran, ia-ia hutsunerik gabekoak bata bestearen artean.

—Nahi al duzu sekretu bat azaltzea?

Orain bai bihotzak jauzi egin eta oihal oraindik samurraren aurka zapartatu zela.

—Ez mugitu –esan zuen kalteak disimulatzeko.

—Komandantzian oraindik ez dakiten gauza bat dakit.

Valentí Targa zoriontsua zen albisteen bozeramale egiten zenean. Boterea egoera puruan zen, informazioa ezjakintasunaren aurka, egia kaosaren kontra. Zigarroa hartu eta, aginduak desobedituz, eskuetan mantendu zuen Oriol seinalatuz.

—Jakin nahi duzu?

Oriolek ez zuen ez baietzik ez ezetzik esan. Bai, jauna, bai, bai esaten bazuen, bestea mesfida zitekeen hainbat antsiarekin. Ez dut ezer jakin nahi esaten bazuen, susmagarri izan zitekeen, zeren nork ez du sekretu bat jakin nahi eta are gehiago gabezia-garaitan. Beraz, keinu anbiguoa egin zuen, irribarre-hasiera adieraziz-edo, eta bekainetan kontzentratzen zela eman zuen aditzera. Valentík ezin zuen gehiago eutsi:

—Makia zonaldetik erretiratzen ari da –esan zuen begietara zuzenean so eginez erreakziorik ttikiena arakatzeko.

—Eta nola dakizu? –Ohialera itzuli zen, gauza interesatzen zitzaiola eta ez zitzaiola interesatzen adietzera emateko. Gainera, ez zuen Valentíren begiradari eusten egon nahi.

—Sekretua –erantzun zuen, asebeteta–. Baina iturri onetik dakit.

Makia zonaldetik erretiratzen da. Agur, Morrot, bizirik ezagutzera iritsi ez nintzen laguna. Baina erreferentziarik ez honako ideiaren inguruan, badakizu lehengo egunean garbitu egin nahi nindutela. Beste holako erreferentziarik ere ez, alegia, putakumea, orain hamar egun hil egin nahi ninduzun tiro bat garondoan emanda. Estació de Vilanovako jatetxean, ados? Aldiz, kontatu zion nola kasualitatea izan zen goardia zibila, Poblatik zetorrela, berarekin topo egin eta gauza garrantzitsu bati buruzko txostena ematea, eta hola Salcedo koronelak, zeinak uste duen hemen goian agintzen duela, ikusiko du Trempetik etorri eta hemen gertatzen dena azaldu beharko diotela. Ezgai bat da, pentsatzen duena patriotismo-lezioak eman eta oinak geldiarazi ahal dizkidala, Yuste gaixoa ez denean, zeina amorrutik errekupuratzen ari den oraindik.

Zati bat isilik egin zuten oraindik. Valentík zigarroa amaitu eta hautsontziaren kontra desegin zuen. Agian Salcedo koronelarengan pentsatzen egongo zen.

—A, eta bihar eskualdeko kamaradekin afaltzera etorri.

—Ni?

—Bai. Claudio Asín kamaradak bisitatuko gaitu eta hura ezagut dezazun nahi dut.

—Nor da?

—Santu bat eta gerlari bat. Nire maisua. –Seinalatuz–: Uniforme osoa.

Segundo batzuko zalantza. Eta so eginez:

—Ezinezkoa da biharko amaituta egotea, ez da?

—Koadroa?

Oriolek besoak zabaldu zituen amarrurik ez zuela egiten adieraziteko:

—Ez eta gaua esna pasata eta ni eskolara joan gabe ere.

—Jai har dezakezu. Nire baimena daukazu.

—Baina horrela ere ez genuke amaituko. Eta kalitateak galduko luke.

—Hori bai ezetz. –Pixka bat hausnartu eta burua mugitu zuen–: Lastima.

—Nahi al duzu mugimenduko buruordea izan?

Agian gehiegizkoa zen. Ala ez. Valentí jaunaren begiradak, ke maiztuko errezela baten atzean gordeta, beldurra eman zion. Orain putakume esango dit, badira hainbat egun, etab.

—Zu oso azkarra zara. Nola dakizu?

—Indizioak.

—Laguntzen badidazu, zin dagizut nire idazkari pertsonala izendatuko zaitudala

Nirekin jolasean ari ote da?

—Ohore bat izango da, Valentí jauna. Eta nola lagundu ahal dizut?

—Paper-kontuetako lanak egiten hasiz, zuri idaztea ondo doakizu eta, egia esan, ni galdu egiten naiz. Badira Udaletxeko paper batzuk...

—Laguntza Udaletxean.

—Horixe bera. Udal-idazkari ez daukagun bitartean...

Oriolen isiltasuna. Zer esan zezakeen.

—Gainsoldata bat emango dizut. –Dena erabakita balego bezala–: Eta gainera, txosten bat idatzi ahal didazu... Itxaron, badakizu zer?, gaurkoz badugu aski erretratu. Orain esango dizut egin ahal didazuna...

Horrela gertatu zen panegiriko bat idatzi nuela, makiarekin topo egiteko aukera izan ez banu, orduan ere idatziko nukeena baina beldurrak garaitutako gizon bat bezala, eta aldiz askatasunaren aldeko zerbitzua egiten ari nintzela jabeturik idatzi nuena. Txosten patetikoa non esaten zen eskerrak Targari ordena ezartzen zuela makien ekintzek asko zigortutako zonalde batean, non bertakoak instrukizorik gabeko jende diren eta anarkisten eta komunisten kaosaren garaian buruan sartu dizkieten akatsez beteta. Eta holako gauzak. Eta batik bat, eskerrak Targa jauna daukagula, zeinaren pultsuak ez duen dardararik Patria defendatzeko garaian. Egunen batean Valentí Targa, Torenako hiltzailea, santu egin genezakeela pentsatzeko modukoa. Eta amaitzen zuen esanaz, bizitza luzea Valentí Targa Sau patriota goren honi. Viva Franco, Arriba España.

Joko bikoitzak labanaren alde bikoitz zorrotza esan nahi du. Mugitu eta min har dezakezu. Hainbeste beldur daukat barruan, alaba.

Ostera elurra botatzen ari zuen, eta Tina Bros Zhivago doktorea laztantzen zebilen maluta nekatuak ikusten zituen bitartean, presari gabe erori eta herria estaltzen zutenak. Ospitaletara deituz eman zuen arratsaldea, ahots amultsua eta erabakitua ateraz, berrogeita hamarreko urteei buruzko doktore-tesia asmatuz, Jordi balitz bezala gezurra astinduz, izenak erdizka emanez, jasotako mesede ordainezinengatik tesiaren hasieran aipamen pertsonalak aginduz, eta leher eginda bukatu zuen, eta konbentzituta, ez zuela aurreratu eta seguru aski absurdoa zela ezarritako egia historikoaren gupidagabetasun irmoak dena hain lotuta zeukan tokian argia egin eta sudurra sartzea. Agenda, ohar presatuak letra ulertezinez idatzita, itxi eta mugitzen hasi zen, isiltasun ia erreberentez gauzak zuritzen zuen elurra leihotik begiratuz. Haren aurrean, Pallarsko etxe, kale eta kanposantuei buruz bukatzeko puntuan eta zirrikiturik gabe zegoen liburua osatzen zuten ehun argazki ordenatuak; baina bere buru barruan, Oriol Fontellesen koadernoak, alde zuriz beteak, galderaz beteak, non topa dezaket Oriol Fontellesen alaba, zeinak izenik ez daukan ez bere aitarentzat, ez niretzat, eta antzeko zeraz beteak. Juri lurrean utzi, agenda hartu eta gelatik atera zen, erabakimenez. Joan zenetik Arnauren gelan sartzen zen lehen aldia zen. Bertan egoteko sartzen zen lehen aldia. Dena ordenatua, asteburuko kolonietara joan izan balitz bezala, gauza bakoitza bere tokian, nondik atera dugu holako seme bat, zegoenik ere sumatzen ez genuen bizitza bizitzen.

Arnauren aulkian jesarri zen. Mahai liso eta garbia, afera guztiak eguneratuta, ezer ez egiteke, Arnau ez dago senarrarekin hitz egin eta haren ondradutasunaz azalpenak eskatzeko zain. Arnau holako kinka batean egongo izan balitz, burutuko zukeen; beti dauka mahaia garbi eta distiratsu. Tiradera bat ireki zuen. Gauzak, oroitzapenak, Jordik oparitutako luma hura, eta bera, Tina, hamar urte bete zituenean. Koloretako arkatza, txintxetak, faltetsi egiten zaitut, Arnau, seme. Azpiko tiradera ireki zuenean, bihotzak jauzi egin zion, ez baitzuen ulertu. Onartu ere ez.

Albuma hartu eta mahai gainean utzi zuen. Monasteriora ihes egin aurreko gauean berak oparitu zion albuma, haren argazkiekin, aita-amen argazkiekin, denak ondradu eta zoriontsu ginenekoak, aldi askotako argazkiak, ilusio handia egin ziona, esan egin baitzenidan, hemen irarrita daukat, eskerrik asko argazkiengatik, ama, ilusio handia egin didate. Horixe esan zenidan eta sekula santan bisitatu nahi ez duzun gela honetako mahaiko hirugarren tiraderan utzi dituzu, monasterio hotz, sabai altuko eta aire-korrontez betetako batean ehortzeko prest zaudelako. Nolako atsekabea, seme maitea, nolako atsekabea.

Argazkiak berrikusi zituen, banan-banan, era hartara uzteko zer ez ote zitzaion gustatu asmatu nahirik, eta ez zuen argibiderik aurkitu. Zhivago doktorea elur-maluta bat bezain isilik sartu, ohe gainera jauzi egin eta Tinaren duda-mudaz jabetu zen, errukior.

—Zer iruditzen zaizu, Juri Andreievitx? –Albuma erakutsi zion–. Ez du eraman nahi izan.

—Agian ez zuen faltestera eraman zezakeen ezer eraman nahi –erantzun zion Zihvago doktoreak. Eta jarraian aurreko zango bat miazkatu zuen hunkidura disimulatzeko. Ez zion Tinari begietara so egin nahi izan.

Orduan Tinak erdizka ulertu zuen, ezen Arnauk egin ere egin zuena lehengo bizitzari buruzko oroitzapenak uztea izan zela, bizitza berriaren onerako. Zu bai malapartatua, pentsatu zuen: albumari uko eginez gero niri egiten didazu uko. Zergatik zara hain ankerra. Eta gogoratu zuen ezen Jesus krudelak esan zuela, jarraitu niri, utzi zure gurasoak eta zure anai-arrebak eta utzi

hildakoek hildakoak ehortz ditzaten, bera Oriol Fontellasen memoriarekin eta Rosaren aztarna lausoarekin egiten ari zen kontrakoa, alegia, zeinak orain berrogeita hamasei urte Oriol Fontellesen emaztea hil zen ospitalea bilatzera zeraman. Ni ez bainaiz azkarra, lau kilotxo dauzkat soberan, ez daukat kultura handirik baina saiatzen naiz zu bezain krudela ez izaten, monasterioetako jaungoiko hori, amei iritzirik eskatu gabe semeak giza arrantzale bihurtzen dituzuna. Ongi, sei kilotxo.

Albuma itxi eta bere tiraderan utzi zuen. Zaratarik atera gabe itxi zuen, ezkutuka mugitu beharko balu bezala. Orduan konturatu zen ezen taulako txoko batean agenda zegoela. Zure agenda ere uzten duzu, seme? Hain sakona izan behar al du mozketak? Baimenik gabe ireki zuen, sekula egiten saiatu ez zena. Azken astean azken egunak: astelehena, Mireiari dedikatua, letra lodiz eta orri osoa hartzen zuen lerro batekin. Mireia. Lleida. Zein da Mireia. Zein da monjeen atzaparretatik aldentzeko gai izan ez den neska hau. Mireia, ezagutu nahi zintuzket nere semearen gauzak azal diezazkidazun. Seguru asko ni baino hobeto ezagutzen zenuen. Maite al zenuen? Larrua jo al zenuten? Inoiz jo al du larrua nire semeak? Nik ezin diot jada galdetu. Ez dakit, hamar bat urte zeuzkala, Ferrara ibarrera egindako txango hartan, handitzean zakila zertarako izango zuen azaldu genion, eta esan zuen, orduan nik ume asko izango ditut, ziur. Eta gu erabaki berriak ginen ez genituela besterik izango, Arnau eta aski. Mireia. Lleida. Egun oso bat Mireiari agur emateko. Oso garrantzizkoa izango zen haren bizitzan. Asteartea, Ramon eta Elies lauretan. Cervera, oinarrizko komunitateak. Asteazkena hamazazpi, oinarrizko plataforma, arratsaldea, parrokia. Tremp. Iluntzea: Agurra gurasoei, afaria. Gurasoei, afari bat. Mundu guztiak bazekien gurasoek izan ezik, jabetzen beti azkenak izan ohi baitira eurak. Gurasoei, soilik afari bat. Ramon eta Eliesi, arratsalde bat. Mireiari, egun oso bat. Denek al dakite Jordik adarrak jartzen dizkidala? Denek nik izan ezik? Jakiten azkena izan al naiz ni? Eta bi milako urtarrilaren hamazazpian, trazo indartsuz, ia bozkarioz, jartzen zuen, goizeko bederatzietan monasterioan ingresatuko dut. Bere betiko gustu onak harridura-seinalerik ez ipintzea eragotzi zion. Monasterioan sartu eta kitto. Eta besterik ez. Hain aurreikusita zeukan, ez zuen deus besterik idatzi han, agenda ia hutsean. Ala ez, apirilean... Tinari ustekabeko malko bat atera zitzaion irakurri zuenean, apirilaren hogeita hamarrean, amaren urtebetetzea. Bai, apuntatuta zeukan, baina utzi egin zuen. Itxi egin zuen, goibel. Txokoan utzi zuen, ardura handia balu bezala ezen Arnau, bizitza oso baten buruan itzultzean, konturatu ez zedin amak haren gauzak mugitu zituela. Eta pentsatu zuen zertarako beharko zukeen agenda bat monasterioan maitines, laudes, prima, tertia, sexta, nona, bezperak eta konpletak beti maitines, laudes, prima, tertia, sexta, nona, bezpera eta konpleten orduetan errezatzen badira. Mutil gajoa, bizitza maitines, laudes, prima, tertia, sexta, nona, bezperak eta konpletak egiteko joari so eginez eta zoriontsua dela pentsatuz igaroko duena.

Bereziki larria izan zen gau hura: iluntze aldera, mendateko haize zorrotz eta deserosoa bufaka hasi eta Montsenteko isuriak antzigarrez beztitu zituenean, bi egunez espero zuen paketea iritsi zen: begi izutu eta esku dardartiko gizon bat, haren adineko emazte bat, isilik, ihes egitera ia etsita, eta bi neska txirikordadunak, nekeak zurbilduta. Beste familia bat, ez, pentsatu zuen. Zorionez, ez zekarten zakurrik. Eta gida, Songo gizon bat, belarri ondora esan ziona, utz iezaiezu lo egiten egun oso bat. Ezin dute gehiago.

—Nondik datoz?

—Holandatik. Nik ere hemen emango dut gaua.

—Ez da gau ona jendea edukitzeko.

—Sekula ez da gau ona. Baina ezin dut gehiago.

Ganbarako eskaileretan gora bultzatu behar izan nituen, une horretantxe iristen baitzen Valentí Targa bere gizonetako pare batek lagunduta, egingo zuela agindu bezala. Honexek ematen dit beldurrik handiena: gelan haur ttikiak daudenean, ganbaran norbaitek dominiStiku egiteak edo besterik gabe erotzeak. Erotzeko motiborik bai baitzegoen. Beranduago, emazte holandarrak bere historia kontatu zidan: juduak ziren haiek ere. Neskatoen ama zen. Gizona matematiko bat, aliatuek Lisboan nahi zutena hamabost egun barru eta berak inondik ezagutzen ez zuena, eta gorroto zion beste pakete baten zain Maastrichen geratu behar izan zuen senarraren lekua hartu zuelako. Eta esan zidan bi neskatoek isiltzen eta beldurra irensten ikasi zutela. Yves eta Fabrice ekarri zizkidaten gogora, izu isileko begi berberak. Emazteak ere esan zidan ezen neskatoak, SSek Haarlem arakatu eta garrasika eta marrakaka bi tren oso beteta, aitona-amonak desagertu zireneko gau hartaz ez mintzatzen ikasiak zeudela: horrorea gainditzeko modu bakarra zen. Baina emazteak sufritu egiten zuen isiltasunak ariman min egingo zielako azkenean, eta jadanik ez dakit zer egin. Eta nik ez nekien zer esan ahal nion, emazte gajoa, baina ulertu nuen beti dagoela seguru aski zu baino okerrago dagoen jendea.

Niri iruditzen zait zerbait susmatzen hasia zela Valentí Targa. Zergatik bestela erabaki zuen gau hartan prezeski eskolara etorri behar zuela Lleidara eraman behar zituen paperen bila, sinetsarazi nahi zidanez Sorterako errepidea asfaltatzeari buruz mintzatzeko? Zergatik ez ninduen Udaletxera joanarazi? Bere paperen arakatzea bereziki geldoa izan zen. Apropos egingo balu bezala. Eta isiltasun luzez, ganbaran edozein neskato judu txirikordadunaren eztul inkontrolatua entzuteko zain balego bezala. Handik joan zenean eta orain eskolan daukadan gelan lo egitera nindoala ikusarazten nuelarik, argi guztiak amatatu eta ordu erdi luze itxaron nuen. Orduan, ilunpetan, benzolezko sukaldetxoa igo eta bizkortu zituen zopa bat prestatu nien. Baziren hamabi egun bero jaten ez zutela. Aste batzuk baziren nik lo gutxi egiten nuela. Gerra zen, alabatxoa. Gidak esan zidan talde holandar hau ez zetorrela Ariejatik Mongarri eta Pla de Beretetik barrena ez eta Salauko mendatetik, baizik Andorra aldetik. Itzulinguru arraroa egin zuen Tor eta Ferrera bailaretatik. Galdetuko duzu zer dela-eta ekartzen zizkidaten Torenara; oso erraza eta dramatikoa da: Pallars osoan ez dago beste toki segururik, inork ez duelako hartarino kolaboratu nahi. Torenako eskola pakete-gordailu seguru bakarra da; jendeak beldur handia dauka ibar eta mendi hauetan, ia-ia nik beste.

Tinak koadernoa begietara hurbildu eta atrilaren gainean utzi zuen ostera. Betaurrekoak kendu eta begiak igurtzi zituen. Kosta egiten zitzaion letra zaindua baina oso-oso ttikia irakurtzea. Oriol Fontellesen antsia erosoago irakurtzen zen ordenagailuaren pantailan, hamabiko gorputzean eta helvetika iturrian. Tinak bere buruari galdetzen zion ea bi neskato txirikordadun haiek Lisboaraino iritsi ahal izan ote ziren edo patu gaiztoak bide erdian harrapatu ote zituen. Yves eta Fabriceri buruz bazuen albisterik, baina neskato txirikordadunei buruz batere ez. Berrogeita hamasei urte baziren neskato judu holandarrak neskato txirikordadunak eta begi izutukoak zirela, duela hilabete bat bota zuten Torenako eskolako ganbaran zopa beroa irensten zutelarik. Nola gustatuko litzaidakeen lagundu ahal... Nola gustatuko litzaidakeen Arnaurekin mintzatu eta haren ilusioak ezagutzea. Begietan beldur-modukoren bat ba ote zuen jakitea. Nola gustatuko litzaidakeen datorren ostegunean medikuarengana joan behar ez izatea. Nola gustatuko litzaidakeen Jordik niri sekula gezurrik ez esan izana. Jainkoarren, zer egin ote dut gaizki nire bizitzako azken berrogei urteotan.

Lainotuta hasi zen eguna eta dena lainoturik egongo zen, nik patena bat bezain garbi egon behar zuela esandako uniforme potroso honetatik hasita.

Hauxe zen Torenako alkatearen drama, ez baitzuen etxea Torenan, Altronen baizik, non familiatik geratzen zitzaiona bizi zen eta ez zuten ezer jakin nahi, haserre baitzeuden aspaldi, Malavellako hura gertatu zenez geroztik. Aberats, oso aberats egiten ari zen alkatea, baina atseden hartzeko etxe zipitzik ez zeukana, emazte eta seme-alabekin eta ortutxoa atzeko aldean, izan ere ez Gravat etxean ere, non Goel partikularra naizen, ez dute ni han agertzea nahi. Kutsatuko banu bezala. Patriaren alde egiten dudan lana haientzat deseroso balira bezala. Begietaraino diruz beteta baina Marés etxean bizitzen nire gizonekin; pensatze hutsak tripako mina ematen dit. Eta nire Goel lana amaitzen dudanean etxe bat eraikiko dut Arbessé aldean, herrira begira, begiratzeari sekula utziko ez diona, eta leihora atera eta pixa egingo dut Torena gainean. Zin dagit egingo dudala. E? Ez al nuen esan uniforme kaka honek patena bezain garbi egon behar zuela? E?

—Amak ez zidan deus esan.

—Zure amak esaten duena... –Bi aldiz hartu zuen arnasa, lasaitzeko–: Ondo iruditzen zait zure amak esaten duena baina nik ere esaten ditut gauzak. Eta hemen bizitzeagatik ordaintzen dut.

Modest, tabernan, alkatearen madarikazioak entzuten eta ahopeka esaten, gutxienez ordainduko balit...

—Zer gertatzen da?

—Ez ama, Valentí jaunak...

Oraintxe garbituko dut.

—Ez kezkatu. Nahi izanez gero orain bertan bota dezakezu alkandora, berandu bainabil eta mekagoen amaren seme halakoak, denak. Denak, ezgai koadrila bat besterik ez baitzarete.

—Alkate jaunak bere pentsioa ordainduko balu... agian buila ateratzeko eskubidea izango luke...

Isiltasuna. Gelditasuna. Tabernan, Modest arimaren eskuak buruan jarriz eta oihu eginez, Maria erotuta al zaude, galdu egin nahi gaituzu.

—Zer esan nahi duzu, Maria?

—Oraindik ez digula pentsio-egun bakar bat ordaindu. Eta badira hiru urte hemen dagoela.

—Nire gizonek ondo ordaintzen dute.

—Zutaz ari naiz.

Hara zenbateraino den puta miseria, ezen gerrako heroi batek, ezaugarri gorriko meritu militarreko gurutze handiaren jabe denak (ipurdian bi metraila-ezpal Aragoiko frontean, Trempen sartu baino hiru egun lehenago), ordenako jendeak errespetatuak, Falangeko tokiko eta eskualdeko buruak, Claudio Asinen ikasle espiritualak, zonaldetik injustuki urrundua izandako Sagardia generalaren lagun pertsonalak, Yuste koronelaren ezagunak (Sagardia indartsuaren ondorengo ahula bera), Salcedo koronelaren etsai intimoak, piezak ondo mugitzen ikasiz gero mugimenduko buruorde probintzial posibleak, bi denden Bartzelonan eta Lore Eder ikusgarriaren jabe, zeinak noizean behin Bartzelonan itxaroten zion, non oraindik kitatu gabeko negozioak zeuzkan, diru-sorta ederrarekin, arauzko bi alkandora puta urdin baino ez dauzka. Barkatu: arauzko bi alkandora urdin laudagarri. Ez baitzegoen besterik; gerrako ekonomia-garaian baitzeuden eta alkandora kakiak alkandora urdinen aurretik pasatzen ziren eta sei-zazpi eskatu zituen arren, ez. Eta gainera ezgai batzuen etxean bizi bazara.

Tabernarako eskailerak bere zama astunarekin jaitsi zituen, sendo zapalduz, halako moldez non Modestek edozer gauza garbitzen ari zen plantak egin zituen. Valentí jauna, kaleko jantziz, agur esan gabe atera zen Marés etxetik kapela buruan, eskuak gabardina argiaren patriketan eta pentsamendua belztuta, egun gogorra baitzetorren. Gómez Pié eta Balansóri esan zien ez zuela beharrezkoa haien konpainia, toki ziurrera zihoala, lasai, baina ez zen horregatik baizik ez zuelako inolako umiliazioaren testigantzarik nahi, Ramallo Peón koronelarekiko elkarrizketa oso gogorra izango baitzen, eta badakit zertaz ari naizen niri inork ezin baitit Espainiarekiko maitasunari dagokionez lezioak emango patriaren alde egin dudan guztia eginda, etab. Dena egiten baitut Patriaren maitasunagatik, Caudilloarekiko erostezinezko leialtasunagatik, mendi haietan ugari dabiltzan traidoreak aurkitzeko eta Pirineoko mendiak kutsatzen dituzten soldadu arerioen kabiak aurkitzearren.

Mintzatzen ari zela, Targak bulegoari begirada bat ematen ziharduen, koronela bezain aratza, Generalisimoa eta Jose Antonio martiria horma nagusian buru, eta alde batean Ekialdeko Pirineoetako mapa bat, bat berrogeita hamar milako eskalan. Eta airean, Ramallo Pezón ergelaren tabako eskasaren hatsa, zeinak isil-isilik egiten uzten zion. Orduan arretaz begiratu zion koronelaren isiltasunari, patilla zuri eta milimetrikoki tailatuak oharkabean ukitzen zituelarik. Azkenean, militarrak leihorantz begiratu eta begirada nekatua igorri zion Valentí Targari.

—Pirinioetan ez dago soldadu areriorik –puntualizatu zuen.

Airea zikintzen zuen purua hautsontzian kontsumitzen ari zen–. Ez gaude gerran. Soilik bandoleroak daude.

—Nik nioena, koronela. Baina bandolero hauek zonalde hau ezagutzen dute bertako jendea daukatelako, traidoreak. Kontrabandistak, artzainak, nekazariak. –Mahai gainean joka egiteari utzi ezinik–: Eta nik badakit zeintzuk diren! –Bularrean kolpe bat eman zuen, penitente baten gisara–: Ni hangoa naiz! Hango semea! Denak ezagutzen ditut!

—Gauzak ezin dira edozelan egin. –Ramallo Peón koronelak lasaitasunez esan zuen, bestearen inpazietziaren gainetik jartzeko–: Ulertuko duzunez, niri bost nahi duzuna egiteak: Seguru norbanako haiek batean edo bestean errudunak direla. Baina iritsi da forma batzuk gordetezko unea.

—Nik, nire herrian, non alkatea naizen, eskoltarekin ibili beharra daukat!

—Patriarekiko zerbitzua gogorra da.

—Neutralizatu ditzaket traidoreak.

—Hortan dabil armada espainiarra. –Purua hartu eta zupada bat eman aurretik–: Falangek... estiloa aldatu beharko luke.

—Zu ez zara inor Falangek zer egin behar duen esateko.

—Zu ere ez armadaren aginduak diskutitzeko.

—Sagardia generalaren lagun pertsonala naiz.

Koronelak aire absentez so egin zion. Zupada bat egin eta Targarengana bidali zuen kea, hauteman ez ote zuen. Tonu berean Torenako alkateak:

—Yuste generalaren lagun pertsonala naiz.

—Mehatxu bat al da?

—Ez: zure nagusi jerarkikoa da.

Tina aulkian birkokatu zen. Ordenagailuaren gainean, handik sortzen zen beroa baliatuz, Zhivago doktorea, dotoreziaz makurtuta, indiferentziaz begiratzen zuen arra betera zeukan horma, eta Tinak inbidia pixka bat sentitu zuen. Betaurrekoak ipini eta post-it batean “Arnau” idatzi eta ordenagailuaren kaxan itsatsi zuen. “Arnau” arkatzez hondo horiaren gainean esan nahi zuen monasteriora deitu eta ezagutzen ez dudan baina dioena ezen, ikusten denez, gutxi gorabehera familiakoa den baten ahots untuosoko norbaiti baimena eskatzea, eta hari erregutzea nire semearekin hitz egiteko baimena, hura bai nire familiakoa. Nire semea, nik sortu nuena. Sentitzen dut bada, anderea, baina orain ezin dira eragotziak izan. Esan berri dut ni naizela hartaz erditu naizena eta orain lanak harekin telefonoz mintzatu eta esateko, Txileko gke bateko kideek ez dakit zer nahi duten eta azalpen bat eskatzen dutela, ikusten denez zerbait esan behar zeniela orain bi hilabete eta ez zeniela deus esan.

—Baina, ama, ni... Berdin dio, emaidazu kontaktuko telefonoa, bai.

—Nola doakizu dena, Arnau? –Sakonean horretarako deitzen zuen.

—Ongi, ama, eskerrik asko. Eta zuek?

Zure aitak ezezagun batekin engainatzen nau, hitzordua daukat medikuarekin, nire semeak etxetik ihes egin du baina dena ondo doa, oso ondo.

—E? Nola zaudete, e, ama?

—Ongi, seme, ongi.

—Eman musu bat aitari, nire partez.

Ezinezkoa, jada ez diot musurik ematen: ezinezkoa, seme. Ez iezadazu eskatu.

—Ongi. Emango diot. Zoriontsua zara?

Azkenean esaten ausartu zenean Arnauk eseki egin zuen, antza denez presa ikaragarria zeukalako txukuntzen ari zen parterrera itzultzeko edo rorate coeli de super et nubes pluant iustum kantuarekin jarraitzeko, begiak zuritan, amarekin hitz egitea baino gauza garrantzitsuagoak eta esentzialak baitira beti. Urlia ozpindua bihurtzen ari naizela irizten diot.

Orduan lerro hartatik abiatuta transkribatzen jarraitu zuen, non Oriolek azaltzen zuen Noguereseko ibarretan mundu guztiak zeukala beldurra, makia eta armada elkar ukituz, eta heriotza-zigorraren aplikazio sumarisimoarekiko mehatxuekin halako kasuan non. Biharamun goizean, Valentí jauna Lleidarako bidean zegoelarik eta ni handienei objektu zuzena azalduz, Nasiren Maria etxeko Cassià etorri zen, eguna ahoa zabalik hodeiei begira pasa zezan eraman ezin zuen Taioren noizbehinkako laguntzailea, eskolara iritsi ohi ziren eskasak ez bezalako sobre batekin. Hogei eta pixka bat haur gehiagoren aurrean zabaldu eta hamaika aldiz irakurri nuen mezu arraro hura, gutxi gorabehera beste ezer baino gehiago agindu bat zena: luzapenetan galdu gabe agintzen zitzaidan, eskola itxi eta ordu batera, Cardós bailarako ostatu batean aurkez nendin, non instrukzioak jasoko nituen. Arraroa iruditu zitzaidan eta zuhurtziagabekoa ere bai horrelako deialdi bat korreoz bidalita egitea. Baina gaitza eginda zegoen. Agindua bete edo ez hausnartzen egon nintzen. Areago egun batean non atentzioa eskatzen zitzaigun, denak Lleidan erreklamatzen zituzten, egun garrantzitsua bizitza normala egiteko, inork, inortxok ere susma ez zezan berak informatu zuela hamar egun barru, mila bederatziehun eta berrogeita lauko martxoaren hogeita hiruan, san Josep Oriolen egunean, Targa Lleidara joan ohi dela bakarrik bere gehiegikeriengatik kapitulura deitzen duten autoritate zibil eta militarrekin elkarrizketatzera. Nahi duzuna jokatzen dut bakarrik joango dela, estu hartuko baitute. Marcó tenientearen jendea mobilizatu zuen informazio ona zen. Eta gero babesa eman ohi dion militarren batekin elkartuko da. Ez dakit non; itzuleran. Eta orain ostatu hartara joateko pellokeriarekin ateratzen dira.

Nire diziplina-senak irabazi zuen azkenean, eta arratsaldean eskola itxi eta gero Sortera jaitsi nintzen Pere Serrallacen kamioia profitatuz. Hain ona da gizon hau, ihes egiten baitit falangista aprobetxategi batekiko bere mespretxua erakusteko; baina ezin dit laguntza ukatu eta Ribera ondoan utzi ninduen, ordu erditxoa ibiltzea baino ez neukan. Tentatua egon nintzen bidaia osoan harrietako Serrallaci adierazteko ezetz, ni ez nintzela pentsatzen zuena. Munduari esateko saiatzen bizi naiz. Apurtzen zaidan nire harrotasuna da. Lasaitzeko, bere semeari buruz mintzatu nintzaion, eta ziurtatu nion Jaumetek balio duela ikasteko, irakurle ona da eta sentibera.

—Etxean badira liburuak.

—Antzeman du. Eraman ezazu Trempera ikasteko.

—Ezin dut. Sos asko dira.

—Beraz sar ezazu seminarioan.

—Ez ta mozkortuta ere. Barkatu, Oriol jauna, baina...

—Ez, ulertzen dut... Baina han dohainik hezi dezakete. Irteteko garaia egongo da beti.

—Eta gustukoa badu? E?

Harrietako Serrallacek buruarekin ukatzen zuen, kamioiaren leihotik zigarrokina botatzen zuelarik.

—Nekazariak beti nekazari izango gara –esan zuen ondorio bezala.

—Zu ez zara.

—Jakina baietz. Harriak lantzen ditut nik.

Eta leihotik begiratu zuen, beste alde batera, nahikoa zela jakinarazteko, maisua izango nintzen arren, bera zela semearen etorkizuna erabakiko zuena. Ez zidan deus besterik esan kamioia Riberara iritsi artean.

Oriol, errepidetik urruntzen zelarik, Estaoneko bide estu eta biurrian gora ausarki igotzen hasia zen kamioiaren zurrunga asmatikoa entzun zuen aldi batean.

Ainet ostatuak, eraikin utzia bera, argirik ez zegoelarik, jada paisaiarekin nahasten zuen bere soslaia. Oharrak zehazten zuena egin zuen Oriolek: sartu, Hamabosgarrena eskatu eta zuhurra izan zedila.

—Zer diozu?

—Hamabosgarrena.

Ostalariak giltza pasatu zion txintik atera gabe eta barrurantz joan zen, ezer jakin nahiko ez balu bezala. Plaka metalikoaren zenbakia irakurri zuen: hamabosgarrena. Suposatu zuen eskailerak ilunetatik izango zela. Hamabosgarrena, bai. Atea jotzekotan egon zen baina giltzaz gogoratu zen. Sarrailan ipini eta birarazi egin zuen. Lehenik eta behin usaina sentitu zuen. Lurrina. Atea hasperen desesperatua eginez ireki eta Marcó tenientea ikusi zuen, bere gizonekin beste nonbait egon behar zuena, aulki batean eserita, aterantz so eginez eta nardo-usain nahasgarria isuriz. Arnasa moztu zitzaion orduan eta bihotza jausika hasi: ez zen Marcó tenientea. Elisenda Vilabrú, Elisenda, bere nardo-usaina eta guzti, serio, altxatu eta esaten zion, seguru nago lehena naizela zure urtebetezea zoriontzen. Ordura arte ez zuen irribarre nerabea abiatu.

Gobernu Militarretik irteetean, miresle batekin topo egitea izan zen lehen sorpresa atsegina, Cartellá kamarada, zeinarekin loria eta arriskua konpartitu zituen Aragoiko aurrerapen garailean eta zeinarekin Catalunyan triunfalki sartu ziren lehen soldaduetako bat izatearen ohorea bizi izan zuen horda sobietarrak eta separatistak xaxatuz eta lehenetarikoak izan ziren konkistatutako herrixketako jendea besoa luzatuta agurtzera behartzen eta vivaespaña eta arribaespaña esanarazten. Eta gainera haiek alaiki besarkatzera behartu zituzten, Patriaren defendatzaileak baitziren eurak, Generalísimo Francoren Armada Loriatsuko soldadu garaitugabeak. Bide erdian elkar agurtu zuten Cartellá eta biak, hunkituta, besoa airean eta takoiak joz, bera kaleko jantziz (kagoen Marés etxeko neskame puta guztiak) eta Cartellá kamarada uniforme oso eta akasgabearekin. Behar bada hiriaren alboan mendian baino hobeto zainduak egongo ginateke.

Sendo kafetegiaren kandelapean, bi begi artegak behatuta, eguneratu egin ziren bi falangistak eta Targak bere kideari adierazi zion gogora zedila bizitza osoan, baina armada barruan eta erregimen barruan, badago jendea benetako patriotei ostiko emateko gai dena.

—Ez.

—Bai. Militarrak.

—Zu zurera. Probintziako kamaraden miresmena daukazu.

Agian ez zen hain zaila izango mugimenduko buruorde probintziala izatera iristea.

—Nola?

—Jakina! Gutxi gorabehera mugan bizi zara eta geldi asko daukazu putakumeen herri bat.

—Bai, bai, baina koronel malapartatu batek kritikatu egiten nau. Sagardiari komentatu beharko diot. Edo Yusteri.

—Tratatzen al dituzu? –Begi borobilak, ahoa zabalik.

—Intimoak –Euforiko–: Nahi al duzu Yuste aurkeztea? Zer egingo duzu gaur?

Elisendak aterantz abiatu eta itxi egin zuen. Belarritako bitxidunek eztanda isil minuskuluak egiten zituzten aurpegiaren alde banatan. Oriol zutik geratu zen, zurrun, zer egin jakin gabe. Delirio-une batean pentsatu zuen Elisenda makikoa zela. Emakumeak aurrean jarri eta esan zion, eskerrik asko etortzeagatik, eta Oriol erantzuteko puntuan egon zen, uste nuen Marcó tenientearekiko hitzordua zela eta... Andereak bi eskuak hartu eta esan zion, Oriol maitea, badakit bakarrik zaudela, zure emazteak... tira, oso bakarrik egon behar duzula. Eta nik lagundu egin nahi dizut, erantzule sentitzen bainaiz.

—Ez dakit nola egin ahal duzun. –Oriol atezuan eta oso durduzatuta.

Pentsatzen zuena zen elkarrizketa bat zeukala zain emakume harekin, esan zidalako ez zitzaiola deus gertatuko Venturetari, eta holako andere batekin ez dut inolako traturik nahi. Hark, pentsamendua asmatu izan balio bezala, oin-puntetan altxatu eta mutila arnasarik gabe utzi zuen musu bat eman zion ezpainetan, zalantzarik gabe eta memoriarik gabe, zein gauza ezinezkoa holako dama bat ni bezalako gizon batengan begiak...

Hainbeste fijatu zen, ahoa berearekin batu eta soilik itotzeko zorian zegoenean utzi zuen, eta begietara so egin, eskuarekin laztandu eta barrutik pentsatu zuen, gizon ondradua, gizon kultua, gizon guapoa. Ez dut inoiz ihes egiten utziko.

Espazio zuria. Zirrimarrak. Segurutik, Oriol Fontelles borrokan zebilen bere baitan egokia ote zen bere alabari ezinezko maitale bat zeukala kontatzea, zeinaren izena ezkutatzen zuen auskalo zein arrazoi dela medio. Ulertzen zituen zalantzak, baina Oriol gorrotatzen hasi zen hitzordu hura ostatu batean izan zelako, non Jordik... Ongi, non. Beraz, non harako hura. Berrogeita hamar urte beranduago, baina ostatu berberean.

—Gustukoa al nauk?

—Bai, asko. Baina, ordea...

—Banekien. Margotzen ninduanean... banekien.

—Baina hi, tira, hi ezkonduta hago eta...

—Hi ere bai. Zergatik ari hintzen nigandik iheska azkenaldi honetan?

—Ez, ezergatik ez.

—Zergatik? –azpimarratu zuen–. Oriol, begira iezadak...

Oriolek duda-muda handiak izan zituen esaten hasi baino lehen:

—Badakin. Uste dinat umearen heriotza ekiditeko askoz ere gehiago egin hezakenala.

—Valentí Targak –moztu zuen irmoki– engainatu egin ninduan. Zin egin zidaan soilik jendea beldurtu nahi ziala, umeari ez zitzaiola deus gertatuko.

—Eta hik hari sinistu.

—Itzuli nintzenean dena egina zegoen.

—Zergatik ez huen salatu, orduan?

—Eta hik zergatik ez huen salatu?

Isildu egin ziren. Elkarretaratzea porrotean amaitzeko zorian zegoen, baina dena delarik, hitz haiek esan beharrekoak ziren ezein paradisutan sartu baino lehen. Elisenda Oriolengana hurbildu, eskuak zabalik bizkarrean pausatu, begietara so egin eta Oriolen erresistentzia guztiak hamaika puskatan desegin ziren. Irribarre egin zion, urrutitik etorriz-edo, eta andereak ahots lasaiz erantzun zion irribarreari, bere azaletik isurten zen aginte natural harekin:

—Ez nagok prest, inork, edozein delarik, urrundu gaitzan, elkar topo egin dugun une honetan.

Pixka bat atzeratu eta jarraitu zuen.

—Ea gauzak garbi uzten ditiagun: gustukoa haut, gustukoa nauk eta inork ezin ditik gure sentimenduak kaltetu. Ados?

—Ados.

—Eta ezin dik inork jakin. Eta gutxiena Bibianak.

Tratu bat proposatzen ari zitzaion, jokatzeko kode bat. Onartu egin zuen Oriolek, bihotza taupaka. Eta hark jarraitzen zuen:

—Nire senarraren ezein abokatuk ezin naik salatu... Ongi, adulterioaz. Sekula ez. Hauxe da prezioa.

—Egoera pixka bat...

—Gustukoa haut. Gustukoa nauk?

—Bai. Asko. Erabat.

—Beraz, ez dago egoerarik. Nire senarrarekiko egoera, izatekotan, nirea da, ez hirea. Ados?

—Nago. Ez zakinat. Harrituta.

—Uste nian... Ongi, berdin dio.

Urrats bat aurrerantz egin zuen arriskuan pentsatu gabe. Emana zegoen urratsa. Elisendarangana hurbildu, egongo zenik sekula amestu ez zukeen familiartasunarekin kokotsa altxatu eta, Rosa sabela beteta eta Ventureta begia berunez oroitzapenetik aldendu eta betazalak jaitsi zituen nardo-lurrinaz mozkortzeko.

—Ikusi eta lehen egunetik izan haut gustukoa.

—Nik ere bai hi.

—Baina hau... erokeria bat da.

—Dena konponduko diat.

—Ez zakinat ahalko dunan. Dakidana da nire buruan irarrita haudala hainbeste ordu hiri begira. Begiak itxi eta eserita ikusten haut, lepoa pixka bat alde batera makurtuta bularraldea nabarmentzeko. Eskuak liburu bat laztanduz eta begiak...

Mundua beste era batera begiratzea eta behar beste errenuntzia onartzea merezi zuen gizon bat behingoz. Behingoz gizon bat zeinaren bularrean burua pausatu.

—Poeta haiz hi. Maite haut, Oriol.

—Egia esan tripazaku koronel ergel hark mehatxatuta sentitzen naiz –esan zuen Valentík, bere hitzak Cartellàrengan zeukaten eragina betertzez begiratuz–. Eta gainera, haren iritiz, makia ez da existitzen.

—Zer esan nahi didazu, makiak daudela Espainian? –arrapostu zuen harriturik Cartellák.

Ez Valentí Targak, ez Yuste generalaren komandante laguntzaileak erantzuten ere ez zuten egin. Kilometroak isilik, errepideko zuloek makatuta. Haiei begira, Cartellà kamarada, poker aurpegiarekin, komandante laguntzailearen eta bere adiskide Targaren arteko konfiantza miresten. Hamaika astinduren ondoren, Valentík:

—Eta traizioa iruditzen zait gure aldean daudenak berberak izatea...

—Nola esan didazu deitzen zela?

Faustino Ramallo Pezón. Artileriako komandantea, Lleidako Gobernu Militarreko Estatu Nagusiari aitxikia. Berrogeita hemeretzi urte. Marikoi hutsa. Lan administratiboa Gurutzada Loriotsu osoan. Beraz ez zituela barrabilak jokoan jarri. Duela hiru hilabete Lleidako plazara destinatua.

—Yuste generala arduratuko da, zin dagizut.

Are Cartelláren miresmen mutu handiagoa.

—Eskerrrik asko, komandante jauna. Eta bide batez esaiozu datorren ostiralean ekitaldi falangista batera gonbidatuta dagoela Sorten.

Cartellà kamaradak miresmen-hasperena disimulatu zuen leihotik begiratuz.

Bere atzean, Gerriko gatzagak geratzen ziren. Herritik irtetean autoak zakartasunez frenatu beharra izan zuen. Kontrol militar bat Gerriko irteeran, Perameako bide-aldaera ondoren.

—Nork agindu du hemen kontrola ipintzea? –galdetu zien komandanteak hormei? –Eta txoferrari–: Poliki-poliki. Ea zer nahi duten.

Leihoko kristala jaitsi zuen kapitain ezezeagun hark bere aurpegia ikus ziezaion.

—Zer gertatzen da? –esan zuen, inpazientiaz, komandanteak.

Cartellàk Valentíri begiratu eta miresmenez betetako begi-kliska egin zion, besterik ez.

—Eztanda bat egon baita Sorten.

—Zergatik ez didate deus esan? Non dago generala?

—Jaisten bazarete, mesedez.

—Zer? Zergatik ez didazue kontrazeinua eskatzen?

Kapitainaren ondoan hiru soldadu paratu eta haietako batek autoaren atea ireki zuen.

—Hau segada bat da –esatera iritsi zen Valentí Targa, bi tiro entzun eta txoferrak, eutsiezinezko loaldi-kolpea sentitu balu bezala giderraren kontra burua gozoki beheratu baino lehen. Orduan beste atea, zaindu gabe utzitakoa, bortizki ireki zen. Sten beltz eta distiratsua sartu zuen norbaitek eta kargadore erdia hustu Cartellà kamaradaren kontra, bitartean atzetik beste gizon batek berbera egiten zuelarik komandante laguntzailearen aurka. Valentí Targaren gabardina argia hain zipriztinduta geratu zen, besteak baino zaurituago zirudien. Hildakoarena egin zuen, ahoa zabalik, eta entzun zuen nola ustez kapitaina zenak zioen, zuloz josi dugu. Gorantz.

Anderea izan zen ekimena gidatu zuena. Anderea eranzten lagundu ziona; anderea besotik hartu zuena ohean sarrarazteko non bizpahiru botila zeuden, ur beroz beteta, izaren ezinezko hotza berotu nahi zutenak. Eta kontaktua apasionatua izan zen, oso apasionatua anderearen aldetik eta gero eta beroagoa gizonaren aldetik, harik eta Rosaren oroitzapenak, gaitzespen isilez betea, menderatu zuen arte, eta baita Valenti, ondo orraztuta, Lleidan izan beharrean bigarren aldiz hiltzen utziz, bat-batean atea ireki eta hormaren kontra kolpatu eta bigotetxoa atzamarrez igurtziz azaltzeak ematen zion beldurra ere, esanaz, malapartatu halakoa, eta oraindik ukatuko didazu Elisenda urdanga bat dela. E? Zuk ez baitaukazu eskubiderik ez eta horrekin txortan egiteko, lehenengoa ni bainaiz, zu makia zara; eta proklama haren ondoren tiro egin zezan, ez burura edo bihotzera, baizik minik handiena emango zuen tokira, adibidez barrabiletara, eta pazienteki itxaron odolustu eta bizitza minaren zulo errukigabetik alde egin arte.

—Ez al duk neurririk hartu...

—Neurriak?

—Beno, ez zakinat...

Andereak besarkatu eta bere erraietara sartzen lagundu zion eta dena plazer-eztanda ezinezkoa izan zen.

Bi orduren buruan Elisendak bere kateetatik askatu eta ziurtatu zion hura ez zela azken aldia, hi haizelako herriko eta mendi guztietako pertsona bakarra. Motorrean etorri al haiz?

—Ez. Harrietako Serrallacekin. Motorra izorratuta zaukanat.

Kanpoan ilundurik zen errepidean. Berrogeita hamasei urte geroago Doscavallos izoztu batek traizio bat deitoratuko zuen toki berean, Elisenda Vilabrúren auto beltza, itzal ilun bat barruan.

Elisendak, bere larruzko abrigoan bilduta, seinale bat egin eta isilik hurbildu zitzaien autoa, mehatxu bat balitz bezala. Txoferraren aldameneko atea ireki eta Oriol sarrarazi zuen:

—Herriaren sarreran utziko haugu.

Elisenda atzeko aldean kokatu zen, bakarrik. Orduan Oriolek txoferrari so egin zion: aurpegi ebakiko gizon isila zen, Jazinto Mas halakoa, zeina mespretxu sakonarekin begiratu eta martxan jarri zen deus esan gabe, anderearekin fornikatu izanagatik salatu gabe, han eserita ez balego bezala. Txoferrak atzeranzko ispilutik begiratu zuen. Oso ongi, Jazinto, oso ondo egiten ari zara. Torenarako bide osoan inork ez zuen ahoa zabaldu. Nardo-usaina erabat iraungita zegoen, baina ez Oriolen memoriatik ez eta Jazintorenetik ere.

Elisenda Vilabrú eta Vilabrú, esku artean maitasunaren oroitzapena artean fresko, Gravat etxera iritsi zenean, zerbait arraro somatu zuen giroan. Badaki, pentsatu zuen. Neurriak neurri, Bibianak badaki. Bibianaren begietara so egin orduko, atea ireki baitzion, konbentzituta zegoen. Horregatik, gelara sartu eta bere gorilekin lagunduta ikusirik, izutu egin zen, hura ez baitzen espero zuena. Han zutik, gizon basati haien aurrean, arima hondoratzen zitzaiola uste izan zuen. Bere Goel propioaren bitartez zelatarazi zuen Santiagok. Zer gertatzen da, esan zuen, e, zer gertatzen da, soilik denbora irabazteko.

Erantzun modura, Valentík altxatu eta arropa-multzo bat jaso zuen lurretik. Ongi presentatuta altxatu zuen, andereak beha zezan: gabardina argia pildar odoleztatua zen. Eta alkandora bat ere bai. Halako nazka.

—Zer gertatu da?

—Ni hiltzen saiatu dira.

—Jainkoarren. –Nolako atsedena, hori besterik ez zen. Arropagatik?–: Eta odola?

—Beste heroe batzuena da, beste martiri batzuena.

Valentík burua energiaz mugitu zuen eta Balansó eta Gómez Pié gelatik irten ziren. Une batzuen buruan Elisendak kanpoko atea entzun zuen. Ostera lasaitasuna irabazten hasi zen.

—Azal iezadazu.

—Ez, oso desatsegina baita.

—Orduan zer nahi duzu?

—Oraindik ez dut nire lana amaitu.

—Nasiren Maria etxeko Josep falta zaizu.

—Bai.

Baimenik gabe, andereak Burgosen ezarritako aginduak alboratuz, aurkitu zuen lehen besaulkian jesarri zen Valentí Targa. Berrogei urte beranduago Tinak erabiliko zuen berberean. Disimulatu nahi zuen arren, inarrosita zegoen.

—Zergatik etorri zara?

—Zuri bost ni hiltzen banaute.

—Ez da egia –esan zuen, esertzeko tentazioari eutsiz–. Zer nahi duzu?

—Diru gehiago.

—Gehiago? Kobratzen duzunarekin?

—Oso arriskutsua bihurtzen ari da. Diru gehiago edo bertan behera uzten dut.

—Zenbat denbora beharko duzu Maria etxeko Josep aurkitzeko?

—Elbarria bahitu dezaket Josep etortzera behartzeko. Ez da Cassiàren txanda.

—Batzuetan ergela dirudizu –moztu zuen, lehor–. Eta oraindik ez didazu esan zer ikusirik daukan Venturak honekin guztiarekin.

—Alkatea naiz. Ez soilik zure Goela.

Ez zen tirabirarik egon Elisendak ez zuelako nahi bere Goelak lana erdi eginda uztea. Beldur berria eskuzabalki ordaindu eta Valentí bere zortearekin konforme joan zen. Konforme, ez: suhartsu, sekula imajinatzeko gai zena baino askoz gehiago lortu zuelako. Eloi Cartellà, Tarregako seme ilustrea, nolako mesedea egin didazun. Kamarada Cartellà, presente.

Gauean, Marés etxean, bere gizonetatik hirurekin anis-botila bat hustu ondoren, Modest aparte hartu eta marmol pitzatutako mahi baten gainean bilete legal pila bat jarri zizkion, aski berriak, kontatu ere egin gabe, destaina igerri zekion. Sorta ederra. Eta bukatu zuenean, hauxe da zor dizudana esan ere egin gabe, bere gelarantz igo zen eskaileretatik, ez eta eskerrik asko pazientziagatik, ez eta mekagoen Marés etxeko diruzaleengan, ez eta eskerrik asko zure alabari alkandora garbitu ez zidalako bainago bizirik, ez eta gabonik. Modestek bileteak batu zituen, arintasun- eta nazka-sentimendu kontraesankorrekin. Ahal izango balu.

Biharamunean Targa alkateak ikertzaile eta agintariak atenditu behar izan zituen, beilategiak bisitatu eta bere kideak animatu zituen ekintzarekiko beldurra ez galtzera. Eta iluntzean, margoketa-saioa Udaletxean: garbitu behar bazuten, erretratua amaituta egon zedila.

—Ikusten?

Egunkaria astindu eta udaletxeko mahi ofizialaren gainean uzten zuen: Oriolek pintzela turmentin-potean utzi zuen, hainbeste etenaldik erreta, eta bertan irakurri zuen bideko zorigaiztoko istripu hartan bizia galdu zuena Eloi Cartellà kamarada izan zela, Tarregako semea, Falange Españolako burua eta auto hartako bidazti zorigaiztokoa.

—Eta nola izan zen?

—Istripurik ez batere. Jendearen artean izua gerta ez delako gertatzen da hau. Garbitu nahi izan naute. Ehizatu egin nahi naute.

—Nola dakizu zure bila zebiltzala?

—Cartellà gajoa zula-zula eginda utzi dute.

—Beraz, agian haren bila zihoazen.

—Inortxok ez daki nor den Cartellà. –Egunkaria ukitu eta pixka bat hurbildu zitzaion–. Ni, aldiz... Tira, ezaguna naizela.

—Baina beste biak hil zituzten.

—Cartellà hil zuten uniformatuta zebilelako.

—Antzik ez du-eta!

—Tiro egin zutenek ez zioten aurpegia ezagutzen. Salbatu nintzen kaleko jantziz nihoalako. Eta seguru asko ere hildakoaren plantak egin nituelako.

Modu tentsoan begiratu zion Oriol Fontellesi, graziarik egingo ez balio bezala arazo hartan kontrako iritzia emateak: bera zen biktima. Soilik bera.

Ostera hartu zuen egunkaria Oriolek. Erre egiten zioten begiek. Entzun zuen nola Valentík esaten zuen, bigarren aldia da tarte laburrean.

—Bigarrena?

Uzteko-edo keinua egin zuen besteak, ez zuela hartaz mintzatu nahi, alegia. Oriol insistitu beharrean egon zen.

—Zer esan nahi du bigarrenak?

—Gero eta hilobian nahiago nauten –deklamatu zuen Valentík erantzuna balitz bezala–, orduan eta gogo handiagoa daukat kolaboraztaile guztiak garbitzeko. Banan-banan. Gorrotorik gabe, hotz-hotzean, justiziaz. Ventura etxeko Venturarengandik hasita, seguru bainago honen atzean dagoela.

—Jainkoarren.

Valentík aitatiar jo zitekeen eran egin zuen irribarre:

—Horrek kikiltzen zaitu, ez da?

Isiltasuna. Une baten buruan, jarraitu egin zuen:

—Venturak bere kabuz egiten du gerra. Zerbait pertsonala balitz bezala.

—Nola dakizu?

—Inteligentzia-zerbitzu alemana. Jende infiltratua daukate. Baina Venturari aginduak ematen dizkiona Eliot kapitaina delako bat da, antza denez.

—Nor da?

—Oraindik ez dakigu.

Oriolek bere etsaiaren aurrean utzi zuen egunkaria. Zorabiatuta zegoen. Egurrezko astora itzuli zen hobeto babesteko.

—Zergatik diozu bigarren aldia dela?

Seguru asko burgoitzeko, hainbeste ezagumenduko gizon baten aurrean, Fontelles maisuaren aurrean adibidez, kementsu azaltzea beti atsegina delako; dena delakoagatik, kontua da Valentík azaldu ziola justu Bartzelonara Lore Ederra ikustera jaitsi zen egunean gertatu zela, gogoratzen al zara?, bada, egun hartan.

—Eta nola izan zen?

Valentík azaldu zion berak jada bazekiena, baina hormara begira eta bere atzean zer gertatzen zen ikusi gabe. Valentík uste zuen herriko norbait izango zela, esperientzia militar handirik gabeko norbait, huts egitea asmatzea baino zailagoa den tiro bat huts egin baitzuen.

Kolpe batez altxatu, tiradera ireki, pistola hartu, egurrezko zaldira joan, Oriolen atzean ipini eta garondora destatu zizon.

—Hemendik –esan zuen–. Zuk uste posible dela hori huts egitea?

Oriolek, ihes egiteko adorerik gabe, begiak itxi zituen azken tiroa itxaroten.

Julio II-a aita santuak, Montserrateko abatea zenez, Julio II-a izan aurretik, Giuliano della Rovere baizik ez zenean, monasterioko klaustro gotikoa finantzatu bazuen –esan zuen triptikoa bere tokian utziz–, Elisenda Vilabrú, Vilabrúren alarguna, edozein gauza ordaintzeko gauza da, ondo entzun didazu, edozer gauza, ezkontza apirilaren 24an burutu dadin.

—Imajinatzen dut hirurogeita hamabigarren urteaz ari zarela.

—Ez. Mila bederatzaiheun eta hirurogeita hamaikagarrenaz. Mila bederatziehun eta hirurogeita hamaikako apirilaren hogeita lauaz.

—Erotuta daude. Hemendik sei hilabetera da.

—Nahikoa eta gehiegi.

—Eguna okupatuta dago.

—Desokupa ezazu. Interesatuen helbidea ematen badidazu, konbentzitu ditzaket. Hamabiaz geroztik libre nahi dut espazioa.

—Entzun, gauza ez baita horrela. Eskarien prelazioa ez hausteko aginduak dauzkat. Inolaz ere ez.

Gasull abokatuak errukiz-edo begiratu zion agentziako arduradunari. Kezkazko keinu bat egin, eskua patrikan sartu eta bilete-sorta estreinatu gabea atera zuen.

—Hau zuretzat da, soilik niri entzuten ari zarelako.

—Zer esan nahi duzu? –pixka bat kezkatuta estiloagatik, baina begiak sortagatik txinpartaz beteta.

—Zeren niri entzuteaz gain, behar den beste egokiera egiten badituzu mila bederatziehun eta hirurogeita hamaikako apirilaren hogeitalauan, hemendik sei hilabetera, Marcel Vilabrú i Vilabrúren eta Mercedes Centelles-Anglesola i Erillen arteko ezkontza egin dadin, auskalo, agian utzi dezkezu lan hau.

Ahoa lehortzen sentitu zuen agentziako arduradunak. Aurpegia eta begiak zeuzkan lehen salerosketa-operazioa ikusteko zorian zegoen Montserrat aferan batere malgutasunik gabe jokatzeko disposizioarekin bulegoa zuzentzen hasi zenetik, mundu guztiak ezkondu nahi baitu eta edozertarako prest daude, ulertzen didazu. Berehala ulertu zuen, eginak baitzeuzkan tirak eta birak, eta aldian behin aitortza zuhurrak jasotzen zituen. Baina oraingoan benetakoa zen.

—Ahal dudana egingo dudala agintzen dizut.

—Ez dut nahi soilik ahal duzuna egitea. Niretzat lortzea nahi dut.

Ahoa are lehorrago. Bilete-sorta deserosoa tiradera batean utzi eta irribarre egin zion Gasull abokatu zurrunari. Oraindik zorabiatuta sortaren loditasunagatik, pentsatu zuen, uda honetan, azkenean Lanzaroten.

Inork ez zuen sekula zalantzan jarri mila bederatziehun eta hirurogeita hamaikako apirilaren hogeita lauan, eguerdiko hamabietan, sexta eta nona artean, Marcel eta Mertxe

Montserrateko monasteriko aldare nagusian ezkonduko zirela, neska zuri lurrunkaraz jantzita, argazkilariak burua galduz neskaren eta mutilaren gonbidatuen artean zeuden personalitate-pilagatik. Inork ez zuen pentsatzen Matutina ligat Christum, qui crimina purgat; Prima replet sputis causam dat Tertia mortis: Sexta cruci nectit; latus eius Nona bipertit Vespera deponit, Completa reponit, izan ere beste lan bat baitzeukaten betertzez nor etorri zen behatzen, eta memoria egin eta poztuz, han bazirelako Aitaren eskuinaldera deituak izan ez zirenak.

Gobernadore zibil eta Mugimenduko Buruzagi Probintziala galako uniformez, burosila eta eskuak izerditsu aurkeztu zen, eta bakarra zen agintarien artean laprastada hura izan zuena, arrandia falangista externoa sahiestea zenean kontsigna, zartagina kirtenetik zeukatenek uste baitzuten hobe dela eraginkor izatea zarata handirik atera gabe, egoki dela dakigun tokian kokatu eta Jainkoaren eta Jainkoaren Obraren izenean agintzea, baretasunez baina irmotasunez. Bi koronelak eta generala kenduta, beren bular kementsuetan, modu justifikatuan, erakusten baitzituzten dominak.

Justiziazkoa da neskaren jantzi distiratsua nabarmentzea, Charo Rodriguezena, osoki bi ukitutako satenez egina, eskote lau ausartarekin eta isats luuuzearekin, aspaldi ikusten ez zenetakoa bera. Kapela basalore zurizko koroa dotore-dotorez jantzita, zeinaren lurruna kazetari bertaratu honek behatu behar zuen distantziatik somatzen zen. Belo lurrunkarak errematatzen zuen Charo Rodríguezen sinistezinezko lana, ikaragarrizko dotoreziako isuriekin. Irribarrea betiko hondatuko zion arantzarekin ezkontzen zela ez zekien neska zorigaiztokoak lore-sorta zuri eta arrosazkoa zeraman eskuetan, urkitz lurrundunez nahastuta, Mateu&Triasen obra (gure kazetari bertaratuak).

Hauxe da gizarteko erakunde garrantzitsuena, beste guztien oinarri eta euskarria; ezkontza instituzio natural, sozial, erlijioso eta juridiko-zibila da. Ez naiz orain matrimonio hitzaren etimologian sartuko baina gogoraraziko dizuet latinezko matris muniumetik datorrela, hots, amari dagokion zama, erditzeko garaian, sakramentu honen xede eta mugarri, amak duen lanaldiari dagokionez. Santo Tomas Aquinokoak definitu zituen instituzio honen hiru helburuak: ugaltzea, haurren heziketa eta elkarren arteko laguntza eta xede horiek betetzeko baldintza nahitaezkoak: batasuna, ugalkortasuna, hautsiezinezkotasuna, erlijiosotasuna, legezkotasuna. Eta hori entzuten zuen bitartean, Elisenda andereak memoriaren mahaira erakarri zituen Santiagorekiko ezkontza, Oriolekiko maitasuna, berak bakartzat jotzen zuen gizon bakarra hura, Quique Esteve putakumearekiko harremana. Malko kontrolatu bat isurrarazi zuen orduan, berarentzat gehiago, ezkontideak elkarri bai, bai, esateko puntuan zeudelako baino; Marcelek beste alternatibarik ikusten ez zuelako, kontuan harturik amatxok erabakitakoa sahiestu eta gerarazten ezinezkoa zela, eta adi, bera imajinatzen ez duzun zerbait baita, ni izorratzen nauena zen ezkontzea, naizen gazterik lotzea, eta Quiquek eta Marcelen azken soltero-aste desesperatuko beste edozein konfidentek esaten zion, ikusten, mundu guztiari iristen zaio momentua, idatzita dago. Eta Mertxek bazekielako bere bizitza herrialdeko fortuna handienetako batekin lotzen zuela –exajeratuenek zioten Espainiako Bankuarena baino sendoagoa zela. Marcelek sekreturik handienean gordeta mantendu zuela uste zuena, eta amatxori ezkutatu ahal izan zion sekretu handi eskasenetakoa, zen, ezkondu nahi ez zuen arren, Mertxerekin maiteminduta zegoela. Limurketa olio-putzu azkarra eta eraginkorra izan zen, pare bat krisialdi erridikulu eta guzti, eta oso emakume klandestino gutxi Marcelen partetik. Adibidez agur esateko Lisa Monellsekin atera zenean ere, kontzientzia txarreko horzkada sentitu zuen, Mertxek ez baitzuen merezi. Baina atal hura itxi beharra zeukan, bera zaldun bat baitzen. Eta Lisak aingeruen pare jotzen du larrua. Eta bizitzari ezin

zaizkio ate guztiak itxi. Eta Mertxek ez dakien bitartean, ezin dio kalterik egin. Deituko dizut, Lisa, zin dagizut.

—Zer?

—Zuk orain bai esan behar duzula.

—Bai, amatxo.

Ikusten, maitea? Ezkonduta daukagu. Eta uste dut oso ondo ezkonduta.

Argazki ofizialean, zeremonia distiratsuaren bukaera borobila bezala, Vilabrú gaztearen keinu noblea ikusten da, neska zorigaiztokoari eraztuna janzten. Montserratera bidalitako gure kazetariaren arabera, aukeratutako apaiza Montserrateko abatea bera, Seuko gotzaina edo Escrivá de Balaguer monsiñorea izan zitekeen posibilitatearekin espekulatu zen. Baina leinu zaharreko Vilabrú familia ohoratzen duen keinuz, zeremonian buru Fernando Rella mosen jauna izan zen, landa-eremuko apaiz gazte eta umila, gazte izan arren teologo bikaina, behar bada pixka bat astuna, izan ere sermoia berunezkoa izan baitzen, San Pere parrokiako erretorea Torenan, Pirineotako toki urrun eta idilikoa bera, gaur egun mundu zibilizatuan ezaguna gero eta atxikipen gehiago dauzkan elurreko kirola praktikatzeko gai diren instalazio ederrengatik. Zeremonia burutzeko familia agurgarriak jatorria duen herriko parrokia umileko erretorea aukeratu izanaren detaile sinpatikoa oso modu aldekoan erabilia izan zen gonbidatu guztien artean.

Aita abateak eragindako eta prentsan islarik izan ez zuen ekitaldi intimo batean, abateak ezkontideak, mutilaren ama eta mutilaren osaba-aitona hartu zituen. August Vilabrú mosen jaunak, haritz eta bolizko makulu bati esku urduriz oratuta bizi zenak, isilik eskertu zuen aita abatearen detailea, zeinak, behin ezkontideak bedeinkatuta, esku zimurtuan muin ematera hurbildu baitzitzaion. Bitartean, Elisenda andereak zorigaiztoko bikoteari agindu zion irten zitezela gonbidatuekin argazki-saio aspergarri baina alboraezinezkoan parte hartzera, izan ere bestela, berandutu egingo baitzaigu hemen goian. Eta azkenean hirurak bakarrik geratu ziren.

—Zenbat esan duzu?

—Laurogeita hamahiru, aita abatea.

—Zein irits zitekeen zure adinera zure osasunarekin eta zure kuraiarekin.

Gezurra zen. Bihozbera, baina gezurra, aita abateak baibaitzekien August Vilabrúk berrogeita hamarreko hamarkadan argitaratu zuela bere azken opuskulua, hazkunde infinitoen teoremari deribatuak aplikatzeari buruzkoa, eta duela hiru urteko krisialdiaz geroztik, gibeleko atakea izan zuenean, jadanik ez zela izan zena eta aski neke zeukala brebiarioko atalak amaitu eta bere debozioetara dedikatzeko, eta asko jota, lehen zenbakiei buruz gogoetak egiteko. Aita abateak ez zekien: gibeleko atakea zen bere gorputz hilkorrak bere begietako ninietakoarekin izandako haserrealdi basatiari emandako erantzun bakarra, bitxi bihurtu nuen diamantea bera, baina direnak direlako arrazoiengatik, Jainkoarren (felix qui potuit rerum congnoscere causas), eraztun haietako bat bihurtu zen, zeinen distira ikusgarriak minutu batzutan efektua egiten duen pozoin hilgarria ezkutatzen duen. Hura, Jainkoaren eta Eliza Santu, Katoliko, Apostoliko eta Erromatarraren maitasunean, Enric d'Ossó aitaren espiritualtasunean, zeinaren merezitako dohatasuna ikustera iritsiko ez naizen, Jainkoaren Kreazioaren errespetuan hezi dudana... Hark, nire alaba espiritualak, nire zahartzaroaren esperantza, matematikan sakondu nahi ez eta aberasten saiatuz bizitzea erabaki zuenak; hark, sekula ezagutu dudan emazterik azkarrenak, eta dedabruzko azkarra bihurtu denak...

bihotzera iluntasuna ekarri zidan betiko. Soilik aita abateak ez zekien. Inork ere ez zekien ordea esperientzia errepikatzeko zorian zegoela. Mosen jauna, aita abatearen gogoari erantzuteko, keinu bat egitera mugatu zen esku librearekin, dena adierazten zuena. Aita abateak irribarre egin zuen ezer ulertu gabe eta Elisenda anderea, zain zegoen, zelatan. Unea iritsi zela ikusi eta bere ahots gozo eta limurkorrenarekin esan zuen arte, nire osabak gogoratu nahi dizu Oriol Fontelles Agurgarriaren beatifikazio-kausa prokuratzeko hitza eman zenuela.

—Nik ez...

—Ixo, osaba, ez diozu aita abateari hitz egiten uzten-eta –abegikor, apaiz jesarriarengana makurtuta.

Mosen Augusten bihotza jauzika hasi zen, kontrolik gabe. Elisendaren langa gainditzeko, atzamar nerabea altxatu zuen baina aita abatea ez zen hartaz jabetu. Azken finean, zorroztasunez begiratuz gero, protesta-keinu nerabe hura bekatua zen eta, heriotzaren ateetan egonik, ez zuen aitortza-sekretu ikaragarriaren bitartez ezagututako informazioa iradokitzeagatiko delitu larri-larriaren errudun sentitu nahi. Atzamarra beheratu zuen, badaezpada ere.

—Eta egin dugu, alaba. –Aita abateak aseta begiratu zien–: Urtea bukatu baino lehen kausaren prokuradore berria egongo da. Seuko gotzain jaunak ziurtatu dit.

Agurea seinalatuz, ulerkuntza-keinu bat egin zuen Elisenda anderearengana zuzenduz, hark soa apaldu baitzuen bere eskrupuluek abailduta.

—Nekatuta, e, mosen jauna? –esan zuen.

Bisitetarako klaustroan espresuki ipinitako aulkitik altxarazi, seme erara besarkatu, emakumeari labur-labur bostekoa eman eta irribarre aitakoiez kontenplatu zuen nola Erroman emandako bost urteetan kalkulu infinitesimal eta trigonometriako amarru eta gozamenetan garai batean gidari izandako irakaslearen figura makurtua mantso-mantso urrutiratzen zen bere iloba zen hain emakume dotorearen esku prestuak gidatuta. Mosen Augustek eta Elisenda andereak anaia atezainaren iribarre lagunkoiraino zegoen tartea, hamar urrats mantso, kalkulatu zituzten.

—Gelditu egin behar duzu.

—Ez. Oriolen memoriak merezi du.

—Emagaldu nazkagarri eta zikina zara.

—Ulertuta daukat ezen sekretu sakramentala zuzenean apurtu nahi duen aitortzailea –esan zuen andereak ahots zurbilarekin– Aulki Apostolikoari berezi-bereziki erreserbatutako eskumikuarekin eskumikatuta geratzen dela.

—Madarikatua izan zaitez.

—Bi mila hirurehun eta hirurogeita bederetzaigarren artikulua, osaba. Horrela da.

—Maisua ez sen santu bat. Soilik zure maitalea.

—Zuzenbide kanonikoaren kodea, osaba. Beatifikazioak aurrera egingo du.

—Nahi al duzue atseden pixka bat hartu? Mosen jauna? Anderea?

—Ez, ez, eskerrik asko, zain baitauzkagu gonbidatuak.

Mosen August barrutik negarrez zegoen eta ez zuen anaia atezainaren galdera entzun. Anaia atezainak elkartze zoriontsuak erakarritako alaitasun-adieraletzat interpretatu zuen arimaren min-keinu batez behartu zuen burua altxatzen.

Barruti monakaleko irteera-atea gainditu ondoren, bihotzeko prentsaren argazkilarien flax-errukigabeen ametrailamenduak erabat desorientatu zuten mosen August. Prentsa baino areago, neska alaitsu batzuek, motxila bizkarrean, kontenplatzen zuten nola bikote asimetrikoak bi mailak flaxen artean jaisten zituen eta neska txirikordadun eta basa-belar koloreko begietakoak esan zuen, senar-emezteak izango dira, ez da? Eta neska guztiak barrezka hasi ziren are gogotsuago, horixe baitzen beren gorputzetik jariatzen zen bitalitate-gehiegizkoa orekatzeko modua. Jazinto, ez dakit zertan pentsatzen ari zaren, eta badira egunak; zain egon behar al dut nik nire autoarekin azal zaitezen?, e? Barkatu, anderea. Barkatu, Elisenda, baina zure begi haserretuak liluragarriak dira. Baretasuna nagusi denean baino areago.

Zeremonia distiratsua, audientzia pribatu intimoak eta argazki-saio nekagarri baina ezinbestekoa amaitu ondoren, agintari eta gonbidatuek ostera elkar aurkitu zuten luxuzko hotel zentriko batean non festa denon gustura jarraitu zuen eta non beste argazki-saio nekoso eta ezinbesteko bat sartzen zen hoteleko lorategietan. Gertatu zena zen gonbidatuen multzoa hain zela handia, establezimendu prestigiotsuko bi gela prestatu behar izan zirela ospakizunerako. Gizarte goi-mailakoa eta, zergatik ez, leinu zaharreko aristokrazia, Vilabrútarren kirol-inperioaren (Brusport, Brusport Instalaciones Deportivas, Estació d'Esquí de la Tuca Negra SA, Vilabrú Sportwar) oinordekoaren eta Mertxe Centelles-Anglesola i Erill, aristokraziako mundu mugatu eta elektoan pisu gehieneko familia bateko oinordekoaren arteko ezkontza-gertakari berebiziko hartan batu zirela. Anglesola aldetik Cardona-Anglesolatarrekin ahaidetutako Centelles-Anglesolaren leinukoa, eta Erill de Sentmenatarra, Mertxeren ama Eduardo Erill de Santmenat Maderas Africanasekoa, Banca de Ponenteko Administrazio-kontseiluko presidentearen alaba baita. Oso tranparik gabeko aristokratak, baina Maderas Africanaseko galerek nahastuta, Eduardo Erill de Sentmenaten aitaginarreba Felix Centelles-Anglesolak kontrolaturiko bursetan islatzen ziren galerak,

zeinak justu zazpi egun ziren azken jabetza argentinarrak saldu zituela hartzekodunei aurre ahal izateko. Bai, Elisenda Vilabrú andereari. Ez, prezio arrazonagarrian, Elisenda andereak zerbait baldin badauka da ez dela pobre-birrintzailea. Operazio azkarra, zuhurra, eta mundu guztia pozik. Esateko modua da. Izatez, esan zitekeen familian geratzen zirela, zeren bikote zoriontsuak seme bat izatekotan, seme hori Vilabrú-Centelles-Anglesola i Vilabrú Erill de Sentmenatarra izango baitzen, Vilabrú Cabestanytarren Vilabrú-Comelles i Cabestany Roure leinukoa eta Torenako Vilabrútarren Vilabrú eta Tirviako Pilar Ramisen, erdi puta erdi hobeto hartaz ez mintzatzea, Anselm gaixoaren errespetuz, Ramis leinukoa, eta Cardona-Anglesolatarren Centelles-Anglesola leinukoa, eta Eduardo Erill de Sentmenaten Erill de Sentmenatarra, Banca de Ponenteko administrazio-kontseiluko presidente ohia, Maderas Africanas putakoa, zeini badiren hogei urte esan niola, aitatxo, hau zuran pipia sartu aurretik saldu behar da, eta hura, nola, nola, eta orain denak galera hauen menpe hiltzen. Eta sekulako barrabilak dauzkana miseria baino aberatsagoa den andere hau da, mundu guztian lurrak dituena, eta aldiz egunak pasatzen dituena saskibaloiko elastikoak egiten, bezero berriak jazartzen, futboleko pilotak diseinatzen eta ogerlekoak biderkatzen, Jesukristok Getsemaniko baratzean bezala, ostia.

Gainera, Felix Centelles Anglesola jaunak eutsi egin behar izan zion sinpatiazkoa nahi izan zuen irribarre zurrunarekin, zainzuriak itsas-luzokerrekin jan bitartean (izugarri kostatzen ari

zait, itsas-luzoker bakoitzak hogei ogerleko balio baitzuen eta diademako puntalakurlo hark ez ditu ukitu ere egiten eta aldiz zainzuriak jaten ditu, latakoak izan arren), nola bere aitaginarreba estreinatu berria, mahaiko teniserako erraketari buruzko gaiaz harro zebilen, nik baitaramatzat zuzenean, eta Saint-Moritzekiko negoziazioez, frankizia oso interesgarriei begira, eta forfé deritzoten sistema batez, oso-oso erosoa dena bera, aizu, asko ikasi behar baitugu Europatik, tira, zeregin apasionantea delako eta blablabla, eta une batzuk amets egin zuen ezen Elisenda andereak burua berarengana makurtu eta esango zuela, ez arduratu, Felix, oturuntza nire esku. Egin zezakeen, berarentzat ez baita deus. Baina hain da bere kasakoa emakume hau, ez da gai urratsa emateko ni aurreratzen ez banaiz. Eta nik ezin dut, ez eta iradoki ere.

—Ez dut uste une aproposa denik horretaz mintzatzeko. –Quiquek (Esteve jangaietakoak) irribarre egin zuen militar baten egundoko iloba eskutik oratuta dantza-gelara zeramalarik. Keinua izoztuta geratu zen Elisenda, eta erabaki zuen trumoien kaxa desestaltzeko ordua zela: mutilak bere galera propioa topatu zuen irribarre harekin eta bizitza osoan gogoratuko zuen moduan jakinaraziko zion.

Eta modua biharamunean gertatu zen, Torenara itzuli zenean, Gravat etxera deitu, pazienteki itxaron zuen Carmina ohera joan zedin, gelan sarrarazi, mutilak ondo baino hobeto errepasa zezan utzi, eta ohean ahituta eta zukututa zeukanean, bizitzari buruzko gora-beherez hausnartuz, biluzik, geroko zigarrotxoa errez, begirada urrundua, behar bada beste emakumeak gogoan, oso ziur beste emakume batzuengan pentsatuz, andereak soinean jantzi bat ipini eta gelako atetik aditzera eman zion, bi ordu dauzkazu pistetako pertsonalaren gelako armairutik zure eguzkitako betaurrekoak jasotzeko.

—Zer?

—Lanetik kanporatuta zaude. Jadanik ez zara Tucako monitoreen zuzendaria. Jadanik ez zara monitore. Jadanik ez zara deus.

Quique itzuli egin zen, zigarroa hautsontzian gaizki amatatuta utzi eta altxatu egin zen. Haren aurrean zutunik, esan ziotena ulertarazten saiatzen ari zen.

—Zergatik?

—Inkonpetentziagatik. –Erlojuari begiratu zion. Denbora pasatzen ari baita.

—Baina zer egin dizut?

—Larrua jo, Lali Mestres, Gloria Collado, Mamen Vélez de Tena, ni baino zaharragoa denarekin, Sonia Ruiz adin txikikoarekin... Jantziaren poltsikotik paper bat hartu eta jarraitu zuen–: Eta Gary Spader aingerutxo horail harekin, eta Ricardo Tenarekin ere joan zara, eta horrekin dobletea egin duzu amarekin eta semearekin. Hirurogei urte dauzka Mamenek. Ez al dizu nazkarik ematen?

—Monitore ona naiz.

Baietz aitortzeko bere modua zen, Lali, Gloria, Mamen Vélez, Gary, Ricardito eta ez dakizkizunak, puta alaena. Zuk ez baitakizu dena; beste doblete garrantzitsua daukat: bi asteburu arranditsu pasa ditut Mertxe Centelles-Anglesola i Erillekin, ulertu nuenean haren gurasoekin egiten zenituen kontaktuak dakizun anbizioarekin eginak zirela. Eta dena borobiltzeko esan beharko nizuke egun batean zure Marcel kuttuna dutxetan zokoratu, txortan egin eta gustua hartu ziola. Triplete handia. Ameriketan esango zuketen hat trick bat. Azaldu al dizu zure semetxoak? Gustukoa baitut gauzak estreinatzea, beti zure aurretik egotea

gustaten zait zuk uste duzunean ez nire aurretik baizik nire gainetik zaudela, eta zurekin txortan egitea gustatzen zait, hori ere bai, ados, adineko emakumea zara baina baduzu zerbait eutsiezin bihurtzen zaituena, ez dakit, baina denak dauka bere muga, batik bat zakur narrasarrena egitera jokatzen duzunean, eta gero, nagusiaren paperean jarri ahal izan dudanean, ni umiliatu eta, jokoa amaitu dela, maitea, gogoratzen didazu, hau bizitza bihurtu da berriro, eta jendea Teixonera luzean hanka bat apurtzen irakastera joan nadin agintzen didazu.

—Eta zer? Zu bezalako ehun monitore aurkituko ditut.

Edo ez, oso ona baitzara. Baina haserretuegia nago zure faltsutasunarekin eta jendeak esan dezan esan behar ez duena. Bazenekien, maltzur hori, gure harremanaren lehen puntua, eta garrantzitsuena, sekreturik handiena izatearena zela, eta zuk nire aluagatik egin zenuen zin, gogoratzen al zara? Gabetsi egingo zaitut.

—Nitaz ahitu zara?

—Haserre nago, zeren engainatzeaz gain gure sekretua Mameni errebelatu diozulako. Zein gehiagori azaldu diozu?

—Nik ez diot deus esan. Zin dagizut.

—Zein kategoria gutxi daukazun.

—Zin dagizut ezen...

—Ez tematu. Nahi baduzu aurrera ekarri eta hitz egiten dugu.

—Putakume jartzen bazara, egunkarietan hedatuko dut. Zin dagizut, niri bost zorri. Baina imajinatzen al duzu eskandalua?

Quiqueren arropa kolpez hartu eta gelatik irten zen Elisenda. Ostera sartu zen, sutan, arropa eskuan. Lasaitzeko ahalegina egin zuen.

—Ostera mehatxatzen banauzu, broman bada ere –esan zuen– hilarazi egingo zaitut.

Gelatik irten, kaleko atea ireki eta sarrerako zoru harriztatura jaurti zuen arropa. Lehen keinu gaizki kalkulatua erreakzioak milimietratu eta efektuak ebaluatzen urteak eman eta gero. Izarren argiak leunki bainatu zituen maitale kanporatuaren kaltzontziloak, galtzerdiak, anoraka, prakak, kamiseta eta alkandora. Eta norbaitek lurrera, plazako beste aldera, botatako zigarrokina.

Bik esan nahi zuen Sorteko patruilarik ez Bonaigua mendatean. Hiruk, mugimendu militarra zegoela Sortetik Valencia d'Aneura. Bostek, ez jaitsi bailarara, jarraitu goietatik eta Jainkoak (esateko modua da) lagun zaitzatela nahi baldin badu. Bost aldiz baino gehiagok esan nahi zuen hobe zutela Torenako eskolako ganbarara ez iristea, aurkitzeko zorioan baitzeuden, zorigazitokoak, arratoi-zulo hilgarrian sartu baitzaituztet. Sistema primitiboa baina eraginkorra zen. Eta arriskutsua emititzen zuenarentzat zeren eurek bi, hiru, bost edo kliska gehiago ikusten zuten bezalaxe, berdin ikusten zuen Faustino Pacón Sorteko goarnizioko komandanteak Batlliutik, non oso soldadu abeslari batekin igo baitzen, komandeteren batek esaten entzun zuelako gau entretenituak hurbiltzen zirela eta gaueko errondak egitea komeni da, Rembrandtek bezala. Zer arraio ote da argi hori. Zer arrazio azaltzen dute. Zein arraiori azaltzen diote. Partean ipini beharko dut.

Oriol eta Marcó tenientea, maisuaren etxeko leiho aurrean, ilunpetan, begirada Cantóko mendatean, Torreta de l'Orriren azpian, finkaturik, ganbaran lo zegoen karga oso sentibera zela, pentsatuz, etxe honetara soilik nator nire faroa pizten ote den leihotik begiratzera, pentsatuz, ez dut etxe hartara itzuli nahi ez bada Rosarekin eta nire izenik gabeko alabarekin, Valentí Targak esandakoak pentsatuz, gaitua zegoela zonaldeko maisu guztiak batu eta behingoz Falangen, militante bezala, izena ematera konbentzitzeko, eta bera bai, bai esanaz, zein ideia ederra, bai, baina ostera pentsatuz Eli, Eli, lemà sabactaní.

—Zer, alegia?

—Oso ideia ederra iruditzen zaidala.

—Oso ideia ederra zer? –esan zuen Venturak, harrituta.

—Ozen pentsatzen ari nintzen. Barkatu.

Ahotsaren tonua jaitsi zuten zeren herri isil eta mesfidati batean, gauak eztulak, ametsetako oihuak, zurrungak, inbidiak desestaltzen ditu eta hormak erretzeko paper bihurtzen dira.

—Urduri zaude.

—Bai. Utzi egin nahi dut.

—Orain ezin duzu.

—Jendeak gorroto dit. Zure emazteak gorroto dit. Zergatik ez diozu esaten...

—Ez –moztu zuen–. Seguruagoa da horrela. Seguruago denontzat. –Leihotik harago zegoen belztasunagatik–: Ez al duzu ikusten, orain ezin duzula joan?

Isildu egin ziren. Ilunpera begiratuz, itxaroten. Izar batek ezinezko desio bat idatzi zuen zeruan.

—Nire emazteak ere gorroto dit. Hau jasanezina da. Eta nire alabak mespretxa nazan lortuko du.

Tenienteak, ihesean zihoan izarrari kasu eginez-edo, Torretarantz begiratzeari utzi gabe, poltsikotik paper bat hartu eta Orioli pasa zion.

—Zer da?

—Irakurri ezazu.

Papera destolestu eta, tenientearen pizkailuaren garra zalantzakorra erabiliz, irakurri zuen: Placeta de la Font, hiru, Bartzelona.

—Zer da hau?

—Zure emaztea eta zure alaba bizi diren tokia.

Placeta de la Font, hiru, Bartzelona. Rosa eta izenik ez dakidan nire alaba bizi diren tokia.

—Igandean joango naiz.

—Ez. Abisatuko dizugu. Gabonak arte, deus ez.

—Gabonak arte? –Atzamarrekin zenbatuz–: Bat, bi, hiru, lau, bost hilabete eutsiz? Erotuta zaude!

—Eroa zu izango zara ez badidazu kasurik egiten.

—Nola dakit bizirik egongo naizela Gabonetan?

—Ez dakizu. Eta erre paper hori. Ez arriskurik hartu gure erruz.

Placeta de la Font, hiru, Bartzelona. Pentsio bat? Zergatik nigandik ihesi, Rosa, erredimitzen ari banaiz. Placeta de la Font, hiru, Bartzelona, murmurikatu zuen papera hautsontziarena egiten zuen platertxoaren gainean erretzen zuen bitartean. Eta hartaz pentsatzea eramanezina zelarik, ilunpera begiratzeari utzi gabe, esan zuen, Targak urduri jartzen nau. Irizten diot gauzak susmatzen dituela.

Marcó tenienteak zerbait marmartu zuen eta Oriol sumindu egin zen tonu harekin eta amorruz jaurti zuen:

—Eta zuek hain ergelak zarete, ez dakizue ez eta hiltzen ere.

—Ohartarazi ninduten ez esateko zuri non bizi den zure emaztea.

—Barkatu. –Kontrolatzeko ahalegina egin zuen–.

Marcó tenienteak arnasa hartu eta aireari joaten uzten ziolarik bota zuen:

—Targa horrek arratoiak baino zorte handiagoa dauka.

Beste itxaronaldi bat. Zakur mesfidati baten zaunk urrunak gauaren beloa hautsi nahi zuen. Orduan, zerikusirik gabe, Marcó tenienteak esan zuen, eme eta bostek zoriondu egiten zaitu Morrot operazioaren ideiagatik. Bete egin zen xedea.

—Erraza zen. Baina ni beldur naiz. Beldurrez kaka eginda nago.

—Denak gara beldur. Baina zu bezalako jendea nahi dugu. Torretako faroa martxan jartzen duena bezalakoa. Informazioa bidaltzen diona bezalakoa. Eliotek Barneko jendea berrantolatu du.

—Ingelesentzako lan egiten al duzu?

—Indar demokratikoentzat lan egiten dugu, dauden tokian daudela. –Tarte eternoa–: Aliatuentzat ari gara, bai.

Oriolek leihotik aldendu eta aztamuka aurkitu zuen fruitu lehorren potea. Hur zaharmindu-eskukada bat hartu eta bere kidearen albora itzuli zen.

—Noiz ezagutuko dut Eliot?

—Ezagutzen duzu.

—Zu al zara? –Hur-multzotxo bat pasa zion.

—Ez. Zu zara.

Oriol zuri geratu zen luzaroan.

—Ez da egia: badira bi urte Eliot dabilela.

—Hirugarren Eliot zara. Gure lotura beti da Eliot.

Ni, Eliot. Beraz Eliot ez da inor. Ni, eskola-maisu bat, bere emazteak eta alabak gaitzetsia, batere komeni ez zaion emakume batekin abentura bat daukana, alderen batekoa izatekotan beste aldekoa baita, ematen du leiendak adierazten duen bezala, gaitasun antolatzaile eta ezohiko mugikortasuna daukadala.

—Baina nik ez dut barrerik egiten eta...

—Eliot bakar batzuk baitira. Guk-geuk ere ez dakigu ondo nor den. Behin kanpaitxo gorria asmatu genuen. Beste egun batean... Kontua da armada xaxatzea.

—Eta zer egin behar dut nik Eliot bezala?

—Une honetan, ez hiltzea.

—Ja.

—Bai. Badira zazpi hilabete Eliot zarela. Zazpi hilabete dira eskola irla bat dela. Marka bat.

—Marka, zerena?

—Iraunkortasunarena. Sekula ez zigun irla batek hainbeste iraun.

—Ja.

—Eta Eliot batek ere ez. Estatu Nagusiak dio irauten baduzu, edukiz betetzen joango garela.

Makia, eme eta bost, armada aliatua, ni edukiz betetzen joango dira, San Estebaneko kaneloi bat betetzea bezala. Jakingo ez balute bezala ni paisaiak margotzen zituen maisu bat besterik ez naizela baina panorama beti berebizikoaz inguratuta nagoenetik, jende garrantzitsuaren erretratuak egiten jarduten duela, adibidez Rosa bere sabelarekin bezala, non zu bazauden, alaba. Adibidez Elisenda Vilabrú, eta Targa. Ezagutzen dudan emakume bati buruz mintzatuko natzaizu egun batean, alabatxoa. Ez dakit asmatuko dudan.

—Zer gertatu zitzaien beste bi eliotei?

—Ezer ez. Hil egin zituzten.

—Tira. Arriskutsua da loturarena egitea.

—Bai. Venturak isilik murtxikatu zuen–: Zaharminduta daude.

—Ez daukat besterik.

—Datorren astean eskolako ganbaran emisora-hartzaile bat instalatzera etorriko gara.

—Erotuta zaudete. Eta harrapatzen badidate?

—Pistola bat ere emango dizut. Eta aurkitzen bazaituzte, ez eman frekuentziak.

—Erraza.

—Bai. Indarra bere izateko modutik datorkio Elioti.

—Fantasma bat izatetik.

—Ez dakit. Nahi duguna da, adibidez, Waffen direlakoek Yuste generalarekin eta bere koronelekin topo egiten dutenean, izan dezatela Eliotek lurra beren oinazpian zapartatu dezan beldurra. –Kritikatu arren, beste olatu batzuk hartu zituen–: Bai, ondo ekarria dago: fantasma bat bezala, bai. Asko mugitzen naizenez, batzuetan Eliot naiz, baita ere. Toki guztietan zaude.

—Hainbeste mugitzen bazara, zergatik ez zinen zure semearen tokian jartzera etorri?

Marcó tenienteak, ilunera begiratzen utzi gabe, hurrak irentsi zituen. Zigarro bat borobiltzeko isiltasuna ere hartu zuen. Miazkatu zuenean:

—Zuk uste duzu eskubidea daukazula niri hori galdetzeko?

—Ez dakit. Zergatik ez zeunden?

—Tolosan nengoen. Abisua iritsi zitzaidanean…

Abisua iritsi zitzaionean, Ventura erotu egin zen, heriotza-mehatxua egin zion Caspe komandanteari, bere burua entregatzera joaten uzten ez ziolako, eta ihes egin zuen agindu asko-asko urratuz. Gauez iritsi zen Torenara, justu bere semearen, oinordekoaren, hilobia ikusteko, estreinatu berria. Berandu iritsi zen, atsekabez hil zen, eta lagundu zioten hiru gizonek gau hartan bertan desagertzera behartu zuten. Gerra-kontseilua aurreztu zioten Tolosan Marcó bezalako gizonak falta zirelako.

—Zer?

—Ez, ezer ez. Tolosan nengoela. –Leihoa seinalatuz–: Adi, gutxi falta da-eta.

Berriro isildu ziren. Zati luze bat. Aldian behin, Venturak zupada bat ematen zuenean, beren aurpegi ilunak odolez tindatzen ziren.

—Pamano erreka entzuten ari naiz orain –esan zuen Oriolek.

—Pamano ezin da Torenatik entzuzn.

—Bada nik entzuten dut. –Isiltasuna–: Zuk ez?

Venturak irribarre bare bat erreprimitu zuen, barrutik zetorkiona. Oriolek hauteman eta harrituta begiratu zion. Venturak zupada bat eman zuen:

—Izan ere... Torenako jende adinekoak, aitabitxiek, ni ttikia nintzelarik zioten...

—Zer?

—Ez, esaten zutela soilik hil behar dutenek entzuten dutela.

—Denok hil behar dugu –erantzun zuen Oriolek, deseroso.

—Mila izeneko erreka deitzen diote –esan zuen Venturak bien artean sortu zen tela hausteko.

—Zergatik mila izenekoa?

—Lehenik, elikatzen duen mendiaren izena hartzen du, eta deitzen da Pamano. Beherago, batzuek Bernui esaten diote eta, Bernui gainditua, Altrongo erreka, eta ahotsa eta zaporea aldatzen zaio. Amuarrainek berek bestelako haragia daukate, ez hain gozoa, ez Pamanon arrantzatzen direnen bezain gustagarria.

Sakon zupatu zuen Venturak. Urun zegoen. Aurrerantz begiratzen zuen, Torreta de l'Orrikorantz, baina Pamanoren erriberan arrantza egiten zegoen.

—Eta beherago, Molleko zubi aldera, San Antonio erreka esaten diote eta kantatzeari uzten dio.

Isiltasuna. Torreta de l'Orrin, ilunpea. Eta haiek gaua hainbeste zulatzeagatik begiak erreminduta. Venturak begiak kliskatu, tabako-izpi bat jaurti eta esan zuen:

—Badakizu zer galdetu zidan behin Venturetak?

—Zer?

—Bony de la Matatik jaisten ari ginen eta behin Pamanon, Seuri parean, errekari gorantz jarraitu genion.

—Eta zer esan zizun?

Marcó tenientea isildu egin zen. Beste zupada bat.

Oriolek pentsatu zuen edo Pamanoren alboan zegoela bere semearekin edo lo hartu egin zuela. Errespetatu egin zuen isiltausna. Baina hain luze joan zen, azkenean ausartu zen esatera, ei, zer esan zizun Venturetak?

—Zer?

Lotatik esnatu bailitz bezala, zigarroa hautsontziarena egiten zion platertxoan zapaldu eta hasperen egin zuen:

—Ez dauka garrantziarik. Bospasei urte zeuzkan. –Energiaz—: Ea, ordua da-eta.

—Zer esan zizun?

Ilunpean zeudelarik, Marcó tenientearen bizarrean nahastera jaisten ziren malkoak sentitu zituen. Ez batak ez besteak ez zuten Torreta de l'Orrira begiratzeari utzi faroak aurreratu beharra izan ote zuen, eta begiak erreta zeuzkaten. Tenientearen ahots are beltzagoa entzun zen:

—Esan zidan, aita, aita, handi egiten naizenean zenbat urte izango ditut? –Mahuka aurpegian igurtzi zuen energiaz—: Horixe galdetu zidan Venturetak.

Hamaikak ziren, puntu-puntuan. Beti dardara sortzen zion puntualitate hotzez, faroa hitz egiten hasi zen. Bi dirdaik zauritu zuten gaua. Bi. Belztasuna, isiltasuna, hotza. Bi argi. Bi argi. Belztasun gehiago. Ez zegoen batere zalantzarik: bi argi. Hainbeste denbora emisio bakarreko segundo batentzako. Amaitu da ikuskizuna. Denak lo egitera.

—Bi –esan zuen Marcó tenienteak, azken hurrak hartuz–. Gorantz goaz.

—Bi argi –ziurtatu zuen Faustino Pacon komandanteak Pujaltetik Sortera beherako bidetik–. Zer demontre izango ote da?

—Jaitsiko gara ala ez, komandante? –Hotzez dardarka zegoen soldadua eta tabakoa kasernan utzita zeukan.

—Noski ipiniko dudala partean. Noski –borobildu zuen komandanteak.

—Ez duzu sekula atsedenik hartzen, Ventura.

—Gerra amaitzen denean.

—Entzun...

Ventura altxatu eta Oriol itzalerantz begiratzen jarri zen.

—Esan –bota zuen.

—Parte hartu al zenuen Vilabrú aitaren eta semearen heriotzean?

Ventura abrigatzen ari zen, plaza gurutzatzerakoan hotzarekin nahasten lagunduko zion abrigo ilun harekin, sugandila bat bezala hormari itsatsita, eskola bidean non hamahiru soldadu hortzetaraino armatuta aginduen zain zeuden Inteligentziako Zerbitzu Britanikoaren proposamena gorantz garraiatzeko, Operazio Handiari begira. Kontsiderandoz, errezeloz, mapez, doktrinaz, mesfidantzez, eta esperantza eroaz betetako kartera bat.

—Zergatik jakin nahi duzu?

—Ni kokatzeko.

—Maisuak kokatu egin nahi du.

—Bai. Zergatik gorrotatzen zaitu hainbeste Targak?

—Galde iezaiozu.

—Berak dio zu izan zinela Elisenda anderearen neba benzinaz busti zuena.

—Zu adi egon andere horrekin. Adiskide handiak omen zarete.

—Zeinek esan dizu?

Ventura etxeko Joan Esplandiuk atea isilik ireki eta katuen arintasunarekin desagertu zen eskolara bidean eta erantzun gabeko galdera batekin. Oriolek jarraitu egin zion, hura ere isilik.

Ezin zuen pozik egon falangista-uniformeagatik, Rosagatik, bere alaba ezagutzen ez zuelako, Elisendagatik, bere bizitza hari batetik zintzilik zegoelako, Venturetagatik, emakume Venturatarrek mespretxatzen nautelako, gizona Ebroko alor anonimoren batean, edo okerrago, errepide ondoan, Rialb edo Escaló aldean, lur emanda zeukan emakume bat baino gehiagoren hego-ekialde erako haize-begiradengatik. Eta oso abar luzeagatik. Horregatik, nire kontsolamendu bakarra, alabatxo, zuri idatzi eta azaltzea da. Probableena da sekula ez zarela irakurtzera iritsiko. Baina nik idatzita utziko dut. Baliteke, norbaitek, eskolatik gauean paseatzen diren xaguak ez ezik, koaderno hauek nire marrazkien alboan aurkitzea. Izan zitekeen. Hori gertatuko balitz, norbait horri erregutzen diot, nire alabarengana iritsaraztea. Bihotz-bihotzez erregutzen dut.

Berari buruz mintzatzen ari ziren. Oriol Fontelles zuzenean mintzatzen zitzaion Tina Brosi, norbaitek iritsaraz diezaiola nire alabari. Bihotz-bihotzez erregutzen diot. Zergatik dio nik koadernoak alabarengana iritsaraztea, Oriol Fontellesek, Vilabrú anderearen iritziz, alabarik izan ez bazuen?

Hainbeste gauzagatik ezin zuen pozik egon. Eta gainera, anderea, balkoi gainean, berari so eginez; ziur zegoen ez zizkiola begiak gainetik kentzen, garondoa begiradaren intentsitatez erreta baitzeukan. Jainkoarren. Hala ere, Oriol Fontellesek, kopetako izerdia xukatu ondoren, izan ere eguzkiak, hodei kargatuetatik muturra erakutsiz, aurpegian ematen baitzion, irribarre egin zion xaloki Valentí Targari, alkateak Sorteko Major Plazaren, orain Plaza Mayor deitua bera, beste hamaika agintarien alboan tarimako mailak igo zituenean. Hamabi lagun tarima gainean, zeina urte batzuk lehenago koblarako edo arratsaldeko dantza-orkestrarako erabiltzen zen, artean musika existitzen zenean. Hamabi lagunek, musikoak balira bezala, udako uniformez jantzita, beren konboko jaka zuria soinean, gezi falangistak amerikanako poltsikoan brodatuak, bibote fin eta ondo ebakia, adatsak orraztu eta oso engominatuak ezein zalantzarekin ez desorrazteko, aldian behin eguzkia iluntzen zuten hodei irregularrei, deskargatzen ez zuten bitartean gaitz erdi, adituaren soarekin begiratuz, herrialdea tristezian eta hondamendian hondoratu zuen altxamenduagatiko alaitasuna eta horda gorrien tokiko biktimen aldeko monumentua ospatu zuten, eta profetizatu zuten orain behi gizenak etorriko zirela mundu guztiak jarri behar zena jarri eta behingoz estraperlo alua amaitzen bazen, zera ezinezkoa, zeren tarimako uniformatuak berak, gutxienez haietako hiru (Rubió, Emparança eta Dauder), kokoteraino sartuta baitzeuden, eta atsekabetuta baiesten zuten, Gobernadore Zibil eta Mugimenduko Buruzagi Probintziala, ahots faltsete eta oratoria solemneko salamankatar bat, estraperloan kakazten zenean, Rubió, Emparança eta Dauderri eskua gelditu ondoren, beste alde batera begiratu ahal izateko. Oriol, eskuak aurrean iztartea babesteko-edo, lehen lerroetan, harro zegoen itxurak egiten, bere herriko alkatea elkartutakoei (herritarren ehuneko berrogeita bederatzi Plaza Majorrera behartuta ekarria) Patriaren alde denok bizitza emateko prest egon behar dugula, milaka patriotek egin duten bezala gorroto gorriaren aurrean erorita, esaten ari zitzaien hamabi apostolu zurietako bat zelako, eta horregatik gogoratzen ditugu gaur monumentu umil baina eder, landako eta indartsu honekin. (Brabo, ondo esanda, bai, esan zuten Rialbeko Roda etxeko Minguetek, Bernuiko Mora etxeko Càndidok, Bàscones andereak, Torenako estankerak, Majals etxeko Casesek –senarrek, emazteek eta alaba nagusiek, eurak ere Torenakoak– Llavorsíko Pona etxeko Andreuk,

Torenako Birulés etxeko Feliuk, eta hamabi-hamabost pare esku gehiagok; suharki jotzen zuten txalo, nahiz eta ez zekiten ondo zer esan nahi zuen monumentu bat landakoa eta indartsua izateak gobernadore zibilaren gaztelania bihurria ondo ulertu bazuten. Pneumopleuroparietopexia, pentsatu zuen Cecilia Básconesek.

Amaren seme halakoak: hamabost egun eman eta esaten dizute batere ulertzen ez den marrazki batek dioena egiteko, ahal duzuna egiten duzu, monumentua prest daukazu egunerako, urte batera ordainduko dizute eta orain, antza, landakoa eta indartsua da.

Oriol Fontellesek, udako uniforme osoa jantzita, baietz, baietz esan zuen buruaren mugimendu leun batez, eta Valentí jaunarengana begiratu zuen, une horretan behatzen baitzeukan. Ni zelatatzen ari ote da? Ni ikertzen? Eta gero predikadoreak ohartarazi zuen ordenako indarrak emeki-emeki mendi guztiak kontrolatzen ari zirela, eta azkenean benemeritako destakamendu bat betiko kokatuko zela Sorten, meneko leialen bizitzak mendietako gaizkileen, izatez existitzen ez ziren, minoria inkontrolatuen basakeriaren aurka babesteko, eta baita ere desleialen bihotzetara beldurra eramateko, euren desleialtasuna gorde-gordeta eduki zezaketen arren. Jainkoak dena ikusten baitu eta Jainkoa gurekin dago. Eta orkestrako gainerakoek baietz esaten zuten maraken firinda gozo eta belarritik belarrirako irribarrearekin, tronpeta solistak bere bakarkakoaren potentziagatik sentiberatutako ezpainak ukitu, listua jaurtitzeko tronpeta mutuan putz egin eta, aktuazioari berrekiteko, ezpainak birbustitzen zituen bitartean.

—Ez itzuli. Marcó tenienteak hemen itxarongo dizu gauean. Gauerdian. Inportantea da. –Oriolek, instintibikoki, burua mugitu zuen. Besteak, ahots harrotu baina baxuan–: Ez itzultzeko esan dizut! Garrantzitsua da.

Bitartean Mugimenduko Buruzagi Probintziala sol majorreko tonu berean terreno teologikoan gora zebilen eta Ventura andereak zioen, Jainkoarren, zergatik ez daukat aski indar sukaldeko labana arropetan ezkutatuta eraman eta gizon hauen guztien arima erdian sartzeko, maitasunezko Jainkoarren, zergatik ez daukat horretarako indarrik, eta zuzen jarraitzen zuen, Torenakoentzat erreserbatutako txokoan, aurrerantz, bere atsekabe barrurantz tinko so eginez.

Oriol esatera zihoan ez zekiela gauerdian bertan izango ote zen zeren... baina garondoa erre zion arnasa amatatuta zegoen. Orduan itzuli zen. Oriolen atzean bi andrazko zeuden, makikoen ez aurpegi ez ahotsik ez zeuzkatenak. Balkoirantz begiratzeko baliatu zuen eta euren arteko begiradek esgrima egin zuten, eta Mugimenduko Buruzagi Probintziala, lepoko zaina eragitearen eragitez handituta, diskurtsoa bukatzen ziohan bere ahots atiplatuarekin. Egun batean, garaitzaren bateko ospakizun-afari baten ondoren, kafea eta punta koñak-kopan bustitako puruaren diskurtsoaren bitartean, orain errepikatzen zuen hura esan zuen: Jainkoa gurekin dagoela. Eta liseriketaren euforiarekin gehitu zuen, eta behar baldin bada kartazal bat pasatuko diogu gurekin egoteari utzi ez diezaion, denek baitaukate beren prezioa, kamaradak. Gaur, ehuneko berrogeita hemeretzigarrenaren aurrean, ez zuen eroskeria dibinoa aipatu; ekitaldia ixteko, Europako kaosari, Caudilloari esker salbatu ginen gerraren marasmoari erreferentzia egitera mugatu zen, eta azpimarratzera Jainkoak dena ikusten zuela eta gurekin dagoela. Diskurtsoa ez zen amen batekin amaitu baizik hamaika apostoluek batera jaurtitako ohiko arengek berotuta (saxo tenorea, diktadoreari bizitza luzea opatuz, klarinetea, arenga errepikatuz, eta bateria, Patriarekiko ongizate- eta aurrerabide-nahiak laburtuz), Rialbeko Mingueten taldeak suhartsu berotuta eta ehuneko berrogeita hemeretzigarrenaren murmurio herabeak berretsita. Eta Mingueten eta Birulésen

sokakoak ez ziren guztiek, Eli, Eli, lemà sabactaní pentsatzen zuten nahiz eta inork ez zuen arameoa ezagutzen Pirinioetako bailara goibeletan.

Toreadore baten presentzia plazan gogoratzen zuen mugimendu sotil batekin, ahots tenoreko Gobernadore Zibil eta Buruzagi Probintzialak orain Pere Serrallacek begi profesionalekin aztertzen zuen monumentuaren lapida estaltzen zuen izara hori eta gorria desestali zuen, han zeuden konboko kideek aldarrikatzen, tonu militarreko uluez lau haizetara txistukatzen hasiak ziren erretolikak entzun gabe, harrietako Serrallacek estanpatutako martirien izenak banan-banan irakurriz. Ez dakit… nire gusturako lapidaren zatia pixka bat goregi geratu da, eta hirugarren lerroko letrak, oso estu; oro har, iraungo duenerako. Eta orduan Anselmo Vilabrú Bragulat jaun txit gorenaren eta José Vilabrú Ramisen izenak, ordena alfabetikoko azkenak, Jainkoaren eta Patriaren alde eroriak, entzun ziren. Izen horiek Valentí Targak irakurri zituen, ahots pitzatuarekin, eta fidelen komunitate osoak erantzun zuen, presente. Amaitzerakoan, Valentí jaunak balkoitzarrerantz begiratu eta bere soak Elisendarenarekin egin zuen topo, zeinak, zutik, eskuak eskudelean zurrun, bere Goelaren omenaldi pribatua jasotzen zuen.

Ekitaldia caralsolekin amaitu zen eta jendeak elkarri begiratu zion, artega, kontzertuaren aurretik zabaldu baitzuten makiak herria bonbardatzeko asmoa zeukala ospakizun hura eragotzi eta orkestra osoa beldurtzeko, eta gutxi-asko mundu guztia jasotzea egokituko ote zitzaion beldurrez zebilen. Ehuneko berrogeita hemeretziko gehienek alibiaturik hartu zuten arnasa, eta batzuek biraoak ezkutatzen zuten eta beste batzuk hanken dardara disumulatu eta sakabanatzen hasiak ziren, etxera itzuli behar zituen kamioia bistatik galdu gabe.

Torenatik hogei lagun jaitsiarazi zituzten marmolezko blokeak eta estalkietako harlauzak garraiatzeko Pere Serrallacek zerabilen kamioian. Isilik egin zuten bidaia, elkarri begiratu gabe, paisaiari so, hori zure arrazoi berberez isiltasuna gordetzen duen norbaiten begietara so egitea baino errazagoa balitz bezala. Izan ere kamioiaren gainean, Valentí jaunak plaza bat gorde nahi izan baitzuen Ventura anderearentzat, Sorteko diskurtsoek ideiak argitu izango zizkiotelakoan. Eta mundu guztiak islitasuna gorde zuen Ventura andereagatik, mundu guztiak badakielako ez dagoela semea hiltzen ikustea baino min urragarriagorik eta Oriolek bidaia guztia urruti begiratuz egin zuen, triste begiratuz, Venturari so egin gabe, galdetu gabe zergatik Célia eta Rosa ez diren eskolara itzultzen, gorrotorik zuzenena, bihotzetik bihotzera sentitzea saihesteagatik.

Inauguratu berria zen erorien aldeko monumentuaren atzean, harrietako Serrallacek azken ukituetarako erabilitako zizel-saskia utzi zuen, beti baitago gaizki neurtutako harri-zatiren bat izorratzen zaituena. Entzumen fina eduki izan balu entzungo zukeen nola Valentí jaunak Orioli esaten zion bilera ttiki batera gonbidatzen zuela, Claudio Asín ezagutu ahal izango duzu han, ziur aterako zarela bihotza zabalduta, eta Oriolek esan zuen, bai, bai ilusioa egiten dit. Eta Valentí ukalondotik hartu eta monumentura hurbilarazi zuen, azaltzen ziolarik buruan itzulika zeukala horma-irudi epiko handi bat egitea konkistatzaileen gestei buruz, eta Valentí jaunak interes handiz entzuten zion, konkistaitzaileetako bat, zalantzarik gabe, bera baitzen, Pere Serrallacek igeltsero-tresnak jasotzen zituen bitartean saskia ilusioz kargatzen zuen mutiko batek lagundurik, zeinak aitari galdetzen zion lapida berria ere pikatzen utziko ote zion eta aitak, zigarroa ahotik atera eta tabako-izpi bat jaurtiz, esan zion, hori ikusiko dugu, Jaumet, baina orain joan gaitezen agudo asko.

—Utz iezadazu luzeago begiratzen, tira...

—Jaume...

—Soilik unetxo bat da-eta!

Gizonak semeari belarrondoko bat eman eta monumentutik urrunarazi zuen, adierazpen lehorrez esaten ziolarik, pasa haruntz, eta mutikoak pentsatu zuen, zein injustua den bizitza, soilik nik grabatutako letrak luzeago ikusi nahi nituen, aita ergela da.

Valentí jaunaren bizkar gainetik Oriolek ikusi zuen nola bi gizon, Pere Serrallacen antzeko arroparekin, saski berdin-berdinarekin, monumentuaren atzean jarri eta makurtu egiten ziren, antza denez azken uneko detailetxoren bat konpontzeko.

—Non jarriko genuke?

—Zer?

—Horma-irudia...

—A. –Inprobisatuz–: Sorteko Udaletxeko batzar-gelan.

—Edo Torenakoan.

—Edo Torenakoan, bai.

Amaitu dute, esan zuen Oriolek bere artean bi gizonak altxatu zirenean. Orduan Valentí jaunak, horma-irudiaren gaia interesekoa zuen arren, bertan utzi zuen, ikusten denez urrutitik gobernadore zibilak bera bazihoan seinale egin baitzion, eta Oriol bakarrik aurkitu zen monumentuaren aurrean, jendea apartatu zedin desiatuz, alde hemendik, joan zaitezte bermuta beste nonbait edatera. Negarrez hasi zen eta jendea sakabanatu eta plazaren erditik urruntzen eta Oriol bakarrik aurkitu zen, erridukulu, bera, harria, gomutak eta bonba, monumentuari so eginez. Urrats batzuk atzera egin zituen korrika egiteko gogo biziz, baina arratsaldea inmortalizatzeko enkargua zeukan eta, ohial beltzean sarturik, inauguratutako monumentuan fokua jartzen ari zen argazkilari baten tripodearekin egin zuen estropezu. Eta plaza erdi hutsik zegoenean, eztanda sakon, bigun, larri, sendoak bizitza asko dardarazi eta eroritakoen monumentua bost zatitan hautsi zuen eta, inauguratu berri, hondamendi bezala estreinarazi zuen. Harri landako eta indartsuaren zati bat disparaturik irten zen azken instantanea egiteko denbora izan zuen argazkiariaren bihotzaren bila. Lasterketak, txistu izutiak, amorruzko oihuak, haserre-tximistak, kaka putza mekabenzotz existitzen ez den makian, eta Oriol oihuka hasi zen errepide eta errekarantz esanaz, hemen, hemen, hemen, eta gizon armatuek jarraitu egin zioten atentatu hilgarri haren erantzuleen bila Jainko Gure Jauna gure alde eduki arren. Izenik gabeko nire alabatxoa, zein mundutan jarri zaitugun, izan ere han edonork har baitzezakeen kalte. Moliner etxeko Peret gajoa, argazki batek hila, oraindik luze egon zen plazako harlauzen gainean etzanda, epaileak, forentseak, eta poliziako kolega argazkilariak etorri zain. Ehuneko berrogeita hemeretzia berehala itzularazi zen etxerantz kamioiekin, hemen ez da deus gertatu kontsignarekin, betiko lau zirinak, jakina da, lasai, eta Ventura andereak irribarrea disimulatzen zuen, ziur baitzegoen bere Joan eta bera bat eginak zirela gaur, Sorten.

Bi ordu beranduago eguzkiak, zuhurki, Tossal Roi eta Tuc de la Comera aldetik ezkutatzea erabaki zuenean, lasaitasuna itzuli zen Plaza Majorrera, soldadu desorientatuak inauguratuta orain, Valentí eta konboko beste osagarriekin ideiak oihuka partekazten zuen kapitain musugorri batek gidatuta, pixka bat umezurtz gobernadore zibilak hanka egitea erabaki

zuelako segurtasun zorrotzari buruzko arrazoiak medio, ikerketaren emaitza zehatzak nahi ditut eta bihar goizean nahi ditut, nire bulegoan. Sorteko alkatea senperrenak esaten zituen mundu guztiaren aurka, gobernadorea hemen zegoelarik gertatu behar zitzaidan, eta unibertsoko maki guztiekin tirak egitea amesten zuen, eta bakarrik geratzen zen bere atsekabearekin, txiki-txiki egindako monumentu umil baina bikain, landako eta indartsuaren aurrean, Valentíren gizonek, gaizkileek bere bizitzako obra zapartatu ziotelako Serrallac haserre-haserretuari galdeketa sumarioa egin ondoren, zein aluk, non, nork, noiz, bete zuen harri alu hura San Joanetako traka bat balitz bezala ebazteko erabiltzen ari ziren bitartean. Nik alde egin dudanean baizik ezin izan dute egin.

—Eta nork dio zeuk ez zenuela lehenago kokatu.

—Hori aditzera ematen baduzu ostera, ni...

—Etorri –esan zion Valentí jaunak Orioli–. Auskalo baliagarria izango ote zaizun zure horma-irudirako.

—Zein horma-irudi?

—Udaletxean margotuko duzuna.

Alabatxo, ni... Denetaz mintzatuko nintzaizula esan nuen eta egin egingo dut. Hari laguntzea ukatu izan banu, behar bada orain hilda nengoke. Baina orduz geroztik, ez naiz bizi. Ikusten denez ordu batzuk lehenago patruila mixto batek gauean Cantóko mendate aldetik eta Embonui gainean edo gorago, Torreta de l'Orri aldean, argi-seinaleak egiten zituen gizon bat atxilotu zuten. Egunak ziren haren bila zebiltzala, baziren aste batzuk haren existentzia ezagutzen zutela baina ez haren irismena, baina beti irristatu eta ez zioten arrastorik aurkitzen. Harik eta auzo kontentagaitz baten abisuak eta gora eta behera eramaten zuen motorraren matxurak atxilotzea ahalbidetu zuten arte. Ribera de Montarditeko lagun nekazari baketsu bat zen, kolaborazionista, gorria, traidorea, errepulikazalea, pederasta, katalanista, komunista, separatista, judeomasoia, zeina, zegokionean, bidean gora joan ohi zen, non hamaikak puntuan, bi, edo hiru argi pizten zituen, edo, eta Jainkoak zain gaitzala, bost argi desesperatuak, pentsatuz ezen pasatzen zituen hotzak eta beldurrak ongi lagundu ahalko ziola bera bezain koldar bati. Bost hilabete zeramatzan faroarena egiten eta delazio egoki bat zela medio amaitu zitzaion nabigazioa. Segizioan joan ziren, bonbaren eztandaren zaratak erreta: Montarditeraino, gaizkilearen etxeraino, oraindik esku-bilurrez lotuta baitzeukaten lastategiaren sarreran, eta barre egin zuten Valentí Targaren idazkarietako batek, adats kizkurrekoak, bota-kolpeak eman zizkionean urdailean odola oka eginarazi arte, ez zuelako aitortu nahi zein zen korreoaren eta eskualdeko erresistentziaren erantzulea. Borobilduta utzi zuten, galdetuz, non arraio ezkutatzen da Eliot eta nor da. E? Ulertu al duzu? Non eta nor. Baina gizona, kolpez asaldatuta baitzegoen, gauza ulertezinak esaten hasi zen, bere odol propioarekin itotzen ari baitzen, eta ni, alabatxo, isilik, irribarretsu, orain bati gero besterari so egiten, sarraski hura gelditzea eskatzeko ausardiarik gabe, tartean jartzeko indarrik gabe, eta uste dut nekazari hark begietara begiratu zidala behin eta inpresioa eman zidan nitaz dena jakin arren isildu egiten zela.

—Ba al dakizue ostiko batekin jokoz kanpo utz dezakezula pertsona bat? –esan zuen ez dakit nondik zetorren eta gero Claudio Asín zela jakin nuen altu eta argal batek, Targaren ideologo

kuttuna bera, bere iturria, bere inspirazioa, bere munduaren, bizitzaren, Patriaren ulermena, Claudio Asín, presente.

—Halako aurkikuntza.

—Bai –jarraitu zuen teorikoak–, izan ere esperimentatu baitaiteke minaren graduari buruz, erresistentzia-gaitasunaren galerari buruz. Dena oso zientifikoa.

—Hori interesgarria izan daiteke armadarentzat.

—Eta poliziarentzat. –Asínek intentsitatez begiratu eta errepikatu zuen–: polizia, kamaradak.

—Egia da –aitortu zuen norbait ez hain azkarrak, agian Targak–. Ez nintzen jabetu.

Claudio Asín ospetsua bi kamarada baztertu eta nekazariaren hondakin minduaren aurrean jarri zen. Hizlari baten ahots larriz adierazi zuen ezen errepublikazaleak (ostiko etiologiko bat eman zuen eredu bezala erabiltzen zuenaren giltzurrunetan) ez daudela egin dutenagatik damututa: soilik derrotatuta daude.

—Entelekia bat da pentsatzea –esan nuen nik, alabatxo–errepublikazaleek beren krimenen damua izan dezatela.

—Bai, jauna –esan zuen harrituta Claudio Asinek, erreferentziak, iparrak. Bizkarrean ipini zidan eskua–: Nola da zure izena, kamarada?

—Fontelles.

—Esaten nizun Torenako maisua da –Targak, harro.

—A, maisu ospetsua. –Bere aurrean belaunikatutako nekazariari begiratuz–: Horregatik gure zeregin sakratua da porrot permanente eta osoan mantentzea. Erabateko terrorea, irmoa, gupidagabea, Egia daukanak ekarria, erremedio bakarra da setatsuen aurka.

Aski argi geratu ez zelakoan-edo, ostikoa errepikatu zuen. Targak, berea esateko behartuta balego bezala, jakitun gogoeta teorikoetan ezin zela nabarmendu, ostiko egin zuen nekazariaren sahietsean, luze-luze erorrarazteko beste indarrez. Claudio Asíni begiratu zion, harro, bere iparra, bere gidaria.

—Ez hil, hitz egin behar du-eta –esan zuen borobileko kide batek zentzu praktiko pixka bat gehiagorekin. Orduan, nekazaria nere oinetara jausi zen, alabatxo, eta beldurraren sunda ikaragarria sentitu nuen.

—Ez dut hil nahi –esan zuen. Baina besteek komentatzen zuten minarekiko esperimentua modu zientifikoan egin behar zela, iturri onetik dakit: nire koinatuak kontaktua eduki behar izan zuen Roineko Waffen SSekin, eta hori entzun zuen. Zure koinatuak? Bai, Zaragozakoak, tenientea denak.

—Zuk ikusi al duzu ese esekoen uniformerik?

—Ostia. Zin dagizut. Ostia.

—Bai.

—Baina dio zuri azaltzen joango den mediku batekin egin behar dela; izan ere, egiatan, ikaragarri ikasten baita.

Eta ni, gizon martiria nire oinetan eta isilik, alabatxo. Isilik. Batik bat, inork, berak ere ez, jakin behar ez zituen gauzak aitortu eta, gizonak Eliot nor zen esango ote zien beldurrez, edo Torenako maisua makiari informazioa pasa eta eskolan jendea ezkutatzen duen infiltratu bat

dela, irratia ere badauka, edo soilik aitor zezala, niri Torena alderantz, Montsent pean, seinaleak egitea agintzen didatela.

—Tira, berarekin proba dezakegu.

—Medikua behar dugu.

—Joan zaitez popatik hartzera. –Gainerakoei–: Egin nahi al duzue?

Eztabaidatzen zuten bitartean nor hasiko zen Montarditeko nekazari baten minaren muga zientifikoki probatzen, Oriol zerbait esatera saiatzen zen zaurituarengana makurtu eta belarria hurbildu zion, usain txarra zeukan arren, eta gizonak izu-ahotsez zioen, ez nazazue hil, nik soilik Torenako jendearekin komunikatu behar nuen, bere maisuarekin dio...

—Zer dio? –Valentík, mesfidati.

Oriol altxatu egin zen.

—Hiltzeko, ez sufriarazteko.

Claudio Asínen ostiko zientifikoak bareraino iritsi eta ahoa zabalik mantenarazi zion, harrituta balego bezala, baina arnasa hartu ezinik.

—Kontuz, hau hemen geldituko zaigu-eta.

—Bai –desilusioa medikuetako baten ahotsean–: Ea urde honek ez digun esperimentatzen uzten.

Badaezpada ere, beste mediku batek sudurra zapaldu zion uniformeko botaren takoiarekin. Nekazaria zerua bezain gris bihurtzen ari zen, ilunduz gero eta nahasiago.

—Izan ere fijatzen bazarete –hitz egin zuen Tordesillaseko unibertsitatean graduatutako traumatologo batek–, saiheskiak, gorputzaren zati garrantzitsuak babestu behar dutenak, erraz apurtzen dira. Ilustratzeko, ostiko jo zuen nekazariaren saihetsetan, eta hark apenas protestatu zuen airerik gabe baitzegoen, eta ni, alabatxo, isilik, ezer esan gabe, hari begira, arauzko sastakaia sartzeko gogoarekin sufritzeari utz ziezaion, bailara hauetan zakur eta mandoekin egiten den bezala–. Aldiz –jarraitzen zuen traumatologoak eskuineko hankaren tibia kolpatuz–, femurrak edo dena delakoak dena agoantatzen du.

—Bai, interesgarria da. Eta zuk, kamarada Fontelles, ez al duzu esperimentatu behar?

Ostiko herabea eman nion gizon gajoaren hankari. Uste dut belaunean ukitu nuela, minezko hasperen sorra egin baitzuen. Nire arimak ere bai. Abesti salatzailea entzutea espero nuen baina garaia hain zen beltza, oilarrak ere beldurrez mututzen ziren.

Etxe barruan, argi dardarti bat mugitzen zen, ezinean, eta Valentí jaunak bere ingurura begiratu zuen, gerora Faustino Ramallo eta enparau tripazakuen aldetik bere burua disgustuak eta kalapitak ekar liezaizkioketen gauzak egiten ikusteaz deseroso balego bezala, haiek bulegoko mahai batetik ez baitziren kapaz ulertzeko bizitza bizi egin behar dela, baina koronelak ziren eta mesfindantza teorikoarekin ikusten zituzten kamarada falangista heroikoak. Eta gehiago medikuarena egitera jolasten baziren. Militar guztiak sagardíak balira, ondo geundeke falangistok.

—Jaso eta eraman Sortera –esan zuen ondorio bezala.

—Ez da behar –erantzun zuen bertaratutakoen artean zientifikoenak, Gerriko Udaletxean idazkari zen Sallenteko patologo batek–. Jada ez du arnasarik.

Oriol makurtu eta pultsua hartu zion. Ez zion aurkitu. Ez zion bihotza aurkitu, ez zion bizia aurkitu.

—Hilda dago –baieztatu zuen. Eta denetan ikaragarriena da, alabatxo, hilda zegoela jakiteak bihotza arindu zidala, jadanik ez baininduen salatzerik ahal.

—Aluak halakoak, pixka bat geldi egotea zeneukaten, ez da?

Isisltasuna. Gaztain koloreko begi hauskorrekin begiratzen zidan hildakoak. Etxeko argia dardartiago zegoen, kriseiluari heltzen arui zitzaiona negarrez hasi izan balitz bezala. Orduan Oriolek Valentírengana begiratu eta, ahots lasaiz, esan zuen:

—Berdin eraman behar dugu Sortera.

—Zergatik?

—Bera da bonba ipini duena.

—Ezinezkoa da –erantzun zuen patologoak. Goizean harrapatu zuten.

Gerran gaudelako esan nuen hura, alabatxo. Baina oso gaizki sentitu nintzen. Hainbeste, iruditzen zait orain bai nagoela hiltzeko prest.

—Bera da bonba ipini duena! –Orain ulertu zuen Valentík, pixka bat harrituta–: Arrazoi du kamarada Fontellesek.

—Ihes egiten zebilelarik zendu da –esan zuen ikasketarik gabe baina lagunzteko gogo handiko ginekologo batek–. Ezponda batzuetatik erori eta...

Valentí Targa makurtu egin zen hildakoa aztertzeko. Beste medikuak hurbildu eta une batez iruditu zitzaidan Rembrandtek Targa doktorearen anatomia-eskola margotzen bukatu berri zuela.

—Bai –borobildu zuen Targa doktoreak–. Ezponda batzuetatik jauzi egin du.

Orduz geroztik Valentí jaunak niri so egin, buruarekin honela egin eta debekatu egiten dit hika mintzatzea. Eta hainbeste miresten nau, azken erretratu-saioan, dauzkan hain begi zailak bukatu nituenean, aitortu zidan, hiruzpalau anis-kopak lagunduta, Elisenda Vilabrú eta hura, hezur eta mami. Harekin maiteminduta zegoela. Maiteminduta zeudela. Edozer gauza egiteko gai zela baina nik ez dakit zergatik azaltzen ditudan miseria hauek, alabatxo. Nahiko lan daukat nire burua ispiluan begiratzeko.

Tabako-usaina. Oriolek maisuaren etxeko bonbila ahula piztu zuen. Lastairan eserita, Marcó tenientea, Ventura nekazari ohi eta kontrabandista ohia, espresiorik gabeko aurpegiarekin. Zoko batean zutik, aurpegi ilunagoko gizon bat eta Sten bat beso azpian, Valdés zeritzan eta beldurrari ere beldurrik ez zion asturiar huraxe. Oriolek atalasean bermatu zuen burua, zorabiatuta eta oka egiteko gogoarekin.

—Ezin dut gehiago.

—Farorik gabe geratu gara –esan zuen Valdések, hondotik.

—Nik ezin dut gehiago –insistitu zuen Oriolek. Targak edozein unetan deskubrituko nau.

Esan nuen baita ere ez nuela nahi, zuk, alabatxo, bizitza osoan pentsa zenezan ni faxista bat nintzela. Eta zure amak...

—Jakin behar dugun zer esan dizu Targak?

—Zergatik zekien faroak ni nintzela hartzailea? –erantzun zuen Oriolek, galdera enoratuz.

—Zergatik diozu bazekiela?

—Torenako maisuari egiten dizkiot seinaleak, esan zuen gizajo hark.

Marcó isilik altxatu zen, felido bat bezala. Oriolek, lasaitzeko:

—Soilik nik entzun nuen.

Automata bat bezala, armairura joan eta porroia hartu zuen. Mahai gainean utzi eta bi gizonek edan egin zuten. Valdés asetasun-hasperenarekin mintzatzen zen bitartean, Oriolek azaldu zion Targak diola gobernadore zibilak azaldu ziola, lasai egoteko, espiak infiltratu baititugu makiaren buruzagitzan, Tolosan, eta denetaz informatu digute.

—Gezurra –esan zuen Valdések, ahoa eskuaren ifrentzuarekin xukatuz. Porroia mahai gainean utzi eta jarraitu zuen–. Hori ezinezkoa da.

—Ezer ez da ezinezkoa –komentatu zuen tenienteak ahots lehorrez.

—Eta eraso bortitzagoak egiten hasiko zaretela Nafarroan eta Benascen.

Marcó tenienteak eta Valdések elkarri begiratu zioten.

—Ez al zizun ezein infiltraturen izenik eman?

Oriolek porroia hartu eta esan zuen, nahi bai. Isildu egin ziren.

Orduan, Marcó tenientea, unea itxaroten egon izan balitz bezala, instrukzioak ematen zituenean bezala mintzatzen hasi zen, ahots sakonez, etenik gabe, baina lasai, bestearen buruan informazio osoa ahalik eta modurik zuzenean finkatzeko: Operazio Handia mamitzen ari da. Eta besteok jende pila bat pasarazi behar dugu beherantz eta beste multzo bat Frantzia aldera.

—Zenbat denboran?

—Aste betean.

—Erotuta zaudete.

—Erotuta gaude: zu ere bai. Ostiralean hasiko gara.

—Eta mundu guztiak igaro behar al du nire pasabidetik?

—Ez, baina ia-ia. Distrakzio-maniobrak egingo ditugu bailaran. Bitartean, jende-inurritegi bat izango da mendia, zamatutako joan-etorrian.

—Zer da Operazio Handi hori?

—Ez nago baimenduta horretaz zuri mintzatzeko. Ba al daramatzazu helbideak?

Bai, Valentíren laguntzaile uniformatuen Zaragoza eta Bartzelonako helbideak zekarzkion.

Joan-etorri etengabeko astea izan zen, lorik egin gabe, alabatxo, Marcó tenientak erakutsi zizkidan kontrabandisten ibilbide zaharretan gidarena egiten. Hiltzeko prest zeuden gizon isilen taldeak gidatzen; horietatik, egunean gutxienez hamar bat eskolako ganbaran egiten

zuten lo, eta ni harrituta nengoen joan-etorri hura dena Targak eta bere jendeak ez antzemateagatik. Egun batzuetan zehar, Valentí santuki haserre aurkitu zen, kolaboratzailerik gabe, izan ere bati etxea erre zaio, beste bati ez dakit zein alukeria gertatu zaion bere aitari, eta adats kizkurrekoak bere jabetzara igarotako lurrei dagokien hil ala biziko aferaren bat konpondu behar du. Ematen du kaka zapaltzen ari garela egunotan. Eta kontua da Targak edozein aitzakia baliatzen zuela Sortera jaisteko. Torena, bakarrik egonda, eskoltarik gabe, ez zen toki ona bere osasunerako.

Elioten tentakuluek armada distraitu zuten Seun zubi bat lehertuz eta beste bat Gerrin eta Esterriterako bidea moztuz harkaizti osoa zapartatuz, Bruixeseko muinotik hasita, Baiasca erreka Noguerarekin batzen den tokitik hurbil; errepidea txikituta utzi zuten, hainbeste non mila bederatziehun eta hirurogeita hamaikako apirilaren hogeita bostean, ofizial urduri eta haserre batzuen zaparrada jaso zuten soldaduek hondamendi guztia jaso eta hogeita zazpi urte beranduago, oraindik zulo solidoak, betikoak zeuden, frenatu eta ezkerretara, Arestuiko bidean sartuta, hartzen zuen luxuzko auto isil eta beltz baten suspentsio-sistema frogan jarriz. Berehala, Baiasca ibarreko behiek mundu guztia jabearazi zuten intruso baten presentziaz, eta Arestuin eta Baiascan auzo batek baino gehiagok itxi zituen leihoak.

—Esan zenidan autoa elizaraino irits zitekeela.

—Sentitzen dut, anderea. Herriaz nahastu naiz, antza. Denak berdinak ikusten ditut.

Elisenda anderea haserre jaitsi zen, atea irekita utzi eta Baiasca herriaren erdirantz abiatu zen. Ez nau begiratu ere egin, nik zapuztu banu bezala, harengatik, harekin eta harengan bizi naizen hau, zer daukazu nire aurka, maite horrek?, esan zuen Jazintok, irten, anderearen atea itxi eta zuri itxaroteko prestatzen ari zen bitartean, nire bizitza osoan egin dudan bezala, Elisenda.

Bi zakurrek jarraitu zioten, ikusbera, eta herriko biztanle eskasek nahiago izan zuten etorri berria etxe barrutik behatu, eta diagnostikoa osatu zuten: Bartzelonatik, eta margoak eramatera dator. Antza denez hormatik ateratzen dituzte, ez dakit nola. Abisatu mosen jaunari. Ziur, ziur eramatera datorrela. Zeren bisita jaso zuten azken aldian, Seuko gotzainarena, irribarre zabalarekin, hitz gozo batzuekin eta bedeinkapen oso sentituarekin, San Serniko amabirjina haurrarekin, munduko bola eta mendetan zehar han bazka zeukan pipi-familia eraman baitzituen.

Margoen bahitzaile anderea, mosen Dot, martiriorako prest, abside margotua ezkutatzen zuen erretaula barrokoaren aurrean ipini zen unean sartu zen elizan. Kanpoko argitasunak liluratuta, Elisenda andereak segundo batzuk eman zituen mosen jaunaren irudi beltza errekonozitzen, aldarearen aurrean, erabaki-adierazpenarekin azkeneraino joateko, edozein izanda ere.

—Egun on, mosen jauna.

Ez da Bartzelonakoa. Torenako urlia da. Gravat etxeko urlia. Vilabrú anderea. Zenbakien mosen Augusten aho berbera.

—Egun on, anderea.

Elisenda Vilabrúk, ezer gehitu gabe, aitorleku ttiki bat, ia-ia jostailuzkoa, bi mendetan zehar entzundako hainbeste miseriagatik zur ihartukoa, aharrausika zegoen tokira abiatu eta gurutzearen seinalea egin zuen. Dot mosen jaunak listua irentsi eta etorri berria belaunaulkitik mugitzen ez zelarik, aitorleku barruko esertokira joan zen, estola hartu, muin

eman, kokatu, jesarri eta lore usaintsu, atseginezko eta bekatuzko baten lurrin-bainuan mozkortu zen. Gravat etxeko Elisenda Vilabrú andereak, Torenako urliak, betiko bukatzea erabaki zuen harreman ekaiztsu bat aitortu zuen, amaitu nahi dut eta ez dut aurrerantzean egingo.

—Damututa al zaude, anderea?

Ez. Nire borroka soilik nire bizia kontrolatzeko da.

—Bai, mosen jauna.

—Damua salbaziorako atea da.

Ezin naiz ergel baten, adibidez Quique Esteve putasemearen, eskuetan egon.

—Ulertzen al didazu, anderea?

Kontrol osoa behar dut.

—Bai, mosen jauna. Horregatik esan nahi dut ozen eta zu bezalako testigu baten aurrean, beste inoiz ez, inoiz ez.

—Zorionak, anderea –agian ahots pixka bat losintxariarekin.

—Eskerrik asko –lehor.

—Borondatezko indarra esaten zaio horri.

Torenako Gravat etxeko urlia isilik geratu zenez, Dot mosen jaunak esan zuen, ego te absolvo a peccatis tuis Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean, eta Elisenda Vilabrúk aitaren egin zuen bere buruarekin egindako itunaren adierazpen externoaren seinaletzat.

—Joan zaitez bakean, anderea.

—Eta penitentzia?

Sorpresaz hartu zuen. Zer penitentzia-zorri ezarri ahal diot nik Gravat etxeko urliari, Jainkoarren. Hogei agurmaria, anderea. Joateko altxatu zen urlia eta abadeak bilete tolestu bat topatu zuen esku harrituetan. Instintiboki, desestali eta esan zuen, arraioa, Jainkoaren ama, eta sotanaren tolesetan desagerrarazi zuen.

Vilabrú andereak, Baiascako Sant Serniren elizaren irteeran, begiak beherantz begira, autoa zeukan tokirantz, distiratsu kliskatzen zituen ordu berean, baina hogei urte beranduago, Elioten tentakuluek tentsio altuko dorre bat botatzen zuten Rialb aldean. Gertatu zitzaien lanarekin ezinezkoa zen militarrei gorantz begiratzea bururatzea, mendietarantz, non transitoa dentsitate nabarmenekoa zen.

Badakizu zer gertatzen den, alabatxo? Heroiarena egitea oso nekosoa dela. Betiko beldur berbera daukat. Alde bakarra da hain nekatuta nagoela, arrisku batzuk soraiotasunez hartzen ditut. Egunak dira jendea Torenako mugetatik pasarazten ari garela. Eta soilik jendea balitz! Herenegun, partida batek azken lau urtetako defentsa-posizio batetik inork erretiratu ez zuen kanoi desmuntatu bat pasarazi zuen mugetatik. Sinestezina da. Bart, esan didatenez armadari berari lapurtutako munizioz kargatutako hamar mando pasarazi ditugu. Ez dakit zer den, baina potoloa prestatzen ari da. Eskolan batu behar ditudan gizon guztiek begirada iluna baina determinazioz betea daukate, oso gauza garrantzitsu baten aurrean bageunde bezala. Baina denak isiltzen dira, setatsu. Eta eskerrak begirada tristeko haurrak eskolan ez dauden, udako oporrak dauzkatelako, eta eskuak libreago dauzkadan, nire buru gainean hamar edo

hamabi enboskatuk lo egin eta, korrikaldi-gau batean xahutzeko indarrak berreskuratzeko gai izan daitezen. Nolako gogoa daukadan gauza hauek denak zuri buruz buru azaltzeko... Eta zuk eta zure amak niri entzun nahi izatea. Gaurkoz amaitzera noa, lehertuta bainago, izan ere hiru egun baitira soilik pare bat ordu lo egiten dudala. Bost urte dira, gau eta egun, bizitza bikoitza daramadala. Zortzi hilabete Ventureta erail zutela, Rosak nire koldarkeriagatik ihes egin eta denen artean nire destinoa aldatu zutela.

Goizaldeko seiak ziren arren, ez zuen hotzik egiten. Laster aterako zen eguzkia. Kaleak lotan zeuden, ilunpeak nagituta. Poble-sec auzoko Placeta de la Font, Bartzelona erdian egon arren, toki hustua zen, ia Torena bezainbeste. Lau kale estu han elkartzen ziren eta bidegurutzearen zentroa usoen aztarna eta pare bat platanondo anemikozko plaza hura osatzen zuten. Toki hartako jaun eta jabe bakar ziren usoen urrumek eteten zuten isiltasun hura. Plazako koadroaren txoko batean, kiosko baten egitura iluna, zur usteldukoa. Erdi-erdian, izena ematen zion iturria. Kanilaren azpian makurtu eta ireki egin zuen Oriolek. Ur-xirripak masaila busti zion. Zapore iraingarriki okagarria zeukan, mendi-gustuko uretara ohituta zegoen une hartan. Bat-batean ametrailadora baten zarata entzun eta Oriol ikaratu egin zen, iturri atzean dardarka uzkurtu eta, une batzuk geroago, betileak atera zituen, arretaz, plazako beste aldean zer gertatzen zen behatzeko. Nork, nola, zergatik aurkitu zuten, ni bake-asmoz bainentorren, ni soilik makiak engainatutako maisu bat bainaiz, nik ez nuen ezerekin nahastu nahi... Usoek, bera bezala aztoratuta hegan egin zutelarik, zuhaitzetatik behatzen zuten liskarra. Burdina urtuko iturriak babestuta, bere aurrean, plazako beste txokoan, Manel tabernako jabea ikusi zuen, establezimenduko pertsiana metalikoa altxatu berri, barrura sartu eta kriseilu eskas eta nekatu bat pizten. Oriolek alde banatara begiratu zuen. Ezein soldadu-taldek ez goardia zibilekorik ez zuen plaza erasoan hartu. Eskuak, pixka bat dardartiak, behatu eta Placeta de la Font iturriko ur-xirripan busti zituen. Venturak, Marcó teniente bihurturik, aditzera eman zion, Gabonak arte kontakturik ez. Eta orduan zergatik eman didazu helbidea? Edukitzeko eskubidea daukazulako. Abuztuaren azken aldian diziplina apurtu zuen, abuztuaren azken aldia ez baita Gabona. Baina inori ezin zaio bete ezin duena exijitu.

Banku batean eseri zen. Ibiltariren bat edo beste gauaren geldotasuna noizbehinka apurtzen hasia zen eta zerura begiratuz gero goizaldearen arrastoak ikusi ahal izango zituen. Hiru zenbakia, ate utzi samarra eta iluna eraikin aski zaharrerako, lau pisutakoa. Han, pisu haietako batean, Rosa eta bere alaba, alegia zu, ni irakurtzen ari zarena, bizi ziren. Ordu arrazonagarria itxaron beharra neukan deitu eta esateko, Rosa, maitea, ez naiz zuk pentsatzen duzuna: malapartatu bat naiz beste emakume batekin maitemintzen ari naizelako, bai, baina ez faxista bat. Koldarra naiz, bai, beldur handia daukadalako; baina ez naiz doilorra, ez dut merezi zure mespretxua zeren zuri esker eta Venturetari esker makikoa bainaiz, heriotza-arriskuan nago, baina esaten ari natzaizkizun gauzak segurtasun-arazo batengatik ezin dizkizut esan, eta desobeditzen ari naiz, niretzako oso gogorra baita zure gorrotopean bizitzea, nire alabak mespretxatuta bizitzea, zeinak soilik hiru hilabate dituen baina jadanik ikasten hasita dagoen aita faxista, haur-erailtzailea, izateagatik lotsa sentitzea zer den. Hori dena azaldu nahi dizut. Hori dena azaldu nahi nion zure amari, nire alabatxo izenik gabea. Eta hotzikara batek zeharkatu zion bizkarra. Ez: tanta bat zen. Gorantz begiratu ez zuen unean zerua estali egin zen, plazatxoaren gainean amorru guztia deskargatzeko presa izan balu bezala maki desobediente haren aurka, zeinak herritik Poblako geltokira ihes egin zuen Pere Serrallacen kamioi gainean, zeina bere semea Seuko seminariora aldi baterako ematea hausnarten ari zen, beste hilobi batzuetarako lapidaz eta sarreretarako harlauza handiz kargatuta, zauritu egin zen izeba bisitatzeko aitzakiarekin, oporrak baliatuz egun batzuetan alde egitekoarekin, eta horregatik berak esan zion Valentí Targari ez, nik ez dut oporretan Torenatik atera nahi. Non egongo zen Torenan baino hobeto? Baina bizitza horrelakoa da eta izeba bisitatu beharra zeukan, ez zedin hil azken aldiz ikusi gabe. Esan ez zuena zen izeba ez zela Bartzelonan bizi baizik Feixesen eta, hirurogeita hamasei urte zauriz beteta izan arren, burdinazko osasun

txarra zeukan. Euria hasita zegoen. Tanta potoloak, tartekatuak, lurraren kontra jo eta nire besoetan beldurrez hil zen Montarditeko nekazari gajoaren odola bezala lehertzen zirelarik. Tabernako kriseilu eskasa ikusi eta ez zuen bi aldiz pentsatu.

—Zer izango da?

—Kafea eta ttanttak.

Marmolezko mahai pitzatu eta zikin bat seinalatu zuen, bertan jesartzeko baimena eskatuz-edo. Tabernariak keinu egin zion buruarekin, aurrera adieraziz. Oriol halako une batean eseri zen non euri-tantak bakarkakoa izateari utzi eta xirripa etengabe, kezkagarri, etengabe, zaratatsu, jarraikorra bihurtzen ziren, gauza guztien eta iturriaren soslaia eta iturriaren alboan izandako beldurrak bustiz. Minutu baten buruan, hiru zenbakiko fatxada ikusten uzten ez zion erauntsi bat zen zaparrada

—Izorra hadi orain –esan zuen, haserre, sartu berri zen gizon batek–. Duela une bat ilargia ere ikusten zen. –Eta zakur batek bezala astindu zuen ura gainetik.

Zaparrada ez izatera, ez zen ohartuko. Gizon grisak itxitako olana baten pean makurtu eta estoikoki jasotzen zuen euria. Kalearen alde hartan, plazara sartzeko puntuan, taberna egoki ikusi nahi zuena egon zitekeen toki bakarra zen. Lehenik, beste babesaren bat ez topatzeak eta busti-busti eginda geratzen tematzeak harritu zuen. Konturatu zen arte.

Kafea ttanttarekin hartu zuen, urduritsuna ez erakusten saiatuz. Gutxienez han lehor zegoen, tabernako aire ozpindua arnastuz tabako zaharminduaren ke zaharrean nahastuta eta mahaiko marmol zaharrean bermatu zituen eskuak, Sarrallacek laster beretzat egingo zuen lapidaren kolore berbereko marmola bera, betiko gogoratu behar zen hura finkatzeko, alegia, Jainkoaren, Patriaren, Francoren eta halako denaren alde hildako bat zela. Beste tragoxka bero bat. Tabernan, lauzpabost bezero goiztiar eta bera. Eta kanpoan, kalean, haren atzetik zebilena, bakarrik euriarekin, inori ez baitzitzaion otutzen bizkar gainean halako erauntsiarekin etxetik ateratzea.

Liburua poltsikotik atera eta irakurtzeko plantak egiteko prestatu zen Oriol, begi batekin bera zelatatzen zuena zelatatuz, eta bestearekin, adi zegoen Placeta de la Fonteko hiru zenbakitik zu, zure amaren besoetan, atera eta ostera betiko galdu ez zintezten.

Nor ote daukat nire atzetik. Tabernako bezeroak behatu zituen: ez ziren jarraitzaileak eta ez zirudien jarraituak zirenik. Jarraitua izateren itxura al zekuan berak? Edalontziaren edukia amaitu eta mihia klaskatu zuen. Euria gutxitzen ari zen.

—Beste kafe bat ttanttekin –esan zuen, begiak espiarengandik kendu gabe. Hiru zenbakidun atea ireki eta adats griseko gizon bat atera zen, besazpian otarte bat zeukalarik, egunari hasiera emateko prest, tabernako bezeroak bezalatsu, zeinak, euria gelditzen zela konturaturik, alde egiten hasiak ziren, eguneko lehen zigarroa kafe ondo kargatuarekin eztul egin ondoren. Hodeiak hodei, argia ilunpeari partida irabazten zebilen eta, gutxika-gutxika, plazara ematen zuten kaleak, joan-etorrian eta jarrera pixka bat garaituarekin, zuri-beltzean, denak arnasarik gabe utzi zituen gerra ondoko goiz bateko lehen orduko jende mesfidatiz zipriztintzen ziren. Ezezagun bat zen espia. Uniforme falangistatik soilik bibote fina eta begirada burgoia baino ez zen geratzen, horixe baitzen ezkutuka ibiltzeko bere manera. Ez zen armada. Falangistak ziren.

Orduantxe ikusi zuen. Besoetan pakete batekin irteten ari zen. Ez! Bere alabarekin besoetan! Brusa fin batekin atera zen Rosa kalera. Ez zuen hotzik egiten, baina bere alaba, eskuko

otarretxo baten barruan, aski babestuta zegoen. Nora zihoazen han goiz? Bera, itxaroten, denbora egiteko prest zegoelarik, eta zer esango zuen entseatuz, nola esango zion, nola egingo zuen hura konbentzitzeko, justua baldin bazen hura dena esan eta gero Placeta de la Fonten geratzera behartzea, bera mendira bizitza jokatzera itzultzen zen bitartean. Eta justuago bazen ezer ez esatea? Eta bidaia alferrik egin izan bazuen?

Ostera galdetu zion bere buruari nolatan irten zen hain goiz. Orduan, Rosak eztul egin eta Oriol altxatu egin zen, plaza zeharkatu eta harengana joateko prest. Orduan konturatu zen gizon bustiari beste bat gehitu zitzaiola, eta biak beragana begira zeudela eta esaten zutela ez dakit zer, eta ulertu nuen hobe zela zuek ez nahastea, ez zu ez zure ama, errairik gabeko jendea baitzen. Horregatik Oriol Fontellesek ostera eseri eta ia ez zuen ikusterik izan nola Rosa pasatzen zen, serio, tabernaren aurretik, bere etorkizuna besoetan, begiak estali egin baitzitzaizkion malko bakar eta lodiarekin. Oriolek soilik mantatxo zuri bat bereizi zuen, saltxitxa diminutuak bezalako atzamartxoak, bere alabaren eskua, sekretua gordetzeko beste arrazoietako bat. Oriolek ez zekien, lehenengoa ez ezik esku hura ikusiko zuen azken aldia zela hura. Baina berak ezetz pentsatu zuen, non bizi ziren jakinik, gutxi gorabehera hamabost egun ostera saiatuko zela.

Bost minuturen bueltan tabernatik irten eta frogatu zuen atzetik zeukala bikote hura. Arima zauritua daukala ikusarazi eta predatzaileak bere andrazkoen habiatik urruntzen dituen larretxoria bezala sentitu zen.

—Zergatik jarraiarazi didazu?

—Zer egin zenuen tranbia hartu eta gero?

—Galdeketa bat al da? Zerbaiten susmagarria al naiz?

Gutxien-gutxienez susmagarri, zuretzat nahi duzun baina oso urrun geratzen zaizun emakume batekin txortan egiteagatik; susmagarri, Eliot izateagatik, susmagarri ez dakit zer den operazio handia makientzat prestatzeagatik. A, bai: eta susmagarri punteria txarra izateagatik bala bat garondoan sartu nahi izan nizunean Estació de Vilanoba jatetxean. Eta hainbat gauza uzten ditut.

Valentí Targak tragoxka jo eta kikara mahai gainean utzi zuen delikatuki.

—Zer egin zenuen tranbia hartu zenuenan?

—Putetara joan. Xehetasun gehiago nahi?

Valentík ez zion begiratu eta Oriol aztoratu egin zen. Zergatik distantzia hura. Zer aurkitu du.

—Putetara joan nintzen –insistitu zuen–. Zure gizonek ez dakite inor jarraitzen. Zakur txarrak dira. Trebatu egin beharko dituzu.

Begietara so egin zion. Faroaren heriotzaz geroztik ikasi zuen Oriolek Valentíri begietara so egiten: aurkitu zuen hark ez ziola jarraian bost segundo baino gehiago eusten, bizitza zamagarri balitzaio bezala.

—Min handia ematen dit nitaz ez fidatzeak. Nire izeba bisitatzera joan nahi nuen.

Marések anis-edalontziak ekarri zizkien eta Valentík hura urrutiratu zedin itxaron zuen, hotzikara sorrarazi zion tonu izoztuan botatzeko, zure izeba ez da Bartzelonan bizi. Feixesen bizi da. –Eta lehen tragoxkarekin–: Zertara joan zara Bartzelonara?

—Nik ez... Ezer ez. Putetara.

—Ez da Bartzelonaraino iritsi beharrik larrua jotzeko. Badakizu Elisenda anderea ere Bartzelonan zegoela?

—Nor?

—Elisenda anderea.

—A.

—Ikusi al zenuen?

—Barkatu?

—Ikusi al zenuen, Bartzelonatik.

—Eta nola nahi duzu... Entzun, Bartzelona oso handia da eta...

—Zuk esan elkar ikusi al zenuten.

Valentí Targa jeloskor dago Elisendarekin.

—Nik ez... –Isildu egin zen, baina bat-batean lehertuz–: Eta zuk zer egingo duzu?

Valentí Targak edalontzia hustu eta marmolaren kontra kolparazi zuen. Ahots erlatsarekin, eta begiratu gabe, esan zuen, jabetzen banaiz haren inguruka zabiltzala, hil egingo zaitut.

—Ze eskubide daukazu andere horrekin? –kontraerasoan, zuhurtziagabezia-dosi handiarekin.

—Munduko eskubide osoa.

—Uste dut bera ez dela iritzi berekoa.

—A, beraz, elkar ikusi zenuten.

Ikus dezagun. Makiengandik ezkutatu beharra daukat nire emaztea eta oraindik ezagutzen ez dudan baina eskutxo oso moñoñoa, beti agur esaten dabilela dirudiena, daukan nire alaba ikusteko; espiarena egiten dabiltzan falangista batzuk desorientatu behar ditut, eta zu arriskuan ez jartzeko, alabatxo, nire emaztearekin hitz egin eta zuri musu emateari, eskutxoa hartu eta, gutxienez behin nire bizitzan, txalo pin txalo, txalo txin abesteari uko egiten diot; gau eta egun disimulatu behar dut Targaren falangista-taldearen aurrean Komandantzia Gorenak eskatu didan lana egiteko; isildu beharra daukat haurrekin nagoenean, beti pentsatu behar baitute nik soilik eskolako ganbaran iheslariak edo borrokalariak ezkutzaten ez dituen maisu bat naizela; Valentí Targaren aurrean disimulatu beharra daukat susmatu ez dezan beldurraren bidetik dabilen paseko jendea dagoela eskolan atsedena hartzen eta ni naizela ostalaria; Venturatar emakumeengandik ezkutatu beharra daukat, gorroto bainaute, eta mundu guztiarengandik berebiziko andere batekin elkartzeko, zeina mundu guztiarengandik ezkutatzen den hura ere ni ikusi ahal izateko, esku bat masailean paratu, begi haiekin begiratu eta esateko, uste dut asko maite zaitudala, Oriol, eta momentuz dena da ezinezkoa zuretzat eta niretzat, baina soluzioa aurkituko dut, beti amaitzen baitut gauzen konponketa aurkitzen. Nigandik ezkutatu beharra daukat oso koldarra izan naizelako. Eta orain Targa malapartatu ergel deuseza jeloskor dago, susmatzen duelako Elisendak eta biok ezkutuan elkar ikusten dugula. Eta okerrena da arrazoi daukala. Ezkutuan elkar ikusten dugu eta hura zerua da eta ez

diot uko egin gura. Badakit ez zaidala komeni, min hartuko dudala, baina emakume zoragarria da. Jainkoarren. Ihes egin nahi dut. Rosa, lagundu.

—Atsegin izango nuke, alkate jauna –esan zun oharrak zeuzkan orria altxatuz, brindisa paperarekin egitera balihoa bezala–, irakasleen ahalegina dozentzia eskaintzen dugun herriarekiko eskerronaren adierazle bezala uler dezazun, non ikasten dugun eta gure ikasleei irakasten dizkiegun protagonista izatea dagokigun gizarte global eta teknologikoaren kultura-aniztasunaren abantailak, eta non den-denei iarakasten diegun mestizaia kulturala irekitasun-prozesu mental bat bezala zeharkakotasunean maitatzen, oso aberasgarria...

Jordi, zein patetiko ikusten zaitudan: zuri atsegin zaizuna da emakume-nahasketa, utzi kontu zaharrak...

—...eta baita ere, zergatik ez?, eskatzen dizuet galde diezaiezuela zuen buruei beste aldi ez hain zoriontsuko gure kideekiko omenaldi gisara... Den-denak, gizon zein emazte, irakaskuntza den motore sozial berberaren parte dira.

Ba al ziren aldi ez hain zoriontsuak? Inoiz bizi izan al naiz hainbeste atsekaberekin bihotzean? Ez naiz gai zirkulutik atera, aurrez aurre paratu eta esateko, Jordi, utzi diskurtsoak egiteari eta pentsa ezazu pixka bat: egon egon dira aro zoriontsuagoak, gogoratzen al dituzu?, ondraduak ginela uste genuenean; baina batik bat uste genuenean gu beti izango ginela ondradu, bai ala ez, erantzun, bai ala ez?

Mende erdiko bizitza eskolan (1940-2002) izeneko erakusketaren inaugurazioan, gela balioanitzekoan bildutako txalo protokolarioek esnatu zuten. Erakusketa-hilabetea, garizuma arte, kolaboratu zuten eskualdeko maisuen bisitak eta guzti. Alkateak inauguratutzat eman zuen erakusketa eta mundu guztia oliba beteak eta bortsako patatak, fanta pixka batez bustita, jaten hasi zen. Joanak, beti adi, buila baliatu zuen oraindik ez zeuden tokietan itsasgarriak ipintzeko.

Jordi, Maitek lagundurik, Joanarengana joan zen, irribarretsu. Tinak, Jordiren mugimenduei so egin nahi ez zuelarik, leialki jarraitu zien, metro batzuk atzerago, freskagarri bat edaten zuen plantak eginez. Ezetz esan zion patatak eskaintzen zizkion kide bati; errefusa-keinu graziosoa egin zion, esan nahi zuena, egun gutxi batzuk dira ohartu naizela nire senarrak engainatzen nauela eta ez nago patata frijituetarako, atsekabezko estalki bat baitaukat urdailean. Eta ez dizkizut gauza gehiago azalduko negarrez hasiko zinelako. Idazkariaren aurrean zegoen jada Jordi.

—Zorionak –esan zuen, oliba bat atzamarretan–. Bikain geratu da.

—Beraz –erantzun zuen Joanak lehor–, gusturago hartuko nukeen esku lagungarri bat azken egunotan orain zorionak baino. –Maiteri–: Katalogoa oraindik egin gabe dago.

—Baina inauguratu behar genuen egunean inauguratu dugu.

Tinak ikusi zuen nola Joanak, nabarmen gogaituta, Ferrera ibarreko eskola batean mirariki osorik aurkitutako bost igeltso-barra modeloen jatorria azaltzen zuten itsasgarriak kokatzen amaitzen zuen, eta nola gero idazkaritzara bidean desagertzen zen, beti zeukalako egiteko zerbait. Jordi eta Maite pixka bat moztuta geratu ziren. Bi-biak, disimulatzeko gogoz. Tina bikoeta behatu eta Aineteko ostatuaren aurrean anorakaz eta galtzerdiz imajinatzen saiatu zen. Maite putakumea izan zitekeen? Ez zegoen batere seguru, baina izan zitekeen. Bai. Izan zitekeen. Jakina baietz. Zuzendari bezala mugitzeko askatasun handia dauka. Jakina baietz.

Ia-ia kontrako eztarritik joan zitzaion bikote adulteroa berarengana zetorrela ikusi zuenean, justu halako kide hark eskaintzen zion jakia berriro errefusatzen ari zelarik, izan ere ikusten zenez ondo goxatuta edukitzeko betebeharra inposatu zion bere buruari, konturatu gabe hain zuzen, atsekabeak ez ezik, soberan zeuzkala kilotxo batzuk. Maite traidoreak, aire kezkatuz:

—Ba al dakizu zergatik dagoen horrela Joana?

Esateko gogoa etorri zitzaion, ni naiz horrela eta okerrago egon behar duena, zeren zuek biok nire morala zulatzen ari zareten bitartean, ez daukat inor hari buruz mintzazteko eta txirbil bihurtuko nauzue. Zu baldin bazara, Maite. Baina soilik esan zuen, ez dakit, zer dakit nik, urduritasuna suposatzen dut. Lan handia egin al du gaur?

—Denok egin dugu egin behar zena –defendatu zen Maite.

Tinak ez zuen ulertu, Jordik keinu batekin desenkusak eskatu eta aurpegi distiratsuz nola alde egiten zuen begira baitzegoen. Jordi benetako maitalearekin nola elkartzen zen ikustera itzuli zen. Baina ikusi zuen Miquel Darderekin ika-mikan zegoela. Maite: izan zaitez ostera zu. Berak eta Maitek irribarre egin zuten Darderen presentziagatik. Mehe harilkatu behar bazuen, bost kilotxo ziren, onartzea kosta egiten bazitzaion ere. Une batez, Tina esateko zorian egon zen, Maite zergatik egiten didazu hau? Baina garaiz erreprimitu zen, Darderengana begiratu, urrutitik agurtu, hark erantzun egin zion agurrari, urrutitik baita ere eta, menderatu ezinik, entzun zen esaten, Maite, zergatik egiten didazu hau?

Maite, urrutiratzen ari zelarik, gelditu, ahoa ireki zuen; maisu guztien berriketen buila desagertu zen. Tina Maiteren aurka zen, ulertzea zen zergatik gertatzen zen ondradu mantendu izan bagina sekula gertatuko ez zena. Segundo batzuen buruan.

—Egiten ari garela zer?

—A, tira, bada. Gainera…

—Zertaz ari zara?

—Ezer ez, ezer ez, ez dut deus esan. –Eta modurik lehorrenean–: Barkatu.

Maite bakarrik utzi eta pentsatu zuen hain zegoela denetatik mototseraino, une haietan soilik Zhivago doktorearekin egongo zen gustura.

Baina gela handira itzuli eta bere argazki batzuk, akatsak eta guzti, distiraz jasotzen zituen horma-irudia aztertu zuen, adibidez Torenako eskolakoa haren eraispen-egunaren aurrean, non, mapa erraldoi batean, materiala hartu zeneko eskolak margotuta zeuden, osoki bat zetozenak Marcó tenientearen taldearen lehentasunezko ekintza-eremuarekin, Pirinioetako herrietan jaiotako gizon-taldea, salbuespenik gabe mendian jaiotako gizonak denak eta, azken irakurketatik ondorioztatu ahal izan zuenez, Tolosatik isuritako jarraibideak alboratzen zituena.

Gogorik ez zeukan arren, oliba bat hartu zuen murtxikatzeko eta ingurura begiratu zuen. Maisu batek alkateari auskalo zer material aurkitzeko egin behar izan zituzten balentrietako batzuk azaltzen zizkion eta alkateak aharrausi bat estaltzen zuen. Paper tolestu batzuekin hurbildu zitzaion Juana.

—Interesatzen zaizu hau, ez da?

Tinak gainetik begiratu zituen: garaiko egunkarien ebakinak.

—Nondik atera dituzu?

—Sorteko eskola zaharrekoak. Antza denez maisu batek makiari buruz esaten ziren gauza eskasak batzen zituen.

—Ba al dakizu nor zen? –Ebakinak irrikaz begiratuz.

—Ez. –Eta oso eten luze baten ondoren–: Zergatik interes hau... gerrari buruz?

—Makiko heroia izan zen maisu bat eskualdeko faxismoaren gotorleku bezala pasa delako historiara. Egia berrezartzea gustatulo litzaidake...

—Eta nori interesatu ahal zaio hori?

—Memoriari. –Begiak apaldu zituen, esandakoak solemneegia ematen zuela iruditu baitzitzaion–: Haren familiari. Niri.

—Ezagutzen al duzu haren alaba?

—Ez. Ez eta bizirik dagoen ere.

—Denbora asko joan da.

Nola esan ahal zion hotzikara ematen ziola pentsatzea jendea ez zela ematen zuena, Oriol Fontelles adibidez, edo Jordi. Edo errazagoa egiten ziola Fontellesekin hitz egitea Jordirekin hitz egitea baino. Koldarra zelako ari zen Orioli buruz lanketan. Zenbat koldar hain espazio laburrean, Jainkoarren. Azalduko al dizkiot gauzak Joanari? Hitz egingo al diot Jordiri buruz? Medikuari buruz? Arnauri buruz.

—Sakonean nigatik egiten dudala suposatzen dut –esan zuen ondorio bezala.

Joanak begietara so egiten zion. Tina ohartu zen eskuak dardarka zeuzkala eta jaitsi egin zituen, ebakinak hartuta Joana konturatu ez zedin.

—Zer dakizue Arnauri buruz?

—Ezer ez. Dioela oso zoriontsu dela.

—Ez al zarete ikustera joan?

—Ez digute uzten. Tarte bat pasa behar da. Baina iruditzen zait bide zuzenetik joko dudala.

Bietako inork ez zuen deus esan. Pixka bat deseroso zeuden. Joanak besoa estutu zion, elkar ikusiko dugu adieraziz-edo, eta Tina bakarrik geratu zen Arnauri buruzko etsipenarekin, nire semea, aukeratzera sekula behartu ez zezaten nik borrokatu dudan bidea libreki aukeratzen duena. Nire semea, beste bizitza bat. Oriol Fontellesen alaba bezala, bere aita faxista bat dela pentsatuz bizi dena, eta ez da egia.

Ebakinak begiratu zituen. Bizpahiru pasa zituen. Oso ondo egindako hiru argazkiko serie bat, piska bat horailduak, Sant Eloi edo agian Plaza Majorrekoak, monumentu bat zeinaren inskripzioko letrak ez ziren ondo igartzen. Tina argirantz hurbildu zen xehetasunak hobeto ikusteko. Lehen argazkiaren oinak adierazten zuen mila bederatziehun eta berrogeita lauan, txikitu zuen atentatua jaso baino pixka bat lehenago, erorien alde inauguratutako monumentu landakoa eta indartsua zela. Exaktoki, argazkia berrogeita hamasei urte, bost hilabete eta zortzi egun lehenago hartua izan zen, eta monumentuaren atzean langile bat eta haur bat argazki-eremutik landa zeuden, haurra, muturtuta, harriari begira. Euria egiten zuen argazki hartan. Hondoan bikote gazte bat, gerritik oratuta, behar bada musukatzen. Gizon batzuek zutik, amerikana zuriarekin, Orkesta Plateriako musikariek gogora ekarri zizkiotenak, monumentuari begiratu eta adituarenak ziruditen iruzkin batzuk egiten zituzten. Eta jende

gehiago handik, monumentuari begiratuz, agian argazkilariari begiratuz (Moliner etxeko Peret). Argazkilariari oharkabean joandako xehetasunez betetako argazki bat zen, argi baitzegoen instantanearen objektua monumentua zela. Bigarren instantanea finkatzeko unean, monumentuaren inguruan jenderik gabe, hiru segundo falta ziren argazkilaria hil zuen bonbak eztanda egiteko. Makiak hil zuen Moliner etxeko Peret, munduan botua ematen zenean botua beti Esquerrari eman ziona.

Hirugarren argazki batean, egitura oso ezberdinekoa bera, seguru aski beste esku batek egina, eztandaren ondorengo txikizioa azaltzen zen eta aire gogorreko gizon bat, patria txikitzen diguten komunista gorri eta separatisten kontra suminduta, jendea korrika eta agurmariaka zihoalarik, hainbeste, hainbeste gerra zela-eta izututa. Eta leherkarian erabilitako bolboraren erresaka-usaina, eta monumentuaren zati handiena, bi urratsera. Eta korrika jaitsiz, oso gizon lausoa, desenfokaturik, pentsatuz zihoana, izenik gabeko nire alaba maitea, zein mundutan jarri zaitugun.

Argazki gehiago berbegiratu zituen Tinak. Material ona zen. Ez zeukan zerikusirik egiten zebilen liburuarekin, baina bai Oriolekin. Eskerrik asko, Joana, benetan, esan zuen barrutik, idazkaritzari so eginez.

Udaberriko zerua, garbia, intentsoa, distiratsua, izar zorrotzak, Jaume Serrallaci azalduz beren argizko mezua hain zela antigoalekoa eta urruna, ez zegoen ulertzeko modurik. Baina Serrallac ez zegoen izarren oihuetarako. Eme letra zirudien konstelazio hari begiratu zion, jakin gabe Kasiopea izan zela bere harrokeriagatik familiako zorigaitzaren iturria, aldarrikatu zuenean bere alaba Andromeda nereidak baino ederragoa zela. Nereidak baino gehiago, hain zuzen! Tamainako ausardia! Eta orain zeru izoztuan estanpatuta zegoen, mugitu ezinik, Zefeu bere senarraren alboan, eta Andromedaren eta Perseo bere maitale salbatzailearekin. Hainbeste pasio, hainbeste zigor, hainbat destino labanaz moztuta Serrallacen buru gainean. Baina bera zeruari so zegoen eta lasai erretzen zuen azken zigarroa, burua kamioiaren konponketak sortutako zuloak estaltzeko bigarren kreditua eskatzeko modu putarik onenean ipinita. Hotzikara sentitu eta leporaino igo zuen jertsei lodiaren kremailera.

Plazako txoko hartako bonbila anemikoa itzalita zegoen, egun urrun haietan bezala, non, bera haur zelarik, makien partidek edo pakete izutuek, gizon, emakume, beldurrezko begiko umeek, trentza izoztuek, iheslariaren dardar, eskolako bide klandestinoa osatu eta atseden hartzen zuten han ordu batzuk beren ziurgabetasun-ezarako periploan. Serrallac ez zen sekula jakitera iritsi. Bera, ezkerreko pupitretik, hormaren kontra zegoenetik, amets egiten laguntzen zizkioten mapak begiratu eta bere burua imajinatzen zuen Amazonasen gora arraunean, berdez inguratutako zinta urdinean zehar, eta zonalde arre eta zurira iritsita, Amazonaseko iturrietara, oihu hain sendoa eginez, Amerika osoan, Beringo mehargunetik Suaren Lurrerarino, entzungo zutena.

—Esan, Jaumet.

—Ez, izan ere... Amazonasek zorabiatu egiten nau...

—Zergatik, esan.

—Ez, zenbat aldiz den Pamano. Edo zenbat aldiz Noguera.

Oriolek Jaume Serrallacen begi urdinei begiratzen zien haien egia bilatuz. Agian beti hausnartzen zegoen haur bakarra zen: bakarra beste tokiren batean eta beste uneren batean gauza handiak ikasten amaituo zuena; baina Torenan Jaumetek, bere aitak burutazioren bat ez izatera, sega, belarra, behia, ardia ikasiko zuen, eta zorte pixka batekin, gurdiko abereen hazkundea, indarra eman eta etorkizun handia daukana, orain asto eta mando guztiak armadak errekisatuta daudenean. Edo behar bada lapidak eta harlauzak egiten geratuko zen harrietako Serrallac bere aitarekin.

—Amazonas... Pamano baino mila aldiz handiagoa da.

—Ez. –Mirestuta, amore emanda, Jaumet Serrallac.

—Bai.

Arratsalde hotz osoan Jaumetek ez zuen deus gehiago esan mila pamano batera imajinatzen saiatzen zelako eta Assuako bailara guztia itsasoaren zabalera legendarioa bezain ezinezko erreka iruditzen zitzaion. Halako gauzetan amesten ari zen, bere buru gainean, ganbaran, bi neskato txirikordadunak beldurra isilarazten saiatzen ziren bitartean ezein eskola-ume inozo etxera joan ez zedin, esanaz, eskolako goiko aldeko etxean arratoiek eta xaguek begiak beldurrez betetako eta txirikorda horaileko neskatoek bezala dominstiku egiten dutela.

Serrallac ez zen sekula jakitera iritsi, munduko mapak amestu ez ezik bere aitari harmailuarekin harriak lantzen laguntzen hasia baitzen eta Ventureta miresten zuen, hil aurretik, gai zelako Coma Atarako joan-etorria hiru ordu laurden doitan egiteko. Baina orain bonbila itzalita zegoen, ez ezein maisu enboskatuk komeni zenean askatzen zuelako, baizik Pórtules inkonpetente bat delako soldata ziur bat eduki ez ezik, lan gutxi daukalako, gaizki egin eta inor ez delako kexatzen. Inbidia zion funtzionario-soldata zeukalako eta aldiz berak aieneka bizi beharra zeukalako, kamioiaren letrak oraindik ordaindu gabe eta espeka-ardatza papur eginda Pujalteko bide infernukoan hainbeste kargarekin igotzen tematzeagatik.

Gravat etxeko atea ireki zen orduan eta bera, zigarrokina lurrera bota berri, geldi geratu zen etxaurreko koxkan, ilunpeak estalita, behatuz nola figura femenino bat kalera ateratzen zen, eskuetan zerbait zuela. Elisenda anderea. Elisenda anderea arropa-multzo bat eskuetan. Hormaren kontra zegoen putzu batera bota zuen. Arropak txof egin zuen, eta geldi geratu zen, infinituki nekatuta bailegoen, basaz zikintzen. Elisenda andereak sartu eta atea itxi zuen eta Jaume Serrallacek esan zuen hobe zela bilorik ez mugitzea oraindik ez zelako dena amaitu. Jainkoek bere pentsamenduei jarraituko balie bezala, Gravat etxea ostera ireki eta figura zuri bat atera zen. Gizon batek, biluzi eta oin hutsik, Torenako apirilaren azken gauetako hotza hartuz, birao bat ito zuen, arropa zurrustan jaso eta kaltzontziloak ipintzen saiatu zen, lokatzak ilunduta, eta amorruz bilatzen zuen, arroparen artean bilatzen zuen, eta orduan ostera ireki zen atea eta beso kementsu batek pare bat zapata bota zituen plaza erdira, zarata ironikoki hutsa atera zutenak, eta ostera itxi zuen atea, eta gizon biluzia are haserreago agertu arren, haien bila atera zen. Aurpegia ikusi zion orduan izar mitikoen argitan: pistetan harroxkoarena egiten ibili ohi zen tontolapiko hura zen, Bartzelonako neska gaztetxoekin hainbeste arrakasta daukala dionea. Txoriburua eta Elisenda anderea? Ostia. Eta Gravat etxean. Jainkoaren ostia. Ia-ia konstelazio bat bezala, Elisenda andere urruna eta eguzkitako betaurrekoen harroxkoa.

Jaume Serrallac bere etxe bereko inskripzio bilakatu zen, gizon hark bere presentzia aurki zezan ekiditeko. Eta haserretu egin zen, izan ere norbaitek zerbait ezkutatzeko izatekotan monitore alu hark izango zuen eta ez berak bere etxeko atariko koxkan azken zupada egiten zegoelarik. Hala eta guztiz ere, ez zuen bilorik ere mugitu, urteak baitziren Torenan mundu guztiak ikasi zuela Gravat etxeko jendearekin hobeto arazorik ez izatea. Monitorea eta Elisenda anderea. Gogorra. Elisenda anderea, udalerri erdia erosi eta esaten zutenez prezio abantailatsuan birsaldu zuen eme zuria, eta beti apaizen, kanonigoen eta Seuko gotzainaren ondoan dagoena, eta hara, eskiatzaile batekin azpiak aireztatzen.

—Ez dut sinisten.

—Nire begi hauekin ikusi dut. Larru gorritan, plaza erdian.

—Ezinezkoa da. Vilabrú anderea...

—Vilabrú andereak hankak dauzka, edozeinek bezala. Eta hankak dauzkanak, hankartekoak ere bai.

Jaume Serrallacen printzipio-deklarazio bat bezalakoa zen Rendé etxean edari lurrintsuaren azken tragoa egiten zuen bitartean aseguruen malapartatuarekin, zeinak erabat ukatzen zuen onartzea espeka-ardatzaren haustura matxura bat zela eta ez aberia bat.

—Oso iturri onetik dakit: haren etxe aurrean bizi den alproja batek ziurtatu dit, lapidak eta harrizko gauzak egiten duen batek.

—Baina ezinezkoa da-eta.

Bada ez da: Elisenda Vilabrú andereak gazteekin jo eta herritik larru gorritan ibilarazten ditu.

—Orgia modura-edo?

—Ez dakit: esan didatena esaten dizut nik. Torenan ere ez naiz egon: nik aseguruak egiten ditut, ez dakit ulertzen didazun.

—Bai, baina diozun hori oso larria da.

—Esan didana justu aurrean bizi da. Beraz…

—Orgiak herrian, delegatu jauna.

—Ez dut sinisten.

—Ikerrarazi ezazu.

—Zu ez zara inor niri zer egin behar dudan esateko. Gorroto duen norbait da hori. Hura andere oso, oso...

—Nik iturri onetik dakidana esan dizut. Oso iturri onetik.

—Delegatu bezala instrukzioa abia dadila eskatzera behartuta sentitzen naiz, jauna.

—Diotena bezain larria baldin bada... –Arkatzarekin kolpe kezkatuak mahai gainean.

—Konbentzituta nago gehiegikeria bat dela. Hondoratu nahi duen norbait. Ikerketan dena argituko da, jauna.

—Segi aurrera. Zuhurtzia, zentzuna, abilezia eta begiramendua, delegatu jauna.

Elisenda anderea atea itxi eta eseri egin zen, une haren ondotik zabalduko ziren zurrumurruak Gravat etxean sartzea eragotzi nahi balitu bezala. Hauteman zuen nola Quiquek birao bat irensten zuen. Eta orduan sentitu zituen lehen kolpeak. Esaten dizudan bezalaxe, galtzak erdi jantzita zapata batekin Gravat etxeko atea jotzen hasi zen, isiltasunaren erdi-erdian eta esaten, ireki ezazu edo damutuko zaizu, eta oihukatzen, eta plazara ematen zuten etxeetan bizpahiru kriseilu piztu baino segundo batzuk lehenago, Elisenda andereak atea ireki, Quique adatsetatik oratu eta sarrarazi egin zuen. Eta ez nuen deus gehiago ikusi, eta hori bertan denbora emanda, baina esaten ari natzaizun bezalaxe izan zen, hil nadila asmatzen banabil.

—Orain entzun iezadazu. –Quiquek artean eskuetan zeramatzan oinetakoak, eta amorruz hastanka zebilen. Andereak, biratu gabe, esan zuen, eskerrik asko, Carmina, itzul zaitezke ohera, dena kontrolatuta dago.

—Izan ere... dei bat daukazu, anderea.

—Ordu hauetan?

—Premiazkoa dela dio.

—Oso ondo, banoa.

—Zer. Zer entzun behar dut. –Oinetakoak janzten ta lokatza alkandoratik kentzen ari zen Quique, amorratuta.

—Ez dut gauzak errepikatzea gustuko. Zutaz eta nitaz deus esaten badiozu inori, hilarazi egingo zaitut. Benetan ari naiz.

—Ui, halako beldurra.

—Zuk egin aproba. Bitartekoak dauzkat egiteko.

—Anderea. Diotela ezen...

—Eskerrik asko, Carmina. –Oraindik biratu gabe–: Esan dut ohera joan zaitezkela.

Quique erabat jantzi zenean, Elisenda andereak ostera atea ireki zuen, eta Quiquek, irten aurretik, tu egin zuen lurrera, inpotente eta begietara so eginez esan zuen, zure seme maitearekin egingo dut. Xehetasun gehiago nahi badituzu, deitu.

Elisenda andereak Qiquerekin zeukan istorioaren atzean itxi zuen atea eta itzulitakoan Carmina ikusi zuen, lo egiteko atorra jantzita, izututa, harrera-gelako atean eta, begiratu gabe, egongelarantz zihoala, esan zuen, Carmina, bihar lehen orduan maleta egin eta etxe honetatik joango zara.

—Baina...

—Hemen goian dirua aurkituko duzu.

—Anderea, baina ni...

Anderea gelan sartuta zegoen ordurako eta tximinia gainean zegoen telefonoa hartzen ari zen.

—Esan.

—Vilabrú anderea.

—Ni naiz.

—Zure osaba.

—Zer da?

Egoitzako nagusiak azaldu zion itxuraz kolpe hura benetakoa zela esan behar izateak min egiten ziola, gizajoak atake bat izan zuela eta erdi paralizaturik zegoela mugitu ezinik eta...

—Zer dio medikuak?

—Arazo larria dela, anderea.

—Oso ondo. Hemendik ordu betera egoitzan izango naiz.

—Ez, ospitalera eraman baitugu eta...

—Esan dut hemendik ordu betera egoitzan izango naizela.

Nahiago izan zuen berak gidatu, bakarrik joan, amorruz negar egin, bakardadean ahul sentitu, barrua askatu, auto barruan garrasi egin Cantóko mendatea igotzen zuen bitartean. Gotzainaren Jauregi ondoko egoitzara iritsita, zain zeukan mosen Llebaria, zurtuta.

—Azken oliadura eman berri diote. Ez du gau hau gainditukо. –Isil-gordeka eraikinari begiratuz–: Ospitalean daukagu ordea...

Osaba Augustek okupatzen zuen gelaraino igo zen Elisenda anderea, etxeko arduradunak jarraituta. Gela barrura iritsita, biratu eta ahots izoztuarekin esan zuen, mosen jauna, une bat bakarrik egon nahi nuke, nire samina errespetatu ahal badidazu.

Gizona atea ixtera presatu zen, apenas ezer ulertu gabe. Elisenda andereak egoera aztertu zuen: ohe oraindik desegina, osabaren makulu inutila horman bermatuta, joko matematikoen liburu bat mahai gainean irekita, arkatz zorroztu bat soluzio-orriaren puntua gordez, Kempisa edukiko balu bezala. Lehen tiraderan aurkitu zuen bilatzen zuena: erdi idatzitako eskutitz bat, Seuko gotzainari eta bere fedeagatik hil zen Oriol Fontelles Grau dohatsuaren beatifikazio-kausaren postulatzaile berriari zuzendua, non letra oso zalantzakor baina ulergarrian mosen August jaunak zioen, bi gaitzen artean erabakitzeko disjuntiba ikaragarrian nago eta nire kontzientziak ezin dio eutsi. Edozer eginda ere kondenatuta nago. Isiltzen banaiz, engainu baten konplizea naizelako; mintzatzen banaiz, sekretu sakratua urratzen dudalako. Ahulegia naiz egoera honi aurre egiteko eta horregatik, nire aitortzaileak gomendatuta, aditzera eman nahi dizut, monsiñore agurgarria, arrazoi sakonak dauzkadala sinisteko Oriol Fontelles dohatsuaren beatifikazo-kausak ezin duela aurrera jarraitu. Eta kitto. Eskutitz bat erdi egina, oraindik bukaerako eta hasierako agurrik gabea, baina hartzaileen izenekin. Zalantzaz beteriko zirriborro bat.

Ordu laurdenaren buruan mosen Llebariak atean herabeki jo zuenean, emakumeak, ahots hautsiarekin, esan zuen, aurrera. Eserita zegoen eta begiak xukatzen. Mosen jaunak anderearen saminaren errukia izan eta isildu egin zen.

—Esango al zenidake mesedez nola iristen den ospitalera?

Jadanik kalean, mosen Llebariak andereari oharkizunak eman eta hark autoaren atea ixten zuelarik, burua leihotik atera eta esan zuen, mosen, zuk ba al dakizu nor den nire osabaren aitortzailea?

—Aitortzailea?

Erantzunaren zain zegoen, motorea pizteko puntuan.

—Zergatik jakin nahi duzu?

—Nire osabaren alde egindako guztia eskertzeko.

—Ni naiz aitortzailea.

—Eskerrik asko, mosen jauna. Egun batzuk barru etorriko natzaizu bisitan nire eskerrona erakusteko.

Motorea piztu eta iritsi zenean baino zurtuago utzi zuen egotzitako idazkaria.

Okerrena begirada zen. Zurrunga baino okerragoa, bizkarraren dardara leuna baino okerragoa, gelan arnasten zen berehalako heriotza-sentsazioa baino okerragoa. Begirada. Zuzenean begira zeukan, begiak pixka bat itxita, gorrotatzen balego bezala.

—Ez du inor ezagutzen –ziurtatu zion doktoreak–. Zientziak ezin du besterik egin.

Ezagutzen nau, bai. Niri begira dago eta ni infernura bidaltzen ari da, eta horrek beldur pixka bat ematen du. Baina jakizu xedea ona dela, zu ez zarela inor niri esateko zer egin behar dudan eta nik erabaki dut mundu guztiak jakin behar duela Oriol martiria izan zela eta haren

memoria ohoretu nahi dudala. Zu ez al zinen hasieran berotu, zu eta mosen Bagà? Nik orain ezin dut atzera egin. Erabat ezinezkoa. Munduko ezeren truke ere ez. Gainera, lortuko nuela esan nion Jainkoari. Eta ezin baduzu ulertu nahi, berdin dit: hau dena nire maitearekiko maitasunagatik egiten dut eta zin dagizut azkeneraino iritsiko naizela.

—Osaba, entzuten al didazu?

Ni madarikatzen ari da. Ni ez naiz gaiztoa, osaba; zuk uste duzu gaiztoa naizela, baina nik onerako egiten ditut beti gauzak. Duela hiru egun aitortza egin dut eta garbi nago. Ia. Zu ez zara inor ni epaitzeko, ez zara inor niri horrela begiratzeko.

—Eseri, anderea. Zugan ere pentsatu beharra daukazu.

Ez dut besterik egiten, nigan pentsatu. Osaba, zergatik zara hain gogorra? Ez al duzu ulertzen jadanik ezin dudala atzera egin? Dena dakizula uste duzu eta erdia ere ez dakizu. Ez al duzu ulertzen? Gauzak horrela joan dira eta bizitzak zerbait erakutsi badit da gertatu diren gauzak ezin direla nahien truke aldatu: asumitu egin behar dira. Hori da sendoa izatea. Eta inor baldin badago nire aitaren eta nire nebaren memoria gorde eta nire maiteari justizia egiteagatik epaitu nahi nauena, begira dezala lehenengoz errutik libre ote dagoen, mundu guztiak baitauzka gordetzeko gauzak. Eta ez iezadazu ostera barkamenaz hitz egin. Ez naiz ni barkatu behar dudana. Nire aita eta nire neba dira. Eta nire maitea. Bai, nire maitea, osaba, zer gertatzen da. Zuk ez duzu sekula ulertuko zer den pertsona bat eroki maitatzea. Sekula ez duzu ulertuko hainbat urte joan diren arren, gauero pentsatzen dudala Orioli buruz, gertatu dena eta zuk susmatzen ez duzuna gertatu den arren. Higatuta sentitzen dut arima. Gauero pentsatzen dut hari buruz, osaba. Zuk ez dakizu zer den pasioa, eta zer egiteko gai garen pasioagatik. Ni aberastu egin naiz une batzuk Oriolekin besarkatuta bizi izan naizelako: benetan merezi izan du, osaba. Une klandestino eskas haiek izan ziren nire zerua, iraun zuten bitartean. Egunean aberatsago egiten nauten gainerako erabakiek ez daukate baliorik, osaba. Aldiz, Oriolen memoria gordetzea betiko ohorea izan dezan, garrantzi handikoa da. Edonoren aurka izanda ere. Baita Jainkoaren aurka ere, osaba, eta Jainkoak barka nazala. Eta zin dagit sekula ez dudala katetxo hau eta bere gurutzea kenduko, nire heriotzaraino, osaba August.

—Vilabrú anderea.

—E?

—Mosen August hil da.

Mosen Augusten begirada artean berbera zen: gorrotoz betea, finkoa, begiak erdi irekita, hari begira, gaitz guztien errudun eginik, zein injustu zaren osaba August.

—Itxiko al diezazkiozue begiak?



AUGUST VILABRÚ BRAGULAT

PRESB.

(1878-1971)

JAINKOAREN HITZA MAITE ZUEN

ZIENTZIA MAITE ZUEN

R.I.P

Maite izan zuen Jainkoaren Hitza. Maite izan zuen Zientzia. Anaia eta iloba baten heriotza, Trempeko faitarrek doilorki akabatuak, deitoratu eta mendekuzko irrika bekatuzkoak sentitu zituen. Erroman bizi izan zen exiliatuta eta han ezagutu zuen Massimo Vivaldi zeinak bere *Ordena finituko funtzio osoen espazio bati buruz* liburua idazteko bulztatu zuen. Zalantza serioak sentitu zituen Whitehead eta Russellek aritmetika multzoen teoriaren axiomatikaren gainean antolatzeko izan zuten saioaren aurrean. Baina *Principia Mathematica* irakurri zuenean, haren apostolu sutsu bihurtu zen. Jarraian bi aldiz izan zen Fields dominarako hautagai, nahiz eta Erromatik itzulitakoan ez zen Seutik mugitu non kalonjetza eroso bat zeukan, zeinari esker egun osoan pentsatu ahal zuen bariable errealen funtzioetan. Baina ahula izan zen bere ilobaren aurrean zeina, haren iritziz, erabaki erabat konponezinen bukle batean sartzeko gaitasuna izan zuen naturaren sumin hotza zen. Horixe adierazten zuen Jaume Serrallacek, jakin gabe ere, 1887 eta 1971ren artean grabatu zuen tarteko marratxoak. Nik baino abilezia handiagoa daukazu, aitortu zion aitak, harrietako Perek, jubilazioa orain semearena zen tailerrean pasatzen zuenak, Bakuninen pentsamenduaren laburpen batzuk irakurriz, zeina doktrina bat baino gehiago idealen garaiko oroitzapen bihurtua zen, marmolezko blokeak esku irekiarekin errepasatuz eta zuhurki ziurtatuz gaurko harriak ez direla izan zirenak.

Ziur asko sekula egingo zuen maila handieneko lapida izango zen, mendiko jendeak ez baitu hainbat historia gainean. Gainera, ez zioten prezioari begiratzen, soilik presari. Jaume Serrallacek arratsaldea eta gaua eman behar izan zituen tailerrean bizitzaren eta ametsen laburpen hura Perpetua Titling MT letratan grabatzen, eta prest eduki zuenean beltzez margotu zituen harriaren gris dotoretik bereizteko. Artelan bat. Mosen gajoa, aspalditik hezur-multzoa zena. Eta sekula ez zuen pentsatzeari utzi holako eran, alegia, inoiz ez nukeen imajinatuko Elisenda anderea... Argi dago andere eder eta dotorea dela baina... Ze gogorra, zu. Aldiz Elisenda anderea, bakarrik, Carmina gabe, Gravat etxeko barneko lorategian urduri paseatu eta ez zen beranduago arte erretiratu, Kassiopeak ia itzulera osoa egin eta Andromeda estilizatua Torenaren gainetik pasatu zenean. Ezein momentutan ez zien izarrei so egin ez eta beren asterismoetan gordetzen ziren pasioetan: anderea oso bizirik zegoen bere baitan, durduzatuegia eta hainbat gauza larri zeuzkan egiteke, adibidez osabaren eskutitzak komunetik behera apurtuta botatzea, edo hil urrenaren begiradaren oroitzapenari eustea, Perseok, han goian, izarren herrialdean, Gorgona gainditu zuenean eutsi behar izan zuena baino okerragoa baitzen.

Laugarren zatia

HILETA-ERESIA BORREROARENTZAT

Ongi etorri polizia: Jainkoa naiz

JOHN ALLEM MUHAMMAD

Virginiako frankotiratzailea

Introibo ad altare Dei. Ad Deum qui laetificat iuventutem meam. Adiutorium nostrum in nomine Domini. Deus qui fecit caelum et terram.

Mosen Rellak apenas gogoratzen du latinezko meza eta denbora zein ari doan harritzen du. Agian baziren hogei edo hogeita hamar urte ez zuela meza latinez ematen. Hogeita hamar urte. Jainkoarren. Barkaezina.

Ebanjelioa irakurri baino hagitzez lehenago, gonbidatu berezien bankuen artean paper batzuk zirkulatzen dute, eta batzuek, debotoki gordetzen dituzte patrikan, gero aztertzeko, eta beste batzuek begiratu eta irakurtzen dituzte; orduan begi urduriak altxatzen dituzte, alde banatara behatuz, akatsean harrapatu balituzte bezala.

—Hartu.

Mosen Rellak papera hartzen du. Eguneko zeremonia konplikatuetarako jarraibide berri bat dela pentsatuz destolestu eta irakurtzen du, nosotros miembros de Falange Española y en nombre del pueblo español abogamos y nos pronunciamos por la tan esperada y ansiada canonización del Caudillo de España, el Generalísimo Francisco Franco Bahamonde. Viva Franco, arriba España. Eta posta-kutxa bat atximenduetarako. Hara. Alegia. Suminduta, mosen jaunak papera zimurtu eta lurrera botatzen du, norbaitek ikus dezala saiatuz. Ez ditzagun gauzak nahastu, ez ditzagun gaiak nahastu, zioen lasaitzeko. Eskubiko aldean daukan gizonak makurtu, paper zimurtua jaso, aulkiaren bizkarrean ipini eta lisatu, arduraz tolestu eta, agintekeriaz, mosen jaunari itzultzen dio:

—Hau erori zaizu –garrazki errieta eginez.

Ebanjelioa irakurri eta gero, Errituen Kongregazioko idazkaria aldarera hurbiltzen da, aita santua, abade prestu erroketedun baina kasuilarik gabeko batek eskolkatuta, entzutera jesartzen den bitartean. Errituen Kongregazioko idazkaria latinez mintzo da gaur beatifikatuko direnen bertute heroikoei buruz, eta aita santuaren hitzak solemneki errezitatuz bukatzen du, alegia, tenore praesentium indulgemus ut idem servus Dei beati nomine nuncupetur, eta mosen Rellak, hunkituta, atzamarra altxatu eta Guardans jaunari, zeina ezkerreko aldean jesarrita dagoen, esaten dio: esandakoa kontuan hartuz, utz dezagun Jainkoaren zerbitzari berbera beato izendatua izan dadin. Gutxi gorabehera hori. Eta harrezkeroztik, Oriol Fontelles Doatsua, eskola-maisua, Elizaren martiria, horda komunisten aginduz eraila; primerako soldadu Chrzystoff Fuggs Dohatsua, horda naziek eraila, Karitateko ahizpa Nebemba Wgenga Dohatsua eta Nonaguna Wgenga Doatsua, horda iraultzaile deskontrolatuek erailak eta Koi Kayusato erizain Dohatsua, pirata-horda batek eraila, beato bezala onartuak dira. Elizak, Aita Santu Pontifize Gorenaren bitartez, solemneki aditzera ematen du ezen Jainkoaren Zerbitzari hauek, zeinen bertute heroikoak aldez aurretik kalifikatuak izan diren, betiko ongizatearen jabe direla eta kultua eman ahal zaiela.

Idazkariak horiek esan dituenean, bi laguntzaile altu, oso horail eta garondoa hain garbi izanik mormoiak diruditenek, aldarearen aurreko aldea estaltzen duen izara moduko bat kendu, eta Eliza Katolikoko bost beato berrien bost aurpegien lehen planoko bost argazki ageri dira. Poz

handia ematen duen arraza anitzeko aukera. Eliza unibertsala da baita bere martirietan ere. Bigarrena, soldadu uniformedunaren ondoren, Oriok Fontelles da, ezagutzen den bere argazki bakarrean; dakienak uniforme falangista distiratsuaren lepo eta solaparen aldea igarri ahal du. Amen.

Mosen Rellak papera ostera zimurtu eta lurrera botatzen du. Aldameneko gizonak makurtu, jaso eta ostera lisatzen du. Ordurarte ez zaizkio gogora etortzen ezezagun haren hitzak katedralaren ilunpean. Ahots pixka bat erlastua, nekatua, zioena, Jainkoagan eta Elizan sinesten ez zuen jaun bat egin nahi dute beato. Martiri hil omen zena.

—Hiltzeko modu ederra.

—Ulertzen didazu, mosen jauna. Ez zuen Jainkoagan sinisten, ez zeruan, ez erredenzioan, ez santuen komunioan, ez Eliza Ama Santuaren agintean ere. Ez santuetan ez infernuan.

—Baina zuk zergatik eskatzen didazu iritzia, alaba?

—Eragotzi nahi dudalako.

—Zergatik, zuk ez baduzu gauza hauetan sinisten?

—Aipatutako pertsonak ez duelako bere memoria hainbeste aldatzea merezi.

Isiltasuna. Iluntasuna Seuko nabe bakartian. Iluntasuna mosen jaunaren ariman, ez baitzekien zer pentsatu. Burdinazko sarera begiratu eta dena zen isiltasuna. Hainbeste denbora ezen une batez mosen jaunak uste izan zuen penitente arraro hura desagertu egin zela bere baitan infernuetako pozoi pixka bat injektatu ondoren.

—Nire aholkua da kaka ez mugitzea, alaba –gogoan du esan zuela urtetako isiltasunaren ondoren, ahots lehorrez. Eta orduan bere gaineko batekin kontsultatu eta hark esan zion norbaitek eskatzen badu eragozpenen bat daukanak pauso bat aurrerantz eman dezala, zuk eman, seme.

—Eta inork ez badu eskatzen?

—Orduan, isildu betiko, seme.

—Ez dakizula ostera erori –ohartarazten dio eskubiko gizonak Francoren kanonizazioa exijitzen duen papertxoan beste kolpetxo bat emanez.

Elisenda andereak, lehentasunezko bankuan, geldi, zurbil, burua makurtuta, Gasull abokatuak argazkiena nola azaltzen dion entzuten du. Marcelek eta haren semeak aldian behin erlojuari so egiten diote istorioa ez delako egiatan sekula amaitzen. Mertxek egurrezko aurpegia jartzen du. Gasullek, Elisendaren jarrerarekin kezkatuta, ez dio bijilatzeari uzten une oro. Ez da ausartzen galdetzera, ondo zaude, urteak baitira ohitu dela haren galderei erantzun eta bere sufrikarioa murtxikatzen mugatzera.

Elisendak aurpegi arraroa ipintzen du, negar egiten saiatu baina ez duelako lortzen. Azken gaua dauka gogoan, sorpresa, izua, liburuak aitzakia baldarra bezala, haren begiak niri begira, eta ni, harrituta, durduzatuta, osabari esan behar nion, herriko maisua da, osaba, liburu batzuen bila etorrita. Eta gero, zergatik, zergatik otu zitzaidan begirada hartaz arakatzea, zergatik jakin nahi izan nuen zertaz hitz egin nahi zenidan, eta zorigaiztoz jantzi nuen abrigoa ateratzeko, Oriol, zergatik, elkar hainbeste maite bagenuen? Oroitzapen haien pikor garratza eta guzti, andereak ezin du malkorik isuri. Beato Oriol. Ikusten, Jainko? Eman nizun aditzera, lortuko nuela.

Aldenduago zeuden bankuetan, andere pisudunak malkotan daude, Francori buruzko paperak indar handiagoz hedatzen dira, batzuek marmartzen dute, zenbat santu espainol, ze poza. Denetan indartsuena san Josemaría Escrivá de Balaguer i Albás da. Agian une ona da Isabel la Católica erregina santua aldaretara igotzeko tramiteak egiten hasteko; bai, hori lantzen hasi beharra dago. Urrutiago, hondoan, zutabe baten alboan, mosen Rellak aitortza bat du gogoan eta pentsatzen du orain Assuako bailaran egon nahiko lukeela Pamanoren kantu eternala entzuten.

Moliner etxeko Pereten lapidak zioen, Pedro Moner Carrera (1897-1944) eta Harrietako Pere Serrallacek egin zuen, alferrik saiatuz tristeziak ez zekion barrutik hots egin. Ohartarazi behar nion; ni soilik kezkatuta Jaumet ez zedin handik paseatzen geratu, ez nuen pentsatu ere egin argazki alu hartan. Abisatu egin behar nizun. Peret, alde hemendik, hau granada bat bezala lehertzeko zorian dago-eta, kontuz, ez minik hartu.

San Feliu eliz parrokian, agintariak eskubiko lehen bankuetan zeuden, eta ezkerrekoa Encarnaciórentzat utzi zuten, emakume gajoa, eta Lleidan lan egin eta, handik itzulita, zeremonia osoan harridura-aurpegia gainetik kendu ezinik egon zen semearentzat. Agintarien artean, Sort, Altron, Rialb, Montardit, Enviny, Torena, Llavorsí eta Tírviako alkate jaun eta mugimenduko tokiko buruzagi txik gorenak eta Gobernadore Zibilaren ez etortzeko aitzakia ofiziala, eta eskualdeko maisu guztiak blokean, salbu beren jatorriko herrietan, geografia patrian zehar sakabanatuta, merezitako oporrak gozatzen zeudenak.

Moliner etxeko Peret. Pere Moner Carrera, pentsatzen zuen Oriolek, begirada espresiorik gabea mosen Colomen garondoan finkatuta, zeinak bere sekretuak aldarean ofiziatzen zituen eta bazirudien ez zituela konpartitu nahi.

Sermoian, mosen jaunak, gaztelania fantasiosoan, barbarie komunistaren aurka oihu egin eta bakea urratu nahi diguten bandoleroak aipatu zituen. Ez al daukagu gerratik aski? Ez al dugu nahi gerra hitza gure ahoetatik desagertzea? Ez al daukagu aski min? Bi, hiru, lau segundo isilean eskolan, seminarioan, balego bezala, erantzunaren zain, bai, mosen, aski badugu. Inork ez zuen txintik atera eta mosen jaunak sermoia bukatu zuen ekintza bandalikoak aipatuz, non makiek, ez baitziren existitzen, Gurutzadaren martirien aldeko monumentu bat desegin eta, trukean, Peret eraman zuten, errepublikazalea eta ateoa, zeina herriko agintari frankistek burututako ehorzketa erlijiosoa izaten ari zen, eta barrutik negarrez zegoena haren Encarnació zen, eta zioen, eskerrak ezin duzula hau ikusi, Peret, zeren burua altxatuko bazenu, ostera disgustuz hilko zinateke. Orduan norbaitek Oriolen uniformeko amerikana zuritik tiratu eta maisua itzuli egin zen. Jazinto Mas Elisenda anderearen txoferrak paper bat pasatu zion, eta hark poltsikoan gorde zuen, justu Valentí, Sorteko alkaterekin zerbait komentatzen ari zelarik, erdi itzuli zenean, zelatatu nahi balu bezala. Une hartan, mosen Colom fidelei begira ipini zen, besoak liturgikoki altxatu eta zabaldu zituen esanaz, Dominus vobiscum, eta asanblada osoak alxatu eta erantzun zuen, cumesprintutuo (sic) mosen jauna.

Gau hartan Valentí Targak Udaletxera joanarazi zuen. Arratsaldea Ainet ostatuan pasatu zuen, jadanik hainbat aldiz egin zuen bezala, nardo-usainean bilduta eta sekretua soilik aurpegia ebakitako txoferrarekin konpartituta, eta Elisendak eta berak betiko maitsuna eta pasioa aitortu zioten elkarri. Oriolek esan zion, Dantek dio eguzkiak eta izarrak mugitzen dituen maitasuna dela gurea.

—Zein politta.

—Uste dut zoriontsu naizela.

—Etorriko da hain egoera zaila konpontzerik izango dugun eguna, zin dagizut.

Santigo eta Rosarengandik ezkutatuta biziz, Targarengandik ezkutatuta, Torenatik ezkutatuta, agintari, maki, behi eta mandeulietatik ezkutatuta, izena nola duzun alabarentzako koadernoetatik ezkutatuta, bi-biak hodeietatik hegan, bi-biak bat bestearen parte direla jakinez.

—Tori. Urrezko gurutzetxo bat.

—Oso polita da. Baina nik ez...

—Hik gorde, ni naizela gogora ahal diezaian.

—Ez ditinat gurutzeak behar horretarako... Ei, zatituta zagon.

—Ez. Beste erdia nik daramaat. Ez galdu sekula. Katetxoa sendoa da, ez kezkatu.

Lepoan ipini zion, atletari domina bezala; hark burua jaitsi zuen estimu gisara, gelako horma desmargotuei so egin eta burutatu zitzaion bere zorion infinituaren mugak zirela eta ez zuen nahi izan inoiz edo behin harrapatzen zuen prebentzio sakon hura bere zorion-uneaz jabetu zedin, eta esan zuen, ez dakit, ez dakit, baina ez ditut haren musuak galdu nahi, ezin dut, ez eta haren laztanak, eta haren begi maitagarri hondorik gabeetan murgildu nahi dut, asko sentitzen dut, asko.

—Bukatu ezazu behingoz koadro alu hori edo fusilarazi egingo zaitut.

Oriol behingoz bulegoan sartu zen, isilik. Targa, eskuak aldakeatan, bere erretratua egurrezko astoan kontenplatzen ari zen, ateari bizkar emanda. Oriolek astoarengana joan, turmentin-botila desestali, bi pintzel aski garbi aukeratu, marroia, urdina eta zuria paletan ipini eta mahairantz begiratu zuen. Une hartan, Valentí esertzen ari zen postura egokia hartuz. Artean uniformea kendu gabe zeukan. Orioli begietara so egin eta orduan esan zuen, broma bat zen. Baina irribarrerik gabe esan zuen. Isilik, Valentíri begietara so eginik, Oriolek begiak egin zizkion; saiatu zen hain sorbatz zorrotza zeukan begirada haren urdin izoztua ezartzen. Agian erdiko begi-nini beltzagatik zen. Edo metatzen zekien gorrotoagatik. Oriolek gorrotoan pentsatu zuen, Venturetarengan, Rosarengan, zugan, alabatxo maitea, eta sekula margotu ditudan eta margotuko ditudan begi onenak egin nituen. Bizirik ziruditen. Bizirik zeuden, ikusi beharko zenituzke. Ikusi ahal izango zenituen, nahi izanez gero.

Hondoko horma egiten ordu bete eman ondoren, esan zuen, kitto, amaitu dut. Ez nauzu fusilatu beharko. Valentí Targa arin altxatu zen azken emaitza ikusteko. Segundo batzutan konteplatu zuen bere burua, uzkur-edo. Agian lotsatuta Oriol aldamenean edukitzeagatik, gizon batek ez baitu bere burua ispiluan begiratzen beste gizon baten aurrean. Komentarioa gorde zuen. Uniformearen amerikanatik biletera atera eta mahai gainean utzi zituen bileteak, bat bestearen gainean, Oriol pintzelak garbitu eta bilete-kopuruari ez begiratzen saiatzen zen zelarik.

—Pentsatu dut –ebaki zuen Valentík, isilik–. Sozietate bat eraiki genezakeela zuk eta biok.

Oriol artean mutu, pintzelen garbiketan kontzentratuta.

—Hara, nonbait izorratu zaitu fusilatzearena esateak.

—Zein sozietate? –Orain Oriol mahaira hurbildu eta bilete-sorta hartuz.

—Nik bezeroak bilatu eta zuk erretatuak margotu. Grina pixka bat gehiagorekin, hori bai.

—Oso ideia bikaina da.

—Erdi bana.

Eskerrak heriotza propableak Targaren sozio ekonomiko bihurtzea galaraziko didala. Arrazoi on bat, gustura ala indarrez Marcó tenientarekin erlazionatuta gauden guztiok sartzen garen arriskuen aurrean negar ez egiteko.

Baziren zazpi hilabete Marcel ezkondu zela mila bederatziehun eta hirurogeita hamaikan, Elisenda andereak atondu bezala, eta soilik sei aldiz izan zen infidel Mertxerekin, baina esan beharra dago seietan emakume ezberdinekin, hau da, ez daukala garrantziarik, eta Elisenda andereak Jazinto Masek semearen ezkontzaren egoerari buruz helarazten zizkion oharrak, aldiro zehaztugabeagoak eta saretuagoak, kontsultatzen zituen, eta hasieran pentsatzen zuen, ez dakit zer den hobea, oraindik asaskatzen uztea edo larre motzean lotzea. Baina joaldiaren eta joaldiaren artean Marcelek bere begien hedadura zabaltzen hasi zen eta hala Mertxek nola bizitzak pista beltzaz aparte beste gauza batzuk ere bazirela ikusarazten hasi zitzaizkion. Pista gorriak eta berdeak zeuden eta beste edozein koloretakoak ere bai, pista familiarretako bezeroek asko xahutzen baitute tabernan eta eski txikien alokairuan. Ez duzu nahi izango jendeak bi denboraldien bueltan txiki geratzen diren eski moñoño haiek erostea. Alokairua negozio handia da. Gainera, Marcel Vilabrú i Vilabrú aurkitzen ari zen, aztoratuta, eski-denboraldia ez ezik beste gauza batzuk ere bazirela munduan, eta bizirauten eta batzuetan zoriontsu den jende asko dagoela oin azpian Rossignol on batzuk eduki gabe. Esaterako, eskiatzeko botak ere eduki gabe. Rossignol dioenak Brusport esaten amaituko du, gutxika-gutxika bidea egiten ari baitzen, batik bat jauzilarien mundu itxian. Marcelek, amatxoren opari bezala-edo protestarik gabe lanera sartzeagatik, egonaldi bat egin zuen Helsinkin (bi larrualdi iparretar gogoangarriak Helsinkiko bi balkiria norbegiarrekin, edo dena delakoekin) eta miresteko aukera izan zuen telebista suediarrek, kolorezkoak izan ez ezik, egun santu, labur, ilun, hotz eta hodeitsu osoa tranpolin-jauziak, hondoko eski-probak eta eski alpetarren probak obsesiboki proiektatzen ematen zutela eta bururatu zitzaion Brusport jauzirako eskietan beheko aldean ipini behar zela marka, izan ere egunen batean jende askok telebista ikusi eta ohartuko delako nola eskiatzaileek doan egiten diguten propaganda. Izan ere hemen, Finlandian, norbegiarrak besazpi bakoitzean eski banarekin jaio baitira eta nik lortu nahi dut eski hori Brusport izan dadila. Eta grazia dauka, ezin baitut esan nondik natorren, bestela sudurra zimurtzen dutelako eta diote, Franco skit, eta den-dena oso urrutikoa egiten zaie eta Espainia Italiarekin eta Portugalekin eta Greziarekin nahastera jotzen dute, denak baitira herri pobreak han behean betiereko eguzkitan. Nolako kultura-falta Grezia, Espainia, Portugal eta Italia nahastea. Baina niri bost, kontua da Brusport produktuak saldu nahi dizkiedala norbegiarrei eta pilaka salduko dizkiet, dendan ipinita erdi-prezioan ateratzen baitira. Jorra ditzatela potroak, ondo jorratuta, hainbeste kritika Francori.

Marcel Vilabrú i Vilabrúk ikasi zuen baita ere ezen, ez badira neurri egokiak hartzen, Mertxe haurdun gera daitekeela eta plausta, haurdun geratu zen, ez, ondo merezita baitaukat, baina ez dakit, behar bada goizegi, ez? Eta ikasi zuen eskua dardarka ez edukitzea, erabaki zuenean Palacios, Costa, Riquelme, bi Vilatarrak, Guiteres, Garcia Rialto, Pilarica ez dakit zer, txortaldi ederra daukan hura bai, eta Cándida agurtu behar zirela, hedatze kontrolatuarekin aurrera jarraitu nahi izatekotan. Txortaldi oneko Pilarica, Cándida, García Rialto, Guiteres, bi Vilatarrak, Riquelme, Costa eta Palacios agurtuak izan ziren, eta Magistraturara jo zuten, izan ere Paco Serafínek xaxatu baitzituen eta burua jan zien, baina ez zuten deus atera Marcelek Gasulli azaldu baitzion zer egingo zuen berak etxeko abokatua izatekotan eta Gasull abokatuak berriketa samurra izan zuen, lasaia, probetxugarria bi parteentzat, hirugarren salako magistratuarekin, Marcelino Bretón Coronado jaunarekin. Eta Elisenda andereak isilik, harrituta hartzen zituen Marcelen gaitasunari buruzko oharrak, etsita baitzegoen gehiegi eskatzen ez zuen eta soldata bat zurituko zuen txokotxo bat uzteko bulegoan. Segun eta nola,

asko sentitu zuen bere semea hainbeste gutxietsi izana. Asko sentitu zuen, tira-saia-gaitezen-berriro erako harreman-mota edukitzen. Segurutik, historiaren zama astunegia zelako Elisendaren hain bizkar sendoetarako.

—Amatxo, konfekzio-saila erdira murriztu nahi dut eta bikoitza ekoiztu nahi dut pizgarri eta orduekin. Ez dute kolpe zorririk jotzen.

—Egin uste duzuna, Marcel. Baina inor ohartu gabe.

—Ohartu beharko da. Paco Serafin izango da protestatzen lehena.

—Ez dut gogoratzen nor zen. Zergatik?

—Comisones Obrerasekoa da.

—Adi.

—Inmorala delako botatzen dut. Txortan egin du... –Marcelek zigarroa itzali eta telefonoa belarritik kendu zuen–: Ongi, xehetasunak... aurreztuko dizkizut, amatxo. Lankideek berek defendatu ezinezko kausa bat da. Eta niri ondo arraio etorriko zait. Zorte handia izan dut. Eta primeran etorriko zait.

Marcel, oraindik ez dituzu hogeita hamar egin, eta jadanik nire semea dirudizu.

Marcel Vilabrú i Vilabrúk, gainera, aurkitu zuen munduan, eski-denboraldiaren eta eski-denboraldiaren artean, tenisean, ping-pongean (taula tolestu eder askoak ikusi nituen Danimarkan; Espainian eta Portugalen banatuko ditut), boleibolean, belar-hokeyan, patin-hokeyan, eta suediarren lurraldean izotz-hokeyan jokatu daitekeela, eta izerdia atera eta galzterdiak, zapatilak, belaunetakoak, kamisetak, prakak eta txandalak eta behar den beste izerditu eta gastatu daitezkela, eta berri onaren enbaxadore bihurtu zen Europan eta, Saporo eta Municheko Joko Olinpikoetan oraindik desoroso egiten zitzaion nondik zetorren esatea, Francok arrain ustelaren hatsa ematen baitzuen. Aurkitu zuen baita ere dolarrek, desodorante bezala erabilita, mirakuluak egiten dituztela.

Bitartean, Vilabrú andereak, Quique Esteve pistetako txontxongiloaren itzal deserosoa gainetik kendu zuela sei hilabete pasata

(—Alderantziz da, delegatu ongi etorria. —Arkatzarekin mahi gainean kolpetxo urduriak abiatu zituen. Diogun, harreman gaixotia moztu zuela.

—Eta orgiarik ez, beraz?

—Kalumniak, inbidiak, gaizkiulertzeak, madarikazioak… –Kolpetxoak arkatz-muturrarekin–. Elisenda anderea erasoezina da edo, gutxienez, hondoraezina. Urteak dira badakigula.

—Eskerrak Jainkoari.)

ikusi zuen nola zabaltzen zitaizkion Obrako ateak irribarre gurasotiarrarekin. Irrikitako batzar hura hasi zen andereak esan zuenean, Txit agurgarria, eskerrik asko hain azkar hartzeagatik, eta hark, mahaiaren beste aldean besoak bananduz, erantzun zuen, ez, ez, Vilabrú anderea, Txit agurgarritik deus ez, asko jota esaidazu monsiñorea, ez baitut ohorerik, ez titulurik, ez laudoriorik nahi.., ulertzen didazu, anderea. Eta andereak esan zuen, bai, ulertzen dizut, monsiñorea. Eta lehen hitz gozoen ondoren batzarrak tximista, trumoi, irribarre, haize, kazkabar, promesa, konfidentzia eta itunekin jarraitu zuen. Bukatutakoan, Elisenda Vilabrúk erabaki zuen urte batzuk lehenago sartzea debekatu zioten tokian ez sartzea, baina pertsona oso estimatutzat kontsideratzeko haina diru-pila aski garrantzitsua injektatu zuen Obran, eta

Erromatik hari eraginkorragoak mugitzen hasi ziren Fontelles Doatsuaren beatifikazio-prozesuaren inguruan, Saverio, ze arraio gertatzen ari da prozesu honekin, ikusi, tira, aurrera. Eta gertatu zen baietz, arrazoia daukazula, Vilabrú anderea, barne auditoriako bulego batikanoar batean geldituta zegoen zehazten jakin ez didaten ez dakit zein arrazoi prozedimentuzkoengatik, dokumentuaren atalburuan dioen arren mila bederatziehun eta berrogeita hamabosteko uztailaren seian Pio XII. aita santuak haren bitartekotasunari esleitutako sendatze baten izaera mirarizkoa dekretatu zuela; normalki, kasu hauetan, prozesua ez da gelditzen. Baina ez kezkatu: urte gutxi batzuen buruan xedea lortuko dugu, anderea. Eta orain, zure eta nire artean, zein arrazoik mugitzen zaitu Fontellesen kausan hainbat konstantziarekin arizteko? Escrivá eta Abar monsiñoreak irribarre ezti eta pazientea egin zuen anderearen erantzunaren zain.

Jakin ezazu, monsiñorea, uste dudala zuri bost zeintzuk diren nire arrazoiak, baina hezkuntza eta hazkuntza onagatik azalduko dizut: maitasuna da. Eguzkia eta izarrak mugitzen dituen maitasuna, monsiñorea. Zin egin nuen betiko ohoretuko nuela, gerta ala gerta, gu ezkondu zein ez. Ainet ostatuan egin nion zin, non mundutik ezkutuan elkar ikusten genuen. Inork ez dezala lehen harria jaurti inork ez baitu gure sentimenduen inozentzia ezagutzen. Egia da maitasun fisikoa egon zela, bai, baina gure atxikimendu ero eta sakonaren emaitza bezala. Ni ez naiz santu bat izan, orain arte, baina badakit gure maitasuna santua izan zela. Atzamarrak gainean jarri zizkidan lehen egunetik, harentzat modeloarena egiten nuenean besoaren posizio bat zuzentzeko, haren ahotsa lasaiaren tonuraino, haren begirada garbitik isurtzen zen ziurtasuneraino... Haren begirada, azken gauean nirea bezala desesperatua zena, gu biok jakingo bagenu bezala gertatuko zena... Esan dut ez naizela emakume santua izan: justiziaren zerbitzuan ezkondu nintzen. Ez nuen Santiago maite baina harekin ezkontzea komenigarra izan zitekeen niretzat. Arrazoi berberagatik etzan nintzen gizon miserable batekin. Baina egun batean nire maitasun benetakoa ezagutu nuen, bizi nuen eta atzamarretatik ihes egin zitzaidan bizitzaren erruz. Eta orain, monsiñorea, Oriolengandik geratzen den oroitzapen bakarra nirea da; beste inork ez dauka presente. Arrasto bat geratzen zait Torenan, zuk sekula bisitatuko ez duzun herrixka bat bera, zapatak eta sotanaren ertzak zikinduko zenituelako. Torenan geratzen dira falangista Fontelles kalea aipatzen duten bi plaka, behi-gorotzez tapizatutako eta malda exajeratua daukan kale batean, zeinari jendeak carrer del Mig deitzen jarraitzen duen, eta zeinetik, diotenez, haren izenagatik, ostera handik sekula pasa ez diren herriko bi emakume dauden. Nik ez dut nahi hori Oriolentzat eta erantzule sentitzen naiz. Francoren erregimen politikoa igaroko da, etorriko dira berri batzuk aurrekoak madarikatuko dituztenak, eta plaka desagerraraziko dute. Hori izango da beteko duten lehen zeregina: izenak aldatzea. Orduan Oriol pixka bat gehiago hilko da. Hura ez zen pertsona gaiztoa, gertatu zena gertatuta ere. Falangista zen, argi dago, gauza logikoa garai hartan; baina ez zuen haren gogorapenak dakarren gorrotoa merezi. Gauza horien guztiengatik, monsiñorea, eta orain gogora ez datozkidan beste batzuengatik, erabaki nuen, orain urte asko, haren heriotzaren ezaugarriak herriko erretorearen eta nire osaba August monsiñorearen, zuk ondon ezagututakoaren, inziatiba baliatzea nire Oriol Doatsu izendatzeko bidean. Ulertuta daukat erregimenak pasatu baina Eliza aldakaitz mantentzen dela. Beraz, erabaki nuen Oriol Eliza honen izar finko bihurtzea. Oriolek santu izaten amaituko du eta ikusi egin nahi dut. Publikoki ohoratu ahal izateko, monsiñorea. Sintzeritate-ahalegin ikaragarria egiten ari naiz eta soilik nik dakit zenbat kostatzen ari zaidan. Fontelles Doatsuaren beatifikazioa eta kanonizazioa nire bizitzaren arrazoi esentzial bilakatu da; hainbeste non beste hainbat aukera sakrifikatu ditudan. Eta inork ez du ezer egin behar nire erabakiari dagokionez. Egun batean esan zenidan bazela nire bizitza pribatuaren alderdi bat Obran sartzea eragozten zidana. Bai,

nik maitale bat neukan. Ez dakit, hamabi edo hamahiru urtez eduki nuen. Bai, badakit zer esango didazun baina sekula ez naiz santua izan. Santua Oriol da, ez ni. Gutxi baino intentsoki maite izan duen emakume bat naiz. Seguru aski hau da nire gorrotatzeko manera ere. Oriolen heriotza eta absentzia nire aitaren eta nebarenak deitoratu nituen bezala deitoratu nuen. Ezkutuan deitoratu nuen urteetan; ezkutuan, inork ez duelako ezagutu behar nire atsekabe hau. Errukirik gabe egin nuen negar eta lan. Aski da esan eta sudur-zapia utzi nuen arte. Bakarrik sentitzen nintzen, batik bat nire senarrak ezkontzako instituzioa ulertzeko zeukan modu hain bitxiagatik. Santiago hil zenean erabaki nuen aski zela, nik ere banuela eskubidea..., ulertzen didazu, monsiñorea, eta mutiko bat topatu nuen, ez oso altua, osasuntsua eta nire aukera pertsonal eta laboralaren eskura egoteko modukoa. Ez nion ni maitatzea eskatzen, nirekin larrua jotzea baizik. Nik ez nuen sekula maitatu, nahiz eta jeloskortasunaren itzala gure gainean zebilen. Ez dizut ni ulertzea eskatzen, monsiñorea, baina Quique Esteve putakumearekiko harreman sekretuak sekretua izateari utzi zion arte iraun zuen. Eta orain promes egin diot Orioli, eta betetzea pentsatzen dut, nire bizitzan beste gizonik ez hartzeko. Ezin dut ezein deskontrolik onetsi. Eta beste gauza batek ere mugitzen nau... Begira, monsiñorea, sakonean uste dut Jainkoarekiko mendekua hartzeko egiten dudala.

—Elizaren alde bizitza emateko zalantzarik izan ez zuen gizon baten memoriagatik eta Eukaristiaren Sakramentu Santuagatik, monsiñorea. –Bere mintzakidearen untuositate berberarekin begiak apaldu eta insistitu zuen–: Soilik horrexegatik, monsiñorea.

Horrela, behar bada, pixka bat ni gogoan hartzen laguntzen dizut, alaba. Oriolek idatzi zuen bezala kopiatu zuen Tinak. Hortik aurrera, orrian, esaldi honen atzean, gizon baten marrazkia zegoen, begi probableki urdinak, aurpegi arrunta, korrektoa, gaztea, hazpegi leun eta anonimoduna. Luze behatu zuen, Oriol bere atsekabea ispilu zikin baten aurrean marrazten imajinatuz. Exaktoki bere saminaren autoerretratua zen, Rosa etsita eta izorratuta joan zenean, eta berak, ustekabeko heroi bihurturik, ez zeukanean modurik azaltzeko jada ez naizela koldar bat, Rosa. Bakartiago sentitu zen, bera eta eskolako lababoko ispilu orbandu eta maspilduaren aurrean egindako autoerretratua. Marrazten zuen bitartean pentsaten zuen, oi desira eta errealitatea batzerik eta orri hauek Rosarengana, dagokeen tokira, irist zitezen lortzea baneuka, eta hark onartzea hona arriskua amaitu arte ez etortzea, oi, ametsa eta beila batzerik baneuzka. Izan ere hemendik gutxira ala libre izango gara ala hilak eta nik ezin izango dut aukeratu. Hauxe da nire zalantza, Rosa maitea, gorrotatzen nauzuna segurutik bazenekielako zer gertatzen zen nire baitan Elisendarengana nindoanean erretratua egitera. Eta zuk, alaba, jakin behar duzu hemendik aste betera ala dena amaituko dela ala... Azkar samar amaitu zuen autoerretratua. Aurpegi itzalia, desilusionatua geratu zitzaizon. Agian holakoxea zen haren aurpegia. Apenas aldatu behar izan zuen ezein trazurik, hamaika aldiz marraztu izan balu bezala. Eta amaitutakoan, pentsatu zuen oroigarri ona izan zitekeela bere alabarentzat destinoak erabakita baleuka huraxe zela amaiera, orain egunero pentsatzen baitzuen heriotzan, gauerdia baino lehen gerta zitezkeen milaka aukeretako bat balitz bezala. Sentitzen dut, kalte egin izana, Rosa.

Tinak koadernoa itxi zuen kaleko atean zarata entzun zuelako. Oriol Fontellesen koaderno sekretuak Jordirekin konpartitu gabeko sekretu bat zen, orain Jordik konpartitzen ez zuenean bere maitale ezezagunaren sekretua. Bere berehalako mendekua zen indar gehiago eduki bitartean desonestoa zela auerpegira esateko, ondradua izan behar zuen berbera.

—Zer egiten ari zara?

Enoratuko al dut? Zakurraren putzera bidaliko al dut? Esango diot, Jordi, hitz egin behar dugu, badakit maitale bat daukazula? Esango diot, eztula zuk eragiten zenidan, nonbait?

—Ezer ez, materiala errepasatzen. Dena prest utzi nahi dut itzulerako.

—Benetan ez duzu zurekin joatea nahi?

—Ez, benetan...

—Dei iezadazu zerbait dakizunean.

Tinak ez zuen erantzun. Zer esango zuen. Sentitzen zuela bera prest ez egotea medikuarengana laguntzeko; asko sentituko zuela laguntzea bien arteko erroitza handiegia zelako; beldurra zeukala medikuarengana bakarrik joateko; hark zer daukan nik ez daukadana. Zein den hura? Ezagutzen dut? E?

Horregatik guztiagatik hobe zen bakarrik jaitsi eta beldurrari bakarrik aurre egitea.

Anoraka kenduz utzi zuen Jordik gela. Tinak bazekien autoa hartu ahala, ofizialki pare bat egun Bartzelonara joan eta berrikusketa ginekologikoa egiteko, Jordi kateetatik aske sentitu eta maitale misteriotsuz asetuko zela. Bazekien, erabat konbentzituta zegoen. Baina ezin zuen deus egin. Eta azken buru berak ere, bere modura, engainatuko zuen zeren, Bartzelonara iritsi

ahala, ez zen senideak ikustera joan baizik erroldaren erregistrora, berrogeita lauan jaiotako neskato baten bila, seguru aski Fontelles abizena zeramana eta zeinaren ama Rosa izango zen. Bartzelonan jaio baldin bazen. Berrikusi beharreko datuen erraldoitasunean bi ordu galduta, Oriolen koadernoetan aurkitutako bide zalantzakorrari jarraitzea otu zitzaion, Aranda doktorearenari, tuberkulosian aditua probableki, tuberkulosiaren aurkako ospitalekoa probableki. Han etsiarazi zuten, nora zoaz, berrogeitako mediku bat, eta buru makur joan zen pentsatuz agian egia zela, nork agintzen zion besteen bizitzan sartzea, ni ez bainaiz historialaria ez ezein inplikatutakoren familiako detektibea, eta ez nekien inplikatuta nengoela soilik Oriolen koadernoen irakurlea izateagatik. Irteerako bidean gauza hauek hausnartzen ari zelarik, atenditu zuenaren aldameneko erizainak mahaitik atera eta besotik hartu eta bere ideia azaldu zion, ganbaran ondo lotu eta ordenatutako hainbat erregistro-pakete daude, eta ikusteko errazak dira, eta paper hauskor eta lizun-usain arineko haietan metatutako hautsarekin eskuak belzturik zeuzkanean, berrogeita bitik berrogeita bederatziko medikuen artean, Josep Aranda doktorea aurkitu zuen eta orain Tinak bazekien, ezen urte haietan gauzak ondo egin izatekotan, doktorearen pazienteen izenak aurki zitzakeela. Urte haietako ingresoen zerrendetan, dozenaka emakume-izen eta Rosa batzuk irakurri zituen baina denak ezinezko adinekoak. Aitortzen hasi zenean denbora alferrik galtzen ari zela, Aranda doktorearen espedientea begiratzea bururatu zitzaion. Feixeseko Toraxeko Ospitalean ere lan egiten zuen. Seta ebanjelikoarekin, Tinak dena utzi eta arrasto hari jarraitu zion, jakinik arratsaldean hitzordua zeukala ginekologoarekin eta aldez aurretik prestatu egin behar zuela eta amarekin afaldu eta are gehiago prestatu behar zuela. Bi orduren buruan Feixeseko Toraxeko Ospitalean zegoen, emakumeak haurrekin jasotzen zituzten lau fitxen aurrean. Soilik batek zeraman Rosa izena. Rosa Dachs. Baina seme bat zeukan, ez alaba bat. Beste arrasto faltsu bat.

Zazpietan iluntzen ari zuen. Eztula aurrean zeukala iritsi zen emakumezkoa, eta gela altu eta bakartian zegoen zain, haurra besoetan. Ostera sartu zen sor Renata:

—Aranda doktorea gauera arte lanpetuta egongo da.

Ezin izan zuen erantzunik jaso une hartan, emakumeak bizkarrez jausi baitzen. Konortea galdu arren, besoak instintiboki jaio berria erorikoan babesteko moduan ipini zituen. Konortea errekuperatuta ohean etzanda zegoen, gela handi batean, beste oheetatik izarazko-edo manpara batek bananduta eta sor Renataren aurpegi gaztea harengana begira, eta lausoki entzun zuen monja hark zioela, bai, esnatu da, doktorea. Eta ostera lokartu zen bere semeari buruz galdetu ahal izan baino lehen. Ez zuen entzuterik izan nola Aranda doktoreak sudurra zimurtu eta esaten zuela, hau oso-oso itxusi dago, ez dakit ezer egiterik izango dugun; nolatan atzeratu zara hainbat hona etortzen?

Inork ezin zion esan Rosa, Torenatik ihes egin zuenean, bere gizonak jarraitua ez izatearren, ez zela etxera itzuli ez eta ezein seniderekin harremanetan jarri. Placeta del Fonteko ostatu umil batean kokatu zen, Poble-secen, eta han erditu zen semeaz, ostatutakoek larri ekarrarazi zuten emaginaren laguntzaz. Semeak oso osasuntsua eta osoa zirudien eta amak Joan jarri zion izen, eta ama ezkongabearen semetzat erregistratu zuen, Joan Doach. Orduan eskutitz bat idatzi zion Orioli non esaten zion, Oriol, behartuta sentitzen naiz esatera alaba bat izan duzula eta osasunez ondo dagoela. Ez naiz zuregana ekartzera sekula etorriko, ez baitut nahi jakin dezan bere aita faxista eta koldar bat dela. Ez saiatu ni bilatzen edo bilarazten: ez nago zure izebaren etxean eta saiatuko gara nire alaba eta biok aurrera bakarrik ateratzen. Jadanik ez dut eztulik. Zuk eragiten zenidan, nonbait. Agur betiko. Eta gezurrez beteriko eskutitz hura sinatzen zuen, eztulka, esperantzarekin era horretara Orioli zailago egingo zitzaiola aurkitzea.

Tinak pentsatzen zuen, zein krudela; baina nik ere berdin jokatuko nukeen. Behar bada. Nik zer dakit. Ezin dudanean Jordiri esan, aurpegira, bere amaren semea dela, zer egingo nukeen Rosaren tokian. Rosak ez zuelarik nahi postara joan seguru aski Oriolek bidaltzen zion diruaren bila, bizitza galtzerdiak saretzen irabazten hasi zen, ukalondoak eta belaunak osatzen eta, une zoriontsuagoak bizi izan zituela ahazten saiatuz, uste genuenean mundu guztia zintzoa zela. Ez zuen kontatzen eztula eta sukarra larritu egingo zitzaizkizola, aurrerantzean beti jarraika. Horregatik, batu ahal izan zuen diru urria Feixaserainoko bidaia batean erabili zuen, ikusteko ea Aranda doktoreak sakon aztertu eta osasuna itzultzen zion. Osasuna itzuli ordez, Aranda doktoreak, nekatuta zazpietan ordu asko zeramatzalako gainean, sudurra zimurtu eta esaten jarraitzen zuen, hau oso itxusi dago. Eta nolatan galdetu du nitaz?

—Zure pazientea izan zela dio. Ez al duzu gogoan?

—Jende guztia gogoratuko banu... Nola dago haurra?

Haurra itxuraz ondo zegoen, propio ahaztu nahi balu bezala aita faxista baten eta ama gaixo baten semea zela, bi-biak heriotzara kondenatuak eta sententzia betetzeko zorian. Joanek Oriolen eta Rosaren alde ona edoski zuen eta irribarre egiten zuen erpurua xurgatuz.

Doktoreak azterketa osoa egin zion haurrari: ondo zegoen. Sor Renataren besoetara itzuli eta ezin izan zion pentsatzeari utzi ezen benetan gustukoa lukeena plantako arduradun izendatu berri zuten eta halako gaztetasun-usaina zerion monja aingerutar eta gazte-gazte hari errepaso on bat ematea zela, ezen burua galarazten baitzion, eta batzuetan biluzik imajinatzen zuela begiratzen harritzen zen, bere besoetan imajinatuz, iribarretsu eta esanaz, maite zaitut, doktorea. Sor Renata haurrarekin urrundu zen. Doktoreari begirada distiratsuz so egin zion, hain distiratsu ezen doktoreak uste izan zuen pentsamendua igarri ziola eta lotsagorritu egin zen. Ez zuen pentsatu ezen gertatzen zitzaiona zela hunkituta zegoela, ikusten zuelako haur hura bakarrik geratuko zela bere amak ez bazuen gau hura gainditzen.

Pare bat aldiz esnatu zen Rosa, bere semearen izena Joanet zela esan zuen eta Sor Renataren ahots lasaiaren ukitu limurtzailearen aurrean, nahi izan ez arren, esan zion haurraren aita Oriol Fontelles zela eta oso urruti bizi zela.

—Munduaren muturrean bizi izanda ere, esan non eta haren bila joango gara.

—Ez: ez baitut nahi harekin gera dadin.

—Zergatik?

Eztul-krisia. Sor Renatak ez zion haren eskua laztantzeari utzi eta pazienteki itxaron zuen emakumea lasai zedin: Orduan bota zuen, modu gozoan, baselinaz:

—Tira, Rosa... Zergatik ez duzu harekin utzi nahi, bere aita da-eta?

—Bada... Ez dut nahi nire semea haren eraginpean hazi dadin?

—Zergatik, ez duzu maite?

—Desberdin pentsatzen dugu. Oso modo ezberdinean.

Sor Renata isildu egin zen. Tira. Mihi-puntan deskonfiantzaz:

—Politika-kontuak?

Ahaleginaren ahaleginez Rosa, ohean erdi altxatu eta sor Renatari ahots zakarrez esan zion, zin egidazu hiltzen banaiz ahal duzuna egingo duzula haur honen aitak sekula aurki ez dezan.

—Zin dagizut –esan zuen monja perjuroak.

—Eskerrik asko– Rosa keinuaren ahaleginagatik akituta, ohean etzan eta bere begirada sukarrean galdu zen.

—Zurekin nago, Rosa.

Eta egon zen, Rosa, denagatik akituta, lokartu zen arte. Orduan, haren poltsa arakatu eta edozein indizioren bila mugitu zen, ordezkatu zuten arte eta, lo egitera joan ordez, bere plantako gelara joan zen, bekatuen larritasunari balantzan pisua hartu, gezurra esatea ume bat abandonatzea baino larriagoa zela kontsideratu zuen, Rosak bere semearengatik indar eskasez borrokan zegoen aldera begiratu eta konferentzia eskatu zuen Torenako herriarekin. Atzamarretan, Pere Serrallac, Sorten marmolista baina Torenan etxea zuen baten txartela. Hamar telefono baino ez zeuden Torenan. Asko kostatu zitzaion konferentzia ipintzea; Serrallac hari buruz galdetu zuen baina aditzera eman zioten ez zeukala telefonorik, haren bila joango zirela. Orduan Oriol Fontellesi buruz galdetu zuzenean, eta telefonoetako Cintetak, Torenan gertatzen ari zen guztiagatik oso kezkatuta, esan zuen, maisua? Maisuari buruz ari zara galdezka? Eta monja perjuroak, konturatu gabe, doktoreak ikusi behar izango zuen begi-apaltza egin eta esan zuen, maisua al da Oriol Fontelles? Eta segundo batzuen buruan: oso gauza larri, presazko bati buruz hitz egin behar dut harekin.

Cintetak, negarrez, ez zuen maisua eskolan aurkitu eta elizan argia ikusi zuenez, pentsatu zuen, agian mosen jauna... Zarata eta itxaronaldi luze baten ondoren, sor Renatak ahots femenino autoritarioa entzun zuen, zeinak zioen, esan, norekin mintzo naiz. Sor Renatak azaldu zuen nola edo hala Oriol Fontellesekin jarri behar zela kontaktuan. Elisendak zalantza izan zuen. Aparatua esekitzeko zorian egon zen baina gauza garrantzitsuen usaimenak bertan mantendu zuen, zorroztasunetarako egongo ez zen une hartan. Sor Renatak Oriol Fontellesekin zuzenean hitz egiteaz insistitu zuen.

—Ezin da ipini... Ez... ezinezkoa da –Elisendaren ahots maiztua.

—Oso mezu garrantzitsua daukat berarentzat.

—Oriol Fontelles hil berria da –Elisendaren ahots izoztua.

—Barkatu. Nik…

Une hartan bizitzen ari zena zelarik, Elisendak begiak irekitzen jakin zuen.

—Zertarako nahi zenuen?

—Bada… beraz bere… emaztea hilzorian dago.

—Rosa?

—Bai. Haren semea daukat.

—Oriol Fontellesek alaba bat dauka.

—Seme bat.

Torenan gertatzen ari zena zelarik, gauza ikaragarriak gertatzen ari ziren arren eta lau bonbila publikoak, hainbeste gorrotoz lotsaturik, itzali egin ziren, Elisendak albistearen garrantziaz jabetu eta ikusarazi zuen ez zituela kaleko tiroak entzuten.

—Familiaren laguna naiz. Pertsonalki hartzen dut haur hau nire kargu. Zuk esaten didazun tokira bidaliko ditut nire abokatuak.

Sor Renata desiratuak, ahots hark diskrezio osoa exijitzen ziola entzun ondoren, eseki egin zuen, aztoratuta batik bat abokatu hitzarekin eta tonu agintekeriazkoarekin, pentsatuz agian lehenago bere nagusiekin kontsultatu beharko zukeela, pentsatuz gaixo baten ohe aurrean esandako gezurra aitortu beharko zuela, pentsatuz ezen, emakume gajoa aurrera ateratzen bazen, kosta egingo zitzaiola begietara so egitea, pentsatu gabe doktoreak berari so egin eta errepaso orokorra egitea desiratzen zuela, pentsatu gabe ezen, bere hogeita bat urterekin, elbarriei zerbitzu egiteko asmoz ordenan sartu zenetik hiru urtera, bera bakarrik bihurtu zela haur haren destino.

Ilundu zuelarik atera zen Tina ospitaletik, eragin eta eragin Rosa ez zela bere gizonaren egia osoa jakitera iritsi, maitale batekin engainatzen zuela baina baita gerra-sekretu batekin ere. Joan. Nire alabatxoak, zeinaren izena ezagutzen ez dudan, Joan du izena, eta ospitale honetan galtzen zaio arrastoa, erabat, Rosa gajoaren aldamenean hil izan balitz bezala. Seguru asko egin berri zituen aurkikuntzengatiko alterazioa zela-eta, ez zen oso erlaxatuta egon bisitan eta ginekologoak, ohiz baino isilago, min eman zion esplorazioan eta gero, bi-biak eserita, bata bestearen aurrean, minutu bat hutsari begira egon zen eta Tina beldurra sentitzen hasi zen, benetan.

—Esango al didazu behingoz, doktore anderea?

Doktoreak so egin zion, irribarre oso laburra, herabea, egin, eta bere aurrean zeuzkan paperak hartu zituen, hark defentsarako balio izango balio bezala.

—Erauzi egin behar dugu –esan zuen azkenean, modu ia entzun ezinean.

Bizitza osoa une haren beldurrez eta une malapartatua iritsi berria da. Orain, terapia erasokorraren dosia, argaldu, hilea galdu eta hil.

—Oso hedatuta al dago?

—Ez dago metastasirik. Hori albiste ona da. Baina azkar egin behar dugu.

—Ez dut pijamarik ekarri.

Hala ere, doktoreak irribarre egin zuen. Agenda eskuan, ingresoaren egunerako geratu ziren. Ziurtatu zion dena kontrolatuta zegoela, terapia ez zela erasokorregia izango, garaiz harrapatu zutela, nik esango nuke ehuneko hirurogeita hamar baino gehiago, praktikan ia inoiz ez dagoela sorpresarik, kaltearen barruan suertea izan duela eta bera, taxi barruan, begiak oso irekiak inora begiratu gabe, errepikatzen zihoan, badu grazia oraindik niri esateak pozik egon behar dudala, eta afaria amarekin zaila izan zen batik bat amona minduaren sermoia jasan behar izan zuelako, izan ere bere biloba bakarra ezer esan gabe joan delako, salbu dei bat presaka egina, amona, Montserraten sartzen naizela, eta amonak, zer esan nahi du Montserraten sartzeak? Eta berak, monje egiten naizela. Arnau adarra jotzen ari zela pentsatu zuen amonak, eta ez zuen inorekin komentatu. Alabari ere ez zion deitu, sinpleki ez zuelako sinistu. Eta orain, aho zabalik, Tina babuaren baiezpena entzuten zuen, berak zeukan iloba bakarrari alde egiten uzten ziola.

—Amatxo, ez hasi. Horrela gertatu da.

—Dena da zure errua.

Badakit mundua nire errua dela, baina uste dut Arnauk bere ametsak azaldu nahi izango balizkigu gu ere ez ginatekeela zu bezain harrituta geratuko.

—Ez da inoren errua. Gizon helduaren erabaki bat hartu du.

—Gaizki hezi duzue. –Isiltasun ominoso eta oso luze baten ondoren–: Zertan da Jordi?

Adarrak.

—Ongi.

—Eta zu? Molestia haiek?

Bularreko minbizia.

—Ezer ez, jada ongi nago.

Madame Corinek (Pilar Mengual, lanetik kanpo), begi urduriekin begiratu zien emakumeari eta haren bi laguntzaileei. Andereari ez zion erabat berezi aurpegia, belo ilun bat baitzeraman hazpegiak estaliz.

—Konsziente al zarete, onartzen badut, bezero bat galtzen dudala?

—Zure arazo laboralak niri bost –esan zuen, zurbil, Gasull abokatuak platertxoan errauts pixka bat ipiniz.

—Beraz, niri ez. –Ahotsa altxatuz–: Baina zuk uste duzu...

—Ukatzen baduzu –moztu zuen Gasull abokatuak leunki, begietara begiratu gabe eta zupada bat eginez– poliziari besterik ez diogu deituko, esango diegu El Nidito existitzen dela Caudilloaren debeku esplizitua egon arren, eta helbidea emango diegu; probableki, lehenik falangista suminduen eskuadra bat bidaliko dizute, dena desegingo duena, eta gero polizia berandu iritsiko da eta hemen daudenean, pasa den Gabonetan neska gailego harekin gertatutakoa azalduko diegu. –Ahotik tabako-izpi bat kendu eta irribarre egin zion andereari–. Gure kontraproposamena da.

Madamak, amorruz zurbil, altxatu, armairutxo batera hurbildu, atetxoa soinean zeraman giltza batekin ireki eta beste giltza bat hartu zuen. Hamabost zenbakia zeraman etiketa zeukan nabarmen eta Elisendari jauzi egin zion bihotzak.

—Bigarren solairua. –Gasullek ia-ia atzamarretatik hartu zion–. Eta Jainkoaren maitasunagatik, ez egin builarik.

Gizon gizenak begi negartia kliskatu zuen modu ohartezin samarrean estalitako aurpegiko emakumearengana eta hirurek abandonatu zuten Niditoko egongela bigarren soilarura eramango zituen eskailera bidean.

—Kaka putzak baino putagoak diren andereak –murmurikatu zuen madamak gonbidatuek gela abandonatu zutenean. Hirurak geldi geratu ziren bat-batean.

—Zer esan duzu? –esan zuen gizon gizenak, mehatxu-tonu oso sakonarekin.

—Haserretzea ere debekatuko al didazue? –orain madamak ahotsa altxatu zuen, kikildu gabe.

—Utzi bakean –agindu zuen Elisenda andereak eskailerarantz abiatuta. Bi gizonek jarraitu egin zioten, madame Corineri katalogoko begirada gaiztoenarekin begiratuz.

Gasullek giltza sarrailean ipini eta ireki egin zuen. Hirurak braustadaz sartu ziren gelara. Santiago Vilabrú Cabestany (Vilabrú-Comelles eta Cabestany Rouretarra) oso cunnilinguus landua egiten ari zitzaion, Elisenda andereak berehala Recasens puta gaiztoa delakoa bezala errekozonitu zuen andere gazte eta oparo bati. Tita, Piliren ahizpa, bai, Milonga deritzotena.

Santiago jauna, biluzik eta sexua prestu, izututa itzuli zen. Zurbildu egin zen duela pare bat hilabete edo agian gehiago bisitatzen ez zuen bere emazte maitea ikustean aurpegitik beloa kendu eta harengana abiaturik, eta Rita Recasensengana, zeina, zurturik, une hartan hankak

ixten zituen. Santiago Vilabrúk bi eskuekin sexu murriztua estali zuen, Titak ohetik jauzi egiten zuen bitartean desagertzeko asmoz.

—Zu ez mugitu –esan zuen Elisendak, agintekeriaz.

Bikote ezkutukoa hain ustekabeturik zegoen, ez zeukan senarik kontraerasorako. Tita ez zen mugitu eta Santiago tente mantendu zen, zurbil, gorri, berde, beste inon egoteko gogoz.

—Orain –esan zion Elisendak– pare bat gauza sinatuko dituzu.

—Zer gertatzen da? Zer nahi duzu?

—Carretero jauna –eraman zuen aditzera gizon gizenarengana seinalatuz– egoeraren akta notariala jasotzen ari da.

—Txantaia egin nahi didazu...

—Ez dakit. –Tina Recasensi–: Nire senarra astean bi aldiz etorri ohi da hona. Batean zurekin eta bestea beste prostituta batekin. –Irribarre amultsuarekin–: Adi ez ote dizun zerbait itsatsi, adituak baititu gustuko.

—Zara...

—Bai. Nahi al duzu zu zer zaren azaltea?

—Une bat, janztera noa.

—Ez. Zu hemen geratzen zara geldi.

—Ez eta pentsatu ere.

—Oso ongi. –Elisendak, Tita Recasensi–: Makilaiak aski iraun al dizu, erregina? –Eta tonu lehorrean Gasulli–: Sar daitezela argazkilariak.

Argazkilariak ez ziren sartu, Tita Recasens komunera bidali zuten eta Santiago Vilabrú Cabestanyk (Vilabrú-Comelles i Cabestany Rouretarra bera) larru gorritan egin zituen tratu guztiak. Ituneko lehen puntuak Vilabrú i Vilabrú bikoteak Marcel izeneko guraso ezezeguneko haur baten adopzioari buruzkoa zen.

—Nondik atera da?

—Ez dizu axola.

—Zer da istorio hau?

—Zuk sinatu eta isildu.

Gasullek luma pasatu zion eta Santiago Vilabrúk maitasun eta bekatauzko ohea erabili behar izan zuen papera sinatzeko, non, haur hura adoptatzeko bere guraria erakusten zuen, larrugorritan.

—Zer egiten ari zatzait?

—Itzuli garenetik zuk neri zer egiten aritu zaren. Eta lehenago ere bai.

Ongi, bigarren dokumentua Satiago jaunaren ondasunei buruzko testamentuaren onuradunari zegokion, Elisenda Vilabrú Ramisi alegia (Torenako Vilabrútarren eta Tirviako

Pilar Ramisen, erdi puta erdi hobeto ez mintzatu Anselm gajoaren errespetuagatik, Ramis leinukoa bera), hau da bost auzo-etxe Bartzelonan, hektarea-sorta eder bat Assuako bailaran eta eskualdeko hainbat lekutan eta murrizten baina ez modu deigarrian zihoan kapitala alajaina, izan ere Santiago Vilabrú Cabestanyk (Vilabrú-Comelles i Cabestanby Rouretarrak) errentaz bizitzea erosoagoa zela erabaki baitzuen. Niditon sinatua mila bederatziehun eta berrogeita lau.

Gasullek luma hartu zion, besteak toki ezinezkoren batean ezkutatuko ote zion beldurra baleuka bezala.

—Hobeto Torenara ez bazatoz –esan zion andereak–. Egiten baduzu, abisa iezadazu.

—Nahi dudanean etortzeko eskubidea daukat. –Otu zitzaion bat-batean, grazia egingo balu bezala-: Nire semea ikustera, ez da?

—Pisu bat erosi dut Bartzelonan. Hartu Sarriako pisua eta egin sekula ez etortzeko ahalegina. Nire semea ikusteko ere ez.

—Akta notarialaren kopia jasoko duzu –informatu zuen Carretero notarioak sugarrik gabe.

—Sutara jaurtiko dut.

—Lasai asko egin dezakezu. –Begietara so egin eta, arratsalde osoan behingoagatik, irribarre egin eta burua mugitu zuen–: Hobeto sentiaraziko zaitu. –Elisendari–: Ni prest nago, anderea.

—Jarrai dezakezue –esan zuen amultsuki Elisendak–. Nahi al duzu non zeundeten gogoratzea?

Zerua izarrez zurituta zegoen, hainbeste non soilik argitasun harekin posible zen ibiltzea. Sekula ez zuen zehaztasun eta araztasun harekin ikusi. Arratsalde erdiko zaparradak paisaia garbitu eta hautsez gabetua utzi zuen. Zeruari begiratu eta pentsatzen zuen, nola gustatuko litzaidakeen mirari hau begiratzea nire zoriona barruan edukita. Luze zihoakion barnetik dena zeukala negarretan eta orduan asko sentitzen zuen ikuskizun orohartzaile haiek existitzeak, ezin zituelako konpartitu, ez Elisendarekin, uste zuelarik eskolan zegoela, lotan, ez eta Rosarekin, ez baitaki ez naizela hain koldarra, ez eta alabatxoarekin, ez baitzuen ezagutzen. Xivirróren bideko zinta zurian sartu aurretik, Fitera harkaitz pean, Cometatik jaisten den bidexka hiltzen denetik hurbil, komandoburua, meatzari asturiar zakar eta begi distiratsukoa, hain bat-batean geratu zen, ezen Oriolek, bere atsekabearekin distraituta, muturrez jo zuen harekin. Komando osoak geratu eta ezereza baino isiltasun sakonagoa gorde zuen, eta Oriolek ulertu zuen jende hura harri bihurtzen ohituta zegoela eta ez zela kexatzen. Agian haiek denek ere negar egiten zuten euren baitan; baina bazekiten paisaia bihurtzen. Nahi gabe, sendoegi hartu zuen arnasa eta esku urduri batek eskuineko bizkarrean egin zion atximur, isilik aginduz harkaitz izateari utzi baino lehen itota hiltzeko. Orduan konturatu zen zergatik hainbeste baretasun. Sartzera zihoazen bidetik oin-arrastatzea eta zintzarri alaien zaratotsa zetorren. Ahuntzak? Ardiak? Behiak? Artzainaren eztul erlatsa entzun zuen ezer ikusi baino askoz lehenago. Begiak bideko zinta pixka bat argiagora ohitu zitzaizkionean ikusi zuen ardi alaiak goardia zibilen konpainia osoa zela eta artzainak kapitain gradua zeukala. Nola zitekeen kota haietatik patruilatzea? Zerbait aldatzen ibiliko zen zonaldeko komandante militarren kaskoan, izan ere ordura arte sahiestu egin baitzuten Serra d'Altarsen eta basoan sartzea baja asko eta erreakzionatzeko gaitasun gutxi izateko beldurragatik.

Ardi-saldo osoa, bekainetaraino armatua, pago-orri batek bezala dardar egiten zuen herriko maisuak sendo indartutako maki-talde urri baten aurrean igaro zen. Hats sorgor eta lodia zihoan abereekin batera bere presentziaren memoria egiten zuen oihartzun gisara. Une oso luze baten ondoren, altxatu egin zen komandoburua. Oriol hurbildu egin zitzaion:

—Ordu asko daramate itzulika. Hauek galduta doaz –xuxurlatu zuen bestearen belarri ondora.

—Zergatik?

—Ez doaz Sorterantz bueltan, gauez doaz eta arratsalde erdiko euria jasan dute.

—Nola dakizu?

—Ez al duzu sentitu haien artile bustiko hatsa? Galduta doaz!

Zortzi zintako metrailadore bat, eskuko hiru granada bakoitzeko, eta zortzi fusil mantso baina fidagarri. Urrats isilak berreginez, hamar gizoneko komandoa Solaneten bihurgunean gorde ziren zelatan. Metrailadorea eta erabiltzen zuten bi gizonak, bide erdian, tokiraino itzulikatu zituzten harkaitz batzuek babestuta. Seinalea artzaina, artzainburua, maiorala eta mutikoa neutralizatuko zituzten bi tiroak izango ziren. Eta guardia zibilek, izututa, ordenak emango zizkien inor gabe mendian behera metrailadoreen baletatik eta zortzi fusiletatik korrika alde egingo zuten esperantzan. Inprobisazioak ez zuen gehiagorako ematen eta komandoburuak nahiko zukeen une hartan Marcó tenientea bere alboan edukitzea, itxuraz baino azkarragoa zen maisuak egindako proposamen taktikoa bedeinkatzeko.

Zailena atzamarrak geldi mantentzea izan zen, konpainia osoa bihurgunea igaro baino lehen tiro egiten has ez zitezen. Orduan, bi gizonek bidera jaitsi eta pasabidea itxi zuten alde hartatik. Komandoburuak artzainaren burura destatu zuen, lehen tiroak entzun eta metrailadorea herio-zatiak oka egiten hasi zen. Oriol Fontelles lehen hezkuntzako maisu nazionalak ez zekien ikuspuntu militarretik eraso bat planteatzeko modurik onena aldez aurretik etsaiaren erreakzioak ikusi eta haren destino itsu bihurtzea zela, sor Renata desiratua bezala. Oriolek ez zekien ekintza zuzenki militar batean inoiz parte hartu gabea zelako eta bat sutan bataiatzen dutenean ez dizkiote hainbeste sakontasun azaltzen, baina dirudienez badut traza pixka bat arazo estrategikoetarako. Itxaroten al zenuen? Ni magisteritza ikasten eta ospetsu izan nintekeen... Ez dut orain bromak egiteko gogorik, Rosa. Zuri ala gure alabari idazten nago? Ez dakit: kontua da ezin dudala zuri kontatzeari utzi harritu ninduela ikustea nola, ezinbestez, lehen deskargetatik ihes egin zuten zibiletako numeroak, azken pagoetako fantasmen kontra itsuki destatu ondoren, eta alferrik itxaro ondoren kapitainak edo tenienteak esan ziezaien zer egin (artzainak tiro bat ahoan eta artzainburuak, lurrean paralizaturik utzi zuen izu-krisia), aldapan behera jauzika hasi ziren, pagoak sahiestuz, alde hartatik tirorik iritsi ez zitzaielako itxaropentsu. Eta hogeita hamar ilusio-urratsen ondoren, goragoko, Forcallets barrankoaren goialdetiko, tiroen zalapartak itotako ulu eginez, astiro hegan egin eta memoria lehertzen zuten hondoko harlauza zurien kontra, jakingo balute bezala haiek zirela harrietako Pere Serrallacek pazientzia infinituarekin landu eta gero lapida bihurtzen zituen harlauzak. Zikloa isteko presa balute bezala. Hilobi izoztuaren beroa miran balute bezala.

Oriolek bere mauserrarekin egin zuen tiro. Bizpahiru gizon akabatu zituen ziurtasuna zeukan. Hiru. Eta ez zuen inolako arrangurarik sentitu, bere aurrean Venturetaren begi handiak

zeudelako Udaletxeko gelan berari begira, agian itxaroten maisuak barrabil handiagoak eduki eta salba zezan. Eta sentitzen zuen baita ere Montarditeko laborariaren, bere faroaren, izuz beteriko arnasestua; baina bere aurrean eduki nahiko zukeena Valentí Targa zen. Orduan hamar kargadoreak hustuko zituzkeen haren ezkerreko begiaren aurka Venturetaren gomutari alaitasun pixka bat itzultzeko.

Biharamunean, bilaketa-ordu askoren ondoren, ez terrenoa ez irisbidea ez zirelako batere errazak, existitzen ez ziren patriaren etsai gerrilarien operazio salatzaile eta koldar haren balantzea egin ahal izan zuten agintariek: hamazazpi soldadu Forcalletseko barrankoaren hondoan burua lehertua, komandante bat, burua alaiki lehertzera jaistean, pago-adar batean josita oliba betea balitz bezala, balaz hildako hamalau soldadu, zazpi zauritu inmobilizatu eta gainerakoak, sakabanatuta, aurpegia izuak zurbilduta eta konprobatuta gau bat basoan bakarrik edo mendi gorriko freskuran pasatzea, mauserrari helduta eta hain irekita edukitzearren begiak minduta edukitzea hotzez hiltzen uztea baino nekosoagoa zela. Gainera, kapitain bat aho gabe eta artzainburu bat, beldurragatik eta une hartatik aurrera itxaron zezakeen gurutzebideagatik oraindik paralizatuta, ezin baitzuen zauri baten pasaportea ere aurkeztu koldarkeriaren lotsa amortizatzeko.

Marcó tenienteak komandoburu eta Oriol Fontellesengana begiratu zuen. General-ikaslea eta orojakilea.

—Hamabi gizon laurogeita hamar etsai baino gehiagoren kontra. –Bere gizonari begira–: Ausarkeria ez da bertute militarra.

—Seguruan genbiltzan. Lekua perfektua zen. –Orojakileari buruz–: Badaki, badu ideiarik mugimenduez. –Mirestuta–: Harena izan zen ideia.

—Zure tokia ez da hemen –erantzun zuen besteak, lehor, begirada are ilunagoarekin. Eta seinale egin zien atea berekin gaindi zezaten.

Gela-moduko zerbait zabalago batean sartu ziren, sabai modura zurezko oholak zituena bera, zeinak zuzenean, aro miserableago baina zoriontsuagoetan, kortako abereek goian hotzez dardarka zeudenei kalefakzioa ematen zien. Orduak ziren hamabi aurpegi ilun zain zeuzkatela. Aurpegi txarrak. Marcó tenienteak, sarrera-hitzik gabe, Operazio Handia zer zen azaldu zien, zergatik komeni zen zonaldean hamaika tentsio-foku piztea, gau hartan zibilen konpainia oso bat garbitu zuten moduko hura bezalakoa. Operazioak biderkatu beharra zegoen, haiek toki guztietan eta edonon urduri ipintzea.

—Eta Operazio Handia?

—Makien armada batek penintsula inbadituko du faxismoa botatzeko.

Isiltasuna. Handia eta pentsaezina zen eguneroko ihesak abaildutako gizon batzuentzat.

—Hainbeste jende al dago makian?

—Kanpotik erreklutatzen ari dira. Eta baita barrutik ere. –Instintiboki Oriolengana begiratu, baina soa disimulatu zuen: Mugimendu handiak daude aste hauetan.

—Zein egunetan? Nondik? Nork gidatzen du? Zenbat aukera daude...? Zenbat jende izango dira? Zer aurreikusten dute gerorako? Herria altxatzea nahi al dute? Ba al dakite jendea nekatuta dagoela? Ebaluatu al dute...

—Ez dakit deus gehiago. Soilik agindu didate nik zuei informatzea.

—Eta zergatik ez gara makiaren armadan integratzen?

—Gure zeregina faxisten ipurdian garau bihurtzea da, orain arte bezala eta areago.

Ipurdian garau bihurtzeko jokatzen duzu bizitza, alabatxo. Une hartako nire xede handia: Francoren armadaren eta faxista guztien ipurtzuloan forunkulo ikaragarri handia izatea.

Forcalletseko barrankoak, neguan, hogeita zortzi urteren buruan, ez zuen Torenako maisuaren segadaren zuhurtziei esker eroritakoen ezelanago arrastorik gordetzen. Pere Serrallacen semeak Seuko handizkari bati erosten zion marmola, edozein tokitik ekarriarazia. Elur asko bota zuen, aspaldiko partez. Marcelek eskiak geratu zituen bat-batean, mugimendu perfektu batekin, justu puntu hartan non bere aitak komandoburu egiten zuen meatzari asturiarrari metreiladorea bide erdian ezartzea agindu zion, artzain eta artzainburuei bidea trabatzeko eta okupazioko ardi artean etsipena eta nahasmendua sortzeko.

—Hemen. Zehazki, hemen –esan zuen Marcelek.

Ez zen metrailadore bat izan baizik kapela hori baten barruan bildutako adats beltz eta luzeko neskatila bat, zeinak Marcelek seinalatutako puntu exaktoan frenatu zuen.

—Perfektoa. Uste dut utz ahal dizudala bakarrik ibiltzen.

—Baina ez gaude pista batean, ez da?

—Ez kezkatu: ezagutzen dut...

Artzain-neskatilaren alua bezala esatera zihoan, baina erreprimitu egin zen. Nola gabesten zuen Quique. Harekin ruta berriak egiten zituen, eski nordikoa praktikatzeko pasabideak seinalatzen zituen, teleaulkien potentziari buruz eta nesken zangoen ingeradaz teorizatzen zuten eta bizitza osoa gaztea zen. Baina halako egun batean Quiquek, dutxetako hura gertatu ondoren, ez arre ez so esan gabe alde egin zuen. Amatxok bide batez komentatu zion Saint Moritzen fitxatu zutela eta egia izatekotan ondo egin zuen joanda, baina putakumeak esan zezakeen arre. Edo so. Edo beste zerbait, zeren gorrotatu, inbidiatu, mespretxatu eta maitatzen zuen arren, Quique beti izango zen Quique, bere abiatzailea sexuaren artean, sexuan arte bezala, Tucako dutxetan eta gero Casita Blancara edo Niditora eramanda, non benetako emakumeekin kontaktuan ipini zuen, ez playboy klandestinoetakoekin. Eta orain arrastorik gabe desagertzen zen, ergel askoa.

—Bagoaz?

—Itxoin. Ez al duzu hau dena polita ikusten?

Neskak baietz esan zuen. Marcel Vilabrúk begi jatunak pasatu zituen hainbeste maite zuen paisaiatik. Solanetetik harago Obi Blauren horma-zati bat ageri zen lausoki. Ezinezkoa zitzaion Oriol Fontellesen urratsak agerira ekartzea, bere aitak, bide hura berrogeita hamar bat aldiz bai, oinez egin zuen hura, beti gauean, material arin eta erdi arina kargatuz, beldurra gorputzean, jaurtigailuen kutxaren zama madarikatuz, beste gerrilarien isiltasun burdinazkoa miretsiz, zeinetatik bakoitzak bere saminezko, ahanzturazko edo herriminezko mundua zeukan buru barruan, baina gorde egiten zuena begietan malkoak edukiz gero punteria galtzeko beldurrez.

—Bai, oso polita. Bagoaz?

Orduan musu eman zion, alboka, eskien erruz. Musu sakona ahoan. Erantzuna sentitzean, jabetu zen lehen aldia zela, Mertxerekin ezkondu zenez geroztik, putak eta nordikoak alde batera, izena jakin eta norekin maitemindu ahal zen emakume bati musu ematen ziola. Betiko fideltasun abnegatuzko urte luze batez eutsi zion. Tira, agian Bascompte deskontatu beharko zukeen eta beste hura, bai, Nina. Eta besteren bat, bai, ados.

—Tira, ez izan eroa –esan zuen Mertxek mutila alboratuz eta eskiak doituz. Marcelek pentsatu zuen, ez izan eroa baina ondo jarri zara, neska. Estazioaren beherainoko jaitsiera ez zen ezelango iruzkinek moztua izan, ez kapitain artzainaren burua lehertu zuten isurialdetik irristatzen zirenean, ez izei lodia saihesten zuten bitartean, non Oriol Fontellesek, bere indarrek ere abandonaturik, negar egin zuen gau batean, sei egun bazirelako hiru ordu baino gehiago lorik egiten ez zuela. Behean Mertxe zeukaten zain, pixka bat pipertuta, pixka bat haurdun, pixka bat urduri ordubi eta erdiak direlako eta gosez hiltzen bainago. Agian musu klandestinoa izango zen, kontua da Marcelek ez zuela aditzera eman pista gehiago nahi zuela, adats beltz eta musu furtiboko neskarengandik adeitsuki agurtu, beste pare bat bezerorengandik egin zuen bezala, eta autoan sartu zen apalki, Mertxek jarraituta.

Hamabietako meza Torenako Sant Pere elizan, tokiko agintarien asistentziarekin, hau da, Gravat etxeko Elisenda Vilabrú, Valentí Targa jaun alkate eta mugimenduaren tokiko buruzagia, Oriol Fontelles, Falangearen tokiko azpiburuzagi eta herriko maisu titularra, Jazinto Mas fidela, aurpegia markatutako txoferra, anderearen sekretuetan aditua, Arcadio Gómez Pié, adats kizkurreko gorila eta Valentí jaunarekiko fideltasun frogatukoa, eta Balansó, bibote fin eta lehorreko gorila, eta soilik alkatearena egiten zuen herriko historiako lehen alkatearen ekintza gogor baina beharrezkoekiko dozena eta erdiko meneko fidel, atrioko itzalpelko tertulia laburrean amaitu zen, non gustura gehitzen zen mosen Aureli Bagà eta non Valentí Targa alkateak bedeinkazioak banatu eta sententziak diktatzen zituen. Zein atsegingarria den agintzea batek bere esentzia propiotik isurtzen den autoritatea daukanean, edo mosen Bagàk esango lukeen modura, Jainkoarengandik etorritako autoritatea onartzen denean. Eta bai, ez, ikusiko dugu, etab. esaten zuten bitartean gogoa egiten zuten pixka bat geroago Marés etxera bermuta dastatzera joateko, tabernariaren asteko hondamendia, oraindik ez baitzen Targari kontua luzatzera ausartzeko ordua ailegatu. Eta Elisenda anderea, ez taberna ez herria zapaltzen ez zuena, etxera itzultzen zen, izan ere administratzailea hartu eta abereez, belar-tonez, haragiaren librako prezioaz, animalia guztien osasunaz eta Batlliu azpiko isurialde batzuk erosteko posibilitateez lasai mintzatzeko erabiltzen zuen momentu bakarrenetariko bat baitzen. Mosen jaunak aparte hartu zuen Oriol eta, hobebeharrez, hain gizon honesto bati laguntzeko gogoz, galdetu zion ea zerbait egin zitekeen emaztearekiko banaketa konpondu ahal izateko.

—Iruditzen zait ez dela zure afera, mosen jauna. Osasun-arazoengatik joan zen.

—Herrian zabaldu dena ez da hori. Ez da ona etsenplu txarra ematea. Gainera, oso mengel ikusten zaitut. Zure angustiak deskargatu nahi badituzu, nik...

—Ez duzu eskubiderik horretan sartzeko. –Begietara mespretxu pittin batekin so egin eta gezurra esatea erabaki zuen–: Nire emazteak eta biok aldian behin elkar ikusten dugu.

—Baina...

—Ez al duzu sekula eztulka entzun? –Orain ahotsa altxatuz, ez Jainkoak emandako autoritateaz (ez baitzen kasua), ez eta bere esentzia propiotik isurtzen zenaz (hura ere ez zen), baizik haserretik sortutakoaz–: Ez al zinen konturatu zein zurbil zegoen?

—Eta zergatik ez diozu jarraitu zuk, seme? Senar on baten betebeharra...

—Egun on, mosen jauna. Datorren igandera arte, etortzerik baldin badaukat.

Beste etsai bat, alabatxoa. Nolako erraztasuna daukadan ni gorroto nazaten.

Valentí jaunak besteei pasatzen hasteko esan eta alde egin zuen, Oriolen besotik oratuta, Mig kaletik gora eta behera, bi adiskide zaharren gisara, eta zentzuzko tarte bat itxaron zuen Oriolek amorrua gainetik kentzeko.

—Ez egin kasurik. –Mosen jaunarengatik–: Hura beti berera doa.

Oriolek ez zuen erantzun. Valentík gelditu eta so egin zion:

—Ba al dakizu berria?

—Bai, mundu guztia mintzo da –Kezka sakoneko keinua egin zuen–: Konpainia oso bat? Ehun gizon?

—Laurogei. Badira bizirik iraun dutenak. Antza denez ehun maki baino gehiagoko komando batek egin zien eraso.

—Nondik ateratzen da hainbeste jende?

—Zu non sartu zinen? Atzo ez zinen herrian egon egun osoan.

—Konpainia osoa garbitzen.

—Bromatan ere ez esan.

—Ni kontrolatzen ari zara?

—Ez. –Martxan jarri zen, gutxika-gutxika haren begietara so egiteari utzi gabe–: Baina behar bada egin beharko dut. –Tonu autoritarioan–: Gau honetan ikusi eta entzun dugun guztia komunikatzera jaitsi beharko dugu arratsaldean.

—Ez dut deus entzun. Lo seko egiten dut.

—Nire gizonek esan didate mugimenduak detektatu dituztela herri inguruan. Zu ez zara konturatu?

—Esan dizut ez dudala deus entzun.

Isilik egin zuten gainerako bidea. Oriolek azkura arraro bat kentzeko, esan zuen:

—Edozein moduz, agintarien aginduetara nago, ez dago esan beharrik.

Valentík irribarre egin zuen. Agian horixe entzuteko zain zegoen.

Latinezko baptismusetik dator, eta bere aldetik baptisma edo baptismos grekotik, murgilketa, igurtzia. Hauxe da, anai-arrebak, sakramentu honen sinboloa: garbitzea, jatorrizko bekatuaren erruz hilda iristen den anima purifikatzea. Beraz, bataio-ekintzaz esan dezakegun guztia da gorputzaren garbiketan datzala, neofitoaren ariman gertatzen ari den garbiketa aurreikusi eta errepresentatzen duela. Horrelaxe definitzen zuen Santo Tomas Aquinokoak deitzen zionean gorputzaren kanpoaldeko abluzioa hitzetan agindutako forman burutua. Sacramentum regenerationis per aquam in verbo.

—Mosen...

—Bai. Bukatzeko, soilik gogoratu nahi dut Trenton definitutako fedezko egia dela bataioa hartzea erabat beharrezkoa dela salbaziorako, nahiz eta, Eliza Ama Santuak, ulerkor eta errukior, hiru bataio-mota bereizten dituen sakramentua eskaintzen den moduaren arabera: alegia...

—Mosen...

—Unetxo bat besterik ez: alegia, urezko bataioa (fluminis), nahierazko bataioa (flaminis) eta odolezko bataioa (sanguinis).

Zure odoleko odola, Oriol. Zu betikotzen zara eta ni zure bitartez.

—Mosen, izan ere...

—Bai. Ea: zein izango da haurraren izena?

—Sergi –esan zuen Mertxek.

Oriol, pentsatu zuen Elisendak, amapontekoa zelarik. Niretzat beti izango da Oriol. Maitea, badaukazu biloba bat. Zure odoleko odola. Ea horrela barkatu ahal nauzun. Badakizu Combalia doktoreak dioela agian diabetiko bihurtzen ari naizela? Bihar jaitsi beharko dut... Ni, ni naiz amapontekoa, jakina.

—Beraz, hurbil zaitez mesedez, anderea, Justuen Elizan sartzea eskazten duen arimatxo egarritu horrekin.

Elisenda anderea bataioko iturrira hurbildu zen Oriol Fontelles falangistaren biloba besoetan zuela. Sudur berbera. Keinu berbera ahoan, Marcelek baino areago. Nolatan jendea ez da konturatzen? Izan ahal gaitezke hain itsuak? Edo inork ez dauka gogoan nire sekretuaren aurpegia...

—Sergi, nik bataiatzen zaitut Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Mosen Rellak Sergi zioenean Sergi Vilabrú aipatzen zuen (Vilabrú-Comelles i Cabestany-Rouretarra eta Torenako Vilabrú i Tirviako Pila Ramisen, erdi puta erdi hobeto ez mintzatu Anselm gaixoaren errespetuagatik, Ramis leinukoa bera) i Centelles-Anglesola (Centelles-Anglesola Cardona-Anglesolatarrekin ahaidetua Anglesolaren aldetik eta Erill de Senetmentarra, amaren ama Eduardo Erill de Sentmenaten alaba baita, zeina hemendik bost hilabetera bularreko angina izango baitu, bai, Maderas Africanas kakaztuaren erruz. Edo behar bada egosten den hargatik, Banca de Ponenteko eskandalua, bai). Hots, mosen Rellak esan zuen, Sergi, nik bataiatzen zaitut Aitaren, Semearen eta Espriritu Santuaren izenean. Izatez esan zuen, Sergi, ego te baptizo in nomine Patris et Filii et Spiritus Sancti.

—Amen –erantzun zuten Torenako Sant Pere parrokian zeremonia intimoan bildu ziren laurogeita hiru lagunek, nora igo behar izan zuten Vilabrú andereak atsegin duelako jendea izorratzea eta behi-gorotzak zapalaraztea, Bartzelonako katedralean bataiatzea hain normala izanda. Beraz, ez, harrapazak, galdu egun osoa, hartu autoa eta zikindu zapatak Torenan. Bai, amen, erantzun zuten laurogeita hiru gonbidatu irribarretsuek. Laurogeita hiru gonbidatuei bost axola Sergik/Oriolek. Ehuneko hogeita sei Elisenda andereak ikusiak izateko zegoen han, bere lehen bilobaren amapontearena egiten baitzuen nahiz eta bere odolekoa ez izan. Beste ehuneko hogeita bat eta erdiak nahi zuen Marcel Vilabrú i Vilabrúk han ikustea, bere lehen semearen bataioan, eta etor daitezela beste asko atzetik, Vilabrú jauna. Ehuneko hemeretzira ez ziren iristen (exaktoki, hamazortzi puntu zazpira) Centelles-Anglesoa i Erill familiak bistaratuak izateko interesatuak, hala osoan hartuta nola adarretakoren batek: politikoak (Sahararen egoera zehatzari buruzko informazio pribilegiaturako irismena), ekonomikoak (gazteegia zelako eta buruan txori gehiegi zeuzkalako gauzak nola zihoazen ulertzen ez zuen begirale kanpolarrosa haren inspekzio hura. Arranopola, bulego guztia hankaz gora jartzen ari zaidala), sentimentalak (bai, maite dut Begoña Centelles-Anglesola Auger, Mertxeren lehengusina-ahizpa hala Centelles-Anglesolaren partetik nola Augeren partetik, izan ere Augertarrak Erill baitira Erill Casassestarren leinukoak baitira, baina Mertxe baino infinituti politagoa eta iristezinagoa. Ez, birjina, ez. Badakit ezetz. Baina, txo, berdin dio). Agian bloke horretako talderik trinkoena Mertxeren lagunak ziren, neskak, denak halakoxeak, bai, eta pentsatuz, zein ausarta Mertxe; hain da zabarra seme bat edukiztea, etab. Gainerako hogeita hamalau puntu zortzi, erdia familia zuzena eta behartua zen, eta gainerakoa, hainbat kasu, zeinetan bat berezia, Jazinto Mas, zeinak, laneko kontuak zirela medio, argi zegoen han egon behar zuela, izan ere biharamunean anderea medikuarengana eta, ziur, gotzain edo kalonge oharkaberen bat bisitatzera eraman beharko zuen-eta; Quique Esteve malapartatuarekin larrua jotzen ez duenetik santu bihurtzen ari zait. Baina Jazinto Mas bertaratuetan bakarra zen, Gasull gripea egosten ari baitzen ohean, bera, hau da, ni, hots Sergi Vilabrúren bataiora joandako ehuneko bat puntu biren artean (Sergi, Vilabrú-Comelles i Cabestany-Rouretarra eta Torenako Vilabrútarren eta Tirviako Pilar Ramis, erdi puta erdi hobeto ez mintzatzea Anselm, haurraren ustezko eta teorian birraitona, gaixoaren errespetuagatik, Ramisen leinukoa bera) i Centelles-Anglesola (Centelles-Anglesola Cardona Anglesolatarrekin ahaidetuta Anglesolaren aldetik, eta Erill Sentmenatarra, amaren ama Eduardo Erill de Sentmenaten alaba delako, zeinak bularreko anginatik hiru astera akabatuko duen infartoa jasango baitu, gaixoa, Banca de Ponenteren eskandaloaren erdi-erdian), bakarra zen zekiena haurraren aita, Marcel, ez zela anderearen semea baizik Feixesen ondoko ospitale batetik jasotakoa jakizu zein arrazoi tarteko. Jazinto Masek dena ezagutzen zuen, etxekoandreari buruz: akatsak eta bertuteak, beldurrak eta pozak, ahulezia- eta amorru-uneak. Baita gezur handia ere. Eta gutxira arte hura noblea, justua eta dotorea zen. Eta berari sekula ez zitzaion hari zerbitatzea zail gertatu: esklabu bat bezala zerbitzatzea, hura jainkosa zelako. Maite zaitut, Elisenda. Orain, ordea, gero eta gehiago, edozein motiboren bila zabiltza niri errieta egiteko. Jadanik dena ez da, oso ondo, Jazinto, oso ondo egiten ari zara, baizik zergatik gelditzen zara hemen?, adi, ez frenatu horrela, nolatan ez nauzu ohartarazi abrigoa ahazten nuela, ez dakit zertan pentsatzen ari zaren, Jazinto, kontxo. Eta nire berriketaren bat garrantzirik gabea, bai. Baina nik berdin maite zaitut: zahartzen ari zara, Elisenda, eta ez zara konturatzen nik ere badudala nire bihotza. Zuretzat nik agian autoak beste garrantzia daukadala? Begira, ez dakit zein arrazoirengatik adoptatuko duzun haur hori nahasketa-une batean, makien jaialdi-garaian, eta zergatik zoazen Feixesera haren bila: Arrazoiren bat baldin balego, nik arakatuko dut. Ez dut atsegin

nirekin sekretuak izan ditzazun hainbeste urtetan familiako okak jasotzen ibili ondoren. Batik bat haurrarenak. Amen.

Bataioaren zeremonia bukatuta, mundu guztia atera zen eliza atariko eguterara, irribarrea ezpainetan, segur asko pozik zeudelako Sergi Vilabrú (Vilabrú-Comelles i Cabestany Rouretarra eta Torenako eta Tirviako Pilar Ramisen, erdi puta erdi hobeto ez mintzatzea Anselm, haurraren ustezko eta teorian birraitona, gaixoaren errespetuagatik, Ramis leinukoa bera eta Centelles-Anglesola Cardona-Anglesolatarrekin ahaidetuak Anglesolaren aldetik, eta Erill Sentmenatarra, amaren ama Eduardo Erill de Sentemnaten alaba delako, zeinari buruz, behin lur emanda, esan zen infartoa izan zela, ez, bere buruaz beste egin zuela) hain modu erabakitsuan, batere negarrik gabe, Eliza militantearen parte izatera sartu izanagatik.

Hainbeste, hainbeste gerragatik ez balitz, gauza batzuek irribarrea eta negarra eragingo lidateke. Gau honetan ipuin bat azalduko dizut, alabatxoa. Lozorroan nengoela hasi zen dena (hain lo gutxi egiten dudalarik orain, edozein tokitan lokartzen naiz, baita motorraren gainean ere). Amets egiten nuen norbait zuhaitz bat zerratzen ari zela basoan eta nik galde egiten nion, zergatik zerratzen duzu hori, adiskide, eta gizonak esaten zidan, jarraitzen dizutenean non ezkutatu izan ez dezazun. Nik banekien ametsetan nengoela, hots, ez nintzen gehiegi izutu. Eta orduan adiskidea hartu eta etxeko atea zerratzen hasten da; ongi, orain etxetzat daukadan eskolako atea. Eta nik galde egiten nion, zer dela-eta zerratzen duzu etxeko atea, adiskide? Eta berak arrapostu, jarraitzen dizutenek horrela ez dutelako lanik edukiko. Esnatu egin nintzen orduan. Begiak ireki eta geldi geratu nintzen esnatu ez banintz bezala, hemen egiten ikasi dudanez. Eskolako atea zerratzen ari zen norbait. Izutu egin nintzen ni ez bainaiz inor ausarta, alabatxoa. Zalantza handiak eduki ondoren, atearen aurrean oin-puntetan azaldu nintzenean, konturatu nintzen ez zirela zerratzen ari. Norbait harramazkaka ari zen. Eta orduan gogoratu nintzen... Ez al zaizu sekula gertatu, alabatxoa, bat-batean eta erabateko zehaztasunez, ahaztuta zeneuzkan orotzaipenak etortzen zaizkizula eta egun bat ere pasatu ez dela dirudizula? Horixe gertatu zitzaidan. Braustadaz atea ireki nuen, isilik, eta badakizu zer aurkitu nuen?

Tinak zakurraren marrazkia behatu zuen, adats luzea, mihia zintzilik, soa atezuan, burua zarata bat sentituko zuen tokirantz itzulia. Zein ondo marrazten zuen Fontellesek. Nor ezagutzen dut eskaner bat daukana?

Urte erdia zen, alabatxoa, urte erdia Akiles hemen hamar egun egona zela, eskolan, isilik, ezkutuan, bere haurrak babestuz... Eta orain isilik, lohi, ilea kiribilduta, oinak zaurituta atsedenik gabe hainbeste ibiltzeagatik eta paper-orri bat bezain argal itzultzen zen. Nire eskuak miazkatu eta bere etxea balitz bezala sartu zen, txoko guztiak behatuz eta ganbarako atetxoaren aurrean plantatuz, intzirika.

—Galdu egin al dituzu? Non daude?

Miazkatu egin zidan, nire hanketan igurtzi zen katu bat balitz bezala eta orduan ulertu nuen gose egongo zela eta nire otordurako prest neukan ogi-puska eta estebetea eman nion. Inoiz ez dut inor hain azkar jaten ikusi. Inoiz ez, alabatxoa. Orduan, animalia gajoa zoko batean etzan eta lo geratu zen. Seguru aski, hilabeteak eta hilabeteak itzulika ibili eta gero lo egiten zuen lehen aldia zen.

Beranduago Marcó tenienteak, zeina gustatuko litzaidakeen zuk ezagutzea ostera Ventura etxeko Joan Esplandiu deitu ahalko duenean, kontatu zidan ezen Liongo familia hura Portugaleko mugak ikusteraino iritsia zela; Gardon zumardian, Beira Altatik lau urratsera, familia eta Partiduko pasatzaile bat zihoazen autoa gelditua izan zen norbaitek kalte egin nahi ziolako pasatzaileari. Alabatxoa, egin ahal duzuna bizitzan baina ez izan salatzailea. Amak azalduko dizu horrekin zer esan nahi dudan. Yves eta Fabriceren begi izutuak ditut gogoan, jakinik azkenean ipuineko ogro gaiztoa haiek harrapatu eta eurak irensteko zorian dagoela. Marcó tenienteak esan zidan ezen familia, zeinaren izena sekula ez naiz ezagutzera iritsi, Reichen Frantziara bidalia izan zela eta handik Alemaniako barnealdera juduez beteta bidaltzen ari diren trenetako kargaren parte izan zela, Dachauko eremuetarantz, nondik, diotenez, nahiz eta nik ez dudan erabat sinisten, inoiz ez den inor bizirik ateratzen. Haur

gajoak, portura iristeko zori-zorian eta ogroaren atzaparrek harrapatuak. Nire haur gajoak. Eta horrek esan nahi du Akiles, Salamanca hiria baino haragotik Pirinioetako zoko bateraino iritsi dela, non, ibilaldi luzearen odisean, agian atseden-egun bakarrak igaro zituzten.

—Nondik atera da zakur hau?

—Abandonatua. Adoptatu egin dut.

—Polita da.

—Bai.

—Arrazakoa.

—Nola?

—Bai. Spaniel bat da. Zer egingo zuen hemendik?

—Galduta.

—Hemendik? Hemendik galduta? –Fidakaitz, Valentí Targak–. Mendi zaputz hauen erdian galduta? Basoa basurde batek bezala zeharkatzen? –Besoak poltsikoetan, bere aulkian bermatuta, pazienteki itxaroten zegoen Oriolek dokumentu haiek irakurtzen amai zitzan. Balansó, bibote finekoa, sartu zen baina Targaren buru-keinu indartsu batek atzera eragin eta atea ixtera behartu zuen.

—Ni ez naiz abokatua –esan zuen Oriolek, burua hotzikaraz altxatuz.

—Ohar zaitezen. Nahi baduzu, gauza berbera egin dezakezu.

Valentí Targa bertoko alkate eta tokiko mugimenduko buruzagiaren salaketa-akta zen, Manel Carmaniu Torenako auzoaren aurka, erregimenari ez atxikia bera, Ventura anderearen lehengusua, Marcó tenientearen lehengusua, eta aktaren arabera hiru terreno-hektareen jabe izatetik jabe ohi izatera aldatzen zena, Gravat etxeko Elisenda Vilabrú Ramisen ondasunen parte izatera pasatuz, aldi berean alboko terrenoen jabea baita. Eta bigarren dokumentuan esaten da larreko hiru hektarea hauen gehi alboko beste pare baten permuta ezartzen dela, horiek ere larrekoak, Tuca mendiko Tuca Negra izeneko terreno handi baten truke, baserri eta haziendako balio eskasekoa bera, Batalla etxeko Jacint Gavarróren jabetza hain zuzen, zeinak gainera alde permutanteak permutara daramaten baloreen alde nabarmena dirutan konpentsatu behar duen.

—Ongi, baina ez dut ulertzen zergatik egiten duzun. Eta ez dut ulertzen nolatan andereak...

—Ez dizut azaltzen zergatik egiten dizkidazun galdera hauek. Nahi baduzu... Tira... –Valentí altxatu eta bere bulegoko atea ixtera joan zen. Ostera jesarri zen. Ahots baxuagoan–: Egoera baliatu nahi baduzu, aberats bihurtu zaitzaket.

—Nola?

—Terreno bat nahi baduzu, haren jabea salatzen duzu. Gainarekoaz ni arduratuko naiz. Komisio arrazonagarriarekin.

Oriolek ahoa zabaldu zuen. Irribarre egin zuen bere desorientazioa disimulatzeko:

—Ez ditut lurrak nahi.

—Ez dituzu lurrak nahi, ez dituzu komisioak nahi, ez dituzu opariak nahi...

Instintiboki ostera begiratu zuen aterantz, oraindik itxita jarraitzen zuela zihurtatu nahiko balu bezala.

—Zutaz ez fidatzera behartzen nauzu. –Mahai gainean utzi zion papera, haren aurrean–: Ez da asko kostatzen.

—Zergatik kezkatzen zaitu nik gurari ekonomikoak ez edukitzeak?

—Ez nau kezkatzen: haserretu egiten nau. Eta zutaz ez fidatzera narama.

—Zergatik?

—Puruak beti arriskutsuak direlako.

—Ni ez naiz purua.

—Orduan egin mundu guztiak bezala, ostia! –Bekokia ukabilarekin kolpatu zuen, haserre eta builaka–: Ulermen minimoena daukanak eskua ipintzen du. Jasandako sakrifizioengatik.

—Ez da derrigorrezkoa.

—Bai, bada. Zergatik errefusatzen duzu onura legitimo bat? Gerrako harrapakina da.

—Nik...

—Auskalo zeren bila zabiltzan nigandik ezkutuan. –Mehatxari–: Auskalo...

—Barkatu, baina nik...

—Aurkitu eta gustukoa ez badut... gaizki pasarazi ahal dizut.

Beraz, ez daki ezer. Definitiboki. Ez daki egun batean garondoa haztatu niola herdoildutako pistola batekin ez eta limurtzen nabilela berak inork ukitzerik nahi ez duen emakumea. Edo agian bera da ni limurtzen dabilena. Ez daki eskolako gau-trafikoa. Ez daki ezer.

Harak beste zigarro bat egin zezan itxaron zuen. Lehen zupada egin zuenean, Targak aulkian bermatu eta begiratu egin zion mihi-puntatik tabako-izpi bat kentzen zuelarik. Oso barrutik sortzen zen ahots batekin, Valentí Targak, kontra egin nahiko balio bezala, bota zuen:

—Eliot.

Isiltasuna. Badago. Kitto. Polita zen itxaropena edukitzea; baina jadanik badago: tortura, salaketa eta heriotza. Ez naiz inolako heroirik. Eta martiriaren zura ez edukitzearen eta izen guztiak kantatzearen lotsa, Montarditeko nekazari gajoak egin zuen bezala. Badaezpada ere desinteresatu-aurpegia ipini eta galdetu zuen, zer gertatzen zaio Elioti?

Deserosoago egiteko, Valentík isilik geratu eta pentsatzeari ekin zion. Zertan pentsatzen ari da. Adarra jotzen ari zait. Dena daki nitaz.

—Zer gertatzen da Eliotekin? –insistitu zuen.

—Oraindik ez dakigu nor den. Inteligentzia Militarrekoek ez dakite nor den. Diote bizitza normala egiten duen norbait dela.

—Zuk eta nik bezala?

—Zuk eta nik bezala. Bai. Apropos, bi koronel interesaturik daude zuk erretratatuak izateko. –Atzamarra altxatuz–: Nik prezioa ipiniko dut. Poblara joan beharko duzu margotzera.

—Mintzatuko gara, ez?

Oriol aterantz joan zen. Handik, serio, itzuli egin zen: Hain garrantzizkoa al da jakitea nor den?

—Nor den nor?

—Eliot.

—Ez badakigu nor den, ezin dugu fusilatu.

Oriolek irribarre egin zuen, bi-biak izaki inteligenteak balira bezala.

—Orain benetan –amaitu zuen esaten, atearen eskutokiari oratuz–. Hain garrantzizkoa al da Eliot ospetsu hori?

—Egin kontu –esan zuen Targak tonu profesionalean–: Eliot harrapatzen dugu eta Pirinio osoko makiaren muntaia guztia apurtzen da.

—Gainbalioa ematen diozu Elioti. Ez dut uste dena pertsona baten menpe egongo denik. Gainera agian fantasma bat da.

—Zer?

—Behar bada Eliot Ossian moduko norbait dela.

—Noren modukoa?

Baina Oriol bulegotik aterea zen, arriskua pasa zelako euforiko eta bere burarekin amorrazita, gehiegi hitz egin zuen ustetan.

Izan ere ez dakit nora heldu nahi duen.

Neskak partsimoniaz murtxikatzen zuen txiklea, nola behiak hausnarrean, eta zuzen begiratzen zion Tinari, bere aurrean semearen bizitzako zati ezezagunak errekuperatu nahi zuen emakume baten ordez estralurtar bat baleuka bezala

—Nik ere ez. Hemen bizi al zen Arnau?

—Anderea, zergatik ez diozu berari galdetzen?

Tina gehien nahasten zuen gauzetariko bat zen halako neska batek anderetzat tratatzea. Oso zahar sentiarazten zuen. Jainkoaren maitasunarren, berrogeita zazpi urte baino ez zeuzkan, sei kilo soberan eta adarrak jarten zizkion gizon bat. Baina berrogeita zazpi ez dira hirurogei edo hirurogeita hamar. Eta nolatan maitemindu ote zen Arnau kokotsean bala bat itsatsita zeraman neska batekin? Ongi, bala bat, zilarrezko perdigoi bat. Eta ilaje gorrizta zeraman, motxa eta lisoa. Eta zilbor metalizatua ere bai. Jordik ikusiko balu drogazaletzat joko zuen gelak ematen zuen usain arraro hura usaindu beharrik gabe. Izan gaitezen irekiak, tira, ba.

—Seguru aski beldurtia naiz.

—Nola aurkitu nauzu?

—Arnauren agendaren bidez. Mireia. Lleida. Monasterioan sartu aurretik zurekin egon zen.

Neskak murtxikatzeari utzi zion eta Tinari iruditu zitzaion oso atzera begiratzen zuela, mendeak atzera, baita hilabete bat atzera ere, agian Arnaurekin azkenik topo egin zuenera arte. Irribarre egin zuen eta Tina zaurituta sentitu zen pentsamendu hartatik at zegoelako. Zementu-zaku banaz kargatutako bi gaztek gurutzatu zuten gela. Batek texano hain pega-pega eginda zeramatzan, azal urdinak ziren eta besteak galtza motx zabalak zeuzkan jantzita eta biek ufaka zihoazen zeramaten zamaren erruz. Marraka egin zuten agur modura eta Tinak gizalegezko buru-mugimendu batekin erantzun zuen. Mireiak teontziaren edukia bi edalontzi zikinetan ezarri zuen eta Tinak bere baitan erabaki zuen ez zuela narda-keinurik egingo. Baina ezpainak edalontzian ipintzean, egin egin zuen.

—Ez daukagu azukrerik –eman zuen aditzera, prestu, Mireiak.

Nolatan Arnau bezalako mutil bat neska harekin interesatu zen?

—Berdin dio. Oso ona dago –gezurretan.

—Guk-geuk hazten dugu lorategian.

—Zoriontzen zaituztet.

Nolatan halako neska bat Arnaurekin interesatu zen?

Beste isiltasun-tarte bat. Mireiak txiklea ahotik atera eta tea dastatu zuen. Ezpainen keinuagatik, puntuan jotzen zuen. Tinak hasperen egin zuen.

—Ados. Soilik jakin nahi dut Arnau zoriontsu ote den.

Galtzetako patrikatik paper bat atera eta Tinari pasatu zion. Zenbaki batzuk. Tinak harrituta begiratu zion.

—Monjeen telefonoa –erantzun zuen–. Laurogei eta hamahiru eta taka-taka-taka. Ave Maria Purisima, esan. Arni, zoriontsu zara?

Tinak laranjaz margotutako mahaian te-edalontzia utzi eta altxatu egin zen.

—Eskerrik asko. Uste nuen...

—Pako Burésen laguna zelako amaitu zuen hemen Arnik. Herrikoa, uste dut.

—Institutoko lagunak izan ziren Sorten. –Tinak neskari begiratu eta irekia izateko ahalegina egin zuen–: Eta non topa dezaket Pako Burés?

—Missing. Haren etxean jende dirudunak dira eta hemen igeltsero-lanean aritu zen gogotik.

Savina etxeko Pako Burés. Ventura zaharraren arabera, Ventureta hil zutenean sendoen barre egin zutenetakoak ziren Buréstarrak.

—Baina hemen bizi al da, Lleidan?

—Nik zer dakit!

Ostera eseri zen Tina, tea trago batez irentsi eta erabat erridukulua sentitu zen esan zuenean, baina zu eta Arnau lagunak izan al zineten?

—Bai. Arni oso legala da. Baina berak ez badu txintik ateratzen nik ere fitxik ez.

—Jakina.

—Errazago da beste batzuekin hitz egitea semearekin baino. Ez da?

—Bai.

Hura aitortuz, pixka bat ziurrago sentitu zen. Hainbeste, non kontraerasora jo zuen.

—Zuk hitz egiten al duzu zure gurasoekin?

—Dilin-dalan. Gai hau ez da gaurko azterketan sartzen.

Doscavallosa Blondel etorbidean utzia zuen, errekatik hurbil. Piztu zuenean, maria-usaina azalean itsatsita zeraman oraindik. Arni, pentsatu zuen intermitentea ipiniz. Eta ni kezkatuta monjeek izena aldatuko ote zioten.

Bere idazmahaian, aparkatuta, Gasull abokatuak sinatzeko pertsonalki eraman zizkion paperak: oniritzia Torreciudadeko santutegia eraikitzeko subentzioa osatzeko milaka ogerlekoen taloia Escrivá de Balaguer monsiñoreari modu zuzenean eta pertsonalki helarazteko, eta eskutitza, non, filigrana askorik gabe, Arias Navarro presidenteak eskaintzen zuen errezepziora joan ez izanagatik desenkusatzen zen. Ezkerrean, gortina gardena zeharkatzea lortzen zuen falangista Fontellesen kaleko argi matizatua. Eta bere aurrean Jazinto, eskuetan paper bat eta kokotsean dardara. Ez zion papera hartu. Pasatzen zen egun bakoitzean are eta zailagoa egiten zitzaion soa finkatzea, dena lausoa zelako, mundua bere begiradapean lotsa guztiak estaltzen tematuko balitz bezala.

—Esan –egin zuen, aldiz, hari begiratu ere egin gabe, baibaitzekien zer zen hura dena.

Erantzun modura, Jazinto Masek mahai gainean pausatu zuen papera. Eskutitz bat zen, komunikazio bat, esaten zuena, Jazinto Mas preziatua, nire aldetik premia mingarriak behartuta ikusten dut nire burua zure Vilabrú familiaren txofer-zerbitzua bazter uztera eta, zure adina kontuan hartuta, aldez aurreko erretiroa proposatzera, bestaldetik ondo merezita daukazuna. Ohartarazpen hau aski aldez aurretik bidaltzen dizut egoitza berri bat bila ahal dezazun denbora-tarte arrazonagarrian. Zure albisteen zain, adeitsuki, sinatua, Erre Gasull, Torenan, mila bederatziehun eta hirurogeita hamalauko martxoaren hogeita hiruan.

Elisendak papera hartu eta bere txoferrari begiratu zion, hogeita hamazazpi urte, bederatzi hilabete eta hamasei egunetan lehen aldiz ikusiko balu bezala. Aurreko aulkian eseri ahal izateko keinua egin zion. Jazintok ezin zuen ulertu eta andereak keinua hitzez lagunduta errepikatu behar izan zuen.

—Jesarri, gizona.

Jazinto jesarri eta anderearen begiak bilatu zituen.

—Zergatik botatzen nauzu?

—Hiru istripu bost hilabetetan, auto bat deseginda, bi epaiketa, hamahiru isun eta oraindik galdetzen didazu zergatik botatzen zaitudan.

—Hogeita hamazazpi urte egon naiz zure zerbitzuan eta kexarik ez.

—Kexatu berria naiz.

—Hori orain da.

—Gauzak horrela dira. Eta ez dira hainbeste urte nire zerbitzura zaudela.

—Donostiatik. Hogeita hamazazpi urte, bederatzi hilabete eta hamazazpi egun.

—Baina begira: zein da drama? Mundu guztiari iristen zaio adina...

—Ez nazazu erretiratu, oraindik, anderea. Egin dezaket... edozein gauza.... Lorezaintza, adibidez.

—Badaukat bat eta aski dut.

—Gravat etxeko zaintzaile izan ahal naiz. Ahal dut...

—Ez, zu erretiratu, zure txanda da-eta. Benetan ez dut ulertzen zergatik jartzen zaren horrela...

—Gaztea naiz: berrogeita hamabost urte dauzkat.

—Nik bizitza osoan ikusi zaitut.

—Beraz bizitza oso horretan zuk agindu didazuna egin dut ezatabaidatu gabe.

—Eta soldata ona jaso duzu horregatik. Eta orain erretiroa hartzen duzu. Bizitzaren legea da.

—Ezin daiteke zu hain gogorra izatea. –Jazinto Masek harridura-aurpegia zeukan–. Ez al duzu ikusten...

—Nik ez dut hain ikaragarri ikusten. Errealitatea onartu beharra daukazu. Erretiratzeko eta merezi duzun atsedena osasun onean baliatzeko adin onean zaude.

—Carmina bezala botatzen nauzu.

—Ez. Erretiroa hartzen duzu eta aski. Mundu guztiak egiten duen bezala.

Jazintok oraindik mahai gainean zegoen eskutitza seinalatu zuen. Irakurri gabe, buruz errezitatu zuen:

—Ohartarazpen hau aski aldez aurretik bidaltzen dizut egoitza berri bat bila ahal dezazun denbora-tarte arrazonagarrian.

—Normala da, hemen ez baduzu lanik egiten.

—Ez daukat nora joan....

—Ez al daukazu arreba bat? Pertsona heldua zara... Eta arazoren bat baldin badaukazu, hitz egin administratzailearekin, ez nirekin.

—Gasull jaunak gereziak mugitzen ditu eta zuri eginarazten dizu...

—Aski da, Jazinto –moztu zuen oso ahots apalean. Baina Jazintok ez zion entzun nahi izan zeren, entzunez gero, hark esandakoa hain barrura sartuko litzaiokeen ordena bihurtuko bailitzaioke eta den-dena ahots emitituarekiko menpekotasuna izango litzateke. Eta zortea zeukan andereak leun hitz egin zuela pentsatuz hark beldurrarazi egongo zuela. Elisenda Vilabrúk ikusi zuen nola gizonak bere zerbitzuan eman omen zituen hogeita hamazazpi urte, bederatzi hilabete eta hamazazpi egunetan sekula igarri ez zion keinu hain zuzen eta errespeturik gabekoarekin seinalatzen zuen.

—…Nahi duena eginarazten dizu. Gereziak eta beste zerbait mugitzen baitu.

—Zer diozu?

—Larrua jotzen dizula.

Elisenda Vilabrú sutan, sumindurik, harrituta eta zaurituta altxatu zen. Jazinto ez zen artegatu eta jarraitu zuen:

—Hainbat urtetan desiratu eta jarraitu ondoren, azkenean larrua jotzen dizu.

—Irten hemendik. –Suminez itotzeko zorioan zegoen–: Zin egiten dizut aztertuko dudala zuri nola kalte egin.

Jazinto Mas ez zen altxatu eta Elisendari, bat-batean, izuaren sunda igaro zitzaion aurpegiaren aurretik.

Atzeman izan balu bezala, hogeita hamasei urte, bederatzi hilabete eta hamazazi eguneko gogo debekatuz kargaturiko ahots erlats, zurbilarekin mintzatu zitzaion gizona. Lehen aldiz urte oso luze haietan, noka egin zion:

—Fidel izan haut bizitza osoan. Obeditu haut, ez dinat diskutitu, hagitz inpertinentzia jasan ditinat, hire eta hire semearen kaka asko garbitu dinat eta beti, beti alboan izan naun nire premia izan dunanean.

Elisendak ez zuen nokagatik protestatu. Zurrun, txoferraren aurrean zutik, izukaitz mantendu zen.

—Horregatik jaso duzu soldata hilero. Inoiz faltetsi al duzu bada?

—Nire bizitza faltetsi izan dinat. Kaka asko jasan eta ezkutatu dinat. Nire bizitzako egun bakoitzean gauzak ikusten, jakiten eta isiltzen. Egunero. Eta ikusiz nola pasa ditunan harritik hainbat gizon. Eta isilduz eta auto barruan kanpaia jotzen, fortunatua nintzela imajinatuz. Hauxe izan da nire bizitza alua.

—Zure lana egiten zenuen.

—Ez, maite hindunan.

Emakumeari arnasa moztu zitzaion Jazinto altxatu eta mahaiari itzulia ematen hasia baitzen, errezitatuz, bizitza faltetsi dinat den-dena hiri egindako zerbitzua izan baita; ez naun ezkondu, ez dinat familia bat osatu, urtetan ez dinat nire arreba ikusi, hire sekretuak eta kapritxoak ezagutu eta jan behar izan ditinat zeren hire zerbitzuan jarri nintzenean sakratuenagatik zin eginarazi hidan heriotzara arte fidel izango nintzainala. Beti izan naun fidel. Zikinkeria asko garbitu dinat hiregatik, Elisenda. Eta orain hik ez naun tarte gehiago mantendu nahi ikusmena eta erreflexuak galtzen ari naizelako. Eta etxetik botatzen naun. Eta salaketa bat balitz bezala, ahots apal-apalean esan zuen, hi ere galtzen ari haiz, ez ahaztu.

—Ez hurbildu gehiago niregana. Konpentsatzeko aginduko diot Gasull jaunari.

—Ez dago ezelango konpentsatziorik: nik etxe honetan hil nahi dinat, nire etxea baita.

Elisendak bere tonua errekuperatu zuen:

—Hil nahi baduk ez berandutu –jaurti zuen.

—Jainkoak madarika haitzala, Elisenda anderea.

—Jainkoa ez eta bromatan ere. –Suminduta–: Adi esaten duzunarekin.

—Familiakoa naun ni. Ezin naun familiatik baztertu.

—Orain bai ikusten dudala sekula ez duzula deus ulertu.

Braustadaz Jazinto Masek hogeita hamahiru urte, bederatzi hilabete eta hamazpi egunez hausnartzen ibili zena egin zuen pentsatu gabe. Hartu, ukitu, alboan eduki, mendean hartu zuten fortunatu gutxi haietako bat izan, adibidez orojakilea, Quique Esteve putakumea bezala; adibidez Nazario Prats gobernadore zibila, baimen bat eskuratzearren; adibidez Lleidako Rafel Agullana, gero legalki jarraitu ziona tratua desegin nahi zuelako eta andereak bortxaketa-salaketarekin mehatxatuz fulminatu zuena; adibidez Gasull, eta baita Santiago jauna bezala ere, haien artean hasieran senarra izan zen bakarra. Nahiz eta harekin ezer gutxi egingo zuten, gorroto baitzioten elkarri. Adibidez Madrileko hainbat eta hainbat ministro, ikusiko banu bezala. Eskuak anderearen eskumuturretan. Anderea zurbildu egin zen bere bizitza osoan ezein morroik ez baitzion era hartara heldu. Haiek ez zuten ez eta ukitu ere. Garrasi

egin nahi zuen baina sinesgabetasunak ez zion egiten utzi. Ezin zen gehiago zurbildu, baina egin egin beharko zukeen, eskumuturretatik heldu ez ezik, besarkatu egin baitzuen, bularra bularraren kontra, indarrez, eta gero ezpainak bilatu zizkion ezpainekin eta anderea kolapsoaren ertzean zegoen, morroi baten eraso toleraezin hura errefuxatuz, eta gizona gonak altxatu eta izterra ukitzera iritsi zen, eta barrutik pentsatzen zuen, azkenean, azkenean.

—Egin txortan nirekin.

—Baina zu...

—Ez: ez naiz ... –ebaki zuen indartsu–. Larru-jotze bat zor didan.

Elisendak ezin zuen oihurik egin ez txisturik jo eta Jazinto Masek bazekien. Gosez hiltzeko gai zen Torenako auzoen ikuskizun bihurtu baino lehen. Horregatik amaitu ahal izan zuen haren gonak igotzen, emakumeak esan zuen, baina zer nahi duzu, eta gizonak besoetan hartu eta besaulkira eraman zuen non hogeita sei urte beranduago Tina eseriko zen galdetzeko, zuk ba al dakizu non aurki ahal dudan Oriolen alaba?

Oraingoan Elisenda izan zen halako harridura bat disimulatu zuena une baten buruan:

—Zein alaba?

—Haren alaba. Maisuak alaba bat izan zuen, ez da?

—Nola dakizu?

Beste une bat non munduko uhalek eskuetatik irrist egin eta defentsarik gabe aurkituko zen. Nola dakizu, zer gertatzen da. Zer nahi du maistra begiluze honek?

—Txortaldi bat –insistitu zuen Jazintok–. Bat zor didan. –Ahots lehorra, biela batekin hitz egingo balu bezala–: Biluz hadi, ene maitea.

Eskumuturrak askatu zizkion. Alkandora, galtzak eta barruko arropa zaharkitua erantzi zituen. Elisendak, zutik, durduzatuta, ez zuen erreakzionatu. Bere txoferrak, gizon fidelak, mutuak, bere bizitzarekin defenditu eta babesten zuen harresiak bere lotsa berpiztua erakusten zion orain. Besaulkian jesarri zen, konortea ia galduta. Beldurra eragin zion Jazintoren soaren erregistro berriak. Hilabete batzuk beranduago, besaulki berberean jesarrita, hain anonimo basatiak irakurtzean sentituko zuena ia beste. Txoferra biluzik ikusi eta ezetz esan zuen buruarekin, urrutiraturik, arin, indiferente.

Aitaren eta nebaren heriotzean buila-garaian zorrozki aukeratutako morroi bat. Vilabrú neskatxaren ziurtasunaz bizitzarekin erantzuten zuen morroi batek, gizon batek, zeinen eguneko hogeita orduak beretzat ziren, orain erabat biluzik, maitasuna erregutzen zion, ezinezko intimitatea, erridukulua, eskatzen zion. Borroka aukeratu zuen orduan:

—Izorra zaitzala arrain batek. Nahiago al duzu horrela?

—Kendu arropa.

—Soilik hiltzen banauzu bortxatu ahalko nauzu.

Altxatu eta Jazintorengana hurbildu zen, nazka gaindituz baina bere posizioa errekuperatuz, eta esan zuen, beraz zuk-zeuk, hil nazazu ala jantzi zaitez. Estal ezazu sabel erridikulu hori eta desagertu etxe honetatik ez baduzu preso sartzea nahi. Nigatik bada, erretiroa ere ez duzu jasoko.

Jazintoren zakila uzkurtu egin zen bere jabeari kontsultatu gabe, konprobatzean gauzak ez zirela aldatu bere eta bere nagusiaren artean.

Ventura atsoak atzamarren mamia bibote gainean ezarri zuen, eta gero, hainbeste denborak horitutako aurpegi haren burdinazko begietan igurtzi.

—Nire Joan. Ez nuen erretratu hau inoiz ikusi. –Alabari so egin zion–: Zuk bai?

—Ez.

—Zer dio? –Atsoak egunkariaren ebakina Tinari pasatu zion eta, hark azaldu arte itxaron ondoren, alabaren kafe-katilua hartu eta begiak itxita usaindu zuen–: Zer dio? –insistitu zuen.

—Dirudiela ezen, Torenako Ventura etxeko Joan Esplandiu bandoleroa, alias Marcó tenientea, Lleidako hirian zelatan ikusia izan dela.

—Zein urtez ari da?

—Mila bederatziehun eta berrogeita hamahiruko maiatzaz.

Ventura atsoak alabari buruz begiratu zuen ezkutuka. Alabak azkartasun berberaz erantzun zion begiradarekin. Tina elkarrizketatik kanpo geratua zen. Sartu nahi izan zuen.

—Zergatik, zer gertatzen da?

—Aita etortzen zen... Ongi... –Tonu lehorrez–: Hobeto ez mintzatzea, amatxo.

—Berrogeita hamar urte pasa dira, laztana. Uste dut jakin daitekeela.

—Ezkutuan etorri ohi zen zuek ikustera, ez da?

—Bi aldiz etorri zen.

—Hiru –esan zuen atsoak memoriatik.

—Ongi, hiru, argi dago –ametitu zuen Cèliak–. Bat, nire neba hil zutenean, Vall d'Arango inbasioa baino pixka bat lehenago eta bestea...

Cèlia Esplandiuk tragoxka kendu zion kafeari. Hitz egin ez hitz egin hausnartzen zegoen. Argazkia seinalatu zuen.

—Armada errepublikanoaren inbasioaren antolakuntzarekin gehien konprometitutako gizonetako bat zen. Baina, Partiduaren gauzengatik, desgaste eta distrakziozko gauzak egitara baztertu zuten. –Beste tragoxka bat kafeari–: Oso etsita zegoen.

—Berehala porrot egin zuen inbasioak.

—Hamar egun iraun zuen –moztu zuen Ventura atsoak, lehor, oraindik disgustuarekin balego bezala–: Baina Joan gerrila-gerra egin behar zela ziotenetarikoa zen eta ez armadarekin aurrez aurreko talka bat. Ez zioten kasurik egin eta, ikusten duzue...

—Anarkisten tesiekin zegoen batik bat. Ez da?

—Uste dut baietz –moztu zuen alabak–: Ez dut asko ulertzen, baina uste dut baietz.

—Eta etorri zeneko beste aldiak?

Amak eta alabak ostera begiratu zioten elkarri. Amak seinale lehorra egin zion Céliari, geldi egoteko, berak ikusiko zuela zer. Leihorantz abiatu eta arra bete ireki zuen leihatila, eta esku bat tartekatu zen. Orduan erabat ireki zuen atsoak. Joan Venturak zaratarik egin gabe,

katutzar batek bezala, salto egin zuen jantoki erdira. Ventura atsoa eta bi neskak, Cèlia eta Rosa, elkarri begira geratu ziren isilik, itxaropentsu eta pixka bat beldurtuta, batik bat Rosa.

—Zure aita da, Rosa.

—Dena kontrolatuta –esan zuen gizonak ahots apalez. Emaztea besarkatu zuen. Besarkada arina, laburregia, eta gero Rosa hartu zuen, amarengana ihes egin ziolarik, eta Cèlia besarkatu eta une bat bularraren kontra estututa eduki zuen, eta Ventura emazteari jeloskortasun-kolpe arraroa etorri zitzaion. Ez ikustearren, sukalderantz itzuli eta platerkada-zopa bero-beroa bete zuen goraino. Ventura jaten hasi zen, hura munduko gauzarik arruntena balitz bezala: armada galtzailearekin joatea, familiari aste-kontu bat zela ziurtatzea, makian sartu eta zonaldeko ezagutza zorrotzagatik berehala balioetsia izatea, urteak baitziren kontrabandista bezala zapaltzen zuela, erresitentzia frantsesarekin kolaboratzea, jaio zen zonaldean operatzen zuen Marcó teniente beldugarria bilakatzea, semea akabatu ziotenean etxekoekin negar egitera beranduegi iristea, eta bederatzi urte gehiago ezer esan gabe egotea, eta egun batean nire bizitzari baimenik eskatu gabe leihotik sartzea eta nik janaria eta konfitatu-plater eder bat harentzat prest edukitzea.

—Hilda zeundela uste nuen –esan zion, eskuak amantalean xukatuz.

—Nik ere bai. –Laztantxo bat egin zion Céliari–: Nola hazi zareten, neskatoak. –Poltsikoan arakatu eta karamelu maiztu bat atera eta Rosari eman zion, baina neskatoa ez zen hartzen ausartu.

—Geratzeko itzultzen al zara?

—Ez. –Alabei begiratu zien–: andratxoak zarete. Zenbat urte dauzkazu? –Rosari.

—Hamalau.

—Kontxo. Hamalau. –Mirestuta–: Hamalau?

—Zergatik etorri zara?

—Esaiozu zure lehengusuari, dena amaitzen denean jakingo dudala konpentsatzen.

—Manelek ez du konpentsaziorik espero. Zergatik etorri zara?

—Targa hiltzeko. Badakit nola egin.

Zeruko jainkoa, pentsatu zuen Ventura atsoak, azkenean iritsi da eguna, zer egin behar dut, maitasunezko Jainkoa, nire gizonari Valentí Targa hiltzen laguntzeko, ostera lo egiten probatzeko nire Joaneten irudia ikusi gabe begi bat bala batek zulatuta eta bestean beldurra ni ez nengoelako bere alboan, karitate handiko nire Jainkoa...

—Nik lagunduko dizut. –Agintekeriaz–: Haurrak, joan lo egitera.

Neskatoak izutuegiak eta itxaropentsuegiak zeuden desobeditzeko indarra edukitzeko. Cèlia aitarengana joan eta besarkatu egin zuen. Lezioa ikasita:

—Hemen izango zara bihar?

—Ez. Baina ez naiz etortzen berandutuko. Orain jadanik ez.

—Eta zu lo egitera joango al zara? –Tina kafea dastatu gabe zegoen orain arte. Oso-oso ona, beste aldian bezala.

Areto-jantoki haren leihotik begiratu zuen Tinak. Betertzez ohartu zen atzean zeukan telebista piztuta zegoela, soinurik gabe. Indianapoliseko bostehun milak ziren orain. Leihotik patioa

bistaratzen zen, lorategi harriztatua, udaberria bazetorrela aldarrikatzen zuen lore askorekin, jabeen istorio goibel guztiak gorabehera. Hondoan, ikuztokia zirudien estalki baten alboan, hormari atxikita, palmaz egindako gurutze moduko bat, listua eta belztua, eta hormaren zokoune batean lore arraro bat, segur aski artifiziala, kolore urdin eta horikoa, arrain exotikoak bezala. Cèliak altxatu eta telebista deskonektatu zuen. Bere tokira itzultzean, leihotik patiorantz begiratu zuen, pentsakor, eta bere baitan errepikatu zuen, une hura bizitzen balego bezala, esan zuten guztia entzun zuela, lotara joan ordez Rosarekin eskaileraburuan eseri zelako. Senar-emazteek esaten zuten guztia, fibra lehortuta baitzeukaten sufrikario-urte askoren erruz, hainbeste, non imajinatu ere ez zuten egiten samur izaten proba zezaketela, eta larritasunez mintzatzen ziren, garrantzitsuago baitzen semearen begiko bala ateratzea bata bestearengan atseden hartzea baino.

—Herrian eskolta darama oraindik.

—Badakigu. Jarraitzen lagundu didate eta ezagutzen ditugu haren ohiturak. –Begietara so egin zion–: Bada une bat non ez daraman eskoltarik.

—Noiz?

—Putetara edo tratu zikinak egitera doanean. Baina orain bakarrik aritu beharko dut.

—Orain beharko duzu inoiz baino laguntza gehiago, Joan.

—Makia... asko aldatu da. Bakoitza bere aldetik dabil. Caracremadaren jendeak lagundu dit.

—Zergatik uzten zaituzte bakarrik?

—Historia pertsonala delako. Ezin dituzte beste bizitzak arriskuan ipini. –Isiltasun-tarte baten ondoren, ahots apalagoan, egia esan zuen–: Nire eskuekin akabatu nahi baitut. Ez dut nahi inork egin dezan.

—Beraz, lagunduko dizut nik –Ventura andereak zalantzarik gabe–: Ezetz esaten badidazu ere. Aurpegira harro begiratu nahi diedalako Burés, Cecilia Báscones eta oraindik Francorekin eta Espainiarekin eta Jainkoaren seme halakoarekin, Falangearekin, aho-beteka ari diren Majals guztiei.

—Hain aztoratuta bazaude ezin didazu lagundu. Bekokia jo eta ahots apalean jarraitu zuen, urteak baitziren soilik apaltxo hitz egin zezakeela–: Hotz jokatu behar duzu.

—Ados. Ez nago aztoratuta. Batere ez. Baina ez dut nahi jende hau zoriontsu izan dadin, ez dut nahi irribarre egin dezan, ez dezaten pentsa irabazi dutela ez eta Valentí Targarengan babes daitezen ez eta bizkar gainetik begira nazaten eurek gaizkile deitzen duten baten emaztea naizelako. Ikus dezaten Targa ez dela ukiezina.

Asko aldatuta zegoen Glòria Carmaniu. Hogeita hamaseian, bere Joan, ia agurrik esan gabe, frontera joan zenean Errepublika defendatzera, Ventura atsoa sukaldean jesartzera mugatu zen, sutondoan, begirada galdua, gerra amai zedin itxarotera. Hiru seme-alaben gosea izan zen kezkatu eta kalera irtenarazi zuena beste emakumeen aurpegi alargunduei so egin eta galdetzera zergatik, san Anbrosioren izenean, zergatik, Jainkorik baldin badago, Torena gizonik gabe geratu den. Eta orain, hainbeste heriotzaren ondoren, zioen, ez dut nahi bizkar gainetik begira nazaten eurek gaizkile deitzen duten baten emaztea naizelako.

—Zuk ez kezkatu malapartatu horiekin. Ez so egin eta joan zurera.

—Ez, herri berean bizi baikara. Ezinezkoa da albo batean uztea. Dagokionean lagunduko dizut. Bururatu ere ez, niri ezetz esatea.

Marcó tenienteak kontraleihoek itsututako leihora begiratu zuen. Segundo batzuetan pentsatu zuen, abiadura osoan, bat-bateko operazio militar baten erdi-erdian balego bezala.

—Oso ondo, ados –esan zuen azkenean–. Bihar goizeko bederatzietan Marés etxera joan eta deitu telefonoz Valentíri. Esan Dauder jaunaren idazkaria zarela.

—Eta kitto?

—Ez: zuk esan hau.

Poltsikotik paper bat atera eta pasatu egin zion.

—Eta zuk?

—Itxaron egingo diot. Diozudana egiten baduzu, bakarrik aterako da etxetik.

Valentí Targa kameraren objektiboari begira zegoen. Argazki bat. Ondo moldatu zuen gorbataren korapiloa. Beste argazki bat, eskuinerantz begira, hildakoengana. Orduan jo zuen aparailuak, telefonoetako Cintetak deia pasatu zion, isilik entzun zuen, zer uste dute, esan zuen, eta kezka-aurpegiarekin eseki zuen. Beste argazki bat, eskuinerantz begiratzen zuelarik.

—Itzuli bihar, lan handia daukat-eta –esan zuen argazkilariak.

Bi minuturen buruan, Sant Pereko kanpandorrean bederatziak jotzen zutelarik, bere aurrean zeukan Elisenda anderea.

—Ezagutzen ez dudan norbaitek Tucari buruz mintzatu nahi du nirekin.

—Zurekin? –harrituta, Elisenda andereak–. Nor?

—Dauder delako bat.

Argazkilariak bulegoko atea ondo itxita itxi arte itxaron zuen Elisenda andeareak. Orduan, suminduta, alkatearengana so egin eta galdetu zion ia destainez, zer esan dizute, zehazki. Bitartean, Ventura etxeko Glòria Carmaniuk Marés berberak zerbitzatutako edalontzi bat ur hartzen zuen. Eztarria lakar zeukan sekula hitz egitea espero ez zuen gizonari esan ondoren Dauder jaunaren idazkaria zela, Lleidakoa, elkarrizketa batera gonbidatzen zuela Sorten ordu bete barru Tucaren jabego legalari buruz mintzatzeko, eta ez bazen ados jartzen, eskandalua aterako zela, eta eseki egin zuen izututa, Valentík baina zer uste dute erantzun eta telefonoa kezka-aurpegiarekin eta eskuinera begira, hildakoengana, eseki baino lehen.

San Antoniko bide zuzeneko bi bihurgune bikiak pasata. Zuzengunearen bukaeran, Pendiseko bihurgunea baino lehen, oso ondo jantzitako gizon batek, bulegari-kartera bat eskuan, bereziki errepide izoztuaren erdian bakarrik, keinu indartsu eta aldi berean amultsua egin zuen Valentík bere Stromberga geldi zezan. Lehiatilatik hurbildu zitzaion.

—Targa jauna?

—Bai.

—Joaquin Dauder naiz.

—Ez al genuen ikusi behar...

—Uzten badidazu... Hotz egiten du, e?

Dauder jauna auto barruan kokatu zen gidariaren alboan.

—Hauxe da tokirik onena Tucari buruz mintzatzeko. Lekukorik gabe.

—Entzun, izan ere ni...

Valentí ez zen sekula iritsi dena nola joan zen jakitera: instant batean giderrari lotuta zegoen eta mila bederatziehun eta hogeita hamabosteko Luger baten aho beltza sudurraren zuloan gorantz tiraka zeukala, eta lasaitasunez eta autoritatez beteriko ahots bat, zeinak zioen, hamar urte itxaron behar izan dut baina aski pazientziarekin. Nire jendeari jarrai diezaieten nahi ez dudanez, istripuz hilko zara: baina nahi dut jakin dezazun hiltzen zarela egun batean Joan Esplandiu, Joan Ventureta nere semea hil zenuelako, eta munduko modurik koldarrenean egin zenuelako.

—Nik ez nuen... nik ez...

—Bizarra daramadan arren, Ventura etxeko Joan naiz.

—Baina izan ere, benetan nik ez...

—Berandu iritsi nintzen hogeita lau ordu baino ez zenizkidalako eman. –Sudurrean gora bultzatu zuen kanoia–. Eta ni prest nengoen entregatzeko nire Joanet salbatzearren.

Valentí gorantz tiratuta, ez zen mugitzen ausartzen, badaezpadako tiro baten beldur. Betertzez begiratzen zion Venturari eta aldian behin tiradizoak ematen zizkien esku-bilurrei.

—Hogeita lau ordu! Uste dut gogo handia zeneukala haur bat hiltzeko –jarraitu zuen Venturak–. Historiara pasatu nahi zenuen. –Pentsamendu mantso eta isil baten ondoren–: Orain hogeita bost urte izango zituen nire Joanek. –Ahotsean malko bat zeukala esan zuen hura–. Eta garbitu zenituen auzoengatik ere hilko zara.

—Ni... giroa zen...

—Eta Fontellesen heriotzagatik. Ahal dudanean hilobiko fletxak kenduko dizkiot. Maisu gajoa.

Targak minez egin zuen hasperen. Besteak kanoiaren presioa apaldu zuen sudurrean.

—Zuk badakizu nik ez nuela zerikusirik izan Vilabrútarren heriotzarekin.

Valentí Targak ez zuen eratzun. Marcó tenienteak gorantz bultzatu zuen pistola.

—Ni Fratzian nengoen Salauko mendatetik fardoak pasatzen eta zuk bazenekien.

Zurrunga izutu moduko zerbait Valentíren erantzun gisara. Joan Venturak bere monologoarekin jarraitu zuen.

—Malavellan egin zenidanagatik egin nahi izan didazu kalte.

—Zu izan zinen kalte egin zenidana, gogoratu ondo.

Caregueren koadrila hain desorientaturik zegoenean ibilbide ohikoetatik kanporatu eta hornitzaileak lapurtzen zizkieten mozorrotuen parte-hartzeagatik, kontrabandoko munduan araurik ez balego bezala, Caregueren lotinant gazteetako batek ordaindu zuen, Altrongo Roia etxeko Valentí Targak, zeinak, bere buruzagiaren ordena esplizituen kontra, hamabi gizon jaitsiarazi zituen oso fardo garestiekin Port Negreko barrankotik, ez baitago mozorroturik ez Jainkorik geldiarazi eta itzuliaraziko nauenik kargatuta noanean. Eta mozorrotuek fardoak

harrapatu, hanka eginarazi eta Caregue hondatu zuten, huraxe baitzen Andorratik inoiz etorrarazi dudan kargarik baliotsuena, eta ahots apalez eta begietan suaz esan zion, Valentí, zu bezalako gizon harroxkoek oka eginarazten didate eta nik ez dut arnasarik hartu nahi nire karga bere potroengatik jokatzen duenaren alboan, beraz bizitza barkatzen dizut baina hiru egun dauzkazu betiko alde egiteko, eta hemendik ikusten bazaitut, Caregue, Altron, Sort edo Trempetik goragoko beste inon, zin egiten dizut san Gerbasio eta san Protasioren izenean, Caregueko Jainkoaren ama, san Jose, aingeru, idi eta mandoaren izenean hilarazi egingo zaitudala, aski baitut mozorrotuekin. Eta Targa gaztea, munduko hoztasun guztiarekin, bizpahiru mendi-egun alferrik galdu zituen Port Negreko barrankoa goitik behera errepasatzen, bigarren eguneko goizaldean, Palancako bordetan, objektu distiratsu bat aurkitu zuen arte, gorrizta, metalikoa, amorruak itxitako eskuan kabitzen zitzaiona. Eta ordu bete eman zuen sakon arnasa hartzen, metalak eskua marka zezan utziz eta hezurrak gorrotoz betetzen. Eta Altronera itzuli zen, bide-ordu asko baitziren eta iluntzean iritsi nahi baitzuen.

—Malavellagatik desegin duzu nire familia –insistitu zuen Venturak.

—Adostasun ekonomikora iritsi ginen –esan ahal izan zuen Valentí Targak. Eta badaezpada ere-: Badut dirua.

Marcó tenienteak atxilotuaren sudurra arakatzeari utzi zion. Pistola patrikan gorde eta kartera ireki zuen.

—Ez daukazu ihesbiderik. Nire semearekin egin zenuen akordio berbera egingo dugu.

—Joan popatik hartzera, Ventura.

—Zu lehenago.

Ohartarazpen notariala edo Tucaren jabetzako ziurtagiririk atera ordez, Ventura etxeko Joanek itxuraz anpolla injektagarri bat estaltzen zuen trapu zuri bat atera zuen. Trapu barruan atzamarren presioaz hautsi eta trapua Valentíren aho eta sudurrera hurbildu zuen, zeina desesperaturik mugitzen baitzen eta, begiak gorrotoz beteta, zioen, gogoratuko zara eta ordainduko didazu, harik eta gehiago ezin eta zuri bihurtu zitzaizkzion arte; orduan burua makurtu eta gozoki lokartu zen. Berehala, Joan Venturak askatu egin zuen, giderrean bermatuta utzi eta, kontuz baina Tori esnezalea pasa arte denbora soberan zeukala zekienaren lasaitasunez, eskuko frenoa askatu eta jauzi egin zuen autotik. Are bultzatu egin behar izan zuen, aldapan egon arren. Strombergen jauzi dotore-dotoreak bere estrategak aurreikusitako jauzia fideltasunez jarraitzen zuela ematen zuen, gauzak ondo prestatzen direnean gertatu ohi direnez, gero Marcó tenieneak prestatu zuen bezala funtzionatzen dutelarik. Parabola bat, lehen talka bat bidrioak apurtuz eta maspilduraz, hiru itzulipurdi, eta oihuz deika zeukan euste-hormaren kontrako musu hilgarria. Talkaren zarata guztia Assua bailarako paisaian diluituta geratu zen. Aldez aurretik aztertutako bidezidorretik alde egin zuen Venturak lasterka, eta hiru minututan txatarraren aurrean agertu zen. Harrapatuta eta zauriz beteta laguntza eskatuz begiratu zion Valentik, eta nor zen oharturik, errukia eskatuz, eta gero berriro lokartuz. Ez zukeen iratzarrita egon beharko, Marcó tenienteak pentsatu zuen bakarra izan zen. Kolpeekin hila beharko zukeen. Besoak autoaren barruan sartu, Valentíren burua aingurri baten pisua haztatzen balego bezala hartu eta, aingurria eskuetan, itzuli-laurden lehorra egin zuen. Uste dut. Aski da. Lo egin dezaket, semetxoa.

Bi minuturen buruan Pendiseko bihurgunetik, san Antoniren zuzengunetik eta infernutik urrutiratzen zuen Guzziaren gainean zegoen. Esne-ontzien kamioia San Antoniren zuzegunetik pasa, Tori aztoratuta jaitsi eta auto bat udal-mugaren azkeneko hormaren kontra tripaz gora

ikusi eta herrira abisu ematera igo zenez geroztik, nik jakin nuen gau hartatik aurrera lasaiago egin nezakeela lo, Joanet gizajoaren irudia begietako azalean josita eduki gabe, Jainkoa, zure borondatean adabakiak jarri dituzu zure gaiztakerian gertatu zenean.

—Ez duzu Jainkoagan sinisten, ez da?

—Sekula egin didaten galderarik ergelena da.

—Zergatik?

—Nola nahi duzu semea hil dioten ama batek Jainkoagan sinistea?

—Barkatu, nik ez nuen nahi...

—Zergatik jakin nahi dituzu hain lurperatuta dauden gauzak? –Céliak.

—Maisua.

—Zer nahi duzu maisuarekin?

—Nola hil zen jakin nahi dut.

—Maisua nola hil zen jakin nahi du.

—Eta jakin nahi dut nola hil zen zure senarra.

—Nire senarra ez da hil. Desagertutako bat da. –Alabaren katilua hartu eta ostera usaindu zuen–: Zortez, denbora asko atera zion Valentíri.

—Galdetu nionean bertan egongo ote zen biharamunean, nire aitak erantzun zuen, ez, baina ez naiz asko luzatuko, jadanik ez.

—Eta horrela izan al zen?

Ventura atsoak alabaren katilu bete berria hartu zuen. Isilik zegoen, Cèliak zioenari adi.

—Egia esan zuen, bai. Berehala itzuli zen, hirugarren aldiz.

Ama eta alaba ez zeuden elkarri begira eta Tina jabetu egin zen. Hirurak, isilik, saminaren inkrustazioak pentsamenduan. Bat-batean, Ventura atsoak bastoiarekin jo zuen lurrean:

—Zer jakin nahi duzu maisu putakumeari buruz?

—Berrogeita hamar urte pasa dira.

—Mila urte pasa arren putakumea izaten jarraituko du: Zer jakin nahi duzu?

—Nola hil zen.

—Poztu egin nintzen esan zenean. Asko. Targaren eskuineko eskua zelako eta haurrak beldurtzen zituelako.

—Ba al dakizu nola hil zen?

—Tomàstarren Ovidi harrapatu zuten maisuak entzun zuelako nola haren semeek eskolan komentatzen zuten aita Barbalen etxean ezkutatzen zela. –Ia arnasa hartu gabe–: Eta harroxkoarena egiten paseatzen zen malapartatuaren uniformearekin.

—Nik soilik jakin nahi dut nola hil zen.

Ventura atsoak burua jaitsi zuen. Agian nekatuta zegoen. Alabak atsoaren esku lehorra hartu eta niri begietara so eginez, ahots apalagoan esan zidan, makien patruila bat haren bila joan zen gau batean. Eta martiri eta faxisten heroi bihurtu zuten. Zopan ere sartuta eduki dugu

hogeita hamar urtetan, Gravat etxeko andere maritxuak, eguna Jainkoari ipurdia miazkatzen pasatzen denak, santu egin nahi izan zuelako.

—Zergatik?

—A. Aberatsen gauzak. Eta lortuko du, konbentzituta nago.

Tinak tentu handiz galdetu zuen ea heriotz haren lekukoren bat ezagutzen zuten, bertan egondako maki batzuk... Orduan atsoa bere absentziatik esnatu zen. Alabaren kafe-katiluaren hondoa begiratuz:

—Makikoak lau gizon ezezagunak. Baina zer gertatu zen jakin nahi baduzu, hitz egin beste aldekoekin.

—Ja... Baina...

—Maisua eta Valentí Targa ez zebiltzan bakarrik. Gutxienez Targaren bi idazkari egon ziren. Ez dakit haien izenik. –Airea hartu zuen–: Udaletxean jakin dezakete.

—Baina amatxo, nola nahi duzu...

—Udaletxean. Targak udaletxeko udaltzain bezala apuntatu zituen. Beraz geuk ordaintzen genien gure borreroei.

—Oriol Fontelles zure aitaren kolaboratzaile zen makian –esan zion Tinak Cèliari–. Eliot esaten zioten.

—Eliot heroi bat izan zen –arrapostu zuen atsoak–: Ez esan astakeriarik.

—Torenako maisua zen Eliot. Oriol Fontelles –errematatu zuen Tinak.

—Atera zaitez etxe honetatik, mesedez.

Nori interesatzen zaio nor zen benetan Oriol Fontelles? Niri. Eta beste inori ez. Agian bere alabari ere bai. Bere semeari, Joani, bizirik balego. Ez da egia: Memoriari ere interesatzen zaio Oriol Fontelles nor izan zen jakitea. Eta asko estimatuko nuke jakitea zergatik maistra gris bat, bularreko arazoekin, seme-arazoekin, senar-arazoekin eta pisu-arazoekin dabilena, heroi zehaztugabe baten, edo agian doilor baten, arrastoa usnatzen duen detektibe bihurtzen ari den, eta zoriona kendu didan emakumea izan behar duena. Zergatik.

+

VALENTÍ TARGA SAU JAUNA

JAUN TXIT AGURGARRIA

TORENAKO ALKATE ETA MUGIMENDUKO BURUZAGIA

PATRIAK, ESKER ONEZ

GB

—Jainkoak barka nazala existitzen bada, baina bihotza alaien egiten ari naizen lapida da. Lehenago egin ahal izan beharko genukeen, Jaumet. Amaitzen ere utziko dizut. Soldaduskara joan aurretik egingo duzun azkena da.

—Ez nazazu Jaumet esan. Eta gutxiago lagunen aurrean. Eta are gutxiago Rosa Venturaren aurrean.

—Ume bat da-eta.

—Ez hainbeste: hamabost egingo ditu.

—Ados. Tori. Lapida zurea da. Latinez eta guzti idatz zenezake, kagoendios.

—Ez al zen Altrongoa?

—Roia etxekoa, bai. Pozik nago, gaur.

—Eta zergatik lur eman zioten Torenan?

—Larre motxean lotu nahiko ditu egin zituen hildakoak.

Bosgarren zatia

KINDERTOTENLIEDER

Askotan pentsatzen dut irten baino ez dutela egin

JOHANN MICHAEL FRIEDRICH RÜKERT

Ordezkaritza guztien harrera bateratua audientzia-gelan. Halako fidakaiztasun bat dago taldeen artean. Zeremonia-maisua adierazten ari da, gutxi gorabehera polonieraz, Aita Santuak bertan dauden guztiak berehala hartuko dituela audientzian: inork ez dezala txalorik egin, ez oihurik, ez eta Aita Santua desesoro ipini dezakeen ezer. Eta, audientzia kolektiboa amaitu orduko, hemengo eskailera honetatik edo erripatik igotzen hasiko direla abisatuta dauden bost senideak Aita Santuaren agur pertsonala jasozteko. Galderaren bat? Ez? Beraz ostera japonieraz eta gero gainerako hizkuntzetan errepikatu zuen, beti ezgaitasun linguistikoko maila altuan.

Nolako hunkidura Aita Santua hain gertutik ikustea, han basilikan futbol-estadium batean ikustea bezalakoa baita. Oso txeratsua eta, begira, zahar samarra da, gajoa. Bai. Apenas ulertzen zaio. Orain japonieraz ari baita. Lerdea dario. Lerdea Básconesi dario.

—Ez da kritikatzeko ez ezer, baina on Josemariaren kanonizazioko festatzarraren ondoren, zerbait distiratsuagoa espero nuen, baina ez dakit.

—Emakumea, ez baita gauza berbera: hauek bost dira kolpez, eta soilik beato egiten dituzte.

—Baina martiriak dira.

—Horretan arrazoi osoa daukazu.

Aita Santuaren diskurtsoaren ondoren, eta senideen txanda iritsita, beldurrez dardar egiten duen eta Aita Santuaren aurrean belauniko jartzen den gizon zimurtu bat pasarazten dute aurrera. Aita Santuaren irribarreagatik adituek igartzen dute hordek eraildako soldadu poloniarraren senidea dela. Agian anaia ttikiren bat. Edo seme bat. Edo iloba. Edo auskalo. Asmatzen ezinezkoa baita, izan ere poloniarren taldekoek ez dute ezer ulergarririk hitz egiten, gizajoak.

Ondoren, monja afrikar bat eta jarraian, aurpegi ilun-iluneko eta adats elurtutako emakume bat, ibilaulki batean eserita eraman behar dutena eta agian hordek eraildako beste monjaren ahizpa edo izebatxoren bat izan daitekeena. Atso paralitikoa aurrean eduki duenean, Aita Santuak besaulkitik jaisteko keinua egin du, baina erroketez eta larruzko txamarraz jantzitako medikuak eragozteko keinu indartsua abiatu du eta Aita Santuak berehala ulertu eta men egin du.

Gero erabat beltzez jantzitako emakume baten txanda izan da, dotorea, argala, beira ilundutako betaurrekoak ipinita eta zilarrezko hebiladun oinetakoak dituena, larru beltzeko poltsa bati indarrez oratuta eta, bere bizitzan bigarren aldiz, gizon baten aurrean belaunikatzen dena. Aita Santua agur-formularen bat esateko makurtzen da baina emakumea ahots apalez mintzatzen hasten zaio eta Aita Santua, hasieran pixka bat urduri, baina gero interesaturik, emakume hark esandakoa entzuten hasten da eta, bi minutuz mintzatu ondoren, bertaratutako guztiak begirada urduriak, desorientatuak, trukatzen hasten dira, izan ere Jainkoaren fedeaz, hori bai ez zegoela aurreikusita. Hiru minutu. Mediku erroketedunak kamarlengoarengana begiratzen du, zeinak begiak zabaltzen dituen, ulertaraziz berak ez dakiela zer gertatzen ari den, eta lau minuturen buruan Aita Santua da mintzo dena eta

mediku erroketedunak urrats batzuk atzeratu behar du haren hitzak ez entzutearren. Haiek hitz eta pitz eta gu hemen agoantatzen. Zein da, andere hau? Ez dakit. Arrebaren bat, seguru. Edo agian alarguna. Bai, izan ere Fontelles beatoak orain zenbait izango zituen, auskalo. Laurogeita bost urte izango zituen gure beatoak. Galdetu mosen Rellari. Nik bai dakidala nor den: retinopatia mikroaneurisma intraretinalekin: isiltzen bazarete esango dizuet nor den.

—Zer egiten du amatxok? Baina zer arraio azaltzen dio?

—Ixo, mundu guztiak entzuten dizu-eta.

—Beti numerotxoa egiten. Esan al zizun ezer?

—Niri? Mendeak dira-eta ez naizela harekin mintzatzen, maitea.

Bost minutu. Elkarrizketa pribatuko bost minutu Aita Santuaren eta Elisenda anderearen artean. Bere eserlekura itzulita, enbaxadoreak errespetu gehiagorekin begiratzen dio. Andereak, betaurreko ilunen atzean, buruan bor-bor dauzkan gauzak gogoratzen ditu, Aita Santuarekiko elkarrizketan azaleratu direnak. Gogoratzen du, Oriol ehortzi zutenean hartutako erabakia, alegia inoiz ez egotea inoren menpe, bere buruaren menpe izan ezik. Edozein izanda prezioa. Eta gogoratzen du ama Benantzia eta haren adoktrinamendu sendoa, alaba, Jainkoak ikastetxeko beste andereñoei baino zailagoa ipini baitizu bizitza, ama gabe hazten ari baitzara. Eta osaba August? Amarik gabe, alabatxoa. Eta horrek esan nahi du behartuta sentitzen naizela haren lekua hartzera holako une batean, hamazazpi urterekin eta kristau bikaina, emazte ona eta familiako ama izateko gogoarekin ikastetxea uzten duzularik, eta gurasoek ezin dizute adierazi hemendik bai, hemendik ez, zure aita... Eta osaba August, ama Benantzia? Ezberdina da, laztana, alaba. Jakin beharra daukazu gizonak zure etsaiak direla solik gauza baten atzetik doazelako eta soilik gauza bat nahi dutelako.

—Zein gauza, ama agurgarria?

—Bat.

—Baina zein.

—Bat. Isiltasuna bisita-gelan. Elisenda Vilabrú (bikain erlijioan, aritmetikan, geografia eta historian; oso ondo hizkuntzan, latinean eta natur zientzietan, eta nahiko josturan eta soinketan) ikaslearen maleta, hanken ondoan, Queten txakurra bezala Sorreko belazean behiak xaxatzen nekatzen denean. Ama Benantziak ez daki nola esan esan behar diona, bera ez baita ama bat. Azkenean, modu lausoan, esaten du, hilekoa.

—Hilekoa? Hilekoa nahi dute? –Elisendak hanka batekin jo zuen lurrean… Beraz, horren opari egingo nieke.

—Ez, alaba, alegia...

Ama Benantzia ez zen moldatu. Baina oso garbi utzi zion gizonengandik defenditzeko bekatutik bezalaxe, maitemindu egin baitezakete daukaten ahots berezi horrekin, are gehiago esku politak eta hondorik gabeko begiak baldin badauzkate, ulertzen didazu, alabatxoa? Eta jakizu ezen, ezkontzako ordua iristen denean, orduan bai izan beharko duzula zure senarra izango denaren aginduekiko esanekoa. Esana utzi zuen Ossó aitak, ezkontzako zoriona hasten dela emazteak, bere senarraren xedeak asetzearren, dagokion menpeko papera onartzen duenean. Ulertuko didazula espero dut, alabatxoa.

Oso gaizki moldatzen ari zen. Horregatik azpimarratu zuen erosoago sentitzen zen alde bat, eta esan zuen emakume zoriontsua emakume piadosoa dela, bere eguneroko otoitzak egiten

dituena, eliza maiz bisitatzen duena, ongia eta gaizkia bereizteko gaitasuna daukana, azkeneko ongia erdietsi nahi duelako. Emandako guztiagatik Jainkoari eskerrak eman eta hari etekina ateratzen saiatzen dena.

—Bekatua al da aberatsa izatea?

—Baina zer diozu, umea? Alderantziz: pertsona aberatsek ongia egin dezakete, beste anai-arrebei lagundu ahal die...

—Eta gamelu eta jostorratzarena?

—Utzi albo batera irudiak: zuk ongia egiteko aukera daukazu eta, hortaz, bilatzeko betebeharra.

Isildu egin ziren. Autoak iritsita egon behar zuen aspalditik eta Elisendari azkura arraroak ateratzen ari zitzaizkion. Begietara so egin zion ama Benantziari. Eta hark ulertu zuen azkenean bukatu zela neska enigmatiko, azkar, isil, gogor, arin, polit, aberats, noble, burgoi eta zuhur haren egonaldia ikastetxean. Oso monja ona izan zitekeen. Gutxienez amanagusi on bat. Ez utzi egin gabe egin behar duzuna, egin behar duzula uste baduzu, esan zion, jakin gabe suz grabatzen ziola, arima samurrean, bizitza osoan argia emango zion dibisa.

Santiago eta Valentí Targa ehortzi ondoren, Marcel ostera internatuan, Elisenda Vilabrú pentsatzen hasi zen Oriolek egindako erretratuaren aurrean. Gobernadore Zibilari agindu bezala, Torenako alkatearen itxarongabeko heriotzaren biharamunean bazegoen boluntario bat haren zeregin publikoan ordezkatzeko. Majals etxeko Pere Casesek boluntario aurkeztu zuen bere burua Elisenda andereak belarritik oratuta, eta diskurtso labur eta oso hunkigarria egin zuen, non bere aurrekoaren, Valentí Targa alkatearen, bertuteak goraipatu eta kudeaketa jarraikorra agindu zuen; Torreko jaitsieran etxe berriak egiteko posibilitateak aurreratuz kakaztu nahi izan zuen, baina Elisenda anderearen begirada batek, oharataraziz mintzatuko zirela Torenan egin beharko zenaz, berak bazituela planak, diskurtsoaren norabidea azkar asko aldarazi zion eta amaitu zuen esaten bera beti egongo zela udalerriaren, probintziaren eta Espainiaren zerbitzuan, eta begiak dirdaika esan zuen, vivaespaña, ai, viva Franco eta arribaespaña.

Gauza bat konponduta. Orain, Nazario Prats jauna.

—Nire senar maitearen ehorzketa-egunean esan nizun zegokion partea nahi dudala.

—Zerena?

Lleidako Gobernadore Zibilean gobernadorearen audientzien-ordena aldatu behar izan zuten, emakume bat benetan ederra baina pazientzia gutxikoa Nazario jaunaren bulegoan sartu zelako salaketak eta haren adiskidetasuna Navarrete ministroarekin aipatuz, eta Nazario jaunak pasarazi egin zuen, eta badira bi ordu berriketan ari direla. Hartu andere honen izena, oso garrantzitsua izan behar du-eta.

—Esne amerikarreko hogeita hamar tona Malta irlara hotzikara ematen duen prezioaren truke enbarkatzeagatik zegokion partea.

—Arazo bat daukat, anderea…

Alargundu denetik hobea dagoela kenduta, ez dakit. Hementxe bertan joko nuke berarekin.

—Zein?

—Agustin Rojas Pernera.

Mila bederatziehun eta berrogeita hamairuko asteazken-goizeko hamaiketan, Lleidako gobernadore zibilaren bulegoan, Caudilloa horman, Jose Antonioren alboan, eta espazioa dotoreago egiten zuten kortina ilunak balkoian, Elisenda Vilabrú andereak demostratu zuen, eta espero dut hartara ez itzuli behar izatea, berak esandakoa betebeharrekoa zela beti. Nazario jaunaren begirada urduriaren aurrean telefonoa hartu eta konexio zuzena eskatu zuen Navarrete ministroarekin eta bi minuturen bueltan Lleidako gobernadore zibil artega batek entzuten zuen nola emakumeak esaten zuen, kaixo, Ricardo, nola zaude. Bai, eskerrik asko. Bai, itxarongabeko heriotza, Santiago gajoa. Zuri komentatu nahi nizun, alegia... Bai, erdi lotuta utzi zuen arazo bat, bai. Bai. Eragozpen larria. Bai. Agustín Rojas Pernera, zonaldeko delegatua Sindikatu Bertikalaren izenean Lleidako probintzian. Bada ni kaltetzen ari da. Eskerrik asko, Ricardo. Zer egiten du Felisak? Ze ondo. Nik ere gabesten zaituztet. Pasatu da ba denbora Donostiatik, baina nik oraindik bihotzean zauzkatet. Datorren astean Madrilen egongo naiz, bai. Albisteen zain nago. Agur, Ricardo.

Eseki egin zuen, erlojuari begiratu zion, eta gero Nazario Prats gobernadore zibilari. Orduan esan zuen, hemendik ordu erdira dena konponduta dagoela esango digute. Ehuneko hirurogeia niretzat. Nire parte-hartzerik gabe ezer gabe geratuko zinateke.

Gobernadorearen esku biguna eta izerditsua mahai gainean, non, errauts-ontzi aski beteta ez ezik, soilik zilarrezko erloju bikain bat zegoen, denboraren joanari harro desafiatzen zion bi elefante haserreen tronpek eutsita.

—Zenbat ministro ezagutzen dituzu, Vilabrú anderea?

—Ministroak eta ministro izango direnak. Ehuneko hirurogeita bostarekin ados?

Ordu erdiaren buruan Sindikatu Bertikaleko Lleidarako ordezkariak, Agustin Rojas Pernera jaunak, Nazario Jaunari desolaturik deitzen zion, eta zioen, gizona, adiskidea, zein gaizkiulertze ikaragarria. Argi dago zurea dena zurea dela. Argi dago Vilabrú andereak eskubidea daukala justiziaz. Arratsaldean, dena konponduta: soilik ehuneko hirua jasoko dut komisioan... Baina Elisenda andereak, beste aparailu batetik entzunez, esan zuen, Agustin, hori ez da agindu dizutena. Ez komisiorik ez deus, ala arauzko salaketa egingo dut zure ministroaren aurrean.

Ez komisiorik ez deus. Eta hirurogeita hamarra beretzat. Mila bederatziheun eta berrogeita hamahiruko martxo haren hogeita hamar harrezkeroztik, berrogei urte egiteko zorian, Elisenda Vilabrúk bazekien, denetarako prest egotekotan, bizitzan aurrera egiteko estiloa, tonua eta modua aurkitu zuela. Ehiztari on baten zuhurtziarekin, hilabete batzuk itxaron zituen Dauder haren aukera iritsi zain. Dena lasai zegoela ziurtatu zuenean, Tuca Negrako hari-mutur guztiak lotzen saiatu zen.

—Eskudirutan ordaintzen dut –esan zuen.

Parache etxeko Ignasirentzat arazoa zen Elisenda andereak prezioa asko diskutitu gabe erosten bazuen, berak bistaratzen ez zekien negozioa ikusten zuelako zela, eta horrek senetik ateratzen zuen. Tucaren zati on bat saldu zuen gogoaren kontra, mesfidantza-keinu batekin. Hiru jabe gehiagok keinu berbera egin zuten baina haiek ere eskua jarri zuten. Bosgarrena Rafael Agullana zen, Burésen lehengusua, ezizenez Burot, aspaldi Lleidan bizi zena.

—Ez.

—Ondo ordaintzen dizut.

—Zer egin nahi duzu? Mendi batek ez du ezertarako balio. –Beltzez jantzita ederrago dago emakume hau.

—Nik erosiko dizut.

—Egin nahi duzun horretan, edozer izanda ere, erdi bana joango gara.

—Berrogei urte? Ez dut uste dauzkanik. Halako dotorezia.

Buroten bulegoa gobernadorearena ez beste handia baina hobeto argiztatuta zegoen, sekula ez irekitzera kondenatutako hiru liburu-lerro eta guzti. Emakumeak hatza pasatu zuen mahaitik, hauts-arrastoaren bila dabilenak bezala. Buroti begietara so egin eta hark eutsi egin zion soari. Esan zitekeen erdi bana joan zitezkeela baina ez mutilak zioen hartan. Oso kalkulatutako prozesua izan zen. Sekula ez utzi egin gabe egin behar duzuna eta egin behar duzula sinisten duzuna. Agullanaren abokatu-bulegoan, Lleidako Kontseilari-etxe aurrean,

andereak irribarre egin zion bere biktimari, altxatu eta balkoitzarraren leihotik begiratu zuen, lepotik kate bat kendu eta poltsan gorde zuen uso-aldrak behatzen zituelarik, eta orduan, aldez aurreko abisurik gabe, harengana itzuli eta brusa beltza askatu zuen. Beltza zen barruko arropa ere. Oso mugimendu trebearekin bular zuri-zuria liberatu eta titiburuak seinalatu egin zuen. Burotek sustoa irentsi eta angurriak bezalako begiak zabaldu zituen eta ezin izan zuen bista titi-buru arrosa hartatik aldendu. Denbora askoren buruan, Agullanak aterantz begiratu zuen, ostera bularrari, ateari, beso bat altxatu zuen seinalatuz esateko-edo... baina andereak aho apalez esan zion, ez itxi, dibertigarriagoa da horrela, eta gizona titibururantz abiatu zen gehiago ezin zuelako eta andereak gozoki laztandu zuen, baibaitzekien eskuaren igurtzi bakoitzeko Agullanaren burusoiltasun hasiberrian, hektarea bat zela beretzat.

Kolpetxo arin batzuk entzun zituzten emakumea beste bularra borrokatokira ateratzeko ahaleginean zegoela. Patrikan zeukala ziurtatzen zuen keinu autoritario batekin, Agullanari esan zion egin zezala egin beharrekoa, eta hark esan zuen, aurrera, Carme. Emakumeak jaka soineratu eta dokumentuen dosierrarekin estali zuen desordena.

Irteeretako karpeta ekarri zion Carmek eta hark bere hezurrak madarikatu zituen ordenatu ziolako sar zitzala prestatu orduko. Behin idazkaria kanpoan, Elisendak mahai gainean utzi zuen dosierra. Bular igurtzia agerian, zain zegoen.

—Ez dut saltzen –esan zuen Agullanak. Eta emakumea hainbeste ziurtasunarekin hasi zen barrezka ezen Agullana izutu egin zen.

—Leku gehiago dauzkazu esploratzeko –esan zion, soina seinalatuz.

—Hemen ezinezkoa da. Ez naiz kontzentratzen.

Elisenda andereak poltsa ireki eta giltza bat atera zuen, zenbakiaren plakarekin eta hotelaren izenarekin. Brusa atondu, altxatu eta itzuli gabe bazihoalarik, esan zion.

—Hemendi ordu erdira.

Hoteleko gela bedeinkatuan, Rafel Agullanak bere bizitzako arratsalderik suhartsuena bizi izan zuen, ez Montsenteko gailurra egiten ez Altarsko muinoa, baizik Torenako Gravat etxeko Elisenda anderearen gorputz legendarioa ordura arte iristezina, eta hark ongi balio zuen Pardinereko basoa eta Grossa jaitsiera, ondo ordainduak. Eta gehiago jarriko zukeen, edukiz gero, Rafel Agullana gizon odolberokoa baitzen eta Elisendaren bi bularrak estutzen zituelarik munduko jabea zela uste zuen, bi hemisferioetakoa, emakume singular hura lantzen ari zen prestigioarena, eta hark zerbait txarra izatekotan, zen, ezagunek ez ziotela sinistuko.

Ostera bulegoan zeudelarik operazioa formalizatzeko, Agullana erdi izutu egin zen eta ostera esan zuen ezin zuela saldu, emaztearekin kontsultatu behar zuela lehenago.

—Ez. Zuk orain saltzen didazu ala ni izango naiz zure emazteari komentatuko diona.

—Nik ere hitz egin dezaket.

—Nik ez daukat senarrik lelotxoarekin joan ahal izateko.

Arratsalde hartan bertan itxi zen operazioa eta handik bertatik notarioarekin lotu zuten hitzordua.

Andereak bulegoa utzi zuenean Rafel Agullanak ordu laurden bat egon behar izan zuen aterantz begira, alteratuta, begiak oso urrun begiratuz, pentsatuz zer egin zuen ondo, zer txarto, zerk pena merezi izan zuen eta, batik bat, arratsalde hartan zer gertatu zen. Eszenifikazioa akasgabea izan zen. Gravat etxera deitu zituen, terreno propiora. Zerbitzuak,

Bibiana faltetsiaren Ció ondorengoaren aginduetara, bi egun eman zituen ez zegoen hautsa kentzen. Valentíri eginarazi zion erliebeko mapa eramanarazi zuen Katastroaren gustukoa izan zen aitzakiarekin, alegia, zonaldeko morfologiaren ezagutza erabatekoak zeukan garrantzia, makien presentziak, hau gure artean, konpondu gabe dagoelarik, eta kartografo arrakastasu eta aurrera egiteko gogoa zeukan bat alokatu zuen. Ardangela ere bisitatu zuen Ciórekin, konprobatzeko inork ez zituela bost Chateau-neuf botilak edan, gonbidatuentzako bost gela atonarazi zituen badaezpada ere eta, hiru egun baino geratzen ez zirenean, itzalitako su-txikiaren aurrean jesarri zen suediarren etorrera itxaroten.

Urruti zeukan soa Elisenda andereak, paisaia aurrean baleuka bezala, kartografoak Tuca Negra mendi osoko jabegoaren muga zehatzak azaltzen zizkiolarik kanal honetaraino, paperak konprobatzea onartu zuen, Gasull abokatuak, anderearen nazioarteko gauzetan estreinatzen zelako oso urduri, erosleei jabegoaren titulu guztiak erakusten zizkienean, ostera infinitura begiratu zuen abokatuak ordainketaren baimenak azaldu zituenean, eta zoriontsu sentitu zen, osotuta, zurituta, herr Ebqvistek prezio hura arrazonagarria jotzen zutela adierazi zuenean. Sal-erosketaren unean herrialdeko fortuna handietako bat bezala kontsolidatu ez ezik, aski trebezia izan zuen Parache etxeko Ignasik eta Rafael Agullanak arrakastarik gabe saiatutako taktikari jarraitzeko, eta behar bada lehen otu ez zitzaiona:

—Esaiezu prest nagoela prezioaren zati on bat alboratzeko negozioan parte-hartzearen truke.

—Ba al dakizu zer egin nahi duten?

—Eski-estazio bat.

—Hondamendia dena. Jaun hauek uste dute hemen jendeak, Suedian bezala, eskiarekiko zaletasuna daukala.

—Muga zaitez nire proposamena egitera –esan zion abokatu gazteari, suediarrei irribarre egiten zien bitartean–. Pentsatzeaz eta erabakitzeaz ni arduratzen naiz.

Tea hartzean, suediarrek goraipatu zutena haren aroma eta koloreagatik, denetaz mintzaztu ziren itxi berri zutenaz izan ezik: Tuca Negrako mendi osoaren salmenta eta Elisenda Vilabrú Ramisen parte-hartzea bere izenean, Frölund-Pyrenéerna Korporationeko akzionisten artean, zati eder batekin. Gasull letratua, eskuan gaileta bat, interpretearena egiten saiatzen zebilen. Anderea liluragarri egon zen, beti neurritsu, beti hain tinko gazte izan arren, berrogei ere ez baitzeuzkan, baina izotzezkoa, adieraziz pentsatzea eta erabakitzea nire kontu, hain urruneko, hain jainkosa, ez da konturatzen bere aurrean nagoela erabilgarri izateko edozer gauza egiteko prest. Harengatik legea urratzeko ere prest nengoke, Jainkoak gorde nazala. Hogeita hemeretzi urte eta erregina bat da. Noakeen tokira noala, erregina bat da. Nire erregina. Beti izango natzaizu fidel.

Internatuko zuzendariaren deia benetako oztopoa izan zen. Herr Enqvist eta herr Ahnlund Gravat etxean lotan gelditzeko aukera eta biharamunean iritsaraziko zuten taxi bat aireportura joateko haztatzen ari zirelarik, jo ta Pol andereak deitu zuen semearen portaera iheskor, arraro, azken buru kezkagarriagatik pixka bat arduratuta. Ez du deus egiten, ez du lanik egiten, ez du jolastu nahi eta eguna leihotik begira ematen du, azken finean, ezer egin gabe.

—Eta zer gomendatzen didazu?

—Oraintxe bertan haren bila etortzea.

—Barkatu, baina ni orain...

—Ikusi beharra daukagu... Azken finean asko maite zuen bere aitak, ez da?

—Bai, jakina.

—Agian horrek aurreikusi baino eragin handiagoa dauka.

—Agian bai. Zergatik ez didazu harekin hitz egiten uzten?

—Orain ez dago hemen. Bakarrik nago bulegoan.

Zuzendariaren hitzak baiesteko, Elisendak gizon baten eztula entzun zuen telefono-hariaren bestaldean.

—Oso ongi –esan zuen, aire nekatuz. Arduratuko naiz.

Gelara itzulitakoan, betertzez jabetu zen egoeraz: suediarrak bertan geldizten ziren eta Gasullek presa zeukan.

—Gasull.

Abokatuak kapela hartzeko keinua geldiarazi zuen.

—Mesede larri eta oso garrantzitsua egin beharko zenidake.

Gasull letratuaren begiak argitu egin ziren pentsatuz zein izan zitekeen Hark agintzen zion misio berria.

—Ez, soilik esaten nizun zuk zerbaitez ohartu al zaren jakiteko.

—Nik ez dakit ezer.

Beste hamar kilometro isilik. Gasullen Fiat Balilla arazorik gabe zihoan, abokatuak saihets ezin zituen zuloetan supentsioko balaztei sufriaraziz. Marcel ostera ongi eseri zen atzeko eserlekuan.

—Torenan bizi nahi dut –esan zuen.

—Barkatu?

—Torenan bizi nahi dudala. Ikastetxean aspertu egiten naiz, eta Bartzelonan ere bai.

—Ea nekazari izateko jaio zaren –ausartu zen Gasull broma egiten.

—Eta zer.

—Ez, ezer ez. Baina zein eskolatara joango zinake, Marcel?

—Herrikora. Zergatik galdetu didazu amatxok jaunak gonbidatzen ote dituen afaltzera?

—Jaunak eta andereak, esan nahi dut.

—Zergatik jakin nahi duzu?

—Bada... –Oso zulo apropos batek astindu zituen eta erantzuna pixka bat pentsatzeko denbora eman zion–. Bada... Bada lan gehiegi egiten duelako. Nik esaten diot garaiz joan beharko lukeela lotara baina...

—Amatxok ez du lan gehigi egiten. Alderantziz, uste dut ez duela lan askorik egiten.

—Gasullek atzeranzko ispilutik begiratu zion mutikoari. Ez zuen nahi elkarrizketa hondatu zedin.

—Zergatik?

—Soilik telefonoz eta jendearekin mintzatzen da egongelan.

—Moduak eta moduak daude lan egiteko. Nahi al duzu gaseosa bat?

—Bai.

Autoak Franqueseseko sarreran frenatu zuen. Mutikoak atseginez edan eta aurrerantz begiratzen zuelarik, Gasullen gorputz ikusezina zeharkatuz, berriro lur harrarazi egin nahi izan zion abokatuak.

—Zer gertatzen da? Aitagatik triste zaudela?

—Bo. Zergatik?

—Pol andereak dio agian...

—Pol anderea ergel bat da.

—Zergatik?

—Ez dit atsekaberik sortzen aita hilik izateak. Ez ninduen maite...

—Hori ez dakizu.

Gasull abokatua, gazteegia oraindik ez arduratzeko, hunkitu egin zen pentsatzean, segun eta nola, mutikoaren aitarena egiten ari zela, Santiagok egiten zuena baino gehiago. Anderearen semearen aitarena egiten ari zen.

—Jakina badakidala. Modu arraroan begiratzen ninduen. –Marcelek tragoxka kendu zion gaseosari: Zergatik ez goaz Torenara?

—Ez. Gaur ez da egokia han umeak egotea. Lanean ari dira.

—Eta zer?

—Amatxok esan du nik zu Bartzelonara eramateko eta Bartzelonara eramango zaitut. Suposatzen dut ez diozula disgusturik eman nahi.

—Iruditzen zait amatxok ez dakiela existitzen naizela.

Gasull letratuak asko sentitu zuen bat-batean aingeru bat pasatu izana Franqueseseko tabernatik, zeren oso ondo ulertu baitzen mutikoaren esaldi mindua, hain arazki ezen berak esana zela pentsatu izan baitzuen.

Mila bederatziehun eta borrogeita hamazazpi, Tuca Negrako estazioaren inaugurazio distiratsutik egun gutxira, hamahiru urte baino pixka bat gehiago ziren Oriol Fontelles Jainkoaren Zerbitzaria martirioz hila zela. Urgelleko Seuko gotzain Txit Agurgarriak aukeratutako eguna zen, ziurtatzeko, gure Jainkoaren Zerbitzariaren bertuteak aski zirela Elizako Doatsu aldarrikatzeko.

Seun egin zen ekitaldi solemnea, fidel asko bertaraturik, Torena herriko indar bizien ordezkaritza ugariarekin batera, Assua bailarako toki maitagarria hura, Pallars bailara maitagarria, Lleidako eskualde maitagarria, Catalunya langile eta maitagarria, non gaur ezkeroztik Oriol Fontelles Doatsua denaren martirioan amaitu zen tragedia gertatu zen.

Egunkariek esan ez zutena zen bertaratuen artean katedraleko kalonge August Vilabrú zientifiko agurgarri eta gizon santua faltetsi zitekeela, lehen instantzian, aipatutako Doatsua aldarera igotzearen bultzatzaileetako bat bera.

—Bai, nolatan ez da etorri?

—Ingresatu behar izan dute.

—Jainkoaren Ama. Eta zer dauka?

August Vilabrúk izan zuena zen bere iloba Elisenda Vilabrú Ramis anderearekin izango zuen lehen eztabaida serioa. Trapu zikinak aireratzea ez da ona osasunerako.

Trapu zikinak ziren ohartarazpen judizial bat dokumentu erantsiarekin. Ohartarazpenak jakinarazten zuen ezen, bere bezeroaren heriotzaz geroztik lau urteko muga gainditua, Lleidako Coma-Garriga bulegoak adierazitako eskuetara iritsaratzen zuela dokumentu atxikia. Adierazitako eskuek, August Vilabrúrenak alegia, dokumentu atxikia, erreko balu bezala, gotzaindegiko bisita-gelako mahai gainean utzi zuten. Elisendak hartu egin zuen, eskuek dardar egin ez zezan jagonez, eta irakurtzen hasi zen. Berehala errekonozitu zuen Valentí Targaren hizkera primitiboa eta ulertu zuen ezen bere Goelak jokaladi hura gordeta zeukala gauza askogatiko eta Oriolen eta bere artean egondako maitasunagatiko mendeku gisara. Elisendak gehien miresten zuena zen Valentí kapaz izana bera hildakoen erresuman egongo zenean aktibatuko zen zerbait planifikatzeko. Dokumentu hartan ziurtatzen zena zen berak eta Elisenda Vilabrú andereak Oriol Fontellesen heriotzari buruz emandako testigantzaren baliorik eza. Nire testigantza ukatzen dut, deklaratzeko orduan egindako zina sakratua izan zen arren. Makirik ez, martiritzarik ez, sagrariorik ez. Oriol Fontelles adultero bipila zen, aipatutako Elisenda anderearen maitalea eta makien soldatapeko hiltzailea, Valentí Targa jaunaren beraren bizitzaren aurka atentatu zuena, hau da, dokumentu honen sinatzailearen aurka. Eta emakumea, beti hain andere eta hain halako, zakil-xurgatzaile hutsa.

—Entzun, jauna; horrek esan nahi du ez genukeela...

—Inolaz ere ez: zakil-xurgatzaile hutsa, esaten nabilen bezala. Edo nire negozio guztiak beste notaritza-bulego batera eramango ditut, zuk-zeuk.

Zakil-xurgatzailea. Eta nire borondatea da ezen dokumentu hau ezereztu gabe hiltzen banaiz, Vilabrú kalongeari itzulia izan dadila nire heriotzatik lau urtera.

—Nire transitotik, ipiniko dugu.

—Ondo iruditzen zait. Hiltzeko modu dotoreagoa da. Eta oraindik gauza gehiago gehitu nahiko nituzke.

—Adibidez, Targa jauna?

—Fontelles horren heriotzaren benetako ezaugarriak.

—Zuk ezagutzen al dituzu?

—Jakina.

Isiltasuna. Garriga notarioa Sant Jon plazako argitasunera begira zegoen, zeina oso itzalita iristen zitzaion gortinetatik barrena. Bere bezeroa behatu zuen, oraindik zutik baitzegoen, bere aurrean, inpazientzia-airearekin.

—Nik gorde egingo nituzke.

—Zergatik?

—Zuhurtziagatik.

—Hau argitara ateratzen bada ni hilda egongo naizelako izango da. Esan nahi dut zenduta izango naizela.

—Eta zer?

—Zuhurtzia ipurtzulotik pasatzen dudala. Ez dakit argi geratu ote den.

—Nahi duzun bezala, baina zein errebelazio egiten duzun, jakin behar duzu gauza zigorgarriak salatzera behartuta nagoela hipotetikoki nire belarrietara iritsiz gero.

—Eta sekretu profesionala?

—Baditu bere mugak.

—Beraz horrela beste momentu baterako gordetzen dut.

—Askoz hobeto, Targa jauna.

Lleida, mila bederatziheun eta berrogeita hamar. Sinatuta, Valentí Targa Sau.

Elisendak mahaira itzuli zuen papera. Nire Goelak oin azpian moztu nahi zidan belarra. Nire Goela Oriolek denon memorian txoko bat edukitzeko nire borondatearen jeloskor zegoen. Orduan airea hartu eta esan zuen, Valentí Targa nirekin eta nire amets guztiekin etsaitu zen ezetza eman nionean, ez nuela inolako salerosketa haragizkorik onartu nahi. Hauxe da haren mendekua, osaba. Ezin diozu sinistu.

Elisendak osabari begietara so egin gabe esan zuen hura. Eta amaitzean, debotoki belaunikatu zen, hantxe bertan, bisita-gelaren erdi-erdian, eskuan muin eman eta esan zion, aita, aitortza eskatzen dut, eta mosen August jaunak ez zuen garaiz erreakzionatzen jakin, erdi harrituta, erdizka kuriositateak jota bere ilobaren jarrerarekin, erdizka ezen berari bai kostatzen zitzaiola erabakiak hartzea. Arima egarritu hari absoluzioa eman arte ez zen ohartu bere osasunari amaiera emango zion segada batean eroria zela. Izan ere Elisendak esatea, bai aita, Oriol Fontelles, duela hamar urte Torenako maisua, nire maitalea izan zen hilabete gutxi labur baina intentsotan, segada arriskutsua zen. Pasioz maite genuen elkar, aita, jarraitu zuen esaten. Eta ahots apalagoan aitortzaz aldarrikatu zuen, aitor dut adulterioa egin nuela, aita.

—Eta damu zara?

Nola nahi izan dezake inork ni Oriolekiko sentitzen nuen maitasunaz inoiz damutzea?

—Bai, aita.

Penitentzia gogorra inposatu ondoren, mosen August absoluzioaren formula errezitatzen hasi zen eta ego te absolvo a peccatis tuis in nomine... puntura iritsita, isildu egin zen. Andereak burua altxatu eta begiratu egin zion, kezkati.

—Niri segada prestatzen ari zara.

—Ni?

—Zer gertatu zen egiatan Oriol Fontellesen heriotza-egunean?

—Kasuaren aktetan jasota geratu da eta zuk hamaika aldiz irakurri duzu. Erredaktatzaile nagusia zara.

—Jainkoak madarika zaitzala.

—Osaba! –Hotzikaratuta. Tonu dramatikoan –: Injustua zara. Oso injustua.

—Jainkoak madarika zaitzala aitortzan adierazi didazulako.

Isildu egin zen Elisenda. Baitarapen-keinu debotoa egin zuen. Sekula ez utzi egin gabe egin behar duzuna, egin behar duzula sinesten baduzu. Gelaren erdian belauniko, ikusi zuen nola mosen Agust jauna hasperen egin et zailtasunez altxatzen zen.

—Propio egin duzu nire ahoa ixteko. –Urrats batzuk egin zituen gelan zehar, piztia hesitua bezala.– : Ezin dizut absoluzioa eman.

—Ematen hasi zinen.

—Ezin dut egin.

Elisendak, belauniko-jarrera utzi gabe, begiak itxita, esan zuen:

—Gerta ala gerta, aitortzan entzun nauzu.

—Aitortza amaitu gabe dago. Oraindik ez zaitut absolbitu.

—Kode Kanonikoaren zortziehun eta laurogeita seigarren artikulua.

—Zer?

—Aitortzaileak ezin badu demostratu penintentearen jarrera gaiztoa, eta honek absoluzioa eskatzen badu, hark ezin dio ez ukatu ez atzeratu.

Isiltasuna. Izatez memoriaz errezitatu zuen hamaika aldiz errepasatu zuena, eta ez zen erabat fidel izan jatorrizkoarekin, baina uste zuen mosen Augustek ez zuela iturrietara joko. Insistitu egin zuen.

—Kodeak dio demostratu. Ez du esaten batek ideia bat baldin badauka.

—Zure doinura dantzarazi nahi nauzu, ez da?

—Demostratu al dezakezu fede txarrez jokatu dudala?

Ia mende baten iraupenezko oso minutu luze bat, orain bi-biak zutik, harik eta mosen Augustek, ahotsa hautsita, esan zuen arte, ego te absolvo a peccatis tuis in nomine Patris et Filii et Spiritus Sancti, amen. Behartzen zaitut kausaren postulatzaileari dakizuna azaltzera. Hari esatera bihar Doatsu deklaratuko duten pertsona adulterioan bizi zen gizon bat zela eta seguru aski sinestuna ere ez zena.

—Valentí Targaren ohar postumoa gezurrez beteta dago. Nik nahi dut jendeak Oriol, bera izan zen pertsona on bat bezala gogora dezala.

—Horretarako ez da santu egin beharrik.

—Mundu guztiaren gogorapenean bizi dadila nahi dut. Mundu guztiarenean?

—Puta gaiztoa zara nire iloba zaren arren.

Mosen August jaunak, esan zuenaz izututa, aitaren egin eta gela utzi zuen, dardarka, durduzatuta, urrats erabakituz, bere lehen enboliara bidean.

Disgustu harrezkeroztik hamabost egunera, Bibianak Caterinaren laguntzarekin zabaltzen ari zen izara lurrera erortzen utzi eta neskameari esan zion, arin, mesedez joan andereari deitzera.

Elisenda zabaltzara iritsi zenean, Bibiana lurrean etzanda zegoen izara umelean bilduta hilator bat balitz bezala, eta esan zuen, laztana, asko sentizen dudana da ez duzula sekula zoriontsu izaten ikasiko eta horregatik molestatzen nau hiltzeak, ez baitzaitut bakarrik utzi nahi, baina azkenean atsedena izango dut. Badakizu kalte handia egiten duela helduko diren gaitzak ezagutu eta saihesteko ezer egiterik ez edukitzeak?

—Caterina, abisatu medikuari lasterka etor dadila. Arin!

Ez saiatu, laztana, nik baibaitakit banoala, medikuarekin ala gabe. Hainbat aldiz esan nahi izan dizut ez egiteko egiatan egin gura zenuenn hura... Maiz ez nintzen ausartzen banekielako debekatu egingo zenidala inolako aholkurik ematea, ahal denik eta txikiena izan arren. Hala ere, askotan egin zenidan kasu. Laztana, nire alaba izan zara niretzat eta beti sinistu izan dut ni erditu nintzela zutaz eta ez Pilar anderea.

—Ai, Jainkoarren, Bibiana. Entzuten al didazu? Ezagutzen al nauzu? Esan zerbait! Ezin nauzu bakarrik utzi, entzuten al nauzu?

Jakina entzuten zaitudala, laztana. Nire alaba izan zara eta ama bezala sufritu zaitut. Banoan une honetan adi ibiltzeko esan nahi dizut, bizitza arriskutsua aukeratu duzula, etsai garrantzitsuz betea, badakit nik, ez bainaiz inozoa. Nola maite zaitudan, alabatxoa. Jada Pamanoren uraren zarata entzuten ari naiz. Mirari bat dirudi.

—Ohera eramango zaitut. Ez sufritu, Bibiana, nik zainduko zaitut-eta.

Lurretik altxatu ere ezin izango duzu-eta. Gustukoa dut zuk nigatik sufritzea. Nire bizitzaren berrogeita bi urte eman ditut zure ordez pentsatzen, Trilla etxeko Conxitak ipurdian jo eta negarrez hasteko bi minutu behar izn zenituenetik. Eta orain, nire azken bi minututan zu, bizitzan lehen aldiz, nigatik nahigabetuta egoteak, ez dakit, asetasunez negarrarazten dit.

—Ez negarrik egin, Bibiana, nik zainduko zaitut-eta. Norbaitek dei diezaiola medikuari! Caterina!

Soilik zu beilatzeko geratuko nintzateke, ematen baitit soilik ni konturatzen naizela ezbeharra ez dela sekula iraungitzen. Laztana, alaba, zu sekula ez fidatzea nahi dut, oso argi eduki dezazula inoiz ez dagoela jakiterik nahigabearen amaiera.

Zortea ez zirikatzearren, elkarretaratze-tokia aldatu zuten: Poblako ostatu triste bat, non bi-biak erabat ezezagunak ziren. Andereak, behin abrigoa aulkian utzita, leihotik begiratu zuen eta itzuli gabe esan zuen, hainbeste maite haut, gustatuko litzaidakek… ez zakiat, hirekin ezkonduta bizitzea. Ezkutuan ibili beharrik izan gabe.

—Badakin ezin dela –erantzun lehorra.

—Dibortziatu ahalko bagenu.

—Errepublikarekin ahal genuen. Hireak dira debekatu dutenak.

—Nireak?

Andereak begiratu egin zion. Hurbildu zitzaion, biluzik eta marta-larru leun batekin estalita sentiarazi ohi zuen margolariarena ez bezalako begirada haren sekretua desestaltzen saiatzeko. Baina izotza topatu zuen. Armairurantz mugitu zen.

—Ez al dira hireak ere?

Oriolek ez zuen erantzun baina begiradari eutsi zion.

—Hirekin ezkonduta egon nahi nikek –insistitu zuen andereak.

—Nik, ez.

Isiltasuna. Armairuaren ispilu urtsuaren aurrean geratu zen emakumea. Bi Elisenda izututa, hura kontenplatuz. Ohean eseri zen Oriol.

Saludo a Franco, Arriba España. Torena de Pallars a 26-10-1944. Continuación. Ha sido descubierto por nuestros servicios, en las cercanías de Tolouse, el cadáver del desaparecido José Pardines (del informe anterior) en avanzado estado de podredumbre. No: de descomposición. El forense capitán Aurelio Cordón certifica la incrustación de bala en zona cerebral frontal con lo que deducimos que el tal Pardines fue descubierto por los bandoleros entre los que lo habíamos infiltrado. No llegó a decirnos; no llegó a darnos; no llegó a facilitarnos, ningún tipo de informacion.

—Zer gertatzen zaik? –esan zuen andereak, oraindik desorientatuta.

—Terreno bat nahi baduk, salatu haren jabea.

—Ez diat ulertzen.

Azaldu zionean Targak erakutsitakoa, ulertu zuen. Hiru segundo erreakzionatzeko.

—CNTk nire aitari konfiskatutako terrenoak dituk.

Isilik geratu zen Oriol, pixka bat desorientatuta.

...que me llegaron voces todavía no confirmadas de la posible relación entre Eliot y un tal Ossian escrito tal como escribo. Creo que sería bueno; sería magnífico, sería prudente investigar los antecedentes del susodicho Ossian y si es natural de estos valles, si trabaja aquí oculto bajo una personalidad legal o si es un guerrillero o un republicano huido.

—Nik maite haut eta ez haut munduko ezergatik galdu nahi.

—Alkatearen laguna haiz, ez da?

—Ez. Izatekotan, hi. Beti elkarrekin zaudete.

—Targa ez da nitaz fidatzen ez dudalako egoeraz baliatu nahi.

—Targak legea aplikatu eta aplikarazi egiten dik. Ez da gaizkile bat.

—Salbu haurrak garbitzen dituenean.

—Salatu nahi baduk, badakik zer egin behar duan. –Instant batzuk lasaitzeko–: Aski hitz egin diagu, ez?

—Zuritzen dun hala?

—Ez, zabar bat da. Baina ikusi beharko huke nola zegoen Torena hura iritsi baino lehen.

Pasioz esan zuen, brusa askatzen zuelarik.

Oriolek pentsatu zuen ezen, erantzuten bazion Targa iritsi baino lehen Torenan jende gehiago zegoela bizirik, apurketa gertatuko zela. Eta brusa haren azpian zer zegoen ikusi nahi zuen. Beraz isildu eta eztabaida aparkatu zuen. Hura abiatzea ausarkeria izan zela ere pentsatu zuen. Brusa, tira.

Sobre los temores de la comandancia militar y de este servicio de información de que la suerte del conflicto bélico europeo derivado del desembarco aliado de junio pasado vaya a una mayor; no: redunde en una mayor desorientación en zonas de frontera, debo manifestar con orgullo, que en las zonas montañosas bajo mi control civil, no se detectan movimientos sospechosos dentro de lo que la prudencia recomienda afirmar debido a que es imposible el control total de una zona tan ingente y de accesos tan difíciles.

—Maite haut –esan zion, nahita eta nahi gabe. Eta andereak irribarre egin zuen, lasaiago.

Larrua jo zuten, baina bien artean arrakalatxo batekin. Gizonak bazekien, gerta ala gerta, ezin izango zuela haren musuak, haren ahotsa, emakume haren usaina alboratu, eta miserable sentitu zen.

Referido a uno de los últimos informes donde se me preguntaba sobre mi seguridad personal, todavía es pronto para prescindir de la guardia personal cuando estoy en el pueblo porque hay gente cobarde que no acepta el restablecimiento del orden donde antes hubo caos, asesinatos, venganzas y odio. No aceptan la paz que les he regalado y no entienden que para preservarla, nos vemos obligados a actuar de manera enérgica, poniendo el pensamiento en las palabras de nuestro Caudillo que nos ordenó que no nos temblara el pulso en el momento de restablecer los valores de Patria y Religión, y atendiendo. No: y en atención a. No: y atendiendo a las consignas salidas, ez, nola esaten da, emanadas por los responsables de Falange Española, cuya representación humildemente tengo. Ostento.

Gero, ohean sartuta, bien artean arra beteko isiltasunarekin, luzeegi egon ziren isilik. Isilik agurtu zuten elkar. Elisenda atzera begiratu gabe irten zen gelatik. Etxerako bidea, isila, Jazintori hitz erdirik esan gabe, aurrera begira, finko, iristeko presa balu bezala. Eta Jazinto pentsatuz, gaur haserretu egin dira. Gaur ez dute txortan egin. Txortan egin aurretik haserretu dira. Orduan nardo-bafada iritsi zitzaion eta atzeranzko ispilutik begiratu zuen. Anderea negarrez zegoen isilik. Jainkoarren, zer egin dio gizatxar horrek, andereak negar egin dezake eta nik ez dakit deus egiten hori ekiditeko.

Aunque sea un asunto desagradable y de gravísimas consecuencias si se supiera; si transcendiera socialmente, me veo en la necesidad de comunicarle, behar dela, que es preciso retomar la vigilancia discreta del camarada Oriol Fontelles en sus desplazamientos

fuera del municipio de Torena por parte de gente desconocida por él. No sabe, señor, cómo me gustaría poder concluir que mis temores respecto al susodicho camarada eran falsos; no: infundados.

Ohean eserita geratu zen Oriol, ispilurantz begira, Elisendaren presentzia gabetsiz, bere buruari galdetuz oso zuhur ote zen beste egoera batean seguru lubakiaren beste aldean edukiko zuen emakume batengatik burua galtzea. Galdetuz munduko Operazio Handi guztiak arriskuan jartzen ari ote zen bere arinkeriagatik. Arinkeria. Ez, pasioa. Pasio konpartitua. Ohetik altxatu eta konturatu zen nardoaren usaina gelatik deuseztatu gabe zegoela.

También sería recomendable investigar la procedencia de un perro de raza Springel Spaniel que responde al nombre de Aquiles y que apareció en Torena de Pallars desde hace pocos días y que se ha instalado en la escuela, como si este fuera un lugar conocido por el susodicho sabueso; can; perro. Forma parte de aquellas pequeñas cosas que envuelven de interrogantes la figura del antes susodicho camarada Fontelles.

A pesar de que no forma parte de mis atribuciones directas, debo revelar que en una comida con diversos oficiales adscritos a la gloriosa sexesi; sextésima; sesenta y dos división, a la gloriosa sesenta y dos división, capté comentarios críticos hacia la superioridad castrense por parte del capitán Alonso Fez, dichos comentarios del susodicho capitán no fueron repudiados por ninguno de los presentes.

Autoa ez zen Gravat etxearen aurrean geratu, Udaletxe aurrean baizik. Elisenda balkiria bihurturik, garaia, erabakitua, adats beltzak, azal belztua, sarrerako bi mailak igo eta Valentíren bulegoan azaldu zen, zeina une hartan idazten ari zen *porque consideran que la zaborra, los restos de la guerrila se acabarían de golpe y porrazo; de golpe, si realmente el ejército fuera más expeditivo. Tanto el susodicho capitán Fez como otros oficiales presentes, manifestaron que el mando es demasiado débil con los insurgentes. Ojo*.

—Ardura handiarekin entzungo didazu orain.

Elisenda mahaiaren aurrean jesarri, abrigoa eta polsta lurrean utzi, ukalondoak idazmahaiaren gainean bermatu eta Valentík bere sekretuak larruzko karpeta batean gorde zitzala utzi zuen. Behi larrutu zoriaren halako keinu hura nabaritu eta ondo iruditu zitzaion. Behiak azkenean begi goibel eta hezeekin begiratu zionean, emazteak esan zuen oihurik egin gabe, oraindik ez al duzu ikasi badirela inorekin komentatu behar ez dituzun gauzak, ez eta zure adiskiderik onenarekin ere, bateon bat baldin baduzu. Isiltasun luzeegi baten ondoren, Elisenda artegatu egin zen:

—Zer?

—Zergatik diozu hori?

—Zer dela-eta daki Oriol Fontellesek nik Tuca Negra erosi dudala?

—Nolatan dakizu zuk Oriol Fontelles dakiela zuk...

—Erantzun.

—Nik... –Valentí Targak mahai gainean arakatu zuen aitzakiaren bila, karpeta bat ireki, paper konfidentzialak atera, ostera utzi eta are ez zuen erantzunik aurkitu.

—Oso ongi. Sekretuak zer esan nahi duen ez dakizularik, alkatetzatik kargugabetu beharko zaitut.

—Ezin duzu egin. Armadak ez zizun utziko.

—Harrituko zinateke militarrek egiten uzten didatenarekin.

—Oraindik ez dut amaitu nire lana. Josep Mauri bizirik dago.

—Ez bazoaz haren bila...

—Kontrabandistak oso zuhurrak dira. Baina inguratzen nabil. Zin dagizut gure akordiaren sakratuenarengatik.

—Soilik hiltzeko balio duzu.

Valentí altxatu egin zen, sumindurik, Elisendari so eginez.

—Zuk lan honetarako nahi izan ninduzun, ez da?

—Hain zuzen ere, baina ez gauzak zabaltzen ibiltzeko. Zu mihiak galduko zaitu.

Valentík, zutik zegoenez, aurrean zeukan emakume haren deserosotasuna, bere sekretu guztien jabe puta hura, gainetik kentzearren, urrats batzuk egin zituen aurrera; bere sinestezinezko aberastasunaren puta egilea, neure zoriontasun putarena eta neure antsia aluarena.

—Nolatan daki Fontellesek...

—Manel Carmaniuri egiten diodan injustiziagatik suminduta etorri zait etxera.

—Azaldu al diozu zer esan nahi duen konfiskazioak?

—Nik ez diot deus azaldu behar. Zu zara gauza hauei buruz mintzatu behar ez duzuna. –Ahotsaren tonua neurritsu altxatu zuen–: Inork ez dituelako jakin behar.

—Exageratzen ari zara. Pila bat herri ezagutzen ditut non... ongi, non aberastasunak birbanatzen diren: orain gure txanda da, gure garaia da.

—Zure garaia da. Baina gogoratu eta sekula ez ahantzi beti dela nire garaia eta nire familiaren garaia. Beti. Orain, lehen eta hemendik ehun urtera. Zu mugatu ordena ipintzera, hortarako ordaintzen dizut-eta. Hamaika aldiz esan dizut pentsatzeaz ni ardurtuko naizela.

—Ni ergela banintz bezala.

—Yuste generala ikustera joango naiz bihar eta zutaz mintzatuko natzaio.

—Mehatxu bat bezala hartu behar al dut? –Azkenean geldi, anderearen aurrean.

...que quizás sería conveniente que usted en persona tuviera unas palabras con el general Yuste para explicarle que no son ciertos los rumores que empezarán a correr sobre mi puta persona; sobre mi persona y mi supuesta falta de patriotismo o también sobre inventadas acciones tendentes a mi enriquecimiento personal, y que he dado la vida por el glorioso Alzamiento y el glorioso Movimiento. Esta campaña que sin duda empezará, está orquestada por individuos desafectos, envidiosos de mi adhesión entusiasta y incon, e incondicional al Régimen y al Caudillo desde el primer instante y sin mácula de restricción mental alguna. Arranopola.

Atea ireki zuen Bibianak. Berehala igarri zuen negar egin zuela. Elisendak berehala haztatu zuen Bibiana ohartuta zegoela bere malkoen arrastoaz. Irribarre egin eta gogorik ez zeukala esan zuen, gaur ez dudala afalduko. Bibianak erantzun zuen, oso ongi, anderea, eta pentsatu zuen, adi, laztana, Elisenda, munduak eztenez betetzen ari da-ta.

Que Dios; no; Dios guarde a su excelencia por muchos años. Fechado en Torena de Pallars el dia veinte; vente; 26 de septiembre de mil novos; nuevescientos cuarenta y cuatro, noveno Año Triunfal. Firmado y rubricado por el camarada Vale T rga S, alcalde de To na y jefe local del Movimiento. Viva Franco. Viva la revolución nacionalsindicalista. Arriba España

Zerra zirkularrak zarata gaiztoa egiten zuen, ezten batek bezala, eta tailerra arnasezin bihurtzen zuen hautsa ateratzen zuen. Kaixo, esan zuen Tinak, baina Jaume Serrallacek, zirujau-maskara, babeseko betaurreko, eskularru esterelizatu eta bisturi elektrikoaren zaratarekin, ez zuen entzun eta Tirviako Gallec Familia zioen lapida baten ertza fintzen jarraitu zuen. Zerrak hozkatzeko harri gehiago ez eduki arte itxaron zuen Tinak. Isiltasuna egin zen orduan. Serrallac, maskara eta betaurrekoak kendu eta beste eguneko argazkietako emakume borobiltxo haren presentziaz jabetu zen.

—Ez iezadazu esan enkargu bat egin nahi didazula...

—Nolabait bai.

Serralacek zirujau-eskularruak kendu eta obradorearen gainean miatu zuen zigarro-pakete torturatua aurkitu arte. Bat aukeratu, piztu, begirada urdina Tinarengan finkatu eta itxaron egin zuen.

—Maisuaren alaba aurkitu nahi dut.

—Zein maisurena?

—Oriol Fontellesena.

—Nolako mania, ez da?

Serrallacek bulegotxora pasarazi zuen, toki abegitsu eta txukuna bera, estufa bat piztuta. Iritzia eskatu gabe, plastikozko bi edalontzi mahai gainean jarri eta kafea atera zuen melita batetik.

Ezin diot ezetzik esan. Gauean ez dut lorik egingo.

—Gogoan al daukazu maisuaren emaztea?

—Ez. Izan ere ni haur bat baininzten eta haiek... denbora gutxi egon ziren.

—Emakumea, hilabete batzuk; Oriol, urte luze bat.

—Desatsegina egiten zait gizon hartaz pentsatzea. Eta ez zen maisu txarra, e?

—Gizon hura gizon on bat zen.

Serrallacek tragoxka kendu zion kafeari oroitzapena behatuz, beti isilik behatzen baita. Eta ez zuen ez gizon onik ez txarrik aurkitu Oriol Fontellesengan. Horregatik, begiekin galdetu zion Tinari. Azal zezan utzi zion Tinari Fontellesek bere alabari idatzi zion eskutiz luze bat zegoela, eta ez zuela oraindik haren hartzailea aurkitu. Eta haren alabaren eskuetan jarri nahi zuela egutegi hura, jakin zezan Oriol Fontelles ez zela faxista bat, baizik eraginkorrago izateko falangistaz mozorrotu behar zuen maki bat, beldur eta zalantzaz betea. Serrallacek zigarroa bukatzeko ordua eta azalduta zegoen Oriol Fontellesen bizitzako azken urte luzea, hilobiko haurlauzaren gainean gidoitxo bat bezala bi zifren artean.

—Nolatan ez du inoiz inork jakin?

—Maki eraginkorra zelako. Inork ez zuen jakin behar.

—Eta dena asmatu bazuen?

—Zein arrazoirengatik? Zer irabaziko zukeen? Benetan falangista izatekotan, zergatik asmatu beharko zituen kalte egin ahalko zizkion gauzak?

—Historia aldatzeko. Ez dakit, nik epitafio bat egiten badut esaten duena frankismoaren kontrako erresistentzia makiaren heroia, eta haren hilobian irartzen badut, aldatu dut historia.

—Urrats bat litzateke.

—Bai, baina asmatu egin dut. Ez baitut esan duzunaz deus sinisten.

Telefonoak jo eta Serrallacek erantzun egin zuen. Dei emankorra izan zen, Tina konturatu baitzen negozioa zeramana Serrallacen alaba zela, alabaren izena Amelia zela eta gizonak, etxean ez aspertzearren, alargun zelarik, lan finak egiten zituela, hankak arrastatzen zituela eskualdeko kanposantu gehienetan konpetentziaren aurrerakuntzak behatzen, harlauzez jantzitako bestibuluak zapaltzen zituela, materiala laztantzen zuela, harriaren jatorriaz konjekturak egiten zituela eta ezin zuela salatu gabe egon, bere aitak egiten zuen bezala, gaurko harriak ez direla garai batekoak bezalakoak. Gainera, Ameliak orain hiru urte erositako kamioiarekin materiala garraiatzeko ardura zeukan. Tina konturatu zen baita ere Jaume Serrallacek zazpi urteko biloba bat zeukala, izenez Pere, birraitona bezala. Eta futbolean aritzen zela. Elastikoan lau zenbakia zeramala. Igandean aitatxiren zain egoten zela eskolako partidaren argazkiak erakusteko. Hiru-bi, bai. Ez, berak ez zuen golik sartu; tira, aitatxi, laua baitaramat. Aitona izan zitekeela zure maitearekin ondo bizi ondoren. Sekula ez dut amona izaterik izango, izan ere Arnauk, ukatu egin baitit hori, laua bezala jokatu ordez, erabaki monastiko inefablearen erabilpena eginda. Zergatik egiten ditu bizitzak halako zilipurdi ergelak. Biltegiaren sakonean, langile batek harri-bloke baten kontra harmailu-kolpe bortitzak emanez betetzen zuen airea eta, instant batez Tinari iruditu zitzaion gizona bere pentsamenduak zizelkatzen ari zela eta babesgabe sentitu zen. Ostera hariari heldu zion:

—Nolakoa zen maisu bezala?

—Ez dut oroitzapen txarrik. Ona izango zen. Gero emakume ikaragarri txarra eduki genuen, purtzila, zeinaren izena ez dut gogoratzen. Baina ni anartean seminarioan nengoen eta ezin izan zidan letrez aspearrarazi.

—Zu seminarioan egon zinen? Seun?

—Bai. Nire aita anarkistak bidali ninduen.

Harripikatzaile begi urdindunarekin solidario sentitu zen Tina eta hari esateko zorian egon zen, beraz ni ez naiz anarkista baina nire semeak monjearen ama bihurtu nau nire baimenik gabe.

—Asko iraun al zenuen?

—Maitemindu egin nintzen.

Lleidako Mireiarengan pentsatu zuen orduan Tinak, zeinak bihotzean Jainkoari partida irabazteko indarra izan ez eta Arnau esku artetik ihes egiten utzi zuen. Horregatik ez zen ohartu gizon haren begirada urdina pixka bat durduzatu egin zela segundo batzutan.

—Kafe gehiago?

—Ez, eskerrik asko. –Insomnioa, itzuliak ohean, Jordi zergatik egin didazu hau, zein da hura, esan.

—Entzun, anderea... –Serrallacek puntualizatzeko prest zegoela adierazten zuen keinua egin zion.

—Tina da nire izena eta noka tratatu ahal nauzu. Nahi baduzu.

—Tina. Ez dut sinisten; Oriol Fontelles faxista nazkagarri bat zen eta herrian beti jakin izan dugu hori. Targarekin hezur eta mami zen, Torenako borrero esaten dioten harekin, imajina ezazu. Eta makiak errepresalia-operazio batean akabatu zuen. Historiaren amaiera. Lapida. Eta abar. Zergatik ez dizkidazu argazkiak erakusten?

—Zeintzuk?

—Kanposantuan egin zenituenak. –Serrallacek tailer guztia besarkatzen zuen keinu lausoa egin zuen–: Propaganda bezala baliogarri izan ahal zaizkit, onak badira.

—Nire argazkiak beti dira onak. Zer dakizu Fontellesen heriotzari buruz?

Serrallacek tabako-paketerantz begiratu baina erreprimitu egin zen. Eskuak batu zituen:

—Diote Gravat etxeko anderea dena ikusi zuten bakarrenetakoa izan zela. Joan zaitez hari bisita egitera. Nahiz eta agian ez zaituen hartu ere egingo oso harroa delako eta herritar guztiok daukagulako sahats-usaina. Nahi al duzu sekretu bat kontatzea?

Orain distiratsu zeuzkan begiak; ikusten zen gustukoa zeukala jolas egitea. Kapela kendu eta lehen aldiz ikusi zizkion Tinak adats ugariak, zuriak, garai batean garia bezain horiak izango zirenak.

—Hura zen garai batean maisuaren hilobia hain txukun uzten zuena. Hilean behin bisitatzen zuen familiako mausoleoa eta loreak etab. aldatzen zituen. Eta gero minutu batzuk egon ohi zen Oriol Fontellesen hilobiaren aurrean. Unibertsoko pertsona aberatsena izan eta, hilean behin, munduko beste muturrean egon arren, maisuaren loreak aldatzera etorri ohi zen, bera, bere eskuekin.

—Eta orain jadanik ez?

—Itsu geratu denetik, ez. Neskame batek egiten du.

—Izan al duzu traturik harekin?

—Elisenda anderea beti bizi izan da herritik aparte. Hemen Pallarsen, herri askotan dago bizitzatik aldenduta dagoen etxeren bat eta Torenan Gravat etxea egokitu zaigu. Eta haren gorroto guztia hildako batzuengatik. Eta Gravat etxearen aurrez aurre bizitzea egokitu zait.

Tina isilik mantentzen zen gizon hark kupela hustu eta azal propio bihurtzen ari zaizkion istorio haiek argitzea nahi zuelako, baina hondoko langileak erabaki zuen ezetz, eta bulegotxoan sartu eta, harmailua eskuetan, galdetu zuen haurlauzak Esterriko Udaletxerako ote diren. Nahi zuena zen atsegin ematen zuen emakume hura gertutik ikusi.

—Denak. Ameliak kargatu aurretik begiratu nahiko ditu.

Langileak kuriositatez behatu zuen bisita. Ez. Gertutik ez du hainbeste balio. Potolotxoegia. Eskua kapelura eraman zuen Tinari igeltsero marine burura ekarri zion keinu batekin eta hark Esterriko Udaletxerako zirela bazekien harlauzen txokora itzuli zen.

—Zertan ari ginen –Jaume Serrallacek, atzamarrekin mahai gainean joka memoria egiteko.

—Elisenda anderea.

—Bai. Gaztetxo garaitik Francoren laguna zela dioten emakume bat. Eta orain erregearen laguna dela. Itsu egon eta Gravat etxetik ezertarako mugitu ez arren. Jabetzak omen dauzka... Ez, nola da? Viellatik Puigcerdará joan zaitezkela edo Lleidara, soilik Elisenda Vilabrúren jabetzak zapalduz. Egundokoa, e?

—Jende askori buruz esaten entzun dut hori, bai.

Serrallacek bigarren kafea amaitu eta paperontzira bota zuen edalontzia.

—Ez dakit maisuak zer azaltzen duen eskutitz horretan, baina abiatzeko, ez dut sinisten.

Tinak hasperen egin, karpeta ireki et orri mekanografiatu batzuk atera zituen. Bulegoko mahai gainean utzi zituen.

—Fontelles bere alabari egindako eskutitzen zati bat da. A propos, ba al dakizu Burésen semea hemendik dabilen?

—Pako? Bosniatik edo hor nonbait dabilela uste dut. GKE-bazka da

—Hobeto gehiago bageneuzka.

—Ez dizut ezetzik esango. Savina etxeko jendearen aldean hain ezberdina, denak erdi fatxak. –Paperei buruz–: Nik irakurtzea nahi al duzu?

—Eskemak aldatzeak zapuzten ez bazaitu, bai, mesedez.

—Zergatik halako interesa? Ez al zeunden argazki-liburu bat egiten?

Ahoa ireki zuen Tinak, bere arimaren barrura zelatatu, irribarre herabea izoztu eta, Serrallaci begiratu gabe, esan zuen oraindik ez zekiela oso ondo zergatik egiten zuen, baina matxinatu egiten bainau gezurrak eta gezurrez baliatzen den jendeak.

Fontellesen alaba bilatzen laguntzea eskertuko nizuke. A, soilik dakit Joan duela izena.

—Nork?

—Maisuaren alabak. Ezaguten al duzu Joanen bat?

—Ez al duzu esan ba alaba dela?

—Zuk irakurri eta hasi pentsatzen zenbat Joan ezagutzen dituzun.

Bizpahiru egunetan, norbanako-pare bat, gabardinadunak, malaostia-aurpegiarekin eta purutxo mehea ezpainetan, herrian gertatzen zenaz oharrak hartzen ibili ziren eta Ventura etxearen eta Misseret etxearen eta Feliçó etxearen eta batik bat Nasiren Mariaren etxearen aurretik paseatu ziren, konbentziturik baleude bezala Josep Mauri bertara itzuliko zela edozein momentutan familiari bisita egitera eta bide batez bere burua akabatzen uztera. Bitartean, Pedro Cases Tribó (Majalsen etxeko Pere) Torenako alkate berriaren izendatze-ofizio idatzia iritsi zen, Valentí Targa Sau (Torenako borreroa) jaunaren ordezkoa egiteko, zeinaren heriozta tragikoak tristeziaz bete dituen gure bihotzak. Bitartean, elizkizun hunkigarriak egin ziren parrokian, ezezagunez gainezka, gehi Elisenda anderea, Báscones anderea, Buréstarrak, hots, koadrila osoa, eta herriaren gehiengoa etxean, hormari begira, lur azpian ondo lur emanda ehortz zezaten itxaroten, Vale T rga S, presente, Viva Falange Española, viva la revolución nacionalsindicalista, viva Franco eta baita arribaespaña oihukatzen zuten ezezagunek Torenatik alde egin zezaten itxaroten lasaitasunez arnasa hartu ahal izateko, eta kanposantuan, hunkiduraz betetako ehorzketa bat, zeren Claudio Asín ospetsuak, Targa zenduaren ideologo kuttunenak, haren iturriak, haren iparrak, haren munduaren, bizitzaren, Patriaren ulermenak, Claudio Asínek, presente, esateko asmakizuna izan zuelako, Targa kamarada hotzaren semea denez logikoa da iparreko haizeak zigortutako kanposantu batean atseden hartzen egotea, nahiz eta lorategi bibliko bat bezain ongi zainduta dagoen, viva Franco, arribas Paña. Udalerriaren diru-funtsak erabiliz Pere Serrallaci eskatu zitzaion lapida bat, haren lagun banaezin Fontelles falangistaren, beste heroi baten bi metro eskasera ehortzia izan zen heroiarentzat, eta Joan Esplandiu Venturetaren metro batera ere ez, zeinak, hiltzen aritu zirenean praketan kaka egin ez ezik, bala oraindik begian sartuta edukiko zuen, bitxi baliogarri baten gisara.

Aldarte txarreko gizonek azalpenik eman gabe, ez alkate berriari ere, alde egin zuten, eta kaltetutako Valentí Targa kamarada sindikalaren zorigaiztoko istripuari buruzko ikerketa bukatutzat emanez eta ontzat eta ofizialtzat emanda haren heriotza istripuz. Baina Historiak ez du kontuan hartzen heroiak ere guraso direla eta Marcó tenientea, bizirik mantentzen zuen mendekua burutu ondoren, ez zen Frantziara bueltatu burua itzuli gabe, Lot eta Orfeoren emazteek egin behar izan zuten modura, baizik amorruaren infernuan hondoratu eta basoan itxaron zuen, baina ez Euridice maitatuaren zain ez eta olibondo eta parra burgoiak edo Sodomako urte zoriontsuak itxaroten, baizik eta ez zituelako galdu nahi bere etsaiaren ehorzketa, ez haren Altrongo familiaren saminezko aieneak, ez baitziren ehorzketan egon, ez haren adiskide engominatuenak. Fanaleko zurbeltzetik, larrazkeneko hotzak gorritua bera, adaburu erdian igota, presente egon zen ehorzketan, oso-oso jendetsua bera, Falangeko gizon unifirmatu askorekin, bat ere militarrik gabe, Sort, Rialb, Tírvia eta Llavorsíko alkateak eta Seutik edo Trempetik etorritako armadunen bat edo beste, begira, Savinia etxeko Buréstarrak, Narcís etxekoak, Birulés etxeko Felipe, jakina. Eta Majalstarrak. Eta estankoko Báscones anderea. Baina ez zuen saminezko aienerik entzun. Kontua da Marcó tenientea gogoarekin geratu zela. Eta Pere Serrallacek kanposantuko atea itxi zuenean, eguerdia ondo sartuta, herritik usain bizigarriak zetozelarik, Venturak, zuhaitzetik jaitsi, tapia gainetik salto egin, bere semearen lapidan, Familia Esplandiu esaten zuen tokian, musu eman, haren burdinazko gurutzearen herdoila deitoratu, Fontellesen hilobirantz begiratu, disgustu herabe edo behar bada aitzakiazko keinu bat egin, kaixo Eliot, adiskidea esan, beste hilobira hurbildu, bernatik mazoa atera eta Serrallacek jarri berri zuen lapida kolpatu zuen, eta harrezkeroztik

dio Vale T rga S Tx jn (Altron 1902-To na, 1953) To nako Al e eta Mug en Bur Patr esk nez. Eta uztarria eta geziak birrindu zituen. Zuzenketa hauek egiten zituen bitartean, pentsatu zuen gustatuko zitzaiola lapidan jartzea kabroi halakoa berrogeita hamaika urtez hil zela, oso izututa, zeren hainbeste heriotzarekin bizkarrean eta bidean zehar hainbat gorroto zabalkiro ereinda, Atso Segadunaren ahotsa eta begiak ezagutu ahal izan zituela hura iritsi aurretik, amen. Oraindik beste kolpe bat eman zuen Altron hitzean, A t on utziz, eta kolpe gehiago eman nahi zituen euforiak bere semearekin hitz egitera baitzeraman, eta esatera, otoitz batean bezala, nire saminaren semea, akabatu dut, eta zure amak lagundu dit, eta berak badaki zugatik hil dela, nire semea, barkatu ni garaiz ez iritsi izana, Joanet, baina oso urruti nengoen. Eta orain akabo, bakean lo egin ahal duzu, seme. Eta utz iezadazu niri lo egiten. Eta zure amari. Eta zure arrebei. Insaculo culorum. Maite haut, Joanet.

Profanazio santua bukatuta, ikatz batekin idatzita utzi zuen faxistak betiko hilda egon beharko luketela. Oriolen hilobian idatzi zuen, Eliot, Orioli esaten ziolarik, ez dago eskubiderik zu horrela edukitzea, gaur bertan azalduko diot nire emazteari gure alde egin duzun guztia, nire adiskidea; hainbat gauza daude konpontzeko oraindik. Nik zer egin dezaket, gaixo ni, beti mendien artean ezkutatuta; beti inguratzen nauten izen fidel bakarrak hauek dituzu, koskor, muino, lepo, bizkar, piko, tontor, gailur, malda; hau beti izan da nire mundua, hasieran morroi bezala, geroago artzainburu modura behiak basoan gora bideratzen, eta gero, kontrabandista gisara karga Salauko mendate, Mendate Negre edo dena delakoren barrena garraiatzen, eta are geroago, eta borondatearen aurka, gerrilari modura, zu maisu adoretsua bezalako borroka-kideei bideak, txokoak eta sekretuak erakusten, eta hara non puska batetik hona enboskatu bezala bizi naizen, bihotza arantzaz betea, ezagutu ditudan heriotzetatik bakar batentzako mendekuaren aukera bilatuz. Badakit mendeku zabalagoak jada ez dagozkidala niri. Gaurtik aurrera azkenean lasai lo egin ahal izango dut, adiskidea. Venturetak esan dit.

Ez zuen denborarik izan haren hilobitik uztarria eta geziak ateratzeko kanposantuko atea bat-batean kirrinkaz ireki eta, amorruz, hormaren kontra jo zuelako, eta bibote finekoa, adats kizkurrekoa eta beste bi gizon esparru sakratura sartu ziren pistolak ateratzeko keinua eginez. Marcó tenienteak, piztia basatiaren erreflexuekin, mazoa jaurti zien eta horrek eragin zuen distrakzioarekin aski izan zuen salto egin eta zuhaitzen artean murgiltzeko, non bazekien aski trebetasun bazuela, beharko balitz, harri bihurtzko. Hiru tiro airera, ez zezaten esan, eta abisua goardia zibilari mendi-barrua patruila zezan, batek, txano moduko batekin aurpegia estaltzen zuen ezezagun kaputxatu batek Vale T rga S, kamarada, To nako alkate zendu berriaren hilobi bedeinkatua profanatu berri zuelako. Lur eman berria daukagu-eta. Beraz, kasu.

Goardia zibilaren patruila, bibote finekoak, Balansók, gidatuta, huraxe baitzen Valentíren heriotza gehien deitoratu zuena, euskortasunez arakatu zuen zonaldea. Gauzen soslaiak zehazgabe egin eta gaueko usain freskoak irteten hasten direnean, Tossa aldetik mugitzen ari zen koskor baten aurka jo zuten tiro. Baina ez ziren aurrera egiten ausartu, beldur baitziren harritza haietan irrist egiteko. Baina bat edo beste ukitu zuten, eta beraz besaniko axolakabearen jazarpenean jondako patruilaren komandante eta buru gisara, basera itzultzea agindu eta erabaki dut bihar tiroak egin ditugun tokian azalduko garela, geure aurreikuspenen egiatasuna frogatzera. To nako destakamendura, Rialbera atxikia, mila bederatziehun eta berrogetia hamahirua. Sinatuta Fernando Ulloa, komandantea.

—Zer esan nahi du besaniko hitzak?

—Ez dakait baina asko gustatzen zaie goikoei.

—Uste dut ero edo antzeko zerbait esan nahi duela –Balançók, aire akademikoz.

Biharamunean Balançók esan zuen lan ikaragarria zeukala eta bikoteari utzi zion ostera mila seirehuneko kotara bakarrik igotzen, konprobatzera ezen mugitzen ari zen koskorra ez zegoela eta bai, aldiz, odol-jario ugaria, zeinak pentsatzera zeraman edo a, besanikoa jo zutela edo b, ordenako indarrek kontrolatu gabeko piztia basatiren bat.

—Edo c, beste pertsonaren bat. Errugabea, esan nahi dut.

—Arraioa, ez izorratu.

—Pentsatu gabe egin zenuen tiro. Alto ere eman gabe.

—Nire betebeharra bete nuen eta ez dut txosten hau zuzentzeko asmorik.

—Eta ez dizut eskatzen ere, baina mesede bat zor didazu.

Hainbeste odol galdu zuen, paisaiatik erretiratzen ari zen elurra baino zuriago zegoen. Ahalegin titanikoa eginik begiak ireki eta bere alaba Célia ikusi zuen aurpegi gainean negarrez, isilik, gerra-garaian bezala, eta bertan zebilen norbaiten hotsa, eta oso urrutitik Céliaren edo Rosaren ahots gozoa esanaz, ama, esnatu da. Eta orduan emaztea, eskuak odolez zikinduta, zaurian tapoi egiten zuen trapuari eutsiz, esanaz, Joan, medikuarengana eraman behar zaitut, nik ez baitakit oso ondo zer egin, eta hark ezetz egin zuen buruarekin ahotsak ezin baitzuen ezpain indarge haietatik irten.

—Izan ere bestela, hil egingo zara. San Anbrosioren iturriko ur-trago batek ere ezin izango zaitu salbatu.

Orduan Torenako Ventura etxeko Joan Esplandiuk, Altrongo Tomas etxeko semeak, makiko heroia bera, garai batean Marcó tenientearen izena ospetsu eta beldurgarri egin zuenak, esan zuen, atera zuk bala patatak zuritzeko labanarekin, eta emazteari lehenik bururatu zitzaiona izan zen, gauak dira, Joan, ez zarela etxean bizi eta ez dakizu labana hura aspaldi apurtu zela, eta esan zuen, ez, nik ez dakit. Eta gizonak, soilik bala bat da sabelean. Ateratzen baduzu...

Baina Ventura andereak ez zekien nola zaindu zauri hura. Oso barruan kokatu zen bala eta hark ez zekien ez dagoela heriotza mantsoago eta mingarriagorik sabelean bala jaso duenarena baino. Zekien bakarra zen, ez zela ordu erdi ilundu eta lapikoa sutan zegoela, leihoko leihatilak dardar egiten zuela entzun zuten eta irrikaz ireki zuen, pentsatuz, Joan itzuli da neskatoei agindu zien bezala, baina abisatu gabe, nire bizitzari baimena eskatu gabe eta soilik alde egin eta bi egun beranduago. Abisatu gabe itzuli zen, bai, haren bizitzari baimenik eskatu gabe, soilik bi egun beranduago, baina gainera, bala bat sabelean, zainetan odol gutxi, espektro bat bezain zurbil eta heriotzaren arnasa garondoan jarraika.

—Jainkoarren. Zer egin dezaket?

—Etzan nazazu.

—Zu izan zara kanposantukoa.

—Adi ez dezadala odol gehiago isuri. Manelek begira dezala.

Eta konortea galdu zuen. Célia eta Rosa negarrez hasi ziren nahigabe, handiegia baitzen bi neskato bakarrentzat.

—Joan osabari deitzera. Arin! –esan zion amak neskatoetako nagusiari.

Manel Carmaniuk ere, zeinak hogei behi baino gehiagori erditzen lagundu zien, ezin zuen deus egin. Erabaki zutenean hiltzeagatik hiltzea baino hobe zela mediku batek ikustea zakur-heriotza ekiditeko, Ventura, burugogor heirotzeraino, hil egin zen hura saihesteko.

Goizaldeko bostetan, Marcó tenientearen gorpua hozten hasi zen. Ventura anderea negarrez ari zen, buru makur, neskatoak burua bere altzoan bermatuta, atsekabez lo, munduko zoriongabetasun guztiak amestuz, eta Manel Carmaniuk lehengusinaren garondoa ukitu eta esan zion, Ventura, Joan hilik dago eta abisatu beharra daukagu. Ez dakit nori, baina norbaiti bai.

—Hemen ez zaio inori abisatuko. –Ventura andereak burua altxatu eta bat-batean Ventura sendo bilakatu zen.

—Baina, emakumea... Joan hilda dago-eta... Jadanik ezin diote minik egin.

—Badakizu zergatik bilatzen zuten?

—Denagatik. Baina jadanik ezin diote ezer egin. –Manelek bere lehengusuari begiratu zion, ohean etzanda. Bera al da kanposantukoa egin duena?

Ventura andereak baietsi egin zuen. Eta beldurraren hondotik esan zuen, baina uste dut ez zutela horreagatik jarraitzen.

—Ongi, badakigu, haiek denek Joan presondegian usteltzea nahiko luketela.

—Ez, ez: bilatzen zuten... Beste gauza batengatik.

—Zein gauza?

—Hobeto ez badakizu.

—Zure lehengusua naiz.

—Guk biok hil genuen Valentí Targa.

—Jainkoarren.

—Jainkorik ez da existitzen. Bederatzi urte eta gero Targa akabatu ahal izan dugu.

—Jainkoarren.

Manel Carmaniuren izuak bederatzi arra beteko sakonera eraman zuen. Hark eta Ventura andereak gau osoan zulatu zuten lurra, malkoek ikusmena lausoturik, harik eta anderea leher eginda erori zen arte, eskuak zauri handi bakar batean irekita, eta Manelek zulatzen jarraitu zuen lurraren bederatzi arra betera iritsi arte, nora sekula ez zakur batek, sekula ez arratoi batek, sekula ez faxista batek iristerik izan ez zezan, ez eta imajinatzera ere Joan Ventura, Marcó teniente bezala ezagutua, frankistek jazarria, matxinatzeagatik heriotzara kondenatua, herriko faxista-koadrilak gorrotatua, sabelean bala galdu batez hil eta etxeko patioan hartzen zuela atseden, ezein lapidarik gabe, izarrek neguko gau oskarbi eta izoztuetan irakurtzerik izango ez zuten izenik gabe lurrean. Gurdia gordetzen zuten tokian zetzan, abereen

apaingailuak zintzilikatzen zituzten estalpearen alboan, eta horrela, bizitzan ametsen alde borrokatzera beti ihes egin zuen bezala orain Ventura andereak aldamenean edukiko zuen betiko, geldi, hotz, baina aldamenean, eta atsedenean. Eta denen memorian beti egongo zen bizirik, indartsu, errebelde eta misteriotsu.

Zuloa estali zutenean, bi lehengusuek inori ezer ez esateko hitza eman zioten elkarri, eta Venturak neskatoei ere ez zien esan, ordu haietan lotan baitzeuden, gertatu zen guztiagatik abailduta. Edo agian ez zeuden lotan, zeren biharamuean Ventura andereak ikusi zuen nola Céliak, ezer esan gabe, inork ez zuela ikusten pentsatuz, Rosa besotik oratu, patiora eraman eta, inolako komentariorik egin gabe, palmondoko palma-orriz egindako gurutze bat ipini zuen estalpeko horman, hilobiaren gainean. Eta Ventura andereak, jadanik Jainkoagan sinesten ez zuen arren, ez zuen gurutze hura ukitu, bere alabek ipini zutelako, bizitzan geratzen zitzaizkion pertsona bakarrak eurak. Amak eta alabek, Rosaren heriotza injustuaren ondoan ere ez, sekula ez zuten hartaz hitz egin, harik eta maistra ergel, potolo eta kuxkuxero hark, argazkiak egiteko makina bat eskuan, galdetu zien egunera arte, eta Ventura noiz itzuli zen hirugarren aldiz?

Pere Serrallacek jakin izan balu, semea bizkarretik hartu, Ventura etxeko patioaren erdira eraman, ahotik betiko zigarrokina kendu, tabako-izpi bat albo batera jaurti eta esango zion, entzun hau, Jaumet, eta memorian irarrita gera dakizula harrian irartzen dakizun bezainbeste. Irarrita gera dakizula Ventura etxeko patioan, Nasiren Mariaren etxeko patiora daraman horma banatzailearen erdian, bederatzi arra bete lur azpian, Manel Carmaniuk alorretik datorrenean lehengusinaren gurdia uzten duen tokiaren azpian palma usteldu eta ezabagarriko gurutze batek seinalatuta, kontrabandista zaharra datzala, gerrilari errebeldea, bere kasa ibili eta UNEren zuzendaritza kezkatzen zuena, baina eraginkortasun ikaragarria zeukana, bai bere ausarkeriagatik bai terrenoaren ezagutza zehatzagatik. Haren gerra-izena, sekula idatziko ez den historiarako, Jaumet, Marcó tenientea da. Haren familia-izena, Joan Esplandiu i Rella, Altrongo Tomas etxeko semea, Glòria Carmaniu Torenako Ventura etxeko oinordekoarekin ezkondua, zeinak izena pasa dion, eta horregatik askok esan ohi diote Joan Ventura: Joan Venturetaren eta Célia eta Rosa Venturetaren aita da eta aita eta senarraren zeregina otu zitzaion modurik deserosoenean bete zuen. Eta inoiz ezkontzen bazara, seme, izan dakizula egin behar ez duzunaren etsenplu. Agian ez zeukan beste alternatibarik. Soilik erdizka ulertuko genuke jakingo bagenu zer gertatu zen mila bederatziehun eta hogeita lauko abenduaren hogeita hamarrean, soilik hogeita bat urterekin taldeburu zelarik, Manauriko bordako ezkutalekuan fardoa deskargatuta, eta bi eguneko martxa arina eginda ahitutako taldea sakabanarazi ondoren, etxerako bueltan, Pamanoren albotik pasatzean, Bernuiko ilunpean, Ravelleko erlauntzaren alboan, non batzuek dioten oso aspaldian Malavellako gazteluaren hormak egon zirela, zigarro baten pindarra zen ipurtargia ikusi zuenean. Zain zeukan Roia etxeko Valentí Targa, eta bere ahots lasai eta baritonoarekin esan zion, jakin nahi nuke non arraiotik zatozen.

Baina Pere Serrallacek ez zuen sekula jakin eta sekula ezin izan zion bere seme Jaumeri hitz hezigarri horiek esan.

—Zer gertatzen zaizu?

Targak, piztu zuen poxpolo baten argi ahulean, Joan Esplandiuk alkandoran josita zeraman metalezko kanpaitxo gorria erakutsi zion zeina, ahots sakon eta ikusten badituzu hiltzen zaituzten begiak zeuzkan Torenako neska batek oparitu zion, esan ondoren, ados, etor zaitezke ni gorteatzera. Palancako bordetan galdu duzu, esan zion Targak; beraz, mozorrotutako bat zara; beraz zure erruagatik izorratu nau Careguek; hots, oraintxe bertan hilko zaitut sasiko amaren putasemea izateagatik. Labanaren ahoak ez zuen distiratu ilargi lotsatia hodeiz estaltzen zelako, baina eskumuturreraino sartu zen Joan Esplandiuren sabelean. Targak ez zuen utzi hirugarren eguna amaitzen Altron, familia, paisaia eta Pamanoren murmurioa utzi eta, hogei urterekin, ugazabek eta langileek kaleak hilotzez zipriztindutako Bartzelonan kokatu zen; ez zen herrimintzera iritsi, laster topatu baitzuen zeregina. Joan Esplandiu, pronostiko guztien kontrara, ez zen erasoan hil; bi hilabete egon zen ohean aker baten adarrak eragindako zauri arraro harengatik, eta suspertu zenean, Torenara itzuli baino lehen Glòria limurtzera, Sortera jaitsi eta beste kanpaitxo gorri bat enkargatu zuen Kinkilariarenean, Ventura etxeko Glòriak inolaz ere gabetsi ez zezan.

Ohiz, Bartzelonara jaistea ez zen harentzat sakrifizioa, ibilbidea hiru ordu luzekoa izan arren. Baina gaur beste arrazoiren bat hobetsiko luke bidaia egiteko. Erregerik gabeko erregearen harrera, bertan Mamen alua wiski-edalontzi bati atxikita aurkitzeko aukera askorekin, zeina bai ala bai besarkatzera joateko keinuarekin hurbilduko zitzaion, burua makur, ezpainetan samurtasun-keinutxoa, besoak aurreratuta, wiskia modu arriskutsuan edalontzi barruan mugitzen. Ez zion esango, o Elisenda, asko sufritu eta negar egin dut elkar ikusi gabeko bi urteotan, eta desenkusak eskatzen dizkizut zure Quiquerekin larrua jotzeagatik. Ez, Mamen Vélez de Tenak aurreko egunean ikusi izan balu bezala tratatuko zuen. Zapalgailu bat bezala hurbilduko zitzaion, masailetan Judasen bi musu eman eta esango zion, ze ilusio egiten duen errege bat edukitzeak, ez duzu uste, Eli?

Duela hilabete bat jakin zuen, Ricardo Tena Mamen Vélezen senarraren deiaren bitartez, hala desinformatua adarren kontuan nola jakitun balantzaka zebilen erregimenarekin zerikusirik zukeen zera guztiekin, eta hil berria dela eta ni oso triste nago berak nire bizitza osoa markatu duelako.

—Hil da, Elisenda –esan zion.

—Nor hil da?

—Caudilloa. Triste nago.

—Non dago Mamen?

—Ez dakit, ez dut etxean aurkitu.

—Ziurra al da albistea?

Lagunen maitaleekin txortan egiten dago.

—Ziurra albistea?

—Lehen eskukoa. Izan ere Zirkuluan nengoen eta han... Ongi, bada Pardorekin kontaktu zuzena daukan jendea. Zuk ez zenekien oraindik?

—Ez.

—Beldurra ematen dit gerta daitekeenak.

Zure emaztearen beldur izan beharko zenuke. Baina herriarenik ez, lotan dago.

—Eta zer nahi duzu gertatzea?

—Nik zer dakit. Iraultza. Mendekuak. Jendea kalera irtetea.

—Ezer ez. Lasai.

—Zure ustez dirua atera beharko al nuke?

—Egin hehar ez duzuna da oraindik hemen edukitzea. –Elisendak tonu hotza erabili zuen, elkarrizketari egoki zihoakiona.

—Nik zer nekien!

—Franco ez da betikoa.

—Caudilloa ez da eternoa baina erregimena bai.

—Eta errege bat, zer?

—Caudilloaren erabaki bat da.

Hark ez zeukan arrazoirik ziurtatzeko diktadorearen heriotzaren ondoren haren alde egondakoen bizitza aldatuko ez zenik. Berak zer zekien. Gehiago intuizioz kalkulu hotzagatik baino, urratsez urrats, mesedez mesede, gobernadore zibilengandik eta ministro frankistengandik urrundu eta Opuseko ministroen eremura aldatu zen, bizitza osoko adiskide balitz bezala.

—Baina gauza batzuk aldatuko dira, Ricardo.

—Badakit zuk kontaktuak dituzula eta...

Baina ez dakit jendeak zer pentsatzen duen: nik astero bazkaltzen nuela Francorekin?

—Ez, ezer ez. Esan ahal dizudan gauza bakarra da, lasai: gobernuak dena kontrolatuta daukala.

Telefonoa esekitzerakoan, Elisenda Vilabrúk zarata ominoso bat entzun behar izan zuen. Nahiz eta azaroaren bukaeran leihoak itxita zeuden, xanpain-botila baten tapoiaren zarata zalantzabakoa entzun zuen, garbi, durduzatzaile, probokatzaile, irreberente, baina batik bat kezkagarri. Francoren heriotza ospatzen zuten Feliçó etxean. Haiek ere kontaktu onak zeuzkaten.

Gau haren biharamunean, Marés etxeko mahaiko egunkariaren lehen orria ikusi ondoren, Jaume Serrallacek esan zuen, azkenean hil da Franco, xanpainarekin mozkortuko naiz, Jainkoarren. Eta beste begi batzuekin begiratu zuen Gravat etxerantz. Orduan tailerrera jaitsi zen Marés etxean erositako xanpain-botilarekin, bere aita, urteak zirelarik ez zuela negozioa zapaltzen, Ventura etxearekin zeukaten zorra gogoratzera etorri baino lehen. Botila desestali, haren zaratarekin poztu, hormaren kontra zegoen marrazkia kendu eta Venturetak merezi zuen oroitzapena grabatzen hasi zen, gama altuko gurutzearekin eta estrekin, eta Manel Lluísen kalkoarekin. Eta beldur handiarekin, ez baitzekien nola joango ziren gauzak itxaropenezko azaro harrezkeroztik. Bukatutakoan, emazteari eta alabari deitu, lapida berria erakutsi eta topa egin zuten hirurok piztiaren amaieragatik eta, euria egin arren, zeru are urdinagoko egun berriengatik.

Gau hartan, Ricardo Tenaren deiaren ondoren, Elisenda Vilabrúk Feliçó, Ventura, Maria etxeko Mauritarren mendekuekin eta itxaropena berreskuratzen zuen jendearen xanpain-botila irekien plop hotsekin egin zuen amets. Eta ezezagunekin topa egiten egon zen eta haien poza modu naturalean partekatzen. Etorkizuna etorkizunarena da, esaten zitzaion ametsari. Hilabete bat beranduago, intsinuatu ziotenean hobe zela Kapitaintzako harrerara joatea, Torenako zerua negarrez ari zen, zalantzaz lepo, eta Ciók korrespondentzia bazkaltzeko gurditxoan utzi eta jantokira sartu zuen. Tea dastatu gabe, Elisenda anderea korrespondentzia irekitzen hasi zen, ekidinezinezko gauzetarako erakusten zuen halako pazientzia inpaziente harekin. Bankuetako hamahiru eskutitz, bi gonbidapen aurreikusgarri ekitaldietarako,

Marcelen postal bat Stokolmetik, hiria oso polita da, batzarra bihar egingo da ez gaur, proposamenean interesaturik daudela dirudi, eta berehala susmagarri egin zitzaion kartazal singular bat. Neurri arruntekoa, kolore pixka bat griskarakoa Sorteko zigiluarekin baina igorlerik gabe. Hartu eta ostera utzi zuen. Tea zerbitzatu eta paper-moztailea hartu zuen. Barruko orria ere, bi zatitan tolestuta, griskara zen, azalaren erakoa. Inprentako letra baina arkatzez idatzia.

ELISENDA REPUTA GURE TALDEAK BADAKI NOLA HIL ZEN ORIOL FONTELLES ORAIN HOGEITA HAMAR URTE DENA DAKIGU ETA HOGEI MILIOI EXIJitzEN DITUGU EGUNKARIEI EZ AZALTZEKO EZ BEATIFIKAZIOaren KAUSAKO PROKURATZAILEARI EZ POLIZIARI EZ BIKTIMAREN SENIDEEI DENA IKERTUKO DA EZ BADAUZKAGU HOGEI MILIOIAK HEMENDIK BI EGUNERA POLIZAK DENA JAKINGO DU BAITA ERE JAKINARAZIKO DUGU ZURE SEMETZAT DAUKAZUN MARCEL VILABRUREN JATORRIA HOGEI MILIOI BALIO DU GURE ISILTASUNAK EGIN EZ ZUEN BAT HIL EGIN ZEN GURI KASU EZ EGITEARREN ESPERO DUGU IRAKASPENA JASOTA EDUKITZEA ETA GOIZALBAKO HIRURETAN HOGEI MILIOIAK PASATZEA MILAKO ETA BOSTEHUNEKO BILETETAN ARRABASAKO ERREPIDEAN HIRU HIRUHEUN KILOMETROAN BIHAR GAUEAN EGUNSENTIKO HIRURETAN ANDERE REPUTA GRUP D'ACCIÓ REVOLUCIONÀRIA (GAR) OHARRA BIHAR GOIZEAN ARGIBIDE GEHIAGO JASOKO DITUZU POLIZIARI DEITZEN BADIZOU DENAK ZIKIRATUKO ZAITUZTEGU (GAR).

Papera dardarka zegoen Gasull abokatuaren eskuetan.

—Eta diozu etxeko posta-kutxan utzi dizutela…

—Bai.

—Eta zer da Fontellesen heriotza azaltzeko kontu hori?

Gasullek txofer burusoilaren garondoari begiratu zion lehiar babeslean zehar. Elisendarantz itzuli eta aurpegia behatu zion. Ez zekien esan edo pasatzen utzi. Ahots apalez esan zuen:

—Nahi al duzu poliziari deitzea?

Ohartu zen nola Elisendak eusten zion arnasari lauzpabost segundoz, eta orduan, erabat kontrolaturik, erantzuten zuen esanaz, ez, zerbait erridikulua iruditzen zait...

—Orduan zertarako erakutsi didazu?

—Zuhurtziagatik. Izan ere zu...

—Ados. Nire iritzia jakin nahi duzu?

Autoa harrandiro zihoan Fontanella kaletik, justu Oriol maitatua duela hogeita hamar urte Valentí jazartzen hasi zen tokian garondoa zulatzeko. Via Laietanatik biratu eta porturantz abiatzen zen. Abokatuak kartazal griskara astindu eta taula laguntzailean utzi zuen.

—Zuk, kasurik ez. Izutu nahi zaituen norbaiten izorratzeko gogoa.

Luzaro isildu ziren. Gasullek leihotik begiratu zuen. Bartzelonan euria egiten zuenean semaforoek dimititu eta transitoa astuna egiten zen. Papera hartu eta berriro irakurri zuen.

—Nire buruari galdetzen diot zer dela-eta Fontellesen kontu hori –esan zuen, pentsakor– agian mehatxu bat da. Hala Marcelen jatorria.

—Interes handia daukanak jakin dezake Marcel adoptatua dela. Baina zergatik mehatxatu behar naute horrekin? Delitu bat al da haur bat adoptatzea?

—Eta Fontellesen heriotzaz?

—Ni naiz ikusi zuen pertsona bizi bakarra. Beraz, badakit zer gertatu zen eta ez dut mehatxua ulertzen.

Isilik egon ziren puska batean, Gasull itxaroten anderea konfindentzien terrenotik abia zedin. Baina Elisendak leiharrean itsatsitako tantatxoz zikindutako leihotik begiratzen zion paisaiari.

—Bidali ezazu Gomez Pié. Hemen dioen orduan.

—Bihar egunsentian.

—Ea interesatzen zaigun ezer aurkitzen duen. Ni Torenara itzuliko naiz ero hauen ohartarazpen gehiago iristen diren ikustera.

—Abisa diezaiogun poliziari.

—Ados: ea elkar ulertzen dugun: poliziari abisatzen badiozu, kanporatu egingo zaitut. –Esertoki erosoan patxadan jesarri eta isildu egin zen.

—Adiskiderik egongo al da harreran? –esan zuen Gasullek berriketa-gaia aldatzeko.

—Ni bezala bizitza osoko adiskide monarkikoz inguratuta egongo naiz. –Begiak itxi zituen–: orain kontzentratu beharra daukat.

Gasullek barre egin edo itxura serioa jartzea jakin gabe begiratu zion. Andereak, begiak itxita, ez zion pistarik eman eta abokatua ez zen ausartu argibiderik eskatzera. Azken buru, hain eder zegoen Elisenda abenduko arratsalde euritsu hartan, Kapitaintza Nagusiko bidean.

Harrera aspergarria eta arraroa izan zen. Errege estreinatu berriak miraritarako joranik ez zeukanez eta erregio militar guztiek ohoratzeko gonbidatzen zuten harrera guztietan aldi berean egoterik ez zeukalarik, gonbidatuek ikusi behar izan zuten nola bertan zeuden militarrek hogeita bi hazbeteko Telefunken bat, non erregearen irudia ikusi eta bere diskurtso laburra entzuten zen, gizontasunez agurtzen zuten. Eta gainera bostekoak, erreberentziak, irribarreak, Vilabrú da, Brusportsekoa, bai supermilioiduna, bai, zioen norbaiten zeharkako begiradak, eta Mamen gelako beste txokotik etorriz, wiski-edalontzi bati atxikita, aurreratuz bai ala bai besarkatzeko keinu eginez, burua makurtuta, ezpainetan samurtasun-keinua, besoak aurreratuta, wiskia arriskutsuki edalontzi barruan mugituz eta gutxi gorabehera aldamenean zegoelarik, adieraziz, nolako ilusioa egiten duen errege bat edukitzeak, ez da, Eli? Ez zen erasokor egon eta ez zion Quique aipatu; irribarre egin eta Elisenda Reputa zioen eskutitzean pentsatzera mugatu zen.

Biharamunean, gosaltzeko orduan, laranja-zukua berdin-berdina zen, ogi xigortua eta tea ere bai eta baita Ció ere berdin zegoen. Korrespondentzia-multzotik oso familiarra egin zitzaion kartazal bat apartatu zuen Elisendak. Oraingoan ez zen griskara baizik berdetsua. Zigilua ere Sortekoa zen eta barruko paper berdetsuak zioen, letra berberarekin Ni atzokoa naiz gaur gauean hogei milioiak gogoratu Eta poliziari abisu egiten badiozu zure bilobak hilaraziko ditut eta munduari azalduko diot zehatz-mehatz Fontelles maisuarekin eta zure beste maitaleekin egin zenuen guztia, hau da Valentí Targa alkate falangista hiltzailea Jazinto Mas txofer txortalari amorratua Romà Gasull abokatua eta Quique Esteve deritzan pertsona-akats harekin Hots zu zeu reputa Eta ziur gehiago daudela etengabe xurgatzen dabilen alu bat baitaukazu Grup d'Acció Revolucionària castrista (GARC) Eta beraz, Elisendak kartazala ondo gordeta gorde zuen ez baitzeukan intentziorik Gasulli bere maitaleen zerrenda faltsurik

erakusteko. Garc. Horrek konponbide zaila zeukan. Sekula ez utzi egin gabe egin behar duzuna egin behar duzula uste baduzu. Denon onerako.



JOAN ESPLANDIU CARMANIU

“Ventureta”

81929-1943)

FAXISMOAK DOILORKI ERAILA

G.B

ROSA ESPLANDIU CARMANIU

(1939-1959)

MONTSENT BEZAIN ARGI ETA HANDIA ZEUKAN BIHOTZA

—Gauzak oso txarto joan arren, Ventura etxeko inork ez dezala egingo diozun harriagatik xentimorik ordaindu. Etorriko da eguna non zerua urdinagoa izango den eta jadanik ez da bekatu larria izango pertsonen benetako izena harrietan irartzea, Jaumet.

—Hori esan al zuen aitatxik?

—Bai. Adi, Amelia, alaba. Ekarri, hemen gainean utziko dut-eta.

—Zein piztia, ez, alkate hura?

—Jaume, esan nahi duzu ez dutela deus esango, aldatzen baduzu...

—Eta zer egin ahalko didate? Fusilatu? Hogeita lau ordu dira Franco hil zela.

—Agian Ventura anderearekin kontsultatu beharko duzu.

—Opariak, onak izateko, ezustezkoak izan behar dira.

—Aita, eta nor da Rosa Esplandiu?

—Venturetaren arreba bat.

—Montsent bezain garbi eta handia zeukan bihotza. Nork eskatu zizun hain epitafio polit hura?

Jaume Serrallacek esku laztua pasatu zuen, maitekiro, haurlauza lisoaren gainetik edozein hauts-izpitik babesteko.

—Zure aitaren lehenengo neskalaguna izan zen –bere emazteak esaten zuela entun zuen Serrallacek.

Seigarren zatia

HARRIEN MEMORIA

Sekula ez da ezagutzen zorigaitzaren amaiera.

BIBIANA DE CASA MOROS DE BAIASCA

Exaktoki, substantzia biziaren (organo, ehun edo zelula izan) estatu patologikoa da, egitura morfologiko, fisiko edo kimikoaren aldaketak adierazia. Eta nire kasuan degenerazio hepatozerebral erdietsia zen, aztertu duten nire hiru lankideek Woerkan-Stadler-Adamas deitua. Eta zehazki koadro anatomikokliniko ez jatorrizko, ez familiarra da, erdietsia baizik, mota neurosikikoa duena, Wilson gaixotasunaren antz handikoa, afekzio hepatiko kronikoak dauzkaten gaixoengan behatua.

—Arranopola.

—Bai. Eta Celio Villalón Cañete de Hijar koronel doktoreak eta Jose Puig Costa doktoreak baietsi zuten Woerkam-Stadler-Adams degenerazio hepatozerebral erdietsi hura murriztu eta erabat desagertu egin zela modu mediko ulertezinean, gaixoak, hots nik-neuk, Jose Oriol Fontelles Doatsuari erregutu ondoren Goi-Goikoaren aurrean eska zezan, nik asmatutako otoitz batekin, hau da estanpa hau, tori, bai, eta zuk ere bai, guapoa zen, e, eta dio, o Jainko hori, zure errukiarekin zure kreaturak babesten dituzuna, unea iritsita, emaidazu grazia [*hemen, eskatutako mesedea aipatu*] Jose O puntu Fontelles, zurekin Doatsuen Erresuman bizi dena, martiri doatsuaren erregu zehatzaren bitartez. Amen. Eta hiru avemaria otoitz egitea kontseilatzen da, eta eskatu duzuna emango zaizu. Ez-du-se-ku-la huts egiten. Sekula ez.

—Báscones andereñoa.

—Andere honekin mintzatzen ari naiz.

—Hain zuzen ere, horixe: isil zaitezela.

—Begira, mosen Rella jauna: beatifikazio-prozesuan daukadan garrantzia azalten ari natzaio...

—Ados, baina orain isil zaitez, ordenara deitzen ari gatzaizkit-eta.

—Eurek zer dakite.

Errokete eta adats motzeko sikario haietako bat Cecilia Básconesen txokora hurbiltzen da, non otoitza ez ezik, beste aldean, laboratorioan desitxuratutako Oriolen argazki bakarra, falangista-uniformez, zeukaten estanpak banatzen dituen. Bi andereek eta bi gizonek gaurdanik Elizako doatsua denaren irudiari debotoki muin eman eta gorde egin dute general Francoren berehalako kanonizazioa eskatu, ez, exijitzen duen paperarekin batera, oro har jai ahantzezinezko hauen oroigarri ederrak. Mosen Rellak erroketeduna eramaten du, dena kontrolatuta daukala adierazten duen keinu batekin, zeremoniako emozioak eta gisako gauzak.

—Noiz gertatu zen hori, anderea?

—Beraz, begira, nik orain laurogeita sei urte badauzkat...

—Ez.

—Entzuten duzun bezala.

—Ez nukeen sekula esango. Ematen du, ez dakit...

—Bada bai. Orduan berrogeita bat neuzkan. Gutxi zen gure Jose beatoa doatsu deklaratu zutela.

—Oriol beatoa.

—Ez. Jose beatoa. Gehienez Jose O puntu beatoa.

—Oriol Fontelles beatoa.

—Nork jakingo du hobekien, mirairaren biktima ni banauzu?

—Cecilia Báscones andereñoa, jaunak, isildu mesedez.

—Hemen Elisenda anderea aita santuarekin hitz egiten eta inork ez dio deus esaten. Nik lau gauza esan eta garondokoa. –Ahots apalagoaan–: Mosen Rellak inbidia dauka. Gauzak diren bezala.

—Diote Elisenda andereak berak ordaindu duela beatifikazio-prozesu osoa.

—Aberatsa da. Ondo eginda dago, ahal badu. Dirutan ustelduta dago andere hori.

—Ezagutzen al duzu?

—Herri berekoak gara. Baina bera... ez dakit... oso urrunekoa da. Oinetakoaren zolara inor iristen ez zaiola uste duten horietakoa da. Baina ideiak garbi, hori bai. Begira, hauek izango dira poloniarraren senideak. Nekazari-aurpegia, e?

Erroketekoak eta mosen Rella gora behera, Cecilia Báconesek auditorio fidelari bere biografia interesgarriaren laburpen bat azaldu ahal izan dio, zeina, bere aita Atilano Báscones goardia zibil kementsua, Calahorra Espainian jaioa, mozorrotuen taldeak, hots, Andorrarekin kontaktu sendoekin Tor eta Ferrerako aranean eta denen gustura operatzen zuen Caregueko jendea ezohiko indarrez kanporatu zuenak, zauritu zuenean hasten den. Port de Boet, Port Vall, Pallarseko Port Negre bere etxea bezalakoak ziren, hamabosgarren Brigadak Ferrera Aranean benetan ezagutzen zutenei ez kontsultazearren erridukulua egin baino askozaz lehenago. Antza denez, Caregue Sorteko agintariengana kexuka joan zen, eta jadanik deus errespetatzen ez duen gazteria gaitetsi eta agintarien konprentsioa jaso zuen, mozorrotuek ez baitzioen inori komisiorik pasatzen. Ondo informatutako mihi gaiztoek zioten Caregueri ezbeharra ez zitzaiola Valentí Targa gsztearen ergelkeriagatik etorri baizik bere gizonetako batek, ez da ezagutzen nork, Encantades direlakoek Toreko Bones Dones haitzuloan zabaldutako lixibatik mahai-zapi batzuk lapurtu eta kargarekin ezkutatu zituztelako. Kontua da Careguen kudeaketa desesperatuaren ondorio bezala patruila bat bidali zela Toreko Noguera araka zezan, harriak altxatu, sudurra inurritegietan sartu, zuhaitzetara igo, haitzulo guztietara sartu eta gero mozorrotuak harrapatu eta presondegira eraman zitzan. Baina ez zen horrela gertatu. Agintariak beste alde batera so egitera behartu zuten porrot bat (hildako bat, hiru zauritu,

haietako bat Cecilia Básconesen aita, belaun bat txikituta), inork ez baitzuen arazorik eduki nahi itxasontziaren lema Primo de Riverak hartu zuelarik. Nire aita, balak erretiraturik, Torenara joan zen bizitzera amarekin eta nirekin bost urte neuzkalarik. Eta Andorrarekiko kontrabandoa inork ezagutzen ez zituen mozorrotuen esku geratu zen. Harik eta Malavellako hura gertatu zen arte, jakina. A, ez al duzu hartaz mintzatzen entzun? Noski, hangoa ez bazara... Balaguerrekoa? Nik lehengusu batzuk dauzkat, bai. Ongi, hilda daude. Campàstarrak, bai. Beraz eskandalu bat, Malavellako hura. Eta laurogeiko urtean estankoa eman zidaten, bai. Ongi, estankoa eta denetatik pixka bat, herri batean badakizu. Zortea eduki dut, zeren umezurtz-pentsioarekin ezin izango bainuen ezer egin. Zer iruditzen zaizue Caudilloa kanonizatzeko afera hori?

—Barkatu?

—Ez, paperetako kontu hori, Francok merezi duela...

—Astakeria bat.

—Beraz, ni aldeko amorratua naiz. Eta ez dut ukatzen nire parte-hartze pertsonala mirari batean, begira zer diozudan. Ui, hauek seguru direla japoniarraren senideak. Ez, izan ere pixka bat belarri-gorra naiz eta ez dut esaten duten guztia entzuten. Baina ikusmena haurtzaroan bezalakoa daukat, bai. Ez Elisenda andereak bezala, gajoa, urteak baitira itsu dagoela.

—A, jaiotzetikoa al da?

—Ez, ez: diabetes sakarinoa, txiza-isuri gehiegizko edo poliurikoak ezaugarritua. Hitz zehatzekin esateko, baskulopatia diabetikoa da, amaurosia dakarren retinopatia diabetikoa.

—Amaurosia... –Kontuz, kutsagarria ote zen.

—Hots, itsutasuna.

—A. Itsutasuna. Eta nolatan dakizu hainbeste medikuei buruz?

—Burdinazko borondatea. Estankoan aspertzen nintzelarik, farmazia ikasten hasi nintzen. Beti interesatu zaizkit osasun-kontuak. Sindromologia. Sinektenterotomia. Partenogenetika.

—Bikain.

—Atsegin dut medizinak daukan doinua. Ortopantomografia.

—Nor iritsiko litzateke zure adinera burua hain argi edukita, anderea.

—Zer gustatuko litzaizuke bizitzan izatea, Cecilia? –galdetzen zion aitak. Eta hark erantzun, Franco. Eta aitak, belauna txikituta, barre egin eta Marés etxeko bezeroei esaten zien, ez dakizue zein neskatila ederra den. Franco izan nahi du. Eta jendeak kafe ttanttaduneko kikara hotzaren ipurdi isilean finkatzen zuen soa.

—Umetan gustukoa nukeen Franco izatea edo medikua izatea. Baina emakumea nintzenez ezin nuen medikua izan.

—Baina, alajaina, estanko bat, ez da?

Báscones andereak ez du erantzuten ezen gazteagoa zenean eta Gassiari (errepublikazlea, katalanista, izorratzailea) Celta motzak saltzen zizkionean edo kaldo eta paper-liburuxka Feliçó etxekoari (errepublikazalea, katalanista, izorratzailea) edo fariak eta hiru sardina-lata Burési (patriota, osoa eta eraman handikoa), sardinak, fariak, kaldoa, arroz-paperezko liburuxka edo Celta motzak saldu ordez, insulina-dosiak, parazetamol-pilulak, edo berehalako efektua zeukan antifibrinolitiko indartsuko botilatxoa edota txoke anafilaktikoaren babesgarri eraginkorrak ziren antihistaminiko-tantatxoak saltzen zizkiela.

—Bisontes-pakete bat, Cecilia.

Báscones anderea tomate-latak eta koloretako hari-harilak zeuzkan denda-atzekora sartu, Bisontes-paketea prezisiozko balantzan ipini, beste balantzan Seidlitz-hautsak nola erortzen ziren begiratu eta imajinatzen zuen bere burua pilulak fabrikatzen, eta dendara ateratzen zen Bisontes-paketearekin eta begirada galduarekin.

—Eta berrogeita hamar zentimoko poliza bat. Cecilia, entzuten al didazu?

—Parazetamol, bai.

—Cecilia...

—Bai, alajaina, estanko bat... Begira aitasantua zein zaharkituta dagoen.

—Justu gure Oriol beatoa edukitzeko adina moztuko genuen.

—Jose O puntu Fontelles beatoa.

Goizeko hiruretan itxi zuen ordenagailua, leher eginda. Oriol Fontellesen azken koadernoa mekanografiatu berri zuen amets baten erruz. Hainbat gau atzerago izerditan esnatu zen puru-kutxaren birrintzea jasan ondoren. Jordik, dirudienez fede txarrik gabe, koadernoak su baxua pizteko erabili zuen eta krimenaren eszenara iritsi zenean kutxa apurtzen ari zen, emakume ezezeaguna alboan zuela eta bera zorabioa izan eta esnatu egin zen. Jordi bere ohe-aldean zegoen, astiro-astiro lotan, kontzientzia lasai. Altxatu behar izan zuen puru-kutxa mahaiko bigarren tiraderan ote zegoen konprobatzeko. Bazegoen. Orduan hiru erabaki hartu zituen, kopia bat egin, bankuetako kutxa gotorrak nola doazen galdetu eta Jordiri Oriolen koadernoei buruz deus ez esatea.

Lehen erabakia bete berria zeukan. Orri-sorta eder bat, irakurtzea errazten zuena baina koadernoetako orrietan hirurogei urteko zahartzeak utzitako kutsua gorde gabe.

Orduantxe bururatu zitzaion. Egunsentiko hiruretan, logikoena lotan egotea denean eta are gehiago kanpoan oso zero azpitik zeudenean, leihoko termometroak adierazten zuenez. Kafe bat egin zuen, ordu hartan ezinezkoa baitzen ezer irekita aurkitzea, anorak beroena hartu eta pisutik atera zen, zarata handirik ez egiteko arduraz. Kalean, hodei lodi bihurtzen zen bere arnasa. Ez zuen elurrik egiten baina zorua elur zikin eta zapalduz beteta zegoen. Doscavallosak, etxe hurbil baten aurrean uzkurtuta, ez zuen hutsik egin. Minutu erdira herritik kanpo zegoen, bidean, bakarrik, arima hotza, begiak pantailara hainbeste begiratzeagatik nekatuta, orain albo banatan oso elur-tira luzeak zeuzkan errepidearen zinta lisora ohitzeko premian. Orain bai zegoela hotzez dardar batean, auto haren kalefakzioa ez baitzen eraginkorra izango hainbat kilometro egin arte. Gaitz erdi, pentsatzen zuen. Gaitz erdi, askoz ere txarragoa baitzen Jordi ez zela ondradua jakitea, seguru aski ezagunen bat zela marro haren parte jakitea. Eta emakume misteriotsua prostituta bazen? Astero berbera? Ez: emakumeak ezin zuen ezezagun bat izan: Jordik eskolatik hartu zuen ez zeukalako ez astirik ez aukerarik beste giroren batean ezagun berriak egiteko: ez zen beste giroren batean bizi. Eskolakoa zen, beraz. Arazoa zen eskolan hemeretzi emakumezko irakasle zeudela, bi idazkari, bi sukaldari eta hiru garbiketako langile; hogeita sei hautagai aukeran. Hogeita bost, bera kenduta. Auto bat atzetik distirak egiten hasi zitzaion, eta aztoratu egin zen, berehala pentsatu baitzuen Jordi segika zeukala. Martxa moteldu eta baztertu egin zen, elurra ukitzeraino kasik. Zikloko irakaskideak. Beste behin, errepasoa: Dora, Carme, Agnès edo Pilar. Pilar, ez, hirurogei urte zeuzkalako. Suposatzen dut ezetz. Agnès, babalore antzeko emakumea, baina denik eta dena zekiena... Edo Carme, bere istorialean dibortzio bat eta bi gizon zeuzkana. Aseezin haietakoa da, begietako suan antzematen zaio sekula ez duela aski eta beti berberean pentsatzen dabilela, gizonak bezala. Dora, gazteegia. Orain autoak argiak bakean utzi eta intermitentea jarri zuen, aurreratzeko. Gazteegia? Behar bada horregatixe... Zigor bat zen burua beti horretan edukitzea, emakume posibleen izenen erruletan. Alboan izan zuenean popatik hartzera bidali zuen argiekin xaxaka izan zuen autoa. Izutu egin zen gidaria Jordi zela ikusi zuenean. Aurreratu egin zion autoak, pentsatzen zuelarik, ez da posible, argi horiak dira, eta aurrean eduki zuenean ikusi zuen matrikula frantsesa zeukan auto bat zela, eta arinduta egin zuen hasperen. Eta harrotu egin zen: aurkitua izateko beldurrarekin ibili behar al zuen? Ez zeukan ezer ezkutatzeko, puru-kutxa bat izan ezik. Orduan auto gabatxoari eragozpenak itzultzeko pare bat argi-kolpe luze egin eta apurtxo bat hobeto sentitu zen.

—Garrantzitsua izatea espero dut –esan zuen gizonak, oso deseroso. Eta sarrarazi egin zuen.

Gelak, emergentziazko argiekin murritz argiztatuta, sorgortuta zegoela zirudien, biharamunean beste ke, buila, berriketa eta hotzezko jardunei berrekiteko. Parterik handiena dozena bat mahaik eta aulkik betetzen zuten. Mutur batean tabernako mahaia eta hondoan, argi bero piztua mostradorearen zura argiztatuz, hoteleko harrera-txokoa, giltzen laukitxoekin. Kapela kendu eta anoraka askatu zuen Tinak. Gizona mostradore argiztatura abiatu zen:

—Gelaren bat nahi al duzu? –insistitu zuen gizonak itxi eta ohera itzultzeko gogoz.

—Ez. –Bata eta pijamagatik–: Barkatu, baina pentsatzen nuen beti zegoela norbait goardian. Eta gauekoarekin mintzatu nahi nuen prezeski.

—Ez dago hainbeste mugimendu gaueko langileak edukizteko.

—Eta norbaitek alde egin behar badu ordu honetan?

—Zer nahi duzu? Berriketa... –Eskumuturra mostradore gaineko argiaren argitasunera hurbildu zuen. Tina jabetu zen nola gizonak ahaleginak egin behar zituen distantzia ondo hartzeko–: …egunsentiko lauretan? –Zorroztasunez–: Jakizu seiretan hasten naizela kafeak zerbitzatzen.

Jordiren argazki bat atera zuen Tinak. Duela bi urte berak egina zen, Andorrara Gaboentako soldata extra xahutzera joan zirenean. Jordiren begi ilunek distira egiten zuten, makinaren xede balira bezala.

—Ezagutzen al duzu?

Gizonak Tinari erdi nahastu, harrituta eta haserre begiratu, argazkia hartu eta argi-zirkulura gerturatu zuen: Jordi behatu zuen. Haren aurpegia sor eta gor geratu zen.

—Nor zara zu? Polizia? Detektibea?

—Horren emaztea naiz.

Gizonak argazkia itzuli eta lokaletik irteteko keinua egin zion:

—Anderea, zure arazoak...–Burua astindu zuen–: Ez dut deus jakin nahi. Hau ostatu bat da, taberna bat, eta nik ez ditut bezereoi dagozkien galderak erantzuten.

—Ezagutzen duzu, beraz: hemengo bezeroa da.

—Nik ez dut horrelakorik esan. Esan dudana da...

—Eskerrik asko.

Tinak irten eta aitzakia erdian utzi zuen, zeinak erridikulu-sentsazio sendoa utzi zion. Gizonak atea itxi eta giltza zein morroiloak bota zituen, sutan, egunsentian adarrak zorroztera doan emakume honen amarekin suminduta.

Espiatu zituenean kokatu zuen toki berean aparkatuta zeukan Doscavallosa. Handik behatu zuen orain ilun zegoen ostatuaren atea. Hilabete bat joana zen eta irabazi zuen bakarra zalantza eta kezka besterik ez zen, eta pentsatu zuen infinituki erosoagoa zela kalte egiten dizuna ez ezagutzea hari aurre egitea baino. Baina ezagutzen dena enoratzea ezinezkoa zen. Berak koldarkeriaren gailurra erdietsia zeukan, izan ere ez bazter utzi ez ausardia zeukan Jordirekin aurrez aurre hitz egiteko: espietara jolasten zebilen. Bere buruarekin amorratuta

piztu zuen autoa eta detailerik ere izan ez zuen ostalaria ekarri zuen ama madarikatu zuen. Autoak lau metro baino ez zituen egin eta frenoa zapaldu zuen bat-batean. Lauak jota. Asko sentitu zuen termoaz ez gogoratzea.

Emakumeak luze begiratu zion Jordiren argazkiari, hain hazpegi maitatu eta gorrotatuaren kalitatea balioesten balego bezala. Nolatan gorrotatu daiteke hainbeste maite izan duzun aurpegia? Tinak Oriol ekarri zuen gogora, zeinak bazekien Rosak gorrotatzen zuela maitatu eta denbora gutxira. Emakumeak azazkal ondo zainduarekin ukitu zuen Jordiren begi marroi ilun bat eta betaurrekoak kendu zituen, lepotik zintzilik utziz.

—Astean behin. Bere emaztearekin.

—Haren emaztea ni naiz.

—Tira...

—Bai.

Tinak bi eskuekin hartu zuen kafesne-katilua, berotzeko. Mostradore atzean, nagusiak lehen txangolari eta kamioizaleei kafeak banatu eta aldian behin arranguraz begiratzen zuen emakumeengana.

—Eta zer egin dezaket? –etxekoandreak hasperenka.

—Nor den jakin nahi dut.

—Uste dut hobe dela bakean uztea.

—Ez. Ezin dut lorik egin ez badakit nor den.

—Lasaiago biziko zinake mania hori gabe.

—Ezagutzen dudan norbait izan behar baitu. Ziur. Eta ez dut niri adarra jotzerik nahi ez eta papertxoa jokarazi ere: ez batak ez besteak. Aurpegira esan ahal nahi diet.

—Ez duzu egingo. Asko kostatzen da.

—Egingo dut.

—Azalduko didazu.

Nagusiak Tinaren otartekoa ekarri zuen. Haserre, ahots apalean, bere emazteari:

—Ezin diozu gure bezeroei buruz ezer azaldu.

—Joan zaitez kafeak egitera, txo-txo...–ia sorik egin gabe, burua mugituz, autoritarioa, mostradorerantz. Eta irribarre egin zion Tinari. Liburua ireki eta betaurrekoak ipini zituen-. Joandako asteartean.

—Asteartero. Ez dakit noiztik.

—Udaz geroztik. Gutxienez hemen, udatik.

Udatik, Jainkoarren, udatik Jordi gezurretan eta haren bizitzako zati bat ezkutatzen zebilkiola, udatik bera bere maitasunaren desmaitasunarekin burua galtzen ari zela.

—Asko sentitzen dut –esan zuen etxekoandreak–. Jarraitzea nahi duzu?

—Bai.

Etxekoandrea erregistro-liburuaren bila joan zen hortzen artean esanaz, asteartea, asteazkena... Hemen. Bi izen seinalatu zituen azazkal finduarekin–. Rosa Bel du izena.

—Rosa Bel.

—Ezagutzen al duzu? –Orain etxekoandrea zegoen kuriositatearen menpe.

Rosa Bel. Eskolan bi Rosa zeuden baina ez ziren Bel. Rosa Bel. Rosa Bel. Beraz, ez zuela ezagutzen. Ez zuen ezagutzen bere senarraren maitalea. Laneko kideren bat izango zelakoan eta... Behar bada hobe horrela ez izatea. Agian hobeto... Baina nondik atera zuen? Ezagutzeko astirik ez zeukan-eta...

—Behar bada sasi-izen bat da.

—Entzun, anderea. Hemen karneta eskatzen dugu; dena legala da.

—Barkatu...

Otartekoa erdi janda zeukan eta trabatu egin zitzaiola zirudien. Pozik egon beharko zukeen-eta ezein lankiderik ez engainatzeagatik! Aldiz etsita sentitzen zen era hartara Jordi pixka bat gehiago urrutiratzen zitzaiolako, berak kontrolatu gabeko mundu bat zeukalako senarrak, eta haren saldukeria zabalagoa zelako, ozeanikoagoa. Eta orduan otu zitzaion:

—Nola du izena gizonak?

—Jordi Oradell.

—Zer?

Ikusi ahal izateko moduan biratu zion liburua etxekoandreak. Jordiren letrarekin idatzita azaltzen zen Jordi Oradell. Letra... norena zen letra hura? Azpian, erabat ezezeguna egiten ez zitzaion letrarekin, Rosa Bel ipintzen zuen. Ulertzen hasita zegoen.

Berotan sartzeko dutxatzen ari zelarik, Jordik gortinak baztertu zituen, harrituta.

—Gaur ez zara ohean sartu?

—Bada denbora jaiki naizela –esan zuen emakumeak, galdera gehiago saihestearren txorrota irekiz. Orain berak zeuzkan sekretuak. Jordik isilik egin zuen bizarra, agian gauza arraroak buruan, agian bere gauetan pentsatuz. Oraindik bainugelan zegoen emaztea eskolara joan eta galdera deserosoen bigarren txanda ekidin zituenean.

Idazkaritzan, Rosak eta Joanak burua altxatu zuten bera sartu zenean. Eta lanari ekin zioten bera zela ohartzean.

—Ba al daukazue irakasleen zerrenda bat?

—Bai, zer jakin nahi duzu?

—Telefono-pare bat.

—Nahi badituzu emango dizkizut. –Joanak aulkia mugitu zuen ordenagailu aurrean ipintzeko. Zeintzuk dira?

—Agnès eta... Ricardo Termes –inprobisatu zuten halabeharrez.

Joanak, bere eraginkortasun izoztuarekin, segundo batzuen buruan esan zion, hartu izenak. Eta berak Agnèsen eta Ricardoren telefonoak hartu behar izan zituen, bost axola zion arren. Irribarre egin zuen aseta, agur esan eta irten zenean, Rosak egiten ari zenetik burua altxatu eta Joanari komentatu zion, galde egiten diot nire buruari zergatik ez dizkien berak eskatzen.

Beldurra. Gauez eskolak beldurra emanten zion. Ez zen ezer gertatuko, baina larrialdi-kutxetatik zetorren argi-ilun hura erabateko iluntasuna baino okerragoa zen, fantasmak eta itzalak elikatzen zituelako. Publikoari atenditzeko leihar irristatzailearen palankatxoa eragin eta horma haztakatu zuen giltzen gakoarekin eskuaren ahurra urratu arte ukituz. Eskutokia hartu zuen: bi minutu giltza ona zein zen probatuz eta idazkaritzan sartu zen. Sorta bat zeraman, lapur bat balitz bezala. Lapur bat bezala sartuko naiz zure etxean, o Jahve eta lapur bat bezala aterako naiz egunsentian.

Bere aurpegian islatutako pantailaren argitasunak fantasma bihurtu zuen. Ordu laurden bat desesperatuki luzea eman zuen irakasleen zerrendari zegokin fitxeroa aurkitzen. Ez zuen pazientziarik izan inprimatzeko eta irakasleen zerrenda irakurriz joan zen bigarren abizenez Bel nor ote zen ikusteko, Jordik bere nortasun-agirian zeukan bigarren abizena ipini eta aldi berean ezkutatzen zuen era berean. Agnèsen bigarren abizena Lopez zen; Dorarena Espinalt, Carmerena Duc. Eta Maiterena? Riera. Ez al dago Bel den inor?

Ez dago maistrarik bigarrenez Bel denik. Inor ez, entzuten duzu? Zure perspikazia, lurrean; operazioaren arrisku guztia ezertarako ere ez, hainbeste antsia eta angustia deusetarako ez. Orduan beste dokumentuan etxeko langile guztien izenak begiratzea bururatu zitzaion, eta topatu egin zuen. Jakina topatu zuela. Joana Rosa Candàs Bel putakumea. Rosa Bel. Joana, Joana Rosa zen. Eskolako idazkaria. Jordik eskolako idazkariarekin zeukan harremana, lankide ona, ereduzkoa, akasgabea, irekia, ondradua, imaginatiboa, sintzeroa, aditua, serioa, onesta, zuzena, zuhurra, langilea, eraginkorra, isila, praktikoa, osoa, edukatua, eraginkorra, anbiziotsua, alproja, igolaria, maltzurra, makurra, bifidoa, iluna, hipokrita, gezurtia, desonesta, makiabelikoa, gaiztoa, traidorea, gorrotagarria, inpudikoa, exekrablea, perbertsoa, infamea, nefastoa, nefandoa, bilaua eta lankide miserablea, Rosa Bel. Tinak ordenagailua itzali eta ilunpea egin zen bere ariman.

Marcel Vilabrú i Vilabrúk, Oriol Fontelles Grauren (Vilabrú-Comelles i Cabestany Rouretarra) eta Rosa Dachs Espluguesen semeak (Torenako Vilabrútarra eta Tirviako Pilar Ramisen, erdi puta erdi hobeto hari buruz ez mintzaztea Anselm gaixoaren errespetuagatik, Ramis leinukoa bera) hogeita hamabi urte egin zituenean, bat doi egiten zuen Franco hil zenetik, erdia bere ama Elisenda andereak adiskide batzuekin kontaktuak moztu zituela, aurreko erregimenaren garaian landu zituen deserosoen, likatsuenekin, (denarekin kolpez moztu ez, zeren, printzipioz, egon behar diren aldaketak eta herrialdeak erreklamatzen dituenak ezer ez aldatzeko modu arrazonagarrian pentsatuta daude), eta hiru hilabete erregeak audientzian hartua izatea lortu zuenetik, kurrikulum bezala azken orduan Paulo VI.a oso kezkatu eta zahartuarekin azken orduan (eta eskerrak argazkilariak ohartarazi ditudala, tira) erdietsitako harrera superegokia aurkeztu ondoren, zeinak, burua beste toki batean zeukala, esan baitzion, bai alaba, Vaticanok interesez begiratzen du Fontelles doatsuaren kausarekiko zure interesa. Errege-audientzia semearekin batera, zeina erregeari aurkeztu zion elurretako kirolen etorkizunaren berme gisara. Munta handiko maniobrarekin lortu zuen errege-promesa ateratzea (ez erregearena baina bai errege-etxearena), zeinaren arabera hurrengo neguko oporretan errege-familiak ez zuen erridikulua egingo Vaqueirako landetan eta Tuca Negrako instalaizo bikainetara etorriko zela gauza bera egitera, Torenako udalerri barruan, eta zure kudeaketa bikainagatik esker onez, koronela, zuk eta zure familiak ordainduta dauzkazue, betiko, gure instalazioetan egin nahi dituzuen egonaldi guztiak. Amen.

Marcelek lehen eskutik ikasi zuen nola egiten zen hori. Ikasi zuen, biktimaren organizazioaren organigrama arreta handiz aztertu behar dela lehenik, nork hartzen dituen erabakiak, zer motatako erabakiak hartu ohi dituen eta zer geratzen den beti erabaki gabe jakiteko. Gero, erresistentzia-nukleoak zein izan daitezkeen aurreikusi, soilik nahitaezkoak erasotzeko, irribarrez eta ez halabeharrez sobornoetan diru asko gastatuak, baizik begira, orain hau, gero hura eta halakoetan. Arte fina da, zeinera ikasketen distiraren edo inteligentzia-koefiziente handiaren bitartez ez ezik, hura egiteko, arima prest edo prest ez edukitzeko gauza hain etereoaren bitartez iritsi ahal zen. Eta berak osoki prest zeukan. Hainbeste, amaren ikaslerik onena bihurtu zen. Erregearekiko kontaktu-garaian, errege-etxeko langile gazteekin adiskidetu zen eta Tuca Negran edozein gauza, aspertzea izan ezik, nahi beste aldiz egitera gonbidatu zituen. Ekimen horiek asko alaitu zuten bere ama, konturatzen zelarik Marcel, behin erabat finduta, oso oinordeko duina izango zela. Kontua da mila bederatziehun eta hirurogeita hamaseiko iraila aldera, Elisenda Vilabrú i Ramis andereak gerente ona zeukala Vilabrú Sport eta Tuca Negrako instalazioetarako, eta gainera Gasull abokatuaren fideltasun irmoarekin kontatzen zuen, zeinak Marceli prudentzia erakutsi ahal zion. Beraz, beste hegazkin-txartel bat erosarazten saiatu zen Erromara itzultzeko.

—Ez gara sorgorrak Torreciudadeko santutegia aita fundatzailearen bizitzan bukatu ahal izateko zure ekarpen eskuzabalarekin –esan zuen Instituzioko zuzendari eta geroko prelatura pertsonaleko geroko gotzain Alvaro del Portillok aita fundatzaile doatsuaren untuositate berberarekin eta aita fundatzaile doatsuaren modestia-molde berberarekin .

—Gustatuko litzaidake sorgortasun-eza hori egitateetan mamitzea.

—Anderea, zentzu honetan eman daitekeen ezein urratsek nahita nahi ez mantsoa izan behar du. Prudentziagatik. Egiarekiko maitasunagatik. Eta are gehiago esango nuke: modestia ebanjelikoagatik.

Monsiñoreak eskuak zabalik ipini zituen mahai gainean, eta debotoki errezitatu zuen: ohoreak, distintzioak, tituluak... airezko gauzak, harrokeriaren hanpadurak, gezurrak, deusezak.

—Eta nolatan hitz egiten da jadanik aita fundatzaile doatsuaren beatifikazioari dagozkion aktuazioez? –Portillo monsiñoraren isiltasunaren aurrean, Elisenda Vilabrú andereak irribarre egin zuen–: Monsiñorea? Harrokeriaren hanpadurak?

—Ez dakit nora nahi duzun amaitzera joan?

—Esan nahi dudana da ezen Instituzioak Oriol Fontelles Doatsuaren beatifikazioa bere egiten badu... prozesu horrek bere xederantz aurreratuko duela. Astiro, ados, baina ez eternoki.

—Andere estimatua... Azaldu beharko zenidake zure ineresa...

—Interesik, batere ez, monsiñorea. –Orain sua zerien bere begiei: Haren heriotza heroikoaren lekuko izan nintzen. Mundu guztiak goratu dezan nahi dut. Bakar-bakarrik egin zien aurre horda gorriei. Eta bere idealaren alde hil zen, Sakramentu Txit Santua eta Eliza Ama Santua defendatuz. Oso ondo dakizu, monsiñorea.

Ez zion besterik esan. Ez zion esan nolatan haren heriotza hain denboraz kanpokoa izan zen, hain tankera honetakoa, ez zaitez orain hil Oriol, eromenez maite zaitudan une honetan, orain nire bizitzan lehen aldiz gizon bat maite dudala, ez zaitez hil, sekula ezin izango diot nire buruari barkatu-eta. Besoetan hartu zuen, burua bere bularrean bermatuta. Eta hark bere begi hain ilun, hain sakon haiekin so egiten zion, konturatu zen arte beira hotzaren tonua zeukatela. Nolako basakeria egin didazuna, Oriol, hiltzea orain, nik ezetz, ezetz, ez duela hil behar esaten nuenean, ez al duzu ulertzen? Eta zu, Jainko hori, presta zaitez.

—Anderea, hil da.

Erromatik bueltan, Gasullen txostenarekin egin zuen topo, zeinean esaten zitzaion asko-asko sentitzen zuela baina aditzera eman behar ziola Marcel ez dela zuhurra ezkontzaz kanpoko harremanetan eta kontua da urdanga bat eraman duela lanera, egun batean parrandan atera, hartu... ez dakit nola esan, eta hemen, zure mahai gainean: Hori egin duzu, Marcel?

—Ongi, amatxo. Nik...

—Ea, ikusi... Zuk zer nahi duzu?

Amatxok galdera maltzurrak egiten hasten zenean, zorua modu arriskutsuan mugitzen zitzaion.

—Ez dut ulertzen, amatxo.

—Oso erraza da. Enpresari handi bat izan nahi duzu? Maite duzu Mertxe? Mertxerengandik apartatu nahi duzu? Dibortziatu nahiko zenuke Mertxerengandik hori posible denean, izan izango baita? Hori da? Bost axola zure semeari, nire bilobari alegia, gertatu ahal zaiona?

—Zure semearenganako dedikazioan zu ereduzkoa izan bazina bezala.

Elisenda andereak bere etsaientzat gordetzen zuen begiradarekin begiratu zion semeari eta oso ahots apalean esan zuen, zu ez zara inor ni epaitzeko. Eta bizitzan hiru edo laugarren aldian esateko zorian egon zen, ume, nik ez bazintudan jaso, umezurztegian ustelduko zinateke, beraz isilik egon zaitez. Ahalegin handia egin behar izan zuen hori ez esateko.

—Nahi al duzu nik Mertxeri azaltzea?

—Ez dut banandu nahi. Txorakeria bat izan da, asaskatu eta kitto. Ez dauka garrantziarik.

Quique Esteve bere bizitza pribatutik jaurti zuenez geroztik, Elisendak abstinentzia sublimaturanzko bide luzeari ekin zion, eta horrek, alde batetik, Oriolen gomuta aratzagoa izatera eraman zuen eta, bestetik, Instituziorantz asko hurbiltzera, aliatutzat eduki arte. Eta, batik bat, bere bizitzaren hogeita lau orduak kontrolatzen zituen sentsazio erosoa, hainbeste non nekez irristatuko zen ezein etsai ezein ahultasunaren zirrikituetatik.

—Ez zaitut ulertzen, seme.

—Zu bezalako beata batek ezin du ulertu.

Zer esango diot? Azalduko al diot nire bizitza? Barkatuko al diot berea?

—Ostera Mertxe ez den emakume batekin ikusten bazaitut... zure bizitza latzagoa izango da.

—Zuk eta Mertxek ezin duzue elkar eraman-eta.

—Eta zer? –Orain oihu egin zuen amatxok–. Zure emaztea eta nire bilobaren ama da. Zure semearena.

Bere bilobaren aita altxatu egin zen eta bizitzan lehen aldiz erronka bota zion. Esan zion, begira, amatxo, nik nire bizitza pertsonala daukat eta zuk hori ezin izango duzu inoiz ulertu. Ez, ez, oraindik ez dut amaitu-eta. Hogeita hamabi urte egin berri ditut eta nahi dudana egin ahal dut. E, ez al ditut bezero handiak lortu Suedian, Norvegian, Danimarkan eta Finlandian? E? Ez al da egia ez zenidala txakur txikirik ematen neguko kiroletan oso iaioak direla zeniolako? E, gure eski-esportazioen hirurogeita hirua ez al doa iparraldeko herrialdeetara?

—Bai.

—Eta Gasull esan eta esan, horrek hondoratu egin gaitzake, eta ni esan eta esan, prezioak salbatzen gaitu. Kalitatea ia berbera da, baina prezioagatik aterako gara.

—Arrazoia daukazu.

—Eta eski-estazio hau ez al da dirua egiteko makina bat elur artifizialeko kanoiak instalatu ditudanetik?

—Bai.

—Oso ondo: gera zaitez Torenan, nik dena eraman ahal dut-eta.

—Ez. Oso ondo egiten ari zara, baina nik diodanean eramango duzu dena.

—Beraz, orain ez jarraitu barrabilak jotzen.

—Ez dizut onartuko hori niri esatea, ez zuk ez beste inork.

—Bada esanda dago. Eta lana daukat.

Amatxok ere altxatu eta taularen bira eman zuen Marcelen aurrean kokatzeraino, zeinak, zutik, suminduta, paperak sartzen zituen dossierren karpetan. Begietara so egin ondoren, belarrondoko zaratatsu eta mingarria eman zion amatxok. Abaildurik, bere azken hitza esateko modua zen.

Silván koronela auto beltzetik eta aurpegi latzez jaitsi, kapela militarra buruan sartu eta Torenako Plaza Majorren jabe egin zen Targa alkateari gustatzen zitzaion keinu berberarekin: eskuak aldaketan, bazter guztietara begiratuz, bere gorputzaren bueltan biratuz, taloiak hiruzpalau aldiz pixka bat altxatuz oin-puntak lurrean. Ugazaba-keinua. Metro hirurogeiko neurria izan arren, ugazaba zen, ile zuria eta batik bat faltsete-ahotsa zeukan arren, ugazaba zen. Alkatea, uniforme falangista osoarekin, han zeuden bere gizonak bezala, Udaletxearen eskaileretan zeukan zain. Bere laguntzaileak eta Valentí Targaren laguntzaz sartu zen koronela Udaletxean. Alkatearen bulegoan, militarra bat-batean geratu zen, harrituta. Targaren erretratua. Esku bat atzera luzatu zuen eta laguntzaileak faria bat eta sua eskaini zizkion. Isilean arakatu zuen erretratuaren begirada bizi hura lehen zupadak eginez. Inolako komentariorik egin gabe, gelaren erdiraino aurreratu, kapela kendu, laguntzaileak jaso ziolarik, eta bilera-gelaren batzar-mahaian zeuden bi mapen gainera makurtu zen, eta haren inguruan, bi teniente kartografo eta Fontelles maisu falangista, haiek ere uniformez, koadratuta zeuden aginduen zain. Silván koronelak, haiei begiratu gabe, atseden-seinalea egin zien eta keinu bat, zer, zer gertatzen da hemen.

—Bi artzainek kontrabandisten bidean bi susmagarrien presentziaz ohartarazi dute alkatetza hau.

—Eta artzainak nolakoak dira? –lurra kolpatuz, oinetakoen zolarekin–.

—Erregimenari atxikiak.

—Zein da kontrabandisten ibilbidea?

—Altars mendi-zerraren gailurretik iparrerantz doana –seinalatu zuen kartografoetako batek. Arkatz gorri batekin bi gurutze markatu zituen Montsenten gailurraren alboan.

—Baina kontrabandisten ibilbidea Salauko mendatearen barrena da.

—Gerra ondoren gauzak aldatu egin dira –parte hartu zuen Targak–, oso bijilatuta dago Salau.

—Ezer ez dago bijilatuta.

Orduan koronelak, harrotasun pixka batekin, konfiatu zien, eurei eta makien espioi Fontelles falangistari, nola demontre nahi du komandantzia nagusiak elurrez, haize-zirimolaz eta mendebal errez betetako hainbat puta muga bijilatzea. Ez aski soldadu ez goardia zibil nahikorik dago, ez makirik jolasean ibiltzeko...

—Eta norbanako susmagarriak? –Judas Fontelles parte hartzen ari zen, beti isilik dagoen norbait bezala gomutatua izatea saihesteko–: Ongi, ikusiak izan ziren.

—Patruilak bidaliko ditugu detektatuak izan diren tokira. Eta San Maurizioraino mia dezatela. –Ardura handiz behatu zuen mapa–: Oso-oso bide luzea da! Zergatik sartzen dira handik? –Laguntzailearengana biratuz–: Hamabost egun patruilatzen. –Bertan zeudenei–: Salau aldean ezin dugu inoiz goardia jaitsi. Egun arraio osoa mendia orrazten ematen dugu, ileapaintzaile bezala.

—Argi dago, argi dago –ahots apalean esanda, bertan zeuden ulerkorrentzat.

—Zer egitea gomendatzen diguzu, koronela? –Targa irrikitan, Patria, Caudillo, armada eta Silván koronelari zerbitzu egiteko, graduazio altuko militar bakarra baitzen falangisten laguna

zena, eta beraz promoziona zezakeen Falange barruan Silván kamarada heroikoaren, presente, eta Lleida probintziako zonaldeko buruzagi Silván kamaradaren anaia zelako, eta, batik bat Silván kamaradaren semea, Jose Antonioren halako hura.

—Ezer ez. Konfia daitezela gaizkileak. Armadak hilabetearen bukaera arte miatuko du zonaldea. Izan ere gero...

—Armada Pallarsetik erretiratuko al da?

Emebost britanikoaren ikasketa intentsiboak edo gutxienez esperiantzia duen pertsona batek emandako oso ohar-txanda xeheak erabiltzeko jarraitu dituen espia profesionala bazara, beti adierazten dizuten lehenengo gauza da, doblearen paperean zaudenean inolaz ere ezin dituzula galdera zuzenak eta garrantzizkoak egin, bertan dauden guztiak isildu egingo direlako eta, isiltasun astun hartan, begiratu egingo zaituztete eta, erreflexuen arabera, pistolak zorroetatik aterako dituzte, eta ez dakizu zein astuna den agente berriak prospektatzea.

Bertan zeuden guztiak: Valentí Targa Torenako alkatea, Silván koronela armadako destakamenduko komandanteburua Pallarsen, Nafarroako Armadako hirurogeita bigarreneko lehen taldetik sortua, Benicio Fuentes komandantea Silván koronelaren laguntzailea, eta bi teniente kartografoak hirurogeita bigarren taldera atxikiak, zerbitzu berezitan, Armada berbereko lehen taldeko komandanteak hala eskatuta, isildu egin ziren eta, isiltasun astunaren baitan, Judas Fontelles falangistari eta haren ahotik sortu berri ziren hitz pozoitsuei begiratu zieten. Oraingoz ez zuten zorroetatik pistolarik atera.

—Zergatik galdetzen duzu... kamarada...

—Fontelles maisua da...

—Badakit, badakit. –Orioli–: Zergatik? –Beste zupada bat fariari, jadanik ondo murriztua bera.

—Bada... –Bera Viriato zela imajinatu zuen eta besteak erromatarrak, eta ozen eta harro esan zuen, kasua iritsita prestatzen joateko, jauna, zonaldeko maisuen artean espiritu borrokalaria ezartzeko. Imajinatzen dut informatzaile onak izatera lagundu ahal diedala, koronel jauna.

Koronelak faria lurrera jaurti eta zapaldu egin zuen.

—Ba al dakizu esan duzun hori, Fontelles kamarada, ez dela inongo astakeriarik?

Eskua atzera luzatu eta laguntzaileak kapela itzuli zion. Orduan sartutako presa berberarekin atera zen udaletxetik. Afektatuen artean zabaldurik zenez, Silván koronelak buru zuen batzarrak faria baten denbora doia iraun zuen.

Valentí Targa euforiko zegoen, zeren, agurtzerakoan, koronelak lagunkiro jarri baitzion esku-ahurra bizkarrean, eta hori oso modu positiboan interpreta zitekeen. Oso. Gelara itzulita, non Fontelles falangistak arretaz begiratzen zituen mapak, hitz-jarioa etorri zitzaion. Mahai gainean Torena herria hatzekin seinalatuz.

—Hemen –esan zuen.

—Hemen, zer?

—Hemen egingo dut etxe bat. Barrabiletaraino nago alokairuan bizitzeaz.

—Zergatik ez zara Altronen bizi?

—Ez dut harremanik etxekoekin.

Valentí Targak ez zion Fontelles falangistari terrenoa lortzeko erabili zuen sistema azaldu, ez zuelako haserretu nahi maisuarekin. Zabalgune tentagarria zen Arbessé inguruan, bista ederrarekin Assua aran osora, eta Gravat etxea bezalako mantsio bat eraikitzearekin egiten zuen amets, baita neskame isilekin ere, bere koadroa harrera-gelako horman esekita, zur nobleko horma-erloju bat eta guzti, orduak jotakoan katedral baten antza emateko. Eta Lore Ederra igoaraziko zuen okupatzera eta etxekoandrearena egitera, Urquinaona plazatik hain urrun dagoen herri batera bizitzera konbentzitzen bazuen. Eta Gravat etxean bezala, grabatu batzuk fatxadan, oso gauza fina: eskuinean Jainko Aita Guztizahalduna eta Falangea, Jose Antonioren irudia daukan eskutua daraman emakume bat; ezkerrean, Caudilloa, Jainkoaren Ama Pilarrekoa armadaren zaindaria, eta soldadu kementsu batzuk. Eta zuk egingo dizkidazu aldez aurreko marrazkiak. A propos, luzaro geratu nahi baduzu Torenan, orain da unea etxe bat egitea pentsatzeko. Esanda dago eta ez dut insistitzeko asmorik.

Gaueko hamaiketan, maisuaren etxeko leihotik, Oriolek argiak bota zizkion faroari, esaten ziotenak, elkarrizketa eskatzen dut terreno neutrala larria arriskua. Eta konfiantza zeukan erresistentziaren alde pulmonia harrapatzeko norbait egongo zela faroan. Inor ez, inor ez dadila Altars mendizerratik pasa, inor ez dadila hamabost edo hogei egunetan eskolara etorri. Ireki daitezela ibilbide berriak. Behar bada udan armada Pallarsetik erretiratuko dela.

—Seguru al zaude?

Marcó tenienteak bizarra laztandu eta lo gutxi egiteagatiko begi gorrituekin begiratu zion.

—Ez. Baina horretaz hitz egiten da.

—Goazen, irrati honek nola funtzionatzen duen azalduko dizugu-eta.

Zeramaten paketea ireki eta eskolako ganbaran utzi zuten bi gizon isilek, kontu handiz. Burdinazko kutxa bat, orratz batzuk, aurikular batzuk eta arrisku bat gehiago.

Atean bertan utzi zuen, oso laburra iruditu zitzaion musu bat eman ondoren, agian haien atzean monje atezainak ikusarazten zuelako interesa zeukala misterio monakalez beteriko ordenadorearen pantailaz. Arnauk astiro itxi zuen atea bere atzean eta emakumeak lau mailak jaitsi zituen, desolatuta, bere semeaz gabetuta, aldatu egin didate, gizon suabea etsia bihurtu didate. Baina zoriontsua da. Eta oraindik Arnau du izena. Jada ez da Arni. Basilikaren zabalgunean arratsaldeko argi erridukuluz bere burua txunditzen utzi zuen eta bere atsekabe guztia gainean erori zitzaion monasterioko atean uzkurtuta itxaroten egon izan balitz bezala, bera irten eta errukirik gabe eraso egiteko. Elkarrizketa-ordu luzean, Joana zakur sasikoaren eta Jordi, gezurretan eta umiliatuz, malapartatuaren bisio obsesiboa apartatzea lortu zuen. Ordu betez saiatu zen Arnau benetan zoriontsu ote zen, edo plantak egiten ote zituen, arakatzen. Nobizio-habituarekin guapo zegoen, azken buru. Adatsak motzago, bizartxorik gabe, baina begi berdinak eta hitz egiteko modu berbera, ez oso ozena, bera nondik zetorkion ez zekien autoritate baten jabe.

—Triste zaude.

—Oraindik ez dut onartu zu galtzea.

—Ez nauzu galdu. Hemen nago. Ni ikustera etor zaitezke aldian behin.

—Galdu zaitut.

—Eta Boston edo Canbridgera ikastera joan izan banintz?

—Hurbilago egongo zinateke. Orain barrera bat dago...

Zur beltzeko aulkiak seinalatu zituen, mahi inutil hura, mintzatzen ari ziren lokutorioa. Montserrateko edozein txoko izan zitekeen Mir baten imitazio gezurtia, bere aurrean esekita. Izatez ez zekien zer adierazi nahi zuen, baina argi zegoen hura ez zela etxean bezala sentitzeko tokia. Semea ikustera joan eta bisita bat egiten zegoen.

Arnauk bi eskuak hartu eta begietara begiratu zion:

—Ama, ez dago inongo barrerarik.

—Seguru otoitz egiten duzula ni konbertitzeko.

Ozpinduta esan zuen eta berehala damutu zitzaion. Mutilak, ordea, irribarre bat abiatu zuen, erdi osatuta utzi zuen pentsatu bitartean, eta emakumeak sekula erabili ez zuen segurtasunarekin erantzun zuen, ni ez bainaiz inor zure gauzak ikusteko moldea aldatu nahi izateko. Zure alde otoitz egiten badut, da beti bezain pertsona ona izaten jarrai dezazun.

Monje madarikatua, erantzun liberal, tolerante, azkar, koherente eta lasaigarrienak eskura zituena, dena ondo aztertua eta ezagutua baleuka bezala. Bizitza guztia Egiaren mapan marraztuta baleuka bezala eta nahikoa balitz bezala zati bat desestaltzea zalantza-kasuetan kontsultatzeko. Eta beti erantzun bat, beti erantzun bat, inoiz ez zalantzarik Jainkoaren taldean jokatzen zuelako.

—Gustatuko litzaidake Jainkoagan sinestea. Nolako atsedena, sinisterik baneuka...

Arnau azkarregia zen erantzuteko. Isildu egin zen, seguru aski ulertzen zuelako. Emakumeak jarraitu zuen:

—Baina Jainkoarena enigma konponezina da.

—Niretzat, ez. Enigmak frogak esan nahi du, irtenbidea bilatzea, arazoak kitatzea... Niretzat Jainkoa misterio bat da eta soilik fedetik egin ahal diozu aurre.

—Ez dituzu frogarik behar?

—Fedea fedearekin elikatzen da, ez frogekin.

—Eta zu nire semea zara?

—Baietz ulertuta daukat.

Isildu zen egiatan ez zekielako zer esan. Baina isiltasunak artegatu egiten zuen. Eta are gehiago kezkatu zuen konturatzea Arnau lasai asko geratzen zela. Nola edo hala txikitu nahi izan zuen:

—Hotza pasatzen al duzu?

—Ez.

—Baina arroparik behar al duzu? Txukun jaten al duzu?

—Zer egiten du Jordik?

—Zure aitak ez daki etorri naizela.

—Eta zergatik ez du jakin behar?

—Ez natorrelako etxetik. –Eusten jakin ez zuen sumindurarekin–: Ez pentsatu gauza arrarorik. Ba al dakizu Udaletxeko zinegotzi egin dutela?

—Bai. Eskutitza jaso nuen orain egun batzuk.

Agudo ibili da azalpenak emateko. Esan al dizu zerbait gehiago? Esan al dizu adarrak jarri dizkidala?

—Portaren dimisioagatik; zerrendako seigarrena zen eta begira.

—Ilusioa egiten al dio?

—Suposatzen dut. Orain gutxi ikusten dut. –Gaiaz aldatzeagatik–: —Ongi jaten al duzu?

—Oso ongi. Ez kezkatu horregatik.

—Zure osasunagatik kezkatzen naiz.

—Laurogei urte baino gehiagoko zortzi monje daude komunitatean.

—Lau horma hauen artean egon nahi al duzu bizitza osoan? Laurogei urte egin arte? Hil arte? –Zikin jokatzen ari zela jakitun–: Eta mundua? Eta asmaketak, progresoa, paisaia, filmak, gaixoen premiak, zure aurrerakuntza pertsonala? –Eten gaizto baten ondoren–: Eta emakumeak?

Arnauk ostera eskuak hartu eta esan zion, ama, ez da ezelango sakrifiziorik: zoriontsua naiz, lasai nago eta gustatuko litzaidake zuk ere ez sufritzea gehiago nigatik: seme zoriontsua daukazu, hara. Ama guztiek ezin dute hori esan.

—Ordu desegokian etorri al naiz?

—Ez, ez. Besterik ez genuen behar. Hemendik hiru astera jai bat egingo da... etorri nahi baduzue?

—Zein motatako jaia?

—Ongi, bada... Eukaristiaren ospakizun bat Komunitateko monjeen senideentzat. Badakit...

Hemendik hiru astera ingresatuta egongo naiz eta heriotzaren erpeetatik erreskatatzen arituko zaizkit kimioterapia edo holako zerbaiten bitartez.

—Jasoko al dugu gonbidapenen bat-edo?

—Ez baduzue etorri nahi ez...

Tinak hormako Mir margolariaren parodiari so egin zion. Gero, begiak koadroan iltzatuta:

—Nork dio ez dugula etorri nahi?

—Izan ere meza eta hori dena...

Beldur naiz, Arnau. Hiltzeko beldurra daukat.

—Badakigu moldatzen. Ez kezkatu.

—Zergatik zaude triste?

Semearen autoritate morala. Semeak agintzen du orain zugan eta zergatik zauden triste jakin nahi du. Eta zuk, edozein semeri bezala, ez diozu kontatuko bikote-arazo bat daukazula eta beste bat bularrekoa, nahiz eta ez dakizun ondo zein ordenatan. Eta zergatik oso ondo jakin gabe, seguru aski zu salbatzeko, hain errudun ez sentitzeko, desenmaskaratu nahi dituzun hainbat gezurretan esekitako maisu maki baten nortasuna. Eta bizitza konplikatua da gogoa daukadalako esateko gaixorik nagoela eta beldurra ematen didala egoteak. Baina ez dizut esan nahi ez dudalako gura nire alde otoitz egin dezazun, ez dudalako nahi otoitzak eta kimioterapia nahas daitezen; hoherentziaz. Arnau, ulertzen al didazu? Jordik bat-batean ez daukan koherentzia hartaz. Isisltasunak hil egiten nau, zeren gogoaren arabera gelditu gabe esango nizuke gaixorik nagoela, eskuineko bularra atera behar didate eta espero dut sekuelarik ez egotea: doktore andereak dio ezetz, ez direla geratuko, zortekoa naizela, eta nik galde egiten diot nire buruari zortekoa izatea al den bular bat ateraraztea.

—Gauzak.

Tina Arnaurengana hurbildu eta garondoa laztandu zion. Begiratu egin zion. Ez zion batere ilusiorik egiten beltzez jantzita ikusteak, nobizio-habituarekin: Batere ez. Aldiz porrot-sentsazioa ematen zion baina ez zuen deus esan, ez ziolako zauririk egin nahi.

Hari buruz anaia atezainari galdetu zionean, harritu egin zen Komunitatearen izenean, izan ere ez baitira bisita-orduak eta berak esan zuen kanpotarra zela, nolako txorakeria, mundu guztia da kanpokoa Montserraten. Semearekin komentatzeko gauza larri bat zeukala eta mesede egiteko, eta anaia atezainak modu diskretuan desagertu eta are modu diskretuagoan itzuli eta ezer esan gabe animo pertsonalizatzaile inutil batekin dekoratutako gelatxo despertsonalizatu batera pasarazi zuen. Horman, mendiaren txoko ezezagun bat, tonu okre eta berdeekin, Mir bat imitatu baina Cuscó izeneko batek izendatuta zegoena. Edo Cusssó. Usain berezia sentitzen zen toki hartan, lausoa, definigaitza. Bost minutu itxaron zituen, bakarrik, pentsatuz auskalo nora joan diren haren bila, hain etxe erraldoian. Soroan, sakristian, bibliotekan, sukaldean, dena mila kilometrora. Lokutorioetara ematen zuen atea ireki zen orduan eta urrats batzuk hurbildu ziren gelatxora. Monje bat... Ez, Arnau. Arnau habitu beltz batekin eta adatsak motz, osasuntsuak, indartsuak baina motzak. Bizartxorik gabe. Monasterio batean babestutako iheslaria. Arnau monjez mozorrotuta. Jainkoarren. Eta eskuak zuri-zuri, egunsentiko bi txori bezala, hainbat arropa beltzetan ezkutatuz, eta irribarre

patxadatsua, esanaz, ama, zer egiten duzu, zerbait gertatzen al da? Orduan ezer esan gabe besarkatu zuen emakumeak, Arnau monjez jantzita ikustea gogorregia baitzen beretzat. Eta ezin zion Jordiri hortaz hitz egin. Hainbat gauza barruan, min ematen amaitzen du.

—Ez nago triste. Aldiz, nekatuta. Ba al dakizu liburua amaitzen ari naizela?

—Zertaz zen?

Etsipena. Ez da gogoratzen. Ez du nire bizitza bizitzen.

—Beraz, Pallarseko etxe, herri eta kanposantuez.

—Ze ongi. Emango al didazu bat monasteriorako?

—Zuretzat ekarriko dizut. Aurreikusi baino gehiago kostatzen ari zait... testuak, argazki-oinak... eta deskubritzen ari naizen gauzak. Baina banabil.

Kanpaitxo batek jo zuen dependentzietan, kanpaitxo bat zeinaren doinua ia ez zen lokutorioetatik hautematen. Baina bera konturatu zen nola Arnau goardian jartzen zen eta hogei segundoren buruan, modu oso trebean altxarazi eta anaia atezaina haren ordenagailua, haren sekretuak, haren betaurrekoak eta Arnaurena bezalako haren irribarrea zeuden harrera-gela moduko hartara laguntzen ari zitzaion. Zurtuta, eskaileretan zegoelarik, Arnauren ahotsa entzun zuen, esanaz, zer egiten du Juri Andreievitxek?, lehenago zer egiten du Jordi galdetzeko erabili zuen tonu berberarekin. Orduan ulertu zuen Jordi errekuperaezina zela bere bizitzarako eta kolpe bakar batez semea, senarra, katua eta, sorte txar pixka batekin, bularra eta bizia galtzen ari zela. Eta eskailera grisak, zabalguneko hotza, ilunabarreko argia eta bere desolazioa. Argi haren argazki bat atera zuen, hitzekin besarkatu ezin den tristura moduko hura lekuren batean kokatzeko.

Zaragozako trena ez zen gaueko hamarrak arte ateratzen. Denbora soberan zeukan edozein txokora negar egitera joan eta munduko emakumerik dohakabeena kontsideratzeko. Hainbeste urte ziren eliza batean sartzen ez zela, harritu egin zen bere burua ur bedeinkatuko ontzia bilatzen ikustean. Argizari errearen usaina, intzentsu liturgikoaren hondakinak, argiluna eta isiltasuna. Aski aurreko banku baten mutur diskretu batean jesartzera joan zen. Lau lagun alboko aldareak kontenplatzen ari ziren. Itzal ilun batek kamerinorako bisitak amaitu zirela zioen errotulu bat ipini zuen eta, ezusteko moduan aldarea eskurik gabeko ikaslez betetzen hasi zen, zeinak Jainkoari baimenik eskatu gabe Virolai katantzen hasi ziren. Tinak, nekatuta sentitzen zen arren, arduraz entzun zituen: kontundentziaz kantatzen zuten, perfekzio pixka bat monotonoz, makularik gabe, zalantzarik gabe, ez berak bezala. Pentsatu zuen ezen eliza bat urte askoan zapaldu gabe egon ondoren modu sistematikoan sartzen hasia zela kontzertuak entzuteko eta han, oso urrutitik deitzen zuten zeinuak, sinboloak, esloganak, logoak, irudiak eta usainak berraurkitu eta indeferentzia pixka batekin erantzun ahal zien. Baina ilunabar hartan ez zen batere indiferente sentitzen, jadanik ez zeukan semea lapurtu zion etsai bezala berrikusten hasi baitzen eliza. Oraingoan etsai bezala sartzen zen. Jainkoa, zu eta biok haserre gaude. Horregatik ez dizut hitz egiten, Ventura andereak bezala.

Esnatu zenean, ilunpean zegoen basilika eta hotzikara sentitu zuen. Betertzez, ingurura so egin zuen, aztoratuta. Bakarrik zegoen, lotan geratua zen txoko hartan eta... Braustadaz altxatu eta aterantz abiatu zen. Itxita zegoen. Izua. Zer egiten da bat eliza batean itxita geratzen denean? Garrasika has zitekeen, bere beldurra gangetan jo eta biderka zedila,

Arnauk erridukulu-unetxo bat pasa zezala esango ziotenean, zure ama inpresentable bat da, arranopola, itxita geratzen uztea ere. Erlojuari begiratu zion. Iluntzeko bederatziak ziren eta bera zen izaki bizidun bakarra nabe hartan. Orduan eskuko telefonoari oratu eta, bat-batean etxeko zenbakia markatu zuen. Baina suspertu egin zen Jordiren ahotsa nor da, nor da esaka entzun zuenean. Tina? Zu al zara?, eta eseki egin zuen. Ez zuen nahi Jordik jakin zezan Arnau bisitatzera joana zela. Ez zuen nahi bere ahotsak nabe ilun hartan durunda egiterik; beldurrarazi egingo zukeen. Ez zuen nahi Jordik jakin zezan eliza batean itxita geratzen utzi zuela, ez zuen nahi Jordik jakin zezan eliza batean sartua zela. Ez zuen nahi Jordiren laguntzarik. Ez zuen Jordi ezertarako nahi.

Piztutako bonbila eskasek, argi zurbilekoak berauk, are nabarmenago egiten zituzten itzalak. Banku batean jesarri zen, atzean uzten zuen ilunpeak kezkatuta, baina artean zer ez zekien itxarotera etsita. Aldi luze baten ondoren konturatu zen negarrez ari zela baina ez begiak erreta zeuzkalako baizik desolazio hutsez. Otu zitzaion agian otoitz egin zezakeela. Jainkoari laguntza eska ahal ziola, baina berehala ulertu zuen, une zail hartan otoitz bat inbokazio lizuna izango zela. Egia da sinestunak bera baino askoz hobeto bizi zirela. Edozertan sinestun zirenak, baita ideia politiko batean ere. Berak soilik eskolak eman eta argazkiak ateratzen zituen eta pelikula batean inpresiona zitekeen edozertan sinesten zuen, materia izan, oroitzapena edo sentimendua. Baina ez zuen gauza askoz gehiagotan sinesten. Hezkuntzan kontzepetu abstraktu gisara hartuta, agian. Eta hilabete batzuren buruan ez eta Jordirengan ere, gorroto bihurtu zen bere maitasun handiarengan. Edo ez: bere indiferentzia handian. Ez, indiferentzia ez: bere mespretxu handian. Erreserbarik gabe maite izan duzun batengan konfiantza galdu duzula ohartzea pertsona horrek zure baimenik gabe zure besoetan hiltzea erabaki balu bezalakoa da. Beraz, ezin zuen otoitzik egin, ezin zuen denbora baliatu orain eskura zeukan eliza basilikal hartan. Soilik aitor zezakeen, atsekabeak abailduta, bere semeak eta bere gizonak beste maitasun batzuk aukeratu eta berea alboratu zutela.

Denbora asko zen Tina ez zela hainbeste denbora isilik egon, pentsatzen. Hilabeteak. Zehazki Renomek esan zionez geroztik Lleidan ikusi zuela Jordi, Seun egon behar zuenean, itxita, hausnartzen, lanean. Jordi gezurretan zebilkiola jakin zuen egunetik ez zen denbora asko geldi egoteko gauza izan, orduan deabru guztiek burua puzten ziotelako. Eskerrak orain liburua bukatzeko zeukala eta Oriol Fontellesen bizitza, arakatzeko. Eskerrak trebea zela hausnarketa-uneak ekiditeko. Harik eta ergel baten modura Montserrateko monasterioko basilikan itxita geratu eta arrastaka zeraman miseria guztia bere begien aurrean, moda-desfile ironiko eta ankerrean, igaro zedila ekidin ezin izan zuen egun triunfalera arte.

Gaueko hamarrak laurden gutxiagoan-edo Santseko geltokian egon behar zuen orduan, bere atzean zarata eta pizten ari zen argi ahul bat sentitu zuen. Atzera begiratu zuen. Koruaren gainean zegoen. Mugimendua zegoen koruan: Eta garrasi egiten bazuen? Atabismo inkontrolatuak eraginda zutabe baten atzean gorde eta korurantz begiratu zuen. Monjeak sartzen ari ziren eta, ikusi ahal zuenagatik, haietako bakoitza ziur aski toki zehatz batean kokatzen arituko ziren.

Tina Bros, bere bizitzan lehen aldiz, konpletak errezatzen ikusi zuen. Zerbait labur, austeroa kantatu zuten, ez zekien zer, eta ahots haietako bat Arnaurena zela pentsatu zuen. Oso polita iruditu zitzaion eta inolaz ere ez zuen magia hura apurtzerik nahi izango, bere burua salatzera emanez. Bukatu zutenean, minutu erdia baino lehenago hutsik eta ilun geratu zen korua eta memorian mantendu zuen hain une atsegin hura. Ordura arte ez zuen trenaz pentsatu baina beranduegi zen. “Lapur bat bezala sartuko naiz zure etxean, o Jahve, eta lapur bat bezala aterako naiz egunsentian”, irakurri zuen zutabe batean atxikita zegoen altzari batean

abandonatutako salmo-liburu batean. Lapur bat bezala paseatuko naiz nire bizitzan eta besteen bizitzan uzten badidate.

Gaua izotzezkoa izan zen baina lo egin ahal izan zuen beldurraren eta bankuaren deserosotasuna gorabehera. Lehen bisitarien artean desagertu eta kanpoko argiaren erasoan begiak kliskatu zituenean, hezurrak xehe-xehe eginda, konturatu zen ezen harridurak harridura, eguna laino zegoela, martxoaren lehenengoko laino hotzez estalia, amestua izateko paisaiarik onena lainoaren izarak errukitsu estaltzen baititu xehetasunak, anekdotak, akatsak eta amestaren kontzeptu hustarekin uzten baitzaitu. Zaragozatik bueltan, esan zuen lainoaren amildegi aurrean, beste behin Montserratera etorri eta banandu egin garela esango diot, seme, zure aitak oraindik ez dakien arren, eta ez eskatu xehetasunik ez dizudalako eman nahi.

Atzera begiratu zuen Tinak, monasteriorantz. Gorroto zuen melodramatiko jartzea, baina otu zitzaion litekeena zela beste inoiz ez ikustea. Maite zaitut, Arnau. Ez nago behartuta zu ulertzera baina bai zu onartzera. Bere semearen monasterioa. Argazki triste bat atera zuen. Zaragozako trena galdu ez ezik, ez zuen ezein federik errekuperatu.

Feliçó etxeko Feliu Bringuék hogeita hamazortzi urte zituela zeharkatu zuen bizitzan lehen aldiz Gravat etxeko ate nagusia. Ahoz aho zebilen Gravat etxea eta Assua araneko edozein pertsonak akatsik gabe errezita zitzakeen altzarien kokapena, zuraren testura, gortinen kolorearen xehetasunak, beti gazte eta distiratsu mantentzen zuen anderearen erretratua, alfonbra lodiaren isiltasuna, etxeko atmosfera betetzen zuen izpiliku- edo sagar-usain gozoa, hormako erloju bikainaren kanpaikada sakonak, ezinezkoa iruditzen zaio Torenan holako etxerik egotea, sekretu handiagoetara daraman zur nobleko eskailera, egon-gelan erakusten diren argazkiak, sutan leunkiro erretzen diren egurrak. Eta oso-oso usain gozoa, anderea sartu ahala.

—Etorkizuneko eta anbiziodun gazte bat zara zu.

—Herriari zerbitzu bat egiteko aurkezten dut nire burua. Nire anbizioa ez da pertsonala.

Mutikote hura berak gehien gorrotatzen zuen gizon baten semea zela bazter utzita eta zalantza handiak izan zituela etxera gonbidatu baino lehen, irribarre egin zuen:

—Jakina –esan zuen–. Eta gauzak doazen bezala, hauteskundeak irabaziko dituzu.

—Hala espero dut.

—Beste zerrenda oinekin eginda dago.

—Beste zerrendak –Bringué ez zen ohartzen ez zela miting-ahotsik jarri behar– boterea eskutik kentzea nahi ez duten frankista nostalgikoak batzen ditu.

—Ziur nago ezgai hutsak direla.

Begietara so egin zion mutikoteak. Azken buru ohartu balitz bezala andereak ikuspuntuak eta abar une batez konpartitzeko desioa iritsarazi ziolako zegoela Gravat etxean.

—Baina zuk zer nahi duzu? –esan zuen azkenean.

—Oso gaztea zara eta badira gauza batzuk... –geroko alkatearen te-katilua bete zuen. Hark, katiluari kasu egitearen keinua egin ordez, erlojua kontsultatu zuen.

—Ilusio berezia egiten dit –hasi zen esaten– lehen alkate demokratiko aukeratua izateak. –Begietara begiratu zion–: Nire aitaren erreleboa hartzen dut.

Zer egingo dut? Beste egun baterako utzi? Teontzia buruan lehertu?

—Nik badakit nola doan dena Torenan eta aranean. Herrialdea oro har. Badakizu.

—Eta?

—Ondo egingo zenukeela gauzak niri kontsultatuz.

—Barkatu, baina...

—Aranaren aberastasuna ez dator behietatik, elurretik baizik. Nik dakar aberastasuna hemen. Azukrea ala eztia?

—Anderea, nik... Gutxienez duintasunagatik, ezin dut...

—Oso ongi ulertzen dizut. –Moztu zion ahots eztiz–: Baina kontsulta iezaizkidazu gauzak. Denok irtengo gara garaile.

—Beharbada gogoratu beharko nizuke –tonu minduan– elurrak ez duela urte osoan irauten.

Justu Bringuéren azken hitz hauek izan ziren argitxoa pitzarazi ziona, seme, Marcel, eman itzuliak, baina denboraldia inoiz ez bukatzea lortu dezakegu. Joan Coloradora edo erreka presatuak dauden dena delakora eta behatu, hartu oharrak eta hitz egingo dugu.

—Adidasek interesa dauka zapatiletan.

—Ongi. Ez utzi galtzen. Besterik ezin bada, zolak. Pentsatuko al duzu esan dizudanaz?

Berak bazekien hasiera deserosoa izango zela. Feliçó etxeko Bringué, Bringué gorrotatuaren semea, diktadura ondoko Torenako lehen alkate demokratiko aldarrikatua izan zen eta jendea kalera atera zen ospatzera eta gutxi-asko denek betertzez begiratzen zuten Gravat etxera, zeina entzungor egiten zen, zaparradari eusteko prest. Hauteskundeen biharamunean, Feliu Bringué Udaletxean sartu, leihoak irekiarazi eta berak, zerrendako zinegotzien txalo artean, Francoren, Jose Antonioren koadroak eta, Jainkoak barka diezaiola, betidanik alkatearen bulegoaren buru izandako gurutzea deseseki zituen. Valentí Targa Torenako borreroaren irudia gogorarazten zuen oleoa ere jaitsi zuen, modu ulertezinean oraindik batzargelako horma batean zintzilik zegoelarik. Erretratu on bat. Nolako begiak. Zein demontrek marraztuko zuen. Eta zinegotziak eta baita oposizioko kide bakartia, Savina etxeko Xavi Burés, Batzar-mahaiaren inguruan eseri eta Torenaren etorkizunean pentsatzera gonbidatu zituen.

Ongi, pazientzia-kontua zen, pentsatu zuen Elisenda andereak. Baina oraindik beste zaparrada bat jasan behar izan zuen udalbatzarrak, bere erreklamazioa arrazoitua izan arren, arteztea ukatu zuenean, eta euria egiten zuen egun batean eta kaleak hutsik zeudelarik ekitaldia insistentziaz aditzera emana izan zen arren, Feliçó etxeko Feliu Bringuék kanpainan erabilitako hitza, gauzei izenak itzultzea, betetzen zuen eta Torenako herri osoa gonbidatu zuen kaleetako izenak aldatzeko ekitaldira. Gravat etxeko lehen pisuko portxetik, euritik babestuta, txal batean bilduta, oraindik Plaza de España zeritzan Plaça Major aldera begira zegoen. Giza talde ez oso ugaria eta Cecilia Báscones maltzurra, denetara apuntatu eta orain betiko demokrata dena, zeina hirigintzako zinegotzi mutikoteari esaten ari zitzaion mikrodrepanizitosia anemia kronikoko mota bat zela, hematieak desegiten dituena.

—Amatxo, sartu, hoztu egingo zara-eta.

Elisendak Mertxerengana begiratu zuen baina hark ez zion entzutea onartu eta bere behaketara itzuli zen. Mertxek atea itxi zuen, pixka bat ernegatuta.

Alda dezatela nahi dutena, Franco eta Jose Antonioren kaleak, baina Jainkoaren maitasunagatik, ez diezadatela Oriolen kalea ukitu.

Plazan, Jaume Serrallacek, harrietakoaren semea bera, plaka zaharra jaitsia eta berria aurkeztua zuen, marmolezkoa hura ere. Kokatuta zeukaten minutu batean. Lau elkarretaratuek txalo egin zuten, Bringué amaren semeak hitz batzuk esan zituen, hark harrapatzerik izan ez zituen hitzak esan zituen, baina munduko heriotza guztia opatu zion.

Arranguraz kontenplatu zuen nola Serrallacek plaka zaharra birrindu eta zatiak bere saskian gordetzen zituen. Eta orduan ikusmena lausotu egin zitzaion, disgustu bat jasaten zuen bakoitzean gertatzen zitzaion bezala. Betaurrekoak kendu eta leunki igurtzi zituen begiak

atzamarren mamiarekin. Ez, ez zuen negar egiten. Lehenago joango zen Bartzelonara betiko bizitzera jendaila hark negar egiten ikustea utzi baino lehen.

—Zure amak ez dit kasurik egin nahi.

—Baina zein gaitz dago han ikusten egotean?

—Badirelako hiru ordu han dagoela. Zutik. Goizeko zortzietatik ari da goardia egiten. Eta ez du ezer berorik hartu nahi. Ez berorik ez hotzik. Eta oraindik haserretu egiten zait asko zaindu behar duela gogoratzen badiot.

—Arraioa. Seguru negarrez ari dela Fontelles putakumearen izena kentzen ari direlako.

—Suposatzen dut. Batzuetan iruditzen zait dagoela pixka bat...

—Esaiozu ipintzeko.

—Ez du inorekin ezer jakin nahi-eta!

—Arraioa, esaiozu, demontre.

—Ez dela sartuko. Nik diotsut.

—Saia zaitez telefonoa terrazara ekartzen. Hariak ematen duenera arte. Zer egiten du haurrak?

—Ongi. Ikusiko duzu nola ez duen nahi...

—Tira, ipini dadila. Besterik ez genuen behar gaur.

Kontua zen plaketako bat kendu eta ordezkatzea. Kontua ez zen bezperan udaletexko brigada batek (hots, Jaume Serrallacek berak) plakak diskrezioz kendu eta egitateen egunean inaugurazio orokorra egitea dirkurtso batekin etab. Ez. Kontua zen, Feliçó etxeko Feliuren mentalitate bihurriarekin, ekitaldia herrialdeko historiaren estrakzioa bilakatzea, mendekua, hormetatik Franco, Jose Antonio eta Oriolen izena atera eta beste izen espurioz aldatzea. Aldatu, hagin bat ateratzen den bezalaxe. Ekitaldi zibikoa deritzote baina mendeku-ekitaldi bat da. Eta Cecilia Báscones, lehen lerroan, jaka aldatuta. Daukan adinagatik, duintasun handiagoarekin har zezakeen, tabakoa eta pastazko botoiak berdin saltzen baitizkiete moroei eta kristauei. Elisenda portxetik mugitu zen Jose Antonio kaleko plaza azpian gelditzen zen segizioa ikusteko. Euria egiten jarraitzen zuen eta autoritateen eta publiko urriaren euritakoak ontto beltzak bezalakoak ziren. Eta kolore-punttu bat, ezezegun batzuk inpermeable distiratsuekin, argazkiak egiten. Behar bada aldizkari batekoak.

—Amatxo, Marcel.

—Ezetz. Gero.

—Amatxo, presa daukala. Etorri honaino, kableak ez du gehiagorako ematen-eta.

—Ekarri. Esan.

—Amatxo, zer gertatzen da?

—Ezer ez. Non zaude?

—Parisen. Adidasekin tratua ixten.

—Zein produktu?

—Zapatilen lokarriak.

—Hobeto hori ezer baino.

—Nola... Bikaina da-eta!

—Lor zenezakeen zapatila osoa.

—Bai. Eta galtzetinak, ondo baderitzozu. Zer da kaleko plakaren ez dakit zer hori?

—Zure intereseko deus ez.

—Beraz zergatik ez zara etxe barrura sartzen?. Mertxek dio...

—Mertxe isil dadila. Agur, lana daukat-eta.

—Baina amatxo! Arraioa, diabetikoa zarela! Gogoratu ezen...

Elisendak emakumezko gazteari itzuli zion telefonoa orain ontto beltzen aldea Oriol Fontelles falangistaren (1915-1944) kaleburura iritsi eta portxetik ikusi ahal zen plakaren azpian geratzen baitzen. Bakarra izan zen, Jainkoak madarika dezala Serrallacen arima, hark horman, zuzenean jo zuena, hausteko. Izena gurutziltzatu nahiko balu bezala. Eta gero eskarparekin dena lurrera botatzen amaitu zuen. Eta, haren iritziz, Carrer del Mig izena kokatuko zuten.

—Ikusten, nik izen hau ez nuke aldatuko laster santu egin eta ostera aldatu beharko baitugu plaka.

—Eta nola dakizu santu egingo dutela? Izan baitzen...

—Gazteek mezatara joaten ez zaretenez... –Cecilia Básconesek errukiz begiratu zion mintzakideari–. Sendatze mirarizkoak –Gehitu zuen jarrera misteriotsuz.

—Hori ez du Jainkoak berak ere sinisten.

Bukatu zuenean, jendea sakabanatu egin zen gose balego bezala. Inpermeable distiratsukoak handik zehar ibili ziren puska batean eta Jaume Serrallacek historiaren zatiz betetako saskia ustu zuen Fontelles kaleko hondakinez osatutako edukiontzian. Orduan, Elisendak bi mantxa ikusi zituen kale hartako goialdean. Nekatuegiak zeuzkan begiak ondo bereizteko, baina bi emakume ziren elkarri besotik oratuta. Ventura andereak, seguru. Mantxak kaletik jaisten hasi ziren, isilik, alde guztietara begira, ibili ordez ibilbidea haztatuko balute bezala. Edukiontzira iritsita haietako batek haren barrura begiratu zuen, zerbait ziurtatzeko. Eta Fontelles kalean behera jarraitu zuten. Carrer del Mig behera.

Oskan jaio zen mila bederatziehun eta hemeretziko maiatzaren bian esku-langile familia baten baitan. Aitak jaki-denda bat gobernatzen zuen zeinarekin emazteak, izeba-amama Soledad, Jazinto eta Nievesek osatutako familia bat hazi zuen. Denbora luzez Jazinto ttikiaren ametsa zen lata doratu eta findutako pala makarroien tiraderan sartu eta kukurutxo bat osatzea. Eta gauza bera arrozarekin eta azukrearekin. Eta koipez igurtzitako bonbarekin olio-txopin bat ipintzeko aukera gertatuz gero, bazekien orduan zorionetik oso gertu egongo zela. Horregatik, mila bederatziehun eta hogeita hamaikako apirilaren hamalaua modu ezabaezinean markatu zen bere ariman, ez egun hartan Bigarren Errepublika aldarrikatu zelako Bartzelonan eta Madrilen, baizik, aurreko egunean, Rosendo jaunak erabaki zuelako amaitua zela Jazintoren eskolarizazioa eta biharamunaz geroztik Desenegañon, Caballerosen ondoan, zeukaten dendan lagunduko ziola. Leher egin arte kargatu zituen sifoi-kutxak eta botilak zahagiko ardoz. Baina aintza ere dastatu zuen: arroza, makarroiak, fideoak, fideo finak (beste teknika eskatzen dutenak pala-paserako), dilistak, txitxirioak, lekak eta olioa; bai: Jazintok olioa zerbitzatu zuen eta zorionetik oso gertu zegoen, trapu zalantzakor harekin, San Vicenteko tindategiko Pilarri bere bizitzako lehen litroa zerbitzatu ondoren, eskuak xukatzen zituen bitartean. Hamabi urterekin ume zoriontsua zen. Gero, Errepublikaren garaian, gauzak konplikatzen hasi ziren. Eta gerrarekin, are gehiago, martirio bat zelako makarroi- eta arroz-kukurutxoak eta kukurutxoak betetzea, eta eskuak olio kaka harekin zikintzea, eta are gehiago bezero polit bat etortzen bazaizu, eta zu han, zikin, nazka emateraino, eta hain zegoen barrabiletaraino ezen, onartu zutenez geroztik, Desengaños, Caballeros iskineko kale aluko denda alu hartatik aldentzeko presatu zen, mundua ikusi eta zoriona bilatzeko. Ebroko bataila izango zenaren erdi-erdian aurrera egin behar izan zuen tropa errepublikanoekin. Vinebre ibaia zeharkatu zuen, poz-pozik neska bikain bat ezagutu zuelako, zeinak arrosa koloreko arrosa bat oparitu zion eta izena esateko denborarik ez zion eman, hura dena bere konpainia ibairantz jaisten hasia zenean gertatu zelako. Ebro zeharkatu ahala galdu zuen arrosa-koloreko arrosa, baina bizirik iritsi zen Fatarellako mendietaraino. Han-hemenka egin zuen tiro, gainean egin zuen pixa ametrailadore-habiatik irteterik ez zeukatelako, nondik oso garrantzitsua omen zen uztondo bat kontrolatzen zuten, buruz-buruko ikaragarri batean parte hartu zuen eta baioneta faxista batek aurpegia irribarre siniestro batekin markatu zion eskubiko masailean. Zorionez ez zitzaion zornetu zauria. Hildako kideen artean laurogei egun biziraun ondoren, Vinebretik erretiratu zen bera ere. Begiekin bilatu zuen arren, ez zuen berak ezagutzen ez zuen izeneko eta hiltzera zihoazenentzat eskuan arrosa-koloreko arrosa bat zeraman neska aurkitu. Gerra eta erretentzio-hilabeteak amaitu eta Oskara itzuli zenean, morala oso aldatuta, latazko pala malapartatuarekin makarroi gehiago ez zituela zerbitzatuko erabaki zuen eta, bere etxetik ezkutuan, Falangen eta haren ekintza-taldeetan eman zuen izena; seguru aski Vinebreko neskatila innominatu bat bibrarazi zuen uniformea gabetsiko zuen. Orduan erabaki zuen separatista gorri batek egin ziola orbana, zeinak ez zuen iraun ikusteko eta azaltzeko zergatik berak zuzenean, amorruak itsututa, begiak baionetarekin ustu zizkion. Eta zenturiako buruzagiak zioen, oso ondo, Jazinto, oso ondo egiten ari zara. Hauxe da gainean garraiatu behar dugun amorrrua, ongi. Ulertzen, kamaradak? Ulertzen duzue zer nahi dudan zuengandik? Jazinto Masek, oso ongi ulertzen zuelarik, bibote fin, ilun eta lehorra hazten utzi zuen juxtu ezpainaren gainean. Gogor begiratzen ikasi zuen eta boluntarioak eskatu zituztenean etxetik urrun, Catalunyan, operatuko zuen komandokide bihurtzeko, hainbat hilabetetako zerbitzu bat, jendailaren garbiketa, izena eman eta ez zuten aukeratu.

Horren ordez, Donostiara bidali zuten eta han sartu zen, eskolta pertsonal gisa, bere etxera itzuli nahi zuen dama ezkonberri baten zerbitzuan. Hiltzaile-talde bateko kide izatea heroikoagoa zen, baina eskolta, txofer eta zena zelakoarena egiteko eskaintzen zioten soldata ikaragarria zen eta ezin izan zuen lana baztertu. Elisenda Vilabrúren autoa gidatzen iritsi zen Jazinto Mas lehen aldiz Torenara. Eraginkorra, gogorra, isila, kementsua, fidela izan zen, eta emakumeak esan zion, oso ondo, Jazinto, oso ondo egiten ari zara, eta aldian behin paga estra oso eskuzabala eman ohi zion, batik bat gauzak gertatu eta inmutatzen ez zenean.

—Jubilatu zenean esan zuen mozkorturik ere ez zela Oskara itzuliko. Horregatik eskatu zidan Zuerara etortzea eta nik esan nion, noski. Eta hemen hil zen, bai.

—Ez. Lorezain egin zen. Eman ziguten diruarekin lorezaintza-negozio bat antolatu genuen. Ezin keixa naiteke.

—Entzun, anai-arrebak ginen...

—Zu poliziakoa al zara?

—Bada zergatik galdera hauek? Zergatik jakin nahi dituzu hain lur azpian dauden gauzak?

—Eta zer egin behar dut nik argazki alu hauekin?

—Ez. Nire anaia mila bederatziehun eta hirurogeita hamaseian hil zen. Duela hogeita bost urte, anderea!

—Bihotzekoa, Zuerako taberna batean. Bai.

—Zergatik esaten dudan halako erretizentziarekin? Poliziak ez zuelako ezer jakin nahi izan berarekin luzaroan hitz egiten egon eta hil baino minutu bat lehenago alde egin zuen batekin. Horixe dio tabernako Carretak.

—Berrogeita hamazazpi urte, bai.

—Hasieran, bai. Baina gero pentsatu nuen, auskalo, etsai asko egin zituela, batik bat Oskan Falangen sartu eta auskalo zer zeregin egiten hasi zenean anderearentzat.

—Beraz... Ez dakit. Ez zuen aipatzen baina uste dut hurbiletik bizi izan zituela heriotza batzuk.

—Ozen egiten zuelako amets. Ez dakit zer pikondo batean eseki zuten bati buruz. Oso garai... Baina nik ez dakit deus.

—Bai. Agian hobeto ez mugitzea. Ipini nuen salaketa kendu eta haren heriotzari buruzko ingurumariak argitzea eskatu nuenean, dohaintza-emaile ezezagun baten taloi bat jaso nuen.

—Jakina hartu nuela. Besteak bezain txanpon dira.

—Ez, ez dut Oskara itzuli nahi. Zuerara moldatuta nago.

—Zortea? Ez naiz sekula egon han.

—Ez. Gauzaren bat txarto egin badu... han izan zen. Hemen landare tropikalak haztera mugatzen zen eta Jainkoaren oparia zen geranio- eta begonia-ortu bat zeukan. Bai, hemen Zueran, bai.

—Ingurumariak ziren. Patria salbatzeko izan zen.

—Jakina da, gazteria: ez daukate sinismenik. Baina nik bai. Eta nire Jazintok, are gehiago.

—Demostra ezina da orain. Bihotzekoak jota hil zen eta kitto.

—Ez. Aldian behin, depresio bat. Eta nik esan behar nion, oso ondo, Jazinto, oso ondo egiten ari zara, eta antza denez horrek animatu egiten zuen.

—Ez. Deprimitzen zenean beti esaten zuen gorputzez eta arimaz egon zela Elisendaren zerbitzuan, dama handi bat zela. Harengatik Marcel jauna hurbiletik zelatatu behar izan zuela, desastre bat baitzen. Anderea milaka kilometrotan barrena eraman zuela autoan, arrisku guztietatik defenditu zuela eta abar, eta hala ere, azkenean, hark gainetik kendu zuela amonamantangorri bat balitz bezala.

—Ez dakit zergatik, ez. Ez zuen hitz egin nahi.

—Argi dago. Elisenda anderea izatetik Elisenda Reputa izatera igaro zen dama handi bat. Barkamenez. Niretzat, Jazinto maiteminduta zegoela.

—Ez zidan azaldu. Esker txarra hainbeste abnegazioaren ordainetan, suposatzen dut.

—Egia? Ez dut jakin nahi bizirik ala hilik dagoen, eta bost axola.

—Noski. Ez zuen hitz egin nahi, baina hark anderearen hainbat sekretu ezagutzen zituen…

—Beraz... Zergatik jakin nahi duzu?

—Zer nahi duzu esatea. Maitaleak. Asko. Harik eta egun batean santa bilakatu eta eguna elizan pasatzen zuen apaizekin mintatzen. Hori zioen Jazintok.

—Beraz, begira, iruditzen zait Jazinto izan zela maitale haietako bat. Ez zidan inoiz esan, baina...

—Gauza batzuk ez dira esaten.

—Ez. Antzua zen. Elisenda anderea antzua zen. Ezin zuen umerik izan.

—Txofer bat autoan bizi baita, beira ondo itxi edo gaizki ixten du, ateak ireki, elkarrizketa telefonikoak entzun, kartazalak eta enkarguak banatzen ditu, pertsonen bila joan ohi da... eta soldata jasotzen du gidatu eta isiltzeko.

—Zergatik esan behar zidan gezurrik, gizajoak. Hiltzeko gogoarekin etorri zen hona-eta.

—Beraz oso argi dago. Marcel jauna ez zela haren semea.

—Bai, Marcel du izena.

—Eta zer dakit nik! Nirea ez, hori seguru.

—Izan ere aberatsek nahi dutena egin ohi dute. Haurra birbataitu eta dena egin zuten.

—Beraz, hori: bataioko izena aldatu.

—Giderretik entzun baitzuen. Ez dut nire semearen izena nire aitaren hiltzaileetako baten berbera izaterik nahi. Romá, konpon iezadazu.

—Erregistro zibilera eta parrokiara joan beharko dut. Espero dut arazorik ez...

—Agudo, zure lana da-eta. Nire semea Marcel da, nire aitona bezala.

—Konponduko dizut, Elisenda.

—Beraz ez dakit zein izenetik Marcel jauna izatera igaro zen. Ikusi al duzu zein glizina politak?

Natura orekatu, sendo eta osasuntsuan sinesten dut, eta gorde eta babesten duen Greenpeacen, eta norbanakoen zein herrien arteko gorrotoaz abjuratzen duten gizaki gueztiengan. Pertsonen arteko berdintasunean sinisten dut eta gerra zein sexu eta arrazagatiko ezberdintasun guztiak gaitzesten ditut.

—Sexuak ezberdinak dira. Arrazak ezberdinak dira, ez izorratu, aizu.

Pertsonen arteko berdintasunean sinisten dut eta gerra zein sexu-arrazoiengatiko ezberdintasunak oro gaitzesten ditut.

—Horrela. Bai, zu. Ezberdintasunak.

Sexu, arraza, erlijio, pertenentziagatiko ezberdintasunak. Eta gizonaren izpiritua lausotzen duen ezertan ez sinistean sinisten dut.

—Pertsonarena.

Pertsonaren espiritu librea.

Pisu berriko balkoitik Jordik eta Tinak ibaia kontenplatzen zuten, zeina Pamanoren urek elikatuta zetorren, eta eurek jakin gabe, Torenarantz goraka zihoan mendi-zatia. Zein egurats osasuntsua, zein osasuntsua. Nola ez zitzaigun lehen bururatu mendira bizitzera etortzea, non dioten jendea garbia eta noblea, kultua, aberatsa, librea, ernea eta zoriontsua dela.

—Maite zaitut, Jordi.

—Nik ere bai. Hara, ordu batean izango ginela geratu baikara.

Tinak eta Jordik Rendé etxean arroz saldatsua janez ospatu zuten Sortera iritsi izanaren lehen eguna, Feliu Bringué k bezero batekin bazkaltzen zuen mahaiaren ondoan, zeinari Torenako plaken aldaketako ekitaldi zibikoa burutu ondoren zonalde honetan oso gogorra izandako faxismoaren izenak erortzean esperimentatzen zuen barneko garbitasun-sentsazioa azaltzen zion.

—Edonon.

—Herri txikietan, gehiago. Gorrotoak etxeko hormetan itsatsita geratzen baitira. Denek elkar ezagutzen dute eta denek dakite bakoitzak zer egin duen. Nik badakit non dagoen hobi komun pare bat.

—Jende askok daki, baina isilik dago.

—Beldurra dago oraindik.

—Nik badakit nork hil zuen nire aita.

—Targak. Baina hilda dago.

—Baina ezagutzen ditut baita ere nire aita fusilarazi egin zuenean txalotu zutenak. –Berriketaldiaren joanak Rendé etxeko arroz saldatsua Jainkoak agindu bezala hartzeko konszientzia arriskuan ipintzen zuen. Gaia aldatu nahi izan zuen–: Herri batean bizitzea oso krudela da.

—Pista beltza bihurtu daitekeen larre bat ez badaukazu.

—Oso ongi. Horretarako etorri baikara eta ez gauza goibelez mintzatzera. Irekita nago zuen proposamenetara baina ohartarazten zaitut txanpon asko irabazi nahi ditudala. Zerbaitegatik naiz alkatea.

—Herri batean bizitzea autentizitate gehiagoz bizitzea da.

—Niri iruditzen zait... Hiriaz kokoteraino nago. Zenbaki bat izateaz.

—Zergatik ez dugu probatzen? –esan zuten duela lau hilabete.

Probatu egin zuten. Sorteko eskolan eskatu zuten plaza bi-biek eta, ilustratzeko, entziklopedia bat ireki zuten.

—Begira: Pallars Sobiràko udalerria. Noguera Pallaresaren bailaran. Lehorrean, garia eta beste labore batzuk lantzen dira; ureztatuan, larre artifizialak, baratzeak eta patatak. Larreko bederatziehun eta hamazazpi hektarea daude. Hazienda garrantzisua da.

—Ze politta, behiak.

—Bai. Eta esne- zein gazta-industria. Sorteko hiribildua, Pallars Sobiràko zentrua, bailararen sakoneraino luzazten da, Noguera Pallaresaren eskuin aldean. Sorteko hiribildua jada mila hirurogeita bederatzian aipatuta dago...

—Hara! Imajinatzen duzu? Mila eta hirurogeita bederatzi!

—Bai, Urgelleko elizaren jabego bezala.

—Plaza ematen badigute Sorten bertan kokatuko gara.

—Antigualeko nukleoa, kale estuz eta etxe zaharrez osatua, Pallarseko kondeen garai bateko egoitzaren, Sorteko gazteluaren planta zirkularreko dorre handiak, fatxada gotikoa (XV. mendea) eta murruak (kanposantuaren itxitura bihurtua 1842an) bermatzen diren harkaitzezko zurkaitzaren oinean elkartzen da. Multzo honen inguruan ibaiak inguratzen duen bideari jarraituz zabaldu zen hiribildua, Carrer Major eta Ravaleraino, alde zaharrarekin batzen denean Plaça Major dago, Sant Feliu eliz parrokia buru duena.

—Bakezko plaza bat –laburbildu zuen Jordik, ahotsean inolako ironia-kutsurik gabe entziklopedia itxiz, ezin baitzuen etorkizuna asmatu ez eta lehenaldia ezagutu.

—Ez dut uste oso eskatuta egongo denik hura. Eta antigualeko etxe bat, herrikoa, bilatzen saiatzen bagara?

—Bai. Eta bestela, pisu arrunt bat.

—Ba al daude?

—Asteburuan joan gaitezke. Ilusioak egitera.

Eta orain ospatzen ari ziren. Ez etxe zahar bat baizik alokairuko etxe semiberria, oso ondo zegoena ibaitik gertu zegoelako eta lehioa irekiz gero haren murmurioa entzun ahal zenuelako. Eta paisaiaren zati bat ikusi ahal zen, alajaina. Ez zen oso handia, baina biontzat soberan, eta prezioak ez dira Bartzelonakoak, ui, ez eta gutxiago ere. Beste mundu bat da, hemen jendea bizi da, ez dakit, beste modu batera hartzen dute bizitza eta *botifarran* eta horrelakoetan jolastera joan ohi dira, ulertzen al didazu?

—Ze politta.

—Eta umerik badaukagu, pallarstarrak izango dira.

—Hemengo sukalde tipikoa zein den galdetu beharko dugu.

—Ba al dakizu bikaina dela eskola oinez bost minutura edukiztea?

—Herri batean bizitzea luxu bat da. Eta diruak gehiago irauten dizu.

—Ikasturtea hasten denean tabakoa utziko dut.

—Barazkizale bihur gintezke.

—Maite zaitut, Tina.

—Nik ere bai.

Rodé etxeko arroz saldatsuak hartan ipinitako espektatibak gainditu zituen. Eta Jainkoak, zeinak, daukan ospea kenduta, dibertitzea gustukoa duen, Tina ete Jordiren mahaitik bi harago, Torenako lehen alkate demokratiko berria kokatu zuen, Feliu Bringué (Esquerra Republikanako zorigaiztoko militanteren semea, batzuentzat alkate martiria, beste batzuentzat hiltzailea eta beste batzuentzat Feliçó etxeko Joan Bringué), zeinak elurraren negozioko konpainia baten kargu terreno-saltzaile batekin negozioak egiten zituen. Eta are harago, txokoko mahaian, Gasull abokatua eta Marcel Vilabrú gazte dinamikoa, Vilabrú Sportsekoa eta Tuca Negrako eski-estazioko jabea, jabekidea edo sozioa Torenako udalerrian, behiki-platerkada haragi arrosa bezain guri negoziatzen ari ziren, aurrera begira, isilik, aldameneko mahaietako jendeari buruzko ezer jakin gabe.

Rendé nagusiak, kutxan, mostradorean, kalerantz begiratzen zuen, pentsamendu hutsaletan sor eta lor, jakin gabe Torenako hainbat historia zeukala bere Sorteko lokalean bilduta. Eta larriago egiteko, kafea ttanttekin zerbitzatu zion eskuak hautsez betetako harlauza eta lapidetarako losez kargaturiko kamioia lokalaren aurre-aurrean aparkatu berri zuen gizon begi urdin bati. Ez zioten elkarri deus esan Jaume Serrallacek eta Rendé nagusiak, ohiturak hitz-jarioa hiltzen baitu. Etorri berriak mostradore gainean utzi zuen ogerlekoa eta Celtas pakete zimurtua arakatzen zuelarik, bezeroengana begiratu zuen modu distraituan, eta Fanga etxeko hippie-bikotearengan finkatu zituen begiak, imajinatu ezinik zer gertatuko zen hogei urte bete ondoren. Zurrutada batean kafea hartu, mihia klaskatu, zigarroa piztu eta agur-seinalea egin zion Rendé nagusiari. Ez zuen burua itzuli. Oraindik ez zeukan motiborik itzultzeko.

—Zure amak ez du bere burua zaintzen. Gero eta arazo handiagoak dauzka ikusmenarekin.

—Bada, esatea nahi baduzu, hain mezatakoa bihurtu izanak kezkatzen nau ni. Lehen ez zen horrelakoa, amatxo.

—Beti izan da. Bere erara, baina beti izan da erlijiosoa. –Ardo-tragoxka hartu zuen–: Bera beti da izatea hobea den gisakoa. –Utz ezazu bakean. –Kopa utzi eta besteari begiratu zion–: Gainera, inori ez dio kalterik egiten.

—Arraioa, ez duela kalterik egiten. Fortuna bat xahutzen du apaizetan eta Fontellesen santifikazio alu horretan edo dena delakoan. –Gassull seinalatu zuen: Aldika pentsatzen dut euren artean aferaren bat ez ote zegoen, hainbeste interes.

—Ez inoiz esan hori zure amarai buruz.

—Badakit, esateko modu bat da. Baina, gainera, dirua ematen dio Opusi.

—Opusi dirua transferitzea heldutasun- eta inteligentzia-seinalea da.

—Ipurdia galtzen goaz-eta Eliza laikorantz. Opus goraino konprometituta zegoen erregimenarekin.

—Eta zu eta ni.

—Ni oso gaztea nintzen.

—Pentsa ezazu Opusi dirua ematea luzaroan etekinak ematen dituen enpresa-gastu bezala hartu behar dituzula. Opusek ez dio sekula botere-izateari utziko. Boterea da, parte konsustantziala da, errege europarren lobia edo petrolera-taldeak bezala. Horretan, garaitezina da zure amaren usaimena. Beti jakin du non egon behar zen eta han egon da; eta nori deitu behar zitzaion eta zein ahots-tonuan. Gainerako hilkorrek baino urte bete lehenago zekien. Eta pozik dago zure kudeaketarekin Europan.

—Beraz, komenta ahal zidan, ez?

—Badakizu nolakoa den.

—Amatxok uste du salbuespen bat dela.

—Elisenda da salbuespena. –Alferrik maitemindutako abokatuak plateratik puska bat hartu eta beste gauza batzuetan pentsatu zuen, urrutikoak, gertukoak, eta hainbeste usaintzeagatik orain maiz haztatzeko ezgai zen nardo-usainaren oroitzapen kuttunean.

—Ba al dakizu zer ari nazien hausnartzen, Tina?

—Ez. Umeak? —Ui, ez. Behar bada pscn afiliatuko naiz.

—A, oso ongi. Eta pessuc? Utzi egingo duzu?

—Bada, oraindik hausnartzen ari naiz.

—Ez daukazu batere presarik. Hartu zure denbora. Begiratu hemendik.

—Eta zuk?

—Ez dakit. Irakurri egin nahi dut.

—Zer?

—Horixe. Irakurri egin nahi dut. Hogeita bi urte dauzkat eta paradisura bizitzera etorri naiz maite dudan gizonarekin, duela gutxi ezkonduta nago, bizitza berri bat hasten sentitzen naiz eta kontziente izan nahi dut.

—Baina horrek ez dauka zerikusirik...

—Zerikusi handia dauka –eten zion Tinak–. Lehen aldiz bizitzaren engranajeak sentitzen ari naiz Sorten, atzamarren artean doan denboraren murmurioa sentitzen dut, eguzkiaren eta ilargiaren erritmoan biziz. Eta Bartzelonan ez nuen hori sekula antzeman.

—Poeta zara, Tina.

—Ez. Ez dakit zer naizen. Margotzen jakin nahiko nuke, barruan sentitzen dudana azaltzen ikasi. Lehen aldiz nire adinean konturatzen naiz bizitzeak eguneko hogeita lau orduak eskatzen dizkizula.

Rendé berberak kendu zizkien platerak eta bainilla-izozkia ekarri. Kaferik? Bi? Likoren bat? Ez? Orduan, Jordik, begiak inpazientziaz distiratsu, poltsa ireki eta oparitarako paper berdean bildutako pakete-koskorra atera zuen. Mahai gainean ipini zuen.

—Bizitza herrian ez da ona amatxorentzat.

—Elisendak ez du Torenatik mugitu nahi, derrigorrezkoa ez bada.

—Bartzelonan mediku guztiak edukiko lituzke aldamenean, eta biloba, eta nik ahalko... Eta zuk, Gasull...

—Beti pentsatu izan dut ezen urtetan jasotzen dudan soldata ederraren zati bat Bartzelonatik Torenarako errepidean irabazten dudala. Egunen batean, ez dakit nola, mundua txoko batetik gidatu ahal izango da.

—Ipuinak. Entzun eta konbentzi ezazu: demokraziarekin eta udaletxe berriekin, polikiroldegi-eskariak egongo dira.

—Eraikitzaile bihurtu nahi gaituzu orain?

—Ez; kirol-instalaziotan aditu. Altxorra izango da. Batik bat irteera-lerroan lehenak jartzen bagara. Pentsa ezazu udaletxeek irudi berriak sortu behar dituztela, udalerri-itxura aldatu behar dutela hurrengo hauteskundeak galdu ez badituzte nahi.

—Batzuetan beldurra ematen didazu, zure amak bezala.

—Zergatik?

—Gainerakoen aurretik bi urrats aurrerago zoazte.

—Kromosoma-kontua izanen da. Eta zergatik ez eraikitzaile? Arriskuak dibertsifkatzen ditugu.

—Zerbait gehiago, Vilabrú jauna?

Marcelek Gasulli so egin zion eta, abokatuak iritzia eman ahal izan baino lehenago, bien ordez erabaki zuen:

—Zuzenean kafeetara pasatzen gara. Eta bi wiski. –Lokalaren alde, Rendé nagusia joan ondoren–: Ez al zaizu autentikoa iruditzen jatetxe hau?

—Urteak ziren ez nintzela etorri.

Ilusioz hartu zuen paketea Tinak. Inpazientzia atzamarretan, papera desegin zuen, esanaz, gaur ez da nire santu-eguna, ez nire urtebetezea, zer da?

—Hogeita hamasei egun zehatz ezkondu ginela.

—Hainbeste?

—Hainbeste.

Jainkoarren, nola doan denbora, hogeita hamasei egun. Bai, tempus fugit. Ai, ze zaila den hau ateratzea, orain, kontxo. Biltzeko paperaren barruan kutxa beltz bat zegoen, zapata-kaxa bat baino pixka bat ttikiagoa. Erdia. Ez, zapata-kaxa baten hiru laurdenak. Tinak mahai gainean behatzen zuen kutxa. Begietatik zerion ilusioari eutsi zion Rendé nagusiak kafearekin zetorrelako. Ostera bakarrik geratu zirenean, ia keinu liturgikoarekin ireki zuen kutxa, hogeita hamasei egun ezkondu ginen gisakoa, Jordik arnasari eutsi eta margarita aletzen zuelarik, gustukoa izango du, ez du izango.

Nikon Reflex eder bat zen, asko kostatuko zitzaizun, Jordi. Baina gustukoa duzu? Oso ederra da; gertatzen dena da ez daukadala ideiarik. Beraz ikasi ahal duzu. Eta barruan bor-bor daukazuna ateratzeko balioko dizu.

Kuriositatez betetako atzamarrekin hartu zuen Tinak Nikona.

—Kargatuta dago –ohartarazi zuen Jordik.

Marcelek, Gasullen konpainian Cardhua dastatzen zuelarik, distraituki begiratu zuen nola erdiko mahaiko bikote hipiaren neskak bere adiskideari, bizardun bat kalparrarekin eta hamaika arkakuso pentsamenduan, argazkia egiten zion.

—Ba al dakizu nor den hondoko mahaikoa?

—Ez.

—Feliu Bringué. Torenako alkate berria.

—A, gizon hau al da?

—Bere aita gerra garaian izan zen alkate. Gorroto du amatxo.

—Zergatik uste duzu gorrotatzen duela?

—Herriko gauzak.

—Herriko gauzak, ez. –Gasull beti informatua–: Bringuék estazio berri bat ireki nahi du hemen.

—A, kaka. Non?

—Tuca Negraren alboan.

—Madarikatua: aktuatu beharko dugu.

—Zuk segi suediarrak lantzen, zeren Tucaren kudeaketa zure amak darama.

—Makina honekin egin dudan lehen argazkia nire maitearena da.

—Eskerrik asko. Maitasun hau betiko hazi dadila nahiko nuke.

—Soilik gure esku dago, Jordi. Nik badakit noblea eta leiala zarela eta zure maitasunaren gai izan nahi dut.

Amen.

Hiruzpalau urtetan, Jainkoak, zeina Ventura anderearen iritziz existitzen ez den, ez zuen jolas gehiagorik egin nahi izan eta ez zuen pertsona haiek toki berean toparazi. Eskuragarri zeudenez, beraz, sakabanatu egin ziren, bakoitza bere asmoei jarraiki. Vilabrú SAko gero eta gerenteago eta Tuca Negrako jabekide Marcel Vilabrúren asmoa Estrasburgon zegoen, mila bederatziehun eta laurogeita biko negu hartan.

—...ez baita gauza bera. Ez eta hurrik emanda ere, ez da gauza bera.... Begira nik asko maite dut nire emaztea. Baina hau ezberdina da. Inori kalte egiten ez dion asaskaldi bat da, eta begiratzen ipintzen bazara, segun eta nola, merezi dut. Duela bi, zer diot, bi: duela...

—Entzun, moñoño. Nik soilik galdetzen nuen ea ezkonduta zeunden...

—Ez, esan nahi nizun ordea...

—Galdetzeagatik galdetzen nuen.

Marcelengana hurbildu zen neska, eta hark, ohituraren kontra, ez zuen iniziatiba hartu. Arropa kentzen hasi zitzaion eta mutilak egiten uzten zion, baina aldian behin telefonoari

begiratzen zion. Mertxeren deia itxaroten zuela jakiteak, gaixorik baitzegoen, ezohiko kontzientzia txarra sortu zion eta kezkaturik zegoen, hark erekzioa eragotzi ahal baitzion.

Zerbitzua bikaina izaten ari zen eta Marcel, une batez, txandalen erosketaren porrota, eskandaluzko prezioan, ahazten hasita zegoen, izan ere Laxis Co. aurreratu egin baitzitzaion ordu batzuk gorabehera. Tuca Negra erosi nahi zuten Saporoko bi estazioetako arduradunekin, Estrasburgon, biharamunean egin behar zuen bilerak sorrarazten zion angustiaz ere ahaztuta zegoen.

—Inolaz ere ez, Marcel –esan zion bere amak–. Erosi nahi badute da orain ematen dituen etekinak baino gehiago eman ahal dituelako: errendimenduei buruzko azterketa bat egiten dugu, baina saldu batere ez.

Elisendak, duela hamar urte, bere biloba Sergi jaiotzarekin kointzidituz, Tuca Negrako sozio majoritarioa bihurtu zenetik, estazioa hazi baino ez zen egin. Eta semearen sarrerarekin, sozio berri gisara, Frölund-Pyrenéerna Korporationen kaltetan, hamar bat pista beltz ugaritu ziren, zirkuitu demasakoekin; eski nordikoaren berebiziko eskaintza hain zonalde politerako, zeina behin probatzen zuenak ziur errepikatzen zuela. Eta zona familiar zabal-zabala, pista leunak eta zerbitzu guztiekin hornituta. Soilik eguraldiari so egon beharra zegoen eta zegokion santuari kandelak piztea, jendea bere kabuz joan ohi baitzen Tuca Negrara, eta, gero eta gehiago, Brusport kirol-materiala erosten zuen, diseinuaren prestigioa kirolean, kirol bihurturiko dotorezia. Brusportwear, prestigio mundiala. Yannick Noahk Brusport janzten du, Stephan Edberg eta Brusport, bikote gaindiezina. (Ordu askoan espekulatu zuten kreatiboek hobe ote zen banaezina, Brusporten logoaren eraztunak zirela eta ez zirela, baina azkenean gaindiezina aukeratu zuten. Argi dago, banaezina bere problema pertsonala baita: gogoa ematen dizu esateko, lortuko dute Edbergek eta Brusportek. Aldiz, gaindiezinak esan nahi du ezen zuk ere Brusporteko alkandora bat erosten baduzu bi eraztun magikoekin, denetan irabaziko duzula, kirolean, bizitzan eta hirugarren set definitiboan. Eta Elisenda andereak baietza eman zuelarik, konbentzitu zutela alegia, gaindiezina geratu zen.)

—Nik Val Proudhon bisitatuko nuke –intsinuatu zuen Marcelek, jadanik zutik.

—Nola dago Mertxe?

—Ez oso fin: obarioen kontu hori eta... batik bat, gripeak jota.

—Zergatik Val Proudhom?

—Diote saldu egin nahi dutela.

—Joan, bada. Baina ez eman pausorik niri kontsultatu gabe.

—Bai, amatxo.

Gabardina hartu eta zaratarik egin gabe itxi zuen atea, Ció, gero eta zahartxoago, iritsi ahal izan baino lehen. Amari musu ematea ahaztu zitzaion presa handia baitzeukan Bartzelonarainoko bide madarikatua egiteko. Torenako etxea uztea erabakiko duenean ni jubilatuta egongo naiz.

Horregatik zegoen Estrasburgon Marcel Vilabrú, hotelean, bazela inork esango ez zukeen prostituta bati zakila erakutsiz hada-ipuniteako erregina baitzirudien, baina diotenez sekulako zurrupadak egiten omen dizkizu, gaindiezinak, Brusport eta Edbergen parekoak, eta berak bazekien ondoren zer zetorren, idatzita zegoelako. Felazio gaindiezinaren erdi-erdian txirrinak jo zuen:

—Esan.

—Ni naiz. Non zaude?

—Ni? Nola zaude, kuttuna?

—Tira. Desanimatuta. Izan ere deitu dizut entzun nahi zintudalako...

Zakila murrizten hasita zegoen eta Estrasburgoko erreginak profesionaltasunez erreakzionatu zuen eta Marcelek telefonoz zioen, batzarra aurreikusi baino askoz ere beranduago amaitu da: deitu amatxori eta esaiozu ez kezkatzeko Val Proudhom dela-eta. Ez zaigu interesatzen.

—Eta zu ondo zaude? Marcel?

—Ni, bai. Zergatik?

—Ez dakit. Dardara daukazu ahotsean. Zer gertatzen zaizu?

—Niri?

Braustadaz alboratu zuen Alsaziako erregina. Behar bada zakarregia izan zen. Kontua da hark suminduta, ozen eta frantsesez azentu alemaniarrarekin esan zuela, e, aizu, kontuz, ez da?

—Zer gertatzen da? Nor da?

—Nor da, nor?

—Ez dakit zer esan duena.

—Nik ez dut deus entzun. Behar bada interferentzia bat izan da.

Mertxek eseki egin zuen. Gezurra borobiltzeko astirik ere ez zion utzi. Berak ere eseki zuen, leunki, pentsatuz, nola daiteke azken garaiotan hainbestetan kakaztea. Bitartean, interferentziak ostera harrapatu zuen zakila eta berak, orain bai kontrolik gabe, belarrondoko bat eman zion, harriduraz ahoa zabalik utzita.

—Tu es un con.

—Eta toi une conne.

Interferentzia altxatu, amorru eta belarrondokoagatik gorriturik eta azkar jantzi eta bere poltsa hartu zuen. Baina Marcel haren eta atearen artean ipini zen.

—Ostera ukitzen banauzu, poliziari abisatuko diot. –Frantsesez.

—Inor abisatzen baduzu, hankak hautsiko dizkizut. Erantzi zaitez. Azkar!

Oso basati sentitu zen Marcel. Gehiegi. Pare bat joaldi egin eta ez zen batere gozo egon, eta ez zuen ikusarazi ere egin nahi izan. Bukatu zuenean bazekien zailena ez zela biharamuneko batzarra baizik etxera iristea, buru makur, zehazten ez zen estrategia pentsatuz eta, jantokiko mahaiaren gainean ohar bat aurkitu zuen, esanaz, Sergi eta biok nire amaren etxean gaude. Ez deitu. Ez daukat sukarrik. Zuk probokatuko zenidan.

—Amaren seme halakoa –pentsatu zuen. Hamabi urte ezkonduta, zortzi edo hamar urteko seme bat eta neska narras batek diolako, txo kontuz, hankaz gora doa ezkontza. Potoloa da benetan.

Errekonposizioa, Elisenda andereak zuzenean gidatutako filigrana bat izan zen. Eskandalua ekidin zuen, hartaz mintzatzea ekidin zuen, Mamen Velez de Tena konturatu zedin ekidin zuen, gurasokidea (Centelles-Anglesolatarra Cardona-Aglesolatarrekin ahaidetuta Anglesola

aldetik, eta Erill Sentmenatarra, amaren ama Eduardo Erill de Sentmenaten alaba baita, zeinaren suizidioaren, Mertxeren ezkontza-krisia lehertu ondoren, hiru urte bete baitziren, non, orain ezaguna da, poltsiko-arazoak eta bihotz-arazoak nahastu ziren hainbana) busti zedin ekidin zuen, eta gaztea zein biloba etxera erakarri zituen. Une hartantxetik, mila bederatziehun eta laurogeita biko otsaila, irribarrea galdu zuen Mertxek, ohe bananduak moldatu zituen eta ez amaginarrebarekin ez senarrarekin aurrerantzean ez hitz egitea erabaki zuen. Marcelen izaera garraztu egin zen, iogurta bezala, eta mundu guztiari denetaz errudun egitearen ohitura hartu zuen, hala elur gutxi egiten zuenean nola mendebal erreak kota altuko pistetan sarraskiak egiten zituenean. Dena gaizki ulertutako interferentzia baten erruz, sinistezina benetan.

Etxera patxada itzuli zenean, Elisenda Vilabrúk Torenara deitu zion semeari, ezkontza-bizitzako instrukzio-oharrari buruzko liburu bat eskura emateko. Elkarrizketa luze baten ondoren, non andereak portaera-arauak besterik ez zituen eman eta mutilak ezin izan zuen ezer ihardetsi, esatekoak esanda zeudenean, Marcel Vilabrúk, kontraerasoa egitearren, ahotsa amorruak ilunduta, esan zuen ezen, hainbeste hitz egiten jarrita, hitz egin genezake baita ere sasijakintsu bat santu egiteko zure maniaz.

—Ez sartu deitzen ez dizuten tokian.

—Nik eskatu ez dizudan tokian sartu zara zu arratsalde osoan. Gainera, sos asko xahutu dituzu santuen afera horretan.

Elisenda Vilabrúk tiradera bat ireki, koloretako dossier bat begiratu, paper bat atera eta mahai gainean utzi zuen.

—Zer da hori?

—Soilik ezkondu zarenez geroztik putatan xahutu duzuna.

Ezohiko gizon bat zen Cassià. Irribarre egin orduko zerion lerdeak edozer egiteko baimena ematen zon. Horregatik Marés etxean beti zeukan baxoerdia doan. Báscones bera ere, bezeroa nor zen sudurra zimurtzen baitzuen, indiferente agertzen zen Cassiàk kaldoa erosten zionean zigarroak egiteko, eta inoiz, gizonak ez bazuen aski txanpon poltsikoan, esaten zion, topatuko dugu, Cassià, eta barre egiteko gogoa bazeukan, esaten zion, esazu sinkondrotomia, Cassià, eta Cassiàk erantzuten zuen, badakizu ezin dudala ahaleginik egin buruarekin, eta emakumeak, aseta, pare bat aldiz errepikatzen zuen, sinkondrontomia, eta esaten zion, ei, joan zaitez etxera, Cassià ez balitz bezala Nasiren Maria etxeko semea, nondik, herriko egoskor, errepublikazale, zorrizto, masoi, separatista, gorri, ateo, katalanista basatienetako bat sortu izan ez balitz bezala, hots, Cassiàren anaia ttikia, Nasiren Maria etxeko Josep Mauri, zeinak une honetan ganbarako bigak ez dakit zenbatgarren aldiz kontatzen ari zen eta, denboraren zulotik, ez lehenaldia, ez presentea ez eta edukiko ez zuen etorkizuna ez begiratzen saiatzen. Ahaleginak egiten zituen duela zortzi urteko gaua ez begiratzen, non hogeita hamaseiko matxinada faxistatik egun gutxira, uztailaren amaieran, faitarren komando bat herriko plazara iritsi zen kamioi baten gainean banderatan bilduta eta zazpi gizon kaxoian. Trempeko maisu bat zen haren buru, Maximo Cid, zeina jaitsi ahala hasi zen esaten, zu, zu, zu eta zu, bilatu zeinek agintzen duen hemen, eta orduan zu, zu, zu eta zu haiek Udaletxera joan eta ez zuten alkatea topatu, izan ere Joan Bringué belar berantiarra mozten ari baitzen eta Maximo Cidek Músic lautadara joan behar izan zuen haren bila, sekulalko igoera bat, eta, behin herrian, Mauri, Misseret etxeko Rafael eta bi zinegotziak batu eta plazara eraman zituen, eta Bringuék esaten zuen, ei, ei, ei, errepublikazaleak garela, zer egin nahi diguzu, cagoendios, eta Cidek esan zien, ez dizuet ezer egin nahi, soilik justizia egin nahi dut. Eta ahotsa oso tonu tragikoan altxatuta zehaztu zuen, Historiak Justizia egin dezala nahi dut. Eta Bringuék, Maurik eta Gassiak FAIkoek akabatuta ikusten zituzten euren buruak, Cid maisuaren barrabila santuengatik; baina orduan, Cidek agindu zien esan zezaten zein zen herriko etxe bikainena eta Josep Maurik ongi asko ulertu zuen Maximo Cid idiota zela zeren galdetzen zuen bitartean zein zen herriko etxe bikainena, bizkarra ematen ari zitzaion Gravat etxeko fatxada arranditsuari, zeinen grabatuetako goiko aldeak oso ondo ikusita zeuzkan Josep Maurik ganbarako ezkutalekutik. Faitarren komandoa, Bringuék, Gassiak eta Maurik lagunduta, Gravat etxean sartu zen esku-ahurrez atearen zur noblean jo ondoren. Bibianak ireki zien, atzerantz bultzatu zuten eta, Elisenda izutuaren aurrean, aita eraman zuten, Anselm Vilabrú Bragulat jauna, armadako kapitain zaharra, Alhucemaseko heroia eta *putstx* militar batzuetako partaidea aktiboan zegoen bitartean, eta Josep Vilabrù Ramis neba (Torenako Vilabrútar eta Tirviako Pilar Ramis, Ramis leinukoa, erdi puta erdi hobe hari buruz ez mintzatzea Anselm gizajoaren errespetuz) bera baino apenas lauzpabost urte zaharragoa zena. Eta Maximo Cid maisuak lurrean ttu egin eta esan zuen, eta laister itzuliko gara etxeaz jabetzera hemendik aurrera herriak konfiskatuta baitago. Eta egun argitan, egia aurpegi zakarrean, beiren atzetik begira zeudenen begirada izutu edo irribarretsuek eraginda, faitarren komandoak, Maximo Cid eta Feliçó etxeko Joan Bringué, Misseret etxeko Rafael Gassia eta Nasiren Mariaeneko Josep Maurirekin batera, Gravat etxeko bi gizonak eraman zituen, besoak bizkarrean sokekin lotuta, Sebastiàren alorrerantz, kanposantuaren alboan. Izan ere Sebastiàren alorra desnibel ideala da, eskualdeko premia politikoetarako pentsatuta izan dela baitirudi, eta hori, Bibiana, hori soilik Bringué eta beste bien gauza izan daiteke, nola dute izena, nola, haiek salatu gaituzte, Bibiana, zer jakingo dute Trempen, eurek etorrarazi

dituzte, Bibiana, zin dagizut irentsarazi egingo dizkiedala heriotza hauek. Zu isildu, ume bat zara-eta. Ez naiz isilduko, Bibiana, tira, esan, nola dute izena beste biek. Eta Bibianak neskatxa ezagututa eta ondoriozta zitekeen kaltea jakinik, esan zuen, Misseret etxeko Rafael eta Nasiren Maria etxeko Josep.

Maximo Cid maisuak desnibelari begira ipini zituen bi Vilabrú gizonak, eta Anselm Vilabrúk, ikusirik Josep belauniko erori zela, esan zuen, utz ezazue, oso gaztea da-eta. Cid maisuak Josep altxarazi eta pistola bat eman zion Bringuéri, beste bat Mauriri eta beste bat Gassiari, eta esan zien, garondora destatu eta hor konpon; hiru gizonek, piska bat zalantzakor, elkarri begiratzen zioten. Haien atzean komandoko gainontzekoak, oin bat inpazienteki mugituz, itxaroten hiru burges errepublikazaleek Assuako bailaran iraultzari hasiera emateko erabakia har zezaten, eta orduan Nasiren Maria etxeko Maurik bizkarra jaso eta Anselm jaunaren garondora destatu zuen, eta Cid maisuak, oso pedagogikoa bera, azaltzen zuen, herri bakoitza bere justizia propioa egitean zetzala, ezin dela ohitu kanpotik etor daitezen gure arazoak konpontzera. Orduan, Gassiak ere, hainbat jenderen presentziak konbentzituta, pistola altxatu zuen, Bringuék, aldiz, Anselm jauna baino zurbilago, jaitsita mantentzen zuen pistola. Maurik izua pasarazteko garrasi egin zuen une berean egin zuen tiro eta, Gravat etxeko portxean, Elisendak gehiago entzun zuen ulua tiroa baino. Anselm Vilabrú, armada espainiarreko kapitain ohia, heriotz epikoagoa ekarriko zion hitz batzuk esan ahal baino segundo erdia lehenago erori zen. Ez zuen denborarik izan semeagatik kezkatuta zegoelako. Eta oraindik pentsamendu beltza izan zuen Pilar putarentzat; justu bala bidea egiten hasi zenean zerebro barruan, pentsatu zuen, puta gaiztoa, ni patriaren alde bizitza ematen ari nintzela aprobetxatu baitzinen nire etxean adarrak jartzeko, nire ohean, nire seme-alabak etxean zirela, eta total txanponez usteldutako dohakabe batekin, teatroak asko ematen duelako, baina dohakabe hutsa zen, eta espero dut zu dohakabe egitea zure bizitza aluaren amaieraraino, hala izan bedi. Orduan, Gassiak antzeko orro bat jaurti eta Gravat etxeko Josep Vilabrú Ramisen garondo garbia lehertarazi zuen, zeina batere proklamarik gabe, erdi esandako hasperenik gabe, jausi zen, soilik Julia de Sorreren irudiarekin eta ideia absurdu honekin, ze ondo hiltzea, horrela ez baitiot aitatxori esan behar izango laborari polit, gozo eta pobre batekin ezkondu nahi dudala, Pona de Sorre etxekoa baita, eta aitatxok ezin dit erantzun, ostera holako kaka bat esaten badidazu akabatu egingo zaitut.

—Denak zarete lekuko –aldarrikatu zuen Cid maisuak pistolak jaso eta Bringué koldarrari benzina-lata bat ematen ziolarik– Altrongo herria izan dela bere kabuz justizia hartu duena.

—Torena.

—Zer?

—Hau Torena dela, ez Altron.

—A bai? Ziur?

Bere gizonengana begiratu zuen, izu- edo agian angustia-itzal bat zeukan begirada. Orduan ahots lehorrez esan zuen, busti ondo bustita, eta Bringué, sarrera zotalekin garbitzen duenaren gisan, gorputzen gainean lata hustutzen joan zen, isilik, eta maisuak poxpolo piztu bat pasa zion, eta Bringuék laborariarekin maitemindutako Josepen gainean erortzen utzi zuen, eta mutikoa tortxa bat bihurtu zen, eta suak ez zuen bestea harrapatu, harago zegoelako. Baina gizonak herriko bidera abiaturik zeuden, eta minutu erdira kamioia Sorre, Altron ete Rialberantz jaisten ari zen. Eta Torenako plaza erdian Misseret etxeko Rafael Gassia, Feliçó etxeko Joan Bringué eta Nasiren Maria etxeko Josep Mauri utzi zituen, zeinek

orduz geroztik bihotza beren iraultzarekin sendotu beharko zuten. Elisendak, Gravat etxeko leiho batetik, begietara so egin zien zer gertatu zen ikustera eta dena ezertan geratuko zen esperantza eroarekin eskaileretan behera korrika atera baino lehen. Eta bat, eta bi eta hiru baino gehiagok zioten, ondo merezita daukate aberats eta faxista izateagatik.

Egun hartan, Básconesek, bere baitan, bajutxo, sinkondrotomia esan eta komentatu zionean, Cassià, gehiegi erretzen duzu, eztarria ataskatuta amaituko duzu, gizonak kaldo-paketea astinduz erantzun zuen, ez kezkatu, ui, ia dena Josepek erretzen du-eta. Básconesek ez zuen deus komentatu; soilik lepoko zainak egin zion dardar (esterno-kleido-mastoideoak). Cassiàri ganbioa itzuli, gizona eta haren laino eternoa desagertzen utzi eta estankotik atera zen, kontraleihoak erdi itxi eta alkateari (Targa alkatea Udaletxean zegoen) esatera joan zen Cassiàk esan ziola, ez kezkatu, ui, ia dena Josepek erretzen du-eta, eta Valentí Targak oihukatu zuen, kaka putza mekabenzotz den-den-denetan. Básconesi esan zion, fabore bat zor dizut, Básconesek agur faxista egin eta esan zuen, neure egitekoa bete besterik ez dut egin, viva Franco, eta Valentí Targak, bere gizonetako hiruzpalaurekin, ilunduan Nasiren Maria etxean sartu, sukaldean garrei begira bizitza-zatiak errepasatzen, maitasunak gabesten zeuden bi zaharrak uxatu zituen, eta den-den-dena astindu zuten, upategia, lastategia eta etxea eta beste bi aldietan sartu zirenean pasatu zitzaien zoko bat, enbor-horma batek oso kamuflatuta zegoena, Mauri zuri-zuri bat aurkitu zuten, segan aritzera edo behien errapeak ukitzera aterako zen egunarekin amestuz, usoak sartzen ziren zulotik ikus zitekeena begiratuz, hots, Gravat etxearen teilatua eta fatxadaren parte bat, eta pentsatuz, etorriko da egun bat non Targa joan eta ni ostera aterako naizen, baina oso seguru jakin gabe, zeren Rafael Gassiak eta Joan Bringuék berak baino okerrago eduki baitzuten, edo segun eta nola begiratzen duzun nik baino hobeto, putakeria baita nire etxean bertan arratoien bizitza edukitzea eta ikaragarrizko hotza pasatzea, zeina soilik mantak eta mantak pilatuz kendu baitezaket. Eta soilik gauez jaitsi ohi zen ganbaratik, hankak luzatu, Felisari ipurdia ukitu eta aldizkari gehiago eskatzen zituen, aire gehiago, ezin dut gehiago, zer dakizue Europako gerraz.

Josep Mauri agertu bat zirudien, ganbaraz eta izuz zuri, kalera atera eta ilargiaren argi leunak begiak liluraz kliskarazi zizkionean. Barrutik pentsatu zuen, to, amaitu da sufrikarioa.

Biharamunean jakin zen Mauri, iheslaria, bai, bere buruaz beste egiteko itzuli zela herrira. Zer diozu? Nola, non? Sebastiàren alorrean, pikondotik zintzilikatu da, Jainkoarren, nolako horrorea. Bai, nolako horrorea. Judas bezala, hura ere pikondo batetik zintzilkatu baitzen hogeita hamar txanpon batzuk-edo zirelarik. Hiltzailea, iraultzailea, anarkista, katalanista izateagatik. Josep gajoa, zenbat urte izango zituen. Noiz amaituko da hau dena. Oriolek ohar bat idatzi zuen Marcó tenienteari bidaltzeko, atzo, ni Triador muinoan nengoelarik, Targaren eta bere gizonen beste hildako bat. Ezin dut demostratu baina nabarmena da. Nasiren Maria etxeko Josep delako bat, ihesean zegoelako ezagutzera iritsi ez naizena, euren iritziz bere buruaren beste egitera itzuli da.

—Hirugarrena da –zioen Marcó tenienteak eta herri guztiak ere bai, memorian irarrita baitzeukaten–. Lehenik Bringué, armadan sartu ahala. Asto halakoak ez zuen ihes egin eta alkate martiri bihurtu zen. Gero Gassia zailago izan zen baina hura ere erori zen. Eta orain Mauri. Hiru. Ciden hiru faitarrak. –Lurreko lauzaren gainean zapaldu zuen zigarro-muturra. Diotenez, Gravat etxeko gizonek garbitu zituzten hirurak.

Oriolek, deseroso, hormako eskola-egutegia begiratu zuen denboraren joanaz hausnartzen balego bezala. Marcó tenienteak isiltasuna luzatu zuen, harik eta, hainbeste luzatzeagatik, apurtu egin zen arte:

—Harria jaurti eta eskua ezkutatzen du –esan zuen.

—Nork?

Joan Venturak altxatu eta ingurura begiratu zuen: hur zaharmindurik ere ez zegoen.

—Zuk bijilatu eta ez izan ergela –ohartarazi zuen atea ireki eta isilik eta eskolako estufaren kearen bizkortasunez desagertu baino lehen. Oriol bakarrik geratu zen gela ilunean kanporantz begira, plazarantz, herri guztia ilunpean, jendea lotan edo itxurak egiten eta bera pensatuz, ez da posible, emakume gozo eta integroa da, ezinezkoa da.

Sebastiàren alorreko pikondo lodiaren adar altu batetik zintzilik aurkitu zuten, eta Felisak minez garrasi egin zuen gauean gertatu zena esatea ausartu gabe. Baina garrasi egin zuen, orro egin zuen. Portxetik Felisaren uluak entzutean, zortzi urtetan lehen aldiz, bere Goelak kontratatua izan zen lana amaitu zuela jakin ondoren, Elisenda Vilabrúk negarrari ekin zion eta Bibianak pentsatu zuen, nik izenak eman izan ez banizkion edozein bihurgunetan aurkituko zituzkeen: orduan begiak itxi eta esan zuen, bazen garaia, neskatxa gajoa, azkenean edozein emakumek bezala egin dezake negar.

Lehenik airea hartu zuen, piszinan murgiltzen denaren antzera, gehiago pentsatu gabe, Jordik eta Joanak, barraskilo-plater baten aurrean, adulterioa konsumatzen zuten jatexera sartu zen. Jordiren begietara so egin zion, aulki bat hartu eta erdian jesarri zenean, jokora atxikitzen denaren antzera, Joanari begiratu gabe mahai-zapiei esan zien, Joana Rosa Candàs Bel, uste dut hobe dela une batez desager zaitezen. Eta orduan ostera begiratu zuen Jordiren begietara eta hark begiradari eutsi zion eta emakumeak sekulako amorrua harrapatu zuen, zeren une hartan mespretxu, gorroto, nazka, mendeku-desioa edo beste edozein sentimendu nobleren ordez, Tinak, begirada haren aurrean, soilik atsekabea sentitu ahal izan zuen hainbeste urterengatik, Arnaugatik, zugatik eta nigatik noble eta ondradu izan behar genuonongatik, kilometrikoengatik, goazen Sortera, mendira, zoriontasun-, lasaitasun-, konprensio-egun eta egunengatik. Ahaleginak egin behar izan zituen bere historia propioak ez arrastatzen uzteko. Joana altxatu egin zelarik, zurbil, mutu, poltsa hartu eta alde eginez, Jordiren aurrez aurre esertzeko baliatu zuen, oraindik Joanaren ipurdiaren beroa gordetzen zuen aulkian. Halako asetasun insano batez, betertzez haztatu zuen alboko mahaitakoak ohartuak zirela zerbait gertatzen ari zela. Harrerako mostradoretik, ostalaria ere jabetua zen eta pentsatzen zuen, oi, ez, emakume hura da; eta sukaldetik ateratzen ari zen etxekoandreak, Tina ikustean, zioen, begira, bai, emakume hura da, eta miresmen-irribarre bat dismulatzen zuen.

—Gehien mintzen nauena da gezurretan ibili zarela.

Jordik, gorri, zuri, berde, ez zekien altxatu eta joan ala zaparradari eutsi behar zion.

—Ni...

Emakumeak zuzenean begiratu zion, eskuak kokotsari helduz, arduraz, nolako aitzakiak aterako zituen kuriositatez pentsatuz. Jordik soilik ahoa ireki baina ezer esaten ez zuelarik, zirikatu egin zuen:

—Zikloko batzarra miniziklokoa zen.

—Bai, ongi... Izan ere... Azkenean... Bai, deskonbokatu egin da.

—Ja.

—Baina zer gertatzen zaizu zuri? –O, ez: malapartatua kontraerasoan–: Zergatik numerotxo hau? Zer uste duzu?

—Jakin nahi al duzu zer pentsatzen dudan?

—Ez, ez: zu ni salatzen ari zara... –Bi hatzekin jo zuen bekokia–: Mesedez, ez gaitezen itxiak eta probintzianoak izan, hogeita batgarrenean sartu gara-eta. –Hitz haiek egin zioten eragina ikusteko begiratu zion. Errematean–: Auskalo zer imajinatzen ari zaren.

—Patetikoa.

Dotoreagoa izango zinela uste nuen, Jordi, zin dagizut nire minbiziagatik.

Isilik zeuden. Jordik ez zuen bere ingurura begiratu nahi gehiago ez lotsatzeko. Isiltasuna astunagoa egin zenean, Jordik arindu egin nahi izan zuen:

—Baina zuk zer buru-jana atontzen ari zara? –Jarrera didaktikoaz–. Joanak eta biok... benetan? Hain gutxi fidatzen zara nirekin? –Oso minduta–: Hain gutxi?

—Gauean etxera itzultzen naizenean ez dut zure gauzarik ikusi nahi edo bestela leihotik jaurtiko dut. Sofia Lorenek bezala.

—Agian zerbait hitz egingo dugu, ez da?

—Dena esan duzu. Niri ez didazu hitz egiten utzi. –Zurrun jarri zen, bizkarra zuzen eta ahotsaren tonua altxatu zuen, Jordi deserosoago sentitzeko hainakoa–: Ez al ginen ondradu izan behar, Jordi?

Jordik atzamar bat altxatu zuen txorakeriaren bat asmatzeko. Baina hausnarketa-une baten ondoren, ezkutatu eta burua makurtu zuen. Ez zuen erasorik egiten. Seguru aski oharkabeegi harrapatu zuelako. Animoa izan zuen oraindik begietara so egiteko.

—Zer esan dizu medikuak?

Tinak, altxatu eta erlojuari begiratu zion:

—Gaueko hamaiketan etxean egongo naiz. Bururatu ere ez Juri eramatea.

Putakume bat zara esatera zihoakion baina ez zuen egin. Esatera zihoakion, bigarren, hirugarren eta laugarren aukera ematen dizut, baina hori ere ez zuen egin. Joan egin zen, begirada gogorra, burdinazkoa, opakoa, malkoak Doscavallosera iritsi aurretik isurtzea ezinezkoa bihurtzeko. Amorru gehien sortu ziona izan zen Joanak ez zuela alde egin. Bere auto berde eta berriaren barruan jesarrita zegoen, modelo indefinitu haietako bat bera. Une batez pentsatu zuen etxera joango zela amorruz negar egitera, baina ez: hantxe zegoen Joana, gizona atera zedin itxaroten, urrundu eta bizitza eta bidea aske, definitiboki aske uzteko itxaroten.

Tinak arrankatu egin zuen. Doscavallosak lehenengoan erantzun zuen, Jordiren bigarren etxe bihurtu zen ostatu nazkagarri hura uzteko presa balu bezala.

Gaueko hamaikak arte denbora egitearren, Serrallac bisitatzera joan zen, Oriolen paperak irakurri ote zituen ikustera, ordu haietan ere kafea hartzen ote zuen ikustera, eta tailer haustuaren erdiko bulegotxo garbi eta txukunean topatu zuen. Langileak ixten ari ziren eta hark ez dakit zer eztabaidatzen ari zen aurkeztu ez zion alabarekin. Alaba bulegotik irten zenean, Serrallacek sartzeko seinalea egin zion. Bai, ordu hartan ere kafea hartzen zuen. Eserrarazi egin zuen, azpiko tiradera bat ireki eta karpeta bat atera zuen Oriolen paperekin.

—Hau al da dena? –paperengatik.

—Ez. Soilik zati bat.

—Dena irakurri nahi dut.

—Sinesten al duzu orain?

—Ez dakit. Agian bai. Ez baitatza sinistean ala ez sinistean, baizik egia den ala ez jakitean.

Isildu egin ziren. Zati baten buruan, Serrallacek, koadernoetatik etorriz, esan zuen, zure ustez, izena ezagutzen ez dudan alabatxoa, Joan al da?

—Bada, bai. Joan du izena. Orain Marcel. Badakit nor den.

Kosta egin zitzaion Serrallaci onartzea berak hazten eta hain enigmatiko bihurtzen ikusi zuen Marcel Vilabrú, haren ama bezain ukiezina eta harroa, ez zela ama enigmatiko, ukizein eta harro haren semea baizik nire Rosa emakume tisikoarena, eta nire Rosaren izen berbera zeukana, Rosa, eta agian traidore bat ala heroi bat zen maisu batena. Eta entzun zuen nola

Tinak azalpena ematen amaitzen zuen esanaz, ez dakit zein arrazoirengatik baina Elisenda andereak sekretuan adoptatu zuen.

—Demostratu al dezakezu?

—Esan dizudana bakarrik dakit. Non aurki dezaket Marcel hori? Ba al dakizu?

—Bartzelonan bizi da. Esan... –Bat-batean, kezkatuta–: Entzun, negar egin al duzu?

Serrallacek, modu oharkabean, bi hatz latz baina leun pasa zizkion masailetik, ia-ia harriak laztantzen zituen samurtasun berberarekin. Egindako keinuaz ohartu zenean eskua erretiratu zuen, adarra azkar asko erretiratzen duen barraskiloak bezala–: Barkatu, ez dut ezer egin behar.

Oriolen paperak hartu zituen Tinak. Galdera inpertinenteari ez erantzuteko ireki eta hau topatu zuen, alabatxo, gaur soilik zuri idazten dizut. Zuzentzen nizkizun beste orri batzuk ere zure amak irakurtzea nahi nuen. Baina gaur idazten dizudan hau irakurtzen badu, ulertuko du zuretzat dela. Oso triste nago gau honetan. Gustatzen al zaizu nire txakurra? Springer Spaniel bat da, esan didatenez. Txakur fidel eta azkarra da, oso urrutitik etorri dena, eta suposatzen dut, sendoago sentitzen denean, desagertu egingo dela, uste baitu oraindik itxaropena daukala papur egindako Europa batean.

Badakit denbora amaitzen zaidala. Hilabete frenetiko hauek ekintza batean amaitzen dira, zeinak, ondo edo gaizki atera, oso probablea da nire benetako papera agerraraziko duela, eta Frantziarantz alde egin beharko dut. Badakit, gauzak gaizki badoazkit ezin izango dudala ihes ere egin. Beraz, probableena da... zuk eta biok, nola duzun izena ez dakidan nire bihotzeko alabatxoa, ez garela elkar ezagutzera iritsiko. Ea: ez dugu elkar ezagutzen baina nik egun batean ikusi egin zintudan. Zure eskutxo bat ikusi nuen. Orduz geroztik, gauero, lo egiteko tartetxo bat badaukat, zure eskutxoan pentsaten dut eta pixka bat zoriontsuago lokartzen naiz. Edo zehatzago izateko, ez hain triste.

Konfiantza dut orri hauek irakurtzera iritsiko zarela. Konfiantza daukat zure amak ezagutzen duenean makiaren alde borrokan hil naizela nire gauzak jasotzera etorri eta gure ezkutaleku sekretua ikusi nahiko duela. Konfiantza daukat, modu bakarra izango baita idazten dizudana irakurri ahal dezazun. Irakurriko bazenu esan nahi du ez naizela bizirik atera koaderno hauek zure eskuetara iritsi aurretik apurtu ahal izateko. Badakizu? Badira izar batzuk gugandik hain urrun, urteak eta urteak pasatzen dira euren argia guregana iritsi aurretik. Hainbeste urte, alabatxo, ezen gaur jasotzen dugun argia agian gizona Lurrean egon baino lehen atera baita izarretik. Galaxia urrunetako argia bezala, nire ahotsa, zorterik baldin badaukat, ni aspaldi hilda nagoelarik iritsiko da zugana. Izarrak bezalakoak gara. Distantziak izar bihurtzen gaitu, zeru ilunaren gainean eztenak baikinen.

—Oso politta, izarrei buruz dioena.

—Erdi poeta zara zu, ez da Serrallec?

Gizonak edalontzia azken kafe-zurrutadarekin garbitu eta bizkarra jaso zuen. Txakurraren marrazkiari begiratu zion Tinak, perfektua, ilajearen hainbat xehetasunekin... eta dena eskolako arkatz batekin. Eta gero autoerretatuari. Nabermen zegoen bereziki begiak marraztu nahi izan zituela, begiradari iskin egin gabe.

Ikusten? Hauxe naiz ni. Eskolako komuneko ispiluan marrazten dut neure burua zure aita nolakoa zen jakin dezazun. Ez uste izan tranpa egiten dudala: horren guapo eta segaila naiz. Exaktoki horrela naiz zeren zerbait ondo egiten baldin badakit marraztea eta margotzea da.

Horretan buru-belarri aritu izan banintz ez nintzatekeen hona etorriko eta ez nukeen aukera izango zure amaren aurrean koldar agertzeko edo temerario lekuz kanpo. Eta orain zoriontsu biziko ginateke, nik eskolara eramango zintudan eta usoei izenak ematen irakatsiko nizukeen. Gainera, ez zen niretzat batere zaila izango ispilu baten aurrean bizarra egunero egitea. Jadanik ez dakit zein den nire aurpegia. Atzo sukarrarekin ohean nengoela uste zen baina, iluntzean, Triador muinora abiatua nintzen, han antena bat ezartzera. Komunikazio-sare bat jarri dugu frankisten muturren aurrean, eta oraindik harritzen nau haiek detektatu ez izanak. Herrira iristean ahotsak eta oihuak entzun nituen. Nasiren Maria etxeko Felisaren erostak eta ordua zela uste zutenen alibioa, egin zuenagatik ordaintzeko ordua zela. Pentsatu nuen zuhurrena ohera itzultzea zela sukartuaren itxura ematera eta, biharamunean, desgrazia berri bat deskubritu eta minaren aurrean inpasible agertzea. Zein zaila den, alaba. Baina gauza bat dira nire aurreikuspenak eta beste bat Valentí Targarenak. Balançó etorrarazi zuen, bere fideletako bat, ni ohetik ateratzera, eta goizaldeko ordu batean diskurtso bat egin zigun bizitza, heriotza, justiziari buruz eta mundu guztiari argi gera bekio Mauri malapartatua auskalo nondik itzuli dela herriaren sarreran auskalo zergatik bere buruaz beste egitera. Eta beste zerbait dioenak etsaitzat edukiko nau betiko. Ondo ulertu al didazu?

—Eta Felisa?

—Ez du deus esango. Nasiren Maria etxeko inork ez du deus esango konplize bezala arrestatuak izatea nahi ez badute. –Sakonki minduta–: Bost urte gure muturren aurrean ezkutatuta!

—Ahotsa premiarik gabe igoz–: Mundu guztiak ulertu al du?

Bai, argi dago, oso ondo, etab, desfilatzen hasi bitartean.

—Sukartuta zaudela esan didate?

—Hogeita hamazortzi. Itzuli al naiteke ohera?

Oriolengana gerturatu zen Targa, eta samurra izan zitekeen keinu batekin, bekokian ipini zion eskua.

—Irakiten zaude. Joan zaitez.

Ez dakit, alabatxo, zer zegoen irakiten, nire bekokia ala haren eskua. Edo nitaz trufatzen zen. Kontua da irakiten zaude esan zidala, beldur ematen duten eta bere erretratuak betiko izoztu ditudan begi haiekin begiratu eta isilik behatu zuen nola itzulzen nintzen ohera, non ofizalki nire azken orduak igarotzen ari nintzen.

Utz iezadazu pare bat aholku ematen, kontuan izanda ezin izan dudala aita bezala jokatu zure bizitzako minutu bakar batean. Egin kasu zure amari; emakume bikaina da, indartsua, bihotz alai eta kementsukoa. Maita ezazu eta ez utzi inoiz bakarrik. Ez saiatu egiten, alabatxo, beste gizaki bat laidotu edo kaltetu dezakeenik. Izan zaitez aske eta kementsu une bakoitzean egin behar duzuna egiteko. Zure aita seguruenik hilko da, askatasun-gabeziako egoeraz ez onartzen ikasi duelako. Gogora ezazu eta zure bizitza osoan izan zaitez nire bizitza ematen dudan pentsamendu hauekiko gai. Ez pentsatu heroi bat naizenik. Baliteke nekez hiltzea, kontu izan. Jakizu asko kostatu zitzaidala, asko-asko, alabatxo, askatasunaren alde borrokatu behar nuela onartzea. Behin panpinaren iraultza bizi izan nuen. Ez zen oso erabaki pentsatua izan. Nire buruarekiko nazka handia sentitzea izan zen. Hala ere, zirkunstantziak eraginda sentitu nintzen, behartu egin behar izan ninduten. Hura dena baino lehen are gizon koldarragoa nintzen. Baina hara non arriskua bizitzeak gauero nire bizitza arriskuan jartzen

dudan hori balioztatzera eraman nau, iheslariak hartzen ditudanean, mezuak pasatu edo ni-neu naizenean postaria, Tuca Negrako magaletan gora, gauez egunez baino hobeto ezagutzen dudan mendi bat eta mugatik aski urrun dagoena armadak zaindu gabe egoteko, hark beti beste aldera begiratzen baitu. Badakizu badirela bi hilabete egunean soilik bizpahiru ordu egiten dudala lo? Gainera, ez zait igarri behar. Hain da zaila disimulatzea... Nahi nuke zuk sekula ezer disimulatu behar ez izatea; beti zu-zeu izan ahal izatea.

Faxismoa eta nazismoa hildako askoren prezioan gainditzen ari dira Europan. Orain soilik Francoren erregimena geratuko da. Guk erorraraztea espero dut, daukagun bitarte gutxirekin. Eta ezin badugu, espero dugu Europak egiten laguntzea.

Badakit ez daukadala aita on baten tamaina eta behar bada orain bost axola zaizkizun gauzak esaten dizkizudala. Baina ez dizut marraztu nahi izan existitzen ez den mundua; ez nintzatekeen kapaz izango. Beste urte batzuk itxaron beharko dituzu, neskatila bat izan arte, ulertzeko. Nola estimatuko nukeen hamabost urte dituzula ikustea, agian trentzekin, ez dakit nondik paseatzen, mutikoei betertzez begiratzen, ahalke-barretxoak disimulatuz eta zure lagunaren belarrira murmurikatuz. Nola estimatuko nukeen ezen

Orban bat dago hemen eta ez da ondo ulertzen zer estimatuko zukeen Oriol Fontellesek. Beherago, orriaren azken aldera, testuak jarraitzen du esaten, eta ez pentsatu zure aitak hain letra txarra zeukanik: oso hotz handia egiten baitu eta atzamarrak zurrunduta baitauzkat. Irailaren bukaera aldera, Torenako gauak izotzezkoak dira estufa piztuta eduki arren. Hemendik ordu betera Tuca Negrara abiatu beharra daukat eskolara lo egitera datorren talde baten zain. Lo egin.

Zuk orain, alabatxo, egin behar duzuna da jolastu, asko jan, zure amari sinistu eta sendo asko hazi. Zu handitzean, estimatuko nuke zuk zure aitaren oroitzapen bat edukitzea, beldurtia, pixka bat errebeldea, gure askatasunen alde ahal duena egin duena, beranduegi zure amaren gustuko. Utz iezadazu esaten aitek esan ohi duten gauzak esaten: handitzean, alabatxo, ekidin hipokrisia; ez epaitu besteak, ezertan ez kaltetu, ez bilatu ohoreak, bilatu zure ekarpen eraginkorrena, ez ikusgarriena, izango diren tokiak. Eta saiatu sekretu gehiegirik ez egoten zure eta maitatzen duzun jendearen artean. Zure amaren eta nire artean bihotza zatitu digun sekretu bat dago. Sekretu bat? Batik bat diferentzia batzuk. Eta nik ez dut aski maite izan. Kontua da bihotza zatitu digula eta ez nuke nahi zuri antzeko zerbait gertatzea. Ez dakit zer esan amaitzeko: zati bat egon naiz orain nire alabari agur esateko hitzak bilatzen. Ez ditut aurkitu. Joan beharra daukat. Karameluren bat edukiko banu, koadernoen alboan utziko nizuke. Agur, alabatxo. Saiatu bizitza osoan nire bizitza eskaintzen dudan memoria eta ideiak errespetatzen. Maite zaituen zure aita, eta azpian dio, Oriol, eta tinta nahastuta dago, existizten ez zen alabari eskutitza idatzi ondoren Oriol Fontellesek negar egin izan balu bezala.

—Ulertzen al duzu zergatik hartzen dudan zerbait pertsonala bezala? Ulertzen al duzu?

—Uste dut baietz.

—Ez dut nahi izar hildako horren argia bere benetako destinora ez iristea.

—Hain zuzen ere. Horixe da, Tina.

Pixka bat hausnartu ondoren, paperak seinalatu zituen.

—Oriol jauna katedraletako eskultoreak bezalakoa da.

—Zer?

—Bai. Badakite ez dutela inorentzat lan egiten. Eskulturak, gargolak, barandilak, arkiboltak, trazeriak, floroiak eta rosetoiak egiten dituzte, zeinak behin hain goian ipinita inork ez dituen inoiz ikusiko. –Serio begiratu zion Tinari–: Ez badira usoak, zeinek, gainera, kaka egiten duten haien gainean.

Isildu egin ziren. Serrallacek edalontzi hutsarekin jolastuz esan zuen, behin mosen Lleberia jaunak Seuko goiko partea ikustera eraman gintuen. Harrituta geratu ginen.

—Nor da mosen Llebaria?

—Seminarioko ikasketaburua. Ez dakit bizi den.

—Hark esango zizuen eskultoreek Jainkoarentzat lan egiten dutela.

—Suposaten dut, ez daukat gogoan. Baina Oriol jaunarekin bezala gertatzen da. Zu ez bazina hau irakurtzera iritsi...

Burua astindu zuen, puntu etenek hunkituta. Tinak paperak karpetan gorde eta goma klaskarazi zuen, aditzera emanez, amaitu da bisita. Ez zion Serrallaci esan senarra etxetik bota zuela ez eta denbora egiten zebilela gaueko hamaikak jo arte. Soilik agur esan zion eta Serrallacek erantzun zuen, holako paper gehiago ikusi nahi ditut.

Serrallacen tailerra uztean oraindik ibili zen pixka bat itzul-inguruka hamaikak jo arte. Gaueko hamaikak eta sei minutura, pisura sartu eta etxea erdi hutsik topatu zuen: jantokiko liburuen erdia, fideltasun altuko aparailua, infidelarena zena, haren armairuko arropa, zapata-tokia erdi hutsik, ezelango agur-oharrik, ez zuritze ez aitzakizkoa. Eta komun ttikian, argazki-tailerra ukitu gabe. Ez. Berak txintxetaz kortxoan itsatsita zeukan Arnauren argazki hura falta zen. Berdin dio, bazeukan klitxea. Jantokian sartu eta aulki batean jesarri zen Tina, esertokiaren muturrean, bere etxe propioa bisitatzen balego bezala. Mahai gainean, Zhivago doktoreak apenas ikusi zuen etxekoandrea, hanka bat miazkatzen kontzentratuta baitzegoen.

—Vilabrú anderea, zientziak ezin du gehiago egin.

—Baina nik beti hartu ditut botikak arretaz, beti jarraitu ditut zure oharrak.

—Anderea... Iristen deneraino iristen da zientzia. Gaur egun, lesio okular-mota honek, zurea bezalako kasu batean –Combalia doktoreak tonua jaitsi zuen bere hitzez lotsatuta balego bezala–... ez dauka erremediorik.

Hori esaten entzun zuenean, bere baitan estafatuta sentitu zen. Zientziagatik eta Jainkoagatik, zeinarekin bataila gotorra egiten ari zen Trempeko faitarrak bere bizitzan sartu zirenez geroztik. Orain ez zion Jainkoari atsegina eman nahi eta nahiz eta betiko iluntasunak beldurra ematen zion, ez zuen kexatu nahi izan. Ez eta doktorearen aurrean ere. Beraz, isildu egin zen iluntasuna espanturik gabe asumitzeko prest. Mundua itsuz beteta dago.

Hirurogeita hamabost urte bete zituen egunean begiak arraroago zeuzkala esnatu zen, bere gaitz anuntziatuak ezagutzera emateko data finkoa balu bezala. Orduak telefono-deiekin entretenituta eman zituen, ezer ez zela gertatzen aditzera ematen saiatuz. Harik eta arratsalde erdira alarmatzea erabaki zuen arte.

—Ez, ez: esan dut Combalia doktorearekin zuzenean ipintzea nahi dudala.

Anderea, Combalia doktoreak ezin...

—Esaizou Elisenda Vilabrúren partez dela.

Errespetuzko isiltasuna eta zalantzazko bibrazioa entzun zen. Hogeita bi segundora Combalia doktoreak berak zioen, andere maitea, zertan zerbitzatu ahal zaitut? Andereak gogoa zeukan esateko, beldurra ematen dit iluntasunak, beldur handia, zeren beti ilunpean egotea beti zure buruarekin egotea baita, zutaz pentsatzen, zu-zeu osorik zure ispilua bazina bezala, dena epaituz, eta ez dakit hori humanoa den, doktore jauna. Eta esateko puntuan egon zen baita ere, iluntasuna gorrotatzen dut gauzak kontrolatzea ebasten dizulako, norbait atzetik etorri ahal zaidalako, oroitzapenak aratzegiak izango direlako eta ezin izango diodalako atsekabeari eutsi, orduz geroztik ezin izango dudalako begiak itxi ilunpean egoteko.

—Itsu geratzen ari naiz.

—Zer nabarmendu duzu?

—Ez dakit. Denak distiratzen dit, betaurrekoekin ere ez dut enfokatzen, orbanak ikusten ditut...

Lehen aldia zen Combalia doktoreak Vilabrú anderearengan kontrol-falta pixka bat nabarmentzen zuela.

—Horrela, bat-batean?

—Etorri ahal naiz orain?

—Izan ere... Zer ordu da?

—Ez nago Bartzelonan. Hiru orduko bidaia daukat.

—Orduan, hobeto bihar...

—Ez kezkatu nigatik, doktore jauna: hemendik hiru ordura klinikan egongo naiz.

Eseki zuen, Combalia doktorearen afari bat hondatu zuen, errepidean hegan joatea agindu zion Miqueli eta bizitzan lehen aldiz nezeserra ahaztu zuen.

Iluntzeko zortzi t'erdietan pazientearen butakan etzanda zegoen eta Combalia doktorea ezkerreko begia aztertzen ari zitzaion eta nahiago izan zuen gauzak Vanessari ez diktatzen ibili pazientea kezkatuko zuelako bera kezkatuta zegoen beste. Zein kaka santuko barrabilen erruz dagokit niri justu Elisenda Vilabrúri esatea dena amaituta degoela, ohartarazita zegoela baina orain dela momentua, bi asteko kontua, pare bat hilabeteko kontua... Orduan hasi zen afariko kideekin pentsatzeari uzten (promozioaren hogeita bost urte, eta bera Amouroux eta Pujolekin zer gertatu zen jakin nahirik), eta andereak galdetu zuenean, zenbat denbora falta da ilunpean egoteko, doktoreak eztarria garbitu eta esan zuen, beraaaaz urte erdi bat, urte bete bat eta orduan gehitu zuen harako hura, Vilabrú anderea, zientziak ezin du gehiago egin.

Txakurra ala neskamea? Makulua? Eta kontuak? Eta bidaiatu? Eta jan, ez al duzue ikusten zikindu ahal naizela eta ni ohartu gabe?

—Benetan, zientziak ezin du gehiago egin.

Ulertu behar izan zuen onartu beharra zeukala duela hamar edo hamabi urte bere zerbitzura zeukan txoferra bere begiak izatea errepidean: gaixotasunak, nolabait, Jazinto faltetsarazten zuen. Ulertu zuen Ciók, bere erreumarekin, etxean bere makulua izaten amaituko zuela. Gasullek bere idazkari bihurtu eta bankuko kontuetarako sarbidea izango zuela eta aditzera emango ziola, alemaniarren zenbatekoa ingresatu dizute. Eta berak ezin izango zuen aurrerantzean Gasullen aurpegi erregutzaile hura inoiz ikusi, beti berarekin galbideraino maitemindua, beti amestuz hark noizbait esango ziola, Gasull ez zara nire interesekoa arazoak imajinazioz konpontzeko abokaturik onena zarelako, baizik maite zaitudalako. Baina hori ez zen sekula iritsi eta Gasullek haren zerbitzura jarraitzen zuen. Zergatik jendeak suz irartzen du lehenaldia memorian?

Gauerdian Combalia doktoreak prest zegoen, eta zioen, emaitzak itxaroten ditugun bitartean, beti izango dira bospasei egun, zu, Elisenda anderea, ez egin burutaziorik. Denak dauka soluzioa bizitzan eta, kasurik txarrenean ere, eskerrak eman ahal dizkiogu Jainkoari baibaitaude gaixotasunaren forma erasokorragoak.

Idiota. Zer dago ilunpea baino erasokorragorik? Gainera, hain azkar amore ematen duen norbait ez da ez doktorea ez ezer.

—Beste bat kontsultatu nahi dut... Beste iritzi batzuk ezagutu nahi ditut.

—Eskubide osoa daukazu, Vilabrú anderea.

Hiru iritzi izan ziren. Soilik denboran ez ziren bat etorri. Bost hilabetetik hamabi hilabeterainoko tarte bat irekitzen zen, eta horrek arnasa hartzeko denbora bat ematen zion bere itzalarekin estropezu egin aurretik. Behin sententzia baietsita ere ez zen kexatu. Esan ziotenean pentsatu zuen, hasieran gutxi nabarmenduko zuela ikusmenaren ahulezia, harik eta, bat-batean, astetan, andeaketa haztatzen hasiko zen arte egunetik egunera orban beltzekin geratu arte. Eta azkenean, argi-puntutxo bat, bizitza bezala itzaltzen joango zena. Eta ispilua ukitu hotz eta inutila bilakatuko zen, gorpu baten antzo.

—Diote retrieverrak direla itsulagunik onenak.

—Txakur bat erosten badidazu, enpresatik eta nire bizitzatik apartatuko zaitut.

Gasullek desolaturik begiratu zion. Nahiz eta hirurogeita hamabai urtera iritsita, bere existentzia osoan praktitkatutako bizitza sentimental nulua azkeneraino ailegatuko zela pentsatu ahal zuen, oraindik amesten zuen egunen batean Elisendak eskua hartu eta esango ziola, Romà, hurbil zaitez hotzik nago-eta, edo horrelako zerbait. Baina Elisendak soilik enpresaren sekretuak komunikatzen zizkion, finantza pertsonalen sekretuak, segun eta norekiko harreman zailak, eta berak leialtasunez zerbitzatu eta soldata ona jasotzen zuen. Egia zen noka egin ahal ziola ia betidanik. Baina soilik bakarrik bazeuden. Hala ere, harentzat Gasull izaten jarraitzen zuen. Eta orain Gravat etxeko egongelaren isilerara deitu bazuen, zen esateko, Gasull, zu zaren munduko abokaturik onenak ere ezin izango du ekidin nik Albertvilleko Joku Olinpikoak ikustea, eta are gutxiago Bartzelonakoak. Eta abokatua kezkatu egin zen, uste baitzuen esaten ziola hiltzen ari zela, eta hark ezetez esan zuenean, begiak, ikusmena, diabetesagatik badakizu?, putz egin zuen barrutik alibiatuta, eta kanpotik ez zuen zer esan jakin, aho zabalik. Itxaropen berekoiko argitto batek esaten zion agian hura zela lehen aldia non Elisendak deitzen zion zerbait pertsonala adierazteko, eta agian nahi zuena zen berak giza berotasuna eskaintzea. Egitera zihoalarik, ordea, andereak eskuratuta zeuzkan egoeraren uhalak eta Gasullek onartu behar izan zuen Elisenda ez zebilela giza berotasunaren bila baizik eta bere itsutasun geroko eta benetakoa enpresa-liburuko oztopo eta arazoen zutabera atxikitzeko beste elementu bat bihurtu zuela. Nola egingo dugu nik denaren kontrola mantentzeko, laburtuz horixe zen galdera. Berak beste honelako galderaren bat itxaroten zuen, Romà maite al nauzu? Eta berak esango zukeen, bai nire maitea, Elisenda, maite zaitut, nahiz eta, nik dakidala, zure bizitzan hiru gauza arraro eta ulertezinak egin dituzun. Lehenengoa, gonazale inpresentable batekin ezkontzea, Santiago Vilabrú inutilarekin alegia, zeina sekula ez zenuen maite. Zergatik, Elisenda? Txatxu haren eta zure artean seguru ez zegoela inolako lokarririk. Bigarrena da, Elisenda, nire itsu ttikia, ez dakidala zer harrapatu zaituen Torenako maisua beatifikatzeko obsesioarekin. Ados, zuk hala baldin badiozu, beharbada merezi zuen: ni ez nintzen ezagutzera iritsi. Baina badira gero urteak irauten duela, fortuna bat xahutu duzu eta birplanteatu dezazun intsinuatzen dizudan bakoitzean, berriketa-gaia aldatzen duzu. Zure bihotz hotza ezagutuko ez banu, nire itsu ttikia, maiteminduta ez ote zeunden pentsatuko nuke. Eta hirugarrena... diotela zu baino maitale gaztexeagoa eduki zenuela eta asko iraun zizula. Nola moldatzen zara niri hain ondo ezkutatzeko nahi ez duzuna jakin dezadan? Eskiko monitore bat zela diote. Ez dut sinisten: andereegia zara zu. Baina batzuetan bada ahots ttiki bat, batik bat ametsetan, esaten didana, Romà, emakume honek ezin du bizitza osoan bakarrik egon soilik lanean pentsatuz. Ez dakit. Baina hark ez zuen galdetu, Romà, maite nauzu, baizik bere aurrean eserrarazi eta esan zuen, tira, azal iezadazu Marcelek egin duen hori.

Romà Gasullek, betiko fidel, semearen traizioa azaldu zion, amatxo gero eta leloago zegoela baliatuz saiatu zuen estatu-kolpea...

—Hori esan zuen, leloago?

—Emakumea, Elisenda, ez dakit ba…

—Esan zuen ala ez zuen esan?

—Ongi, ados, bai, esan zuen... Baina ez du garrantzia handiagorik...

—Nik badakit –eten zion– zerk daukan eta zerk ez daukan garrantzia. Nire semea da.

—Hark zioena zen, badituzula hirurogei eta hamabost urte eta atsedena hartzeko ordua dela. Eta berak gaindituta dauzkala berrogeiak, eta gero eta gehiago haserretzen nau denetarako baimena eskatu beharrak, ugazaba ez banintz bezala.

—Baina ez zara ugazaba, Marcel –Gasull oso kezkatuta, bi suen artean harrapatuta, bi fideltasun kontrajarri eta bateraezinak eurak.

Oro har, makinatu egin zuela eta disposizio legalak hobetu nahi zituela zurkaitz notarial teknikoki inpekableekin, bere oinordeko legitimoaren aldeko Elisendaren errenuntzian oinarraituta alor guztietan: patrimonialean, enpresarialean eta familiarrean.

—Zergatik?

—Txotxintzen hasi delako, ez delako unea eta lelotuta dagoelako. Eta egunotako batean itsu geratuko delako. Eta ez dut nahi geratzen zaigun patrimonioa Elizak urrupa dezan.

—Neurrigabe aberatsak zarete, Marcel.

—Zenbat milioi xahutu ditu maisu alu horren beatifikazio-prozesuan?

—Izugarri.

—Ikusten?

—Baina zure amak neurriaren zentzua dauka. Berak badaki noraino irits daitekeen eta noraino tira dezakeen. Denetan. Ezagutzen dudan pertsonarik kalkulatzaileena da...

—Nirekin zaude ala nire aurka, Gasull? –Jesukritok bezala, baina tejanoekin eta gin-tonica eskuan, Bartzelonako bulegoen terrazan, japoniar-saldo batek setiatutako Pedrera aurrean.

—Ez dut sinatu nahi. Ezin diot hau zure amari egin.

—Nire aurka zaude. –Keinu biblikoa gin-tonicarekin.

—Ez. Baina ezin dut egin...

—Nire aurka zaude. Agur. –Eta Gasull terrazatik ateratzen zelarik, hark ibilgetu egin zuen–: A, eta amari hitzik esaten badiozu, hil egingo zaitut.

Lehen erreakzioa amatxorena izan zen. Itzalen munduan erori aurretik, Gasull nahigabetu baten bidez estatu-kolpearen saiakerako xehetasunak ezagutu ondoren, bi egun eman zituen esanaz, zein gaizki egin dudan, ez baitut jakin zure semea merezi duzun bezala aurrera ateratzen, Oriol. Hain konplikatua da dena, ez dut haren alde aski egoten jakin. Gurutzetxoa eta katea ukitu zituen lasaitzeko. Marcelek zure begiak eta zure sudurra dauzka. Baina haren semeak zure aurpegi osoa dauka. Sergi zu bezalakoa da, gaztetxoagoa. Batzuetan, ikusten dudanean, arnasarik gabe geratzen naiz eta, disimulatzeko, txartel bat eman ohi diot, tolestuta, eta zuk margotzen ninduzunean egiten zenuen bezalaxe egiten du irribarrea. Nik ez dakit zure semea eta zure biloba hazten baina maite ditut zure parte direlako. Ez hartu txarto orain egin behar dizudana, Oriol: hau bai dela bizitzaren legea. Katea kendu beharko nukeen baina ez dudala egingo zin egin dut eta horregatik ez dut kentzen. Maite zaitut, Oriol. Otoitz moduko hura bukatu zuenean Mertxeri deitu zion, Marcelen putakerien txostena pasatu, intsinuatu zion ezen, ikusten zenez, ez ziotela nazkarik ematen trabestiek eta edozein arazotik aterako zuen abokatu bikain baten txartela eman zion. Egunez ere itzala inguratzen hasita

zeukalarik (bere gurutzebide pertsonalaren hirugarren astean) Marceli deitu eta esan zion, nire konfiantza osoa ipini dut zugan, seme, eta zuk saldu egin nauzu; hemendik aurrera jakizu ez dizudala kapital patrimonialaren zentimorik ukitzen utziko eta daukazunarekin bizi beharko duzula, Brusporten markatzen duzun soldatarekin eta zure esleipenarekin, oso eskuzabala dena bera. Jakizu ez dizudala zure herpea Tuca Negrari dakion ezertan ipintzen utziko eta Brusporten kontzentratu beharko duzula, duela zenbait urte erabaki genuenez. Eta niri kontsultatzen jarraitu beharko duzula hogei miliotik gorako arriskua dakarren edozertaz. Eta jakizu oso probablea dela Mertxek zu abandonatzea. Edo uste duzu itsu geratzen ari naizelako tenteldu egin naizela? Eta Oriol Fontelles Dohatsuarekiko nire interesari buruz ostera edozein deskontentu-mota intsinuatzen baduzu, seniparterik gabe utziko zaitut. Ulertu al didazu?

Pertsona baten bizitzan, bere izaera abenturazale eta errebeldeak osatzen duen matxinada-punttua markaturiko bidegurutzeak daude. Amatxoren tiraniaren aurkako matxinada. Marcelek, errebelde adoreduna zela jakitun, bizitzan zehar, errebeldia-une asko izan zituen amaren aurka, adibidez idazlea izango zen Ramonarekin maitemintzeko adorea izan zuenean. Edo, aurretik kontsultarik egin gabe, Bedognirentzat galtzerdiak konfekzionatu eta Singapurren egitea erabaki zuenean, etekin indezenteak ekarri zizkion erabakia bera, eta amatxoren lehen zuzeneko zoriontzea ekarri ziona. Edo, indizio sotil eta demostraezinek ohartarazita, amatxoren kontsignak egon arren elkarrizketak unilateralki moztu zituenean Nishizakirekin, eta berebiziko errieta jaso ondoren, amatxok irentsi eta Singapurren egindako Bedogni galtzerdia bezala alderantzikatu eta, Nishizaki Groupen eskandalua lehertu zenean, Marcelek arrazoia zeukala publikoki aitortu behar izan zuenean. Ezinezkoa baita hari kontra egitea. Eta gainera, Gasull marikoia. Oso ongi: beraz orain da keinu errebelde nagusiaren unea. Orain ala inoiz ez.

—Bai, amatxo.

Ez zen deus aldatu Marcelen bizitzan salbu Mertxe joan egin zela eta ez zuen balio izan ez erill, ez centelles ez anglesola ez sentmenat ez ostiarik; gainera gaur egun inork ez du zalapartarik ateratzen mundu guztia banantzen baita eta zer. Arraroena da dibortziatu ez den lagun bat aurkitzea, zin dagizut. Ikusten, gainera aske nago, aizu. Burua oso goian eta poltsa beterik aldendu zen Mertxe Vilabrútarrengandik, Sergirik gabe, amonaren alboan geratu baitzen, eta horrek ez zuen esan nahi preseski Torenan bizitzea, asperdura hutsaren zentro neuralgikoan, baizik haren kontrolpean, amarekin bisitak egiteko era oso eskuzabalean, ezkontza-etxea berak abandonatu zuen arren. Sergi orduan hasi zen errebelde adoredunaren etorkizuna oinarritan altxatzen. Sergi bai zela benetako errebeldea, ez ni bezala, izan ere neguan behartuta baino ez zen Tucara igotzen, eta aldiz titanio eta fibrazko sei surfeko plantxak zeuzkan (Brusport Marina hirugarren belaunaldikoa, oso plantxa moñoñoak) eta bi azpil grabatu, lehen bost postuetan bi txapelketei zegozkienak, bat Gibraltarren eta bestea Pazifikoan, San Diego ondoan. Hamazazpi urterekin, aizu. Arazoa DBH lehenengoan dago, hirugarren aldiz huts egin baitu. Zerbait egin beharra dago mutiko honekin. Gasull, zuk zer diozu. Eta ez nazazu hola begiratu, barkatu dizut-eta, ez baitut barrabil santurik izan agindu bezala zu hiltzeko. Behar baitzaitut. Eta nahiago dut zurekin hitz egin, traidorea izanda ere, amatxorekin egin behar izatea baino, amatxo baita.

Abuztu amaierako asteazken batean Elisenda Vilabrú beti bezala goizeko sei t'erdietan altxatu eta harritu egin zen goizeko argiak ez zuelako errezelak orbantzen. Mahaitxoko lanpara piztu eta, hasieran, pentsatu zuen argia joana zela. Bonbila ukitu eta berotzen ari zela ohartu zen. Asteak ziren irakurtzen ez zuela, ezin zuela ikusmena finkatu, beti galdetzen zuela zenbat jende zegoen gelan, gauzak eta erabakiak haztatzen zituela, Cióren besoa onartzen zuela. Oraindik ikusten zuen; lauso eta orbanekin baina ikusi egiten zuen. Abuztu amaierako asteazken honetan, goizeko sei t'erdietan, lanpara inutila itzali eta ostera luzatu zen, sabai ikusezinera begira. Arnasa sakon hartu eta itzal eternoen munduan baretasunez sartzera abiatu zen.

Vilabrú Ramistarrak eta Vilabrú Cabestanytarrak, hots, Elisenda Vilabrúren jatorrizko Vilabrútarrak eta haren senar Santiagoren jatorrizko Vilabrútarrak Vilabrútarren bi adar frankistak ziren. Elisenda anderearen aldetik Torenako Vilabrútarrak ziren, Vilabrú Bragulat, eta haren senar Santiagoren aldetik Vilabrú-Comelles, hiru belaunaldi Bartzelonan bizi eta zirkulu monarkiko eta kontserbadoreetan zebiltzanak mende hasieratik, batik bat Comelles txertoari esker Nafarroako Aranzoren senideak baitziren, zeinei buruz esaten zen karlismoa sortu baino lehen zirela karlistak. Bai. Bai. Ez, Rouretarren aldetik hain zuzen. Cabestanytarren aldetik epel samarrak zirela uste dut, horkonpondarrak. Baina Rouretarrak Rouretarren senideak ziren; lehengusu-anaiak. Imajina ezazu. Batzuk CEDAkoak eta besteak Esquerra Republicanakoak, eta Eguberritan elkarrekin jaten zuten pasta-zopa.

—Aberatsak ez dira hiltzen gauza hauengatik.

—Gerra lehertzen den arte. Orduan aberatsak desagertu eta haien gorrotoak geratzen dira. Agian ez dira hiltzen, baina hil egiten dute.

—Elisenda andereari buruz ari al zara?

—Mundu guztiak daki Torenako Vilabrútarren exekuzioan parte hartu zuten hiru lagunak Targa alkatearen esku hil zirela.

—Eta zer?

—Anderea mendekua hartzen ari balitz bezala.

—Demostratu ahal duzu?

—Ez, kointzidentziak egon arren. Hobeto esanda uste dut andereak eta Targak elkar gorroto zutela. Ez dakit, oso gaztea nintzen... eta beste gauza batzuk neuzkan buruan. Baina jendeak xuxurlaka komentatzen du. Eta begira... –Jaume Serrallac isildu egin zen pixka bat. Bat-batean, oroitzapena trago bat bezala etorri izan bailitzaio bezala–: Maisua bizirik ikusten azkenetarikoa izan nintzen.

—Zer?

—Bai. Haren bila eskolara jonarazi ninduten iluntzean, afaldu aurretik.

—Nork?

—Targak. Ei zu, mutiko, zatoz, zure izena?

—Jaumet.

—Zein etxetakoa?

—Lliset etxekoa.

—Harrietakoa?

—Bai, jauna.

—Joan eskolara eta esan maisuari etortzeko agudo. Laster.

—Eta zer gehiago? E?

—Ez dut gogoratzen. Tiroak. Antza denez maki-komando batek herria asaltatu zuen. Jendea etxean itxi zen. Ez dakit. Ni oso... Eta hau dena jakin behar nuenean, nengoen...

Tinari iruditu zitzaion zerbait triste zeukala gogoan. Orduan Serrallacek gehiago ez gogoratzea erabaki zuen.

—Izan ere gazteegia nintzela harrapatu ninduen gaztaroak.

Ekidin ezinik, Tina, Serrallaci zion arreta eta guzti, Jordiren keinurik minimoenaz adi zegoen, hiru mahai harago. Orain Jordik zapiarekin xukatuko ditu ezpainak, altxatu eta esan beharrean, Tina, mintza gaitezen, damututa nago, etab, mostradorera ordaintzera joan eta Rendé etxetik alde egin zuen burua itzuli gabe, sekula bere senarra izan ez balitz bezala. Erreprimitu beharra izan zuen haren atzetik ez atera eta esateko, Jordi, non bizi zara, toki bat aurkitu duzu, arroparik falta zaizu, nahi al duzu gazta bat, ez utzi berdura jateari, hemendik hamabost egunera homeopatarengana joan behar duzu, apuntatu...

Goizean, Jaume Serrallacen bila joana zen Oriolen azken paperak itzul zekizkion eta bere kontuak esan zitzan. Sakonean Torenako gorrotoz mintza zekion nahi zuen.

Serrallacek bulegora pasarazi zuen. Nabearen sakonean, norbaitek bizitza bat pikatzen zuen harlauza baten gainean. Kolpe erregularrek pentsatzen uzten ez ziotelarik, bat-batean altxatu eta bulegotik atera zen.

—Cesc, arratsaldean itzuliko naiz! –Eta poltsikotik atera berri zuen paper-mutur bat kontsultatu ondoren, ostera deitu zuen–: Tirviako plazatxorako harlauzen bila etorriko dira hiruretan!

Bulegoan sartu eta esan zion, bazkaltzera gonbidatzen zaitut. Serrallacen autoa Cardós aranean sartu zenean, Tinak galdetu zion, nora goaz, eta esan zion, Aineteko ostatu batera, primeran bazkaltzen baita. Aineteko ostatura, hain justu. Orduan, berehala erantzun zuen Tinak, begira, Jaume, edozein tokitara, baina Aineteko ostatura ez.

Serrallacek autoa errepide bazterrean gelditu eta begiratu egin zion. Argi zegoen ez ziola azalpenik eman nahi.

—Ondo iruditzen al zaizu Rendé etxea?

—Oso ongi.

Serrallacek autoa itzularazi eta ostera Sorteraino gidatu zuen. Randé etxea Jainkoarekin erlazionatuta balego bezala, sartu ahala, Jordi izan zen Tinak ikusi zuen lehenengo pertsona, oraindik ez zirelarik hogeita lau ordu bere senar ohia zela, bakarrik, erdiko mahai batean, eta burura etorri zitzaion beren lehen bazkaria han bertan, mahai berberean, hogei urte lehenago, zu eta biok zoriontsu ginenean. Oro har, Aineteko ostatuan gera gintezkeen.

—Zer gertatzen da? –Serrallacek, jatetxe-aldaketarako prest.

Ez zen deus gertatzen. Hondoko mahaira joan ziren. Jordiren aurretik pasatzean ez zuten elkar agurtu eta Tinak pentsatu zuen mundu guztia konturatzen zela ez zutela elkarrekin hitz egiten, duela hogei urte, mundu guztia ohartu zen bezala, kalean lehen aldikotz hartzen ziotela eskua elkarri. Orduan Tinak pentsatu zuen, Jordik pentsatuko du Serrallac nire maitalea dela, beti horrela pentsatzen zuelako eta begi kritikoz begiratu zion Serrallaci baina egia esan aski zahar aurkitu zuen. Eta orain Jordi begiratu gabe zihoan. Ergela zara gero arduratzeagatik. Ohea baldin badauka nola ez du sabairik edukiko. Zer? Barkatu?

—Emakume tristea zarela…

—Ni?

Ekarri berri zioten platerari so egin zion Serrallacek. Baimenik eskatu gabe, Tinaren esku bat bere eskutzar potolo eta latzarekin desbabesetik estali eta segundo batzuk utzi zuen haren gainean, konturatu balitz bezala Tinak horrelako zerbait behar zuela. Inizitiba Tinarengana pasatu baino lehen, erretiratu egin zuen eskua.

—Hestebete honek itxura ederra dauka –deklaratu zuen, platera seinalatuz.

Argi dago emakume tristea naizela, baina tristurak ez dit sekula gosea kendu eta horregatik nago hain itxuroso.

—Nire senarra hemen egon berria da.

—Hara, eta nolatan ez...

—Egun bat ez da pasa banandu garenetik.

—Sentitzen dut. –Begiratuz–: Horregatik zaude trise.

—Ez dakit. Nolatan dakizkizu hainbeste gauza Vilabrútarrei buruz?

—Nire zereginean... familiei buruzko gauza asko dakizkigu baina gutxi pertsonei buruz.

Tina hestebeteari ekin eta zerbitzariak entsalada ikaragarri handia utzi zien aurrean.

—Esaizkidazu gauza gehiago Vilabrútarrei buruz.

Serrallacek edalontzi bat ardo bete eta jarraitu zuen azalduz, Vilabrútar faxistei buruz ari naiz, hiru anaiei buruz, eta Vilabrú exiliatuaz, Rouretarren odola heredatu eta Vila Abadal batekin ezkondu zenaz, Triastarren senidea baina ez fatxena, normalena baizik. Ezagutzen ditut, denak igo direlako Torenara inoiz edo behin. Aberastu zirenak hiru anaia frankistak izan ziren. Eta hiruetatik inutilena Santiago zen, ziotenez. Batik bat larrua jotzen aritzen zen. Horregatik, aste ikaragarri eta aspertuak Torenan igaro ondoren Donostiako exiliotik itzuli berritan, Bartzelonara alde egin zuen, bere putatxo maitatuen albora eta emakume ezkondu edo ez ezkondu haien albora, zeinek atsegin zuten hark eurekin txortan aritzea.

Tinaren barre-algarak ahoa beteta ondorio katastrofikoa izan zuen.

—Esan dizut erdi poeta zarela –esan zuen zapiarekin garbitzen zen bitartean.

—Lapiden eskultoreok ehortzaileengandik filosofia merkearen gustua heredatu dugu. Baina poesiari buruz... harlauza batzuetan kopiatzen ditudan bertso batzuk baino ez dakizkit.

Bere lagunik txarrena balitz bezala egin zion eraso entsaladari. Ostera ahoa libre eduki zuenean, borobildu zuen:

—Laburbilduz: oso familia diruduna. Eta Elisenda anderea, gainera, herrialdeko lehen fortunetako bat da.

—Aldiz ez da Gravat etxetik mugitu.

—Zuk eta biok eta herri osoak baino gehiago bidaiatu du.

—Ez, esan nahi dut bertan bizi dela.

—Zer dauka txarretik? Ni ere Torenan bizi naiz. –Pakete zimurtu batean zigarro bat bilatu eta begiratu egin zion, serio. Karteraren kremailera ireki eta oso kartazal potoloa atera zuen. Tinari pasatu zion–: Maisuaren paperak benetakoak al dira?

Tinak ez zuen sekula hain azkar jaten ikusi.

—Noski direla benetakoak.

—Beraz nolako kaka putza. Barkatu.

—Bai, kaka putza da.

—Denbora gehiegi igaro da. Jadanik ez dio inori axola.

—Niri.

—Zuri ez arre ez iso.

—Gizon batek duela berrogeita hamar urte idatzitako eskutitz bat iritsi zait niri.

—Pasatu maisuaren semeari eta listo.

Serrallacek bere kartera barruan arakatu eta Marbres Serrallac SLren txartel bat atera zuen. Atzeko aldean zerbait idatzita zegoen.

—Marcel Vilabrúren helbidea.

Tinak txartela hartu zuen. Serrallacen ahots-tonuak erdi molestatu egin zuen, jarraitu zuenean esaten, beraz, zer? Hara joan eta esango diozu, begira, Vilabrú jauna, zu ez zara zure amaren semea baizik zure amarena. Eta hark esango dizu, ze ondo, ez? E? Horrela joango al zara? Inolako frogarik gabe?

—Gutxi gorabeheera. Inprobisatuko dut.

—Gustatuko litzaidake norbaitek ni daukazun konbikzioarekin maitatzea.

—Bajan nago maitasunetik.

—Beraz zergatik egiten duzu?

—Ez dakit. Agian heriotzak azken hitza eduki ez dezan.

Serrallacek zupada luzearen ondoren irribarre egin zuen, burua astinduz. Tinak harrituta behatu zuen, ia minduta:

—Zer gertatzen da? Zu ez al zaude sekula triste?

Duela pare bat urte trsitetu zen azken aldiz Serrallac, Genoako kanposantua, Vienako Zentralfriedhof eta Parisko Père-Lachaise delako kanposantuei buruzko erreportaje bat ikusi zuenean. Eta aski da, esan nuen. Sort, Rialb, Batlliu, Assua araneko, Tirviako kanposantuak ezagutu eta bertan lan egiten bainuen, eta beste bailara batzuetakoetan ere bai, eta ezein, haietako ezein ez zen Torenakoa bezalakoa. Baina orain, telebistan ikusitakoa ikusita, deprimitu egin bainintzen. Eta pentsatu nuen astakeria galanta zela pertsonen bizitzaren izena eta neurri zehatza grabatzen bizitza irabaztea.

—Beste gauza batzuk ere egiten dituzue.

—Batik bat beste gauza batzuk egiten ditugu. Baina niri lapidak gustatzen zaizkit.

—Esaten dut liburuan: gutxi gorabehera Gerriren lerroak markatzen du etxe teilatudunen amaiera eta etxe zoladunen hasiera.

—Ez da exaktoa baina ez dakit zer zerikusi daukan nire arazoekin.

—Kanposantu nitxodunen amaiera eta lurrean ehorzten den kanposantuen hasiera ere badela.

—Nitxoa iparrerantz hedatzen da. Nitxoetarako lauzak egiten ere irabazten dut bizitza. Finagoak; marmol beltz findua. –Etena–: Noiz aterako da liburua?

—Nahi nuke...Tira, lehenago.

—Misterioz beteta zaude.

Bakarrik nago inor ez daukadalako medikuarengana itzultzeko beldurrez, Arnauren distantzia edukatuaz, Jordiren traizioez mintzatzeko. Ez daukat lagunik. Horren erraza da. Eta nire aurrean, nire itzal-zatiei buruz galdetzen didan pertsona bakarra: harri-jotzaile bat erdi jubilatua eskualde erdiaren etxeak eta zoladurak zolatu eta harriari bizitza zein heriotzaren ziurtagiriak egin dizkiona.

—Mundu guztiak dauzka misterioak, ez kezkatu.

—Hainbeste, kezkatzen bainaiz. Zu bezalako emakume gazte batek... egin behar du... Ez dakit. Nik... Badakizu?

Egoera deserosoan utzi ahal zituen desegokitasunen bat esaten bukatu baino lehen, moztu egin zuen Tinak:

—Liburua ateratzen denean, ale bat oparituko dizut.

—Beraz, nik lapida bat oparituko dizut –erreakzionatu zuen Serrallacek.

Ozen hasi ziren barrezka, ni bromagatik beldurrez zorabiatuta eta Rendéko ugazabak, mostradoretik, pentsatu zuen, Jaumet hau, alproja halakoa, maistra potolotxoarekin ligatzen.

Historak, xehetasunetan sartzen denean, hauspo epikoa galtzen du. Nik, barrutik eta oso hurbiletik bizi dudalarik dagokidan Historia, ezin ditut bazterrean utzi xehetasun horiek. Barrearazi egiten du, alabatxo, kafe ttanttadun baten erruz hilko naizela pentsatzeak. Gaur goizean, hotza hasten denean egin ohi dudanez, eskola ireki baino lehen Marés etxetik pasatu naiz. Baina grazia, edo hobeto esanda desgrazia, da birpentsatu egin dudala, nagiagatik. Hotz zegoen, eta gau osoan jotzen egon den mendebal erre gogaikarriak etxetik ez irtetera gonbidatzen zuen. Baina nagia astindu (beti egin dezazun gomendatuko nizuke) eta Marésengana abiatu naiz.

—Mekagoen mendi putako mendebal errea –anuntziatu zuen Modestek mostradorean kafe ttanttaduna zerbitzatzen ziolarik. Oriolek ez zuen deus erantzun. Hobeto esanda, kanporantz begira zegoen. Pare bat haur ikusi zituen, kartera bizkarrean eta eguna bezain begirada tristeaz, haizearen kontra borrokatuz, eta pentsatu zuen ez zela entretenitzeko tenorea, ez baitzuen gustuko umeak eskolan bakarrik egotea. Lehen tragoa egin, haren botere biziberritzailea sentitu eta bigarrena eta azkena egitera zihoanean, ilundu egin zen sarrerako atea. Betertzez, kanporantz begiratu zuen. Targa alkatea maleta batekin Marés etxean sartzen ari zen, asetasun-aurpegiz eta emakume bat alboan. Oriol, edalontzia oraindik aire erdian, instintiboki aurpegia estali eta kafearen hondora begiratzera itzuli zen.

—Modest, emakumea egun batzuetarako geratuko da. –Eta emakumeari: hauxe da aipatu dizudan kamarada.

Oriolengana hurbildu zen, zeinak bigarren txagoxka kendu eta edalontzia marmolaren gainean utzita zeukan.

—Kamarada Fontelles, Isabel aurkezten dizut.

Oriolek, itzuli eta irribarre jatorra egin behar izan zuen, izuz betea, Eugueseko larretik itzultzen ari ziren behiek ere kontuan hartuko zutena, eta Lore Ederra izan zuen aurrez-aurre, zeina Estació de Vilanovako jatetxekoaz geroztik ez zuen ikusi, hark so egin eta eskua berez dardarka hasi zitzaion, hiltzea ez baita uste bezain erraza, batik bat biktimaren izena ezagutzen duzunean; batik bat hilko duzuna gorrotatu bai baina oraindik mespretxatzen ikasi ez duzunean. Eta eskua hain modu erridukuluan dardaratzen zitzaion, hurbileko mahaietako bezeroren batek distraituki harantz begiratu zuen, eta berak bi eskuekin pistola hartu behar izan zuen Valentí jauna mahaiaren gainetik makurtzen zelarik, garondoa hobeto eskaintzeko, belusezko ahotsarekin esateko zorian zegoela, hain fantastikoa zara ezen bazkaria amaitzen dugunean itzuliko gara baina bere hasieran utzi zuen esaldia, Lore Ederrak ahoa zabaldu eta haren bizkarretik atzerantz begiratzen zuela ohartu baitzen.

Isabel Lore Ederrak ostera eskaini zion irribarrea Orioli eta bostekoa emateko unean konturatu zen, ahoa irekita uzteko maneragatik, sudurra zabaldu zitzaion moduagatik, eskua bere eskutik irristatzen utzi zuen moduagatik eta, instant batean, Valentírengana betertez begiratzeko moduagatik, ezagutu egin zuela edo berandu gabe egingo zuela.

—Atseginez, anderea.

—Hemen bizitzen geratzeko konbentzitzen nabil –Valentík aho apalez, beste inork entzun ez zezan–.

—Toki lasaia da –Oriolek, gezurretan, isilik ez geratzearren.

Hain nahasita zegoen emakumea, ez zen komentarioetara itsatsi. Hobeto esanda, pentsatzen zuen Oriolek, ezker-eskuin begiratzen zuen bera bezalako hiltzaile batengandik ihes egiteko modua kalkulatzen balego bezala. Beraz, irribarre are liluragarriagoarekin, desenkusatu egin zen eskolak hasteko ordua egin zitzaiolako, eta alde egin zuen Marés etxetik, jakitun dena kunplituta zegoela. Baina egun osoan, alabatxo, egun osoan, inor ez zen nigana ezer esatera etorri. Aldian behin betertzez begiratzen nuen leihotik. Ezer ez. Dena normal. Zergatik ez dudan alde egiten? Gaua erne igaro behar dudalako, duela hamar egun helarazi didaten irratitik transmititzen, eskolako goiko aldetik, hirugarren eta laurehun eta hirurogeita hamaikagarren brigaden artean lotura eginez, zeinak bihar, Operazio Handiaren egunean, Montsenten isurialde bakoitzetik bana jaitsi behar baitira, Tremperaino iritsi arte, garaile, armada faxista mendian behera lasterka eta beldurrez oihuka ordekaraino. Horregatik ezin dut alde egin, alabatxo, gogo ikaragarria dudan arren.

Umeak eskolatik ateratzean, mendebal errea historia zen. Neskato batek, Ruti etxeko Valldeflors delakoak, ikatzen antzeko begietakoa, aurreko ikasturtean irakurtzen ikasi eta orain urriaren erdi aldean jada hiruko biderketa egiten zekiena bera, irten aurretik eskua eskutxoarekin hartu eta zulatu egin zuen Marcó tenientearena bezalako begirada beltzarekin, jakingo balu bezala herri guztiak gorrotatzen zuen maisuari agur esan behar zitzaiola. Agur, maisu, eta heriotza on. Zure azken gaua da herrian. Bizitzan. Gogoan izango zaitugu, jakina gogoratuko zaitugula, zeren, egin ahal izanda, ez zenuen atzamarrik mugitu Targa alkateak, Torenako borreroak, inpunitatez hil eta lapurtu ez ezik herria betiko mesfidantzan utz zezan ekiditeko, hainbeste non, XX. mende amaieran, beste maistra potolotxo eta inseguru baten obstinazioa behar izango baita zure momentu eta hasperenak itzaletik ateratzeko, maisu falangista oraindik presente baitago atso-agure askoren memorian eta begiradan, eta esku trebe batek memoriaren harri bihurtzeko destinatu dituen harlauzetan.

—Bihar arte, Valldeflors.

Bakarrik geratu zen, eskuak igeltsoz hautseztuta. Oraindik begiratu zuen nola umeren bat, arratsalde erdiko ilunpe hasiberrian, jolasten zen harri batekin lurrean, etxerako eta merienda on bateko bidean. Atea giltzez itxi ondoren, ganbarara igo, bi koltxoiak baztertu, petroleozko argia piztu eta irrati-aparailua piztu zuen. Ohartarazi behar al zuen probableki berak arazoak izango zituela? Berarekin konektatu behar zuten bi brigadetako irratitelegrafisten eskakizunei adi egon behar al zuen soilik? Ezarri zuen kontaktua baina ez zuen deus esan agian gau hartan lore eder baten erruz edo, segun eta nola begiratzen duzun, kafe ttanttadun baten erruz akabatuko zutenari buruz. Jota-bost besterik ez zuen esan, hemen jota-bost, entzuten al didazu, aldaketa, eta antzeko gauzak. Bai denek entzuen zioten elkarri eta Tossal de Triadorren gainean ezarritako antena izoztuta egongo zen baina jota-bost, hemen jota-bost entzuten al didazu aldaketa transmititzeko pozik. Eta irratitelegrafista ikusezinak ere pozik geratu ziren probarekin eta handik bi ordurako ipini zuten hitzordua, jota-bost, bederatzietan, jota-bost, gau itxia, zalaparta hasiko zen ordua baitzen.

Irratia deskonektatu zuenean, erabat baztertuta zeukan ihesa eta onartuta heriotza, zeina ezustean kosta egiten zitzaion heltzea. Bere jokabideak zentzuren bat eduki behar bazuen ez zuen Pallarsen sartu behar zuten bost brigadetatik bi erabat desbabes radiofonikoan utziko zituen mutis batekin lehertu nahi. Une hartan, berak ez zekien, Pirinioetako hogeita hamar puntu baino gehiagotatik, Atlantikotik Creus lurmuturreraino, Vall d'Aranen gertatuko zenari

buruz adi egon behar zuten ehunka gerrilari sartzen hasiak ziren. Baina Oriol, soilik egin behar zuena zekielarik, pentsatzen zuen ezen Valentí Targak salatzeko edo behingoz akabatzeko erabakia hartzen bazuen, gehiegi pentsatu nahi ez zuen zapalkuntza sor hartatik aske geratuko zela, mundu guztiak Torenan, mundu guztiak Rosaregan eta zure izena ezagutzen ez dudan nire alabatxoarengan, jakingo baitzuen askatsunen aldeko borrokalaria zela eta ez traidore falangista hiltzaileen laguna.

Hamabosgarren Brigada Toreko paisaia basati eta bakartitik Vall Ferrerako porroterantz sartzen zen ordu exaktoan, Oriol Fontelles Grauk erabaki bat hartu zuen. Bi orduko itxaronaldia baldin bazen, pentsatu zuen, egitekotan egin larriena, ganbaratik jaitsi eta ateratzeko abrigatu zen. Ordu eta erdi besterik ez, gehienez ordu bat eta hiru laurden jota-bost irratiko hitzordura itzultzeko. Heroi koldarrak ere inprudenteak izan daitezke. Andorratik Port Negreren barrena sartu zirenetako hogeita bi gizon, oinak Toreko Noguerako uretan sartuta, Hamabosgarren Brigadako abanzada bezala, ez zekiten Alinsen ondoan, jadanik bailara irekian, arima ahotik botako zutela etenik gabe Historia destatzen zuten zazpi metrailadoreen erruz.

Gela erdi ilunean sartu zen Oriol. Oso azkar iluntzen ari zuen kanpoan, seguru aski Esterri harrapatzeko ideiarekin, Salauko mendatea gainditu zuten bostehun eta hogeita sei gizonetatik ehunen baten urrats presatuak ezkutatzeko, Marcó tenienteak dozenaka aldiz gainditu zuen mendate berbera eta Oriolek, soilik, eskolara sartuz beren arriskuen bidean igo edo jaisten ziren gidek egiten zituzten deskripzioen bidez ezagutzen zuena. Ez zuen lanpara piztu. Ezabatu gabeko arbelean adin ertainekoei etxekolan gisara ipinitako seiko taulako operazioak zeuden. Baina ez zuen ezabatu. Goiko aldean, eskuineko txokoan, goizean, hotzagatik eta Lore Ederrarekiko enkontruagatik eskua dar-dar, mila bederatziehun eta berrogeita lauko urria ipini zuen. Bere bizitzan idazten zuen azken data zen baina ez zion kasurik egin. Arbela mugiarazi zuen, zeinak, ustekabeko eran, hormatik aldentzen zuen mugimendua egin zezakeen. Pirataren altxorraren txokoan, horma-hobi bat. Oriolek puru-kutxa hartu, ingurura begiratu eta azken egunetan zebilen sokatxo beltz bat antzeman ahal izan zuen. Adorea izan zuen azken koadernoa ireki eta bere alabari duela gutxi idatzi berri zizkion azken hitzak begiratzeko, non azaltzen zion kafe ttanttadun baten erruz hilko zela eta Rosari esaten zion, Rosa maitea, ez iezadazu arrangurarik gorde. Koadernoari musu eman, puru-kutxan besteekin batera sartu, sokatxo beltzarekin lotu eta apal sekretuan utzi zuen. Eskutitzaren ondoan zapi-multzo bat zegoen. Hartu eta zapiak kendu zituen. Bederatzi milimetroko Astra bat zen, kargadorea beteta eta itxura olioztatu eta optimista zeukana. Poltsikoan sartu, puru-kutxari konplizitatezko kolpetxo batzuk jo, altxorraren zuloa gorde eta pentsatu zuen, kitto, hemen gaude, ordu eta erdi.

A R^n espazio euklidiarreko azpimultzoa baldin bada, An definitutako funtzioak n bariable errealak deitzen dira, eta A plano konplexuan sartuta baldin badago, bariable konplexuko funtzioaz hitz egiten da. Analisi funtzionalean, espazio topologiko orokorren espazio bektorial topologikoen, espazio metrikoen, eta abarren funtzioak interesatzen dira.

—Anderea.

Mosen Augustek burua altxatu eta betaurrekoak kendu zituen. Ilobarengana begiratu zuen. Erlojuaren tik-tak mantsoa; Elisendaren erretratua, berebizikoa, eskuineko horman, Torenako gau izoztuko isiltasuna beiretatik harago. Geldi geratu ziren, izoztuta gelditu balira bezala, gela noblean, halako gau hartan bezainbste erretzen zuen su baxuaren ondoan, non, hogei urte

geroago, Marcel eta Lisa Monells biluztera jolasten ziren August Vilabrúk bere oin doatsuak pausatzen zituen alfonbra berean, burua (f+g) (x)=f(x)+g(x), (f-g)(x) = f(x)-g(x), (ƛ f)(x) = ƛ f(x) horretan pentsatzen, begiak iloba eta Bibianarengan, eta bihotza antzemanez isiltasun handiegia zegoela bi emakumeen artean.

—Esan, Bibiana.

Elisenda altxatu eta azalpenak eman gabe atera zen. Ahots batzuk, atea ixten da eta Oriol Fontelles, abrigoa eskuan, gelan sartzean Bibiana eta Elisendaren erretizentziak ulertuz. Kalonje lodi hura bisitan zegoen Gravat etxean. Hurbildu, bihotzez agurtu, Elisendak August osabari informatu zion jaun hura Torenako maisua eta bere erretratuaren autorea zela. Mosen Augustek bozkarioz zoriondu zuen eta, edukazioz, galdetu zuen ea zerbait egin zezakeen haren alde.

Ez, ezer ez. Ni Elisendari musu ematera etorri bainaiz, maitasuna egin eta betiko agur esateko gogoari eustera, probableena beste behin inoiz elkar ez ikustea baita.

—Ez, ezer ez... –Elisendarantz itzuli zen–... utzi nizkinan liburuen bila nentorrean. Utzi nizkizunak.

Segundo batez zuri geratu zen Elisenda, orduan bere maiteari irribarre egin, besaulkia seinalatu eta esan zuen, eseri, eseri, Fontelles jauna, abrigoa hartu eta gelatik irten zen.

Fontelles jauna eseri egin zen, kalonje lodiari esan zion, mendebal errea bufaka ibili da egun santu osoan, eta mosen Augustek erantzun zuen, noski baietz, buruko min itzela daukat eta gustura joango nintzateke ohera.

Mosen August isildu egin zen eta Oriol ere bai. Apaizak betaurrekoak jantzi eta distraituki konprobatu zuen funtzio errealen multzoa eraztun konmutatibo unitatedunaren egitura daukala eta Oriolek erretratuari begiratu eta pentsatu zuen, ikustera etorri natzaizu ez nagoelako seguru biharko egunera bizirik iritsiko ote naizen. Azaltzen oso luzea da zure maitalea naizelako denon ezkutuan, eta gauza gehiago ere banaizelako mundu guztiaren eta zure ezkutuan. Nekatuta nago, bizitza sekretutan zatikatuta edukitzeagatik abailduta, eta heriotzaren atsedena gabesten dut.

—Zeintzuk liburu utzi dizkiozu? –Mosen Augustek, kuriositatez, berea itxi zuen, hain gazte atseginarekin unetxo lasai bat pasatzeko prest.

—Ezer ez, batzuk... utzi nizkion batzuk... Irakurle ona da, anderea. Eta hemen hain gutxi balioeztatzen denez kultura...

—Larrekoak –mosen August, hausnarrean—. Ezin zaie gehiago eskatu. Behiak, mandioko belarra, ardiak, gari-laurden batzuk jateko, mendi-puntara joaten utzitako ahuntzak, zaldia arazorik gabe haz dadila... eta hemen amaitzen zaie anbizioa.

Tik-tak. Oriolen zirkunstantziazko irribarrea. Isiltasun hotza kanpoan eta krak egiten eta txinpartak jaurtitzen zituen egurra garretan. Elisenda itzuli ez eta berak erantzuteko gogoa zeukalarik, beraz zure familiak eskerrik asko, baditu munduan zehar barreiatuta behi, ardi, eta mandioko belar-jornal asko.

—Badakit pentsatuko duzula Gravat etxea ere hortik bizi dela –esan zuen kalonje bidenteak–. Baina mila ardi eta ez bi dozena edukitzeak irekiago egiten zaitu. Ez duzu uste, gazte?

Orduan berragertu zen Elisenda mahai gainean utzi zituen bi liburuekin baina osaba kuriosoak esan zuen, eman, eman, ea zer utzi dizun maisu jaunak, eta Elisendak, gogorik gabe, bi liburu ttiki eta azal ilundutakoak pasatu zizkion. Ostera ipini zituen betaurrekoak mosen Augustek, eta sudur-puntaraino irristatu zitzaizkion, lehen liburua ireki eta isildu egin zen. Arin samar errepasatu zuen, betaurrekoen gainetik maisurantz begiratu eta bestea aztertu zuen, hura ere isilik eta miresmen-puntu batekin.

—Kontxo –esan zuen komentario bakartzat, mahaian uzten zituelarik. Elisendak, irribarre harroarekin, Orioli pasa zizkion, mosen Augustek, begirada intentsoz, betaurrekoak eskuan, maisua behatzen zuelarik.

Ostera mendebal erreari buruz eta ardi-kopuruari buruz mintzatu ziren. Mosen Augustek ere azaldu zuen biharamunean edo asko jota hurrengo egunean Seura itzuli behar zuela, gotzain jauna zain zeukala eta otoitzean ari zela Cantóko mendatea itxi gabe egon zedin. Oriolek, isilik ez egotearren, komentatu zuen zurrumurru hura zeinaren arabera agian hurrengo ikasturtean beste maisuren bat ekarriko zuten Torenara, gero eta ume gehiago zeudelako. Elisendak ere, hilda egongo zelako jadanik maisuarekin zerikusirik izango ez zuen gauza batez informatu zion Orioli, hots, nere senarra datorren astean egun batzuk pasatzera igoko da, alegia. Osabaren morala ukitzeko esan zuen, zeinak baziren egunak insistitzen ziola emaztearen tokia senarraren ondoan dela, eta hark erantzuten zion Santiagoren alboan beste emakume batzuk zeudela beti, asko, eta mosen Augustek zioen, Ama Birgina, eta aitaren egiten zuen eta Elisendak, gogor, arazoa ixten zuen esanaz, nire tokia, betiko, Gravat etxea da, eta ez dut ezer gehiago entzun nahi horretaz.

—Pozik ezagutuko dut –esan zuen. Orduan begietara so egin zion Elisendari. Andereak intetsitate eta inprezisio berberaz erantzun zion soari, eta Oriol altxatu egin zen, ez baitzuen zentzurik frustratutako bisita luzatzeak, osaba agurtu eta gelatik irten zen.

—Liburuak.

Betaurrekoekin liburuetarantz seinalatzen zuen kalonjeak. Liburuak. Elisendak hartu eta Orioli pasa zizkion, zioen bitartean, liburuen bila etorri da eta hutsik doa. Kalonjea altxatu zenez eta sarreraino iristeko intentzioa zeukala zirudienez, bosteko adeitsu batekin eta badakizu, gehiago nahi dituzun bakoitzean... indeterminatu batekin betiko agurtu zen Oriol bere maitearengandik… eta gero, ondo pasa, anderea, gabon. Bere atzean atea isten zelarik, Gravat etxeko sarreraren argitan aztertu zituen liburuak. Tomas Kenpisi esleitutako *Kristoren imitazioa* eta aita jesuita Alonso Rodriguezen biografia kanonikoa, L. Jacobi jesuitak idatzita.

Azkenean Mosen August bere gelan itxi zenean, Elisenda altxatu, su baxuko gar babesgarriei begiratu eta bere abrigoaren bila abiatu zen. Ez zen Bibiana abisatzen molestatu ez zekion bururatu bertan geldiaraztea edo prudentzia aholkatzea; Bibianak bazekien historia hura ezin zela ona izan neskatxarentzat eta baziren egunak begiradarekin huraxe esaten saiatzen zela.

Egun batean ama atera zen kalezulo bereko atetik atera zen Elisenda. Izotzezko hotzaren masailekoak agurtu zuen. Hamar egun baino ez ziren Torenan elurra hasia zela eta tenperaturak, aurreko egunean, jaitsiera espektakularra izan zuen, negurantz zihoala argi uzteko. Zeru estalia eta ilargi berria, elurraren zuriak itxura kadaberikoa ematen zien kale bakarti eta Elisendaren aurpegiari. Eskolaren eraikin bakartira iritsita, ulu urrun bat-edo entzun zuen, ostera otsoak Tossaletik edo Bony d'Arqueretik gailen ibili balira bezala.

Kolpetxo batzuk jo zituen gelako beiran eta iruditu zitzaion Torenako zoko guztietatik entzuten zirela. Ostera antzeman zituen ulu urrunak. Inork ez zuen erantzun. Inork ez. Zer ari ote da egiten Oriol, pentsatu zuen. Begirada hark zer esan nahi zuen galdetu nahi zion, zer gertatzen zen, zeren beldur zinen, zer esan nahi zenidan osabaren erruz esaterik ez zeneukana. Ostera jo zituen kolpetxoak beiretan eta orduan bururatu zitzaion aurpegia leihoan itsastea eraikinaren barrua arakatzeko. Deus ez. Oriol, zer zen begirada hura. Orduan hasi nintzen zoriontsu ez izaten betiko. Eta Elisenda Vilabrúk, ohorezko bankuan jesarrita eta burua pixka bat makurtuta, entzun ere ez zuen egin nola Gasullek esaten zion, orain Aita Santua badoa; tira, hemendik ateratzen dute ibiltzeko ere gauza ez delako, eta suposatzen dut orain esango digutela dena bukatu dela; pozik egon zaitezke, oro har oso zeremonia hunkigarria izan baita. Ez da? Eli? Entzuten al didazu? Ondo al zaude?

Elisenda anderea ez zegoen ez ongi ez gaizki; hirurogei urte lehenago zegoen, gau hotz hartan, eskolako beirak insistentziaz jotzen, zoriontsu izateari uzteko puntuan zegoela jakin barik, ordu txarrean entzun bainituen ostera ulu haiek, eta orain iruditzen zait barrutik zetozela eta kezkatu egin nintzen eta atea ireki eta ez nintzen harritu berez ireki zelako, eta korridorearen ilunpera sartu nintzen eta esan nuen, Oriol, Oriol. Hobeto entzuten ziren uluak baina berdin urrunak ziren. Ezkerreko atetik zetozen eta orduan kendu nituen aurikularrak atsedana hartzeko eta konturatu nintzen ganbarako atea isilik irekitzen zela eta pentsatu nuen, ergel hori, ez duzu atea ongi trabatu eta orain Targaren pistolaren kanoi beltza ikusiko duzu. Bururatu zitzaion pentsatzea ere hori ezin izango niola izena ezagutzen ez dudan nire alabatxo maiteari azaldu. Atea irekita. Ez zen Targa; Elisenda zen, ganbara kirastu eta itzalak erdi uxatzen zituen petroleozko lanparak gaizki argiztatuta. Torenako maisu baketsuak pistola batekin destatzen zuen etorri berria. Une hartan, irratiak, akusatzaile, ulu moduko bat askatu zuen eta aurikularraren bidez bi-biek entzun zuten Hirugarren Brigadaren irratitelegrafistaren ahotsa, esanaz, prest koneksiorako, jota-bost.

—Zer da hau? –zeharo beldurtuta.

Orduan ikusi nuen engainu handia, katre-moduko batzuk, manta hautseztuak, benzolezko sukaldetxo bat, hitz egin zein otso-ulu urrunak sortu eta insistitzen zuen irrati-aparailua, jota-bost erantzun, eta nire maite miserablea eskuak komunismo gorri eta anarkismoz zikinduta ni destatzen eta izututa, eta uste dut lotsatuta, begira, nahiz eta soilik asmatu zuen esaten, nola sartu zara?

Zuzendu zizkidan azken hitzak izan ziren. Nola sartu zara, zeinek eman dizu baimena nire bizitzan eta nire traizioetan sartzeko. Horregatik, izututa eta sumindurik, jaurti nion, eguzkia eta izarrak mugitzen dituen maitasunarekin, hark, haren begiek, haren eskuek bildu ninduten hitz polit ugariren irain balira bezala, Jainkoarren. Zergatik ez duzu tiro egiten, e? Oriol konturatu zen oraindik destatzen ari zela. Arma jaitsi eta irratiaren mahai gainean utzi zuen. Hain harrituta zegoen Elisenda, soilik bururatu zitzaion, nik maite zaitut ordea, zergatik egiten didazu hau, Oriol. Eta orduan Oriol jesarrita zegoen eskainu moduko hartatik jaitsi eta ni desagertu egin nintzen, gogaituta, umiliatuta, nahastuta eta negar isilez utzi nuen eskola etxera bidean, nondik ez nuen inoiz atera behar izan begirada mutu baten larritasunari buruz galderak egitera.

Saminezko gaua izan zen, intimitatea errezelorik gabe fiatu zion gizon baten engainuak sakonki zaurituta. Nire etxean sartu, modelo bezala posatu eta eromenez maitatzen utziz nire aitaren eta nebaren oroitzapena traizionatu zuen gizon baten gaiztotasunak bihotza apurtuta sentitzeko gaua izan zen. Elisenda Vilabrúk, bere bizitza luzean, sekula ez zuen biziko

gurutzebideko gau hartan bizi nuen besteko zalantza-eraso sakona eta birrintzailea. Zein atsekabe ezinezkoa.

64

Asteburu bat hondartzara joan ohi zen bakoitzean, Marcel Vilabrú jauna Pau Claris kaleko garagetik lau-bider-laua hartu eta autopistan barrena abiatzen zen pilotu automatikoarekin, Carminarekin arazoak errepasatzen, esku-librekoa erabiliz. Baina sekula ez zitzaion, atea irekitzerakoan, emakumezko bat alboko eserlekuan eseri. Sartzen ikustean, gauza askotan pentsatu zuen. Denetan lehena ETAn eta GRAPOn, baina berehala baztertu zuen, ordurako auto baten maleteroan egongo baitzen, kaputxatuta eta astinduak kontatzen brindis garaian azaldu eta erreskatearen ordainketa deitoratzeko, polizia-etxean. Baina batik bat sentitu zuena haserre profesionala izan zen, diru-zaku bat ordaintzen baitzuen hilero segurtasun pertsonala zaintzeko eta emakume bat sartu zitzaion lasai asko autoan arazorik gabe. Eta bi eskoltak bere bila ibiliko ziren bulegoan, garrantzi handiagoa adierazi eta hileko fakturan bostehun euro gehiago sartzeko gorrentzako aparailu haiek erabiliz. Gauza horiek denak pentsatu zituen, Barçari lehen taldeko ekipamendu osoaren esklusibaren zesioa, barrabil santuetako Naiqui gezurteroa popatik hartzera bidali ahal izango zuten tratuarekin, behin betiko planteatzeko modua hausnartuz iritsi zen arren autora.

—Zer egiten duzu zuk hemen?

Emakume bete samarra zen, begi bizi eta atseginekoa. Txortaldi ederrekoa, seguru. Eta jende egoskorraren jarrera indefiniblearekin, fatalista eta umilaren artekoa bera.

—Gauza bat azaldu behar dizut.

—Jaitsi bat-batean nire autotik ala segurtasunekoei deituko diet.

—Zure segurtasunekoak erripa jaisten egongo dira: antza denez, galdu zaituzte.

—Eta zuk nola dakizu...

—Bost ordu Brusportseko harrera-gelan itxaroten asko ilustratzen du.

Despeditu bat. Langile baten emazte despeditu bat. Barrabiletako lotura sindikal bat. Asma eragiten zuten goma madarikatu haiengatik erreklamatu nahi duen garai bateko enplegatu bat.

—Nirekin hitz egin nahi bazenuen, harrera-tokian ordua eskatzea zeneukan.

—Ezinezkoa da. Oso iragazki onak dauzkazu, Vilabrú jauna.

—Zer nahi duzu? –Inpazientzia- eta autoritate-jarrera, tonu eta keinua.

Bi segurata gorrak lau-bider-lauaren alboan zeuden ordurako, kezka-aurpegiarekin. Haietako batek makurtu eta leihotik begiratu zuen.

—Esan ziguten ezen... –Aire galdetzaile eta profesionalarekin so egin zion emakume ezezagunari. Vilabrú jaunari–: Dena ondo?

Marcel Vilabrú i Vilabrú jauna molestatzen zuen gauza zen bi gorilek pentsatu eta hedatzea berak emakume ezezagun obstinatu eta mugatu hura bezalakoekin ligatzen zuela. Orduan, anemikoki, Rimskijren Paskua Errusiar handiaren Oberturaren gaia jotzen hasi zen, eta

emakume baten aurrean zegoenean Rimskijren Paskua Errusiar handiaren Obertura jotzen zuen bakoitzean jartzen zuen etsipen-aurpegia jarri zuen, eta esan zuen, esan Carmina.

—Baietz dio Ikeak.

—Eta Bedognik? –bat-batean, erne.

—Stokolmera hegan.

—Anulatu Antibeserako erreserba. Gaur iluntzean egon nahi dut Stokolmen.

—Gogoratzen dizut astelehenean Vatikanon egon behar duzula.

—Badakit. Behar izatekotan, zuzenean joango naiz. A, eta desenkusak Natalieri. –Behatu zuen nola eskoltak baztertzen ziren elkarrizketa ez entzuteko. Garai bateko enplegatu erreibindikatiboak kopilotuaren esertokian eserita eta geldi jarraitzen zuen–.

Deituko diodala. Lore-sorta ederra bidali diezaiotela... Ez dakit, zuk-zeuk. Nola deitzen dira... Daliak. Oso gustukoak ditu. Daliak egon daitezela.

Carmina hari agur esan gabe deskonexio-botoia sakatu eta hasperen egin zuen. Hurbilen zeukan eskoltari:

—Aireportura noa.

Ezezagunari begiratu gabe esan zion, anderea, oso lanpetuta nago. Mesedez, irtengo al zara autotik? Emakumeak, erantzun gisara, kartazal handia, erlatiboki lodia, pasa zion. Marcelek hartu egin zuen, kuriositatez eta beldurrez. Txantaia. Txantaia bat segurtasunekoen muturretan. Zein andererekin harrapatu zuten eta nola?

—Zu jaiotakoan, orain berrogeita hamar urte, zure aitak bidali zizun eskutitz baten kopia bat da. Orijinala nik daukat. –Kopilotuaren atea ireki zuen–: Barruan nire txartel bat dago. Telefonoak eta hori guztia.

—Broma bat al da?

—Mesedez, irakurri eskutitza eta sinistu ezazu bertan dioena. Hitz egingo dugu gero, onartzen badidazu.

Marcel Vilabrúk, kuriositatez, kartazala desegin zuen. Barruan, orri batzuk ordenagailuz idatzita: “Izena ezagutzen ez dudan alabatxoa”, irakurri zuen trabeska, orriak kartazaletik atera gabe. Eta emakumeari so egin zion:

—Uste dut erratuta zaudela. Nire aitak ez zuen alabarik izan.

—Ez: zure aita da idazten dizuna, alabatxo deitzen zaituen arren. Ulertuko duzu, suposatzen dut...

Autotik irten zen. Oraindik atea irekita, esan zuen, dei iezadazu irakurrita daukazunean.

Oso azkarra izan zen Kopenhagerako bidaia. Ez zuen jan ez eta xanpain-kopa bat edo antzeko zerbait hartzeko posibilitateari jaramonik egin. Materiala eta Ikeako dokumentazioa errepasatu ordez –azken finean buruz ezagutzen zuen– bi aldiz irakurri zuen Fontelles maisu ospetsuaren eskutitza bere alabari, zeina, emakume ezezagun eta erdi flipatu baten iritziz, bera baitzen. Kopenhageko aireportuaren VIP gelan aurrean jarri zizkioten kakahuete batzuk

distraituki dastatu eta eskutitz bitxi haren orri ugariak irakurri zituen, oraingoan diagonalean. Emakume haren txartela berraztertu zuen: izena, helbide elektronikoa eta telefonoa. Eta Sorteko helbide bat.

Bat-batean suspertu egin zen, folio-multzoa hartu eta paper-birrintzailera abiatu zen. Banaka-banaka pasarazi zituen, Oriolen oroitzapenak saminez ahuendaraziz; azken orduan gorde egin zuen emakume haren helbidea. Marcel Vilabrú, izena ezagutzen ez dudan nire alabatxoa, Saverio Bedogni eta Ikeako dokumentazioa gordetzen zuen kartera determinazioz eta indarrez hartu eta VIP gelatik atera zen ahots ezti eta maitemintzaile batek Stokolmerako hegazkina anuntziatzen zuen une berean.

Roma, are gehiago Stokolmetik etorrita, kaosa zen, zarata, desordena, zirkulazio arriskutsu eta imajinatiboa, oihuak eta zazpi muinoetako hamar mila elizak. Amatxok hotel ezberdinetan kokatzeko trebetasuna izan zuen eta, beraz, Marcel Vilabrúk Elisenda anderea instalatu zen hotelera deitu behar izan zuen eta anuntziatu zuen amaren suitean agertuko zela afaldu aurretik. Antza denez mahai bat erreserbatu zuen hotel berean, signore Vilabrú, eta bakarrik ala Gasullekin afaltzea pentsatzen zuen, bakarrik afaltzeko beste modu bat baitzen. Amaren hotelera, Vatikanoren albora, trasladatu zen taxi suizida batean. Iluntzen hasia zenez jada argiztatuta zegoen Cupolonea.

Elisenda andereak, suiteko besaulkian jesarrita, geldi, oroitzapenak astinduz, eskuak gona gainean bilduta, tarte luze baten buruan esan zuen, Romà, egidazu paper hauek berehala irakurtzeko mesedea.

—Amatxo, desegin egin ditudala.

—Idiota.

—Ez. Horrela soilik nire ahotik jakin ahal duzu. –Gasulli–: Utziko al gaituzu bakarrik momentu batean?

—Romà, ez joan.

Gasullek, beti bezala bi fideltasunen artean harrapatuta, erdi altxatuta, piztia baztertu batek bezala so egin zion Marceli. Jada ez zeukan adinik horretarako. Marcelek keinu egin zuen, zuk-zerorrek, edo antzeko zerbait, eta Gasull ostera jesarri zen, ez alibiozko baizik minezko hasperen batekin, izan ere eskuineko belaunaren artritisaz aparte bazekien orain zaparrada zetorrela.

—Hau guztiaren arabera, zure Oriol Fontelles santua maki komunista bat zen eta gutxi kostatzen da zure maitalea zela imajinatzen.

—Asmakizunak dira. Kalte egiteko gogoa.

—Ez dut asko ulertzen... –jarraitu zuen Marcelek komentarioari kasu egin gabe–... baina Fontelles ez bada ofizalki dena, ezin da bihar beatifikatu, ez da?

Bi segundo beste taktika bat pentsatzeko, desesperatua, lubakitakoa:

—Martiri hil zen gizon baten bizitzari buruzko xehetasunak eskatzen dituzu eta ez duzu jakin nahi benetan zure aita izan zen ala ez.

—Niri, bost.

—Zer? –zaurituta, eskandalizatuta.

—Hori. Bost axola, amatxo. –Tonu indartsuagoan hark erantzun ahal izan baino lehen–: Eskandalu bat egiteko prest nago. Duela hamabi urte doi zuk egin zenidanaren oroitzapenez.

—Mesedez, Marcel, eduki...

—Zuk ez zenuke hemen egon behar –esan zionn lehor Gasulli– beraz, isil zaitez. –Elisendari–: Bihar ez dute zure santua beatifikatuko.

—Oso ongi. Zer nahi duzu trukean?

—Dena.

Isiltasuna. Romà Gasull infarto-puntuan zegoen eta Elisenda andereak, bere bizitzan bigarren adiz, pentsatu zuen, Oriol, ze gaizki egin dudan, zure semeak atsekabez hil nahi bainau zuk hil ninduzun bezala, pistola izutuarekin eta zure sekretu guztiak agerian, destazen ninduzunean bezala. Eta hori, zure begiak edukita eta sudurraren kurba berbera. Ala soilik nire desgrazia hazteko jaio den arraza madarikatua zarete? Begiak ireki zituen, harrituta, ikusiko balu bezala:

—Zer esan nahi du, denak?

—Badakizu. Dena. Zu erretira zaitezke Torenara san Fontellesi agurmariak errezatzera.

Itsua ez balitz, urte batzuk gutxiago izan balitu, Romà ez balitz bertan egon, belarrondokoa emango ziokeen semeari.

—Akabatu egin nahi nauzu, ez da?

—Ez, amatxo, Jainkoarren! Gertatzen den bakarra da berrogeita hamazazpi urte ditudala eta nirea denean agindu nahi dut ezertarako baimena eskatu behar izan gabe. Ezertarako ere ez! Hara zein erraza den.

—Oso ongi. Beatifikazioaren ondoren errenuntzia-eskritura bat sinatuko dut. –Burua makurtuz, Gasulli–: Eduki prest biharko.

—Akats bat da, Elisenda.

Ama-semeak esan zuten, zu isildu eta ez sartu ados egon ziren gauza bakarrean. Eta adostu zuten baita ere ezen, behar izango zen konpentsazioarekin, Mertxek hegazkin bat Bartzelonatik hartu eta Vatikanora, soineko luze eta ilunarekin, hegan etortzea. Estriktoki zeremoniarako, Mertxe, benetan. Gasullen argumentuaren aurrean, Mertxe Vilabrú-Centelles-Anglesola i Erill ohiak, esan zuen, ados, soilik zeremoniarako, eta argumentua ingresatu behar zen kontu korrentearen zenbakia seinalatu zion familiako abokatuari.

—Zer gertatuko da Ikearekin? –esan zuen Elisenda andereak, dena bukatu zenean.

—Amatxo, erretiratu berria zarela.

—Bihar beatifikazioa amaitu arte, ez.

Marcelek burua astindu zuen, amatxoren izaera hark mirestuta, eta azaldu zion ezen Bedognik eta Brusportsek bost sozietate filialen ehuneko berrogeita bosta erosten zutela, enbor nagusia kooperatiba baitzen.

—Pena merezi al du?

—Epe labur, ertain, eta luzera. Operazio handia. –Umore-puntu batekin, zure izena ez dakidan alabatxoak, errematatu zuen: Operazio Handia.

—Benetan ez duzu jakin nahi Oriol zure aita ote zen?

—Ez. Agur, bihar arte.

—Agur, seme. Jainkoak madarika zaitzala.

Begiak, lo ez egiteagatik igurtzikatuta, alkatearen bulegoko atea leunki itxi eta aurreko aulkian eseri zen. Tabako hotzaren eta alkohol poxi baten arrastoaren hatsa zeukan gelak. Mahai gainean hatzekin kolpatu, begirada pentsamenduari oso urrun lagun eginez, eta pazientziaz itxarotea erabaki zuen, hautua eginda baitzegoen.

Valentí Targak ez zituen bost minutu baino gehiago behar izan azaltzeko, pentsatuz Lore Ederra Torenara iritsi denetik intratable dagoela, emakumeak, emakumeak, zein arraiok eskatu dit etxean sartzea arazoak ekarriko dizkidatela baldin badakit. Alkateak presazko abrigoa zeraman, bizarra egin gabe zihoan, eta “zer arraio nahi duzu orain” erako aurpegia.

—Maisua.

Valentí Targa, abrigoa kendu gabe, bere aulkian eseri zen. Oso nabarmen zeukan ohetik atera izana.

—Zer gertaten zaio kamarada Fontellesi?

—Joan zaitez eskolako goiko aldea ikuskatzera eta ikusiko duzu zer gertatzen zaion. –Elisenda Vilabrúk bulegoko aire zaharkitua hartu zuen, aulkia aurreratu eta besoak mahaian bermatu zituen. Bere hitzak gorrotoz eta atsekabez blai zeuden.

—Denak engainatu gaitu eta hori ezin dut inorengandik jasan.

—Zertaz ari zara?

—Hil ezazu.

—Baina... Baina zu eta hura...

—Hil ezazu.

Euromedek martxa moteltzen zuen gutxika-gutxika, pasaiariei Mediterraneoko paisaia itsutzailea kontenplatzeko azken aukera eman nahiko balie bezala. Gelditu zenean hasperen-moduko bat egin eta ateetako batzuk ireki ziren. Tina jaitsi eta trenaren barruan aurreztutako bero-kolpea jaso zuen. Eta hori martxoan egonda.

Jubilatu-taldea, ziurtatu zioten bezala, Peñiscolako gaztelua bisitatzetik ateratzen ari zen puntualki, batzuk postalak eskuan zituztela, beste batzuk makina zorroratuz, denak ordubietarako agindu zieten *a banda* erako arrozaren zain. Atzeratuenen artean Balansó ikusi zuen, gazteluko hainbat bisiten postal-akordeoi batekin. Partsimoniaz zebilen eta bigote fina, orain zurizta, eta gizon hark laurogei urte baino gehiago zeuzkan ezinezkoa zela pentsarazten zuen begirada bizia mantentzen zuen. Esan zionean Tina Bro zeritzala, Pallarsko eliza eta kanposantuei buruzko erreportaje bat egiten ari zela, eta konbentziturik zegoela lagundu ahal ziola, konturatu zen gizona goardian jartzen zela, postal-akordeoia itxi, prekauzio beharrezkoa balitz bezala, eta esaten zuela, oker zabiltza, andereño.

—Andreu Balansó, Poblako semea, Valentí Targa alkatearen laguntzailea. Sekula epaitu ez diren bost hilketetan inplikatuta zaude. Oker al nabil?

Listua irentsi zuen. Hauxe zen momentua: ala pikutara bidaltzen zuen ala Balansók egiten hasi zena egiten zuen, beldurtu alegia, hura toki insegurua zela kontsideratu eta andereño ezezagunari bazkal ondoren, kafea hartuz, elkar zitezkeela, eskaini. Baina andereñoa ez zen marroan jausi eta esan zion, bazkaldu ondoren autobusera igotzen direla. Aparte bazkaltzera gonbidatzen zaitut.

Besotik oratu zuen, agure maitatu bati lagunduz bezala.

—Faltan hartuko gaituzte.

—Egin dezatela negar. Ez dizut autobusa galtzen utziko.

A banda erako arrozaren ordez, arroz berduraduna hartu zuten jatetxe bakarti batean, gazteluaren eraginetik urrun. Sekula egin ez zuen bezala esan zuen gezur Tinak, ziurtatuz, bizirik jarraitzen zuen kolega batek dena azaldu ziola eta haren izena eman ziola eta jadanik ez zegoela ezertaz beldurtzerik mende-aldaketarekin era politikoko ekintza kriminal guztiak preskribatuta zeudelako, eta ilustratu zuen sormen literarioz, plastikoz, eta musikalei buruzko laguntzak azaltzen zituen egutegi ofizialaren orria erakutsiz.

—Ez dizut ezer azaldu beharrik.

—Bai, zeren, bestela, kakaz beteko baitzaitut, Balansó jauna –Irribarre egin zuen elkarrizketa hartarako onegia zen arroz-goilarakada bat irensten zuen bitartean–. Leporaino kakaz.

—Ez al duzu esan dena preskribatuta dagoela?

—Bai, baina nik kakaz beteko zaitut. Kazetaria naiz –zer zioen ondoegi jakin gabe–: Badakizu nola doazen gauza hauek: zure argazki bat, programa bat telebistan, buila ateratzeko gogoa daukan aurkezle bat...

—Nik aginduak jaso nituen eta egindako guztia beharrezkoa izan zen.

—Ez daukat zalantzarik. Nola hil zen Oriol Fontelles?

—Nor?

—Torenako maisua.

Baziren bost minutu anderea joanda zegoela baina han geratu zen haren lurrina. Bitartean Targa ez zen aulkitik mugitu, pentsatuz, horrek esan nahi du txortaldi txarra izan duela; pentsatuz, ongi, nik ere bijilarazi nuen, pentsatuz, zure amaren semea, azken finean benetako traidorea bazara, txiki-txiki egingo zaitut, horrek arazoak badakartzat ere. Buru desorraztua altxatu eta esan zuen, zer?

Telegrama bat. Soldadu ezezagun batek telegrama bat ekarri ziola pertsonalki. Kapitaintza Orokorretik. Sekretua. Gonbidatu Marés etxera, esan zuen. Telegrama atzamar gosetuekin ireki zuen, opari, laudorio, laztan baten zain, maite zaitut bat, ostia, gutxienez bat, edozeinengandik.

CONFIDENCIAL STOP

REFERENTE INDAGACIONES INDIVIDUO OSSIAN RASTRO UNICO REMONTA SIGLO SEXTO ESCOCIA STOP POETA STOP NO PELIGRO INMEDIATO STOP.

ABRAZOS STOP VIVA FRANCO STOP VENANCIO STOP

No peligro inmediato. Balansó, Arcadio, egin zuen oihu. Eta bi gizonei eskolara joan eta dena arakatzea agindu zien, dena, ganbara ere bai, ez ibai-adarrik ez adjektiborik utzi arakatu gabe, eta esateko zer. Baina gizonak agindua betetzera joan baino lehen, telefonoa kea zeriola hasi zen, Torena, hemen Sort, Torena, neskato, entzuten al didazu. Esan, Sort, laztana. Alkateari esateko ehunka maki mendietatik, Esterri, Valencia, Isil, Alins, Escaló eta diotenez Baiasca ere bai, batik bat. Jainkoaren Ama Guztiz Santua. Ziur al zaude? Sort? Entzuten al didazu, erregina. Seguru al zauden, diot. Sort? Orain, Torena, lineak daude, ui, hemen mundu guztia urduri. Esaten didate alkateari esateko vivaespaña. Beraz hemendik dena lasai dago. Itxoin momentu bat. Sort. Esan, Esterri, guapa, esan. Ez. Benetan? Sufriarazi egiten didazu, Esterri. Sort, Esterrik dio hura soldadu komunistaz beteta dagoela. Eta hemen ere bai. Ama Guztiz Santua. Eta zu, Torena? Hemen dena lasai dago. Eseki beharra daukat, Torena. Agur, Sort, Agur, Torena, erregina.

—Bai, alkate jauna, hau esan didate. Eta vivaespaña.

—Mekaguendioro, baldin badatoz, hozkaka hartuko ditugu, vivaspaña, Cinteta. Eta zu, telefonora itsatsita.

—Bai, alkate jauna.

Balansó eta Gómez Pié. Eta bekain lodikoa, gogoratzen ez naizena nola duen izena, eta beste hiru gizon isil gehiago. Eskolak itxaron dezake. Denak txosten telefonikoarekin; denak

Falangeko uniformearekin eta pistola zorroan, denak inpazienteki itxaroten bandoleroren batek Torenan sartzea erabaki zezan.

—Beraz, badakizue. Etxera noa une batez, bizarra egitera. Bakoitza, aurreikusitako tokian, eta ongi abrigatuta.

—Nondik etorriko dira?

—Behar bada Espoteko bidetik. Kontua itxarotea da.

—Eta goardia zibilari esaten badiogu...

—Benemeritak aski lan badauka behean. Hemen, gu eta gure potroak.

Torenan, komando falangistak Udaletxearen eta itxaroteko tokien artean eman zuen goiza eta Targa, telefonoetako Cintetari lana ematen, Sortera deiak eginarazten, mendiari begira, erretzen eta sudurra ateratzea erabakitzen ausartzen ez zen etsaiaren zain, harik eta patio-orduan eskola aurretik pasatu zen arte gelditu gabe. Haurrak ez ziren jolastera ateratzen hotz zegoelako eta maisua haiei istorioren bat azaltzen zebilen. Ezinezkoa da, pentsatu zuen. Kamarada Fontellesek burua altxatu eta ikusi baino lehen, zigarrokina jaurti eta Marés etxerantz abiatu zen bazkaltzera eta bere Lore Ederrarekin elkartzera, pixka bat zimelduta eta oso arraro baitzegoen.

Joandako gauean eta etorriko zenean pentsatuz eman zuen eguna Oriolek, Cullerés etxeko Carme ttikerraren ortografia-akatsak arkatz gorri baten zirkuluan ixten zituen bitartean, zeina azken egunetan Sorteko jostura-tailerrean matrikulatzeko leloarekin zebilen eta ez zuen ezertan arretarik jartzen. Agian maiteminduta egongo zen. Targaren azken bisitaren zain eman zuen eguna, baina ez zen iristen, menditik harago alde egiteko gogoari eutsiz, zazpietatik aurrera itxaroten baitzuten jota-bostek ostera komunikatzea, eta zioten bere papera funtsezkoa zela bi brigaden arteko kontakturako, Montsenten alde banatan bana. Ahituta zegoen eta beldurragatik ez ezik gauean kontaktu egin zuelako Valencia d'Aner eta Esterrirantz ilunpetan zihoazen bi brigaden artean, talde nagusia Vall d'Aranen kontzentratzen zen bitartean. Eta orain goiz erdian, irratia isilik, loguragatik erdi hilda, ortografia-akats gehiago hesiz inguratzen zituen, orain Jaume Serrallacenak, zeinak gutxi zeuzkan; mutiko hark, nahiz eta gutxi disimulatutako distantzia mantentzen zuen, dena jakiteko premia larriren modukoa zeukan eta maisuak hartan lagundu ahal zion. Azentu bat gehiago ehizatzen zuen bitartean, laurehun eta hamargarren Brigada, hotz eta aire izoztu oso intentsopean, Bordesera iristen zen eta hamaika zenbakidunak porrot egiten zuen Viellako tunelaren iparreko ahoaren okupazio-saioan, ez baikara etorri, ai Jainko hori, elementuen aurka borrokatzera armada frankistaren aurka baizik. Baina bostehun eta hamabosgarrena, Canejandik sartuta, Toraneko bailara okupatu eta Garonaren uharkatik jaisten ari da askatasunaren biderantz.

—Echar echa la hache, Jaumet.

—Egia da.

Eguerdian, alkateak Marés etxeko bezero isil guztiei azaldu zien egoera, eta esan zuen, gerrilari putakumeren bat baldin badator barrabiletatik esekiko dut eta Lore Ederrak itxaron zuen Targa arengak amaitu eta dilista-platerean kontzentratu zedin eta orduan bere beldurrak eta ziurtasunak azaldu zizkion ahots apalez. Eta horregatik nago hain urduri.

—Ziur al zaude?

—Bera ez bada, exaktoa da. Zin dagizut.

Emakumeak. Aker osoa aker zikiratutik bereizten ez dakizue-eta, kagoendios.

—Diozun hori oso larria da.

—Holako zerbait asmatuko nuela uste al duzu, maitea?

Zazpietaraino, gauera arte ez zuen irratia ostera hartu beharrik. Bere egunaren barruan gauerako espaziorik egotekotan. Marcó tenienteak eta bere gizonek, edozein tontorretan edo Gardar de Sorperen sasitza zentenarioan beren buruak hiltzeko arriskuan jarriz, misio bezala zeukaten sei edo zazpi herrigune ezberdin eta mugatik urrundutakoetan eragitea, kaosari lagundu eta armada frankista Bonaiguatik igo zedin ekiditeko. Eta bera, Lliset etxeko Jaumet Serrallacen koadernoak zuzentzen. Bazekien une batean edo bestean, Venturak ez ziola uko egingo Torena bisitatzeari. Horregatik, erokeria bat egin zuen eta, hotza urritu zenez, handiak, txikiak eta ertainak patio-orduan trapuzko pilotari joka okupatuta zeudelarik, ganbarara igo, irratia piztu eta, tenientearen frekuentziatik, Marcóri esan zion, jota-bost, eta argitasun osoz entzun zituen, ez baitziren Sorpe aldetik egongo baizik hurbilago, eta esan zien, otsoa eta bost hienak gaua kobazuloan pasatzen ari dira, denak daude kobazuloan, eta moztu, deskonektatu eta ganbaratik jaitsi eta oraindik Nando eta Albert banandu ahal izan zituen funtsezko gol baten zalantzazko legalitateari buruz liskarretan ari baitziren.

—E, zu, mutiko, etorri, nola duzu izena?

—Jaumet.

—Zein etxetakoa?

—Lliset etxekoa.

—Harrietakoa?

—Bai, juna.

Bibiana, sukaldean, konfitura-poteak ilaratan jartzen, sukaldeko letoiari distira ateratzen, galdetuz, zer gertatzen zaio, honako hau oso larria da, zer gertatzen zaio haren tristura harri bat bezain astuna baita, atsekabez hilko da; ez baitu negarrik egiten: orroka dabil, Jainkoarekin borrokan balego bezala, eta nik ez dakit zer egin behar den halako samin sakona baretzeko. Pentsamenduaren une hartan, Elisendak, gelan, bere erretratuaren aurrean, malko-erreka isil eta garratza isurtzen uzten zuen eta amore emateko zorian zegoen, kalera atera, Oriol besarkatu eta berak xaxatu zizkion etsaiengandik ezkutuan paratzeko. Orduan bere neba irribarretsu eta aita haserretuaren argazkia hartu eta amorru-olatu hura zetorkion,

argi uzten zuena, ni inork ez nau engainatzen. Eta minutu baten buruan malko-erreka ostera, Gargallako zahakina bezain ugari, eta zioen, Oriol, Oriol, nola izan zara kapaz hainbeste gaiztakeriarako, erdiesten jakin baldin baduzu soilik zu zarela nire mundua

—Neskatxa... Infusio bat.

—Esan dut ez dudala ni zorabiatzen aritzerik nahi.

Neskatxa gajoa. Zer egin ahal diot nik, zer esan ahal diot. Kulunkatu eta Biascako lamiaren abestia edo Arestuiko behi lodiarena kantatu ahalko banio, baina orain neskatxak jada ez du nire besoek kulunkatua izaten uzten. Zenbat atsekabe dakarren atsekabeak.

Itzal erdi hotzen garaia iritsi eta haurrak eskolatik atera ziren, korrikalditan, pozik txilioka etxerantz, non zain zeukaten arratsaldeko ogia olioarekin, Vall d'Aranen fronteko lerro finkoa finkatu eta telefono frankistei kea zerien bitartean laguntza gehiago eskatuz. Eskolako sukaldean prestatu zuen Azken Afaria, beste guztiak bezala, Básconesek, patriotak elikatzeko desioz, duela bi egun pasa zion konfitatuaren hondarrak ziren, patata moduko batzuk irakiten jarriz eta ogi-mutur batekin eta ardo-urruparekin luzatzen zuena, bere emakumezkoetan pentsatzen zuen bitartean, Rosa, izenik gabeko bere alabatxoa eta Elisenda harritua pistolaren aurrean, zeinak, ikusten zenez ez zuen salatu. Ohartu zen paisaiaren isiltasuna ohiz baino pixka bat dentsoagoa zela. Baina are arraroagoa zen Targaren isiltasuna, zeina oraindik ez zitzaion etorri tu quoque jaurtitzera, zuk hil egin nahi ninduzun, zu izan zinen, kabroi hiltzazilea, beldurra begien ninian ikusi zizun Lore Ederrak esan baitit. Zergatik, nire kamarada izanik? Eta Claudio Asín? Eta Targa doktorearen anatomia-lezioak? Eta Caudilloa, kaguendioro?

Urrats presatu batzuk entzun zituen eta Jaumet, beti gora eta behera korrika zebilena, dena bizitzeko presa izango balu bezala, bat-batean aurkeztu zen ganbera-atzekoan eta konfitatuan paratu zituen begiak harenei ez begiratzearren. Geldi geratu zen, isilik, hatsanka.

—Zer nahi duzu, Jaumet?

—Ossian izeneko norbait omen daukazu zain elizan.

—Nor?

—Ossian.

—Zeinek esan dizu?

—Esan dit ezin zela esan. Lagun bat zela.

Ordu erdia falta zen komunikazioei berrekiteko eta, hiltzekotan, ez zuen eskola abandonatu nahi.

—Eta mosen jauna?

—Mosen jauna Seun dago. Dio esateko lagun batzuk direla.

—Zuk ez esan ezer honi buruz. Sekula ez.

—Ez, jauna.

—Nahi al duzu pixka bat?

Jaumet Serrallacek antsiaz begiratu zuen maisuaren platerera, baina esan zuen, ez, eskerrik asko, eta korrikari jo zion etxerantz, heriotzaren mezulari bihurtua zela jakin gabe.

Oriolek, behin bakarrik, Ventura ekarri zuen gogora: agian txikizioa prestatzen ari zen Udaletxearen aurka. Jainkoarren, egiten badute, oraindik salba naiteke. Platera alde batean utzi eta alibiatuta sentitu zen une batez; ez zitzaion bururatu Ossiani buruz soilik Valentírekin mintzatua zela. Abrigatu egin zen, eta gelatik igarotzean, arbelari begiratu eta pentsatu zuen, alabatxo, izan zaitez pertsona duina. Eskolatik irtetean zerbait haztatu zuen abrigoko poltsikoetan; oraindik zeramatzan Elisendak itzultzen zizkiola ikusarazi zituen bi liburuxkak. Hala ere, irribarre egin zuen.

—Orain bai hartuko dudala infusio bat, Bibiana.

Oraindik atzera begiratu zuen Oriolek, eskolako eraikinerantz, eta hotzikara sortu zitzaion, izan ere tokia, nondik eskola kontenplatzen zuen, berak eta Rosak lehen aldian ikusi zuten toki berbera baitzen, eta nondik Akilesek, indarrak berrartu eta oinetako zauriak sendatzeko egun batzuen buruan, mihia aterata bere bidaia ezinezkoari iparralderantz segitzea erabaki zuenean Yvesen eta Fabriceren arrasto ikusezinari jarraituz, berari begiratu eta bihotza pixka bat apurtuta utzi zion. Bidea Udaletxearen aurretik egitea ekidin zuen.

—Eta koñak-kopatxo bat?

—Baina, neskatxa, zuk...

—Koñaka, Bibiana.

Torenako San Pere elizak atea doituta zeukan. Prekauzioz bultzatu zuen. Barruan, dena zen iluna. Freskotasun eta hezetasunezko bafada eta antzeman ezinezko zarata metalikoa etorri zitzaion. Lanpara elektriko bat piztu zen, aldareko bonbilarena.º

Konturatu zenean ikatzezko begietako Ventura eta bere enboskatuak Targa alkatea eta haren falangistak zirela, beranduegi zen edozertarako.

—Kaixo, kamarada.

Agur, pentsatu zuen. Agur, alaba. Agur, muino. Bost gizonei begiratu zien.

—Kaixo, kamaradak, zer gertatzen da?

Valentí Targak seinale bat egin eta gizonetako bi elizatik atera ziren presaka. Valentí banku batean eseri eta Orioli so egin zion kuriositatez, Balansók arakatu eta pistola aurkitzen zion bitartean, makiek erabiltzen zuten Astra bat, andereño; nire izena Balansó den bezala.

—Baina zer gertatzen da?

—Une bat itxaron behar dugu. Nolatan ez zara gu laguntzera etorri?

—Lagundu zertan?

—Hasi berria da inbasio komunista bat. –Buruaren mugimendu arin batekin—: Noiztik daukazu pistola?

—Baina zer gertatzen zaizu? Zer egiten ari gara hemen?

—Itxaroten. Gauza bat konprobatzen ari gara, gaur konprobatu behar ditugun hainbat gauzetako bat.

Keinu bat egin zion Balansóri, eta hark ere alde egin zuen, botak burrunbaraziz eta, beraz, badira une batzuk non ez dakidan bene-benetan zer gertatu zen, andereño.

Aitorleku barrutik itzal bat atera zen, zeina argi-zirkulura hurbiltzen zen neurrian, Elisendaren txofer uzkur bihurtzen zen. Targaren alboan ipini zen, zeinak hatz salatzaile bat luzatzen zuen.

—Elisenda anderarekin jotzen duzu larrua –jaurti zuen.

—Zertara dator hori orain?

—Nik ere jo nuen harekin –jarraitu zuen Targak–: txortaldi ederra dauka, ez da?

—Noski, nik ere jo dut. –Lehen aldia zen Oriolek Jazinto Masen ahotsa entzuten zuela. Prakazale hutsa da. Baina zuk ez zenuke ukitu behar, maisu jauna.

—Ez dut ezer ulertzen.

—Ez esan ez dakizula zertaz ari garen...

Jazintok aho mehatxatzailearekin jaurti zuen hura, eskua poltsikoan sartu eta libreta zimurtu batekin aterazen zuelarik.

—Eman abrigoa, Bibiana.

—Ez al dakizu arazo handiak daudela? Nora joan nahi duzu?

—Ez izan astuna. Abrigoa.

Libreta hartu eta orriak pasatzen hasi zen, lehenik erpurua txistuz bustiz, liturgikoagoa egiteko.

—Nahi al duzu, zuk eta andereak, elkar ikusi duzuen aldiei buruzko errepasoa ematea?

—Benetan... –Oriolek Targari so egin zion, desorientaturik–: Ez dakit zein den zure jolasa.

Targak altxatu, modu artifiziotsuan barre egin eta esan zuen, ni ez nago jolasean; bat-batean barre egiteari utzi eta Oriolen aurrean plantatu eta xuxurlatu zuen, oraindik itxaroten gaude.

Zarata elizaren atarian. Targaren gizonak Valentíren aurrean utzi zuten gauza batez kargatuta itzuli ziren. Irrati-emisora zen. Orain bai agur, alaba, agur muinoak, eta jota-bost pikutara. Arretaz aztertu zuen aparailua Targak; miresmen-txilio batek ihes egin zion. Gizonetako batek konfidentziak egiten zizkion belarri ondoan eta hark baietsi egiten zuen botoiak eta etengailuak aztertzeari utzi gabe. Orduan Oriolen pistola hartu eta hura ere arakatu egin zuen.

—Modelo hau ez al da...

—Makiak darabilena –konfirmatu zuen Arcadio Gómez Piék.

Targa Oriolen aurrean paratu eta ahopeka hitz egiten hasi zen, bere hitz ezinezkoek eskandalizatuta, zuk akabatu egin nahi ninduzun, zu izan zinen, kabroi hiltzailea, atzetik, koldarrek bezala; zergatik nire kamarada izanda? Zergatik tiro bat garondoan, nik dena eman dizudalarik? Noiztik? Zertan jolasten ari zara? Nor zara?

Bonbilaren argia, Valentíren begi haserretuetan eta Jazintoren antsiotsuago eta isilagoetan errepikatuta.

—Esan duzu tropen mugimenduei buruzko albisteak daudela?

Valentí Targak harrituta begiratu zion, desmuntatuta.

—Ulertu al duzu zerbait esan dizudanaz? –Irratia seinalatu zuen–: Konturatu al zara zer zeneukan zure etxean?

—Ez dakit zertaz hitz egiten didazun. Zergatik hil nahi beharko zintudan nik?

Valentí Targak makiaren pistola hartu, kargatu eta Oriolen bekokira destatu zuen. Tiro egitera zihoanean, oihu bat eta atearen kolpea hormaren kontra entzun ziren:

—Aski da! Ez! Ez egin!

Elisenda sartu eta urrats erebakituekin jaisten zituen hiru mailak. Jazintok, erreflexu onekin, ilunperantz erretiratu eta aitorlekuaren barruan sartuta amaitu zuen eta Oriolek irribarre bati ematen zion hasiera, bere maiteari begiratzeko mugimendu bat abiatuz, Targak katua sakatu zuen une berean. Tiro-hotsa elizako bobeda estuetan jo eta Oriol Fontellesen buru barruan lehertu zen, zeinak oraindik ez baitzuen irribarrea galdu eta ez zuen denborarik izan oker ziurtatzeko baietz, kafe ttanttodunaren erruz eta hainbat lan oraindik egin gabe hiltzen zela.

—Zer egin duzu?

—Ordenak bete.

—Esan dizut ezen...

—Beranduegi.

Targak armaren heldulekua painelu batekin garbitu eta gorpuaren albora bota zuen, destainez. Orduan sarrarazi egin gintuen. Maisua lurrean zetzan eta hil zuen pistola ere bai. Eta zin dagizut ni kanpoan nintzela, zigarrotxo bat erretzen, eta ez nuen deus ikusi, hau da, ezin nauzu ezertaz salatu.

—Ez al dizut esan dena preskribatuta dagoela? –Tinak literatura, arte plastiko eta musikarekiko laguntzen fotokopiarantz seinalatu zuen lausoki.

Sant Pereko kanpaiak t'erdiak jotzen zituelarik, oraindik entzuten zen Elisendaren orroa eta tiroa Oriolen buruan. Orduan, dena hasi zen kolpez gertatzen, Historiak, gehiegi entretenitu gabe, miseria haiek kitatzeko presa balu bezala. Targaren tiroa erreklamoa izan balitz bezala, Arbesséren aldetik zetorren tiroketa entzun zen eta Targak azkar erreakzionatu zuen, oraindik Careguerentzat lanean arituko balitz bezala, eta bere gizonekin atera zen, ulertu baitzuen gerrilla Udaletxeari eraso egiten zegoela bera bertan harrapatzeko. Nahasmenduko minutu batzuk izan ziren, makiak eraikinean sartzen, Marcó tenientea eraikineko lau gelak errepasatzen, ateak amorruz irekitzen eta esanez, izorratu da, mekagoen otsoa eta bost hienak, eta gero oihukatzen, kanpora, kanpora, antza denez ikusi gaituzte, tranpa bat izan daiteke, baina jadanik ezin izan ziren atera falangisten komandoak tiro-zaparrada batekin hartu baitzituzten kanpo aldetik, paperak trukatuta, makiak Udaletxea defendatuz eta Falangea eraso eginez.

Lurrean eserita, aldarearen aurrean, Elisenda Vilabrúk Oriolen gorputz erdi tentea besarkatzen zuen eta haren buru zulatua bere bularraren kontra bermatzen, gorritzen baitzihoan. Aldarerantz begiratzen zuen, Orioli begiratzen zion, besarkatzen zuen, eta arnasa hartzen zuen, ezer esateko ezgai. Handik luzera arte, bakarrik zegoela uste izanda, ez zuen esan, Oriol, nik ez nuen nahi, Oriol, maitea, bizitza, nire arima... Bere bularraren kontra jarri zuen. Aurpegiari begiratu zion, begi irekiei, beira hotzaren tonua hartzen ari zen begiradari eta bere bihotzaren kontra estutu zuen pentsatzen zuen bitartean, aita, neba eta nire maitasuna, nire bizitza heriotzaz beteta dago, eta orain nire erruz, zin dagizut konpentsatuko zaitudala. Ene Jainko, zein injustua zaren, zein zigor ikaragarria ematen didazun, ni zure eta zure Elizaren zerbitzari fidela izanik. Ostera Oriolen burua besarkatu eta, ahots hautsiarekin, orduz geroztik zioen errezoa jaurti zuen, Jainkoa, presta zaitez.

—Anderea, hilda dago –Jazintoren ahotsa, hainbeste maitasunez hunkituta, entzun zuen atzetik esaten, Targaren komandoa ostera sartzen zelarik.

Andreu Balansók beste edalontzi erdi bat ardo zuri zerbitzatu zuen, pozik jatetxe bakarti hartan inork ez zuelako zorabiatzen inori kalterik egiten ez dion ardoa ostera hartzeagatik.

—Elizara itzuli ginenean, makien erasoa kontundentziaz egotzi ondoren, oraindik barruan zegoen anderea. Eta alboan bere txoferra. Ba al zenekien maitaleak zirela?

—Nor?

—Txoferra eta anderea?

—Nola dakizu?

—Jazinto eta biok adiskideak ginen. Xehe-xehe azaltzen zidan. Anderea oso maitemintuta zegoen eta bikain tratatzen zuen. Eta hori bere txoferra izanda! A propos, azaldu zidaten hil zela modu pixka bat.

—Pixka bat zer.

—Pixka bat, esateko moduan.

—Zer esan nahi duzu?

—Nik soilik dakit diotena.

Balansók isiltasun deserosoa baliatu zuen beste tragoxka bat jotzeko. Adats kizkurreko baina jadanik zuritutako kolegak Jazinto Masen aurrean egin zuena bezalakoa, isilik, Zuerako establezimendu ilun hartan, berak ezagutzen ez zuen errekaren alboan, eta bost axola zion, izenez Gállego izatea, Torenako eskolako mutikoei, orain guraso, buruz jakin eta betiko ahaztu zitzaiena, alegia Gállego, Zaragozatik, Ebron ixurtzen den ibaia dela jakitea, ez baitzen ezer funtsezko bihurtu euren bizitzan, eta nola deitzen da beste ibai batean, eta ez itsasoan, ixurtzen den ibaia?

—Ibai-adarra –erantzun zuen Elvira Lluísek, tuberkulosiaz hil baino zazpi hilabete lehenago.

—Oso ongi, Elvireta.

—Oso ongi, Arcadio. Zergatik etorri zara? Andereak bidaltzen al zaitu?

Arcadio Gómez Piék gela behatu zuen: horman zegoen su baxu moduko baten keaz ilunduta. Beste txokoan, apal altu baten gainean, telebista-aparailu abandonatu bat, antena okerrak eta ez nahikoak zituenak, lauzpabost aldiz errepikatzen ari zen, Espainiako errege berriaren koroatzearen une harranditsuenak, gerra bat irabaztea, eskuak ideal batengatik zikintzea, mugimenduaren eta printzipio eta Francorekiko fideltasuna heriozteraino zin egitea eta Caudillo gure gidariaren, gure iparraren, heriotzaren biharamunean, Espainia monarkiko iratzartzea pentsaezina da. Horregatik bi gizonak aparailuarekiko nabarmen bizkarrez ipini ziren, beren edalontzi bat ardo hartzen zutelarik. Gómez Piék ezer erantzuten ez zuelarik, Jazintok jarraitu zuen:

—Ni hiltzera al zatoz?

—Zuk egin al zenuen?

—Zer egin nuen nik.

—Ez dakit.

—Zuk ordenak betetzen dituzu eta kitto.

—Zuk bezala. Beti egin dugu gauza berbera.

—Bai, baina andereak ezin du jasan nik hainbetse urteko lana dela-eta potroetaraino nengoelako eta niretzato denbora behar nuelako abandonatu izana.

—Benetan, zuk eta hark...

—Haren gorputza zentimetroz zentimetro errezita ahal nizuke. Sutsua. Puta samarra, aukeran. Xurgatzaile egundokoa. Auto barruan eta guzti.

—Kontxo.

Irribarre egin zuen Jazintok. Kalkulatzen zuen bere kide ohiaren aurka altxatu ala duintasun-bultzada batekin bere burua hiltzen utzi behar zuen. Pistolero baten esku bere heriotzak eragingo zuen hunkiduraz pentsatzen zuen. Nork esango zukeen Nievesen nebari buruz, hain baketsua bere lorategiarekin eta bere glizinekin...

—Goazen beste tokiren batera.

—Ez da behar –esan zuen Gómez Piék, altxatuz. Eta Jazintok pentsatu zuen, kitto, orain pistola aterako du, bekokira destauko du Targa estiloarekin eta pak, agur. Arcadio Gómez Piék eskua poltsikoan sartu zuen, txanponak atera eta mahai gainean utzi zituen. Esan zuen, tonu lehorrez, mesedez utzi xaxatzeak eta harrokeriak egiteari, edo disgustu on horietakoren bat izango duzu. Eta abenduko hotzera atera zen, ibaiaren alboan paseo moduko hari jarraituz Jazintok harrituta begiratzen zion bitartean, oraindik barrutik dardarka, galdetuz, soilik niri errieta egitera etorri ote da?, pozik aski kementsu izateagtik inolako numerotxorik ez egiteko, eta ardo-edalontzia amaitu eta mihia klaskatzen zuen gizon hark nola alde egiten zuen begiratuz. Eta justu Arcadio fanalaren azpira ailegatzen zelarik, Jazintoren ikusmena lausotzen hasi zen, matrailezurrak paralizatu egin zitzaizkion, zurrunduta, eta munduko aire guztia desagertu zitzaion biriketatik ardo-edalontzia lurrera jausi eta bozkariozko zarata egiten zuelarik telebistaren apalaren azpian hamaika pusketan birrindu aurretik, Jazinto Masen bizitza bezala.

—Zer esan nahi du diotena horrek?

—Ez, ezer ez. Zurrumurruak zeudela andereak... Tira.

Tira. Anderea, tira. Zurrumurruak. Tinak gogoan idatzi zituen, pixka bat zorabiatuta, eta ahalegin bat egin zuen maisua hil zen egunerea itzultzeko, gauza gehiago, ez zekiola ezer ahaztu maisua hiltzen ia ikusi zuen bat aurrean zeukalarik. Horregatik esan zuen, jarraitu, mesedez, dena jakin nahi baitut. Zer gehiago gertatu zen?

—Ez, zera... Ezer ez, eraso haren erruz Udaletxeko fatxadak sarraskia jasan zuela. Oraindik ikusi ahalko dira, obrarik ez badute egin.

—Eta besterik ez?

—Ongi: nire hankak ere sarraskia jasan zuen. Horregatik nabil erren.

—Zer gehiago egin zuten makiek?

—Arratoiak bezala alde egin. Haietako bat hil zuten eta maisua hil ziguten.

Jainkoaren Ama, Jainkoaren ama, Jainkoaren ama guztiz santua, ezinezkoa da, ezinezkoa da. Nola gertatu da. Duela une bat ordea. Goizean ordea. Atzo gauean ordea. Baina nola izan daiteke.

—Ez dakit, mosen jauna. Makiak. Adi non jartzen dituzun oinak.

Mosen August Vilabrú begiak kliskatu zituen Sant Pere eliza barrura sartzerakoan. Bonbila anemikoen argia eskasa izan arren gero azalezina besterik ezin zela izan ulertu zuen argitasun batek liluratuta geratu zen. Beste inori baino gehiago alkateari egin zion so, falangistaz jantzita, banku batean jesarrita, buru makur; lehen aldia zen Targa buru makur ikusten zuela. Gero bere ilobari egin zion so, zutik aldarearen aurrean, odolez zikinduta, aho apalez otoitzean. Eta amaitutakoan, lurrean zetzan gorputza ikusi zuen, aldarearen pean, jainkotasunari eginiko eskaintza balitz bezala. Maisua, Jainkoarren. Hildakoaren poltsiko batetik liburu baten bizkarra ageri zen: Kempisa. Kempisaren maisua. Kempisaren maisua, zulo bat bekokian.

—Jainko Jauna, zer gertatu da?

Ahots leunez Valentí Targa alkateak xehetasunekin azaldu zizkion egitate miragarriak eta nik esango nuke mirarizkoak eta, ahots bare eta makurrenarekin salaketa batekin amaitu zuen:

—Ventura etxeko Joanek egin dio tiroa.

—Nork?

—Fardoen Esplandiuk.

—Altrongo semea ere den hark?

—Bai. Makikoa da –Eskuak aurpegian–: hark hil zuen. Eta nik… ez dut ezer egiterik izan ekiditeko. –Eskuak erakutsi zizkion mosen jaunari: Ez neukan armarik.

—Egia da, nik ikusi dut –ziurtatu zuen Elisendak, itzuli gabe, aldareari begira–. Maisu jauna hiltzaileen eta Sagrarioaren artean kokatu zen.

—Jainkoarren, zergatik hainbeste gorroto, Jainkoarren... –errezitatu zuen mosen Augustek, durduzatuta. Orduan belauniko ipini zen, Sagrarioari so egin, Guztiz Santuaren etengabeko garrari so egin eta bi, hiru malko borobil irristatu ziren haren masail santuetan behera.

—Maisuak Sagrarioa defendatzen zuen –esan zuen hunkituta-. Urrezko katean ipini zituen begiak. Hatzen puntarekin alkandora erdi odoleztatua baztertu eta gurutz moduko bat azaleratu zuen, behar bada gurutze urrekara bat. Ikuste hark malkoz bete zizkion begiak. Belauniko, martiriarengana makurtu eta sutsuki eman zion muin bekokian. Sagrarioaren Babesle Santua, deklaratu zuen ia murmurio batean. Jainkoa, ordainduko didazula ohartarazten dizut, errepikatu zuen Elisendak ahots apalez, desesperaturik, eta bere maite bakar, handi eta ezin zimelduzko gorputzaren aurrean belaunikatu zen ostera.

Lasaitu zenean, mosen August ahaleginez altxatu eta alkateari zuzendu zitzaion:

—Ezin izan al dute inor harrapatu?

Isiltasuna, erantzun modura. Eta gu hotzez hiltzen, elizaren atarain zain alkate jaunaren agindu espresuarekin. Anderearen txoferrak sarrarazi gintuen arte. Kalonjea belauniko zegoen maisuaren gorpuaren aurrean, bai, eta informatu zigun nola gertatu ziren gauzak.

—Hauxe da gertatu dena –mosen jaunak, hasperenka, amaitu zuenean, zurbil, begietan argi ezberdin batekin.

Altxatu egin zen alkatea eta, bere presentziarekin mosen jaunaren alboan, egitateen egia ziurtatzen zuen. Elisenda anderea zutik zegoen, aldarearen aurrean, errezatzen.

—Galderaren bat? –galde egin zuen alkateak bertan zeudenei banaka-banaka begiratu ondoren.

Orduan gertatu zen telefonoetako Cintetak eten zigunekoa. Zen ordua izanda ere, oso dei premiazkoa dago maisuarentzat eta ez dut inon aurkitzen. Eta hemen argia zegoenez... O, Jainkoarren!

—Maisuarentzat? –Elisenda Vilabrú, zutik egon arren, Cintetarengana itzuli zen.

—Bai. Ospitale bateko monja perjuro bat. Zer gertatu da, hemen, Maria Guztiz Santua.

—Jarriko naiz ni, Cinteta –esan zuen andereak, makurtu, martiriaren bekokiaren ondoan musu bat eman, altxatu eta irteteko prestatu zelarik.

Eta ez gehiago esanarazi zeren dena hain nahast... Jainkoaren izenean zin dagit. Egundoko hotza egiten baitzuen, hori bai gogoratzen dudala ongi. Eta sakabanatzeko agindua jaso genuen guk, makiko arratoiak jazarri behar baikenituen. Oraindik ez zidaten errotula txikitu, malapartatuok. Nork ordainduko du bazkari hau, andereño?



HERRI HONETAKO MAISU IZANDAKO

ORIOL FONTELLES I GRAU BEATO MARTIRIARI (1915-1944).

HAREN HERRITAR GUZTIEN OMENALDIA

Torena, 2002ko Apirila

—Granitozko alde nagusiak zizelaren horzkaden marrazkia dauka, oso politta, eta marmol urdineko plaka, letrak zizelkatuta, eder askoa da, ikusi beharko zenuke. Aurkitu baitut, gainera, betak dauzkan harlauza bat, dirudienez erromatarren garaikoa. Pozik egon daitezke. Argi dago eskura ordaintzen dutela. Eta hasi zirenean esaten Sagrarioaren Oriol, Torenako Oriol, Torenako Sagrarioaren Josep, Oriol...

—Jendeak, erridukulua egiten hasten denean, patetiko izaten amai dezake. Ospitalean ingresatu baino lehen goitik behera dena kazetari bati azaltzea pentsatzen dut.

—Zer diozu ospitaleari buruz? Non zaude, orain?

—Ongi, ezer ez.

—Ez, arraioa, non zaude?

—Azalduko dizut. Dena ondo doa. Datorren astean ingresatuko naute, ongi, txorakeria batengatik. Eduki al diezadakezu katua... beraz, hori?

—Noski. –Tonu zimelduagoarekin–: Deitu eta animalia hartzera pasatuko naiz.

ORIOL FONTELLES I GRAU (1915-1944), ALIAS ELIOT.

MAISUA, MAKIA. MARRAZKILARIA. EZKUTUKO MAITALEA.

SENAR TXARRA. HEROIA HALABEHARREZ ETA IZENA EZ EZ DAKIDANALABATXOAREN AITA.

Torena, 2002ko Apirila

Jaume Serrallac haserretu egin zen bat-batean. Eta mahai gaineko kalkoa berregin zuen, ea gustukoa duten, eta zergatik ez zenidan lehenago azaldu ingresatu behar zaituztela, ostia.

—Zer egiten ari zara?

—Ez, probak.

—Erotu al zara? Bihar baitatoz ikustera.

—Edukiko duzu, alaba. Utz iezadazu pixka bat amesten.

—Zu ete zure istorioak.

—Nork jaitsiko da basaltoaren bila?

—Trempera?

—Bai.

Eta nola esango nioke, inoiz esatekotan, nik zortea eduki dudala beti jakiteko haren izena Amelia dela, eta hazten, zalantzak edukitzen, umeak egiten eta haserretzen ikusi dudala?

—Neuk egingo dut, Amelia.

Zazpigarren atala

HARLAUZAREN KANTUA

...etxea isilik, etxea

zu gabe, alabatxo.

VICENT ANDRÉS ESTELLÉS

Ohorezko gonbidatu guztiak desfilatu ondoren, korridore apostoliko luze-luzea zeharkatzeko aulki gurpildun batean jesarrarazten dute, erresistitu arren. Amatxo, arraioa, soilik gu geratzen gara-eta, lasai. Goardia Suitzarreko laguntzaile sanitario isil batek aulkiaren ardura hartu eta desertuaren zeharkaldiari ekiten diote. Bere inguruan, Elisenda andereak Gasullen urrats zalantzatiak intuitzen ditu, Marcelen presatu eta urduriak, Mertxeren takoikada sumingarriak eta Sergiren isiltasun felinoa, zeina zeremoniarako galtzerdiak ez janzteko kapaz den. Bere familia maitea, ideal nobleagoengatik sakrifikatu duena. Nik badakit noraino egin eta ez egin dezakedan, santitate. Baina, alaba, ondo entzun badizut, ulertu badizut, zuretzat hartzen duzu parametro moralak arautzeko boterea. Bai, santitate, badakidalako ondo erabiliko dudala. Nire entzumena ez da lehengoa: benetan esan duzu besteen moralaren gainetik zaudela? Ez dakit esan dudan, santitate, baina badakit tratu berezia daukadala Jainkoarekin. Hori ezinezkoa da, alaba; jagon ezazu harrokeria. Zure absoluzioa nahi dut. Azaltzen didazun guztiak, alaba, elkarrizketa luzeagoa eskatzen du. Horretan ados nago, santitate. Eliza, gogoratu betiko, umilen Eliza da. Eta Escrivá, santitate? Zer? Escrivá; benetan santu bat da ala atzean boterea daukan boteretsu bat? Utzi beharra daukagu, alaba, errieta egingo baitidate medikuek. Zuk pertsonalki absolbatzea nahi dut, Santitate.

Korridore apostolikoa ogi gabeko egun bat baino luzeagoa da. Mertxeren takoikadak doinu groteskoa egiten du, baina hura lasai, horrela delako. Hain prudentea zena hasieran. Eta dena kontenplaziorik gabe apartatu zuen garondo garbiko eta tenazak bezalako eskuak dituen gizon baten erruz, ezin izan zion esan nik ongia egiten dut, nik justiziaren zentzu ebanjelikoa daukat; egiten duenak ordaindu egiten du, santitate, baina ordaintzen du benetan egin duelako, ulertzen al didazu?; nik ez dut sekula interes materialen ez etekin propioen alde jokatzen, zeren hain aberatsa naiz Jainkoari esker, santitate, ez daukat inolako anbizio ekonomikorik. Soilik nire etxekoen alde eta benetan maitatu nuen gizonarekiko oroitzapen eternoaren justizia gose naiz, zeina jadanik, kitto, beatoa da eta egun batean santu egingo dute eta jendeak argi edukiko du nik beti aukeratzen dudala biderik onena. Oriol pertsona ona zen, gaur batzuek haren bizitzari buruzko amarruekin kalumniatu nahi dutena. Ona da Elizak beste beato bat edukitzea. Eta nik egun batean zin egin banuen Oriol aldareetara igoaraziko nuela, bete dut. Absolba nazazu nire pekatu guztietatik, Santitate. Zuk, pertsonalki. Zuk, Lurrean Kristo baitzara.

—Aski da! Ez! Ez egin!

Egunero bezala, Elisenda Torenako Sant Pere elizan sartu eta hiru mailak urrats erabakituekin jaisten zituen eta, egunero bezala, segundo baten aldean berandu iristen zen, eta huraxe zen bere infernu eternoa, eta ez dizut barkatuko zure burua hiltzen uztea defenditu ordez. Sekula ez.

—Zer egin duzu! –Valentí Targari agiraka, zeinak pistola kea zeriola zeukan eskuetan.

—Aginduak bete –zioen beti Targak armaren kirtena garbitu eta begietara gorroto berriarekin so egiten ziolarik.

Irteeran, sartu ziren Jauregi Apostolikoko ate nagusi berberetik irtenda, limusina lasai dago adokinetan larrean. Talde familiarra, aurki gurpildunean eseritako beltzezko anderearengan zentratuta, mailadiaren gainean geratzen da segundo batzuetan, aurrera begira, inoiz sekula egitea frogatu ezingo zuten familiako argazkia ateratzea itxaroten-edo. Hori dena ikusten du Elisenda andereak ilunpetik. Bazkaltzera gonbidatzen zaituztet, esaten du aprentsioz.

—Lana daukat, amatxo. –Marcel amarengana makurtu eta ahots apalez mintzatzen da.

—Hemen, Erroman?

—Bai.

—Eman eskuminak Saverio Bedogniri. –Argazkiko gainontzekoei–: Eta zuek zer egiten duzue, bazatozte?

—Deituko al zenidake taxi bat, mesedez? –Mertxek egun osoan esan dituen ia hitz bakarrak, izotzez beteak.

—Romà, bila diezaiotela taxi bat. –Burua beste aldera makurtuz–: Eta zu, Sergi?

—Hitzordu bat daukat, amona.

—Erroman ez dago uhinik.

—Paramaribon. Hemendik hogeita lau ordura itxaroten naute, eta ezin ditut etsiarazi.

—Jakina.

—Agur, amatxo.

—Agur, amona.

—Sergi, badakizu zer? Lagundu iezadazu zuk aireportura.

—Bai, amatxo.

—Anulatu taxia, Gasull.

—Ados.

—Et zuk, Romà? Zuk ere lana daukazu?

—Zuk agintzen didazuna.

Elisenda anderea itxuraz ahaleginik gabe altxatzen da. Norbaitek aulkia kendu eta Gasullen esku dardartiek besotik oratzen dute. Hark, ahots apalez, beste hainbat eta hainbat alditan lez:

—Bakarrik al gaude?

—Bai.

—Ez da inor geratu?

—Ez. Zu eta biok.

—Anulatu bazkaria.

—Zuk eta biok ez dugu afaldu behar?

—Etzan nahi dut. Gosea galdu dut.

—Nahi duzun bezala, Elisenda.

Mercedes luze, distiratsu, beira sekretuko, isil batek leunki frenatu zuen Marbres Serrallac SLren aurrean, hormatik metro erdira, karrozeria distiratusa hautsez betetzeak beldur emango balio bezala. Txoferrak, jaitsi eta ateetako bat ireki zuen. Oin garbi batzuk, zilarrezko hebiladun zapata erabat beltzetan sartuak, Mercedesetik atera eta lurrean bermatu ziren erabakituki.

Urteak ziren ez zuela Gravat etxeko Elisenda aurrez aurre topatzen. Aurrez aurre bizi arren, harri-ukaldi baten neurrira Major plazaren bestaldean, baina mila istorioko distantzian, oraindik ez zizkion begi itsuak ikusi, betaurreko ilun batzuen atzean ezkutatzen zituenak. Aurrean paratu zitzaizkion, alde banatan txoferra eta bera bezain gizon argal eta ziztrina, asko ikusita daukadan arren ez dakit haren senidea den edo zer.

—Andereak zenotafioa ikusi nahi du –esan zuen senideak edo zer hark.

—Ez da zenotafio bat. Monumentu bat da. Memoriala.

—Dena delakoa.

Tailerretako nabe barrura eraman zituen. Hondoan, zerra zirkular batek belarriak trepanatzen zituen. Serrallacek besoa altxatu eta zerra isildu egin zen, disziplinaturik. Bulego argiztatutik Amelia atera zen, zeina, nor zen konturatu orduko, irribarre zabalarekin hurbildu zitzaien.

—Hain juxtu kamioian kargatzen ari ginen.

Damak burua makurtu zuen senide edo zer harengana. Eta hark ahots ziurrarekin:

—Deskarga dezatela.

Badira tonuak atzera-bueltarik ez daukatenak. Memorialaren hiru tonak ostera deskargatuak eta nabearen erdian ipiniak izan ziren eta Cescek madarikazio bat irentsi behar izan zuen zeren, gainera, eusten zioten brida guztiak kentzea nahi baitzuten. Orduan, Gravat etxeko Elisendak bi gizonek lagunduta hurbildu eta granitoaren alde latzaren gainean ipini zuen esku bat. Eta beste eskua. Orain bai ikusi nahiko zuela ostera. Hain etsirik egokitua zen begiradaren etengabeko beltzera, behar bada bere adimena intentsitatez bizitzen zirauelako, eta are kontzentrazio handiagorekin, distrakziorik gabe. Baina orain, bai, orain bai ikusi nahiko zuela, Oriol, exaktoki nik eskatutakoa egin ote dizuten antzemateko. Monumentuaren itzuli osoa egin zuen, askoz ere aurrerago begiratuz. Eta harria inguratu zuenean, marmolezko plakan zentratu eta letraz letra irakurri zuen, atzamar lehorren mutur gosetuarekin, senide edo zer hark letra haiek ziotena belarrira murmurikatzen ziona. Monumentu osoa errepasaturik, burua itzuli eta ilunpetik esan zuen, Serrallac? Hemen al dago Serrallac?

—Esan –galdetu zuen Serrallacek, zuka tratatu zuelako haserre.

—Eskerrik asko. Exaktoki nik nahi nuena da. Ba al dauzkazu kokapenerako oharrak?

—Bai, bai. Eskola aurrean. Bota ditugu oinarriak.

—Eskerrik asko, Pere.

—Jaume. Pereren semea naiz.

Une batez Elisenda Vilabrú anderea desorientaturik geratu zen. Baina soilik segundo batzuk.

—Semea.

—Badira hogei urte aita hil zela.

—Jakina. –Senide edo zer hari–: Goazen?

Nabea abandonatuta, Ameliak irribarrea ezpainetan zeraman oraindik eta Cesc Torenako maisu santuaren monumentua jasotzeko zintak ipintzera itzuli zen; Serrallacek, pentsakor, eskua autoritatez jaso eta zerra zirkularrak eraginkortasun harekin tinpanoak zulatzen jarraitu zuen.

Zimelduta ni? Imajinazioak. Zer ikusirik dauka Arnauk? Begira, Tina eta biok irekiak izateko borrokatu bagara denetarako prest egoteko da, eta oso ongi iruditzen zaigu Arnau egonaldi bat egiten egotea Montserraten. Ez, ez, ez, egonaldi bat. Lasai, ez baitugu bataiatu ere egin. Horregatik diotsut, tolerantzia-ariketa bat da eta kitto. Ez baita tolerante izan behar soilik diskurtso politikoetan, baizik bizitzan ere bai, aski ongi dakizu. Ez: mutilak bizitzaren bertsio gehiago ezagutu nahi dituela?, bada bikain. Horretan beti izango du nire babesa. Ei, egun osoa mentalitate irekia predikatzen nabilela, hemen asko behar baita, asko. Bai, bai, nik benetan sinesten baitut herritartasun unibertsalean, beraz, nire semeak Montserratera joan nahi badu egonaldi bat egitera, oso ondo, seme, dirua behar duzula, ondo doakizula eta azalduko diguzu. Hori da zeharkakotasuna, ez da? Jakina, gizona. Adin nagusia dauka, aizu. Ez, zimeldurik batere ez, benetan. Problema da ezen... ongi, ez daukadala...

Ezetz, begira; diru bat neukan baina jada ez daukat. Bai, negozio ona dela pentsatzen jarraitzen dut beti egongo baitira inozoak errekatik jaitsiz lepoa hausteko lerdea darienak; nire problema da ez daukadala dirurik. Elkarri itxaroten diogu ala beste sozio bat bilatu beharko duzu. Motel, jakina sentitzen dudala; ideia nirea zen, ez da? Zer? Eta zer ikusirik dauka Tinak? Adoretu nazala? Ongi, izan ere... Ez, kontua da... badira egunak ezen. Tira: banandu egin garela. Entzuten duzuna. Begira, ez dut xehetasunetan sartu nahi, baina... Bai, azken garaiotan oso urduri, asko ez dakit nola. Maitale bat? Ez, ez. Tira, inolaz ere ez. Arraioa, ezagutzen dudalako. Motel, ulertuko duzunez, ez dizkiot urratsak jarraitzen, ez duzu uste? Zer diozu? Ez, Joana adiskide ona da, emakume sentikorra eta eskuzabala, une zail hauetan nire alboan daukadana, baina besterik ez. Ez, alegia, azkar-azkar alokatutako pisutxo bat, bai. Jakina bakarrik sentitzen naizela, baina hobe hau etxean giro txarra edukitzea baino. Ez, ez, jakina, oso presazko gauza bat izan da haren aldetik: egun batean etorri eta esaten dit bere burua aurkitu behar duela, espazio gehiago behar duela maniobratzeko, eta halako zozokeriak. Ez, ui, mestizaia kulturalari buruz hitz egiten diozu eta ez daki zer den, ez da kritikatu nahi dudala, e, baina pixka bat itxia bada. Begira, benetan aritzea nahi baduzu, zinegotzi izatea egokitu zaidanez, Portaren huragatik, badakizu, bai, beraz zin dagizut hainbeste lan batu zaidala, ez daukat astirik hausnartzeko. Arnau? Ez, esan dizut bada ari dela... Ez, ez digu esan zenbat egun egongo den, ez. Monjea? Seme monjea daukanaren aurpegia al daukat nik? Ez, orain Aste Santuan, eskolako oporraldietan lau egun hartu eta Andorrara, aizu. Ongi, bai, Joanarekin, baina horrek ez du ezer esan nahi. Motel, ez dakit xehetasun asko: Pallars, mendi, behi eta ardiei buruzko argazki-liburu bat da, funtsean. Ez, ez, ez dut kritikatzen: ongi da entretenitzea, aizu. Eta are gehiago orain, kakotx artean, maniobratzeko bere espazioa dastatzen ari delarik. Artikulu bat? Hark? Lehen albistea. Makiari buruz?... Ez, ez, ideiarik ez. Arraroa da, ez baitzidan deus esan, eta hori guk dena komentatzen dugularik geure artean; bai, tira, komentatzen genuen. Non atera da? A, bada erosiko dut, bai. Jakina badakiela mugitzen, noski. Motel, egia da nahiko barrabiletaraino nagoela hainbeste behi eta hainbeste ardirekin, baina iruditzen zait ez naizela hemendik mugituko. Ez, sekula ez nahiz asko eskiatzekoa izan: Lau aldiz Tuca Negran, pare bat gehiago Port Aimén eta kitto. Eragozpena da banaketa kaka honekin biluzik geratu naizela. Zu, txanponak kontatzen eta dena. Ez, ez, banaketa zibilizatua. Bai, bai. Motel, azken aldion pixka bat histerikoa, baina ez dut kritikatu eta bere trapu zaharrak atera nahi, hori ez, zintzotasunez eraman nahi dut, badakizu. Ez, ez, ez izorratu gehiago: zintzotasunak zeharkakoa izan behar du, nire bizitzaren alor guztiak hartu behar ditu eta esatea adibidez pixka bat histerikoa

zegoela, egia izanda, eta gero eta ameslariago, hori ere egia izanda, soilik objektibo izatea da, ez da kritikatzeko gogoa. Begira, hain berria da, oraindik ez dut astirik eduki Arnaurekin hitz egiteko. Ez eta katuarekin ere, aizu, puta gaizto hark negoziatu gabe berekin eraman nahi izan baitu; ez, motel, espresio gutxi fortunatua da, ados, baina esateko modu bat da, kontxo, ez etorri orain zu ere; beraz begiratu zer diozudan, nik esan nion, begira, Tina, ez dakit zer alukeria esan nahi duzun maniobratzeko espazio horrekin, baina nik zoriontsu ikusi nahi zaitudanez, onartzen dut. Eta joan egin nintzen pisua utziz, dena beretzat. Erositakoa bai, baina zer nahi duzu, orain balioaren erdia eskatzea? Ez, ez nahiz horietakoa; gutxienez zitala ez naiz. Ongi, bai, teknikoki, bai, izan ere bera izan da apartatu nahi izan duena, baina gehiago balio du une zailean keinu arrazonagarri eta eskuzabal batek beranduegi denean miseria mentaleko jarrerak jasatea baino; argi, ez da? Eta eskerrak Arnau ez dela etxean bizi. Ez, baina amaitzen duenean egiten ari den egonaldia... Ongi, bai, behar bada egonaldi luzea izango da, bai. Ez, motel, esaten dizudala nik, ez dela monje egingo. Eta egiten bada, halako egunean urte bete egingo du. Nola? Ez, bihar udalbatzarra daukat Udaletxean. Ez eta ere, ez. A, bai, ostegunean, bai. Ez, Rendé etxean ez dut nahi... Badakizu, izan ere. Bikain, Escalón. Ostegunean, bederatzietan. Eta behar bada, bukatuko dugu berriketa hau. Bai, badakizu zenbat sentitzen dudan abentura horretan ezin enbarkatzea; bai, inoiz ez hain ondo esanda, enbarkatu, bai. Ez, diodana: lau txalupa, todoterreno bat, behin-behineko kontratuak eta diruz lehertzera, Bartzelonatik, Nogueran zehar, txotxoloak jaitsiarazten, bai.

–*Arnica*ren azken zenbakian.

—Guk hor dirua ipini dugu, ez da?

—Bai. Aski. Urtero.

—Itxi kanila betiko. Zer gehiago dio.

Kanpaiak, pausatuta, entzun ziren solemnitate-era eta keixu-ukitu batekin entzun ziren goizeko hamaikak anuntziatzeko: egunsentian abiatutako haize hotza haize izoztua bilakatu zen. Frente polarra. Orduen azken kanpaikadarekin bat elur-maluta harrigarriak jausten hasi ziren, martxoaren baitan, eta ez ziren urtzen lurra musukatu ondoren. Hormako erlojuak, Elisenda anderea bera baino zaharragoa bera, duintasuna ukituta ikusi zuen klima-aldaketa bat-bateko hura zela medio, baina, ordea, hari bost *Arnica* aldizkariak monumentuaren argazki bat Serrallacen tailerretan argitaratu izana, beste bat maistra ergelarena eta Oriolen aurpegiaren marrazki aztoragarri inedito bat, non azaltzen zen inori, sinistezina zelako, interesatzen ez zitzaion istorio bat, Torenako beatoaren atxikipena maki komunistan.

—Torenako santuaren heriotza bitxia.

—Ez dakit zein interes daukan hori asmatzeko. –Esku-ahurrak begirada itsuan igurtzi zituen, esku-joko bat egin eta ostera ikusi nahi balu bezala–. Haserretzea gustuko banu, esango nuke denak malapartatu eta esker gaitzeko giza txarrak direla.

—Bai. Baina lasai, hori lau katuk irakurtzen dute-eta.

—Ez nago prest onartzeko.

—Zer nahi duzu egitea?

—Ez dakit.

—Baina erreakzionatu beharra daukazu.

—Jaurti iezazkiozu hiruzpalau abokatu. Mugitu beharrezkoa dena. –Sumindura-keinuarekin–: Konpon iezadazu benetan.

—Lasai egoteko diotsut, dena planifikatuta baitago eta ez dut oso gustukoa horretaz mintzatzea. Ostiral honetan ospitaleratuko naute.

—Ostras, barkatu, ba al dakizu Torenan elurra jausten hasi dela.

—Hemen, ez, baina hotz gorria egiten du.

—Ostiralean bertan daukazula ebakuntza?

—Bada, ez. Analitika, radioak eta antzeko gauzak. Biharamunean, kirofanoa, kanpora tumorea eta kimioarekin hasi. Eta mekagoen minbiziaren ama urdanga.

—Barkatu?

—Ez, izan ere, esanak esan, artikuluan ez dator frogarik, horretan arrazoi duzu. Alde batera aterako omen dituen argazki-liburuari buruzko propaganda.

—Bai, baina zergatik kezkatzen zaitu Fontellesen autoerretratu bat atera izanak?

—Ez nau kezkatzen. Ikusi nahiko nuke. Ziurrena da maistrak asmatu izana.

—Artikulu osoa da Fontelles makikoa zela esateko. Obsesio bat da. Marcelekin egin zuen bezala.

—Ba al dakar frogarik?

—Soilik dio maisuaren egutegia gordetzen duela.

—Egutegi ospetsua. Baduela dio baina ez du erakusten.

—Ez dakit zergatik hainbeste interes Fontellesen memoria zikintzeko.

—Zuk sinisten al diozu, Romà?

—Zuk esaten didazuna sinistuko dut nik.

—Mendiko barboren batek kosk egiten ote duen ikusteko botatzen du amua maistra andereak.

—Horrela ikusi nahi baduzu...

—Urteak dira ez dudala deus ikusten, Romà.

—Barkatu. Esateko modua da...

—Badakit. Oso suminduta bainago. Beldurra baino areago heriotzak amorrua ematen dit, gazteegia bainaiz.

—Inork ez du heriotzaz hitz egiten, Tina.

—Egiteko gauza asko dauzkat. Liburua amaitu eta orriak pasatzeko gogoa daukat. Torenara itzuli eta Pamanoren kantuketa entzuteko gogoa.

—Herritik ez da entzuten. Oso behean geratzen da.

—Bada, nik entzun dut. Bertan bizitzearen poderioz, jada ez zara konturatu ere egiten. Eta nire semearekin hitz egiteko gogoa daukat.

—Programa on bat. Badakizu zer? Azkar asko errekuperatuta ikusi nahi zaitut, ez baitut atsegin hainbeste denboran katuak edukitzea, batik bat nireak ez badira. Zenbat urte dauzkazu?

—Berrogeita zazpi. Zuk hil nahiko al zenuke berrogeita zazpi urterekin? Ezetz?

—Nik ez dut sekula hil nahi, ez bainaiz inorekin fidatzen nire lapida egin dezan. Ez eta nire alabarekin ere, begira zer diotsudan.

—Nolako gauzak pentsatzen dituzun?

—Istorio guztiak hilobi batean amaitzen dira. Ba al zenekien?

—Ados: zer nahi zenuke lapidan?

—Ezer ez. Harria. Nekatuta naukate irarritako hainbeste bizitzek. Marmola, ahal bada betaren batekin diagonalean. Harria mintza dadila nire ordez.

—Poeta.

—Ez nahastu, Tina.

—Ondo al zaude, Elisenda?

—Zergatik?

—Aurpegi bat daukazu...

Elisenda anderea, neguko xala bizkarrean, portxera irten zen laguntzarik gabe eta makulurik gabe, zeina soilik etxe barruan eramaten zuen. Imajinatu zuen ezen Marcel, Helsinkitik ala zegoen zegoenetik, Tucako jendeari oharrak ematen ibiliko zela instalazioak ireki zitzaten. Giro aproposa elur-kanoientzako. Eskola zegoen herriko zatirantz biratu eta Oriol ekarri zuen gogora. Metrailadore batekin edo bonba bat eskuan imajinatu nahi izan zuen. Bazka garratza bezala etortzen zitzaizkion goraka, ganbarako oroitzapena, lanpara petrolioduna, irratia, hainbeste durduzatu zuen egundoko amarruaren ebidentzia, Oriolen beldurra pistolaren kanoiaren muturrean, zein etsipen sakona. Orduan ahalegina egiten zuen pintzel fineko Oriolengana itzultzeko, oso atzamar-mami delikatuekin postura zuzendu eta pintzelik meheena, begiak berrukitzekoa, hartzen zuen gizona bera, edo trinkoagoa zen beste pintzel hura, gose-, errespetu-, harridura-nahasketa batekin kontenplatzen zuen bitartean manitemindu zuena. Ezein gizonek ez zion sekula horrela begiratu. Sekula ez zuen esperimentatu, eta ez zuen gerora ere esperimentatuko, gizon kultu, edukatu eta samurrarenganako errespetu- eta kuriositate-moduko hura. Burgos eta Donostiako esperientziek gizonengan mespretxu-keinuz pentsarazi zuten, bi lo-ator gordetzen zituen bitartean, arrosazkoa eta txuria, nezeserraren alboan tolestuta. Zapatilak? Agian bai, ez? Eta lau liburu. Eta mugikorraren kargadorea. Ospitaletik deitzen uzten badute.

—Ez itxaron ezer bizitzatik. Horrela heriotzak ez du hainbeste minik egiten.

—Zuk zer dakizu, Juri Andrèievitx.

—Ordu asko ematen ditut hausnarrean.

Une batez pentsatu zuen maleta gorri hura gela hartan bertan urak bota zituen eguneko saskitxo berbera zela, ura ere gorria, arropatxo, pixa-oihal eta Nenuco botilarekin eta, hara, korrika ospitalerantz monje bat erditzera, zeren data finkoa eduki arren, jakinda ere, aldez aurretik ohartuta egonda ere kontrakizoek beti harrapatzen zaituzte oharkabean, heriotza ia anuntziatua bezala nire bularrean. Arnau, maite zaitut. Beti maiteko zaitut, Oriol, beti, eta badakit ezagutzen nuen modurik onenean egin dudala eta ez zara inor ni epaitzeko: beato egin zaitut, irabazi dut. Zure maitasunagatik, Oriol, beato egin zaitut, mundu guztiak ohoretua. Bihar da egun handia. Herri guztiari irabazi diogu, Oriol, zuk, nik eta gure maitasun sekretuak.

Maisuaren mahaiko tiraderak, bat bestearen atzean, ireki eta lurrera bota zituen Valentí Targak, zuzendutako koadernoak, arkatzak, koloretako klarion-zatiak ongi lerratuta, oroitzapen desordenatuak, estreinatu gabeko ezabatzailea; bizkarretik hil eta gero ipurdia miazkatzen zidan malapartatuak gauzak gordetzen dituen tokia.

—Ganbaran ez da ezer gelditzen.

—Horma faltsurik ez? Zulorik ez? Pentsa ezazue Mauri ustelean, trenkada alu baten atzean gordetzen baitzen.

—Ez dago hormarik, ez zulorik, kamarada.

Denak uniforme falangistarekin, hudoak bezala eskolako eta maisuaren etxeko txokoak hankaz gora jartzen, paperen bila, tropen mapen bila, Targak eskainitako gehiegizko konfiantza konprometitu zezakeenaren bila, eta bera, izuz izerditan, orain ulertzen baitut nola makiaren estatu nagusiak aurkitu zuen Pardines infiltratu bat zela, nire larrutik ordainduko nukeena jakingo balute dena azaldu niola Orioli.

—Kamarada.

Maisuaren etxetik zetorren Gómez Pié. Harrapakin bakar gisara, zigarrokinez beteriko hautsontzia.

—Eta zer?

—Erretzen al zuen maisuak?

—Uste dut ezetz.

—Beraz bisitak zeuzkan.

—Besterik ez?

Benetan egiten zenituen gauzak nigandik ezkutuan, Elisendarekin txortan egin ez ezik. Zenbat sekretu azaldu dizkiezu komunistei, ustel zorrizto hori. Ongi egiten nuen hurrupatu nahi ez zuen batekin erabat ez fidatzearekin, ostia.

Maisuaren aulkian eseri zen Targa, adjektibo kalifikatzaile espezifikatzailearen sekretuak azaltzeko prest balego bezala edo Elvira Lluísi objektatu nezake-zenezake aditza jokatzen jarraitu zedin eskatzeko, zein burukomin zorri alua, ume hau egun santu osoan eztulka, nire esku balego kolpez soluzionatuko nioke eztula. Haren atzean, arbelak ezkutatuta, Oriolen bizitza alabari azaltzen dizkioten koadernoak, haren sekretu bakarra. Ezer ez. Azkarra zen. Ez dauka inor koprometitzeko ezer: ez alde batera ez bestera. Altxatu zen Balansó hatsanka iristen zen unean, zeinak ez zuen belaunean inolako arazorik eduki, izan ere errealitatean moto-istripu batean egingo baitzuen urte-mordo bat geroago, eta objektatuko nuke-zenuke aditz-jokoa errezitatu ordez, esan zuen, kamarada, Claudio Asín kamarada ehorzketarako igoko da.

—Amaren seme halakoa.

—Ohore bat da, ordea, kamarada.

—Nork esan dio...

—Mosen August Vilabrú jaunak berria zabaldu du. Jende asko etorriko da, baita Trempeko kamaradak ere.

—Gerra bete-betean –esan zuen Gómez Piék–. Eta datoz...

—Ez gaude gerran, kamarada –moztu zuen Targak. Liskar bat besterik ez da.

Badakizu, seme? Herri ttikitako kanposantuek familiako argazkiak gogorarazi dizkidate beti: mundu guztiak elkar ezagutzen du eta mundu guztia dago geldi-geldi; bata bestearen alboan betiko, bakoitza bere ametsari begira. Eta gorrotoak desorientatuta hainbeste geldotasunarekin.

—Hauxe da ipini behar den testua, Serrallac.

—Oso ongi, baina caído hitzak tildea darama.

—Ziur al zaude? –Begirada asaldatua bota zion Targak.

—Nire lana da.

—Beraz ipini ezazu. Baina jakiten badut erratu zarela larrutik ordainduko duzu, oso jende garranzitsua etorriko baita.

—Bai, Valentí jauna.

—Ehorzketa-ordurako prest edukitzea komeni da, kanpotik datozen guztiek ikusi ahal dezaten.

—Bai, Valentí jauna.

Gaur, Jaumet, ezin izango dugu hamarretakoa egin. Eta ez dezazula uste, nigatik balitz, ez nuke lapida hau irarriko Oriol zure maisua izanagatik. Ez dut gustuko hiltzaile baten memoria irartzea. Aldian behin gustuko ez ditugun gauzak egin behar ditugu eta hauxe da bat: caído por Dios y por España eta beti buruan izango dugun krimenaren konplizea. Ondo zentratuta dago, e?

—Bai.

—Ikusten? Hemen iltze bat josiko diot.

—Bat txoko banatan.

—Oso ongi, mutiko. Laister irakatsita izango zaitut. Maisuak ez du hainbesteko mira merezi baina ez dakit lana gaizki egiten. Horrela, e?

—Bai. Utz iezadazu fintzen niri, aita.

Larrua gaizki jotako maisua, Valentí jaunak baino gaitz gehiago egin duzuna, izan ere hark ez baitu disimulatzen.

—Serrallac: el yugo y las felchas. Espresuki Lleidatik ekarri dute. Beraz, erakutsi zure dohainak.

—Uztarri hauek herdoilduta amaitzen dute. Hobe da harrian irartzea, Valentí jauna.

—Niri bost. Kontua da gaur ondo ematea.

Hobe haren oroitzapenik ez gordetzea, Jaumet. Eta badaezpada ere, ez azaldu inori esaten dizudan hau. Amen. Nire kontu badaezpada ere memoria pixka bat gordetzea, bide-puska batean pertsona zintzoaren aurpegia eduki baitzuen maisuak eta ezin dut ukatu aholku onak eman zizkidala zure hezkuntzari buruz. Gezurra dirudi bizitzak.

Elisenda, jaiegunetako soineko ilunarekin, arima itzalez beteta eta begirada gotortuta, paper bat utzi zuen Targaren mahai gainean, zeina, zeremoniarako gutxi falta zen arren, bigarren kopa hartzen ari zen armairuko botilatik, hobe sentitzearren.

—Zer da hori?

—Esan behar duzuna.

—Soilik mosen August mintzatuko da.

—Hemendik aurrera esan behar duzuna: grabatu ezazu buruan bikearekin.

—Zuk agindu zenidan...

—Gelditzeko agindu nizun nik. Irakurri ezazu.

Halako zalantzarekin irakurri zuen Oriok Fontelles eraso batean erori zela...

—Caído tildeduna da –salatu zuen, suminduta, Targak.

—Zuk irakurri.

...mendi hauek betetzen dituzten maki-hordei egotzi ahal zaiela, zalantzarik gabe, eta lehen lekukoak daudela zenduaren muturreko heroikotasuna frogatzen dutenak, eta holako gauzak. Targak burua makurtu eta kuriositatez begiratu zion Elisendari.

—Betiko-betiko, edonon galdetzen dizutela, horixe izan da gertatutakoa.

Errematatzeko, poltsa ireki, bilete-sorta bat atera, mahai gainean utzi eta miserable sentitu zen, ematen baitzuen bere sikarioari nahi gabeko heriotza bat ordaintzen ari zitzaiola betiko isiltasunaren truke.

Minutu erdi oso-oso luze baten buruan, bi-biek begien sakonera begiratu zioten elkarri, erreserbarik gabe, harreman intimo sakona praktikatzen ari balira bezala, bat bestearen aurka. Harik eta emakumeak poltsa itxi eta hitzik esan gabe joan zen arte. Bakarrik gelditurik, Valentí Targak, miresmen-pixka batez, hatz-mamiekin balioetsi zituen tratu berriaren ezaugarri materialak.

Bileteak ezkutatzeko denbora zehatza izan zuen, Claudio Asín ospetsuak, berak egin ohi zuen bezala, baimenik gabe, Garaipenak betiko eman ziolako, sartu eta deklamatu baino lehen, kamarada, konminatzen zaitut, Patria eta ongi jaiotako guztien izenean, eroritako kamaradari omenaldia egin eta herri kuttun honetako kale bat Fontelles kamaradaren izenarekin izendatzera, eta Targa alkateak adierazi zuen, zein ideia ona, nolatan ez zait niri bururatu lehenago, eta bere iparra, bere erreferentzia, Claudio Asin, presente, madarikatzen zuen inork eskatzen ez zion tokian sartzeagatik, izan ere Udaletxearen horma eguzkitsuan zintzilik eduki nahi zuen azken gauza bere biktimaren izena baitzen.

—Ideia bikaina iruditzen zait –errepikatu zuen behazuna irentsiz, orain kamarada guztien aurrean, Sant Pere elizarako bidean. Nolako gauza niri lehenago ez otutzea, e?

—Izan ere Claudio Asín Claudio Asín baita –hausnartu zuen berarekin zihoazen filosofoetako batek.

Oso ehorzketa arranditsua izan zen. Sant Pere eliza gainezka zegoen jendez mukuru. Mosen August Vilabrú zen ofiziantea eta, luxuzko mezamutil modura, mosen Bagà eta Bernardo Azorín koronel kastrensea, zeina albisteak Sorten harrapatu zuen brigada batekin Vall d'Aranera igotzen zebilelarik matxinoak txikitzera. Ezkerreko bankuetan, zendu eta heroiaren benetako familia, hau da, haren Falange Españolako kamaradak Claudio Asín jauna buru zutelarik eta Valentí Targa Sau Torenako alkate Txit Gorena. Eta eskuineko lehen bankuan, Vilabrú familiari erreserbatuan, Elisenda Vilabrú anderea, bakarrik bere samin ezkutuarekin, distantzia batera Bibianak lagunduta, zeinak bazekien istorio hura hasi baino ez zela egin. Atzeko bankuetan, Cecilia Báscones eta Savina etxeko, Birulés etxeko, Narcìs etxeko, Majals etxeko eta Batalla etxeko kide guztiak, denak aurpegi latzekin, denak mosen Augusten hitzen atezuan, zeina Sagrarioa bizitzarekin defenditzeko gai izan zen maisu martiriari buruz mintzo baitzen, gizon kementsua eta badakit oso piadosoa, zeinak Sagrarioaren osotasunaren alde bizitza ematean, nola edo hala gu guztion alde eman baitu. Elisendak, buru makur, begiak gehiegizko erruak lausotuta zeuzkan, bere maitale traidorearen zerraldoa esku-eskura, hileta-elizkizunak nola jarraitzen zuen entzunez. Sekula ez dizut barkatu ahal izango, Oriol, zurea baita erru guztia, baina nik konpentsatu egingo zaitut merezita zeneukan zigorra gelditzeko segundo batzuk beranduago iritsi bainintzen, traidore okaztagarria, nire maitea, nola da posible hain sekretu beltza gordetzea, zure begirada Vaquereko iturrietako ura bezain argia izanik, eta nik min honekin bizitzen ikasi beste erremeriodik ez daukat. Sakonean, atetik hurbil, Jazinto, dena ordenan egon zedin zelatatzen, inork ez zitzan bidegabekeriak egin, beste ezein gerrilari sar ez zedin beila apurtzera, oso ongi, Jazinto. Eta bere baitan, pozik baino pozikago, zoriontsu, zeren orain maisua ez dagoelarik, zer tartekatzen da nire eta anderearen artean?

Ni, hemen, zutunik, elizatik urrun asko, han barrutik aldian behin ateratzen diren oihuak entzuten. (¡Vivaespaña!) Ez didate loreak ematen uzten, Joanet, seme; baina emango banizkizu bezala da. (¡Viva!) Gaurkoa Roques Bassereseko botoi urrekarez osatutako sorta potoloa da, denak zuretzat. (Camarada Fontelles, ¡presente!). Jainkoa banintz, bonba bat hartu eta eliza barruan botako nuke bertan harrapatuko bainituen denak. (¡Viva Franco!) Ez dakit inoiz jakingo dudan nire Joan ere ba ote zetorren gaur gauean bisitatu gaituztenekin; etxera ezin izan da etorri, baina bere egiteko moduaren oso arrasto argia utzi du. Zein lastima oraindik Targa ezin akabatu izana. (¡Arribaspaña!) Zure pentsamendua deitoratzen igaroko dut nire bizitza, Joanet, ama baten fatalitate handiena semea hiltzea baita, batik bat maitatzeko, errieta egiteko, meriendatzeko ogia olioarekin askotan emateko eta egunero, iluntzean, leihotik deitzeko denbora izan duzunean.

.

Harrizko koxkara atera zen Jaume Serrallac azken zigarroa erretzera. Zerua estalita zegoen eta lurra zuri. Gravat etxean, aurrez aurre, argi guztiak amatatuta, sarrerakoa izan ezik. Zein abenduko hotza martxo bete-betean, pentsatu zuen. Hobe da oroitzapenik ez gordetzea, Jaumet, esaten zidan. Nola erratu ginen denok. Baina aitak esan zuen oroitzapen-pixka bat gordeko ziola badaezpada ere, jakingo balu bezala Fontellesek azal bikoitza zeukala. Guk egin genion falangista-lapida eta orain beato-monumentua egiten diogu. Marbres Serrallac, beti gezurraren mesedetan. Eskerrak Tinak, bere izkribuekin, benetako lapida egingo diola. Hotzikara sentitu eta gora aldera begiratu zuen. Ezinezkoa izarrik ikustea hodeien errezel atzean. Denak izoztuta egongo ziren. Ostera Tinarengan eta haren zorte txarrean pensatu zuen, hain gaztetxoa, berrogei eta zazpi urte. Paisaia guztia elurtuta zegoelarik, gaueko kriaturak isilik zeuden. Orduan isiltasuna entzun zuen eta, lehen aldiz bizitzan, ur urruna entzun zuen. Poltsikoan zeraman mugikorraren bibradoreak pentsamendua sakabanatu zion. Amelia. Ez al duzu inoiz atsedenik hartzen, alaba?

Oraindik azken zupadekin, Gravat etxerantz distraituki begira, alabaren oharrei kasu egin, eseki eta zenbaki predeterminatu bat zapaldu zuen. Tinaren ahotsa entzun zen, esanaz, orain ezin naiz ipini baina utzi mezua seinalearen ondoren. Benetan garaiz joan da lo egitera, gizajoa.

—Zu, ezin izango naizela goizean etorri, beste harlauza-kargamentu bat atera baitzait Trempen eta alabak planto egin dit. Ez kezkatu, eguerdian pasatuko bainaiz, bazkal aurretik. Agur.

Zorte on eta musu bat. Bisitatzera etorriko natzaizu. A, eta arrazoia daukazu: entzuten da bai Pamanoren kantuketa.

Bip, bip. Agur. Gizonezko-ahots bat, mendi haietako kutsuarekin, tabakoak eta kafe ttanttodunak lakartua, etorkizunari buruz konfiantzaz mintzo zena. Ezezagunak hondoko gela ireki zedin itxaro zuen segundo batez. Ezer ez. Inor ez. Haren onerako, Jurik bere burua ez salatzea erabaki zuen eta bere inmobilitatean ezkutatuta jarraitzen zuen. Telefonoaren zarataren oroitzapena desagertu zenean, ostera gai izan zenean elur-malutak gauza guztien formen gainean eztiki nola pausatzen ziren entzuteko, orduan ezezagunak arnasa leunki hartzen hasi eta ordenagailua piztu zuen ostera.

Jurik estudioko atea abandonatu zuen zer egin ongi jakin gabe eta momentuz egongelan ezkutatu zen, estudiotik zetorkion edozein zarata zelatatuz.

Bere zereginera itzuli zen intrusoa. Berehala bete zituen bost diskekte O.F. inizialak zeramatzan karpeta-artxiboekin, eta beste batzuek, badaezpada ere. Bukatutakoan, ordenagailuaren paperontzira bota zituen artxibo haiek guztiak. Ziurtatu zuen ez artxibo haien ez beste ezein antzekoren trazarik ez zuela uzten. Orduan diskete berri bat sartu zuen birusarekin, atera eta ordenagailua itzali zuen.

Linterna piztu eta ahoan ipini zuen eskuak libre izateko. Mahaiko artxibadoreari ez zitzaion batere zaila egin interesatzen zitzaizkion hiru karpetak ustutzea. Paperak, argazkiak, dosier-karpetak ziren. Dena bere karteran sartu eta artxibadorea itxi zuen. Lurrean, hormaren alboan, maletatxo gorri bat. Ireki egin zuen. Pisuko bestaldean lo zegoen emakumea bidaian balihoa baezala. Arduraz maneiatu zuen: deus interesgarririk ez. Itxi eta aurkitu zuen bezala

utzi zuen. Alde egin baino lehen, badaezpada ere tiradera guztiak biratzea otu zitzaion. Paperak zuritan, blokak, eskolako koadernoak. Eta puru-kutxa bat. Ireki eta, bat-batean, izerdi-uhin bat batu zitzaion bekokian. Eskuz kaligrafiatutako koaderno batzuk, marrazki batzuekin. Gauza guztien iturria. Eta enoratzeko puntuan egon zen. Pisuko bestaldean atsekabezko intziri bat entzun ote zuen iritzi zion.

Eskailerako atea ixtean, bazekien etxe hartan bere presentziaren arrastorik ez zuela utzi, bazekien hamabost minutu baino pixkatxo bat gehiago erabili zuela lana burutzeko, oraindik Doscavallosa landu behar zuela eta egunsentiak gero eta urrutiago harraaptu, hainbat hobeto.

Bakarrik sentitu zenean, Zhivago doktorea estudio ilunean sartu zen. Beti bezala zegoela zirudien baina berak angustia bat sentitzen zuen hemen barruan. Zirkunstantzien mailan egon ez izanaren arrotz moduko bat.

Poza ematen zuen monumentuak, kolore zehazgabeko oihalez estalita. Misterioa areagotzen zuen oihalak eta, Evaristo alguazilak, haren aurrean, hainbeste harri artean ttikituta, jendea elizatik irten zedin itxaroten, pentsatzen zuen, gaur bai betikotuko nautela argazki bakar batzuetan. Azkenean hasi ziren irteten, maiatzeko argitasunak liluratuta, eta nahi gabeko prozesioan bezala, eskolako eta monumentuko plazatxoraino zihoazen. Lehen lerroan, non hogei bat aulki zeuden, Elisenda anderearen eta Gasullen ondoan, Cecilia Báscones apainduak orduak zeramatzan aulki bat erreserbatuta. Perilinfoandenitisa. Haren aldamenean, Bringué alkate eternoa, oso aldatuta, ile gutxi, lunbagoa izan arren irribarretsu, udalbatz osoak eta Hezkuntzako zinegotzi arranditsuak lagunduta. Sorteko hezkuntza, kultura eta kiroletako zinegotzia ez zegoen iriribarretsu, gehiegizkoa baitzen santuen eta beatoen kontu hori, jainkoarren, hogeita batgarren mendea. Mutil bat ipini zitzaion alboan, agintari bat balitz bezala. Tokia publiko arruntarentzat ez zela esatera zihoan, eta horregatik begiratu zion. Harriduraz izoztuta geratu zen.

—Kaixo –esan zuen mutilak.

—Arnau, zer egiten duzu hemen?

—Baimena eskatu diet nagusiei. Ez nuen espero zu hemen ikustea, egia.

—Karguko betebeharrak –Martiri-aurpegia Jordik–. Nola zaude?

Haien aurrean mosen Rella, betebeharra betetzeagatik pozik, gotzain jaunaren alboan zegoen eta hatzak lehorki klaskatzen zituen abeslari ttikiei begira agindu kontraesankorrak bidaliz, dena ondo joatea nahi baitzen herriko familia guztien adiskidetze definitiboaren mesedetan.

Aulki erreserbatuetan jesarririk zeudela, Elisenda andereak Gasullen mugikorra hartu eta esan zuen, non zaude.

—Bruselan. Jakin al daiteke zer azaldu diozun Bedogniri?

—Zuk niri ez oihurik egin. Soilik gogoratzeko da, nahi baldin badut, agindu dezakedala.

—Dena nire esku dago-eta!

—Jakin dezazun, nahi baldin badut erabakitzen jarraitzen dudala.

—Utikan santu eta beatoak. –Protesta-moduan–: Amatxo, lana daukadala!

—Zure aita zen, Marcel.

Eta Gasulli itzuli zion mugikorra, zeina deskonektatu eta kontatzen hasi zen, bere maitearen belarritan, gotzain jauna erdian jarri eta urez betetako hura daramala.

—Antoxina.

—Beraz, hori. Eta beste apaiz batek liburu bat ireki du orain.

—Zenbat jende dago?

—Gainezka –Gasullek gezurretan–. Jendetza eurak ziren, agintariak, Báscones eta beste hogeita hamar bat lagun, Vatikanora bidaiatu zuen delegazioa baino gutxiago.

Mundu guztia prestatu bitartean, Arnauk bere aitaren belarrira xuxurlatu zuen, Gasull balitz bezala.

—Nola dago ama?

—Ez dakit.

Isiltasuna. Bi-biak aurrera begira, izararekin estalitako monumentura, eta Evaristo aintzaren atarian.

—Zerbait gertatzen al da?

—Ez, izan ere... Ulertuta neukan gaur ospitalera joan behar zuela arazo bat zela-eta.

—Zer dauka?

—Koskor bat bularrean. Baina ez dit ezer komentatu nahi.

—Orain bertan non dago?

—Zer dakit nik!

—Ez dakizu?

—Ongi: bidali didan oharraren arabera Trempen alboan izan behar du.

—Kontxo. Agian bidean gurutzatu gara.

—Zure ama eta biok banandu egin gara. Ez du nahi ospitalera ikustera joan natzaion.

Arnauk burua zuzendu zuen. Une batez aho zabalik egon zen.

—Ez da izango nire erruagatik, nire erabakiagatik.

—Ez. –Erantzun lehorra–. Ikusten denez maniobratzeko espazioa behar du. –Eta begietara so eginez–: Zentzatzen denean dena konponduko da, ikusiko duzu.

Otoitz egingo dut zuen alde, esatera zihoan mutila, baina garaiz isildu zen.

—Orain gotzainak alkatearen presentzia eskatu du eta antoxinaren barruko tresna hartu du.

—Isipua.

—Hori da. Suposatzen dut orain izara erretiratuko dutela.

—Niri ez diezadatela deitu...

—Badakite, Elisenda, emakumea... Zu ez zaituzte molestatuko.

—Zeinek kenduko du izara?

—Suposatzen dut emakume honek...

—Nolakoa da?

—Txikitxoa, berriketaria, oso margotua.

—Báscones.

—Ez al zaizu ondo iruditzen? –denetarako prest, Gasull jaunak.

—Niri bost axola. Zer gehiago?

—Ez, orain emakume hark izara mutur batetik hartu eta tira egiten duela. Ongi, ez. Lagundu beharko diote. Bringué alkateak.

Elisenda Vilabrúk sudurra zimurtu zuen izen hura entzutean. Eta soilik esan zuen, zer gehiago, zer gehiago?

Izara erretiratu eta Oriol Fontelles Grauren omenezko monumentua erakutsi zieten, bere handitasun guztiarekin, hogeita hamar bat kuriosoei, zeinek kontenplatu zuten nola, granitoaren eta marmolaren artean, diagonalean, eternoki deskontentu zeuden batzuek beren mezua utzi baitzuten esprai beltez. "Fatxak, kanpora", zioen. Eta Evaristori ileak laztu zitzaizkion, arazoak izateko unean baitzegoen, eta ohorezko argazkiari agur esaten has zitekeen.

—Zer da isiltasun hau?

—Ez, jendeak... –Gasullek ez zekien nola begiratu–. Hain monumentu polita da... Eta primeran dago hemen.

Elisenda Vilabrú anderea txaloka hasi zen bere esku mutuekin. Gasull gehitu zitzaion. Eta Báscones. Eta mosen jauna. Eta bi herritar gehiago. Jordi, ez: ezker-eskuin begiratzen zuen, kezkati, eta garrazki kexatzen zen esanaz, non demontre sartu naiz, nor zen gizon hau orain faxista bat izateko, hain ondo egongo nintzen ni beste edozein tokitan eta hemen txoropitoarena egiten apaizekin eta dena grafitiz betetzen duten drogazleekin, hau metroa balitz bezala; batik bat ez diezadatela argazkirik atera.

Jende gehiagok egiten zuen txalo, ia mundu guztiak. Hain txalokatze ahula zen, Elisenda konturatu zen Gasullek gezurra esan ziola bertaratutakoen kopuruari buruz. Gutxi edo asko izan gaur ohoratzen zaituztenak, hau hasiera baino ez da, Oriol maitea zerutan zarena, erreibindikatua izan dadila zure izen maitatua; soilik hasiera, koadro bukatuaren aurrean txalo egin eta arte-lan bat da esan nuen egunean bezala.

—Ez dakit –erantzun zuen nire maitasunak, alegia zuk–. Baina nire baitatik atera da.

Eta hori izan zen hasiera, zeren abiapuntua bekokian eman nizun musua izan baitzen, koadroaren aurrean, zuk egunak igaro ondoren pintzelekin ni musukatzen. Nola izan daiteke gero ni traizionatzea? Zergatik jarri ninduzun ezpataren eta hormaren kontra, nire perfido miserablea?

Negarrez hasteko zorian egon zen jendeak aulkiak mugitu eta mosen jaunak ez dakit zer esaten zuelarik egun handiari buruz eta gainezka geneukan hunkidurari buruz. Ikusten al duzu, Jainkoa? Beatoa da: nik irabazi dut. Nahi duzunean, hil naiteke. Bitartean, nire maitea, zu konpentsatzera emana biziko naiz, naiz eta Jainkoak nahi ez.

Delikatuki, Elisenda Vilabrúk bularrean zintzilik zeraman gurutze erdia haztatu eta pentsatu zuen, eguzkia eta izarrak mugitzen dituen maitasuna.

CRISTINA BROS I ESPLUGUES

(1955-2002)

ZURE SENARRAK ETA ZURE SEMEAK

GOGOAN IZANGO ZAITUZTE

GB

Sekula ez dago ezagutzerik desgraziaren amaiera. Ospitalera ere ez zinen iritxi, gizajoa. Gauero, nire insomnioaren erdian, Pamanoren ahots urrunak entzuten ditudan bakoitzean, zutaz pentsatuko dut. Alde guztietatik bilatu ondoren, Sant Antoni urtegian aurkitu zintuzten, zu, zure beldurrak eta Doscavallosa. Zure katua gordeko dut, a propos baina ez zenidan esan nola duen izena. Tina Bros, mila bederatziehun eta berrogeita hamabost, bi mila eta bi. Berandu ibili naiz zentzua eta bi daten arteko tartea betetzen laguntzeko. Katuaren izena Noladuzunizenaezdakit izango da. Denbora zen ez nuela negarrik egiten, Tina. Ba al dakizu ilusioak egiten hasita nengoela?

Matadepera, 1996-2003